

Aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritza: globalizazio neoliberalari buruzko diskurtso sozio-ideologikoak

Zesar Martinez Garcia



2002ko «Euskal Gizartearen Egoera» Sariaren irabazlea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA

ALDAKETA SOZIALAREN PRODUKZIOA ETA GIDARITZA: GLOBALIZAZIO NEOLIBERALARI BURUZKO DISKURTSO SOZIO-IDEOLOGIKOAK

Zesar Martinez Garcia

2002ko «Euskal Gizartearen Egoera» Sariaren irabazlea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

PRESIDENCIA

Dirección de Estudios y Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2003

MARTINEZ GARCIA, Zesar

Aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritza : globalizazio neoliberalari buruzko diskurtso sozio-ideologikoak / Zesar Martinez Garcia. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003

p. : cm.

ISBN 84-457-2002-3

1. Sociedad-Euskadi. 2. Euskadi-Situación social. I. Euskadi. Gabinete de Prospección Sociológica. II. Título.

316.32(460.15)

308(460.15)

Ikerlan hau “Euskal Gizartearen Egoera” Sarira aurkeztu zen 2002ko deialdian ondoko izenburuz: “Giza egintza, gizartearen egiturak eta aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritza: globalizazioari buruzko diskurtso sozio-ideologikoak”, eta sari horren irabazlea gertatu zen.

Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak ikerlan hau argitaratzeari egoki deritzo, bere interes zientifikoa kontuan hartuz. Hala ere, testu osoaren erantzukizuna erabat ikerketaren idazleari dagokio eta ez beste inori.

Argitaraldia:	1.a, 2002ko urtarrila
Ale-kopurua:	1.500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Lehendakaritza
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Azaleko argazkia:	Mikel Arrazola
Fotokomposizioa:	Composiciones RALI, S. A. Particular de Costa, 8-10 - 7. ^a - 48010 Bilbao
Inprimaketa:	Estudios Gráficos ZURE, S. A. Carretera Lutxana-Asua, 24-A - Erandio-Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	84-457-2002-3
L.G.:	BI-1984-03

*Amari eta Aitari,
euren lanarekin
bidea urratzeagatik.*

*Biotza, Markel eta Ametsi
bidelagun maitagarriak izateagatik.*

AURKIBIDEA

AURKEZPENA / PRESENTACIÓN	9
SARRERA	11
I ATALA: GIZA ARTEKOTASUNA ETA ALDAKETA SOZIALA, AZTERKETA TEORIKOA	17
1. Giza egintza eta gizarte-egiturak pentsamendu soziologiko klasikoan	19
1.1. Modernitatearen aldaketa soziala: gizarte-ordenaren eta giza egintzaren arazoa soziologiaren hastapenetan	19
1.1.1. Emile Durkheim: egitura normatiboen izaera objektiboa eta derri-gortzailea	28
1.1.2. Max Weber-ren soziologia konprentsiboa: giza egintzaren sena edo zentzu soziala	32
1.1.3. Egitura, egintza eta praxia Marx-en pentsamenduan	39
1.2. Egintza sozialaren egitura: Talcott Parsons	49
1.3. Hegemonia funtzionalistaren ondorengo garapen teorikoak	55
2. Giza egintza eta gizarte-egiturak: proposamen teoriko integratzaileak	69
2.1. Jeffrey Alexander eta Azterketa Multidimentsionala	69
2.2. Anthony Giddens eta Estrukturazioaren Teoria	79
2.3. Pierre Bourdieu: zentzutasun praktikoa eta <i>habitus</i>	96
3. Giza egintzaren teoria eta egintza kolektiboa	103
3.1. Giza egintzaren sormena: Hans Joas	103
3.2. Alain Touraine eta Subjektuaren Soziologia	117
3.3. Piotr Sztompka eta gizarte-bilakaeraren teoria	135
4. Giza egintza eta gizartearen egitura: elkarren osagarriak	152
4.1. Giza egintza	158
4.2. Gizarte-egitura eta reifikazioa edo galdutako gizarte-boterea	161

4.3. Praxi soziala eta giza agentziaren ahalmen eraldatzailea	165
4.4. Subjektuaren deszentralizazioa eta praxiaren zentralitatea	168
4.5. Aldaketa sozialaren determinismoa: historiaren meta-narrazioak	171
II ATALA: GIZA ARTEKOTASUNA ETA ALDAKETA SOZIALA, AZTERKETA ENPIRIKOA	177
1. Sarrera	179
2. Azterketa enpirikoaren helburuak	180
3. Planteamendu metodologikoak	182
3.1. Diskurtsoen azterketa soziologikoa	185
3.2. Eztabaida-taldeak, hiruko taldeak eta elkarrizketa pertsonalak	189
3.3. Praktika kualitatiboen diseinu teknikoak	192
4. Globalizazioari buruzko diskurtso sozio-ideologikoen produkzioa	200
4.1. Adaptazioaren diskurtsoa	201
4.2. Ezintasunaren diskurtsoa	206
4.3. Itxaropenaren diskurtsoa	212
4.4. Aurkakotasunaren diskurtsoa	218
5. Diskurtso sozio-ideologikoen interpretazioa azterketaren helburuen arabera ..	227
5.1. Aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko pertzeptzioak	228
5.2. Gizartearen produkzioa eta gidaritza	238
5.3. Giza egintza eragilea eta partaidetza kolektiboa	247
6. Diskurtsoen interpretazioen ondorioak azterketaren helburuen arabera	258
III ATALA: GIZA ARTEKOTASUNA ETA ALDAKETA SOZIALA, ONDORIOAK	267
1. Sarrera	269
2. Gizartearen irudikapena eta partaidetza kolektiboa	269
3. Giza artekotasuna: giza egintza eta gizarte-instituzioak	273
4. Giza artekotasuna eta aldaketa soziala	277
BIBLIOGRAFIA	281

AURKEZPENA

1996ko ekainean *Euskal Gizartearen Egoera* izeneko saria sortu zen Euskadiko egoera soziopolitikoa ezagutzen eta ulertzen laguntzen duten azterlanak eta ikerlanak sustatzeko. Sari horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko soziologia ikerlanak nabarmendu nahi dira, ikerlanotan ikuspuntu originala edo metodologia berezia erabili bada edo ikerketa arloari berrikuntza badakarriote ikerlanok. Horrela, gizarte zientzietako ikerkuntza ere bultzatu nahi da EAEn.

Azterlan honek 2002ko saria irabazi zuen eta egilea —Zesar Martinez Garcia— “giza egintza” eta “gizarte-egituraren” arteko dikotomian oinarritzen da, gure muga geografikoak gainditzen dituen analisia egiteko.

Lana hiru ataletan egituratzen da: lehenengoan giza egintza eta gizarte-egituraren azterketa soziologikoa ikuspuntu teorikotik egiten da; bigarrenean enpirikoki aztertu da partaidetza kolektiboa. Aztergaia, beraz, hauxe da: mugimendu sozialen bitartez gauzatzen den partaidetza kolektiboak nolako hartu-emanak daukan gizarte-instituzioak eta egiturak antzemateko moduarekin, baita gizartearen produkzioa eta aldaketa irudikatze-ko moduarekin ere. Horretarako, meto-

PRESENTACIÓN

Con el ánimo de impulsar y promover la realización de estudios que contribuyan a mejorar la comprensión de la realidad sociopolítica de Euskadi, en junio de 1996 se creó el *Premio Realidad Social Vasca*. Este premio tiene por objeto distinguir los trabajos de investigación sociológica en el ámbito del País Vasco, que destaquen tanto por la originalidad de su planteamiento como por la metodología empleada y supongan, además, alguna innovación en el campo de la investigación. Con ello se contribuye además al desarrollo de la investigación en el País Vasco en el campo de las Ciencias Sociales.

El presente estudio, ganador de la convocatoria de 2002, es fruto del esfuerzo y trabajo de su autor, Zesar Martinez Garcia, que en esta investigación, de amplio encuadre geográfico, toma como punto de partida la dicotomía entre “acción social” y “estructura social”.

El trabajo se estructura en 3 partes: En la primera se realiza un análisis sociológico de carácter teórico de lo que se entiende por “acción social” y “estructura social”. En la segunda se analiza de forma empírica la participación colectiva. Se trata de examinar qué relación guarda la participación colectiva que se materializa por medio de los movimientos sociales con el modo en que se reconocen las instituciones y estructuras sociales, así como con el modo de representar la pro-

dologia koalitatiboaz baliatuz, globalizazioari eta aldaketa sozialari buruzko diskurtso sozio-ideologikoak aztertu dira euskal gizartearen zenbait espazio sozialetan (ikerketa koalitatibo horren oinarria mugimendu sozial ezberdinetan parte hartzen dutenak eta ez dutenak osatzen dute). Hirugarren atala ondorioei dagokie.

Egindako azterketatik ondoko lau diskurtso mota bereiztu ahal dira globalizazioari buruz: adaptazioarena, ezintasunarena, itxaropenarena eta aurkakotasunarena.

Azterlan hau soziologiarentzat eta, orokorrean, euskal gizartearentzat ekarpen handia denez, Lehendakartzaren Idazkaritza Nagusiak babestea eta argitaratzea merezi duela iritzi dio epaimahaiak. Azterlanaren testu osoaren erantzukizuna idazlearena da, ez beste inorena.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko martxoaren 31n.

ducción y el cambio social. Para ello, valiéndose de la metodología cualitativa, se han analizado los discursos socio-ideológicos relativos a la globalización y al cambio social en distintos espacios sociales de la sociedad vasca (tomando como base de la investigación cualitativa tanto a personas participantes como no participantes en distintos movimientos). El tercer apartado es el relativo a las conclusiones.

Del análisis se desprende que existen 4 tipos de discursos en relación a la globalización: el de la adaptación, el de la imposibilidad o incapacidad, el de la esperanza y el de la confrontación.

La aportación que este estudio representa para el ámbito de la Sociología y para la sociedad vasca, en general, le ha hecho merecedor, a juicio del Jurado, de esta publicación patrocinada por la Secretaría General de la Presidencia, correspondiendo la responsabilidad del texto íntegro exclusivamente a su autor.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de marzo de 2003.

JESÚS PEÑA MARTÍNEZ
Lehendakartzaren idazkaria
Secretario de la Presidencia

SARRERA

Gizakia eta gizartea, giza egintza eta gizarte-egitura, horra hor errealitate sozialaren azterketan eztabaida ugari sortarazi duen dikotomia. Pentsamendu soziologikoan garrantzi handikoa da aktore eta sistemaren artean dagoen hartu-emanaren azterketa. Izan ere, giza egintzaren eta gizarte-instituzioen artekoa hartu-eman tirabiratsua da, zenbaitetan arazo existentzial moduan azaltzen zaiguna. Horrela, gizarte-sisteman eratu diren jokaerak eta objektibatu diren egiturak, askotan, muga bezala sentitzen ditugu geure jokaerak eta jardunbideak garatzeko orduan. Hau da, bizitza pertsonala eta ingurune soziala gobernatzeko daukagun gaitasuna —giza egintza autonomoa eta sortzailea— tentsioan dago eratuta dagoen gizarte-sistemarekin. Tentsio horren hari-
ra Piotr Sztompka giza esperientziaren paradoxaz mintzo zaigu:

Denok sentitzen dugu arau, tradizio, aurreikuspen eta errekerimenduek mugatzen gaituztela; are gehiago, batzutan, geure buruak topo egiten du zigor sozialen orma gogorrekina. Baina aldi berean, pertsona bezala, geure berezko izaera antzematen dugu; identitate, independentzia eta askatasun propioarekin. Horrela, neurri batean edo bestean, geure ekin-tzak kontrolatzen ditugu, erantzukizuna sentitzen dugu erabakiak hartzen ditugunean; harrotasuna, errua edo lotsa sentitzen dugun bezalaxe. Nola edo hala, bi alde dituen mundu batean bizi gara, eta bikoiztasun horrek geure identitate pertsonalaren definizioa eragiten du; batzutan “txotxongiloak” gara, bestetan “txotxongilo-gidariak”¹.

Aldez edo moldez, elkarbizitza soziala etengabeko tentsioan dago modu subjektiboan eta sortzailean jardun nahi duen gizakia, eta berau derrigortzen duen gizarte-egitura objektiboaren artean. Horrela, aldiro ontziaren gidariak gara, eta aldiro korronteak agintzen du ontziaren norabidea; hainbatetan geure bizitzaren aktore inprobisatzaileak eta sortzaileak gara, eta beste horrenbestetan gidoia jarraitzen dugun aktore errepikakorrak.

Gauzak horrela, kolektibitatearen bilakaeran zer da nagusitzen dena sisteman eratu diren instituzioen eta egituren naturalizazio/kosifikazio erreproduzitzailea ala beraien des-kosifikazioa eta kontingentzia bultzatzen duen giza egintza sortzailea eta berritzailea? Azken batean, dualismo eta galdera horien atzean, gizartearen produkzioa eta gidaritza, horixe dugu sakoneko auzia.

¹ SZTOMPKA, P. *Society in Action*. Polity Press. Cambridge, 1991. Orr. 16.

Guzti horren inguruko eztabaidak eta ikuspegiak, modu eta kontzeptu ezberdinekin, etengabe agertzen zaizkigu gizarte-zientzietan: objektibismoa *versus* subjektibismoa, halabeharrezkotasuna *versus* kontingentzia, determinismoa *versus* boluntarismoa, makroa *versus* mikroa, egiturazko baldintzak *versus* aktoreen egintza intentzionala. Dikotomia horien inguruko eztabaidak, gatazka sozial eta politikoeekin duen loturagatik, eta baita ontologia zein epistemologia mailako auziekin duen loturagatik ere, oso debate polarizatuak sortu ditu. Horrela, pentsamendu sozialaren historian, giza egintzaren autonomia zein gizarte-determinazioa integratzeko ahalegin teorikoak aurkitzen baditugu ere, oro har, nagusitu dena bata (giza egintza) edo bestearen (gizarte-egitura) determinismo historikoa aldarrikatzea izan da. Azken aldian, ordea, ahalegin teoriko interesgarriak egiten ari dira dualismoak gainditzeko eta, kontzeptu berrien eskutik, planteamendu integratzaileagoak eta dialektikoagoak egiteko; gizakia gizartearen sortzailea eta gizartearen produktua izanik, konplexutasun handiagoz aztertzea egiturazko baldintzen eta giza egintzaren arteko dialektika.

Lan honen lehenengo atalean, debate polarizatu horien sustraietara hurbildu nahian, pentsamendu soziologikoaren hastapenetatik egintza-egitura auzian egon diren tradizio nagusiak laburbiltzea dugu helburu. Horrekin batera, azkeneko hamarkadan, oinarri positibista duen subjektu-objektu dikotomia gainditzeko eta subjektu-subjektu ereduak garatzeko asmoarekin, aktoreen *praxiaren* zentralitatea proposatzen ari diren ikuspegi teoriko batzuen berri ematen dugu. Azkenik, azterketa teoriko horretan oinarrituz, tesi-lan honetarako definitu ditugun planteamendu teorikoak eta erreferentzia kontzeptualak aurkezten ditugu: giza egintza eta gizarte-egituren arteko hartu-emanaren azterketarako, gizartearen produkzioa eta gidaritzaren azterketarako, *praxi* sozialak kokatuko ditugu azterketaren erdigunean; izaera determinatua eta determinatzailea daukaten praktika sozialak, harreman-sare zehatzetan biziberritzen direnak.

Bigarren atalean, enpirikoki aztertu nahi izan ditugun *praxiak*, partaidetza kolektiboaren *praxiak* izan dira. Aztergai izan dugu, beraz, mugimendu sozialen bitartez gauzatzen den partaidetza kolektiboak nolako hartu-emana daukan gizarte-instituzioak eta egiturak antzemateko moduarekin, baita gizartearen produkzioa eta aldaketa irudikatzen moduarekin ere. Horretarako, metodologia kualitatiboetaz baliatuz, globalizazioari eta aldaketa sozialari buruzko diskurtso sozio-ideologikoak aztertu ditugu euskal gizartearen zenbait espazio sozialetan. Helburu nagusi moduan, geure azterketa enpiriko honek, aztertu nahi izan ditu aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko pertzeptzioak; eta, horrekin batera, partaidetza kolektiboaren *praxietan* aritzea edo ez aritzearen arabera, gizarte-produkzioa eta gidaritza nolako indar ezberdinen esku irudikatzen den aztertzea.

Azkenik, lan honen hirugarren atalean, aurreko bi ataletan eginiko azterketa teorikoa eta enpirikoa uztartuz, gaiaren inguruko ondorioak aurkezten ditugu. Egungo pentsamendu soziologikoak duen erronka nagusienetarikoa aldaketa soziala aktore-sareen eguneroko *praxiarekin* lotzea da. Gizarte-ordenamenduaren kosifikazioa eta naturalizazioa edota aldaketa sozialaren determinismo eboluzionista ezin dugu gizakiaren berezko joera unibertsaltzat hartu; baizik eta zenbait espazio sozialetan (*praxi*

eta hartu-eman sareetan) berregiten den diskurtso sozio-ideologiko dominantea. Gizarte-ordenamenduaren kosifikazioak kolektibitatearen auto-eraketaren kontzientzia ezabatzen du; eta, ondorioz, aldaketaren balizko automatismoak, irudimena eta sormena menperatuz, ezintasunaren nagusitasuna ezartzen du. Gizartea, kanpoaldekotasun derrigortzaile gisa irudikatuz, indarrean dagoen elkarbizitza-eredua eta pertsona-eredua —geure gaur egungo testuinguru sozio-kulturalean eredu lehiakorra eta utilitarista—, onartu beharreko gizabanakoaren eta giza artekotasunaren berezko joerak bailiran barneratzen dira, bestelako eredu bideragarritasuna ukatuz. Ikusiko dugun bezala, nagusi den horretan adaptatzea eta integratzea biziraupenaren sinonimotzat bihurtzeraino ailega daiteke irudikapen hori. Baina badaude, gure errealitate sozialean, gizartearen produkzioa eta aldaketa *praxi* kolektiboaren emaitza kontingente gisa irudikatzen duten diskurtso sozio-ideologikorik. Are gehiago, diskurtso horietan gizartearen kosifikazioa eta aldaketaren nahitaezkotasuna engainu ideologikotzat jotzen dira, hain zuzen ere, konformismoa eta pasibotasunaren oinarrian dagoen irudikapen faltsua: dagoena eta datorrena onartu beharra beste aukerarik ez dagoelako.

Globalizazioaren inguruko diskurtso sozio-ideologikoen azterketan ikusiko dugun bezala, egungo globalizazioaren diskurtso dominantean, aldaketa soziala eta, berez, kolektibitateen bilakaera, nahitaezko eboluzio saihestezin gisa aurkezten da, kontingentziarik edo beste aukerarik onartzen ez duen eboluzioa. Diskurtso ideologiko horren inguruan erabateko adostasuna eraiki nahi izateak definitu du, neurri batean, azken hamarkadako joera sozio-ideologiko nagusia: merkatu globalizatuaren lehiakortasuna eta etengabeko hazkunde ekonomiko eta produktiboa giza eboluzioaren eta progreso sozialaren logika saihestezina bezala aurkeztea, aktore-sareen eguneroko *praxiarekin* lotuta ez dagoen logika historikoa. Baina, azkeneko urtetan, mundu mailako hedapena duen mugimendu sozialaren agerpena ezagutu dugu. Hain zuzen ere, “beste mundu bat posible dela” leloarekin aldaketa sozialaren kontingentzia aldarrikatzen duen mugimendua. Hortaz, globalizazio-prozesu bera, giza artekotasunaren aldaketa joera gisa, gatazka politikoa bihurtzen ari den mugimendua: aldaketa-joera horren ondorioak eta norabidea hausnarketa kolektiboaren eztabaidagai eta negoziazio-gai bihurtu nahi duena. Hain zuzen ere, globalizazio-prozesua demokratizatzea, aukera eta eredu ezberdin dituen prozesu gisa eraikitzea.

**I ATALA: GIZA ARTEKOTASUNA
ETA ALDAKETA SOZIALA,
AZTERKETA TEORIKOA**

1. GIZA EGINTZA ETA GIZARTE-EGITURAK PENTSAMENDU SOZIOLOGIKO KLASIKOAN

1.1. Modernitatearen aldaketa soziala: gizarte-ordenaren eta giza egintzaren arazoa soziologiaren hastapenetan

XVIII. eta XIX. gizaldietan, Ilustrazioa eta iraultza industrialaren eraginez, gizarte-ordenamendu feudalaren amaiera eta gizarte modernoaren zabalkuntza ekarriko zuen prozesua, lehenagotik bazetorren ere, bere ondorio eraldatzaileak erakusten hasi zen. Soziologiaren sorrera erabat lotuta agertzen zaigu testuinguru historiko zehatz horrekin. Izan ere, Ilustrazioak eta modernitateak ekartzen duten gizabanakoaren goraiapamena eta komunitatearekiko lotura tradizionalen gutxiespenak ahalbidetzen du elkarbizitza soziala hausnarketagai bezala ikustea. Hau da, gizakia bere testuinguru komunitariotik bereizteak ahalbidetzen du gizartea ikasketa objektu gisa ikustea². Jarraian ikusiko dugunez, gizabanakoaren kontzientzia eta subjektibizazioa hazten den testuinguru soziohistoriko horretan, elkarbizitza sozialak kezka eragiten du; soziabilitatea eta elkarbizitzaren izaera kontingentea oso nabarmena egiten baita. Gauzak ez dira, nahitanahiez, tradizioak agintzen duen moduan, gizabanako bakoitzak bere aukera propioak egin baititzake. Ondorioz, gizartean eratu dena (instituzionalizatuta dagoena) eta etorkizunean eratuko dena nahitaezkotasunaren itxurapean agertu beharrean aukera kontingente gisa agertzen da. Mundu sozialak eta gizartearen antolaketak beste izaera bat hartzen dute giza pentsamenduarentzat.

Gizakia ulertzeko modu modernoak —gizabanako autonomo gisa, tradizioaren eta Jaungoikoaren halabeharrezkotasuna gainditu duena eta bere bizitza gobernatzeko librea dena— planteatzen duen erronka nagusia elkarbizitza berriaren ordena zertan oinarritzea izango da. Horrela, askatasun indibiduala eta ordena soziala bateratzea eta, batez ere, ordena berri horren izaera aztertzea, zeregin intelektual garrantzitsua bihurtu zen; hain zuzen ere, abiatzen ari zen gizarte berri eta moderno horren norabidea antzeman ahal izateko.

² ALEXANDER, J.C. "The new theoretical movement" *Handbook of Sociology* liburuan. Neil J. Smelser (ed.) Newbury Park: Sage. Orr. 85.

Esan genezake, beraz, ordenamendu feudalararen amaierak ordenamendu berriaren arazoa sortarazi zuela; eta, horrekin batera, giza egintza sozialaren arazoa³. Ikus dezagun, bada, prozesu hori detaile gehiagorekin, asko baldintzatu baitzuen ondorengo pentsamendu sozialaren bilakaera.

Alan Dawe-k ondorengo hitzekin laburbiltzen ditu iraultza ilustratuaren nondik norakoak: “Helburua, gizakiaren askapena. Baliabideak, etengabeko kritika praktikoak; Jainkoak aginduta ukituezinak ziren instituzio tradizionalen kritika praktikoa, alegia. Bitartekoak, arrazionalismoan eta enpirismoan oinarritutako metodo zientifikoa, ezer ukitu gabe uzten ez zuen metodoa.(...) Jainkoaren ordenamendutik sortutako egoera unibertsalak egoera historikoak bihurtu ziren, gizakiok sorturikoak. Harreman, instituzio eta sistema sozialak giza egintzaren subjektua eta objektua izatera iragan ziren”⁴.

Dawe-ri jarraituz, Erdi Aroko gizakia mundu finko, egonkor eta aldagaitz batean bizi zen; zalantzan jarri barik, halabeharrez ezarritako zerbait bailitzan onartzen zuen mundu hori, baita mundu horretan berari zegokion tokia ere. Bere burua taldearen partaide gisa ulertzen zuen soilik, hortaz, gizakia naturaren eta jainkoaren borondateen adierazpen bat zen, beraiengandik banaezina eta zatiezina.

Erdi Aroko ordenamendu soziala eta ordenamendu modernoaren artean dagoen haustura, beraz, erabatekoa da, bereziki, gizakia ulertzeko moduari dagokionez: “Gizabanako terminoak banaezina esan nahi zuen Erdi Aroko pentsamenduan.(...) Gizabanako bat aurkeztea bere taldearen ordezkari bat aurkeztea zen”⁵. Aro modernoaren funtsa, ordea, gizabanako oren autonomia eta autodeterminazioa izango da eta, horrekin batera, giza arrazionaltasunaren sakralizazioa, horrek duen efektu sekularizazioarekin. Elementu horiek dira, hain zuzen, gizarte modernoaren instituzio nagusien oinarria; zientzia, industria eta demokraziaren oinarria, alegia.

Esan beharra dago, beste aldetik, modernitatearen doktrina berriak gizarte feudalean lehenagotik hedatzen ari ziren esperientzi eta praktika berrien adierazpena zirela. Hirien hazkundea, merkatua, komunikazioa, ekonomia monetarioaren zabalkuntza eta lan banaketaren hasiera, abian zeuden prozesuak baitziren XV. mendeko Berpizkundetik. Horrela, gizabanakoaren esperientzi biografikoak ezberdintzen hasi ziren, eta rol eta kokapen sozialak derrigorrezkoak eta ukituezinak agertu beharrean, alda-

³ “Sozialitate arazo gisa, testuinguru soziokultural horretan soilik ager daiteke, orduan sortzen baita ez bakarrik mundu sozialaren funtsezko izaera kontingentea, baizik eta espezifikoki kontingentea”. García Blanco J.M. “La realidad social como problema: algunas consideraciones sobre la reflexión de la sociedad moderna y la constitución de la sociología” *Escritos de teoría sociológica* liburuan. Carlos Moya, Alfonso Pérez-Agote, Juan Salcedo eta José Félix Tezanos (Bateratzaileak). CIS, Madrid, 1992. Orr. 299.

⁴ DAWE, A. “Las teorías de la acción social”. *Historia del análisis sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1988. Orr. 426.

⁵ WILLIAMS, RAYMOND. *The Long revolution*. Chatto & Windus. Londres, 1961 (orr. 73-74). Dawe-k aipatua (*Ibidem*, orr. 428). Ikusi ere, TOURAINE, A. *Crítica de la Modernidad*. Temas de hoy. Madrid, 1993. Orr. 264.

korragoak antzematen ziren. Alan Dawe-k horrela adierazten du kontzientzia aldaketa hori:

...Pertsona ororentzat posible egiten da bere burua bizitza pertsonalaren egile aktibo gisa ikustea. Atributuak eta berezitasunak dituen izaki gisa, rol zehatz batera mugatzen ez diren identitateak eta gaitasunak dituen eta, ondorioz, esparru publiko eta komunitarioan soilik ez dagoena; baizik eta bizitzaren, esperientziaren eta aktibitatearen esparru indibiduala, pribatua, pertsonala eta banandua ere okupatzen duena⁶.

Prozesu guzti hauen deskribapenarekin jarraituz, antzinako erregimen feudalaren instituzio hierarkiko eta absolutistek, lehenagotik ahultze bidean bazeuden ere, XIX. mendearekin batera, tokian tokiko atzerapauso, gora-behera eta erritmo ezberdinekin, instituzio-ordezkapen prozesua bizi izan zuten. Arestian aipatu dugunez, aldaketa-prozesu honek giza faktorea ezarriko du gizartearen ekintzaile nagusi gisa. Baina, horretarako, nagusitasuna zeukaten dogma erlijiosoak birformulatu beharra zegoen: gizarte tradizionalan Jaungoikoa sortzailea zen, gizakion bizitzaren patua gobernatzen zuena; elkarbizitza soziala, beraz, kanpoko eragile baten menpe zegoen. Beste era batera esanda, mundu feudalaren erdigunean Jaungoikoa zegoen, mundu post-feudalean erdigunean, ordea, gizakia dago. Arrazionaltasunak Jaungoikoaren tokia hartuko du, aurrerapenaren eta garapenaren bitarteko berria da: subjektu modernoak, arrazionaltasun zientifikoaren bitartez, giza historiaren haria bereganatu du aurrerapenaren edo progresoaren norabidean ipintzeko. Hain zuzen ere, progreso modernoaren linealtasuna eta unibertsaltasuna giza historiaren meta-narrazio gisa irudikatzea, krisi larrian dago azkeneko urtetan pentsamendu-mailan.

Horrela, garaiko pentsamoldean, gizakion jardun ekonomiko, zientifiko eta politiko libreek giza gaitasunak garatzea ekarriko zuen. Arrazionaltasuna baliabide nagusi gisa ezarrita, gizakiak aktore arrazionalak izango ziren eta helburu pertsonalak zein ongizate kolektiboa bereganatzeko bidean egongo ziren. Instituzio berriak, beraz, ezinbesteko tresnak ziren autonomia indibiduala eta ongizate kolektiboa elkar osatzeko⁷. Geroago ikusiko dugunez, ordea, prozesu hori guztia kapitalismoaren hedapenarekin batera gertatzen delako, nagusituko den arrazionaltasun-eredua arrazionaltasun utilitarista eta lehiakorra izango da.

Honenbestez, gizarte modernoaren instituzioak gizakiok euren burua garatzeko sortzen zuten adostasun, hartu-eman eta jardunbide berriak ziren. Asmoak asmo, prozesu horrek, aukera berriak zabaltzearekin batera, muga eta traba berriak ere ekartzen ditu. Gizaki autonomia lotura komunitarioetatik eta talde-nortasunetik urruntzen bai-

⁶ *Ibidem.* Orr. 430.

⁷ Wagner-ek ohartarazten digun moduan, egitasmo horiek modernitatearen proiektua itxuratzen zuten printzipioak ziren, baina ez zuten deskribatzen errealitate empirikoaren praktika zehatzik. Izan ere, modernisten ametsa, beharrezkoak ziren baldintza soziopolitikoak sortuz, hori guztia errealitatean gauzatzea zen. Errealiterata eramateko orduan, ordea, kontuan eduki behar da modernitatearen proiektua bultzatzen zutenak aurkari organizatuen aurrean zeudela; hain zuzen ere, boterea, aberastasuna eta estatua galtzeko arriskupean zeudenak: estatu absolutista eta elite aristokratiko eta erlijiosoak. Ikus. *Sociología de la modernidad*. Peter Wagner. Argitaletx. Herder. Barcelona, 1995. Orr. 43-44.

ta bere bizitzaren gidaritza hartzeko. Zentzu horretan, gizaki modernoa gizaki isolatua da, bere taldekideengandik eta Jaungoikoarengandik aldentua; gizarte tradizionalak ematen zuen sostengu komunitarioa eta nortasun kolektiboa ahulduz doa. Pentsamendu soziologikoan, gizabanako modernoaren esperientzia kontrajarriak —batetik sustrairik gabe eta talde-nortasuna ahulduta bizitzea eta, bestetik, bere buuruaren jabe eta bere munduaren sortzailea sentitzea— ikuskera ezberdinak sortuko ditu giza egintzaren inguruan. Beste era batera esanda, individualismoa eta giza egintza asmoduna agertzeak paradoxa eta kezka berriak sortzen ditu askatasun indibiduala eta ordenamendu komunitarioaren inguruan; paradoxa horiek, azken batean, gizabanako eta gizartearen arteko hartu-emanaren ingurukoak dira.

Gauzak horrela, pentsamendu sozialaren kezka horiek norabide zehatz bat hartuko dute: oinarri komunitario berri eta egoki bat bilatzea. Hau da, atal honen hasieran aipatu dugunez, askatasun indibiduala eta ordena soziala bateratzea: “Gizarte arrazionala, ezagutza arrazionalaren antzera, gizarte tradizionalaren kontrakoa izan behar zen. Gizakia zen funtsa, gizaki naturala eta ez ermandadekide, elizakide edo nekazari gisako gizakia. Gizarte berria, gizakiok beraien artean modu libre eta arrazionalen nahita sortatuko harreman-multzo bezala ulertu behar zen.(...) Arrazionaltasunean eta instintuan oinarritutako ordenamendu soziala behar zen, lotura malguak eta inpersonalak izango zituen. Rousseau-ren hitz galantetan jarriz gero arazoa zen elkartzeko-modu berri bat aurkitzea; elkartzeko-modu berri bat ahalbidetuko zuena gizabanakoa eta bere ondareak kolektibitatearen indarrarekin defenditzea eta, aldi berean, elkartekide bakoitza, nahiz eta taldearen partaide izan, lehen bezain libre jarraitzea bere senak agindutakoari jarraituz”⁸.

Bilaketa horretan, giza egintzaren eta ordenamendu sozialaren inguruko ikuskera ezberdinak sortuko dira. Horrexegatik, gizabanako eta gizartearen arteko hartu-emaña soziologiaren eta beste gizarte-zientzien ikasketa-objektu nagusi bat bihurtuko da. Geroago ikusiko dugunez, soziologiaren tradizio eta ikuspegi teoriko ezberdinak giza egintza eta ordenamendu sozialaren inguruan garatzen dituzten ikuskeraren arabera bereiztuko dira.

Ordenaren eta giza egintzaren arazoa

Dakigunez, gizarte-zientzien arloko zenbait diziplinak hazkunde harrigarria izan zuten XIX. mendean: ekonomia politikoa eta soziologia dira, seguru asko, kasurik aipagarrienak. Hazkunde horretan zerikusi handia izan zuen arestian aipatu dugun prozesuak: munduaren ikuskera metafisikoa bigarren mailan geratzea eta gizarte, antolamendu soziala, gizakiaren esku dagoen errealitate bezala ikustea; era berean, gizarte industrializatua eta urbanoak sortzen dituen arazo eta zalantza berriei erantzuna bilatzea —oinarri komunitario berri eta egoki bat bilatzea askatasun indibiduala eta or-

⁸ NISBET, R. *La formación del pensamiento sociológico*. Vol. I Amorrortu. Buenos Aires, 1969. Orr. 73.

dena soziala bateratzeko— bultzagarri garrantzitsua izango da. Horrela, batetik giza egintza librea eta, bestetik, gizarte-sistemaren ordena, giza zientzien gai nagusiak izango dira. Eta pentsamendu soziologikoan garatuko diren eskolek norabide ezberdinak hartuko dituzte euren gogoeten kezka nagusiaren arabera: a) ordena eta desordena, hots, sistema sozialaren eraketa. b) ordenaren gidaritzea, giza egintza libre eta sortailea⁹.

Ordenaren eta giza egintzaren arazoak pentsamendu sozialaren arazo metateoriko nagusiak kontsideratzeak onarpen zabala du debate soziologikoan, izan ere, Talcott Parsons-en tradizioan kokatu dezakegun planteamendu hori oso lagungarria da ikuspegi teoriko ezberdinen artean dauden aldeak eta ezadostasunak aztertzeko: “Auzi saihestezinak izenda ditzakegu zeren eta teoria soziologiko guztiek, agerian aipatzen ez badituzte ere, aurreuste implizituak daukate giza egintza eta gizarte-ordenaren izaeraz”¹⁰. Ezin dugu begibistatik galdu, ordea, pentsamendu soziologiko klasiakoaren garapenean kontuan hartu beharreko beste elementu bat; hain zuzen ere, XIX. mendeko bigarren erdialdeko testuinguruan, filosofia utilitaristak eta arrazionaltasun instrumentalaren teoria ekonomikoak hartu zuten garrantzia. Hans Joas-ek gogoarazten digun bezala, norberaren interesen arabera helmuga eta baliabideen arteko neurketa emankorrenean oinarritzen den ustezko giza arrazionaltasun instrumental horrek, eta hortik eratorri zen giza egintzaren ikusmolde utilitaristak, sakonean eragin zuten teoria soziologikoa. Aurrerago ikusiko dugunez, indibidualista eta ingurugiro sozialik gabekoa den giza egintzaren ikusmolde horren aurrean, soziologiak balio, arau eta jarraibide kulturalen inguruan dagoen adostasun normatiboak azpimarratuko du giza egintzaren gakoak identifikatzeko eta gizartearen instituzio eta egituren ordena azaltzeko (zenbait kasutan gehiegizko determinismo normatibistan eroriz).

Ikusmolde utilitaristari aurre eginez ere, soziologiak, gizabanakoak bere egintzari ematen dion esangura abiapuntu moduan hartuz, gizakion hartu-emanen sormen interpretatiboan oinarritutako ikuspegiak garatu zuen, egintza instrumentalarekin batera beste giza egintza mota batzuk ezberdinduz (tradicionala, afektiboa, balioen arabera...). Baina, esan bezala, ikuspegi soziologiko guztiek, normatiboak zein interpretatiboak, utilitarismoaren eragina jaso zuten.

Ekonomian, filosofian eta, oro har, giza zientzietan arrazionaltasun utilitaristak hartu zuen nagusitasuna arestian deskribatu dugun gizarte-aldaketarekin erlazioan behar dugu. Izan ere, Erdi Aroko gizarte tradizionalan, komunitarismoa, halabeharrezkotasuna eta egonkortasuna ziren giza egintzaren baldintzatzaile nagusiak; ondo-

⁹ J.C. Alexander-en ustez, gizarte-teoria eta ikerketa enpiriko oro, funtsezko aurreuste edo *a priori* batzutan oinarritzen da behaketak eta kategoria kontzeptualak antolatzeke. Aurreuste nagusi bi azpimarratzen ditu: bata giza egintzaren funtsaren ingurukoa, bestea ordenaren ingurukoa —nola produzitzen den ordena—. Bi gai hauen inguruan aurreusteak izatea ez da aukerakoa, ohartu edo ohartu gabe, teoria guztiek dituzte bereak, ardatz horien bueltan baitabil, azken batean, gizarte zientzien diskurtsoa. “The new theoretical movement” *Handbook of Sociology* liburuan. Neil J. Smelser (ed.) Newbury Park: Sage. Orr. 84.

¹⁰ JOAS, H. *El pragmatismo y la teoría de la sociedad*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madrid, 1998. Orr. 281.

rioz, kontingentziarako tokirik egon gabe, nagusitzen zena alde aurretik hertsiki definituta eta iragarrita zeuden jokamoldeak berregitea zen. XVII. eta XVIII. mendeko pentsamendu ilustratuaren eraginez, ordea, arrazionaltasun indibidualistak beste printzipio eta balio batzuk zabalduko ditu gizaki modernoaren portaerarako; hain zuzen ere, jokamolde indibidualistak, egoeraren arabera eta kontingenteak. Bere bizitza gobernatzeko autonomia zen gizabanako moderno horri modu eszeptikoan edo modu itxaropentsuan begiratu zitzaion. Alde negatiboari erreparatu ziotenek gizaki isolatu bat ikusten zuten; alde positiboari begira zeudenak, ordea, askapena lortuta, bere buruaren jabe zen gizaki bat ikusten zuten. Horrela, XIX. mendean zehar, gizarte modernoaren alderdi negatiboak azpimarratzen zituen erreakzio kontserbadore garrantzitsu bat ezagutu zen. Kritika kontserbadoreak komunitate eta kidetasunaren galera azpimarratzen zuen eta, horrekin lotuta, gizakiaren isolamendua, norberekeria eta deserrotzea. Kontserbadoreen aburuz, nekazaritza mundutik hirietara zihoan jende andana joera horien biktima zen. Azken batean, familia, herria eta elkarte gremialak egitura babesleak ziren; segurtasun, sustrai eta nortasun kolektiboaren zaindariak. Horiek atzean utzita, martxan zegoen gizakiaren hondaketa-prozesua eta, antolamendu sozialari dagokionez, anabasa, desordena eta kaosa. Horrela, XIX. mendea aurrera joan ahala, iraultza industrialak eta demokrazia politikoak sortarazten zituzten noraezak eta zalantzak pentsamendu sozialaren erdigunean egongo dira. Oro har, mende horretako pentsamenduan garrantzi handikoak dira arrazionaltasun indibidualistaren ideiak eta balioak, baina indibidualismoaren kontrako erreakzioak ere. Robert Nisbet-en iritziz, “ikuspegi intelektualetik, bereizgarriena eta emankorra XIX. mendeko pentsamenduan ez zen indibidualismoa bera izan, indibidualismoaren kontrako erreakzioa baizik. (...) Erreakzio hori zabala da: literaturan, filosofian eta teologian aurkitu dezakegu, baita lege-jakintzan, historiografian eta, modurik sistematikoenean, soziologian”¹¹. Autore honek azpimarratu duen bezala, tradizioaren defentsa kontserbadorea, komunitatea, senidetasuna, hierarkia, autoritatea eta erlijioaren balioetan oinarrituko da; eta, hauek dira, hain zuzen ere, kontzeptu nagusi batzuk soziologia klasikoan¹².

Erreakzio kontserbadorea, beraz, ordenaren arazoan zentratuko da. Iraultza Frantsesari instituzio eta balio tradizionalen hondaketa leporatuko dizkio eta, berdinketaren aldeko apustu modernista, anarkikoa kontsideratuko du; oro har, Europako zibilizazioa desordena sozialean, kaosean eta tiranian murgilduta ikusten du. Iraultza industrialak ere gogor kritikatzeko zuen, lotura komunitarioak suntsitzeagatik, eta mundu soziala zein morala, zatitua, desartikulatua eta anomikoa bihurtzeagatik. “Ilustra-

¹¹ NISBET, R. *La formación del pensamiento sociológico*. Vol. I Amorrortu. Buenos Aires, 1969. Orr. 21-22.

¹² Nisbet-entzat gizarte tradizionalaren eta gizarte modernoaren arteko gatazka, aitzinako ordena eta ordena berriaren artekoa, alegia, elkarloturik dauden ondorengo antitesi hauetan laburbildu daiteke: komunitatea-gizartea, autoritatea-boterea, statusa-klasea, sakratua-sekularra eta alienazioa-aurrerapena. Bestalde, ideia eta antitesi horiek ez dira agertzen lehendabizi XIX. mendean testuinguruan; Grezian, Erroman eta, oro har, ordenamendu tradizional bat erortzearekin egon denean elementu horien inguruko kezka eta eztabaidak agertzen zaizkigu. (*Ibidem*, orr. 20).

zioaren arrazionaltasun subertsiboaren kontra, Iraultza Frantsesaren desordena traumatikoaren aurrean, eta Iraultza Industrialaren egoismo amoralari aurre egiteko, erre-akzio kontserbadoreak gizakien gaintek eratuta egongo zen hegemonia sozial eta moral bat bilatzen zuen”¹³.

Jarraian ikusiko dugunez, horrek guztiak eragin garrantzitsua izango du soziologiaren garapenean, ordenaren inguruko kezka soziologiaren kezka nagusi bezala agertuko baitu hainbat momentutan. Izan ere, ordenaren inguruko kezka hori teoria sozialean garrantzi handikoak diren bi dikotomiek adierazten digute: *Gemeinschaft/Gesellschaft* edo komunitatea/elkartea, eta gizabanakoa/kolektibitatea¹⁴. Dikotomia horiek gainditu nahi izatea etengabeko ahalegina izan da pentsamendu soziologikoaren bilakaeran. Baina, gehienetan, proposamenek ez dute dualismoa gainditu; hau da, dikotomiaren elementu bati lotu dira eta aurkakotasunaren korapiloa askatu ordez aurkakotasuna sakondu dute.

Pentsamendu soziologikoaren garapen teoriko-kontzeptualean egon diren lerro edo korrante nagusiak kokatzeko, Rodriguez Ibañez-ek banaketa argi bat proposatzen digu: batetik lerro “estrukturala”, eboluzionismo eta positibismo klasikotik, Durkheim eta funtzionalisten birmoldaketa garrantzitsuak hartuz, sistemen teoriaraino doana. Bestetik, lerro “intersubjektiboa” edo konprentsiboa, erromantizismo eta historizismotik abiatzen dena eta, Max Weber-en ezinbesteko aplikapen soziologikoarekin, teoriko kritikoetan eta korrante fenomenologikoetan gauzatzen dena. Marxismoak aipamen berezia behar du, bere baitan berregiten baitu, neurri batean, egitura/egintza dualismoa¹⁵. Horrela, egituraren determinismoak berebiziko garrantzia du Marx-en azterketetan, baina “praxi”aren kontzeptuak zubi-lana egiten du gizakion egintzari protagonismoa emanez. Geroago helduko diogu ere auzi hori.

Beraz, giza egintzaren teoriko tipikoak aztertu aurretik (Durkheim, Weber, Parsons), giza egintzaren inguruan egon diren ikuspegiak argitasunez aurkezteko, lagungarria izango dugu Rodriguez Ibañez, Alexander, Dawe eta beste autore batzuek soziologiaren tradizio teoriko nagusiak sailkatzeko aipatzen duten banaketa sinplea: gizarte-egituraren edo sistema sozialaren ikuspegia, batetik, eta giza egintza soziala-

¹³ DAWE, A. “Las teorías de la acción social”. *Historia del análisis sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1988. Orr. 423.

¹⁴ García Blancoren ustez XIX. mendeko teoria sozialaren ezaugarri nagusia dikotomiak erabiltzea izango da, hain zuzen ere, bitarteko baliagarritzat jotzen baita ordena soziala nola liteke aztertzeke. Horrela, *Gemeinschaft/Gesellschaft* edo komunitatea/elkartea dikotomia soziologiaren gai garrantzitsuenetarikoa bat izango da. Dena den, autore honen aburuz, berezko teoria soziologikoaren garapenerako, dikotomiarik azpimarragarriena gizabanakoa/kolektibitatea da, horretan planteatzen baita Hobbes-en ordenaren arazoa: interes partikularra eta interes orokorraren arteko harremana aurkakotasunean oinarrituta eta ez analogian. “La realidad social como problema: algunas consideraciones sobre la reflexión de la sociedad moderna y la constitución de la sociología” *Escritos de teoría sociológica* liburuan. Carlos Moya, Alfonso Pérez-Agote, Juan Salcedo eta José Félix Tezanos (Bateratzaileak). CIS, Madrid, 1992. Orr. 307.

¹⁵ ENRIQUE ALONSO, L. “Funcionalismo y paradigmas sociológicos. Notaciones críticas a un libro de Jacques Coenen-huther”. REIS nº 37, 1987. Orr. 211.

ren ikuspegia, bestetik. Izan ere, Gizarte-teorian aritutako askok onartzen dute “egiturazale” eta “egintzazaleen” artean etengabeko mugimendu teoriko pendularra eman dela, eta ordenaren zein giza egintzaren kontingentziaren arazoak erabateko zentralitatez izan dutela gaur arte debate teorikoan¹⁶. Era berean, Hans Joas-en eskutik ikusiko dugun bezala, giza egintzaren ikuspegi arrazionala-instrumentala *versus* egintzaren ikuspegi normatibista (sozializazio bidez barneratutako arau sozialen arabera) sakonean baldintzatu du ere debate teorikoa. Aurrerago ikusiko dugunez, Joas-en ustez, utilitarismo eta normatibismoaren arteko tirabirak bigarren mailan utzi ditu Mead, Dewey eta beste pragmatiko batzuk landu zituzten giza egintzaren dimentsio sortzaileak.

Egintzaren teoriei eta egituraren teoriei dagokienez, abiapuntu moduan jadanik aipatu dugun Alan Dawe-en lana erabiliko dugu. Aipatu bezala, autore honek bi soziologia ezberdintzen ditu: sistema sozialaren soziologia eta egintza sozialaren soziologia. Bere planteamenduan, bien artean dagoen aurkakotasuna, sistema sozialaren eta giza egintza intentzionalaren artean dagoen bera da. Are gehiago, aurkakotasun horrek adierazten du lan honen hasieran aipatzen genuen tirandura existentziala: sistemak ezarritako ordenaren menpe egotea edo giza egintzaren ahalmen sortzailea erabiltzea¹⁷. Ondorengo paragrafoetan ikusiko dugunez, Dawe-k sakontasunean aztertzen ditu ikuspegi bakoitzean gizakiaren inguruan, gizaki-gizartearen harremanaren inguruan, eta gizartearen inguruan dauden kontzeptzioak. Bi ikuspegi edo tradizio hauen artean dauden lotura puntuak geroago bilatuko baditugu ere, has gaitzen ezberdintasunak azpimarratuz.

Sistema sozialaren soziologiarentzat arazo analitiko nagusia ordena soziala da: nola da posible ordena? Gizarteak, antolamendu soziala, ez da gizakien esku dagoen zerbait, gizakioi emanda datorkigun zerbait baizik. Gizarteak, beraz, gizabanakoaren borondateak at birstortzen eta mantentzen den giza gaineko sistema da, gizabanakoaren balioak eta jokaerak ezartzen dituena egonkortasun pertsonala eta soziala bermatzeko. Gizarte-sistemaren ezarpena gizarteratze prozesuan barneratzen ditugun jokatze, pentsatzeko eta sentitzeko moduen bidez gauzatzen da; kontuan hartzekoa da ere, etengabeko sozializazio prozesuan giza kontzientzia ezberdinduaren itxura agertzen zaigula, berau ere gizarteak eraginda. Horiek horrela eta muturrera eramanda, gizakiak erabat moldagarriak eta manipulagarriak diren aktore sozialak bezala agertzen zaizkigu; gizarte-sistemak, kaosa saihestearren, hezkuntza eta sozializazio bidez bideratzen dituen subjektu pasiboak. Ondorioz, giza egintza, sistema sozialaren produktua eta ondorioa da.

Modu horretan, Durkheim-en kontzeptu famatua erabiliaz, gizarteak *sui generis* moduko errealitatea da, berezko eta gizakiengandik aparteko existentzia duena.

¹⁶ ALEXANDER, J.C. “The new theoretical movement” *Handbook of Sociology* liburuan. Neil J. Smelser (ed.) Newbury Park: Sage. Orr. 83.

¹⁷ DAWE, A. “Las teorías de la acción social”. *Historia del análisis sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1988. Orr. 417.

Nik neure senide-, senar- edo herritar-betebeharrak betetzen ditudanean, hitz emanak ditudan obligazioak betetzen ditudanean, definitutako betebeharrak betetzen ditut, nire iza-tearekiko eta nire ekintzekiko aske, nola zuzenbidean hala ohituretan. Nire sentimenduekin ados dauden eta nik nire barnean beren errealitatea sentitzen dudan kasuetan ere, errealitate hori objektiboa da, izan ere, ez bainaiz ni horiek asmatu dituena, nik horiek hezkuntza bidez jasoak baititut.(...) Era berean, sinestunak, jaiotzean, bere sineste eta praktika horiek zeharo eratuak aurkitu ditu; bera sortu baino lehenagokoak badira, bera-rikiko bizitza aske duten seinale da¹⁸.

Gizarte-gertaerak, hortaz, gizakientzat, kanpoaldekoak dira, horrexegatik ikaske-ta objektu gisa har daitezke; are gehiago, derrigorrez ezartzen diren *gauzak* bailiran aztertu daitezke¹⁹.

Aipatu bezala, ikuspegi objektibista eta positibista hori izendatzeko orduan, “sistema sozialaren soziologia” erabiltzeaz gain, beste etiketa batzuk erabili izan dira: “objektibismoa”, “gizarte-gertaeren soziologia”, “soziologia estrukturala”²⁰, etab. Emile Durkheim izango zen soziologia horren ordezkari klasikoa. Modu osatuagoan aztertu nahian, geroago berrartuko dugu autore horren zenbait planteamendu.

Alan Dawe-n eskutik aipatu dugun bigarren tradizio soziologikoa “egintza sozia-laren soziologia” da. Ikuspegi horrek gizakiok maila pertsonalean eta kolektiboan dauzkagun ahalmen interpretatzaileak eta sortzaileak aztertuko ditu, hots, giza nagu-sitasuna eta gidaritzza. Ikusmolde horrentzat, gizarte-sistema gizakien egintza eta el-karregintza sozialaren emaitza da, hau da, partaideek sortzen dute mundu soziala, egi-le aktiboak dira. Eguneroko egoerei ematen dizkieten esangura eta zentzu subjektiboekin jokatzeko, pentsatzeko eta sentitzeko modu ezberdinak definitzen di-tuzte. Egintza sozialaren soziologian gizakiaren inguruko ulerkera baikorra da eta, ondorioz, gizakia eta gizartearen arteko hartu-emanak ez da bigarrenaren ezarpenean oinarrituko, gizakiaren nagusitasunean baizik. Gizartea ideiak, balioak eta, oro har, esanahiak eta eginahiak sortzeko daukagun ahalmenaren produktua da (gizakion sormen sinbolikoaren produktua), baita horien arabera jarduteko daukagun gaitasunaren produktua ere.

Dawe-k egiten duen deskribapena jarraituz, pentsamendu sozialaren tradizio hon-entzat gizartea ez da gizabanakoen borondatek at birsortzen eta mantentzen den

¹⁸ DURKHEIM, E. *Metodo soziologikoaren arauak*. Gaiak. Donostia, 1997. Orr. 33-34.

¹⁹ “Indar ezartzaile eta derrigortzailea ere badute, eta indar horren bitartez ezartzen dira nahi izan ala ez izan. (...) Herri-kontzientziak, bera iraintzen duen edozein ekintza ere eragotzi egiten du, herritarren portaerengan egiten duen zaintzaren eta bere esku dituen zigor berezien bitartez. Ni munduko hitzarmen-nen menpe jartzen ez banaiz, janztean nire herrialdean eta nire mailakoen artean jarraitzen diren ohit-urak kontuan hartzen ez baditut, sorrarazten dudana barreak edo jasaten dudana isolamenduak, era bigune-an izan arren, benetako zigorraren ondorioak eragiten ditu” (*Ibid.*, 34).

²⁰ Anthony Giddens-ek “soziologia estrukturala” erabiliko du; sistemak, egiturak, instituzioak eta, oro har, eratuta dauden jarraibideak aztergai nagusiak direlako ikuspegi honetatik abiatzen diren prakti-ka soziologikoetan. Era berean, soziologia horren ezaugarria da objektuari (gizarteari) lehenetsia emate-a subjektuaren (gizaki egilearen) aurretik. *La constitución de la sociedad*. Amorrortu. Buenos Aires, 1991. Orr. 21-22.

giza gaineko egitura, baizik eta gizakion ekinaren ekinez eta giza elkarregintzaren fruitu bezala sortzen den mundu bat. Mundu sozial horretan ezarpen eta koakzioa ere badaude, baina ez dira sortzen gizakien gainetik dagoen entitate batetik, gizakiok sortu ditugun eta birsortzen ditugun botere eta menpekotasun egituretatik baizik.

Gizarte-sistema gizakion esanahi eta eginahi sinbolikoetan oinarritutako egintza eta elkarregintzaren produktua izanda, ezinbesteko zeregin soziologikoa izango da esanahi subjektiboak konprenitzea eta egintzarekin daukaten lotura aztertzea. Hortaz, errealitate soziala, soziologiaren aztergai gisa, ez da erabat objektiboa den zerbait —*gauza* bat bailitzan ikertu daitekeen zerbait—, errealitate naturalarekin erkaturik ezberdintasun garrantzitsu bat dago: mundu sozialaren protagonistek kontzeptualizatzeko eta elementu sinbolikoak sortzeko ahalmena daukate, baita euren praktikak ebaluatzeko gaitasun erreflexiboa ere (erreflexibitatea). Ondorioz, esanahiak eta eginahiak interpretatzea eta konprenitzea ezinbestekoa da giza egintzak sortzen duen mundu soziala aztertzeko orduan. Dakusagunez, epistemologia- eta metodologiamailean ere bi soziologien artean dauden ezadostasunak ez dira nolanhikoak.

Horiek horrela, argi da egintza sozialaren soziologiarentzat kezka nagusia ordenamendu sozialaren gidaritz dela, hau da, giza egintza kontzientea, intenzionala eta sortzailea; edo beste era batera esanda, gizakiok nola produzitzen eta gidatzen dugun gizarte-sistema, eta ez gizarte-sistemak nola produzitzen eta gidatzen duen gizabana-koa.

Azkenik, arestian aipatu dugunez, gogoan eduki beharrekoa da kezka hauek —ordenarena zein giza egintza intenzionalarena— testuinguru historiko berdinean mahaigaineratzen direla, soziologiaren sorreraren testuinguruan; hain zuzen ere, gizarte tradizionala desegite bidean zegoela eta gizarte modernoaren instituzionalizazioa abian zegoela. Industrializazioak, urbanizazioak, sekularizazioak, demokrazia politikoak eta iraultza zientifikoak —gizarte berria itxuratzen duten elementuek—, irauli egin zuten ordenamendu zaharra, hain zuzen ere, ahaidetasunean, erlijioan, komunitate lokalean eta monarkia absolutuan oinarritzen zen ordena. Aldaketa garai haiek ezagutu zituzten kontraesanak eta aurkakotasunak izugarriak izan ziren eta sortarazi zuten ziurgabetasuna eta larritasuna bete-betean azaltzen zaigu aipatu ditugun ikuspegi soziologiko nagusietan²¹.

1.1.1. *Emile Durkheim: egitura normatiboen izaera objektibo eta derrigortzailea*

Ondorengo lerroetan, arestian erabili dugun gizarte-sistemaren soziologia eta giza egintzaren soziologiaren arteko ezberdinketa jarraituko dugu, baina bi lerroen arteko ezberdintasunak sakondu beharrean ikuspegi biak zabaltzea bilatuko dugu euren

²¹ GARCÍA BLANCO, J. M. “La realidad social como problema: algunas consideraciones sobre la reflexión de la sociedad moderna y la constitución de la sociología” *Escritos de teoría sociológica* liburuan. Carlos Moya, Alfonso Pérez-Agote, Juan Salcedo eta José Félix Tezanos (Bateratzaileak). CIS. Madrid, 1992. Orr. 319.

arteko lotura puntuak identifikatzeko asmoz. Jarraian ikusiko dugunez, tradizio soziologiko horien azterketa integratzailea eginez gero, sistemaren eta egintzaren arteko polarizazio teorikoa, zenbaitetan, tradizio bakoitzaren ordezkari nagusien irakurketa mugatuaren ondorio bezala azalduko zaigu. Izan ere, Emile Durkheim, Max Weber edo Karl Marx bezalako autoreen lanetan gizakion intersubjektibitatearekin zein gizarte-sistemaren egiturarekin loturik dauden ekarpenak aurkitzen ditugu. Horrela, segun eta euren obraren zein momenturi edo ikerketari erreparatzen diogun, errealitate sozialaren dimentsio batzuk edo besteak azpimarratzen dituzte. Horrekin ez dugu esan nahi autore klasiko horiek tradizio eta ikuspegi ezberdinen ordezkariak ez direnik, bai ordea euren lanaren interpretapena larregi behartu dela aurkakotasunaren mesedean eta ez osagarritasunaren bilaketan²².

Polarizazio teorikoa gainditzeko ahaleginak egon badira ere —Talcott Parsons-ek eginikoa ezinbesteko erreferentzia izango dugu, beste inflexio puntua ekarriko baitu pentsamendu soziologikoan—, oro har, aurkakotasun polarizatu hori joera nagusia izan da debate teorikoen garapenean. Jarraian ahaleginduko gara, bada, geure hausnarketa-gaia den giza egintzaren inguruan autore nagusi hauek egindako ekarpena laburbiltzen.

Aipatu bezala, gizarte-sistemaren soziologiaren ordezkari giltzari nagusienetarikoa bat Emile Durkheim dugu; 1895an argitaratutako *Metodo soziologikoaren arauak* liburuan, soziologo frantsesak, eskuartean daukagun gaia lantzeko interesatzen zaizkigun ondorengo ideiak plazaratu zituen: bere ustez, gizartearen kohesioa eta egonkortasuna gizakien gaineratik dauden praktika instituzionalizatuen bidez bermatzen da, praktika horiek gizakion borondate indibidualen gaineratik ezartzen baitira. Horrela, gizarte-gertaera da “gizarte batean orokorra dena eta gizabanakoarengan kanpoko behartze-eragina eragiteko gai den egiteko modu oro”²³. Horra hor mundu sozialaren biezagarri nagusi: behartze-eragile eta egonkortzaile. Durkheim-ek gizarteaz gehien azpimarratzen duena, beraz, bizitza sozialaren egitura normatiboaren izaera objektiboa da, kontrol-prozesuen bidez gizakiengan ezartzen dena: gizartea ikusgai eta aztergai egiten da legitimaturik eta objektibizaturik dauden praktika kolektiboetan (hizkuntza, adibidez). Gizarte-sistemaren oinarrian kontingenteak diren giza adostasunak badaude ere, horiek uxatu egiten dira eta agerian azaltzen dena euren indar ezartzaile eta arautzailea da.

Rodríguez Ibañez-ek azpimarratzen duen moduan, Durkheim-ek errealitate normatiboari erreparatzen dio, adostasun eta arauen sistemari eta bere praktika instituzionalizatuari. Baina horrek ez du esan nahi errealitate horren sorrera intersubjektiboa ezeztatzen duenik. Alderantziz, berarentzat gizarte-gertaeren oinarrian gizakion ohiturak daude, elkarbizitza antolatzeko ezarritako ohiturak, baina ohiturak arau bihurtzen dira eta hori da, Durkheim-entzat, errealitate sozialaren aspekturik bereizgarriena: ohituraz hartutako jokatzeko-, pentsatzeko- eta sentitzeko-erak jarrai-

²² Ikus. RODRÍGUEZ IBÁÑEZ, J.E. *La perspectiva sociológica*. Taurus Humanidades. Madrid, 1992. Orr. 35.

²³ DURKHEIM, E. *Metodo soziologikoaren arauak*. Gaiak. Donostia, 1997. Orr. 45.

bide kolektibo bihurtzen dira. Eta jarraibide kolektibo horiek indar arautzailea eta zigortzailea hartzen dute. Hasiera batean giza erabakiak direnak objektibizatu egiten dira ezinbestean: “batetik, jaio bezain pronto sozialki zigorturik dauden adostasun multzo batean murgiltzen garelako. Adostasun horietatik ihes egitea oso zaila egiten zaigu, zaila baita alternatibarik ikustea eta, egotekotan, hausnarketa-prozesu luze baten emaitza izango dira. Bestetik, Durkheim-ek pentsatzen du talde-mailan gorpuzten denak, kolektibo denak, kategoria eta kalitate gehiago hartzen duela; horrela, barne-indarra eta sendotasuna irabazten duelako, gizabanakoentzat erakargarriagoa egiten da”²⁴.

Horiek horrela, argi da soziologo frantsesarentzat gizakiaren borondatea eta kontzientzia asmoduna ez direla bere portaeraren eragile nagusiak. Gizartearen alderdi normatiboak, instituzionalizatuak eta derrigortzaileak askoz indar eragile handiagoa dauka. Ondorioz, giza egintzaren ezaugarriak ez ditugu pertsonen baitan bilatu behar, baizik eta pertsonen kanpotik ezartzen zaizkien jokatzeko, pentsatzeko eta sentitzeko moduetan; hau da, kontzientzia kolektibo batean bilatu behar ditugu, belaunaldiz belaunaldi gizartearen gehiengoak onartzen eta praktikatzeko dituen jokatzeko-, pentsatzeko- eta sentitzeko- moduetan. Transmisio-prozesu horietan, gure autorearentzat, gehiago da arau eta zigoren bidez mantentzen dena (horixe izango zen eremu soziala), sormenaren bidez aldatzen dena baino.

Hala eta guztiz ere, jarraibide eta errepresentazio kolektiboak, autonomia tarte batekin egokitzen eta erabiltzen dira, horrexegatik gizabanakook badugu ere geure kontzientzia indibiduala. Baina gizarte baten partaide izateko, jokatzeko-, pentsatzeko- eta sentitzeko- modu kolektibotara makurtzen gara; onartzen eta praktikatzeko ditugu eta, normalean, ez dugu beren koakzioa antzematen barneratuta baititugu geure kontzientzi indibidualean. Errepresentazio kolektiboak, beraz, gure baitan ere badaude, baina gu existitu aurretik bazeuden eta gu joan eta gero ere egongo dira; horrexegatik, Durkheim-entzat, geure gaineratik dagoen mundu batean kokatzen dira, entitate gehiago daukan mundu bereizgarri batean: mundu sozialean.

Ikuspegi honetatik, gizarte bakoitzak badu bere egitura normatiboa, eta egitura horrekiko gizarte-gertaerak zein errepresentazio kolektiboak betetzen duten funtzioa soziologoek azterketa-esparrua da.

Gizartearen azterketa, beraz, egitura-funtzio terminotan aldarrikatzen du; batetik jarraibide instituzionalizatuak —egitura batean kristalizaturik— osotasun sozialaren kohesioa bermatzen dute, bestetik, funtzio espezializatuen banaketak beharrezkoa den aniztasuna eta bizitasuna ematen du. Gizarte-egituraren iraunkortasuna dinamiakoak diren funtzio batzuen elkarloturen menpe dago, horrela gizartearen hobetzeko eta egokitzeko ahalmena bermatzen da. Aldaketa-prozesua prozesu funtzionala da, sistemaren egitura egonkor eta dinamikoa mantentzen duena²⁵.

²⁴ RODRÍGUEZ IBÁÑEZ, J.E. *La perspectiva sociológica*. Taurus Humanidades. Madril, 1992. Orr. 89.

²⁵ RODRÍGUEZ IBÁÑEZ (*Ibidem*, orr. 99).

Planteamendu guzti hauek soziologo frantsesaren hasierako liburuetan azaltzen dira, *Lanaren banaketa* (1893), *Metodo soziologikoaren arauak* (1895) eta *Suizidioa*-n (1897). Garai hartan, Durkheim-ek, ezagutza-eremu berri baten instituzionalizazio akademikoa bilatzen baitzuen; horrexegatik, fiolofia moraletik eta, batez ere, psikologiatik bereizgarria izango den zientzia-eremu berri bat definitzera dator. Ezagutza zientifikoa oso une positibistan zegoen eta zientifikotasunaren statusa bereganatzeko objektibismoa eta enpirismoa ere bete beharreko baldintzak ziren. Garaiko testuinguruak eta zientzialariaren asmoak, beraz, asko esaten digu bere ikuspegiak. Are gehiago bere ondorengo lanetan, hasierako asmo akademikoak betetzen ziren neurrian, beste elementu batzuk mahaigaineratu zituenean giza egintza ulertzeko moduari dagokionean.

Horrela, autore ezberdin batzuk azpimarratu duten bezala (Alexander, 1987; Rodriguez Ibañez, 1992), beharrezkoa da —geroago Weber, Marx eta Parsons-ekin gertatuko zaigun bezala— lehenengo Durkheim bat eta bigarren Durkheim bat ezberdintzea. Bigarrenean, gizartearen teoria erlijioso bat aurkituko dugu, oinarrian giza egintzaren ikusmolde sinbolikoa eta emozionala daukana. *Bizitza erlijiosoaren oinarritzko adierazbideak* (1912) liburuan, Durkheim-ek, lehenengo planora ekartzeko egintza eta elkarrengintza indibidualak zelan erreproduzitzen dituen ordenamendu soziala eta gizarte-kontrola. Izan ere, gizartearen ideia ordenamendu sinboliko baten sorrerarekin lotzen du: ordenamendu sinboliko hori gizartearen proiektzio kolektiboa da. Gizartea, beraz, gizartea da giza taldeek euren buruaren irudikapen sinboliko bat egin zutenetik, lehenengo irudikapen edo sorburu hori erlijioa izan zen. Behin eratu ta gizartearen irudikapen sinboliko hori, giza artekotasan arauak, jokabideak eta betebeharrak sortzen ditu, objektiboki onartzen eta praktikatzen direnak; horrela, ordenamendu sinbolikoa ordenamendu instituzionala bihurtzen da²⁶.

Durkheim-entzat, gizarteak dauzkan kohesio moralaren oinarriak zaharbertitzen dira bizitza publiko eta pribatuaren zeremonietan, erritoetan eta ohiunetan (jaiotze-ospakizunetan, ezkontzetan, hiletetan, lehenengo jaunartzetan, koroapenetan, mitinetan, manifestapenetan, instituzioen irekieretan, karguen juramentuetan, sari banaketetan, etab.). Keinu erritual hauek gorpuzten dute jakintzat ematen dena, balio inplizituak. Erritualetan errepikatzen den jatorrizko sinbolizazio hori apaltzen bada sinbolizazio-joera berriak sortzen dira, gizakion joera sortzailea etengabekoa baita. Sinbolizazio eta erritualizazio berriak praktika instituzionalizatuak bultzatuko ditu, eta horiek indar sinbolizatzaile berriak, horrela *ad infinitum*. Rodriguez Ibañez-en us tez, *Bizitza erlijiosoaren oinarritzko adierazbideak* liburuan, Durkheim-ek gaintzen du gizartearen lehenengo ikuspegi estatikoa (gizartea egitura gisa) eta, gizartearen egitura funtzionala, etengabe berritzen den sistema gisa ulertzen du; aldi berean egituratzailea eta egituratua sinbolizazio, erritualizazio eta bersinbolizazioen bidez.

Bizitza kolektiboak intentsitate maila altu bat hartzen duenean baldintza psikikoak aldatzen dituen bizitasun egoera bat eragiten du. (...) Gizakia aldatuta sentitzen da eta ondorioz bere ingurua eraldatzen du (...) Idealen sorrera ez da zientziatik kanpo dagoen ger-

²⁶ *Ibidem* (orr. 101).

taera bat, behaketak zehaztu ditzakeen baldintzapean dago, bizitza sozialaren ondorio naturala da²⁷.

Horiek horrela, nahiko argi azaltzen zaigu Durkheim-en normatibismoa gizakion elkarregintzan sortzen den kohesio sinbolikoan sustraitzen dela. Alderdi horri, ordea, gutxi erreparatu zaio bere lan teorikoa kokatzeko eta lantzeko orduan, irakurketa mugatua edo nagitsua egin baitzaio. Berak nabarmentzen duena errealitate sozialaren alderdi arautzailea eta instituzionalizatua dela ahaztu barik, beharrezkoa da onartzea gogoan hartzen duela ere egitura arautzaile horren oinarri intersubjektiboa, giza egintza eta elkarregintzarekin loturik dagoena.

Max Weber-en pentsamendutik egitura-egintza debatera ekarri daitekeena laburbildu aurretik, Durkheim-en inguruko lanaz gogoan edukiko duguna, beraz, intersubjektibitatea eta giza egintzaren aurrean zabalik dagoen egiturazko ikuspegi derrigor-tzailea izango da.

1.1.2. *Max Weber-ren soziologia konprentsiboa: giza egintzaren sena edo zentzu soziala*

Max Weber giza egintza sozialaren teoriko nagusien artean dugu, berak sortutako giza egintzaren definizioa eta tipologia etengabeko erreferentzia izan baitira geroko giza egintzaren teorian. Weber-en pentsamenduan aktore sozialak dira abiapuntua, soziologiaren erdigunean aktore sozialen egintza interpretatiboa eta esanguratsuaren azterketa dago. Bere ikuspegi konprentsiboak arreta berezia ematen dio giza egintzaren kontingentziari eta nahitaezkotasunaren ezari, baina ahaztu barik gizarte-sistemak —praktika instituzionalizatuak egitura batean kristalizaturik— derrigorrezko jarraibideak ezartzen dituela eta, horrela, mugak ezartzen dizkiola giza egintzaren berezko kontingentziari.

Weber-en lanean berebiziko garrantzia izango dituzte gizarte industrializatuaren arrazionalizazio prozesuak, bere ustez erabat burokratizatu den ordenamendua sortzen baitute: gizarte modernoak burokraziaren hazkundera dakar, horrela, efikazia- eta inpartzialtasun-maila altuagoa lortzen bada ere, gizabanakoen ekimenak murrizten dira, kontrolak areagotuz eta araudien menpekotasuna ezarriz. Araudien funtzionamendu arrazionalaren azkeneko ondorioa gizatasunaren galera izango zen. Bere tonu dramatikoak erabiliaz, makina burokratikoak menperatu eta gidatzen gaitu, benetako “burdinazko kaiola” batean sartzen gaitu:

Burokraziarekiko grina horrek gogoan galarazten digu. Badirudi, ezinbestez ordena behar dugun gizakiak bihurtu garel, ordena eta ordena, larritzen eta beldurtzen garel ordena pitzatzen bada eta odolgabe gelditzen garel ordenarekin bat egiterik ez badugu. Munduan beste gizaki mota egoterik ez balego! Horrelako bilakaera batean harrapatuta gaudela ematen du, eta argitu beharrekia ez da joera hori zelan bultzatu eta azkartu, baizik

²⁷ DURKHEIM, E. *Las formas elementales de la vida religiosa*. Akal. Madril, 1992. Orr. 392-394.

eta, gizatasun puska bat mantentzearen, zelan egiten diogun kontra makineria horri, ari-maren zatiketa eragiten duen bizimodu burokratikoaren nagusitasunari²⁸.

Ikus daitekeenez, soziologo alemanaren kezka mundu sozialaren gidaritzat da; berez, gizabanako arrazionalak eta partehartzaileak gara, baina, makro-instituzio handien barne, inertiapean dauden piezak gara. Arrazionalizazioa eta menperakuntza gizarte modernoaren bikoiztasunaren adierazle dira. Soziologiaren zereginari dagokionez, Weber-ek, ikasketa-objektu gisa, giza egintza soziala defendatzen du; gizarte-antolaketaren ikerketak ezin baitu bigarren mailan utzi gizabanako ekintzailea, ezta elkarregintza interpretatiboaren azterketa ere.

Soziologian, oro har, *Estatua, elkartea, feudalismoa* eta antzeko kontzeptuak, giza elkarregintzaren kategoriak izendatzeko erabiltzen dira. Soziologoaren zeregina da kontzeptu horiek egintza *ulergarri* bihurtzea, hau da, salbuespenik gabe, parte-hartzen duten gizaki indibidualen jokabideak konprenitzea²⁹.

Horrela Weber-ek, entitate abstraktu horien aurretik, gizabanako partehartzaileen jardun sinbolikoa aldarrikatzen du. Egintza sozialean gizabanakoak esangura subjektibo bat ematen dio bere portaerari, besteen portaera kontuan hartzen duen esangura edo zentzu bat; hau da, hartu-eman sozialean aktoreen jardunak, bere eduki esanguratsuan, besteen jarduna hartzen du orientabide gisa. Horrela, hartu-eman edo elkarregintzan elkartrukutzen diren eta sortzen diren elementu sinboliko-kultural horiek dira gizarte hezurmamitzen dutenak. Historia, azken batean, giza egintzan oinarritzen da eta soziologiaren objektua, beraz, gizabanakoen egintza esanguratsua da; besteen jarduna erreferentziatzen hartzen duen egintza zentzuduna. Izan ere, bi ezaugarri nagusi horiekin definituko du Weber-ek giza egintza soziala: “egintzaz ari gara giza jokaera batean —agerikoa edo ezkutukoa, baiezkua edo ezezkoa— gizabanako ekintzaileak esangura edo zentzu subjektibo bat eranstean badio bere ekintzari. Egintza soziala izango da bere esangura subjektiboak erreferentziatzen hartzen badu besteen jokaera eta horren araberrako orientabidea hartzen badu”³⁰. Weber-arentzat, beraz, edozein giza egintza ez da soziala, ezta edozein gizakion arteko topaketa ere; adibidez, bi txirrindularik elkar jo eta lurrera erori gertaera naturalen tankerako gertaera da, egintza soziala agertuko zen istripua saihesteko ahaleginean edo istripuaren ondorengo eztabaidan³¹.

Gizabanakook geure ekintzei eranstean dizkiegun esangurak elkarregintzan daukagun sormen sinboliko anitz eta konplexuaren emaitza dira; esangura horiek, historian zehar, beren isla eta fruitua dute gizartearen ezaugarri diren hainbat kultur-produktu eta instituziotan. Weber-arentzat osotasun sozialak eta gizarte-instituzioak gizabanakoen jardun zehatzen elkarlotura eta prozesuen emaitza dira. Gizabanakoek adierazten

²⁸ AIPATUA “Las teorías de la acción social” artikuluan. DAWE, A. *Historia del análisis sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1988. Orr. 445-6.

²⁹ *Ibidem* (orr. 446).

³⁰ WEBER, M. *Economía y sociedad*. Fondo de Cultura Económica. Mexiko D.F., 1992. Orr. 5.

³¹ *Ibidem* (orr. 19).

duten zentzua da, hain zuzen ere, egintza bat sakonean konprenitzeko ikerlariek daukaten aukera eta, ondorioz, gizarte-fenomenoak ulertzeko eta azaltzeko aukera. Soziologia posible bada, Weber-rentzat, soziologia konprentsibo modura izango da; hots, giza egintzaren zentzua konprenitzera zuzendutako azterketa gisa. Soziologia berri baten oinarriak jarriko ditu Max Weber-ek: mundu sozialaren alderdi sinbolikoak konprenitzera zuzenduta dagoen soziologia interpretatzailearena, hain zuzen.

Dakigunez, eredu edo tipo ideialen erabilpena izan zen Weber-ren proposamen metodologikoa gizarte-fenomenoen *Verstehen* edo konprentsioa erdiesteko. Horrela, metodologia hori aplikatuz, egintza sozialaren teorian oso ezaguna egin den tipologian, ondorengo lau giza egintza mota ezberdindu zituen: *helburuen arabeko egintza arrazionala*, aktorearen helburu propioak lortzera bideratuta dagoena (arrazionalki kalkulatu eta bilatutako helmugak). *Balioen arabeko egintza arrazionala*, portaera etiko, estetiko edo erlijioso baten berezko balioengan sinisteak bideratzen duena (arrakastarako aukerak alde batera utzita). *Egintza afektiboa*, aktorearen hunkimendu eta sentimendu egoerek determinatua. *Egintza tradizionala*, barneratutako ohiturek bideratzen dutena³².

Egintza zorrozki tradizionala denean, askotan, erabateko egintza zentzuduna izateko mugan dago, edo mugatik harantzago. Sarritan, ohiko estimuluaren aurrean emandako erreakzio iluna besterik ez baita. (...) *Egintza zorrozki afektiboa* denean, modu berean, askotan ezin dugu egintza kontziente eta zentzudun gisa hartu, ohikoa ez den estimulu bati emandako trabarik gabeko erreakzioa izan baitaiteke. (...) *Egintza afektiboa* eta *balioen arabeko egintza arrazionalaren* artean badaude bi ezberdintasun: bigarrean egintzaren azkeneko helmugak kontzienteki zehazten dira eta egintzaren planteamendua ere tenore berekoa da, kontsekuentea edo helmugen arabekoa. Bi egintza mota horiek, ordea, nahiko antzekoak dira beste ezaugarri batean: bietan egintzaren zentzua ez da jartzen ondorioetan edo emaitzetan baizik eta egintza berean, egintzaren berezitasunean. Aurreikusi daitezkeen ondorioak kontuan hartu gabe, ekintzaileak bere sentimendu edo sinismenen arabera jokatzeko du. (...) *Helburuen arabeko egintza arrazionalarekin* jokatzeko duenak helmuga, baliabide eta ondorioen arabera gidatzen du bere egintza, horretarako helmugak baliabideekin neurtzen ditu, hala nola, helmuga sor daitezkeen ondorioekin³³.

Weber-ek behin eta berriz errepikatu zuenez, egintza eredu horiek eredu gordinak dira, idealak, ez dute agortzen errealitatean aurki dezakegun giza egintzaren aniztasuna; gainera, errealitate historiko zehatzak aztertzeke orduan, elementu horien konbinaketak aurkituko ditugu. Giza egintzaren eredu ideal horiek, beraz, tresna analitiko gisa ikusi behar ditugu; hau da, ikerketarako erabilgarriak izango dira testuinguru zehatz bakoitzean ematen diguten emaitzen arabera. Baina Weber-ren egintza sozialaren teorian badaude hain ezagunak ez diren oharrak eta elementuak. Adibidez, autore alemaniarrek argi adierazten digu gizabanakoen egintza errealaren sena edo zentzua, gehienetan, sasi-kontzientzian edo inkontzientzian dagoela: “Agenteak modu zehaztugabea “sentitzen” du “badakiela” bere egintzaren funtsa; baina, gehie-

³² WEBER, M. *Economía y sociedad*. Fondo de Cultura Económica. Mexiko D.F., 1944. Orr. 20.

³³ *Ibidem* (orr. 20-21).

netan, instintuz edo tradizioz jarduten du. Noizean behin bakarrik —eta soilik giza-banako batzuegan— egintzaren zentzua (arrazionala edo irrazionala izanda) ailegatzten da kontzientzia mailara. Zentzua erabat argi, kontzientea eta adierazita duen ekintza bat muturreko kasu mota bat da”³⁴. Weber-rentzat ezinbestekoa da, errealitatea aztertzeko orduan, mugapen hori gogoan izatea baina, aldi berean, hori ez da oztopoa egintza batek izan ditzakeen zentzu edo adierazitako esangura ezberdinak modu kontzientean garatuko bailiran sailkatzeko. Beti ere, ahaztu barik ezinbestekoa dela sailkapenaren eredu ideialek errealitate zehatzekin daukaten aldea eta ñabardura identifikatzea.

Weber-rek horiek eta bestelako ohar metodologiko zuhurrak egin zizkion bere tipologiari baina, dena den, tipologiaren oinarrian dagoen printzipioa eztabaida luze eta korapilatuen iturria izan da. Izan ere, Hans Joas-ek azpimarratu duen bezala, Weber-ren tipologiaren irizpidea *helburuen arabeko egintza razionala* da, hau da, arrazionaltasun instrumentala. Tipologiak nolabaiteko mailaketa adierazten du, hain zuzen ere, arrazionaltasun mailaren arabeko mailaketa: giza egintzaren funtsezko lau dimentsio edo osagai ezberdintzen ditu (baliabideak, helmugak, balioak eta ondorioak) eta aktoreak horietako zeintzuk kontuan hartzen dituen irizpide moduan hartuta egintza mota ezberdinak sailkatzen ditu. Beste era batera esanda, dimentsio bakoitzaren inguruan aktoreak egiten duen gogoetaren arabera sailkatzen ditu giza egintza mota ezberdinak. Horrela, *helburuen arabeko egintza arrazionallean* aktoreak gogoeta egiten du (eta beraz nolabaiteko kalkulua) lau dimentsioen inguruan; *balioen arabeko egintza arrazionallean* aktoreak ez ditu ondorioak kontuan hartzen; *egintza afektiboan* aktoreak ez ditu gogoan hartzen ondorioak, ezta balioak ere; azkenik, *egintza tradizionallean* helmugak ere ez dira gogoan hartzen³⁵. Hans Joas-en ustez, Weber-ren planteamenduan badago giza egintza eredugarri bat, eta hori da helmugak, baliabideak, balioak eta ondorioak arrazionalizatzen dituenak. *Helburuen arabeko egintza arrazionala* da ehunetik ehunean arrazionala dena. Interpretapen zorrotz honetatik abiatuta eta Wolfgang Schluchter-ren lanarekin lagundurik³⁶, Joas-ek kritika egiten dio Weber-ri egintza instrumentala egintza arrazional nagusi bezala hartzeagatik (eta erantzukizunaren etika batekin lotzeagatik), gainerako egintza mota lehenengo horretatik erakusten duten desbiderapen mailaren arabera kontsideratuz.

Weber, Simmel bezala, ahalegindu zen egintza ekonomiko oro, eta bereziki egintza arrazionala, balio kulturaletan oinarrituta dagoela erakusten. Bere egintzaren teoria, ordea, egintza arrazionalaren menpe geratu zen³⁷.

Kritika horrekin eta Durkheim, Tönnies, Simmel edo Parsons-i eginiko kritikekin, Hans Joas-ek defendatzen du soziologo klasikoek, pentsamendu ekonomikoan ikuspegi utilitaristak zuen garrantziaren eraginez, arrazionaltasuna edo normatibismoa ja-

³⁴ *Ibidem* (orr. 18).

³⁵ JOAS, H. *El pragmatismo y la teoría de la sociedad*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madrid, 1998. Orr. 281.

³⁶ JOAS, H. *The creativity of action*. Polity Press. Cambridge, 1996. Orr. 39-40.

³⁷ *Ibidem* (orr. 43).

rri zutela euren egintzaren teorien erdigunean. Geroago ikusiko dugunez, Joas-ek egintzaren teoria birformulatzea proposatzen du; giza egintzaren ezaugarri nagusi gisa sormena aldarrikatuz, giza egintzaren tipologia osatuagoak proposatu daitezkeela uste baitu.

Alan Dawe-k beste arrazoi bat aipatzen du Weber-ek arrazionaltasun instrumentalarari ematen dion erreferentzialtasun analitikoa ulertzeko. Izan ere, Weber-ek badu, Durkheim-ek bezala, soziologiaren zientifikotasuna bultzatzeko nahia, eta zientzia modernoak eskatzen duen zehaztasun eta azalpen maila, errazago lortzen da giza egintza baliabide eta helmugen arteko egokitzapenaren azterketara mugatzen bada. Horrela, arrazionaltasun instrumentala, neurtzeko eredia bihurturik, gainerako giza egintzak patroi horretatik gehiago edo gutxiago urruntzen diren arabera aztertu daitezke. Dawe-k ohartarazten duen moduan, ordea, ikuspegi horrek desbiderapen horien gradua eta existentzia agerrarazteko balio badu, ez du eskaintzen “desbiderapenak” azaltzeko modurik³⁸.

Weber-ren obran badago beste elementu bat argiro erakusten duena mundu sozialaren gidaritzaren arazoari edo gizabanakoaren egintza eta jardun sinbolikoari eman zion garrantziak, ez zuela behar zuen jarraipenik izan bere azterketetan. Izan ere, Weber-en lan nagusiak ez ziren zentratu elkarregintzaren azterketan, sozializazio prozesuetan edo eguneroko elkarbizitzaren alderdi sinbolikoetan, Weber-ren interesgune nagusia mendebaldeko gizarte kapitalista modernoa da; bere sorrera, garapena eta, batez ere, elkarbizitzaren esparru ezberdinek burokratizatzeke erakusten duten joera. Jarraian ikusiko dugunez, jakin-min horrek urrundu du Weber elkarregintzaren eta intersubjektibitatearen azterketatik eta gizartearen alderdi objektibizatueta eta instituzionalizatueta hurbildu. Izan ere, gizarte modernoaren instituzionalizazio-prozesu makroak eta gizabanakoengan ezartzen dituen jarraibideak aztertuko ditu.

Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua (1904) liburuan, ekonomia kapitalista aztertzen du, hedapen luzeko prozesu historiko-kultural gisa. Bere planteamenduan, Israelgo Jaungoiko abstraktuak, Greziako filosofiak, Erromatarren formalismo juridikoak eta Erdi Aroko hirien hazkundeak benetako fenomeno bereizgarri bat hezurramitzen dute: mendebaldeko kultura kapitalista, etika berri bat zabaltzen duen kultura. Etika horren arabera, bertutea eta salbazioa ez da bereganatzen Probidentziari esker edo pasibitate, kontenplazio eta pairamenduari esker; salbabidea, *munduan* gauzatu beharreko merezimenduen bidez lortu behar da. Erreforma protestantearen eraginez sortzen den etika berri horrek, nobedade garrantzitsu bat ekarriko du: ordura arte ekonomia etxeko beharrianak asetzera zuzendutako jarduera instrumentala eta irabazteko-asmoduna zen, etika berriarekin batera sortzen den kultura kapitalistaren eskutik, ordea, ekonomia ahalik eta aberastasun gehien pilatzeraz zuzendutako jarduera profesionala izango da. Eta, horretaz gain, etengabeko hazkunde ekonomikoaren eta garapenaren ustea zabalduko du, teoriarik mugarik ez duen garapen ekonomikoa. Eraginkortasuna, errentagarritasuna eta ingurugiroaren etengabeko

³⁸ DAWE, A. “Las teorías de la acción social”. *Historia del análisis sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1988. Orr. 448.

moldaketa instrumentala, kultura arrakastatsua bihurtzen da; pertsonak, bertutea eta duintasuna lortzeko asmoz, hazkunde ekonomiko horren zerbitzari bihurtuko dira: “Izan ere, aszetismoa, monako-gelak laga eta bizitza profesionalera aldatu zenean, eta moralitate sekularra bere menera ekartzen hasi zenean, ordena ekonomiko modernoaren kosmos liluragarriaren eraikuntzan parte hartzeko egin zen; kosmos honek, ekoizpen mekaniko eta makinistari darizkion baldintza tekniko eta ekonomikoei loturik, eskuratze ekonomikorekin zuzenean zerikusirik dutenen bizimodua ez ezik, bertan jaiotzen diren gizabanako guztiena ere mugatzen du, eta segurik askoz denbora luzeago ere segituko du mugatzen”³⁹.

Rodriguez Ibañez-en iritziz, Weber-en teoria egungo gizarteak ezartzen duen menpekotasunaren kritika da eta, aldi berean, menpekotasun horren azalpena. Egungo gizarte kapitalistan, arrazionaltasun instrumentalaren erabateko hedapenak arrazionaltasun baloratiboa ezabatzen baitu. Horrexegatik, Weber-en obsesioetariko bat da intersubjektibitateak eta giza elkarregintzak suspertuko duen “printzipioen etika” berreskuratzea (dogmatismoetan erori gabe), eta “erantzukizunaren etikarekin” elkar osatzea (pragmatismo gordinera pasa gabe).

Alan Dawe-k ikuspegi kritikoago batetik aztertuko du Weber-en lana. Dawe-n ustez, Weber-en abiapuntua gizakia, elkarregintza eta giza egintza eredu ezberdinak sailkatzea bada ere, geroago, giza egintza ereduak gizarte-ordenamendu ereduak aztertzeko erabiltzen ditu. Horrela, aktore soziala eta bere esangura subjektiboak bigarren mailan uzteagatik, ordena sozialaren ispilu eta ondorio bihurtzen ditu. Dawe-n ustez, Weber, hasierako kontzeptuetatik urruntzen da eta sistema sozialaren soziologiaren joera hartzen du.

Giza egintza arrazionala-instrumentala mendebaldeko gizarte-sistema instrumentala (gizarte kapitalista) aztertzeko erabiltzen du, aktoreen sena eta eginahiak determinatzen dituen (“ordena behar dugun gizakiak bihurtu gara, ordena eta ordena”). Arrazionaltasun instrumentalak giza egintza ezeztatzen du (“makina burokratikoak menperatu eta gidatzen gaitu, makineria baten piezak bihurtu gaitu”). Hans Joas-ek, ildo beretik, gizabanako modernoak modu heteronomoan eta determinatuan kontzeptualizatzea egozten dio Weber-i: “Gizarte modernoaren joera burokratizatzaileari egiten dion kritika, gizakiaren ulerkera sortzaile eta arduratsu batean oinarrituta dago, baina gizakiaren ikuspegi hori ez zuen garatu bere teorian. Izan ere, Weber-ren egintzaren teoriak ez dio behar adinako tokia ematen eguneroko egintza sortzailearen posibilitateari”⁴⁰.

Hasieran aipatu dugun moduan, Weber-rentzat, gizakiok, munduari zentzu bat emateko eta horren arabera jarrera eta jokaera batzuk jarraitzeko gaitasuna eta borondatea daukagun izakiak gara. Eta ikuskera horrek bultzatzen du egintzaren kontingentziaz eta sormenaz daukan aldeko ikuspegia, maila pertsonalean zein sozialean.

³⁹ WEBER, M. *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*. Gaiak Argitaldaria. Donostia, 1996. Orr. 231.

⁴⁰ JOAS, H. *The creativity of action*. Polity Press. Cambridge, 1996. Orr. 49.

Bere obran, ordea, egintza sortzaile eta kontingente horren garapena “karisma”ren fenomenoan kokatuko du; Weber-ren ustez, instituzionalizatuta dagoen gizarte-antolaketa eraldaketa, karisman (liderren aparteko gaitasunean edo itzalean) oinarritutako mugimendu arrakastatsuen bidez eragiten da, mugimendu hauek giza egintzaren bapateko eztanda emankorrek direlako. Arazoa, ordea, geroago azaltzen zaigu: eraldaketa prozesuek euren iraunkortasuna bermatzea bilatzen duten neurrian, bapateko konpromiso afektiboa baino haratago joan behar baitute, irautea bilatzen duten neurrian arrazionaltasun instrumentalean oinarritutako arauak, hierarkiak eta jarraibide instituzionalizatuak ezarri behar dituzte. Horra hor, Weber-rentzat, giza egintza sozialaren paradoxa eta anbiguotasuna: sortzen dena indarrean jartzen den neurrian, berezko dinamikak hartzen ditu eta jarraibide instituzionalizatuak ezartzen ditu; baina, horrela, hasierako giza egintzarengandik urruntzen da, are gehiago, traba egiten die egintza sortzaile berriei.

Dawe-n ustez, Weber-ek jarraitzen duen logikak erratuta dagoen ondorio batera eramaten du. Arestian ikusi dugunez, Weber-rentzat, rutinizazio prozesuak direla eta, giza egintzaren berezko joera da arrazionaltasun instrumentala eta, horri esker, instituzionalizatzen dira ordena tradizionala ordezkatzeko duten jarraibide berriak. Hau da, egintzaren arrazionaltasun instrumentalak ematen dio egintza baloratibo eta sortzaileari bere efektu eraldatzailea. Ondorioz, giza egintzaren joera instrumentala saihestezina bailitzan azaltzen zaigu, momentu batean iraultzailea eta geroago mugatzailea. Gizarte-antolaketa berria sortarazi dezake baina, prozesu berean, ordena berria nahitaezko izaera zigortzailea hartzen duen neurrian, giza egintza kontingente eta sortzailearen ezeztapena sortaraziko du. Dawe-n ustez, Weber-ren pentsamenduan sentimendua eta arrazionaltasunaren arteko aurkakotasuna, gizaki moraletik gizaki instrumentalera doan bilakaera batekin desegiten da eta horrela arrazionaltasun instrumentala da nagusi: balio etikoetan oinarritutako izaera sortzailea bere garapenean nahitaezko izaera derrigortzailea hartzen du. Zentzu horretan, giza egintza auto-ezeztatzailea da.

Honenbestez, Weber-ek giza egintzaren irakurketa dramatikoa egiten du. Arrazionaltasun burokratikoa eta instrumentala deitoratzen du baina, aldi berean, geldiezin eta saihestezinezko nagusitasun-joera ikusten du berarengan, ezin zaio ihes egin. Giza egintzak giza menpekotasuna eta morrontza darama bere baitan. Horrela ulertzen da gizabanako partehartzaileak izatetik makineriaren morroiak izatera dagoen iraganbidea. Dawe-n kritika da, hain zuzen, Weber, kontingentzia eta sormena azpimarratzetik nahitaezkoitasuna, saihestezintasuna eta sistemarekiko morrontza azpimarratzera pasa zela. Eta, giza egintzaren ikuskera horrekin, gizarte-sistemaren soziologia egitera pasa zen, gizarte-sistemaren makineriaren kontra jarduten duten gizakiek —euren elkarrengintza eta ahalmen sortzailearekin— bere begibistik desagertzen baitira.

Karl Marx-en pentsamenduan sartu aurretik, Weber-ren ikuspegi konprentsiobotik gorde nahi duguna zera da, giza egintzaren ahalmen interpretatzailea kontzeptualizatzearekin batera, antzeman zituela gizarte-sistemak ezartzen dituen mugak. Hortaz, errealitate sozialaren alderdi derrigortzaile eta arautzaileari erabat irekia zegoen ikuspegi mahaiganeratu zuen.

1.1.3. *Egitura, egintza eta praxia Marx-en pentsamenduan*

Karl Marx-ek pentsamendu soziologikoari egin dion ekarpenaren azterketa oso baldintzatua egon da bere ideiek mundu mailan izan dituzten aplikapen politikoagatik. Oro har, esan genezake, Marx-en lanaren interpretazioan estereotipoak eta alde zurrerako jarrera itxiak (alde zein kontra) nagusitu direla, eta horrek zaildu egin duela bere lana aztertzea Durkheim, Simmel edo Weber-en lanak aztertu diren bezala.

Horrela, Lamo de Espinosa-ren ustez, XX. mendeko azkeneko hamarkadara arte marxistek, marxologoek eta anti-marxistek ez dituzte euren debate sutsuak lasaitu eta, ondorioz, marxista izatearen etiketak esanahi zientifikoa baino esanahi politikoa edukitu du⁴¹. Marx-en lanaren inguruan, beraz, gainzama sinboliko-politikoa gehiegizkoa da eta horrexegatik ez da lortu, salbuespenak salbuespen, Marx ikustea gizarte-zientzien tradizioan kokatu beharreko beste autore bat gehiago bezala. Hori da, ordea, atal honetan dagokigun ahalegina; aurreko autore klasikoekin egin dugun legez, Karl Marx-en pentsamenduan aktore sozialaren eta egitura sozialen inguruko ulerkerak aztertzea.

Azterketa honetan azpimarratuko dugun lehenengo gauza Marx-en lanaren heterogeneitatea eta multidimentsionalitatea izango da eta, horrekin batera, bere ahalegin dialektikoa. Izan ere, bi Marx (“Marx gaztea” eta “Marx heldua”) edo Marx bakarra egotearen inguruko debate amaigabeak islatu egiten du bere obran aurkitu dezakegun ahalegina ikuspegi estrukturalaren eta ikuspegi inter-subjektiboaren arteko aldea modu dialektikoan gainditzeko. Ahalegin horrek kontraesanak eta hutsunak ditu Marx-en obraren garapenean, eta horrek elkar baztertzailak diren interpretazioak sortu ditu. Are gehiago, alde bakarreko irakurketa mugatuak nagusitu direla esan genezake: marxismo indibidualista edo boluntarista, batetik, eta marxismo estrukturalista edo ortodoxoa, bestetik. Marxismoaren interpretazio boluntarista Marx-en hasierako lanak hartzen ditu oinarri, batez ere *Ekonomia eta filosofiaren eskuizkribuak* (1844), zeinean aldarrikatzen duen gizabanakoaren sormena eta mundu sozialaren halabeharrezkotasun eza. Lamo de Espinosa-ren hitzetan, “Marx gaztearen” kezka nagusia kezka humanista da: gizakia askatzea, des-alienatzea, horrexegatik aztertuko du lehenengo alienazio erlijiosoa, gero politikoa eta, azkenik, alienazio ekonomikoa. Azterketa horretan kontzeptu nagusia kosifikazioa da, hau da, errealitate sozialaren itxurazko objektibitateak gizabanakoentzat dakarren boterearen galera eta alienazioa. Hitz klabeak anti-determinismoa, anti-positibismoa, itxura eta alienazioa izango ziren⁴². Hortaz, gizartearen historiaren indar bultzatzailea gizakion egin-

⁴¹ “...Marx-en lanaren irakurketa hiper-politizatua harrapatuta egon zen, lehenengo, klase-borroka-ren dialektikan, eta gero gerra hotsarenean, ondorioz marxismo-antimarxismo debateak zaildu egin zuen lanaren interpretazioa” *La sociología del conocimiento y de la ciencia*. E. LAMO DE ESPINOSA, J.M. GONZÁLEZ, C. TORRES. Alianza, 1994. (orr. 176-177).

⁴² *Ibid.* (orr. 178-79). Giza oharmenaren paper aktiboa defenditzen duen interpretazio horren jarraitzaileak Bernstein, Luckás, Frankfurtoko eskola eta fenomenologia dira, Lamo de Espinosa-ren planteamenduan. Lamo-k gogorarazten digu ere beste datu garrantzitsu bat: “Marx gaztearen” liburuak ez ziren argitaratu mende honen 30. hamarkada arte eta ordurako interpretazio determinista oso hedatuta zegoen, eta bazegoen ere ideologia politiko marxista bat, Errusiako sistema politikoa legitimatzen zuena.

tza da eta, inola ere ez, zerbait metafisikoa edo historiaren lege meta-sozialaren bat. Zentzu berean, gizarte-egiturak ez dira emanda datozkigun elementu objektiboak, baizik eta pertsonen arteko hartu-emanaz osaturiko errealitateak eta, ondorioz, aldagarriak. “Marx-ek azpimarratzen duena da historiak ez duela esangurarik (horrekin adierazi nahi du ez dagoela giza aktoreengandik independentea den paturik edo xederik), baina praktika instituzionalizatuek gizakiengan daukaten eragina, nahigabeko ondorio gisa ulertu behar dugu; hau da, gizabanako gehienek, zenbait baldintzetan, hartzen dituzten aukeren ondorioa”⁴³.

Marxismoaren interpretazio estrukturalistak, ordea, “Marx heldua” hartzen du oinarri; zehazki, *Ekonomia politikoaren kritika* (1859) eta *Kapitala* (1863). Ideia nagusia da Marx zientzialariak sortu zuela gizartearen eta historiaren zientzia dialektikoa, deskubritu eta definitu zituen gizartearen bilakaera gidatzen duten legeak eta printzipioak. Are gehiago, zehaztu zuen gizarte-eredu bakoitzak ekoizpen-modu zehatz bat duela oinarri, eta ekoizpenerako indarrak zein ekoizpen-harremanek sortzen dituzten kontraesanak eta gatazkak, aldaketa edota gizarte-eredu berriaren hazia direla. Horrela, gizartearen garapena, emantzipaziora daraman etengabeko bilakaera (edo lege sozial) baten menpe dago. Hitz klabeak lana, ekoizpena, ekoizpen-harremanak, legeak, determinismoa, positibismoa eta zientifismoa dira⁴⁴. “Guretzat, komunismoa ez da sortu behar den egoera bat, ezta errealitatea moldatu behar duen ideal bat ere. Guk komunismoa esaten diogu oraingo statu quo ezabatzen eta gainditzen duen mugimendu errealarari. Mugimendu horren baldintzak oraingo egoeraren premisetatik eratortzen dira”⁴⁵.

Gauzak horrela, argi da Marx-en lana aurkakoak diren ikuspegiak garatzeko iturburua izan dela; eta, horren arrazoiak, Marx-en hutsuneak edota kontraesanak zein jarraitzaileen akatsak eta interpretazio okerrak izan daitezkeela. Guri interesatzen zaiguna, ordea, ez da debate horretan sartzea baizik eta, aurreko autore klasikoekin egin dugun moduan, gizarte-egitura eta giza egintza uztartzeko balio dezaketen kontzeptuak eta planteamenduak lantzea.

Zentzu horretan, bat egingo dugu Lamo de Espinosa-k egiten duen planteamendurekin, hain zuzen, Marx-en obran aurkitu ditzakegun maila eta alderdi ezberdinek lotura puntua daukatela Marx-ek garatzen duen kosifikazioa edo “galdutako gizarte-boterearen” teorian. Izan ere, bere obraren elementu hori ez badugu aintzat hartzen, zaila egiten da Marx-en pentsamenduan dagoen batasun teorikoa ikustea⁴⁶. Goazen,

⁴³ TUCKER, D.B.F. *Marxism and Individualism*. Oxford: Basil Blackwell. 1980. Sztompka-k aipatua. *Society in Action*. Polity Press. Cambridge, 1991. Orr. 30-31.

⁴⁴ Giza oharrena gizartearen ispilu gisa ikusten duen interpretazio horren jarraitzaileak Kautsky, Lenin, Plekhanov edo Althusser dira, Lamo de Espinosa-ren iritziz. *La sociología del conocimiento y de la ciencia*. E. LAMO DE ESPINOSA, J.M. GONZÁLEZ, C. TORRES. Alianza, 1994. (orr. 178-79).

⁴⁵ MARX, K., ENGELS, F. *La ideología alemana*. Pueblos Unidos. Montevideo y Grijalbo, Barcelona 1970. Orr. 37. Rodríguez Ibañez-ek planteamendu determinista berdina ikusten du Marx-en *Kapitala* liburuan: gizartearen garapenean, zientifikoki probaturik dauden lege ebolutiboak baieztatzea. Rodríguez Ibañez *La perspectiva sociológica*. Taurus Humanidades. Madrid, 1992. (orr. 77).

⁴⁶ *Ibidem* (orr. 180).

bada, giza egintzaz eta gizarte-egituretzaz Marx-en pentsamenduan aurkitu dezakeguna laburki aztertzeraz.

Marx-entzat, gizakia eta giza egintza definitzen duena bere izaera soziala da. Feurbach-i buruzko seigarren tesian horrela adieraziko du: “Gizakiaren izatea ez da zerbait abstraktua, gizabanako bakoitzarengan berez dagoen zerbait. Giza izatearen errealitatea harreman sozialen multzoan datza”⁴⁷. Beraz, gizakiaren kontzeptzioa ez da edukieran oinarritzen, ez da substantziala, baizik eta erlazionala; hartu-eman sozialek ematen diote gizakiari giza izaera. Piotr Sztompka-k, honako interpretazioa egingo du: “Giza izaera ezin dugu karakterizatu gizakion ezaugarri-multzo konstante eta unibertsala izateagatik, bai ordea gizakiok inguruarekin erlazionatzeko garatu dugun modu zehatzagatik, jendeak testuinguru naturalarekin eta sozialarekin erlazionatzeko moduagatik. Gizakia murgilduta dago gizarte eta naturarekin garatutako hartu-eman sarean eta hartu-eman horien eratorria da giza izaera”⁴⁸.

Hartu-eman sozialak dira, beraz, giza izaeraren gakoa. Sztompka-ren ustez, Marx-ek bi hartu-eman mota erabiltzen ditu gizakiaren izatea definitzeko: parte-hartzea eta sortzea. Lehenengoarekin beste pertsonekin dauzkagun harremanak izendatzen ditu, hartu-eman sozialak *strictu sensu*. Bigarren harreman motarekin, Marx-ek, naturarekin ditugun hartu-emanen erreparatzen die. Bi harreman mota hauek, parte-hartzea eta sortzea, egintza mota zehatzekin daude osaturik: egintza partehartzailea eta egintza sortzailea. Horrela, egintza sortzailearekin erakusten dugu gure gaitasuna, abilezia, ahalmena eta “boterea” objektuen munduarekin erlazionatzeko⁴⁹. Eta egintza partehartzailearekin, oharturik edo ohartu gabe, mundu sozialean eratu diren instituzioetan aritzeko gaitasuna, ahalmena eta “boterea” garatzen dugu. Hori guztia ahaztu gabe giza egintzaren ahalmenaz ari garela, gauzatu gabe gera daitekeen ahalmena.

Gauzak horrela, Marx-ek egiten duen planteamenduan, gizakiaren izatea harreman sozialean garatzen duen egintzatik eratortzen da. Beraz, egintza giltzarria da gizakiaren izatea ulertzeko: “Espezieen izaera orokorra euren bizitzaren jardueran identifikatu dezakegu. Jarduera aske eta kontzientea giza espeziearen izaera da”⁵⁰. Gizakia, azken batean, egiten duena da; edo, Gramsci-ren hitzetan, gizakia prozesu bat da, bere ekintzen prozesua.

Hortaz, gizakia funtsean erlazionala da, soziala. Are gehiago, giza izaera gizartearen bereganatzen du, gizartetik kanpo ez dago gizabanakorik; gizakiari hartu-eman so-

⁴⁷ MARX, K., ENGELS, F. *Obras Escogidas*, 2. liburukia. Fundamentos, Madrid 1975. Orr. 426-8.

⁴⁸ SZTOMPKA, P. *Society in Action*. Polity Press. Cambridge, 1991. (orr. 34).

⁴⁹ Sztompka-k egiten duen planteamenduan, egintza sortzailea, Marx-ek ematen dion esanahia trizionatu gabe, aplikagarria da baita ere arlo sozialean, osotasun sozialen barne beste pertsonekin dauzkagun harremanetan. Horrela, besteak hezte eta konbentzitzea gizarte-erakundeak erreformatzeko edo talde berriak sortzeko, harreman eta egintza sortzailearen barne dago. Modu berean, harreman eta egintza partehartzailea eremu sozialean ez ezik naturarekin dauzkagun hartu-emanetan ere aplikatu dezakegu, naturaren kide armoniatsuen izatea naturan parte-hartzea baita. *Ibid.* (orr. 34-36).

⁵⁰ Marx eta Engels, Sztompka-k aipatua. *Ibid.* (orr. 37).

zhalen testuinguruak eta inguru horretan burutzen duen egintzak ematen dio giza izaera. Hartu-emanetan zentratutako egintzak, beraz, gizakiaren dimentsio eratzaile nagusia da. Hortik abiatuta, Marx-ek giza izaera osasuntsua ikusiko du partaidetza eta sormenean oinarritutako harremanak nagusitzen direnean; horrela ez denean, ordea, alienazioa da nagusi, giza izaeraren deuseztatzea. Egintza partehartzaile eta sortzailearen kontrakoa alienazioa da; parte hartu barik eta indar sortzailea kanporatu barik gizakia ukaturik sentitzen da: “Langileak bere lanean ez du bere nortasuna garatzen; ukatu egiten du bere burua, zoriotsu sentitu beharrean zoritxarrekoa sentitzen da,..., isolatua, besteengandik urruti eta arrotza, besteen arerioa, kideengandik alienatua. Beraz, alienazioak norberekeria bultzatzen du (atomizazioa eta egoismoa), sormen falta (monotonía); eta, ondorioz, ekintzen kontrolari muzin egitea (pasibitatea), norberaren autonomia ukatzea (erosotasunen fetitxismoa), eta, azkenik, giza ahalmenen gainbehera. Gizakia gizatasun gabekoa bihurtzen da”⁵¹.

Lamo de Espinosa-ren ustez, Marx-en ekarpen handia —eta aldi berean mugapen handia— giza egintza eta harreman sortzaileak eta parte-hartzaileak lanarekin, eta soilik lanarekin, erlazionatzea izan zen. Hau da, harreman sozialak eta soziabilitatea soilik lanaren fruitua direla kontsideratzea eta, azken batean, lana —egintza kontziente gisa— gizakion bereizle nagusi gisa hartzea, giza izaeraren ezaugarri bereizgarria. Joxe Azurmendi-k ere, *Alderdi Komunistaren Manifestua* liburuari egiten dion hitzaurrean, argiro adierazten digu garrantzizko elementu hau: “Gizakia —alegia, haren moralá, pentsamendua, etab.— egiaz zer den jakiteko, laga filosofiak, erlijioak, gizatasunaren definizioak eta esentziak (ez garamatzate inora esango du Marx-ek), eta gizakiaren bere burua osatzeko oinarri eta bilakabide historikoaren fundamentura jo behar dugu: lanera, produkzióra, gizakia horrek bereizten baitu abereengandik, eta hor egiten baita gizakia gizaki, bere buruaren jabe. Produkzioaren eta historiaren analisi horretan, gizakia bere harreman sozialen emaitza dela deskubrituko dugu”⁵².

Ez dugu aipatu gabe utzi nahi, ordea, beste autore batzuek ez dutela onartzen Marx-en antropologia, lanaren elementuarekin hain estuki lotzea. Izan ere, Marx-en hitzetan, gizakia beste espezieengandik bereizten da bere bizitzeko baliabideak produzitzen hazten den momentutik⁵³. Lana baino harantzago doan irakurketa batean izaera ekintzailea azpimarratu daiteke ideia horretan.

Arestian aipatu bezala, aldiz, Lamo de Espinosa-k lana ikusten du, elementu bereizgarri gisa, Marx-en antropologian. Eta, bere ustez, lanaren zentralitate horrek bi ondorio garrantzitsu izango ditu Marx-en pentsamenduan: lehena, lana gizarte guztietako edozein garapen-fasetan agertzen den elementua da, horregatik gizarteen arteko azterketa konparatiboak egiterakoan lanari begira egin beharko dira, eta gizarte bakoitzaren bereizgarritasuna bere produkzio-sisteman bilatu beharko da. Bigarrena,

⁵¹ *Ibid.* (orr. 37-38).

⁵² MARX, K., ENGELS, F. *Alderdi Komunistaren Manifestua*. Jakin, irakurgaiak. Donostia, 1998. Orr. 33-34.

⁵³ MARX, K., ENGELS, F. *La ideología alemana*. Pueblos Unidos. Montevideo y Grijalbo, Barcelona 1970. Orr. 19-20.

produkzio-sistemaren eraginez gizakiari produzitzen duena kentzen bazaio, bere “izaera bereizgarri generikoa” kentzen zaio eta gizartea gizakiari kontrajartzen zaio. Horrela, gizartea gizakiok sorturiko “bigarren natura” bat bailitzan inposatzen zaio gizakiari⁵⁴.

“Bigarren natura”ren kontzeptua bereziki interesgarria iruditzen zaigu mundu sozialaren itxurazko nahitaezkotasuna adierazteko; mundu soziala gizakion kontroletik at, inertzia propioarekin eta dinamika autonomoa daukan mundua bailitzan agertzen baitzaigu. Marx-entzat, Weber-entzat bezala, gizarte-zientzien aztergai dira mundu sozialaren egiturengan jasotzen diren kosifikazio prozesuak; hain zuzen ere, gizarte-instituzioen itxurazko objektibitatearen sorburua gizakion elkarregintza dela ageriarazteko. Era berean, egitura sozialetan eratu diren pentsatzeko, jokatzeko eta sentitzeko erak, itxura aldaezina hartzen duten neurrian, gizarte-zientzietan aztertu beharreko beste alderdi garrantzitsu bat egitura horien eta gizabanakoaren arteko elkarreagina izango da.

Azterketa horren abiapuntua da giza aktoreak eta beren egintzak ez direla hutsean existitzen baizik eta osotasun sozialen barne; Marx-entzat, gizakiak bi ingurune ditu naturala, batetik, eta soziala, bestetik. Ingurugiro sozialean, eratu diren osotasun edo egitura sozialak aurkituko ditugu; eta egitura sozialen aspektu garrantzitsu bat euren izaera erlazionala da, harreman-multzoak dira. Egiturak, gizakia bezala, ez dira substantiboak erlazionalak baizik: “Marx-en ikuspegian, errealitate sozialaren unitate guztien gutxieneko murriztezina gizakien arteko hartu-emanak dira.(...) Osotasun sozialak egitura erlazionalak bezala ikustea, bat dator gizabanakoak egituretan inplikaturik daudela onartzearekin, txanponaren bestaldea baita.(...) gizabanakoen egintza ez da vacuum batean gertatzen, baizik eta etengabe aldatzen ari diren egitura zabaletan. Alderantziz ere, egituren aldaketak ez dira automatikoak baizik eta giza ekintzak eragindakoak”⁵⁵.

Errealitate enpirikoan, beraz, maila indibiduala egitura sozialen mailarekin uztartzen da, baina zeintzuk dira bi mailen arteko loturak eta elkarreaginak? Sztompkaren ustez, Marx ahalegintzen da bi mailak loturik agertuko diren esparru bat aurkitzen, hau da, egitura eta gizabanakoen elkarreaginaren maila. Ahalegin horretan *Praxi*-aren kontzeptua erabiliko du. *Praxi*aren prozesuan gizabanakoaren ekintzak eta gizarte-egiturak elkar eragin dute. *Praxia* da, beraz, giza egintza eta gizarte-egituren arteko zubia, bata bestearekin daukaten uztarria. Horrexegatik, *praxia* bien eraginpean dago, biek errazten dute eta biek mugatzen dute: “behetik”, gizabanakoaren egintzak baldintzatzen du *praxia*. “Goitik” gizartean egituratuta dagoenak baldintzatzen du *praxia*. Baina ezin dugu batera edo bestera mugatu, “*praxia* egintza indibidualak baino zerbait gehiago da eta, aldi berean, egituren determinazioaren emaitza baino zerbait gehiago da”⁵⁶.

⁵⁴ *La sociología del conocimiento y de la ciencia*. E. LAMO DE ESPINOSA, J.M. GONZÁLEZ, C. TORRES. Alianza, 1994. (orr. 182-183).

⁵⁵ SZTOMPA, P. *Ibidem* (orr. 38-40).

⁵⁶ *Ibidem* (orr. 41).

Marx-ek, zientziaren bidez, baldintza objektiboen atzean dauden aktore sortzaileak bilatuko ditu, baina, batez ere, aktore horien *praxia* bilatuko du; euren *praxia* baita errealitate hori sortu eta mantentzen duena. Azken batean, indarrean dauden pentsatzeko, jokatzeko eta sentitzeko moduen atzean, eta horien arabera eraikitzen diren gizarte-instituzioen atzean, beti dago gizakiok protagonizatutako prozesu sortzaile bat. Itxura objektiboak giza jatorria duen prozesu sortzailea ezkututzen digu, gizarte-instituzionak ziurtasun aldaezinak bailiran agertaraziz: “Marx-ek azpimarratzen du gizartearen edozein arlotan, itxuraz oso autonomia eta objektiboa izanda ere, oinarrian hartu-eman multzo bat dagoela”⁵⁷. Eguneroko praktiken atzean dauden adostasunak, egonkorak eta finkoak bihurtzen diren neurrian, ahaztu egiten dugu sorrera intersubjektiboa (kontingentea, hautazkoa, aldagarria) eta galdu egiten dugu praktika horiek aldatzeko gaitasuna; errealitate sasi-naturala bihurtzen da, hau da, nahitaezkoa eta aldaezina. Hartu-emanen bidez produzitzen duguna askatu egiten da geure kontroltik, geure gidarizatit, eta onartu beharreko patua bailitzan inposatzen zaigu.

Horrela, Marx-en hitzak erabiliz, galdu egiten duguna gizarte-boterea da: “Botere soziala, hau da, lan-banaketaren ondorioz gizabanakoen artean dagoen indar kooperatzaile biderkatua, (...) beraien boterea ez balitz bezala agertzen zaie gizabanakoei, kanpoko botere bat bezala. Nondik sortzen den edo norantz doan ez dakitela, menderatu ezin dezaketen boterea da; are gehiago, galdutako botere horrek gizakion borondatea eta egintzak zuzentzen ditu eta gizakion egintza eta borondateatik independientek diren garapen-fase batzuk betetzen ditu”⁵⁸. Kosifikazioaren eta “galdutako gizarte-boterea”ren teoria horren bidez, Marx-ek, gizarte kapitalistetan giza soziabilitatea ukatzen duten mekanismoak azalduko ditu, hala nola, galdutako boterea berreskuratzeko bideak.

Izan ere, lehen aipatu bezala, gizarte industrializatueta nagusitzen den lan-banaketaren eraginez, gizakiak ezin du bere burua garatu lanaren jardueran; langileek egiten duten produktua, lan jarduera bera eta, batez ere, ekoizpen prozesua ez dago euren esku, materializaturik dauden harremanen esku baizik. Langileak beraiengandik aparte existitzen diren harremanen menpe daude; ez dago elkarlanerako hartu-emanik, aldez aurretik definiturik dauden harremanenganako menpekotasuna baizik. Gizabanakoak ekoizpenaren menpe daude, baina ekoizpena ez dago gizabanakoen menpe, ez dago euren kontrolpean:

Ekoizpen-modu baten osagaiak dira, batetik, indar produktiboak (erabiltzen diren tresneriak eta teknologiak) eta, bestetik, harreman produktiboak (etekina ateratzeko modua). Ekoizpen modu bakoitzean, harreman propio bat dago menperatzaile eta menperatuen artean. Menperatuen matxinada (menperatzaileen zikoizkeria bezalaxe) ekoizpen moduaren nahitaezko ondorioa (objektiboa) da. Ondorioz, sortzen den klase-borrokak ekoizpen modu berri bat ekarriko du. Horrela, ekoizpen modu bakoitzak barnetik sortzen ditu bere

⁵⁷ RODRÍGUEZ IBÁÑEZ, J.E. *La perspectiva sociológica*. Taurus Humanidades. Madrid, 1992. Orr. 72.

⁵⁸ MARX, K., ENGELS, F. *La ideología alemana*. Pueblos Unidos. Montevideo y Grijalbo, Barcelona 1970. Orr. 31-32.

lurperatzaileak. Gizarte-ordena bati barnetik datorkio ukapena (gizarte-aldaketarako bultzada), produzitzen dutena eta etekina ateratzen dutenen arteko kontraesanetik. (...) Izan ere, ondorengo baieztapenak berdinak dira: historia, beste batzuek eginiko lanaren etekinaz jabetzeko egon diren modu ezberdinen historia da; historia, klaseen arteko borrokaren historia da; historia, ekoizpen moduen historia da; historia, alienazioaren historia da; edo, azkenik, historia espeziearen barne-eraketa itsuaren historia da⁵⁹.

Arestian esan dugun legez, Marx-ek, lanari eta produkzioari erabateko zentralitatea emanez, horien araberrako garapen-maila zehatzak deskribatu zituen, baita bakoitzari zegokion gizarte mota ere (antzinako komunismoa, esklabismoa, feudalismoa eta kapitalismoa). Are gehiago, bere ustez, ezarri zuen, zientifikoki ezarri ere, etapa horien agerpena, garapena eta desagertzea zein barne-dinamikaren arabera gertatzen zen, eta etortzeko zegoen hurrengo gizarte mota zein zen: gizarte komunista. Azkeneko honetan, giza izaeraren ukapena dakarren lan-banaketa bertan behera geratuko zen eta, horrekin batera, klaseen arteko enfrontamenduak. Izan ere, ekoizpenerako baliabideen jabetza, soziala egiten bada besteenganako lana desagertzen da eta, alienazioa gaituz, galdutako gizarte-boterea berreskuratzen da. Horrela, gizartea ez zaio inposatzen gizakiari, hartu-eman sortzaile eta partehartzaileen bidez etengabe berdefinitzen den gizarte gardena (kosifikaziorik gabekoa edo etengabe deskosifikatzen dena) lortuko zen. “Gizadiaren aurre-historia amaituko zen (aurre-historia gizakia historiaren objektua izan delako eta ez subjektua) eta benetako historia hasiko zen, gizadia subjektua izango baitzen”⁶⁰.

Gizarte mota ezberdinen bilakaera deskribatzen duenean, Marx-ek, eboluzionismoaren joera determinista nabarmena erakusten du; hau da, gizartearen bilakaera (komunismoaren emantzipaziora daraman bilakaera hori) zenbait lege eta printzipioen arabera gertatzen da: “Indar produktibo eta harreman produktiboen arteko dialektika ardatza da. Marx-en gizarte-teorian dialektika hori da gizarte-aldaketa prozesuen atzean dagoen sakoneko egitura edo sistema”⁶¹. Giza egintza, beraz, harreman produktiboek sortzen duten baldintzaileen araberrakoa da; giza egintza, eragilea izatetik eraginda izatera iragan da: gizabanakoen egintzaren bidez, ezinbestez betetzen den garapen-lege bat betetzen da.

Joxe Azurmendi-ren hitzetan argiro antzeman dezakegu Marx-en determinismo gordin hori: “Horrela aztertutik, burgesia ez zaigu jendetzar zapaltzaile dirugose bezala agertuko, eta proletar goa ez biktima errukarri legez. Biak historiako faktoreak dira, bakoitza bere egitekoaz. (...) Bakarrik, burgesia goititu zuen legeak berak, orain haren gaitipena agintzen du, nahitaez. Hau da marxismo espeziikoa, materialismo historikoa, historian agintzen duten legeen zientzia”⁶².

⁵⁹ *La sociología del conocimiento y de la ciencia*. E. LAMO DE ESPINOSA, J.M. GONZÁLEZ, C. TORRES. Alianza, 1994. Orr. 190.

⁶⁰ *Ibidem* (orr. 191).

⁶¹ RODRÍGUEZ IBÁÑEZ, J.E. *La perspectiva sociológica*. Taurus Humanidades. Madrid, 1992. (orr. 81).

⁶² MARX, K., ENGELS, F. *Alderdi Komunistaren Manifestua*. Jakin, irakurgaiak. Donostia, 1998. Orr. 39-40.

Berriz ere, aurreko autore klasikoekin gertatzen den bezala, giza egintza eta gizarte-egituraren arteko tentsioa oso nabarmena da Marx-en pentsamenduaren momentu ezberdinetan. Gizakiaren eta gizartearen kontzeptzio erlazionalean oinarrituz eta praxiaren kontzeptu giltzarria erabiliaz, mundu sozialaren izaera intersubjektiboa, kontingente eta historikoa azpimarratuko du; horrela, giza egintzari emango dio gidaritza eta determinismoa gizartearen bilakaeran. Apustu dialektikoan sakondu nahian eta errealtate sozialaren alderdi intersubjektiboa alderdi estrukturalarekin lotuz, kosifikazioaren eta galdutako gizarte-boterearen teoria mamitzen du. Horren arabera, adostasunez, ohituraz edo inposaketa bidez eratzen dena, egonkorra eta finkoa bihurtzen den neurrian, itxura objektiboa hartzen du, izaera kontingentea desagertuz doa halabeharrezkotasunaren mesederako: hartu-emanen bidez sorturikoa eta egunero *praxiaren* bidez biziberritzen dena askatu egiten da geure kontroletik eta derri gorrez onartu beharreko “bigarren natura” bailitzan azaltzen zaigu⁶³. “Gizarte-fenomenoen gakoa prozesu sortzailea desagertu egin dela izaten da.(...) gizarte-gertaera gizakion egintza inkontzientearen emaitza da eta subjektuak menderatzen ditu, askoren egintzaren nahigabeko ondorioa da”⁶⁴. Modu horretan, gizarte-ordena bakoitzean, jokabide eta harreman zehatzak materializatzen dira eta gizakiak eratutako egitura horien menpe geratzen dira. Alienazioa eta giza izatearen ukapena erabatekoa izango da egintza sortzailea eta partehartzailea garatzeko aukera egongo ez den bitartean; “bigarren natura” hori, oharkabe gizakiok sortzen dugun errealtate kosifikatua, azalerazi behar dugu eta, horrela, elkarbizitza kolektiboari eragiten dion gauza orok kontrol kolektiboaren esku egon behar du (demokrazia zuzena eta ekoizpen-baliabideen jabetza kolektiboa).

Planteamendu horietan argi ikusten da Marx-en pentsamenduan giza egintzak duen zentralitatea. Gizarte-aldaketa eta emantzipaziora daraman gizarte-bilakaera kontzeptualizatzeko orduan, ordea, gizarte-lege baten determinismoa azpimarratu zuen. Hau da, emantzipaziorantz doan gizarte-aldaketa nahitanahiez eta ezinbestez gertatuko da: gizarte-egituraren eratutako harremanak asimetrikoak diren bitartean, barne kontraesanak eta giza klaseen ezberdinen arteko gatazkak sortuko dira eta horrek gizarte-aldaketa dakar. Planteamendu horrekin, Marx-ek, gizarte eta historiaren sekretua argitu duela pentsatzen du; autore batzuk azpimarratu dute, ordea, gizarte kapitalistari egiten dion kritika ideologikoa (subjektuen egintza iraultzailea aldarrikatuz) ez datorrela bat gizarte-aldaketaren nahitaezko lege zientifiko unibertsalaren alde egiten duen apustuarekin.

Kontraesanak kontraesan, ukaezina da Marx-ek aztertu beharreko ezinbesteko ekarpena egin zuela giza egintza eta gizarte-egituraren arteko dialektikaren aferan. Ez

⁶³ “Ikuspegi horretatik, Marx izan zen diziplina soziologikoaren autonomia sortu zuena, zientzia horren objektua definitu baitzuen: gizarte-gertaera. Gizartearen zientziaren sorrera bikaina izan zen, Durkheim-en gizarte-gertaeraren teoria baina lehenagokoa eta, hainbat aspektuetan, sakonagoa, ez baitu bakarrik gizarte-gertaeraren existentzia identifikatzen, baizik eta gizakion egintzaren emaitza historiko gisa azaltzen baitu, kosifikazioa deskosifikatuz”. *La sociología del conocimiento y de la ciencia*. E. LAMO DE ESPINOSA, J.M. GONZÁLEZ, C. TORRES. Alianza, 1994. (Orr. 203).

⁶⁴ *Ibidem* (orr. 197-203).

da harritzekoa, beraz, giza egintza eta gizartearen produkzioa aztertzen duten egungo autore batzuk, iturri heuristikoa aurkitzea Marx-en pentsamenduan. Azken batean, Marx-ek mahai gainean jarri zigun giza egintzaren ondorioak aztertzeko, beste azterketa mota bat behar dugula, aktoreen oharmena baino haratago doana; egintza eta elkarregintza guztien azkeneko emaitza identifikatuko duena eta, horrela, egintzaren nahigabeko ondorioak aztertuko dituen.

Beraz, bi zentzu ezberdin ikusten ditu giza egintzan, subjektiboa eta objektiboa: subjektiboa da aktoreak ematen dion zentzua (antza denez, Weber-i interesatzen zaion bakarra) eta objektiboa elkarregintza guztien jokia ematen diona. Horrela, aktoreak berreskuratzen du egiten duenaren zentzu objektiboa eta, oharmena zabalduz, historiaren kontrola berreskuratzen du, bere historiaren kontrola⁶⁵.

Marx-ek giza egintzaren sormen historikoa azpimarratu zuen, alabaina bi muga zehatz ikusten zituen: lehena, giza aktoreen gaitasuna eta, horrekin hertsiki lotuta, euren eraketa edo antolaketa maila (nortasun kolektiboaren barne sendotasuna eta trinkotasuna). Izanaren arabera legoke zer egiteko gai garen; alde horretatik, historiaren martxari “behetik” eragiten zaio. Baina, beste aldetik, giza sormen historikoa muga zirkunstantzietan dago lotuta; egoera edo egintzarako baldintzak ezberdinak dira gizarte-egituren arabera eta beraien aldaketa-fasearen arabera. Horrela, historiaren martxa “goitik” eragindakoa ere badela esan genezake. Berriz azaltzen zaigu, beraz, *praxiaren* kontzeptuaren bidez aipatzen genuen tarteko esparru dialektikoa: “Gizakiek beren historia egiten dute, baina ez nahi duten bezalaxe; ez dute egiten beraiek aukeratutako baldintzetan, baizik eta iraganetik utzitako eta topatutako baldintzetan”⁶⁶.

Dakigunez, Marx hil eta gero bere pentsamenduaren eskolarizazioa hasi zen. Formalizazio horrek Engels eta pentsalari errusiarren esku eman zituen lehenengo urratsak eta bi ezaugarri nagusi izango ditu: batetik, positibizazioa, hau da, marxismoa egitateen zientzia bat da, historiaren benetako zentzua eta norabidea argitaratu ekartzeko gai dena. Horrela, marxismoa XIX. gizaldiaren positibismo eboluzionistarekin lerrotzen da eta errealitate sozialaren bilakaeraren lege unibertsalak ezartzen ditu. Bestetik, egitura materialaren (azpiegituraren) determinismoa indartzen da; gizabanakoa, eguneroko egintza, ezagutza eta elementu kulturalak bazterturik geratzen dira. Subjektua bigarren mailan utzita, Marx-en pentsamenduaren irakurketa positibistak ez zion batere erreparatzen Marx-en antropologiari ezta epistemologiari ere, gauza ulergarria, beste aldetik, hasierako idazkiak ez baitziren argitaratu 1927-1939 aldira arte.

Izan ere, Alemanian, gerra arteko tartean, Hegel-en inguruan berpiztu zen interesak, Marx-en oinarri hegeliarra berreskuratzea ahalbidetu zuen. Zenbaiten ustez, 1922an George Luckács-ek idatziriko *Historia eta klase-kontzientzia* liburuak ekarri zuen marxismoarentzat, dogmatismoa baino haratago joatea eta pentsamendu iker-

⁶⁵ *Ibidem* (orr. 203).

⁶⁶ *El 18 Brumario de Luis Bonaparte*. Marx eta Engels. Giddens-ek aipatua. *La constitución de la sociedad. Bases para la teoría de la estructuración*. Amorrortu. Buenos Aires, 1995. Orr. 22-23.

tzailea berreskuratzea⁶⁷. Luckács-ek, sakonean ezagutzen zuen idealismo alemaniarra, horrekin lagunduta eta *Kapitalaren* I. kapituluaren “merkantziaren reifikazioa”n oinarriturik, Marx-en hasierako ideia filosofikoak eta antropologikoak identifikatu zituen; Marx-engan lerro-artean zegoen epistemologia berregin zuen, eta argitara eman zituen irakurketa positibistaren hutsuneak. Horrela, subjektuaren egintza historikoaren inguruko debatea zabaldu zuen; subjektua ez da materializaturiko egituraren isla hutsa, kultura ez da azpiegitura produktiboaren emaitza soila, subjektua gizarte-egituraren isla gisa hartzea —Lenin-en islaren teoria— kosifikazioaren epistemologia zen, “galdutako gizarte-boterea”ren fenomeno erreproduzitzea eta ekidinezintzat jotzea. Azken batean, eraturako errealitateak —datu objektiboak— giza elkarrengintzak sorturikoak eta biziberrituak direla begibistatik galtzea. Lenin-en planteamenduak kosifikazioa berregiten zuen, Luckács-ek, ordea, marxismoaren alde aktiboa berreskuratu zuen: datu objektiboak subjektuek sorturikoak dira, eraturako errealitatearen aldaketak, beraz, oinarri soziala izango du eta subjektuak izango dira protagonistak, eta ez oinarri naturala daukan lege eboluzionista bat. Mekanizismo eboluzionistak, azken batean, *statu quo*-aren erreproduzioa bultzatzen du. Luckács-en ustez, aldaketaren eragileak, gatazka eta klaseen arteko borrokak, ez dira sortzen soilik produkzio sistemaren kontraesanen eraginez, ez dira sortzen ere boluntarismo hutsetik. Objektibismo deterministatik edo subjektibismo boluntaristatik baino harago joanez, aldaketaren eragilea sortzen da, aldi berean, gizarte-egitura objektiboaren eraginez —erreproduzioaren barruan aldaketarako zenbait baldintza proposak daudenean: kontraesanak— eta subjektuen oharmena eta praktika eraldatzailea abiatzeko dagoen gaitasunaren eraginez —subjektu kolektibo batek kontraesanetaz ohar-tzea eta ez berregitea lortzen duenean—. Aldaketa eta gizarte-eraketa berria, beraz, ez da berez etorriko den zerbait (mekanizismoa eta positibismo eboluzionista), subjektuen aldetik oharpena eta praktika eraldatzailea egongo ez den bitartean, kontraesanak oraindik indar gehiagorekin berproduzitzen baitira.

Kosifikazioaren teoria abiapuntu hartuta, beraz, Luckács-ek bitarte bat zehaztu zuen azpiegitura produktiboa eta kulturaren artean. Izan ere, oharpen ideologikoaren arloa —ideien eta kulturaren esparrua— ez da produkzio-harremanen ondorio zuzena eta mugatua, bere autonomia du eta erlazio dialektikoan dago eraturako egiturekin; “behetik” eta “goitik” eragindako *praxia* da subjektuen eta materializaturiko egituren arteko bitartekaritza maila, eraldatzailea izan daitekeena edo, aldiz, berproduzitzailea.

Pentsamendu soziologiko klasikoaren ordezkariarik distiratsuenak birpasatu eta gero, historikoki gizarteaz eta giza egintzaz gogoeta egiten nabarmendu zen beste autore bat aipatu behar dugu: Talcott Parsons. Autore estatubatuarrek Marx, Durkheim eta Werber-en bidez ikusi dugun debate teorikoa, objektibismo normatibista batetik eta subjektibismo intentzionala bestetik, bere hausnarketa teorikoaren erdigunean kokatu zuen; eta, bien arteko dualismoa gainditzeko asmoarekin, teoria soziologiko oro-

⁶⁷ *La sociología del conocimiento y de la ciencia*. E. LAMO DE ESPINOSA, J.M. GONZÁLEZ, C. TORRES. Alianza, 1994. (Orr. 282).

kor bat garatu zuen, II. Munduko Gerraren osteko hamarkadetan erreferente izen zen teoria. Aipatzekoa da ere, beste aldetik, giza egintza eta gizarte-egituren arteko tentsioaz —eta tentsio horrek daukan islaz pentsamendu sozialean— kezka handia izan zuela Parsons-ek; lan honentzat, beraz, landu beharreko erreferentzia bihurtzen da.

1.2. Egintza sozialaren egitura: Talcott Parsons

Zenbait autorentzat, Parsons, soziologiaren azkeneko aita fundatzailea da (ikus. Dawe orr. 456, edo García Blanco orr. 310). Izan ere, bere ekarpena, hutsuneak eta mugak barne, aurrerapauso handia izan zen diziplinaren ikuspegi analitikoak definitzeko eta, ondorioz, soziologiak gizarte-zientzien arloan bere tokia zehazteko. Parsons-en obran, epealdi ezberdinak bereizi behar dira; Rodríguez Ibañez-i jarraituz, hiru ezberdinduko ditugu: lehenengoan teoria boluntarista daukagu, bigarrenean, bere ikuspegi funtzionalista garatuko du eta, hirugarrenean, planteamendu sistemikoak nagusituko dira⁶⁸. Guri lehenengo etapatik bigarreneara doan ibilbide teorikoa interesatuko zaigu. Laburbildu ditzagun, bada, bere kontzeptu eta proposamen analitikorik garrantzitsuenak.

Egintza Sozialaren Egitura liburuan (1937), Parsons-en helburutariko bat pentsamendu modernoan zegoen dualismo materialista-idealista gainditzea izan zen. Positibismo materialistari egin zion kritika, giza egintza egokitze pasibo gisa ulertzea izan zen; hau da, aktorea bere egoera objektiboaren emaitza bezala ikustea. Parsons-en ustez, idealismoak, beste muturrera joanda, mundu sozialean ikusten duena esanahiak eta elementu sinbolikoak dira, eta gizakiaren egintza esanahi horietako batzuen arabera kontzeptualizatzen du. Bere ustez, alde bateko edo besteko baieztapen eskusibistek giza egintzaren teoria bat garatzea galarazten zuten. Giza egintza sozialaren teoria egokia sortzeko, beraz, tradizio bietatik hartu behar ziren zenbait elementu; bi tradizioen bateratze edo konbergentzia moduko bat bultzatu beharra ikusten du, eta horixe izan zen bere Konbergentziaren Teoriaren abiapuntua. Izan ere, Parsons-en ustez, positibismo materialistak gizakiok alde aurretik emandako egoeren barne jokatzen dugula gogoarazten zuen, eta egoera horiek gizakion begirada subjektiboa ikusten duena baino gehiago direla. Idealismoak, bere aldetik, gogoarazten zuen aktoreek euren orientabide eta balio subjektiboen arabera jokatzen dutela eta ez direla emanda datozen egoeren isla hutsa.

Parsons-en ahalegin teorikoa behar bezala kokatzeko eta, batez ere, 1937an idatzitako *Egintza Sozialaren Egitura* modu zuzenean interpretatzeko, aipatu behar dugu ere garai hartako giro akademiko estatubatuarrean, ekonomia-eskola nagusien artean —eskola neoklasikoa eta eskola instituzionalista— zegoen eztabaida. Lehenengoak egintza instrumentalaren utilitarismo eta enpirismoaren arabera aztertzen zituen gertaera ekonomikoak; bigarrenak, osotasun historiko eta sozialen barne aztertzen zuen

⁶⁸ RODRÍGUEZ IBÁÑEZ, J.E. *La perspectiva sociológica*. Taurus Humanidades. Madril, 1992. (Orr. 169).

ekonomia. Hans Joas-en ustez, Parsons-ek soziologiaren ikerketa-esparrua modu konprentsiboan definitzea bilatzen zuen —instituzionalisten antzera—; baina, aldi berean, ikerketa enpirikorako tresna analitiko eraginkorrek sortuz —utilitaristen antzera—. Horretarako, gizartearen azterketarako utilitarismoak eta teoria instrumentalak dituen mugak erakutsi behar zituen eta, aldi berean, muga horietatik at geratzen ziren arrazionaltasun utilitaristatik gabeko gertaerak modu positiboan aztertu. Asmo horiekin, Parsons-ek, lau autore nagusien lanak aztertu zituen: Alfred Marshall, Vilfredo Pareto, Emile Durkheim eta Max Weber. Parsons-ek irmo defendatu zuen nolabaiteko aldibereotasun teorikoa zegoela Marshall eta Pareto-k utilitarismoa gainditzeko egin zituzten ahaleginetan; eta, Durkheim eta Weber-en obretan bazaudela positibismotik eta idealismotik baino harantzago zihoan soziologia bat sortzeko has-tapenak. Autore ezberdin horiek, elkarren berri izan gabe, materialismoa eta idealismoa gainditzeko baliagarria zen “aldibereko aurkikuntza teoriko” bat egin zuten: gizarte-ordenaren dimentsio normatiboa eta horrekin lotuta zegoen giza egintzaren teoria “boluntarista” bat⁶⁹.

Hortik abiatuz, Parsons-ek, asmo enpirikoak dituen giza egintzaren teoria boluntarista bat garatuko du. Parsons-entzat, giza egintzan beti dago tentsio bat bi mailatako elementuen artean: egoeraren baldintzak eta gizakiaren asmo normatiboak. Gizakia, bere esfortzuarekin, ahalegintzen da gizarte-baldintzak bere asmo normatiboei egokitzen⁷⁰. Eredu horren arabera, ondorengo elementuak agertzen dira “unit act” edo egintza-unitate batean: esfortzua, helmugak, baliabideak, arauak eta baldintzak. Izan ere, pertsona orok, agente izateko gaitasuna dauka; bere asmo, gogo eta helmugen arabera, agente izateko gaitasun horri —agenzia—⁷¹, Parsons-ek esfortzua deitzen dio. Aldi berean, ordea, kontuan hartzekoa da aktorearen helmugak ez direla automatikoki eskuratzen, egintza aktorearen kontroletik kanpo dagoen egoera batean abiatzen baita. Esfortzuaren bidez, egoeraren zenbait elementu, helmugaren mesederako erabili ahal izango ditu; elementu horiek egintzarako baliabideak izango dira. Baina egoeraren beste elementu batzuk, egintza mugatzen dutenak, ezin ditu aldatu, eta horiek egintzaren baldintzak izango dira. Azkenik, aktoreak egoera irakurtzeko eta helmugak zehazteko zenbait orientabide erabiltzen ditu; orientabide horiek arauak edo asmo normatiboak dira, hau da, esfortzua bideratzen duten esangura sinbolikoak eta aurreikuspen idealak.

Horrela, Parsons-en egintza-unitateak elementu subjektiboak zituen (esfortzua, helmugak eta arauak) eta elementu objektiboak (baldintzak eta baliabideak). Bi elementu mota hauen arteko tentsioa eredu bakar batean integratuz, tradizio materialistan zein tradizio idealistan azpimarratzen ziren elementuak bateratu zituen:

⁶⁹ JOAS, H. *El pragmatismo y la teoría de la sociedad*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madrid, 1998. Orr. 219.

⁷⁰ DAWE, A. “Las teorías de la acción social”. *Historia del análisis sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1988. Orr. 456.

⁷¹ EMIRBAYER, M., MISCHÉ, A. “What is agency?” *American Journal of Sociology*. Zbk. 4, liburukia 103. Urtarrila, 1998. Orr. 965.

Horrelako estrukturalismo boluntarista sortzeak XIX. mendeko pentsamenduaren joera nagusiaren kontrako iraultza teorikoa da. Parsons-ek, Egintza Sozialaren Egitura liburuan aztertzen dituen autoreei egotzi zien saiakera iraultzaile hori, nagusiki Weber eta Durkheim-i. Autore horien *exegesi* zehatza eginez, Parsons-ek erakusten du haiek deskubritu zutela gizarte-ordena normatiboaren esanahia eta, aldi berean, soziologia boluntaristago batentzako bidea zabaldu zutela⁷².

Eredu boluntaristaren arabera, beraz, aktoreak ekintzari ematen dion orientabide eta esangura ezinbesteko elementua dugu giza portaera aztertzeko orduan, egoeraren baldintzaileak bezain garrantzitsuak. Dawe-k azpimarratzen duen moduan, helmugak, idealak edo “etorkizunerako desiratzen diren egoerak”, egoera erreal moduan ez bada existitzen ere, bai existitzen dira egintzaren eragile motibatzaile gisa. Are gehiago, Parsons-en egintzaren azterketan, ezinbesteko elementua da aktoreek, euren asmo idealen arabera, egoera errealean eragiteko daukaten ahalmena; gizakia, beraz, izaki aktiboa, sortzailea eta ebaluatzaile gisa kontzeptualizatzen du eta, era berean, baztertzen du gizakia izaki pasiboa, adaptatiboa eta jasotzaile gisa ulertzea⁷³.

Horiek horrela, gizabanakoaren egintza definitzen duena “gizarte-baldintzak eta horiek moldatzeko esfortzua” da; kontrola eta kontingentzia, mugak eta aukerak, Parsons-ek biak ditu gogoan. Ondorioz, aktorearen egintzak biltzen ditu, berez elementu subjektiboak eta elementu objektiboak dituelako, errealitatearen dimentsio objektiboa eta dimentsio subjektiboa: “Hasiera batean, beraz, paralelismo harrigarria aurkitzen dugu Parsons eta Marx-en artean, biok aldarrikatzen baitute gizakion praxia esparru klabe gisa. Gizakion praxia eragilea eta eraginda da, baldintzailea eta baldintzatua; giza egintzak berez biltzen ditu historiaren eta pentsamenduaren antinomia nagusiak”⁷⁴.

Parsons-en obran, materialismo eta idealismoaren arteko dualismo teorikoa gainditzeaz gain, badago beste kezka nagusi bat: gizarte-ordenaren arazoa. Atal honen hasieran aipatu dugu pentsamendu soziologikoa gizarte tradizionalaren amaierarekin eta gizarte industrializatuaren hasierarekin sortu zela; era berean, gizarte-aldaketa sakon hark ekarri zituen kezka nagusiak aipatu ditugu ere, hain zuzen ere, gizarte-ordenamenduaren arazoa eta giza egintzaren gaitasuna gizartearen bilakaera gidatzeko: gizartearen produkzioa eta gidaritza. Izan ere, giza egintzaren ikuspegi utilitaristak ez du erantzun sinesgarri eskaintzen gizarte-ordena nola produzitzen den erantzuteko. Ikusi dugun bezala, gabezi horiek betetzeko Parsons-ek, Konbergentziaren teoriarekin, egin zuen ahaleginak, giza egintzaren teoria boluntarista bat defenditzera eramane zuen; horrela, giza egintzaren kontingentzia eta sormena zein gizarte-sistemaren mugak eta kontrolak integratuko ditu. Gizarte-ordenaren arazoari bete-betean heldu zionean, ordea, bere garapen teorikoa beste bide batetik joan zen eta, autore as-

⁷² ALEXANDER, J.C. *Las teorías sociológicas desde la segunda guerra mundial*. Gedisa. Bartzelona, 1997. Orr. 28-31.

⁷³ *Ibidem* (orr. 457-8).

⁷⁴ RODRÍGUEZ IBÁÑEZ, J.E. *La perspectiva sociológica*. Taurus Humanidades. Madril, 1992. (Orr. 170).

kok azpimarratzen duten bezala, giza egintzaren kontingentzia eta sormena desagertuko dira.

Nola da posible gizarte-ordena? Parsons-ek ondorengo erantzuna emango dio ordenaren arazoari: gizartearen ordenak balio-sistema bateratua behar du. Horrela, gizartearen eraturik dauden oinarrizko balio eta arau egonkorrei esker, posiblea da aktore ezberdinen berezko kontingentzia subjektiboa bateratzea eta gizarte-sistema batean ordenatzea; gizabanakoek barneratu egiten dute euren nortasunean, elkarbizitza sozialerako ezinbestekoak diren arau eta balio horiek eta, horri esker, euren asmo eta aurreikuspenak integraturik daude⁷⁵. Aktorearen egintza eta gizarte-egituraren arteko lotura, barneratze-prozesu horretan kokatu zuen, ondorioz, giza egintzaren kontingentzia boluntarista beste modu batera interpretatzen du; aktoreek, euren borondatez, gizarte-egituraren indarrean dagoen balio-sistema bateratua barneratzen dituzte, eta euren nortasun pertsonalaren parte garrantzitsua bihurtzen da. Analisia, beraz, ez da abiatzen, lehen bezala, aktorearengandik, aldez aurretik emanda dagoen balio sistemarengandik baizik. Zentzu horretan, aktoreek definitzen dituzten asmoak eta helmugak bat etorriko dira egoeraren baldintzeekin; aktoreen balizko idealak eta baldintza errealean artean egon daitekeen aldea desagertu egiten da, erreala ideala bihurtzeko burutzen diren egintzak ere analisitik at geratzen dira:

Boluntarismoak galtzen du lehengo teorian zeukan estatutu axiomatikoa eta introiektzio bidez barneraturiko jarrera gisa agertzen da orain. Horrela, Parsons-ek hasierako egintzaren teoria abandonatzen du, teoria horren oinarrizko premisak txikitzen baititu⁷⁶.

Izan ere, Parsons-ek, hasierako obretan egintzaren teoria boluntarista aurkeztu bazuen ere, hasi-hasieratik iragarri zuen geroago nabarmenagoa izango zen norabide-aldaketa teorikoa. Bere lanak garatu ahala, subjektuen egintzaren protagonismoa ahulduz doa, eta joera normatibista eta sistemikoa areagotzen da: “Egintza, egoeraren elementu baldintzaileak aldatzeko prozesua da, beti ere, arauen adostasunen norabidean”⁷⁷. Rodríguez Ibañez-ek ohartarazten digun moduan, Parsons-ek kontzeptualizatzen ditu aktore sozialak eramaile hutsak bailiran, gizarte-egituraren eramaileak edo balioen energiak elikatzen duen sistemaren eramaileak.

Hans Joas-en aburuz, Parsons-ek, utilitarismotik urrundu nahian, giza egintzaren ikuspegi normatibo gogorra sortu zuen: egoera objektiboaren —bere baldintza eta baliabideekin— eta gizabanakoaren helmuga subjektiboaren artean, balio eta arau sozialak dira helmugaren definizioa eta baliabideen aukeraketa erregulatzen dutenak. Giza esfortzuari geratzen zaion zeregina, beraz, baliabideak arau sozialen norabidean era-

⁷⁵ GARCÍA BLANCO, J. M. “La realidad social como problema: algunas consideraciones sobre la reflexión de la sociedad moderna y la constitución de la sociología” *Escritos de teoría sociológica* liburua. Carlos Moya, Alfonso Pérez-Agote, Juan Salcedo eta José Félix Tezanos (Bateratzaileak). CIS. Madrid, 1992. Orr. 311.

⁷⁶ DAWE, A. “Las teorías de la acción social”. *Historia del análisis sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1988. Orr. 461.

⁷⁷ RODRÍGUEZ IBÁÑEZ, J.E. *La perspectiva sociológica*. Taurus Humanidades. Madril, 1992. (Orr. 171).

biltzea da. Joas-ek gogor kritikatu du Parsons-en kontzeptu-sistema, ondorengo gabeziak azpimarratzen ditu: Parsons-ek ez dio sakoneko kritikarik egiten egintza utilitaristaren ereduari, eredu horren jarraitzaileek gizarte-ordena nola sortzen den ez dutela argitzen, izango baita agertzen duen argudio bakarra; Parsons-en teoriak zailtasun handiak ditu elkarregintza eta hartu-eman sozialak kontuan hartzeko, adostasun normatiboaren kontzeptuan desagerrarazten baititu; bestaldetik, Parsons-ek ez du kontuan hartzen giza egintza auto-espresibitate gisa kontzeptualizatzen duen eredu; azkenik, Joas-en ustez, bere eredu teorikoan argitasun falta dago desio egoistak eta interes arrazionalak ezberdintzeko⁷⁸.

Joas-en aburuz, Parsons-ek argitasun handiz identifikatu zuen Durkheim-en erlijioaren teoriaren eta Weber-ren karismaren teoriaren artean zegoen lotura, baina ez zuen ikusi teoria horiek batera daukatena giza egintzaren dimentsio sortzaileak direla. Akats hori, beste aldetik, oso ulergarria da Joas-entzat, kontuan hartuz Parsons-ek baztertu egin zituela egintzaren espresibitatea eta sormena azpimarratzen dituzten tradizioak (Pragmatismoa, Marxismoa, hermeneutika,...)⁷⁹. Orohar, Hans Joas-entzat, Parsons-en teoriak ez du baliabide analitikorik eskaintzen historikoki kontingentea den munduaren ikuskerak eta gizarte-instituzioen produkzio sortzailea aztertzeko; Parsons-ek kontuan hartzen dituen prozesuak, lehenagotik eraturako balioen barneraketarekin eta instituzionalizazioarekin lotzen baitira.

J.C. Alexander-en arabera, ordea, Parsons-en konbergentziaren teoriak, gabezi nabarmenak badiu ere, materialismo eta idealismoaren arteko antinomia gainditzeko oinarri kontzeptualak eskaintzen ditu. Parsons-ek ezagutu nahi zituen zeintzuk ziren lotura-mekanismoak errealitate kolektiboa eta gizabanakoaren egintzaren artean; bere obraren tarteko garai batean (1945-1955), Durkheim eta Freud-en obrak aztertuz eta garatuz, Parsons-ek soziologizatu zuen psikoanaliaren teoria (alderdi makroak aztertuz) eta psikologizatu zituen Durkheim-ek deskribatu zituen makroprozesuak (alderdi mikroak aztertuz)⁸⁰. Horrela, bilatzen zituen lotura-mekanismoak, barneratze eta kanporatze prozesuen bidez deskribatu zituen. Alde batetik, eguneroko giza egintza barneratutako balio eta arau kolektiboen arabera da; eta, bestetik, gizarte-egiturak, indarrean dauden kanporatze-prozesuen arabera dira. Planteamendu horretatik abiatuta, Parsons-ek "rol"aren kontzeptua landu zuen; rola makro-egituren igorpenak dira, gizartearen errekerimenduen isla gizabanakoen portaera-mailan. Rola, azken batean, sarrera ematen diete egoera kontingenteetan, lehendik existitzen ziren espektatiba, internalizazio eta baliabideei. Horrela, Parsons-ek behin eta berriz errepikatzen du itxuraz mikro eta kontingentea den elkarrekintza indibiduala muga kolektiboen barne jazotzen dela. Alexander-ren ustez, Parsons-ek inork baino zehaztasun handiagoz kontzeptualizatu zuen mikroa eta makroaren edo egintza eta egitura-

⁷⁸ JOAS, H. *The creativity of action*. Polity Press. Cambridge, 1996. Orr. 24.

⁷⁹ *Ibidem* (orr. 18-20).

⁸⁰ ALEXANDER, J.C., GIESEN B. "From reduction to linkage: the long view of the micro-macro debate", *The micro-macro link* liburuan. Editoreak: Alexander, J.C., Giesen B., Münch, R., eta Smelser, N.J. University of California Press. London, England. 1987. Orr. 23.

ren arteko jauzia, baina modu mugatuan ere. Durkheim eta Freud jarraituz, Parsons-ek alde batera utzi zuen egintzaren izaera kontingentea eta aktore sozializatuaren araberako egintza normatibizatua kontzeptualizatu zuen⁸¹.

Gizarte-sistema liburuan (1951), bere obrarik ezagunena, Parsons-ek teoria analitiko orokorra proposatu zuen. Kontzepturik garrantzitsuenak ondorengoak lirateke: balio zentralak, arauak, rolak, egitura, funtzioa, oreka eta ezberdinketa estrukturala. Halaber, hiru sistema nagusi ezberdinduko ditu errealitate sozialean: gizarte-sistema, sistema kulturala eta nortasun pertsonala. Horrela, gizabanakoen egintza sozialean, egoeraren baldintzak, balioen araberako jarraibide kulturalak eta nortasun indibiduala uztartzen dira.

Parsons-en planteamenduan, gizarte-ordena, hau da, gizarte baten egonkortasuna eta iraunkortasuna, hiru sistema horietan aurrebaldintza funtzional batzuk betetzen direnean sortzen da, batez ere, sistema kulturean. Parsons-entzat funtsezkoa da balioen inguruko adostasun zabal-zabala, balioek ezartzen baitute hautaketa-irizpidea egoera batean irekita dauden alternatiba ezberdinen artean. Rolen funtzioa ere oso garrantzitsua da, balioak ez baitira aktorearen orientabide bakarrak, rol batek dituen “sariak” eta “zigorrak” ere egintzaren orientabide garrantzitsuak dira. Hauek guztiak dira, azken batean, gizarte-sistemak dituen barne-mekanismoak oreka eta integrazioa bermatzeko. Barne-tentsioek arriskuan jartzen badute sistemaren egonkortasuna edo iraunkortasuna, sistemak egokitze eta birmoldaketa bat egiten du dagokion puntu instituzionalean. Era berean, sistemak bere aldaketa-dinamika berregiten du “ezberdinketa estrukturalaren” bidez, hau da, instituzio ezberdinen arteko funtzio-banaketa eta espezializazioa gero eta altuagoa egiten du; horrexegatik, gizartearen konplexutasuna gero eta altuagoa da, baina auto-sorkuntza eta auto-babesa baita ere⁸². Aldaketa sozialaren ikuspegi honek, diferentziario funtzionalaren teoria deitu izan dena, sakonago aztertuko dugu lan honen beste ataletan, oso lotua baitago progreso modernoaren linealtasun historikoa baieztatzen duen determinismo eboluzionistarekin. Hain zuzen ere, post-modernismoaren debateen eskutik, krisian dagoen progresoaren meta-narrazio historikoa.

Hortaz, argi da ikuspegi analitiko horretatik egintzaren kontingentzia desagertu egin dela; helmugak eta idealak ez daude egintzaren elementuen artean. Helmuga bakarra balio zentralak edo dominanteak errespetatzea, eta zigorrak saihestea; giza egintza normatibizatzeke joera, beraz, erabatekoa da. Aktore sozialak rolen eramaileak dira, gizarteratze prozesuan barneratu dituzten balio eta portaera-arauek definitzen dituzte euren jokabideak eta euren nortasun pertsonala ere. Horrela, rolek definitzen dituzten hartu-eman instituzionalizatuak eta integratuak gizarte-sistema osatzen dute.

Askorentzat, Parsons-ek, inoiz egin den teoria orokorrik sofistikatuen egin zuen, dena den, aldeko jarrera sutsu horretan daudenek ere onartzen dute Parsons-ek ez zue-

⁸¹ *Ibidem* (orr. 25).

⁸² DAWE, A. “Las teorías de la acción social”. *Historia del análisis sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1988. Orr. 463.

la lortu bere helburua, hots, egintza boluntarista eta egituraren determinismoa uztartzea. Alexander-ek arrazoi intelektual zein arrazoi sozialak aipatzen ditu huts-egite hori azaltzeko. Lehenengo eta behin, uztartu beharreko ikuspuntuen artean, oreka lortu ez izana leporatzen dio Alexander-ek⁸³; izan ere, giza egintzaren izaera kontingentea onartu bazuen ere, bere interesa gizabanako sozializatuaren inguruan zegoen, denbora askoz gehiago eman baitzuen kontrol normatiboa teorizatzen giza egintza sortzailea teorizatzen baino. Beste aldetik, badaude arrazoi sozialak ere Parsons-en huts-egitea ulertzeko, azken batean, ikuspegi idealistak zein positibistak sustrai sakonak dituzte giza zientzien garapen historikoan, eta horrek esan nahi du proposamen teoriko sofistikatu bat baino zerbait gehiago behar dela tradizio horiek beren tokitik mugitzeko.

Parsons-en saiakera teorikora hurbildu eta gero aipatu ditugu, labur bada ere, giza egintza eta gizarte-egituraren teorien arteko banaketak dituen sustrai klasikoak. XX. gizaldiaren bigarren erdian “egintza *versus* egitura” eztabaida areagotu egin zen, Parsons-en funtzionalismo-estrukturala erreakzio bizia sortu baitzuen 60. hamarkadatik aurrera. Orain arte ikusi ditugun autoreen lanak merezi du, zalantzarik gabe, eskaini dieguna baino askoz orri eta hausnarketa zabalagoa; nahiago izan dugu, ordea, zehaztasun gehiagorekin lantzea azkeneko hamarkadetan gai honen inguruan egon diren mugimendu teorikorik garrantzitsuenak. Aukeratu ditugun autore erreferentzialak landu aurretik —Jeffrey Alexander, Anthony Giddens, Pierre Bourdieu, Hans Joas, Alain Touraine eta Piotr Sztompka—, begirada panoramiko emango diegu, 60. hamarkada horretatik aurrera, soziologian egon diren eskola edo ikuspegi garrantzitsuenen: Gatazkaren Teoria, Elkartruke Razionalaren Teoria, Elkarregintza Sinbolikoa, Fenomenologia, Etnometodologia eta Teoria Kritikoa. Horretarako, gure lana mugatzearen eta orain arte egin dugun bezala, soil-soilik aipatuko dugu autore edo eskola bakoitzak giza egintza eta gizarte-ordenaren inguruan erakutsi duen jarrera eta egin duen ekarpena.

1.3. Hegemonia funtzionalistaren ondorengo garapen teorikoak

Dakigunez, gizarte-zientzien garapen teorikoa, eskola eta tradizio ezberdinen kontrastean oinarritu da, ikuspegi ezberdinen arteko eztabaida izan da garapen horren eragilea. Horrela, Jeffrey C. Alexander-ek azpimarratzen duen moduan, gizarte-zientzien bilakaera lineala baino pendularra izan da⁸⁴. Hirurogeigarren hamarkadatik aurrera, Funtzionalismoaren hegemonia ahultzen hasten denean, pentsamendu soziologikoan garatzen diren mugimendu eta ikuspegi teoriko nagusiak kokatu ahal izateko, orain arte erabili dugun banaketa sinplea —giza egintzaren soziologia, batetik, eta gizarte-sistemaren soziologia, bestetik— apur bat gehiago zorrotzu beharko dugu. Izan ere,

⁸³ ALEXANDER, J.C. “The new theoretical movement” *Handbook of Sociology* liburuan. Neil J. Smelser (ed.) Newbury Park: Sage. Orr. 83.

⁸⁴ ALEXANDER, J.C. “The new theoretical movement” *Handbook of Sociology* liburuan. Neil J. Smelser (ed.) Newbury Park: Sage. Orr. 83.

60. hamarkadatik 80. hamarkadaraino pentsamendu soziologikoan egon diren joerak aztertzean egintza *versus* egitura auzia, ikuspegi berri batzuen agerpena dela medio, polarizatu egin dela ikusiko dugu; “atzerapauso” kontsidera daitekeen hori, Parsons-en lanari emandako erantzun ezberdinen ondorio gisa interpretatu ohi da.

Parsons-en abiapuntua Durkheim eta Weber-en kezka nagusietan dago, bere ustez, utilitarismoaren eraginpean zegoen giro filosofiko batean, klasiko horien arazo nagusiak gizarte-ordenaren eraketa eta giza egintza sinboliko-normatiboa ziren. Parsons-ek biak uztartzeko egin zuen ahaleginak ez zuen arrakastarik izan baina, nolabait, eztabaidagai horien zentralitatea geratu da, ondorio gisa; gaur da eguna egintza eta ordenaren arazoak pentsamendu sozialaren kutxa beltzean dauden gakoak kontsideratzen direla, baita gizarte zientzien diskurtsoa horien inguruan garatzen dela ere.

Hain zuzen ere, Alexander-ek, Parsons-en planteamendua jarraituz, auzi nagusi bi horietan erabiltzen ditu irizpide gisa 60. hamarkadatik aurrera garatu diren ikuspegi teoriko nagusiak kokatzeko: giza egintzaren inguruko ikuskeraren arabera (ikuskerak instrumentalak edo ikuskera interpretatiboa) ikuspegi teoriko batzuk kokatuko ditu; eta gizarte-ordenaren inguruko ikuskeraren arabera (ikuskerak indibidualak edo ikuskera kolektiboak) osatuko du ikuspegi teorikoen kokapena teoria sozialean. Teoria soziologikoaren beste autoreentzat, ordea, gizarte-ordenaren auzia eta giza egintzaren ezin dira maila berean ipini, pentsamendu soziologikoaren erdigunean dagoena giza egintzaren auzia baita (Dawe, Joas, Touraine, Giddens...); izan ere, giza egintzaz dugun ikuspegiaren arabera ulertuko dugu elkarregintza, elkarbizitza eta gizarte-ordenaren produkzioa zein gidaritza⁸⁵. Hots, aro modernoan giza egintzari egiten zaion irudikapen utilitarista eta instrumentalaren aurrean (*homo aeconomicus*), soziologian giza egintzaren dimentsio sinboliko-interpretatiboak azpimarratuko dira; diziplinaren garapen-ildo batean dimentsio sinboliko horiek zentzu normatibo eta pasiboan kontzeptualizatuko dira —erreprodukzioa azpimarratuz—, eta diziplinaren beste garapen-ildo batean zentzu sortzaile eta aktibo batean —produkzioa azpimarratzen duena—. Ikuspegi normatibotik, gizarte-ordena eta eraketaren ikuskera bat eratorriko da, adostasun normatiboan oinarritua; alderdi sortzailearen ikuspegitik, gizarte-ordenaren beste irudikapen bat eratorriko da, kontingentzia, egintza kolektiboak eta botere-harremanak azpimarratzen dituena. Planteamendu horretan, beraz, giza egintzari ematen zaio erabateko zentralitatea gizarte zientzien garapen teorikoan, eta errezeloz ikusten da egintza eta ordenaren arazoan inguruan sortu den soziologiaren historia artifiziala. Beraian ustez, pentsamendu soziologikoaren garapena, egintza eta ordenaren auzien arabera interpretatzea tradizio funtzionalistak bultzatutako planteamendua da, Parsons-ek soziologiaren aurre-historia mitikoa sortu baitzuen idealismo eta materialismoaren arteko aurkakotasunaren inguruan. Soziologiaren aitzindari klasikoaren giro filosofiko eta intelektualean nabarmentzen zena, ordea, teoria ekonomikoan egintza instrumentala eta utilitaristak zeukan nagusitasuna izan zen. Arestian aipatu

⁸⁵ DAWE, A. “Las teorías de la acción social”. *Historia del análisis sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1988. Orr. 431-32. JOAS, H. *El pragmatismo y la teoría de la sociedad*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madril, 1998. Orr. 274.

bezala eta Hans Joas-en eskutik sakonduko dugunez, horrek baldintzatu zuen gehien soziologo klasikoen pentsamendua, gizarte-ordenaren arazoa planteatu baitzien eta, azalpen normatiboaren bidean jarrita, giza egintzaren funtsezko izaera sortzailea eta kontingentea baztertu zuten⁸⁶.

Ikus dezagun, dena den, egintza eta ordenaren araberako irizpidea erabiliz, Alexander-ek ikuspegi teoriko soziologikoak sailkatzeko egin duen proposamena, gero-ago izango baitugu aukera ere bere planteamenduak jaso dituen kritikak ikusteko.

Giza egintzari dagokionez, Alexander bat dator Joas-ekin eta, giza egintza kontzeptualizatzeko orduan pentsamendu modernoan dagoen auzia, razionalitate instrumentalaren inguruan kokatuko du. Alexander-ek dikotomia moduan planteatzen du: batzuentzat giza egintza instrumentala, utilitarista eta estrategikoa da, hots, emankortasun maximoa bilatzen duen egintza da; besteentzat, giza egintza sentimenduek, emozioek, arau moralek, balioek edota idealek gidatzen dute. Nola ulertu behar dugu giza egintza, arrazionaltasun instrumentalaren arabera edo “arrazionaltasunik gabeko” interpretazio sinbolikoen arabera? Horixe litzateke, Alexander-ren ustez, eskolak eta ildo-teorikoak banatzen dituen lehenengo ardatza. Bigarrena, gizarte-ordenaren inguruko ikuskera da; horri dagokionez, bi jarrera bereizten ditu: individualista eta kolektibista. Ordenaren ikuskera individualistarentzat, gizartean azter ditzakegun egitura eta osotasun sozialak, gizabanakoen errealitatearen gainetik dauden errealitate horiek, gizabanakoen elkarregintza eta negoziazioaren emaitza dira. Gizabanakoak, beraz, ez dira egitura horien eramaile pasiboak, egile aktiboak baizik:

Onartzen da historiaren edozein momentutan gizabanakoek gizarte-ordenaren oinarriak alda ditzaketela. Gizabanakoek, ikuspegi honetatik, ez daramate ordena beraien barruan. Baizik eta ordena onartzen dute edo ordenaren kontra matxinatzen dira —dituzten balioen kontra barne— segun eta euren desioak⁸⁷.

Ikuspegi kolektibistan, ordea, osotasun soziala eta gizarte-egitura gizabanakoen edozein egintza baino lehenagokoa da; jaioberriek gizarte-ordenarekin egiten dute topo, beraiengandik kanpo eratuta dagoen errealitatea da. Pertsona helduen kasuan, gizarte-ordena pertsonen barruan dagoela defendatzen da. Nola edo hala, ikuspegi kolektivistarentzat gizarte-ordena ez da momentu bakoitzeko elkarregintzaren emaitza; gizabanako bakoitza bultzatuta sentitzen baita alde zuretik egitura normatiboan norabidean.

Alexander-ren planteamenduarekin jarraituz, giza egintza eta gizarte-ordenaren aferak independenteak dira eta, horrela, egintzaren ikuskera sinboliko-interpretatiboa defenditzeak ez dakar, halabeharrez, gizarte-ordenaren ikuspegi individuala de-

⁸⁶ Alan Dawe-en ustez klasiko guztiek (Durkheim, Weber, Marx, Parsons...) gizarte-egituren koherziora zein giza egintzaren intersubjektibitatearen determinismoa onartzen dute; baina, sakonean, egituren koherziora azpimarratzen dute zientzia mekanizistak ezartzen duen ziurtasunen eta aurreikuspenen beharrik. Kontingentzia eta halabeharrezkotasun eza ez baita ondo ezkontzen zientzia mekanizista eta utilitaristarekin. Dawe, A. “Las teorías de la acción social”. *Historia del análisis sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1988. Orr. 465.

⁸⁷ *Ibidem* (orr. 85).

fenditzea —Durkheim-ek, adibidez, egintzaren alderdi sinbolikoa azpimarratzen du eta gizarte-ordenaren ikuspegi kolektibista-*sui generis*—; alderantziz ere, gizarte-ordenaren ikuspegi kolektibista edukitzeak ez du esan nahi giza egintza modu instrumentalean ulertzen denik. Horrela, Alexander-rek, bost aukera ezberdin aipatzen ditu:

- Gizabanako arrazionalek gizartea sortzen dute kontingenteak diren askatasun-jokaeren bidez (egintza instrumentala eta ordena indibiduala).
- Gizabanako interpretatiboek gizartea sortzen dute kontingenteak diren askatasun-jokaeren bidez (egintza interpretatiboa eta ordena indibiduala).
- Gizabanako sozializatuak, indar kolektibo gisa, gizartea birsortzen dute kontingenteak diren askatasun-jokaeren bidez (egintza interpretatibo-birsortzailea eta ordena kolektiboa).
- Gizabanako sozializatuak gizartea erreproduzitzen dute dauden ingurune sozialak maila mikrorra ekartzen (egintza interpretatibo-erreproduzitzaila eta ordena kolektiboa).
- Gizabanako arrazionalek eta intentzionalak gizartea onartzen dute behartuak daudelako kanpoko kontrol sozialaren bidez (egintza instrumentala eta ordena kolektiboa)⁸⁸.

Alexander-en ustez, pentsamendu sozialean egon diren tradizio eta eskolak bost ikuspegi hauetan sailka ditzakegu. Eskema hori erabiliaz, Alexander-rek II. munduko gerraren osteko bilakaera soziologikoa azalduko du, 1987an argitaratu zuen *Sociological Theory since 1945*. Horrela, Utilitarismoa, Homas-en Elkartruke Razionalaren Teoria eta *Rational Choice Theory* lehenengo ikuspegiak kokatzen ditu (egintza instrumentala eta ordena indibiduala). Elkarregintza Sinbolikoa, Fenomenologia eta Etnometodologia bigarren ikuspegiak ikusten ditu (egintza interpretatiboa eta ordena indibiduala). Durkheim-en obra eta Funtzionalismoa laugarren ikuspegiak kokatzen du (egintza interpretatibo-erreproduzitzaila eta ordena kolektiboa) eta, azkenik, Marx-en azkeneko lanak, Althusser-en Estrukturalismoa eta Gatatzaren Teoriak bosgarren ikuspegiak (egintza instrumentala eta ordena kolektiboa) kokatzen ditu⁸⁹.

Hirugarren ikuspegiak (egintza interpretatibo-birsortzailea eta ordena kolektiboa) da, Alexander-en aburuz, ikuspegi horren sortzaileak izendatzeko orduan bi autore nagusi aipatzen dizkigu Alexander-rek: Max Weber eta Talcott Parsons. Werber-en lanean ikusten du hurbilpen klasikorik aipagarriena: “Weber-ek erakutsi zuen ingurune sozialearen erreprodukzioa gizabanako sozializatuaren egintzaren esku zegoela. Durkheim-ena izan daitekeen planteamendu horren inguruan, Weber-ek ez zuen egin garran teoriko sofistikaturik, ezta bere garrantziaren erakustaldi historiografikorik ere; bera, ordea, harantzago joan zen modu esanguratsuan, giza egintzaren garrantzia

⁸⁸ “From reduction to linkage: the long view of the Micro-Macro debate” J.C. ALEXANDER ETA B. GIESEN. *The micro-macro link* liburuan. Editoreak: Alexander, J.C., Giesen B., Münch, R., eta Smelser, N.J. University of California Press. London, England. 1987. (Orr. 14).

⁸⁹ *Ibidem* (orr. 15).

behin eta berriz defendatzeak, kontingentziarekiko sentiberatasun itzela eman zion. Horrek hirugarren ikuspegira bultzatu zuen, hots, gizabanako sozializatuek, euren egintza kontingentearen bidez, gizartea birsortzen dutela aitortzera⁹⁰.

Hala eta guztiz ere, Alexander-ek aitortzen du Weber-en soziologian aurkitzen ditugun gizarte modernoaren inguruko azterketak (arrazionaltasun instrumentalaren nagusitasuna, burokrazia, “burdinazko kaiola”...) ez daudela oso urruti Marx-ek azkeneko lanetan erakutsitako erabateko gizarte-determinismotik; biak baitira bosgarren ikuspegi teorikotik eginak: gizabanako autonomia makurtzen da gizartearen aurrean, menderatua baita gizarte-kontrolaren indar koaktiboagatik. Weber-engan dagoen kontraesan edo ikuspegi-aldaketa hori azaltzeko, Alexander-ek utilitarismo liberalaren presioak aipatzen ditu; *Realpolitik*-ak agintzen duen instrumentalismoak urrunduen omen zuten Max Weber bere hasierako ikuspegi interpretatibo eta subjektibotik⁹¹.

Talcott Parsons-i dagokionez, Alexander-ek berarengan ikusten du gizabanakoaren egintza mikroa eta gizartearen egitura makroa uztartzeko lanik sofistikatuenak. Arestian aipatu ditugun kontzeptuen eskutik (egintzaren teoria boluntarista, barneratze-prozesua, kanporatze-prozesua, rola...), Parsons-ek bateratu zuen, Alexander-ren ustez, egintzaren kontingentzia gizartearen kontrolarekin; horretan oinarritua baieztatatu zuen giza egintzaren jarraibide orientatzaileak barneratze-prozesuaren emaitza direla, eta gizartearen egiturak kanporatze-prozesuaren emaitza direla. Alexander-en kexa, ordea, zera da: egintza zein egituraren determinismoa azpimarratzeko interesak, ez zuela jarraipenik izan Parsons-en obraren garapenean; gizabanako sozializatua edo, beste era batera esanda, gizabanakoarengan gizarteak duen presentzia, bihurtu baitzen bere interesgune nagusia eta, ondorioz, giza egintzaren esfortzu kontingentea begibistatik galdu zuen. Horrela, hirugarren ikuspegira (egintza interpretatibo-birsortzailea eta ordena kolektiboa) egin zuen hurbilpena etengabeko urrunketa bihurtu zen bere obra aurrera joan ahala, egintzaren erabateko normatibizazioa izan baitzuen bere azkeneko lanen oinarritariko bat.

Edozelan ere, Weber eta Parsons-en lanak mugatuak izan zirela ukatu barik, Alexander-entzat, beraienak dira pentsamendu sozialaren historian subjektibismo eta objektibismoaren arteko aldea gainditzeko egin diren ahalegin teorikorik nagusienak. Izan ere, jarraian ikusiko dugunez, 60. hamarkadatik 80. hamarkadaraino, eskolak berriz ere lerrotuko dira modu polarizatuan, giza egintza mikroaren azterketan —ikuspegi instrumental batetik edo ikuspegi sinboliko batetik— edo gizarte-egituren determinismoaren azterketan —armonia funtzionalaren ikuspegitik edo koakzio asimetrikoaren ikuspegitik—.

Esan bezala, II. munduko gerraren osteko panorama soziologikoan, Parsons-en teoria funtzionalistak erabateko zentralitatea izan zuen: “(...) askorentzat soziologia funtzionalismoa zen, 60. hamarkada gorabeheratsuak, ordea, —azaldu ziren protestak, matxinadak, herri mugimenduak, mugimendu kultural berriak eta gatazka nazio-

⁹⁰ *Ibidem* (orr. 18).

⁹¹ *Ibidem* (orr. 18-19).

nalak zein nazioartekoak— gogor astindu zuten funtzionalismoaren eraikin teoriko sendo eta boteretsua: gizartea, sistema integratu eta armoniko gisa ikusita, adostasuna, ordena, partaideen interes komunak eta elkartasun mota zehatz bat gorai patzen zituen funtzionalismoak”⁹². Gatazka soziopolitikoaren eskutik, ezinezon politikoa eta kritika ideologikoa hedatu ziren; gerraren ostean lortutako egonkortasun soziala desagitzen ari zen, eta Parsons-en teoria lotuta zegoen gerra osteko egonkortasunarekin⁹³; ez da harritzekoa, beraz, funtzionalismoak bere hegemonia teorikoa galtzea.

Gatazkaren teorikoak izan ziren Parsons-en teoria zalantzan jarri zuten lehenengoak eta, Alexander-ren ustez, epe luzean eragin gehien izan duten kritikak egin zituzten. Lewis Coser (*Gatazka sozialaren funtzioak*, 1956), Ralf Dahrendorf (*Klase eta klaseen arteko gatazka gizarte industrializatuetan*, 1959) eta John Rex (*Arazo giltzarriak teoria soziologikoan*, 1961) izan ziren Parsons-en lana “ordenaren teoria” bezala izendatu zutenak eta, alternatiba gisa, “Gatazkaren Teoria” aurkeztu zutenak. Teoria horien nondik norako guztietan sartu barik, bakarrik esango dugu, ikuspegi honetatik, gizartea ez dela osotasun integratua, orekatua eta armoniatsua —horixe baita funtzionalismoaren aurreste metateorikoa gatazkaren autoreentzat—, alderantziz bazik; kontraesanak, koakzioak eta botere-borrokak nagusi dira elkarbizitza sozialean. Ez dago erabateko armonian eta orekan egongo den gizarterik, bestela esanda, ez dago gatazkarik gabeko gizarterik; gatazka sozialak gizartearen garapena ahalbidetzen baitu, aldaketaren eragilea da, bilakaera historikoa bultzatzen du. Dahrendorf-ek botere administratiboaren postuetan kokatu zuen koakzio bidezko ordenaren iturburua; Rex-ek, berriz, ekonomiaren banaketa prozesuak azpimarratu zituen, klase gobernatzaileari boterea ematen zioten prozesuak, hain zuzen. Ikuspegia estrukturala zen, ez zion erreparatzen gizabanakoaren egintza mikroari, alderantziz baizik, gizartearen eraketa eta aldaketa egiturazko prozesuen determinismopean agertzen dira. Giza egintzaren ikuskera, subjektiboa eta interpretatiboa baino objektibizatua eta mekanikoa da —baldintza materialen arabera— eta, horrexegatik, Alexander-ek 5. ikuspegian (egintza instrumentala eta ordena kolektiboa) kokatzen ditu gatazkaren teoriak.

Gatazkaren ikuspegiak indar teoriko gehiago eta diskurtso gogorrago bereganatu zuen Althusser-en marxismo estrukturalaren eskutik. Althusser-en pentsamenduak, 1970tik aurrera zabalduta zen eta mende hasierako marxismo eboluzionista eta determinista berreskuratzea ekarri zuen. Izan ere, mendebaldean “marxismo ortodoxoa” —aldaketa historikoaren sakoneko eragile gisa indar ekonomikoaren garapena defendatzen duena— bigarren mailan geratu zen George Luckács-ek Marx-en irakurketa subjektibista eta anti-eboluzionista egin zuenetik; irakurketa horrek jarraipena izan baitzuen Alemaniako pentsalari neomarxista batzuk Frankfurteko Eskola sortu zutenean 1923an. Frankfurtekoek, arrazionaltasun instrumentalaren eta positibismoaren

⁹² ENRIQUE ALONSO, L. “Funcionalismo y paradigmas sociológicos. Notaciones críticas a un libro de Jacques Coenen-huther”. REIS 37, 1987. Orr. 207.

⁹³ ALEXANDER, J.C. *Las teorías sociológicas desde la segunda guerra mundial*. Gedisa. Bartzelona, 1997. Orr. 101.

erabateko kritikaren bidez, kultura eta zientziaren arlora zabaldu zuten gizarte kapitalistaren azterketa kritikoa. Lukács-ek berreskuratutako kosifikazioa edo “galdutako gizarte-boterea”ren teoria, ekonomiaz gain politika, kultura eta eguneroko bizitzan aplikatu zuten. Weber-en razionalizazioaren teoria zein Freud-en psikoanalisi erabiliz, Horkheimer, Adorno, From edo Marcuse-k “subjektuen aktibitatearen inportantzia eta egituren osaketan honen eragina jasotzen duen gizartearen kontzeptu dialektikoa aldarrikatzen dute”⁹⁴. Ikuspegi boluntarista eta aktibista hori nabarmen indartzen zen “teoria positiboari” edo funtzionalistari egiten zioten kritikarekin: “teoria positiboak mundua den bezala onartzen du, gauzak aldatzeko aukeran sinistu barik. Teoria kritikoak, ordea, aldaketa hartzen du abiapuntu”⁹⁵.

Marxismoaren ikuspegi subjektibista horrekin bat datozen autore batzuk, Jean Paul Sartre, C. Wright Mills edo Herber Marcuse, erreferente garrantzitsuak izan ziren 60. hamarkadako mobilizazio eta protestetan; hain zuzen ere, gizarte liberalaren kritika zorrotza egiteaz gain, irakurketa mobilizatzailea egiten dutelako eta gizarte-aldaketa gauzatzea posiblea dela aldarrikatzen dutelako. Teoria Kritikoaren tradizioa egintza-ordena binomioan kokatzeko orduan, Alexander-rek bere hutsune nabarmenetako bat egiten du —geroago aipatuko ditugu beste batzuk—, ez baitu sailkatzen giza zientzietan eragin handia izan duen tradizio hau. Giza egintzaz eta gizarte-egituraz Teoria kritikoan defendatzen den ikuspegiaren arabera, eskemaren 2. ikuspegi teorikoan (egintza interpretatiboa eta ordena indibiduala) ipini genezake; izan ere, adierazle esanguratsuk kontsidera ditzakegu determinismo ekonomikoaren kontrako erreakzioa lideratzea, eta fenomenologia zein psikoanalisi iturri heuristikoko nagusiztat erabiltzea. Dena den, Marx eta Weber-en eraginez, azterketa estrukturalak nagusitu ziren teoriko kritikoen lan askotan, eta gizarte-determinismo ezkorra aurkitu dezakegu ere autore hauen obretan.

Althusser-en marxismo estrukturalak, bere aldetik, “osotasuna sozialari” emango dio erabateko lehen tasun ontologikoa eta metodologikoa: “egintza indibiduala gizarte-egiturak ezarritako aginduetatik aldendu daiteke, baina ekintza horien ondorio objektiboak aktoreen kontrolpean ez dauden egiturek determinatzen dituzte”⁹⁶. XIX. mendeko determinista ekonomikoen mailara heldu barik bada ere, Althusser-entzat, ekonomia da historiaren sakoneko eragilea. Hala ere, Poulantzas eta gainerako estrukturalistekin batera, ekonomiaz gain politika eta ideologia aipatzen ditu gizartearen osagai nagusien artean; izan ere, politika, ekonomia eta ideologia *autonomia erlatiboa* daukaten sistemak dira eta, denboraldi zehatz batez, horietako edozeinek izan dezake nagusitasuna besteen gainetik. Gizabanakoen egintza eta motibazioak ez zitzaizen batere garrantzizkoak iruditzen, aktoreen sozializazioa eta gizarte-egituraren

⁹⁴ UNZUETA, I. “Lanaren inguruko problematika Frankfurtuko Eskolaren lehendabiziko belaunaldian”. Inguruak aldizkaria. Zbk. 19, 1997. Orr. 134.

⁹⁵ ALEXANDER, J.C. *Las teorías sociológicas desde la segunda guerra mundial*. Gedisa. Bartzelona, 1997. Orr. 279.

⁹⁶ ALEXANDER, J.C. “The new theoretical movement” *Handbook of Sociology* liburuan. Neil J. Smelser (ed.) Newbury Park: Sage. Orr. 88.

daukaten posizioa, askoz esanguratsuagoa iruditzen baitzitzaien; gizarte-posizioak egiturak ezartzen ditu, objektiboak dira, hortaz, independenteak dira agenteen borondatearengandik edo oharrenarengandik.

Horiek horrela, autore hauen lana 5. ikuspegian kokatzen du Alexander-ek (egintza instrumentala eta ordena kolektiboa), gizabanakoen elkarregintza interpretatzaileak eta hortik erator daitekeen sormenak ez baitute inongo tokirik euren azterketetan.

Funtzionalismoaren nagusitasuna ahuldu ostean jazo zen garapen teoriko polarizatua deskribatzen jarraitzeko, gizabanakoen egintza mikroan interesgune nagusia zuten ikuspuntuak aipatu behar ditugu. Egiturazko aspektu instituzionalizatuei erreparatuz, Funtzionalismoa, Gatazkaren Teoriak eta Marxismo Estrukturala zeuden bitartean, penduluaren bestaldean Elkartruke Arrazionalaren Teoria, Fenomenologia, Etnometodologia eta Elkarregintza Sinbolikoa zeuden.

Elkartruke Arrazionalaren teoriak Parsons-en Funtzionalismoaren hegemonia desafiatu zuen. George Homans-ek, *Portaera soziala. Oinarrizko adierazbideak* argitaratu zuen 1961an, liburu horretan arau sozialei eta rolei funtzionalismoak eman dien gehiegizko garrantzia kritikatzeko; bere ustez, elementu horiek, egintzaren testuinguru kolektiboa eta instituzionala adierazten dute, baina ez gizabanakoen eguneroko ekintzak. Azken hauek azaltzeko, azterketa azpi-instituzionala behar da.

Skinner-en psikologia konduktista oinarri hartuta, utilitarismo ekonomikoa erabiltzen du, arau sozialak alde batera utzita, gizabanakoen portaera zehatzak azaltzeko. Homans-entzat elkarregintza indibiduala zigor eta sarien jokoan datza, gizabanako bakoitzaren erantzuna, jasotzen duen sariaren arabera da; horrek esan nahi du, elkarregintza soziala eta sariak elkartrukatzea gauza bera direla⁹⁷. Halaber, kostua ere tartean dago; zirt edo zart egiteko, baliabide batzuk gastatzen ditugu, horrexegatik, saria kostua baino altuagoa duen aukera hautatzen dugu.

Aktoreak, beraz, independenteak dira; indar sozialak (sistema sinbolikoak eta sozialki araututako adostasunak) kanpoko testuinguruan daude, baina elkarregintza zehaztetan nagusitzen dena sari eta zigoren elkartruke utilitarista da. Horrela, gizabanakoek jarraitzen dute egiten saritzen dena eta uzten diote kostu larregi daukanari. Teoria honen arabera, kalkulu instrumentalak portaeraren azalpen osatua ematen du; kontzientzia, sistema kulturalak, egiturak edo gizarte-instituzioak ez dira soziologiaren aztergaiak, sarien jarraibideak eta elkartrukeak, ordea, interesgune nagusia da.

Homans-en eskutik, eta azterketa zehatzak ahalbidetzen duten eredu sinpleek daukaten erakargarritasun zientifikoaz baliatuz, indibidualismo metodologikoa eta hautaketa arrazionalaren teoria oso arrakastatsu bilakatu dira azkeneko urtetan. Ez dira gutxi, beraz, J. C. Alexander-en 1go ikuspegian (egintza instrumentala eta orden indibiduala) kokatu ditzakegunak.

⁹⁷ ALEXANDER, J.C. *Las teorías sociológicas desde la segunda guerra mundial*. Gedisa. Bartzelona, 1997. Orr. 139.

Elkarregintza Sinbolikoa da aipatu beharreko beste korrante nagusi bat pentsamendu soziologikoan; gizabanakoen eguneroko elkarregintza zehatza aztertu bazuen ere, giza egintza modu interpretatiboan ulertuko du eta ez modu instrumentalean. XX. mendeko hastapenetako Chicago-ko Eskolan ditu aitzindariak korrante honek eta, geroago ikusiko dugunez, John Dewey eta Geroge Herbert Mead-en pragmatismo sozialaren bidez, egintzaren filosofia oso bat garatu zuen utilitarismo estrategikotik zein normatibismo sozialetik urrunduz. Ikerketa enpirikoan eta metodologian ere, ezinbesteko erreferentzia bihurtu zen tradizio soziologiko hau. Horrela, 60. hamarkadan, Herbert Blumer-ren eskutik, Chicagoko tradizioaren jarraipen mugatu bat abiatuko da. Blumer-ek 1969an argitaratu zuen *Elkarregintza sinbolikoa: ikuspegia eta metodoa*. Lehenagotik ere elkarregintza sinbolikoaren kontzeptua plazaratuta bazuen ere (1938an, George Herbert Mead-en lanaren berri emateko), 1969ko liburu horretan, Parsons-en funtzionalismoaren kritika egingo du. Blumer-ren ustez, funtzionalistek, gizakien portaera kanpoko faktoreek gizakiengan daukaten ondorio gisa ikusten dute; hau da, giza egintza pertsonen elkarregintzara ekartzen dituzten gizarte-elementuen emaitza da, edo aldez aurretik emandako baldintzen emaitza, elkarregintzan bertan ezer gertatu ez balitz bezala. Ondorioz, funtzionalistentzat, gizarte-sistemak automatikoki funtzionatzen du, gizabanako errealak eta euren elkarregintza kontuan hartu gabe.

Blumer-en eskutik George Mead-en teoria berpiztu zen, beraien interesgune nagusia elkarregintza bakoitzean jazotzen den komunikazioa eta negoziazio sinbolikoa da, ez zituzten aktoreak ikusten aldez aurretik emandako arau sozialen eramaile soilak bezala, baizik eta elkarregintza egoera guztietan adostasun eta arau sozialen definizioan aktiboki partehartzen duten eragileak bezala. Ordena soziala, beraz, ez da gizabanakoen “me” sozializatu baten emaitza, elkarregintza zehatz bakoitzean sustraituta dagoen “I” baten emaitza baizik. Geroago izango dugu tradizio honen ekarpena zehaztasun gehiagorekin ikusteko aukera, gaur egungo debate teorikoan ere bere oihartzuna agertzen baitzaigu giza egintzaren dimentsio nagusiak aztertzeke orduan⁹⁸.

Aurrez-aurreko elkarregintzaren azterketan nabarmendu zen beste autore bat Erving Goffman izan zen. Goffman-entzat, gizabanako bakoitzak bere burua aurkezten du besteen aurrean tokian tokiko eta unean uneko egoeraren arabera —kokapen espaziala edo jarrera fisikoa oso funtsezko faktoreak direla—; gizabanakoek darabiltzaten maskarak eta antzeppenak (dramaturgia) aukeratzen dituzte, egoera modu zehatz batean definitzeko eta besteentzat eduki nahi duten irudia edukitzeko. Hortaz, egoeraren kontrola bereganatzeko, gizabanakoak unean uneko estrategia kontingenteak erabiltzen ditu. Egintza indibidualaren kontingentzia azpimarratzen badu ere, maskara eta antzeppenaren eduki asko kolektiboki definitutako balio eta arau sozialekin erlazionatzen ditu eta, horrela, sistema soziala eta sistema kulturala elkarregintzan daukan protagonismoa onartzen du.

⁹⁸ JOAS, H. *El pragmatismo y la teoría de la sociedad*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madrid, 1998. Orr. 19.

Horiek horrela, guri gehien interesatzen zaizkigun aspektuei dagokionez, giza egintza eta gizarte-egitura dagokienez, alegia; elkarregintza sinbolikoa argi eta garbi kokatzen dugu Alexander-ek definitutako 2. ikuspegi teorikoan (egintza interpretatiboa eta ordena indibiduala). Azken batean, elkarregintzaren aztertzaileentzat, soziologiaren edo giza portaera sozialaren azterketaren muinean, egintzaren aspektu sinbolikoak daude, hau da, aktoreek sinboloen bidez elkarren artean komunikatzen dituzten esanahiak eta egoeraren definizioak; prozesu horietatik sortzen baitira jarraibide soziokultural orokorrakoak. Jarraian aipatuko ditugun korranteak, fenomenologia eta etnometodologia, 2. ikuspegi horren adierazle esanguratsuak dira ere.

Edmund Husserl, Alfred Schutz eta Harold Garfinkel dira fenomenologia eta etnometodologiaren izenik adierazgarrienak. Husserl-ek fenomenologiaren oinarri filosofikoak ezarri zituen, bere obra XX. mendeko hasierako hamarkadetan idatzi zuen eta, funtsean, gizakion gaitasun sortzailea aztertzen du, kontzientzia-prozesuen bidezko gaitasun sortzailea, hain zuzen ere: “Husserl-entzat fenomenologiak esan nahi du errealitatea egituratzen duena giza pertzepzioa dela. Begibistakoak eta objektiboak jotzen ditugun gauzak ere, “hor” daude guk nahi dugulako edo guk hor egotea egiten dugulako”⁹⁹. Munduan antzematen dugun ordena eta egitura, beraz, ez dugu antzematen mundu horretaz daukagun zentzumenen bidezko esperientziagatik; baizik eta geure oharmenaren gaitasun aktibo eta sortzaileagatik. Hortaz, giza oharmenak errealitatea sortzeko eta kodifikatzeko darabilen prozesua da aztertu beharrekoa eta, errealitatea deskodifikatzeko, “begirada inozoa” baztertu behar dugu eta “murrizte fenomenologikoa” egin behar dugu. Oharmenaren unibertsoan dago errealitatea eta, horrexegatik, oharmenaren prozesuak dira geure aztergai nagusia.

Alfred Schutz izan zen, Husserl-en subjektibismo transzendental, soziologian uztartu zuena. Oharmenaren aktibitatea testuinguru kultural zehatzetan kokatuz, errealitate soziala nola sortzen dugun izango da bere interesgune zentrala: “elkarregintza, interpretapen eta inferentzia prozesu zehatza da, aktoreek egoera partikularren esanahia sortzen dute, eta hizkuntza eta gizartearen berregiten dute erabilpen hutsagatik”¹⁰⁰. Hortik abiatuta, Schutz-en kezka nagusia eguneroko bizitza artikulatzen duten egiturak konprenitzea izango da. Izan ere, eguneroko errealitatea giza egintzaren eszenatokia da. Normalean, ontzat ematen dugu errealitate bakarra dagoela eta, horrexegatik, norberak egiten duen egoeraren irakurketa begibistakoa eta bakarra iruditzen zaio; errealitatea, ordea, ez da objektu eta gertaeren egituraren emaitza soila, geure bizi-esperientzian bildutako erreferente sinbolikoak ere tartean daude. Horrexegatik, egoerak interpretatzeko orduan, orientabide kultural komunak baditugu ere, irakurketa ezberdinak egiten ditugu eta, ondorioz, etengabe transformatzen dugu kultura kolektiboa. Autore hauen arabera, beraz, fenomenologiaren bidez, eguneroko bizitzaren egiturak ulertu ditzakegu; giza senak begibistakotzat ematen duena problematizatzen baitu, sakonekoa azaleraztzen baitu.

⁹⁹ ALEXANDER, J.C. *Las teorías sociológicas desde la segunda guerra mundial*. Gedisa. Bartzelona, 1997. Orr. 196.

¹⁰⁰ HARVEY BROWN, R. “Dialéctica y estructura en la teoría sociológica. La búsqueda de un método lógico”. REIS 37, 1987. Orr. 19.

Suchtz-ek, II munduko gerraren ondorengo urtetan idatzi zituen bere lan gehienak, eta eguneroko bizitzaren azterketa soziologikoaren aitzindaria izan zen. 60. hamarkadan, bera hil eta gero, bere ikasleak izan zirenak Harold Garfinkel, batetik, eta Peter Berger eta Thomas Luckmann, bestetik, sona handiko lanak egin zituzten euren irakaslearen ikuspegia erabiliz.

Harold Garfinkel izan zen, giza kontzientziaren azterketa fenomenologikoa instituzio sozialen azterketarekin lotzen, ahalegindu zena. Arau sozialak eta elementu kulturalak, gizakien kontzientzian barneraturik daudela onartu zuen; alabaina, giza egintzaren ezaugarria nagusiak sormena eta kontingentzia izanda, garrantzi gehiago ematen zion gizabanakoek eguneroko egoeretan arau sozialak eta irakurketa kulturalak etengabe aldatzeko eta moldatzeko daukaten gaitasunari. Hortaz, arau sozialen “normalizazio” prozesuak aztertu zituen; hau da, giza egintzaren bidez, arau sozialak jasaten dituzten aldaketak, egoera berriei moldatzeko. Prozesu horietan aktoreek dabilten teknika eta metodo kognitiboak aztertu zituen, eta metodo horien azterketari Etnometodologia izendatuz, argitaratu zuen 1967an *Ikasketak Etnometodologian*.

Etnometodologia korrante garrantzitsua izan zen ondorengo urtetan; aktoreen praktika eratzailak azpimarratuz, gizarte-ordena gizabanakoen egintza ordenatzailearen emaitza gisa aurkezten du. Fenomenologiarekin batera, beraz, Alexander-ek, 2. ikuspegi teorikoan (egintza interpretatiboa eta ordena indibiduala) kokatzen du Etnometodologia.

Azken hamarkadetako pentsamendu sozialaren korrante ezberdinak aipatzen ari garen honetan, ez dugu korrante bakoitzaren ur sakonetan murgildu izan nahi; asmoa korrante nagusiak egintza-ordena ardatzetan kokatzea izan baita. Fenomenologiaren kasuan, ordea, ezin dugu aipatu gabe utzi geure gaia bete-betean astindu duen obra bat, Berger eta Luckmann-en *Errealitate sozialaren eraikuntza*, hain zuzen ere.

Ikuspegi fenomenologikoa erabiliz, Berger eta Luckman-ek, 1966an argitaratu zuten soziologia garaikidean ezinbesteko obra bihurtu dena. Izan ere, argitasun handiz aztertu zuten eguneroko elkarregintza eta intersubjektibitateak gizartearen instituzioekin eta egiturekin daukan harremana. Lotura horren berri emateko, hiru prozesu deskribatzen dituzte: 1) Kanporatzea: gizartea gizakion egintzaren emaitza da. 2) Objektibizazioa: gizartea errealitate objektiboa da. 3) Barneratzea: gizakia produktu soziala da.

Lehenengo prozesuari dagokionez, autoreek, A eta B pertsonen arteko balizko elkarregintza “naturala” deskribatuz, gizakion elkarregintzan ezinbestez produzitzen diren ekintzen tipifikazioak, jokatzeko jarraibideak eta portaera-arauak erakusten dituzte. Errepikatzen diren funtzionatzeko moduak ohitura bihurtzen dira eta rolen banaketak sortzen dituzte, besteen portaera aurreikusi ahal izateko eta, elkarbizitza, tentsio gutxiagorekin eta segurtasun gehiagorekin antolatu ahal izateko. Azkenik, aktore mota ezberdinen arabera ekintza-tipifikazioa eraikitzen den bakoitzean instituzionalizazioa agertzen da. Gizarte-instituzioak, beraz, giza izaera duen prozesu historiko baten emaitza dira eta gizakien portaera arautzen dute norabide zehatz baterantz, hain zuzen ere, beste alternatiba posibleen kontingentzia mugatu ahal izateko. Lehenengo prozesu honetan, beraz, kanporatze prozesuan, gizartearen instituzioak eta egiturak gizakion egintzaren emaitza dira.

Bigarren prozesuaren berri emateko, objektibazioaren berri emateko, Berger eta Luckmann-ek historizitatearen elementua azpimarratzen dute. Izan ere, jokabide arautuak belaunaldiz belaunaldi igortzen direnean, ez dira igortzen kontingenteak eta giza adostasunen emaitza gisa, baizik eta berezko existentzia objektiboa izango bazuten bezala:

Gizareratze prozesuaren hasierako urratsetan haurra ez da gai fenomeno naturalen objektibitatea eta gizarte-formazioen objektibitatea ezberdintzeko. Gizareratze-faktoririk garrantzitsuen hizkuntza kontsideratzen badugu, haurrentzat hizkuntza objektuen izaera berekoa da, haurrak ezin du adostasunezko izaera antzeman. Gauza bat izendatzen zaion bezalakoa da, ezin liteke beste modu batera izendatu. Horrela agertzen dira ere gizarte-instituzio guztiak, emanak, aldaezinak, berez ebidentek¹⁰¹.

Ondorioa berehalakoa da: gizarte-instituzioak eta egiturak gizabanakoen gainetik dagoen errealitate bezala existitzen dira, are gehiago, gertaera ukaezin gisa inposatzen zaie. Jokabide arautuak hor daude, itxuraz bere borondatearen menpe ez dagoen esparru batean, beraiengandik at. Dena den, geure autoreak azpimarratzen duten bezala, ezin da ahaztu gizakiok sorturiko objektibitateaz ari garela; gizarte-egitura, gizarte-instituzio bakoitza bezala, giza egintza objektibizatua da.

Horiek horrela, Berger eta Luckmann-entzat, giza egintzaren kanporatzea eta gizarte-instituzioen objektibitatea, etengabeko prozesu dialektiko baten momentuak dira, eta prozesu horren hirugarren momentua mundu soziala barneratzea da: gizareratze prozesuan, gizartea gizabanakoen kontzientzian proiektatzen da¹⁰². Euren planteamenduaren arabera, beraz, gizabanakoak gizartea sortzen du baina, aldi berean, gizabanakoa gizarteak sortua da:

Instituzionalizaio eta legitimazioaren prozesu sozialen bidez giza egintza objektibizatzen da, gizaki sortzaileengandik apartekoa bailitzan agertzen da, horrela, gizartea errealitate objektiboa bihurtzen da. Sozializazio-prozesuen bidez gizakiaren kontzientziak gizartearen errealitate objektiboa barneratzen du, hori dela bide mundu objektibizituaren egiturek determinatuko dute euren egileen kontzientzia sortzaileak¹⁰³.

Hizkuntza funtsezko elementua da aipatu ditugun hiru prozesu edo momentu horietan, erreferente sinbolikoak sortzeko tresna dugu hizkuntza. Izan ere, hizkuntza bidez elkartrukatzen ditugu ekintzei ematen diegun esangura; hizkuntza bidez definitzen ditugu objektibizatuko diren ekintzen tipifikazioa eta rol banaketa; eta hizkuntza bidez barneratzen dugu mundu soziala. Era berean, zentzu arrunteko ezagutzak hizkuntzan du oinarri, eta ezagutza arrunta ezinbestekoa da eguneroko egoeren definizio komunak eta elkarbizitzaren erreferente esanguratsuak sortzeko¹⁰⁴.

¹⁰¹ BERGER, P., LUCKMANN, T. *La construcción social de la realidad*. Amorrortu, Buenos Aires 1993. Orr. 82.

¹⁰² *Ibidem*. (Orr. 83).

¹⁰³ *La sociología del conocimiento y de la ciencia*. E. LAMO DE ESPINOSA, J.M. GONZÁLEZ, C. TORRES. Alianza, 1994. Orr. 407.

¹⁰⁴ *Ibidem* (orr. 408-409).

Hortaz, esan genezake, prozesu kognitibo eta sinbolikoen bidez, giza egintzak gizarte-ordena sortzen duela eta, behin eratuta, gizarte-ordenak giza sormenaren kontingentzia mugatzen duela; egintzaren aukerak mugatzen dituela.

Berger eta Luckmann-ek tradizio ezberdinen sintesi aberatsa sortu zuten. Weber eta Schutz-en eraginez, eguneroko egintza eta elkarregintzaren garrantzia daukate abiapuntu; ikuspegi dialektikoa eta errealtate sozialaren objektibazio prozesuaren zentralitateak erakusten digu Marx, Lukács eta Eskola kritikoa pentsamendu sozialean egin duten ekarpena nagusienetarikoa bat; era berean, mundu sozialaren objektibotasuna eta gizabanakoengandik aparteko eta berezko existentziaren bidez Durkheim-en lana aitortzen dute. Azkenik, barneratze prozesua eta rolen garrantzia integratuz, Parsons-en ekarpen nagusiak jasotzen dituzte. Berger eta Luckmann-en esfortzu teoriko nagusia egintza eta elkarregintzaren prozesuetan badago ere, ezinbesteko ekarpena egin zuten egintza eta egitura maila mikroan uztartzeari begira. Bestalde, *Errealitate sozialaren eraikuntza* liburuan sortutako eredu teorikoarekin aplikapen interesgarriak egin zituzten bai Berger zein Luckmann-ek euren ondorengo obra ezagunetan: *Dossel sakratua, erlijioaren soziologia baterako elementuak* (P. Berger, 1967), *Erljio ikustezina, erlijioaren arazoa gizarte modernoan* (T. Luckmann, 1967) eta *Etterik gabeko burua. Modernitatea eta kontzientzia* (P. Berger, B. Berger eta H. Kellner, 1973).

Etnometodologia eta Fenomenologiaren aipamenarekin, 60. hamarkadan hasita eta 80. hamarkadaraino, pentsamendu sozialaren polarizazioaren berri eman dugu. Batetik, funtzionalismoa eta, bestetik, Gatazkaren Teoriak eta Marxismo Estrukturala, debate teorikoaren bi ikuspegi nagusiak ziren; baina, aktoreen egintza aldarrikatzen zuten korronteak, emankortasun nabarmena erakutsiz, etengabe nabarmendu ziren 60. hamarkadatik aurrera: Teoria Kritikoa, Fenomenologia, Elkarregintza Sinbolikoa eta, horiekin batera, Elkartruke Arrazionalaren Teoria eta Etnometodologia, ekarpen garrantzitsuak egin dituzte 60. eta 70. hamarkada oparoetan. Tarte horretako ibilaldi teoriko laburra egin dugu eta, horretarako, J. C. Alexander-ren eskema teorikoa jarraitu dugu, interesatzen zaizkigun gaien araberrako sailkapena eskaini digulako: giza egintza eta gizarte-ordena. Aipatu behar dugu, ordea, ikuspegi teorikoak sailkatzeko Alexander-ek proposatzen duen eskema horrek kritika gogorrek jaso dituela. Hans Joas-en ustez, egintza eta egituraren araberrako eskema planteatzen du baina ez du lan handirik hartzen eskema hori justifikatzen; izan ere, larregi murrizten da eskola bakoitzetik ematen den irudia soilik Parsons-en teoriatik zertan urruntzen diren kontsideratzen bada. Hutsuneak ere nabarmenak dira, Teoria Kritikoa alde batera uzteaz gain, Ipar Amerikan garatutako eskoletan geratzen da eta ez daude Foucault, Touraine, Bourdieu, Elias, Luckmann edo Giddens bezalako autoreak. Joas-ek aipatzen duen moduan, Alexander-ek 60. eta 70. hamarkadetan EEBBetan dauden ikuspegiak deskribapena egiten du, ez gehiago ezta gutxiago ere¹⁰⁵.

Mugak muga, hamarkada horietako mugimendu teorikoei egin diegun hurbilpena, baliagarria izan zaigu gizarte zientzietan nagusi den aniztasunari begira jartzeko.

¹⁰⁵ “Las antinomias del neofuncionalismo. Una discusión con Jeffrey Alexander” Joas, H. *El pragmatismo y la teoría de la sociedad*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madrid, 1998.

Izan ere, aniztasun hori, zenbaitetan, noraeza teorikoa bihurtu zen eta ikuspegi teori-koei dagokionez nagusitu zen oparotasun eta aberastasun horrek, ez zituen ekarri gizarte-zientzietako kontzeptu-sistema bateratua sortzeko baldintza aproposak. Askotan, giza egintza zein gizarte-ordenaren auzietan aldebakarreko ikuspegiak nagusitu ziren eta, afera ontologiko, epistemologiko eta politikoeekin nahasturik, debate teori-koak polarizazioaren joera hartu zuen.

Ikusi dugun bezala, giza egintzaren dimentsio sinbolikoa eta sortzailea sutsu defenditu zuten Elkarregintza Sinbolikoan, Fenomenologian eta Etnometodologian; dimentsio instrumentala eta utilitarista, ordea, Elkartruke Arrazionalaren teorian eta *Rational Choice* Teorian landu zuten. Bestaldetik, ordea, tradizio horiek guztiak bat datoz, gizabanakoen eguneroko elkarregintzaren kontingentzia eta aukera sortzaileak azpimarratuz, hots, gizarte-ordenaren eraketa eta aldaketaren irakurketa konstruktibista egitearekin; hainbatetan, arau, instituzio eta sistema kulturalen inguruneak ezartzen dituen mugak begibistik galduz.

Gizarte-ordenaren bestelako irakurketa egiten zuten, ordea, Funtzionalismoak eta Marxismo Estrukturalistak; instituzio sozialek eta gizarte-egiturek gizabanakoengan ezartzen dituzten mugak azpimarratuz, gizarte-ordenaren eraketa eta aldaketaren irakurketa mekanizista egiten baitute; gehienetan, giza egintzaren kontingentzia eta gaitasun sortzailea begibistik galduz. Frankfurt-eko eskolaren Teoria Kritikoak, bere aldetik, funtzionalismoaren kritika zorrotza egin zuen, bere positibismo eta zientifismoa salatuz. Gizarte modernoetan arrazionaltasun instrumentalak lortu duen nagusitasunarekin oso kezkatuak, giza egintza kontingente eta sortzaileak bizi zuten egoera alienatua salatzen zuten, gizarte-sistemak ezartzen zituen baldintzen determinismoa errekonozituz. Askotan, mugak aukerak baino gehiago azpimarratuz, ontologikoa ez zen edo giza egintzaren gaitasun sortzailea begibistik galtzen ez zuten gizarte-ordenaren determinismoa azpimarratu zuten.

Gauzak horrela, 80. hamarkadan zehar, pentsamendu sozialaren debate teorikoa beste epealdi batean sartu zen. Belaunaldi berri bateko teorikoek hasiera ematen diote polarizazioa gainditzeko ahalegin berri bati; giza egintza mikroa eta gizarte-egitura makroak barne hartuko duen kontzeptu-sistema orokor bat sortzeari ekingo diote: “Egia esan, osotasunen maila eta gizabanakoen maila uztartzeko arazoa, egintza eta egitura lotzeko arazoa edo mikro-makro banaketa gainditzeko arazoa bizitasun handiz berrartu zen 80.netan, teoria soziologikoaren zeregin nagusia bihurtzen da XX. gizaldiaren amaierarako”¹⁰⁶.

Ikusi dugun bezala, Egintza Arrazionalaren Teoria, Elkarregintza Sinbolikoa eta Etnometodologia tradizio mikroak dira, gizabanakoen egintza eta elkarregintzan zentratuak. Gatazkaren Teoriak, Marxismoa eta Funtzionalismoa, ordea, joera makroa duten tradizioak dira gizartearen egituretan eta instituzioetan zentratzen direlako; izan ere, 80. hamarkadan, zenbait ikuspegi teoriakoetan eman zen joera, beraien puntu ahulak berrikustea izan zen, baita beste ikuspegiak ekarpenen bidez osatu nahi izatea

¹⁰⁶ SZTOMPKA, P. *Society in Action*. Polity Press. Cambridge, 1991. (Orr. 4).

ere. Horrela, sintesi teorikoaren gogoia hedatuz joan zen eta gaur egun arte jarraipena izan duen bilaketa abiatu zen.

Giza egintza edo gizarte-egitura erreferente bakarra izango ez duen ikuspegiaren bilaketa zaharra bada ere, seguru asko inoiz ez dira bildu 80. hamarkadatik aurrera biltzen ari diren baliabideak eta esfortzuak sintesi hori sortu ahal izateko¹⁰⁷. Oztopak eta eragozpenak ere ez dira gutxi, ikuspegiaren arteko lehia lotuta baitago botere eta baliabideen banaketarekin; kontzeptu-sistema integratzailearen alde daudenak, zein ikuspegi anitz eta kontrajarriak egotea nahiago dutenak, beraien interesak baitituzte, askotan teorikoak soilik ez diren interesak.

Dena den, esan bezala, azkeneko hamarkadetan proposamen integratzaileak egitea oso ondo ikusita dagoen joera da. Aldebakarreko ikuspegiak, hortaz, garrantzia galdu dute debate teorikoan eta ikuspegi sintetikoak proposatzea, berriz, zeregin nagusia dute teorikoek. Hurrengo ataletan ikusiko dugunez, joera integratzaile eta laburbiltzaile hori aurkituko dugu, azkeneko urtetan egintzaren teorian nabarmendu diren autoreengan. Ondoko autore hauen proposamen teorikoak ikusiko ditugu “mugimendu teoriko” berri horren erakusle gisa: Jeffrey Alexander eta bere Azterketa Multidimentsionala, Anthony Giddens-en Estrukturaizazioaren Teoria, Pierre Bourdieu-ren Egintzaren Teoria, Hans Joas-en Giza Egintzaren Sormena, Alain Touraine-ren Subjektuaren Soziologia, eta Piotr Sztompka-ren Gizarte-bilakaeraren Teoria.

2. GIZA EGINTZA ETA GIZARTE-EGITURAK: PROPOSAMEN TEORIKO INTEGRATZAILEAK

2.1. Jeffrey Alexander eta Azterketa Multidimentsionala

Jeffrey Alexander, Paul Colomy-rekin batera, Neofuntzionalismoaren ordezkari nagusienetarikoa bat da; azkeneko hamabost urtetan esfortzu nabarmena egiten ari da, Funtzionalismoaren jarraipena eginez, teoria horren arazo nagusiak gainditzeko eta proposamen teoriko zabalagoa sortzeko.

Alexander-en ustez, neofuntzionalismoak lehenengo funtzionalismo estrukturalak baino ikuspegi aberatsago bat proposatzen du. Izan ere, kultura eta gizarte-egitu-

¹⁰⁷ ALEXANDER, J.C., GIESEN B., MÜNCH, R. ETA SMELSER, N.J. (Editoreak) *The micro-macro link*. University of California Press. London, England. 1987. (orr. 31). Hainbat Ikuspegietatik egin diren sintesi teorikoen berri izateko ikusi: “Toward a theoretical reorientation” SZTOMPKA, P. *Society in Action*. Polity Press. Cambridge, 1991. (Orr. 5-6). “From reduction to linkage” ALEXANDER, J.C., GIESEN B., MÜNCH, R. ETA SMELSER, N.J. (Editoreak) *The micro-macro link*. University of California Press. London, England. 1987. (Orr. 33). “Desarrollos recientes en teoría sociológica: integración y síntesis” *Teoría Sociológica Contemporánea*. RITZER, G. McGraw-Hill. Madrid 1993. Orr. 453-582. “La teoría sociológica en la actualidad” ALEXANDER, J.C. *Las teorías sociológicas desde la segunda guerra mundial*. Gedisa. Barcelona, 1997. Orr. 295-300. “La historia como producto humano: la teoría en evolución de la agencia” *Sociología del Cambio Social*. SZTOMPKA, P. Alianza. Madrid, 1995. (Orr. 217-227).

raz gain, egintza mikroaren jarraibideak kontsideratzen baititu gizarte-ordenaren faktore eragile gisa. Era berean, giza egintzaren ikuskera zabalago bat bultzatzen dute, aldi berean instrumentala eta interpretatiboa. Planteamendu hauek guztiak astiroago ikusi aurretik, esan beharra dago Alexander izan dela paradigma edo ikuspegi ezberdinen sintesiaren aldeko mugimendu teoriko nobedosoak sumatu duen autoretariko bat, baita teoria soziologikorako kontzeptu-sistema integratua eta multidimentsionalaren beharra aldarrikatu duena ere. Bere ustez, hainbat urtetan debate teorikoan nagusitu dena errealitate sozialaren produkzioari buruzko ikuspegi bateraezinen enfrentamendua izan da; azkeneko urtetan, ordea, teorikoak ari dira egintza eta egitura aztertzen errealitate sozialaren maila analitiko ezberdinak bezala. Izan ere, horixe da berak defendatzen duen planteamendua benetako eredu sintetikoa sortu ahal izateko: analisisian maila edo dimentsio diferenteak ezberdinduz, aukera teoriko guztiak —egintza eta ordenaren arabera lehenengo atalean ikusi ditugun bostak— hartuko dituen eredu sistematiko bat osatzea¹⁰⁸.

Lau liburukiak dituen obra batekin abiatzen du bere lana J.C. Alexander-ek, *Theoretical Logic in Sociology* (1982-83). Liburuki horietan luze eta zabal aztertzen ditu Marx, Durkheim, Weber eta Parsons-en pentsamendu soziala. Alexander-ren ustez, idealismo eta materialismo soziologikoaren arteko aurkakotasuna argiro azaltzen da bateraezinak diren Marx eta Durkheim-en pentsamenduetan. Alexander, Weber eta Parsons oinarri hartuta, ahaleginduko da aurkakotasun hori gainditzeko multidimentsionala eta sintetikoa izan nahi duen proposamen baten bidez. Bere ustez, Marx-en materialismoak ez du behar bezala jasotzen mundu sozialean dagoen dimentsio kulturala eta normatiboa; Durkheim-en idealismo soziologikoak, berriz, dimentsio normatiboaren funtsezko teoria eskaintzen du, baina ez du behar bezala integratzen egoeraren baldintza eta baliabideekin lotuta dauden errealitate sozialaren dimentsioak. Alexander-ren ustez, Weber-ek aurkakotasuna gainditzeko lehenengo ahalegin klasikoa egin zuen; normatibismoa eta utilitarismoaren arteko tentsioa etengabe azaltzen baita bere obraren hainbat momentutan eta, Alexander-arentzat, nabarmena da ere “ideiak” eta “interesak” modu sintetikoan integratzeko ahalegina. Azkenik, Parsons izan zen, bere ustez, eredu sintetikoa eta multidimentsionala sortzeko oinarriak ezarri zituen; dena den, lehen aipatu bezala, Parsons-en obrak giza egintzaren kontingentzia ahazteko eta integrazio normatiboa gehiegi azpimarratzeko joera hartu zuen.

J.C. Alexander-ek klasikoen azterketa luzea eta ondo dokumentatua egin du, lan horren berri zehatzagoa eman ordez nahiago dugu, ordea, Alexander-ek giza egintzaz eta gizarte egituraren eraketaz ondorioztatu dituen proposamen analitikoak aztertzea. Azterketa horrekin hasi aurretik aipatu behar ditugu Alexander-ek eginiko klasikoen berraztertze horrek jaso dituen kritikak. Hans Joas-ek hiru kritika nagusi azpimarratu ditu: lehenengo eta behin, Joas-en ustez, “materialismo” eta “idealismo” kontzeptuen erabilpena ez da egokia Alexander-ren planteamenduan. Izan ere, dimentsio sinboli-

¹⁰⁸ “From reduction to linkage” ALEXANDER, J.C., GIESEN, B. *The micro-macro link* liburuan. Editoreak: Alexander, J.C., Giesen, B., Münch, R. eta Smelser, N.J. University of California Press. London, England. 1987. (Orr. 37).

koak eta normatiboak jasotzen ez dituzten ikuspegiak (utilitarismoa, darwinismoa, konduktismoa, hedonismoa...), errealtatearen dimentsio normatiboen azterketara murrizten diren ikuspegirekin kontrajartzen ditu; aurkakotasun hori, ordea, materialismo eta idealismoaren artekoa baino, utilitarismo eta normatibismoaren artekoa da. Joas-en ustez, soziologo klasikoen hizpideak eta arazo filosofikoak behar bezala konprenitzeko, bigarren eztabaidagai horretan kokatu behar dira¹⁰⁹. Utilitarismoak giza egintza azaltzeko dituen hutsuneak eta gabeziak, klasikoen kezka nagusi gisa ikusten badugu bestelako eztabaidagaia azaltzen zaigu, egokiagoa eta emankorragoa den eztabaidagaia, Joas-en aburuz. Bigarren kritika bat lotuta dago giza egintza eta gizarte-ordenaren arazoak edozein teoria soziologikoren arazo nagusi gisa kontsideratzearekin. Joas-en ustez, Alexander-ek ez du sendotasunez oinarritzen egintza eta ordenaren arazo nagusitasun hori, ezta ere arazo bakoitzean egiten duen aurkakotasuna (Joas-en hitzetan: giza egintza instrumentala *versus* giza egintza espresiboa-normatiboa; ordena inbibidualista-sortua *versus* kolektibista-*sui generis*). Lehen ikusi dugun bezala, Joas-ek zalantzan jartzen du ezberdintze horien arabera egindako eskema, bere ustez eskema artifiziala da, ez baitator bat soziologiaren tradizio klasikoen kezkekin. Joas-ek onartzen du, ordea, lan honen hasieratik aipatu dugun eta Alexander-ek berak erabiltzen duen argudioa bere eskema justifikatzeko: gizabanakoaren askatasuna eta gizartearen ordena integratzea, gizarte modernoaren pentsalarien kezka nagusia da eta mendebaldeko kulturaren aro modernoan agertzen den arazo tipikoa¹¹⁰. Azkenik, zenbait autorek azpimarratu duten hirugarren kritika lotuta dago Alexander-ren planteamenduan dagoen hutsune batekin; nahiz eta giza egintzaren teoriari garrantzi handia eman, ez du jasotzen egintzaren egoera problematikoetan sortzen den ezagutza: “Alexander-ek, ez du ulertzen pentsamendu teoriko-soziala, aktoreen auto-gogoeta praktikorearen emaitza gisa, eta horrexegatik, ez du asmatu egintzaren zentralitatea justifikatzeko modu berria aurkitzen”¹¹¹. Horrela, klasikoen azterketan egin duen lanaren kalitatea ukatu barik, Joas-en ustez, Alexander-ek ez dio ezer berri ekarri giza egintzaren teoria soziologikoari.

Ikus ditzagun, bada, kritika horien funtsa norainokoa den neurtzeko, Alexander-ek egin dituen proposamen teorikoak. Klasikoen azterketa sakona egin ostean eta 60. hamarkadatik aurrera garatzen diren ikuspegiak egintza-ordena eskemaren arabera aztertu ostean, Alexander-ek egintza eta egituraren arteko lotura sortu nahian, eta ikuspegi teoriko sistematiko eta sintetiko batean uztartzeko asmoz, ondorengo hiru zutabetan oinarritua dagoen estrategia teorikoa abiatuko du: 1) Errealtate enpirikoak dituen dimentsioak modu analitikoan kontsideratzea, ikuspegi teoriko ezberdinak uztartu ahal izateko 2) Giza egintzaren ikuskera multidimentsionala 3) Gizarte-ordenaren ikuskera kolektiboa¹¹².

¹⁰⁹ “Las antinomias del funcionalismo, una discusión con Jeffrey Alexander” JOAS, H. *El pragmatismo y la teoría de la sociedad*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madril, 1998. Orr. 222-23.

¹¹⁰ Hori onartzeak, ordea, bestelako zailtasun teorikoak sortarazten ditu, Joas-en ustez; planteamenduen erlatibizazio kulturala egiten badugu ezin baitugu defendatu arazoaren zentraltasun teoriko unibertsala. *Ibidem* (orr. 224).

¹¹¹ *Ibidem* (orr. 227).

¹¹² *Ibidem* (orr. 37).

Actions and Its Enviroments (1988) liburuan hiru abiapuntu horiek garatuko ditu. Alexander-en hitzetan, berak sortu nahi duen sintesia neurri batean eginda dago; izan ere, azkeneko hamarkadetan garatu diren ikuspegi teoriko bakoitzak errealitate sozialaren alderdi zehatz bati erreparatzen dio, eta horrexegatik, analisi enpirikoan kontuan hartu beharreko alderdi ezberdinak adierazten dizkigute. Alexander-entzat, beraz, ikuspegi teorikoak bateraezinak izan beharrean elkarren osagarriak dira. Jarraian ikusiko dugunez, bateratasun hori lortzeko, Alexander-ren estrategia egintzaren eta egituraren ikuspegi teorikoak Parsons-en eredu teorikoan integratzea izango da. Bere ustez, Parsons-en eskema teorikoa zalantzan jarri zutenak ekarpen interesgarriak egin zituzten, baina erreduktionismo larregi egin zuten; hau da, Parsons-en eredu bere atal ezberdinetan desegin zuten eta, atal bakoitza sakondu bazuten ere, osotasun multidimentsionalaren erreferentzia galdu zuten. Horrexegatik, Parsons-en erabateko zentralitatea galdu barik, Alexander-ek, azkeneko hamarkadetan garatu diren ikuspegiak eta beren interesgune nagusiak (gatazka, egintza instrumentala, egintza interpretatiboa, muga materialak, kontingentzia...) errealitatearen dimentsio ezberdinak balira interpretatuko ditu. Behin hori eginda, bere ustez, errealitatearen osotasuna begibistatik galtzeko arriskua saihesten da eta,aldi berean, eusten zaio aspektu bakoitzak behar duen analisiari edo ezberdintasun analitikoari.

Horrela, giza egintzaren ikuskera sintetikoa proposatu asmoz, Alexander-ek gizabanakoaren egintza eta elkarregintza sakonki aztertu duten korronteak hartuko ditu (Elkarregintza Sinbolikoa, Fenomenologia/Etnometodologia eta Elkartrukearen Teoria/Rational Choice) eta bakoitzean azpimarratzen den aspektua egintza-unitate zabalago baten dimentsio analitiko gisa kontsideratuko du. Ikus dezagun astiroago birmoldaketa interpretatibo hori.

Arestian aipatu dugun bezala, Parsons-ek ondorengo elementuak ikusten zituen egintzaren eszenan: esfortzua, baliabideak, helmugak, arauak eta baldintzak. Giza egintzak, beraz, bi ingurune orientatzaile ditu; arauak (elementu idealak) eta baldintzak (elementu materialak). Baliabideak eta helmugak, ordea, giza egintzaren produktuak dira, eta esfortzua da egintza bultzatzen duena¹¹³.

Horrela, arau eta baldintza zehatzak dituen ingurune batean, gizabanakoaren esfortzuak moldatzen ditu helmugak eta baliabideak. Esfortzua, beraz, gainerako elementuen konbinaketa gidatzen duen elementua da, egintzaren elementu kontingentea. Alexander-en aburuz, Parsons-ek, arau eta baldintzetan zentratu zuen bere lan teorikoa, hots, elementu makrosoziologikoetan; giza egintzaz esfortzu gisa, ordea, ezer gutxi esan zuen, aztertu gabe utzi zuen erdigunean dagoen gizabanakoaren esfortzua.

Alexander-entzat, esfortzua da, hain zuzen ere, gizabanakoaren egintza eta elkarregintza mikroan zentratu diren eskolen aztergai nagusia; hau da, Elkarregintza Sinbolikoa, Fenomenologia/Etnometodologia eta Elkartrukearen Teoria/Rational Choice-

¹¹³ "Action and its enviroments" ALEXANDER, J. *The micro-macro link* liburuan. Editoreak: Alexander, J.C., Giesen, B., Münch, R. eta Smelser, N.J. University of California Press. London, England. 1987. (Orr. 296).

en aztergai nagusia. Are gehiago, ikuspegi bakoitzak esfortzua dimentsio analitiko bat azaltzen du eta, horrela, helmuga eta baliabideak ulertzeko ezinbestekoak diren elementuak agertzen zaizkigu. Azkenik, arau eta baldintzen azalpen mikroa egiten dutela ere esan daiteke:

Elkartruke Arrazionalaren Teoriak emankortasun instrumentalaren arabera azaltzen du giza egintza, horrela, ondorengo aspektu zehatzaren berri ematen digu: emanda dauden baldintza, arau eta baliabideekin; esfortzuak, berehalako kostuaren kalkulua eginez, baliabide emankorrak produzitzen ditu. Fenomenologia eta Etnometodologiak egintza azaltzen dute ordena bilatzen duen aktibitate gisa; horrela, adierazten dute nola aktoreek —emanda dauden baldintza, arau eta baliabideekin baina, aldi berean, zabalik eta kontingenteak diren egoeretan— prozesu kognitiboak abiatzen dituzten helmugak ezartzeko; hain zuzen ere, arau sozialekin konsistenteak (baina ez soilik eratorriak) diren helmugak ezartzeko. Elkarregintza Sinbolikoak ez ditu kontsideratzen ez baliabideak ezta helmugak ere, baina gizabanakoen interpretazioaren erabateko kontingentzian zentratzen da; izan ere, esangura sinbolikoen produkzioa modu pragmatikoan ikusten du, hau da, egoeraren arabera beste aktoreen asmoei eta jokaerei emandako erantzun gisa. Honek argiago demostratzen du esfortzua harremanetan dagoela baliabide eta helmugekin¹¹⁴.

Ariketa hermeneutiko horren bidez, Alexander-ek uste du gizarte-egitura eta instituzioen azterketarako aplikagarriak diren ondorioak ere atera daitezkeela. Izan ere, berak, harremanetan jartzen ditu ikuspegi teoriko bakoitzak lantzen dituen elementuak, egitura kolektiboaren dimentsioekin. Ondorioz, gizarte-egiturak egintza kontingentearen emaitza gisa agerrarazten ditu, hori bai, horretara soilik erreduzitu barik.

Esan bezala, gizarte-egiturei begira ere Alexander-ek tradizio intelektual bakoitza interpretatuko du, bere asmo sintetikoaren barne hartu ahal izateko. Horrela, gure autoren planteamenduan, Elkartruke Arrazionalaren Teoriak argitzen du egintzaren baldintza materialak ez direla finkoak zentzu ontologikoan, ez daudela “kanpoan” gizabanako egintzatik at. Izan ere, gizarte-egituraren ikuspegi funtzionalistatik, egoeraren baldintzak aldaezinak diren elementu materialak bezala definitzen ohi dira, baina aldaezinak agertzen diren elementu horiek giza izaera duen prozesu kontingente baten azkeneko emaitza dira, eta ondorioz, aktoreek aldatu ditzakete. Horretarako, ordea, bere egoeraren baldintzak aldatzeko, aktoreak mugatuta daude; ezagutza, denbora eta indarra ez baitira mugagabeak:

Kontua ez da langile batek ezin duela aldatu bere klase soziala; egintzaren izaera kontingenteak esan nahi du berak baduela hori egiteko askatasuna. Arazoa da bere lan-egoera aldatzeak eskatzen duen denbora eta indarra gehiegi dela eta horrek asko murrizten dituela aldatzeko aukerak. Zentzu horretan, langilearen ingurugiro ekonomikoa baldintza objektiboa bihurtzen da¹¹⁵.

Fenomenologia eta Etnometodologiaren inguruan, Alexander-ek beste irakurketa bat egingo du. Hain zuzen ere, Husserl-ek aipatzen zituen giza kontzientziaren ezau-

¹¹⁴ *Ibidem* (orr. 297).

¹¹⁵ *Ibidem* (orr. 298).

gari “transzendentalek” argitzen digute jokabide kulturalen inertzia eta jarraipenaren mekanismo mikroak. Izan ere, analitikoki, kultura gizabanakoaren burutik kanpo existitzen dela kontsidera daiteke, baina gizabanakoen gaineko maila horrek giza kontzientziak dituen ezaugarrietan oinarritzen da; batez ere, gizabanakoen kontzientziak edozein inpresioa aurreko eskarmentuen arabera kokatzeko daukan gaitasunean. Kokatze hori, ordea, batzutan ez da posible; haustura eman baitaiteke aurreko esperientziak eta egoera berrien artean, orduan sistema kulturalaren gaitasun orientatzaile eta ordenatzailea murriztu egiten da.

Giza egintzaren inguruko ikuspegi mikroen irakurketa hermeneutiko hauekin amaitzeko, Alexander-ek Elkarregintza Sinbolikoa aipatzen du. Bere ustez, ikuspegi horrek ondorengoa erakutsi du: aktore baten jokaera bati besteek ematen dizkioten erantzunak, aktore berak bere ekintzari ematen dion esangura alda dezake. Ondorioz, kultura eta baldintza “objektiboen” eragina, ez da jokoan dagoen elementu bakarra gizartearen eraketa-prozesuetan, giza sormenak ere badu bere eragina.

Oso labur ikusi baditugu ere, teoria ezberdinen irakurketa hauen bidez, Alexander-ek, Parsons-en egintza-unitatea abiapuntu hartuta eta egintzaren ikuspegi instrumentala eta ikuspegi interpretatiboa erabiliaz, bere “mikro-makro loturaren berrirakurketa hermeneutikoa” erakutsi digu; baita egintzaren alderdi instrumentala alderdi interpretatiboarekin uztartzeak, kultura eta gizarte-egituraren azterketan ekarri ditzakeen argibideak ere. Jarraian ikusiko dugunez, planteamendu horretatik abiatuta, Alexander-ek bere proposamen teoriko eta analitikoak egingo dizkigu giza egintzaren eta gizarte-egituren kontzeptualizazioa eta azterketa enpirikoa burutzeko.

Giza egintzaren ikuskera multidimentsionala

Alexander-en proposamen sortzaileago bat, giza egintzaren azterketa enpirikorako eredua dugu; aurreko planteamendu sintetiko horretatik eratortzen den eredua, hain zuzen ere. Alexander-ek kontsideratzen du giza egintzak bi dimentsio nagusi dituela: Interpretazioa eta Estrategizazioa. Berarentzat, beraz, giza egintza esangura sinbolikoen arabera interpretazioan datza, baina baita jokabide estrategiko eta utilitarioan ere. Bi dimentsio horiek ez dira bi egintza mota diferente edo egintza bateko bi momentu diferente, baizik eta egintza orok aldi berean dituen bi dimentsio analitikoak: “Egintza oro interpretazioa eta estrategizazioa da”¹¹⁶.

Has gaitezen interpretazioarekin, giza egintzaren lehenengo dimentsioarekin: Interpretazioak egintzaren dimentsio gisa dituen nondik norakoak ulertzeko bi prozesu ezberdinetan gelditu behar gara, interpretazioaren bi prozesuetan, hain zuzen: tipifikazioa eta asmaketa. Tipifikazioaren prozesua azaltzeko Alexander-ek fenomenologiaren aipu ezaguna erabiltzen du, hain zuzen ere, aktoreek ziurtzat jotzen dutela euren mundu-ikuskerak; ez da mundua ulertzeko modu bat beste batzuen artean baizik eta bakarra, begibistakoa, ebidentea. Hori horrela da gertaera berriak, ha-

¹¹⁶ *Ibidem* (orr. 300).

rrigarriak direnak ere, garatu ditugun eskemen barne kokatzen ditugulako, tipifikatzen ditugu. Bestela esanda, egoerak eta gertaerak dauzkagun erreferentzien arabera ulertzen eta definitzen ditugu; etengabe erabiltzen baitugu kulturalki barneratu dugun sailkapen-sistema. Gizarteratzea da, hain zuzen ere, geure inguruneak eskaintzen digun erreferentziekin tipifikatzen ikastea: kolektibitate guztietako partaideek ikasten dute eguneroko gauzak eta egoerak izendatzen, azaltzen eta gertaera bat deskribatzeko erabili behar dituen terminoak erabiltzen. Azken finean, ingurune batean gizarteratzea da errealitatearen ikuskera hori begibistakotzat hartzea. Era berean, tipifikazioaren beste ezaugarri nagusi bat bere elkarregintzazko izaera da; izan ere, tipifikazioa ez da gizabanakoen kontzientzian dagoen gaitasun bat, baizik eta beste gizabanakoekin daukagun hartu-emanetan garatzen den prozesua. Pertsonen arteko komunikazioa prozesu hermeneutiko konplexua da, esperientziak eta gertaerak tipifikatzeko hari-mutur asko dituen prozesua. Izan ere, maila ezberdinetako keinuen bidez, komunikazio horretan aplikatzen ari garen tipifikazioa besteek ere aplikatzea bilatzen dugu, begi-aurrean daukagun errealitatea ez baita beti bera, ez da aurrekoetan aurkitu dugunaren errepikapen hutsa: “Zerbait berria dagoelako beti, eta errealitatearen jarioak gauza berriak eskema zaharrekin jartzen dituelako harremanetan, errealitatearen kontzeptualizazio bakoitzean beti dago zerbait diferente, zerbait asmatua”¹¹⁷.

Tipifikatzea, beraz, ez da erreproduzio hutsean geratzen den prozesua, prozesu sortzailea da; aktoreek gauzak ulertzeko modu berriak sortzen dituzte, aldagetak eragiten dituzte sailkapen-sistemetan. Horretan datza, hain zuzen ere, asmaketa, Interpretazioaren bigarren prozesua. Alexander-ek onartzen du interpretazioa errealitatearen konplexutasuna sinplifikatzeko bide bat dela, baina tipifikazioa eta asmaketaren prozesuei erreparatuz gero, Interpretazioak gizakien partaidetza aktiboa eskatzen duen fenomeno dela konturatuko gara.

Esan bezala, Interpretazioarekin batera, giza egintzaren bigarren dimentsio bat dugu Alexander-ren eskeman: Estrategiazioa. Egintza ez da soilik errealitatea modu batera edo bestera ulertzea, baizik eta errealitate horretan aritzea; aktorea ahalegintzen da bere asmoak egintza praktikoa gauzatzen eta, horretarako, beste aktoreekin batera aritu behar da, baita beste aktoreen kontra ere. Horrek denbora, energia eta ezagutza eskatzen du eta, arestian aipatu bezala, elementu horiek ez dira mugagabeak; ahalegin batean gastatzen duguna ez dugu beste ahalegin batean erabiltzen. Horrengatik, Alexander-ren arabera, geure asmoak eta helburuak lortzeko, biderik laburrena eta eraginkorrena bilatzen dugu.

Kalkulu estrategikoak egiten ditugu, beraz, denbora aldetik ahalik eta kostu gutxien izateko eta, indarra aldetik, ahalik eta energia gutxien erretzeko. Geure ingurunea ezagutzea ere garrantzitsua izango da egintzaren ondorioak aurreikusi ahal izateko. Baina, etorkizuna aurreikusteko daukagun gaitasuna urria denez, kalkulu estrategikoan, interpretazio subjektiboarekin lotuta dauden elementuak ere agertuko zaizkigu; hain zuzen ere, konfiantzarekin eta aurreikuspenekin lotuta daudenak.

¹¹⁷ *Ibidem* (orr. 301).

Hortaz, lehen deskribatu ditugun Interpretazioaren barneko prozesuak (tipifikazioa eta asmaketa) ez dira bakarrik kalkulu estrategikoaren lehenagoko prozesuak, esan genezake interes estrategikoen kalkuluen erdian daudela. Beste era batera esanda, egiten den tipifikazioa eta asmaketa, kalkulu estrategikoaren barne burutzen diren prozesuak izan daitezke, prozesu estrategikoak beraiek ere. Alexander-ren ustez, beraz, bi dimentsioak elkarri lotuta daude, Interpretazioa zein Estrategizazioa dimentsio osagarriak dira giza egintzaren azterketan.

Egintza enpirikoa aztertzeko proposatzen duen eredu horrekin, Alexander-ek uste du Parsons-ek ireki gabe utzi zuen “kutxa beltza” irekitzen dela; lehen ikusi dugun egintzaren ikuspegi mikroen irakurketa sintetikotik zein orain laburbildu dugun egintzaren dimentsio ezberdinen eredutik, Alexander-ek ondorioztatzen du egintzaren kontingentziaren berri ematean, ingurugiro ez-kontingentearen berri ematen dugula. Autorearentzat, kontingentzia ulertzea kontingentzia hori mugatuta dagoela ulertzea da, eta egintzaren dimentsioak ulertzea ingurune mugatzailearen barnean jazotzen den transformazioa ulertzea da: “Egintza ondo kontzeptualizatu badut, ingurune soziala bere emaitza gisa ikusiko da; ingurunea ondo kontzeptualizatu badut, egintza bere emaitza gisa ikusiko da”¹¹⁸.

Gizarte-ordenaren ikuskera kolektiboa

Giza egintza eta gizarte-ordenaren inguruko auzian Alexander-ek egin duen ekarpenarekin jarraituz, bere azken proposamena gizarte-ordenaren eredu mikroenpiriko bat izango da. Horretarako, giza egintzak dituen hiru ingururen berri eman du; Parsons-en planteamendua jarraituz, gizarte-sistema, sistema kulturala eta pertsonalitatea izango dira giza egintzaren ingurune baldintzaile nagusi horiek. Alexander-arentzat, hiru ingurune edo sistema hauek, ez dute ordezkatzeko egintzaren kontingentzia; euren azterketak ez gaitu eraman behar giza egintzaren dimentsio analitikoak hiru horiek direla pentsatzera, Parsons-i gertatu zitzaien hori, hain zuzen ere: gizarte-ordenaren sistemen kontzeptualizazioarekin giza egintzaren kontzeptualizazioa ordezkatu zuen. Hortaz, gizarte-sistema, sistema kulturala eta pertsonalitatea egintza kontingentearen ingurune ordenatuak dira: “Bakarrik egintzaren kontingentzia modu esplizituan kontzeptualizatzen badugu jakingo dugu gizarte-ordenaren sistemak benetako ingurune baldintzaile bezala aurkezten”¹¹⁹.

Gizarte-sistema izango da aztertuko dugun lehenengo ingurune baldintzailea. Izan ere, gizarte-sistemak, lan-banaketa, autoritate-banaketa eta talde-elkartasuna bezalako elementuen bidez, giza egintzaren ingurune baldintzaile zehatza osatzen du. Gizabanakoen interpretazioa eta estrategizazioa, lan eta autoritate banaketak ezartzen

¹¹⁸ “Action and its environments” ALEXANDER, J. *The micro-macro link* liburuan. Editoreak: Alexander, J.C., Giesen, B., Münch, R. eta Smelser, N.J. University of California Press. London, England. 1987. (Orr. 303).

¹¹⁹ *Ibidem* (orr. 304).

dituen mugeen barne gertatzen dira, Alexander-ek adibide baten bidez garatzen du ideia hau: “Ospitale batean, irakaskuntza unibertsitarioko mediku-erresidenteek, euren txandaketa tipifikatu, estrategizatu eta asmatu behar dute zuzendaritza-taldeko medikuek ezarritako autoritate eta botere mugeen barne”¹²⁰. Beste aldetik, eguneroko elkarregintza, talde ezberdinen barne jazotzen da, talde bakoitzean geure nortasunaren alderdi batzuk erakusten ditugu. Horrela, taldearen arabera eta taldean dagoen jende kopuruaren arabera ere, modu ezberdinez interpretatzen eta estrategizatzen dugu. Goffman-ek eginiko azterketen arabera, talde bakoitzean dagoen kidetasuna definitzeko moduak eragin handia dauka estrategizazioaren prozesuan. Guzti horri gehitzen badiogu rolek ezartzen dituzten orientabideek nolako garrantzia daukaten lan eta boterearen egituraren norberaren tokia determinatzen, oraindik nabarmenagoa egingo zaigu gizarte-sistemak giza egintzan daukan eragina.

Sistema kulturala da Alexander-ek aurkezten digun bigarren ingurune baldintzaillea. Hedapen zabala daukaten sinbolo eta ikurrek, geure bizitza pertsonala, bizitza soziala eta testuinguru naturala ulertzeko behar ditugun kategoriak ematen dizkigute (errealitatearen kategorizazioa). Sinbolo horiek sistema bat osatzen dute, barne antolaketa independentea eta funtzionatzeko dinamika propioak dituen sistema sinbolikoa; funtzionatzeko dinamika horiek, hain zuzen, bultzatzen dute eta mugatzen dute errealitatearen interpretazioa eta estrategizazioa.

Era berean, sistema sinboliko-kulturalak beti daude funtsezkoak diren bi prozesutan: errealitatea eraikitzen eta ebaluatzen. Errealitatea eraikitzeak esan nahi du objektuak izendatzea, beste objektuekin erlazionatzea eta analogiak sortzea osotasun esanguratsu bat eduki ahal izateko. Alexander-ren arabera prozesu horiek egituratzen dute tipifikazioa zein asmaketa eta, zeharka bada ere, estrategizazioa.

Sistema kulturalaren funtzio ebaluatzaileari dagokionez, kolektibitate baten mundu sinbolikoak badauka erdigune bat, eta interpretazioa zein estrategizazioa erdigune sakratu horren arabera ebaluatzen dira. Alexander-ren ustez, tipifikatzea da, zentzu batean, norberak erdigune sakratuarekin daukan erlazioa erreproduzitzea; asmaketa, ordea, erdigunearekin erlazio berri bat aurkitzeko modua da, edo erdigune sakratuaren irakurketa berri bat egitea. Horrela, kultura baten sinbolo zentralak, mitifikaturik hedatzen diren narrazioen bidez, bizitzeko eredu konbentzigarriak bihurtzen dira: “Sistema sinbolikoak sailkapen kognitibo hutsak baino gehiago dira: on eta gaitzaren mapa moralak eta emozionalak dira”¹²¹.

Sistema kulturalen beste elementu garrantzitsu bat balioak izango dira. Izan ere, balioak, gizarte-sistema eta mundu sinbolikoen topaketaren ondorioz produzitzen dira. Balioak oinarriko erreferentziak dira eta beraien gainean eraikitzen dira gizarte baten prozesu ekonomikoak, politikoak eta integrazio-prozesuak.

Orain arte sistema sinboliko-kulturalaz aipatu dugunarekin, Alexander-rek ondorioztatzen du hiru direla sistema kulturalaren prozesurik estatikoenak: hasieran ikusi

¹²⁰ *Ibidem* (orr. 304).

¹²¹ *Ibidem* (orr. 308).

dugun kategorizazioa, bigarrenaz aipatu dugun sakralizazioa eta, hirugarrenez, balorazioa. Badaude, horietaz gain, izaera dinamikoagoa duten prozesu kulturalik: gizarte batean dauden gatazkak, sistemaren egonkortasuna eta oreka arriskuan jartzen dutenean, erdigune sakratuari eginiko mehatxuak bezala irakurtzen dira; tabu kontsideratzen diren balioak mehatxatuak edo kutsatuak izan dira eta garbiketa behar da. Askotan, garbiketa hori eskusioaren bidez gauzatzen da; gizartearen erdigune sinbolikoa mehatxatzen dutenak marjinatuak dira, gizarte-egituratik kanporatuak eta, horrela, sinplifikazioa eta estigmatizazioaren bidez, izaera errituala duen garbiketa-prozesua gauzatzen da: “Kutsadura eta purifikazioa bizitza sozialaren osagai endemikoak dira; eta kutsaduraren mehatxua oso handia bada, purifikazioaren prozesuak adierazpen errituala izango du”¹²².

Gizarte-sistema eta sistema kulturala ikusi eta gero, hirugarren sistema bat falta zaigu, Alexander-ek egiten duen ordenaren azterketa mikroa oso-osorik ikusteko. Izan ere, kultura eta gizarte-sistema arauturik dituen jokatzeko, pentsatzeko eta sentitzeko moduez gain, aktoreek berezko nortasun pertsonala daukate. Eta nortasun pertsonalak dira, Alexander-entzat, bizitza sozialetik barneraturiko objektuen bilduma bat; horrexegatik, bakoitzak gaitasun ezberdina dauka tipifikatzeko, asmatzeko eta estrategizatzeko. Azken batean, hiru horiek nortasun pertsonalaren gaitasunak dira; baina, aldi berean, testuinguru zehatz batean garatzen diren gaitasunak eta historikoki aldatzen diren gaitasunak dira.

Izan ere, norberaren Egoak defentsak sortzen ditu bere garapen pertsonalean bizi izan dituen benetako edo asmatutako mehatxu, frustrazioei eta antsietatei erantzuna emateko. Ukatzea, neutralizatzea edo proiektatzea, kognizioaren okertzeak dira, baina errealitatea interpretatzeko eta estrategizatzeko erabiltzen den markoaren barnean daude. Alabaina, maila psikologiko edo afektibo horretan ere, joera historikoak daude; haurtzarora eta berari dagokion garapen psikologikoa ez da beti baldintza historiko berdinetan gertatzen eta, Alexander-en ustez, momentu historiko zehatz batean kolektiboki barneratzen diren behar emozionalek egintzaren beste ingurune baldintzaile bat osatzen dute.

Honenbestez, laburbilduta bada ere, egintza-egitura auziari Alexander-ek egiten dion ekarpena ikusi dugu. Autore estatubatuarrak, eguneroko giza egintza aztertu duten ikuspegiak landu ostean (Elkarregintza Sinbolikoa, Fenomenologia/Etnometodologia eta Elkartruke/Rational Choice), egintza eta ordenaren eredu mikroenpirikoak aurkeztu dizkigu; bere helburua, eskola bakoitzak azpimarratzen duen dimentsioa kontzeptu-sistema batean integratzea izan da. Alexander-en ustez, ikuspegi ezberdinen artean egon den banaketa eta integrazio falta, eskola bakoitzak egintzaren dimentsio bat —tipifikazioa, asmaketa edo estrategizazioa— egintza bera bailitzan hartu duelako gertatu da, eta horrexegatik, hurrenez hurren, giza egintzaren izaera erreproduzitzaila, sortzaila edo instrumentala azpimarratzen zuten.

¹²² *Ibidem* (orr. 309).

Beste aldetik, erredukzioa egin da ere egintzaren inguruneak aztertzeko orduan; gizartearen sistema bat —ekonomia, kultura edo nortasun pertsonala— egintzaren ingurune bakarra bailitzan hartuz, ekonomiari begira zeundenak egintzaren izaera estrategikoa ikusten dute, kulturaren teorikoak tipifikazioa azpimarratzen dute eta gizarte-mugimenduen teorikoak asmaketa goraiatu dute.

Alexander-en ustez, zilegi da egintza edo ordenaren osagai bakoitzak, diziplina edo eskola baten aztergai nagusia izatea; onargarria ez dena, ordea, dimentsio bat osotasuna bailitzan hartuta, gainerako dimentsioak ukatzea da. Alexander-ren aburuz, maila eta dimentsio ezberdinak onartu behar dira eta euren arteko lotura-puntuak aztertu; eta horretarako gizarte-zientziek eskema kontzeptual bateratua behar dute.

J.C. Alexander-ren planteamendu eta proposamen guzti horiek kritikak eta laudorioak jaso dituzte. Kritikei dagokienez, lehen ikusi bezala, Hans Joas izan da bere kritikari zorrotzenetariko bat. Teorilari alemaniarren ustez, Alexander-ren gogoetan ez da agertzen soziologo klasikoek eta Talcott Parsons-ek berak ekonomiaren ikuspegi utilitaristarekin zeukaten eztabaida; horren ondorioz, Alexander, aurre-aurre dauden planteamendu utilitarista eta interpretatibo-sinbolikoa sakonean berraztertu beharrean, azalean geratzen da biak batera kontsideratu behar direla esanez. Joas-en ustez, trikimailu horrekin, Alexander-rek ez du egiten giza egintzaren teoriarentzat baliagarria izango den eskema kontzeptuala¹²³. Beste aldetik, Alexander-rek, behin eta berriz errepikatzen du bere abstrakzio teorikoak maila analitiko-enpirikoa daukatela, Joas-en ustez izaera analitiko hori justifikatu beharra dago arrazoi pragmatikoetan (diziplinaren espezializazioan, adibidez); arrazoi ontologikoetan (gizakiaren edo gizaki modernoaren izaeran, adibidez); edo arrazoi metodologikoetan (historian zehar nagusi izan diren egintzaren tipo ideal gisa, adibidez). Baina Alexander-ren obran ez dago inongo arrazoirik abstrakzio kontzeptualak oinarritzeko eta, Joas-en ustez, izaera analitikoaren aipamena justifikatu barik geratzen bada, kritiken aurrean egin beharreko defentsa gisa erabiltzen ari da¹²⁴.

Nabaria da, beraz, Hans Joas, beste erreferentziak eta planteamendu teorikoak garatu beharra ikusten duela giza egintzaren auziari irtenbidea emateko; azter ditzagun, beraz, beste autore batzuk, funtzionalistak ez diren iturrietatik edanez, egin dituzten bestelako proposamenak.

2.2. Anthony Giddens eta Estrukturazioaren Teoria

Egintza-egitura auziari dagokionean, azkeneko hogei urtetan egin den ekarpen nagusienetariko bat Anthony Giddens-ek egin du; auzi horrek teoria sozialean daukan zentralitatea kontutan hartzen badugu, ez da harritzekoa autore ingelesa honek bere-

¹²³ “Las antinomias del funcionalismo, una discusión con Jeffrey Alexander” JOAS, H. *El pragmatismo y la teoría de la sociedad*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madril, 1998. Orr. 225-26.

¹²⁴ *Ibidem* (orr. 225).

ganatu duen garrantzia egungo teoria soziologikoan. Izan ere, zenbaitentzat, Giddens soziologia modernoaren klasiko bat da¹²⁵.

Giddens-en lanak helburu zehatza du: 70. hamarkadatik aurrera pentsamendu sozialean dagoen noraeza teorikoa eta ikuspegi ezberdinen arteko sakabanaketa gainditzea. Arestian ikusi dugun moduan, II. munduko gerraren osteko “adostasun teoriko ortodoxoa” —Parsons-en funtzionalismo positibistaren inguruan edota Marx-en materialismo historikoaren inguruan—, nabarmenki ahuldu zen 60. hamarkadatik aurrera, ikuspegi berrien garapenarekin. Hain zuzen ere, hirurogei eta hirurogeita hamargarren hamarkadetan garatzen diren ikuspegi teorikoak izan ziren Giddens-en erreferentzia nagusia, 1984an *Gizartearen Eraketa. Estrukturazioaren Teoriaren sos-laila* liburuan, bere proposamen teorikoa aurkeztu zuenean.

Giddens-en ustez, funtzionalismoak eta marxismo estrukturalistak, hainbat gautzetan ezadostasun nabarmenak erakusten bazituzten ere, bat zetozen oinarritzko aurreste batzuetan. Besteak beste, natura-zientzien eskema logikoaren erreferentzia (naturalismoa eta instrumentalismo zientifikoa), garapen historikoaren ikuspegi eboluzionista (eboluzionismoa), objektuaren edo osotasun sozialaren lehentasuna eta subjektu intentzionalaren edo osotasun sozialen partaideen gutxiespena (objektibismoa) eta, azkenik, gizarte-sistemak ezartzen duen derrigorrezkotasuna azpimarratzea eta giza egintza subjektuen esku ez dauden indarren menpe aurkeztea (determinismoa). Teoria sozialaren izaerari dagozkien adostasun horiek, ordea, ez ziren ziruditen bezain sendoak; 60. hamarkadan, mendebaldeko gizartearen krisialdia eta mugimendu sozialen aktibismoaren eraginez, eredu ekonomiko-soziala kolokan jartzen da, eta horrek pentsamendu sozialean hegemonikoak ziren adostasunak ere astindu zituen. Horrela, bigarren planoan zeuden gai batzuk, gaurkotasan guztia berreskuratu zuten; klase sozialen arteko gatazkak, botere harremanak, eta giza egintzaren izaera aktiboa eta erreflexiboa, garrantzizko arreta-gune bihurtzen ziren eta, horiekin batera, esanguraren konprentzioa bilatzea, hizkuntza eta gaitasun kognitiboak kontuan hartzea, eta empirismoaren gabeziak azpimarratzea. Ondorioz, “adostasun ortodoxotik” aparte zeuden tradizio batzuk lehenengo lerroa etorri ziren: Elkarregintza Sinbolikoa, Fenomenologia, Teoria Kritikoa eta tradizio hermeneutiko-konprentziboak. Giddens-entzat, aro berri horretan zabaldu zen bizitasun teorikoa eta ikuspegi ezberdinen arteko etengabeko eztabaidak, argiro erakusten zuen teoria soziala bizirik eta eman-kor zegoela baina, aldi berean, desordena eta noraeza ziren debate teorikoaren ezau-garri nagusiak: aurkakoak ziren ahotsen berbaroak ez zuen betetzen aurreko adostasunak betetzen zuen espazioa teorikoa¹²⁶. Gainera, teoria sozialean, objektibismo eta subjektibismoaren artean erabat errotuta zegoen aurkakotasuna, handitu egin zen. Izan ere, Funtzionalismoak eta estrukturalismoak, subjektuen elkarregintza sortzailea azterketatik kanpo utziz, gizarte-egituraren indar mugatzailea azpimarratzen zuten bi-

¹²⁵ SOLÉ, C. “La teoría de la estructuración de A. Giddens” *Escritos de teoría sociológica* liburuan. CARLOS MOYA, ALFONSO PÉREZ-AGOTE, JUAN SALCEDO ETA JOSÉ FÉLIX TEZANOS (Bateratzaileak). CIS. Madrid, 1992. Orr. 1059.

¹²⁶ GIDDENS, A. *La constitución de la sociedad. Bases para la teoría de la estructuración*. Amorrortu. Buenos Aires, 1995. Orr. 15-17.

tartean, ikuspegi mikro eta konprentsiiboetan subjektuen gaitasun sinbolikoa da gizarte-zientzien oinarria, eta azterketatik kanpo uzten zituzten gizarte-sistema, egitura eta koakzioa bezalako kontzeptuak.

Giddens-entzat, 70. hamarkadan, gehiegizkoa da sakabanaketa teoriko-metodologikoa, erlatibismoa eta noraeza; beharrezkoagoa zen oinarri teoriko bateratua, ez ortodoxia berri bat ezartzeko baizik eta zenbait gairen eztabaidan erreferente bateratuak emango dituen ikuspegi bat izateko. Horrela, teoria sozialaren berreraikuntza bateratua sortzeko, gerra osteko ortodoxia funtzionalistarekin egin beharreko haustura aldarrikatuz, ikuspegi subjektibistak ere gainditu behar zirela defendatzen du. Izan ere, Giddens-ek, gabeziak ikusten ditu giza egintzan zein gizarte-egituran zentratzen diren ikuspegietan: egintzaren teorikoek ez diete erreparatzen aspektu instituzionalei, egituraren baldintzaileei edota boterearekin lotuta dauden faktoreei. Faktore eta baldintzaile horiek, ordea, kezka nagusia eta ia bakarra dira gizarte-sistemaren teoriko-entzat. García Selgas-ek azpimarratzen duen moduan, Giddens-en ahalegina, giza egintzaren teoria eta baldintzaile sozioestruturalen azterketa uztartzeko ahalegina da;hots, produkzioa eta aldaketa erreprodukzioa eta ordenarekin elkarlotzeko ahalegina¹²⁷. Horretarako, Giddens-en tresna nagusiak, funtzionalismoaren kritika, marxismoaren dekonstrukzioa eta iturri fenomenologikoak zein etnometodologikoak izango dira.

Estrukturazioaren Teoriaren bidez, Giddens-en helburua objektibismo eta subjektibismoaren arteko aurkakotasuna gainditzea izan zen; eta, horretarako, egintza eta egitura kontzeptuen berkontzeptualizazioari ekin zion.

Nolabait, konprentsioren soziologiak subjektuaren inperialismoan oinarritzen badira, funtzionalismo eta estrukturalismoak objektu sozialaren inperialismoa proposatzen dute. Estrukturazioaren teoria formulatzen dudanean nire asmo nagusienetarikoa bat bi handinahikeri inperialista horiei amaiera jartzea da. Estrukturazioaren teoriarentzat, Gizarte-Zientzien funtsezko interesgunea ez da aktore indibidualaren bizipena ezta osotasun sozialaren existentzia, baizik eta espazioan eta denboran ordenaturik dauden praktika sozialak¹²⁸.

Agentea, elkarregintza eta praxia

Giddens-en oinarritzko abiapuntua honako hau da: gizakia agente intenzionala da baina, aldi berean, giza egintza denbora eta espazio zehatz batek definitzen duen testuinguruan kokatu behar dugu. Elkarregintza sozialaren elementu nagusia, beraz, ez da subjektuaren borondatea edo sormena, baizik eta subjektuaren praxi soziala. Oso garrantzitsua da, beraz, egintza eta *praxiaren* artean egiten duen ezberdintasun analitikoa. Espazioan eta denboran ordenaturik dagoen praktika sozialak, *praxiak*, erabateko zentralitatea dauka Estrukturazioaren teorian.


¹²⁷ GARCÍA SELGAS, F. *Teoría social y metateoría hoy*. CIS. Madril, 1994. Orr. 116.

¹²⁸ GIDDENS, A. *La constitución de la sociedad*. Amorrortu. Buenos Aires, 1995. Orr. 40.

Praxi sozialean etengabe jazotzen den estrukturazioa abiapuntu berria da gizarte-teoria bat josteko. Izan ere, aktoreek euren praxiaren bidez egiten duten gizartearen produkzioa eta erreprodukzioa da Estrukturazioaren teoriaren aztergaia.

Aktoreak

Praxi sozialak modu errekursiboan edo errepikakorrean ordenatzen dira, hori gertatzen da aktoreen berezko gaitasun erreflexiboagatik, gizakiaren ulermen hausnarkoragatik. Berezko gaitasun erreflexibo horri esker, gizabanakoak modu rutinarioan errepikatzen ditu hainbat jokaera eta *praxi* soziala. Zentzu horretan, giza ulermenaren kontzeptualizazioa funtsezkoa da; aktibitatearen erregistro hausnarkorra, eguneroko egintzaren ezaugarri etengabekoa baita eta *praxi* sozialaren izaera errepikakorra sortarazten du. Aktoreak, esfortzu barik eta errutina moduan, bere eta besteen aktibitatea erregistratzen du, eta erreferente moduan hartzen du bere jokabideak definitzeko. Modu berean, aktoreek murgilduta dauden inguruneen aspektu fisikoak eta sozialak ere erregistratzen dituzte¹²⁹. Egintzaren eta ingurunearen erregistro hausnarkor horretaz gain, kontuan hartzekoa da ere aktoreek egiten duten egintzaren motibazioa eta arrazionalizazioa. Motibazioari dagokionez, agenteen desioekin lotzen du; motibazioa da hasierako asmoa, potentzialki egin nahi dena. Hasierako asmo horiek gutxitan dira elementu nagusiak *praxi* sozialean, soilik ezohizko zirkunstantzietan, eguneroko errutina apurtzen denean. Egintzaren arrazionalizazioarekin, Giddens-ek adierazi nahi du agenteek badaukatela euren aktibitateen arrazoioren konprentzio teoriko bat —nahiz eta konprentzio hori ez da beti diskurtso moduan adierazgarria—.



Agentearen eredu estratifikatua (*Ibidem.* Orr. 43)

Agentearen kontzeptualizazioarekin jarraituz, beste ezberdinketa garrantzitsu bat aipatzen digu autore honek: kontzientzia praktikoa, kontzientzia diskurtsiboa eta inkontzientea. Kontzientzia praktikoa kontzeptua funtsezkoa da Estrukturazioaren teorian; batetik, zubi-lana egiten duelako agentea eta egintzaren artean, eta, bestetik, praxiaren dimentsio berriak adierazten dizkigulako. Izan ere, Giddens-ek argiro ezberdintzen du agenteak bere egintzaz esan dezakeena (kontzientzia diskurtsiboa) eta besterik gabe egiten duena (kontzientzia praktikoa). Bere ustez, *praxiaren* ikuskera berria edukitzeko bereiztu behar dugu esatea (adieraztea) eta egitea:

¹²⁹ *Ibidem* (orr. 43).

Agenteen jakintza hausnarkorra ez da oso-osorik adierazten modu diskurtsiboan. Agenteek, egiten dutenaz eta egintza horren arrazoiak, dakitena —agente bezala daukaten ulermena— neurri handi batean kontzientzia praktikoaren bidez azaltzen da. Kontzientzia praktikoa da bizitza sozialaren testuinguru ezberdinetan aktoreek ohartugabe, tazituki, besteekin egoteko eta izateko moduz dakitena¹³⁰.

Giddens-ek, kontzientzia praktikoaren kontzeptua erabiltzen du Max Weber-ren gan aurkitu dezakegun ezberdinketa analitiko garrantzitsu bat egiteko: gauza bat da gizabanakoak bere egintzaren zentzuaz esaten duena eta beste bat egin egiten duena. Egintzaren zentzua, behar duen ordena eta argitasunarekin, gutxitan ailegaten da kontzientzia diskurtsibora, horrexegatik, *praxia* subjektuak adieraz dezakeena baino gehiago da.

Giddens-i gehien interesatzen zaiona, ordea, kontzientzia praktikoan dagoen “elkarrekiko jakintza” da: ohartu gabe besteekin egoteko eta izateko moduz dakiguna. Bere ustez, “elkarrekiko ulermen” hori ez dago aktoreen eguneroko kontzientzian; egoera sozial arruntetan eta rutinarioetan “besteekin egoteko eta izateko” garatu duten gaitasun praktikoa da. Hala ere, kontzientzia diskurtsiboa eta praktikaren artean ez dago muga zehatz bat; ez behintzat kontzientzia diskurtsiboa eta inkontzientearen artean dagoena bezalakoa. Inkontzientean dagoena da pertzepzio, nahi eta kognizio multzo bat kontzientzian erreprimetuta dagoena edo soilik modu distorsionatuan azaltzen dena. Giddens-ek ez ditu bere egiten Freud-en teorema nagusiak, baina onartzen du inkontzienteak daukan presentzia giza egintzan. Hala ere, berari gehien interesatzen zaiona da kontzientzia diskurtsiboan egon barik inkontzientean ere ez dagoena, hau da, kontzientzia praktikoan dagoen “elkarrekiko ulermen” hori. Praxi sozialerako ezinbestekoak diren teknika, metodo eta baliabide batzuk bertan kokatzen baitira. Izan ere, bizitza sozialaren produkzioa “zeregin kualifikatua” da; tazituki bada ere, praktika sozial bat behar bezala burutzeko menperatu behar dira jokabide, arau eta baliabide zehatz batzuk, gehienetan, oharkabean (kontzientzia diskurtsiboan egon barik) menperatzen ditugun baliabideak. Geroago heldu beharko diegu Estrukturalismoaren teorian mamitsuak diren arau eta baliabide kontzeptuei.

Giddens-en ustez, tradizio soziologikoen artean, soilik fenomenologian eta etnometodologian erreparatu zaio agerikoa ez den kontzientzia praktiko horri; estrukturalismoan, gainontzeko eskola objektibistetan bezala, ez dute kontzeptualizatu giza aktorearen ezaugarri hau eta, ondorioz, ezin izan dute behar bezala kontsideratu gizakiok euren portaeren gainean daukaten kontrol maila.

Kontzientzia praktikoaren kontzeptuaren eskutik, Giddens-ek, giza egintzaren beste ezaugarri nagusi bat aipatzen digu: rutinizazioa. Arestian esan dugun moduan, *praxi* sozialak errepikakorrak dira (errekursiboak); egunez egun, ohituraz, modu berdinean egiten diren aktibitateek bizitza sozialaren errepikakortasuna hezurramitzen dute. Aktoreak kontzientzia praktikoan eramaten ditu ohiturak eta rutinak; haiei esker gutxitzen du bizitza sozialaren tentsioa —etengabeko alerta egoera—, eta, errealita-

¹³⁰ *Ibidem* (orr. 24).

tearen irudikapen natural bat bereganatuz, lortzen du behar duen segurtasuna eta konfidantza. Baina ohiturak eta tradizioak ez dira eragilerik behar ez duten errepikapenak, bizitza sozialaren izaera rutinarioa aktoreek burutu eta sustatu behar dute euren eguneroko jokaerekin.

Giza egintzaren izaera rutinarioa eta kokatua aztertzeko (espazio eta denbora zehatz batean kokatua), Giddens-en erreferente nagusia Goffman-ek elkarregintzaz eta kopresentziaz egindako azterketak izango dira. Horrela, gorputzaren keinua edo “jarrerera” kontzeptutik abiatuz, elkarregintza zehaztetik instituzio sozialen eraketara doan ibilbidea egingo du.

Aktorearen gorputzak jarrera bat hartzen du besteekin dituen topaketetan; aurpegiaren keinuak eta gorputzaren mugimendu hausnarkorrak —kontzientzia praktikoaren hausnarkortasun ahul horrekin— ezinbestekoak dira bizitza sozialaren lasaitasuna eta jarraipena mantentzeko. “Jarrera” kontzeptua haratago eramaten du Giddens-ek; topaketa-sorta batean —denbora eta espazioan kokatua— aktoreak egiten duen ibilbidea, jarrera kontzeptuarekin definitzen du. Are gehiago, bizitza osoaren ibilbidean, agenteak jarrera batzuk izaten ditu testuinguru ezberdinetan eta, azkenik, gizarte-instituzioen iraupen luzean —agentearen bizitza baino luzeagoa— jarrera bat ere izan du:

Egungo gizarte garaikidetan gizabanakoek jarrerak dituzte zonalde-sorta zabal batean: etxean, lantokian, auzoan, hirian, estatuan eta mundu-sisteman. Jarrera guzti-guztiek integrazio sistemikoaren aspektu batzuk erakusten dituzte eta, gero eta gehiago, eguneroko bizitzaren detaile txikiak, lotuak daude espazio eta denboran sekulako luzaera daukaten gizarte-fenomenoekin¹³¹.

Jarrera, beraz, lotuta dago espazio geografikoan eta denboran historikoan okupatzen dugun kokapenarekin, hala nola, harreman sozialen ordenamenduan daukagun kokapen sozialarekin. Denbora, espazio eta gizartean daukagun kokapen horrek, hartu-eman sozialen barne definitzen den “nortasun” bat ematen digu, onurabide eta betebeharrak batzuk dituen nortasun soziala; aktoreak aktibatu ahal ditu bere kokapenari dagozkion onurabide eta betebeharrak, hau da, bere rolaeren betebeharrak. Rol kontzeptuaren inguruan, Giddens-ek zehaztu nahi du gehiegizkoa dela bere erabilpena gizarte-zientzietan; bere ustez, erabilgarria da soilik elkarregintza zehatzak definitzen direnean eta elkarregintza horietan jokabideen definizio arautua indar handiz ezartzen denean. Giddens-i, malguagoa eta esanguratsuagoa iruditzen zaio “jarrera” kontzeptua, gorputzaren erregistroa eta aurpegiaren erabilpena zein kontrola funtsezkoak baitira gizarte-integratzaileak. Era berean, agenteek testuinguru ezberdinetan eta egunerokoan erakusten duten jarrerak lotura-puntua dauka gizarte-instituzioen iraupen luzearekin: bizitzaren ibilbidean erakutsitako jarrerak harremanetan daude norberaren nortasun sozialak daukan kategorizazioarekin; adina, genero edo azalaren kolorearen arabera nortasunak portaeraren hainbat aspektu eragiten ditu eta, Giddens-en ustez, rol kontzeptua erratua eta azalekoa da aspektu horiek guztiak definitzeko¹³².

¹³¹ *Ibidem* (orr. 118).

¹³² *Ibidem* (orr. 119).

Horiek horrela, argi da Giddens-ek proposatzen digun praktika sozialen kontzeptualizazio berriak, abstrakzio maila altua izateaz gain, kontzeptu ezberdin asko hartzen dituela. Orain arte, praktika sozialen izaera errepikakorrean aktoreek jokatzeko duten papera laburbildu dugu: jakintza hausnarkorra, arrazionalizazioa, motibazioa, kontzientzia praktikoa, rutinizazioa eta jarrera dira, besteak beste, autore ingelesak proposatzen dizkigun kategoriatan kontzeptualak. Baina, Estrukturazioaren teoriarantz aurrera egiteko, aipatu behar ditugu *praxiak* berez dituen ezaugarri batzuk eta, geroago, gizarte-sistemaren printzipio estrukturalak zein arau, baliabide eta mekanismoen bidez eratzen diren. Ikus ditzagun, bada, Giddens-en teoriarantz, *praxiak* dauzkan izaera eta ezaugarriak.

Praxi soziala

Giddens-ek, tradizio hermeneutikoarekin batera, giza egintzaren azterketan, aktoreak bere egintzari ematen dion esangurak daukan garrantzia defendatzen du; horrela, giza zientzietako ezinbesteko aztergaitzat jotzen du, gizakiak daukan gaitasun sinbolikoa bere jakintza hausnartzeko eta, jokabide bat definitzeko orduan, aukera ezberdin batzuk aurreikusteko. Hala ere, hori guztia testuinguru zehatzetan aztertu behar da, denbora eta espazioan kokaturiko elkarregintza zehatzetan. Horrela, *praxi* sozialak agentea du eragile nagusia baina kontuan hartzeko beste elementu batzuk ere baditu: aktoreak asmorik edo intentziorik izan gabe egintza baten protagonista eta eragilea izan daiteke, izan ere, gauza asko egiten ditu alde aurretiko intentziorik izan gabe. Agentearen gaitasun eragilea (agentzia) ezinbestekoa da, ez baitago egilerik gabeko egintzarik, baina, Giddens-en ustez, ezin dugu nahastu agentearen jardueraren eragilea, *praxiak* —gertatzen den moduan— dauzkan ezaugarriekin. Giza egintza azpimarratzen duenean, gizakiak gauzak egiteko daukan gaitasuna eta ahalmena azpimarratu du, baina horrek ez du zergatik eraman behar alde bakarreko planteamendu subjektibistak eta idealistak defenditzera. Izan ere, gizakiaren *praxia*, geroago ikusiko dugunez, arauak eta baliabide mugatuak dituen testuinguru batean gertatzen da, asimetrikoa den botere-dialektika batean dago eta nahigabeko ondorioak produzitzen ditu¹³³.

Horrexegatik, Giddens-ek uste du oso garrantzitsua dela ezberdintzea agenteak “egiten” duena eta “bilatzen” duena; hau da, *praxia* bereiztu behar da giza egintzaren aspektu intentzionalitatearekin. Tradizionalki, giza egintza intentzionalitatearen arabera definitu da, aktoreak zerbait egiten du alde aurretik hori egiteko asmoa zeukalako. Giddens-entzat, ekintza gehienek ez dute betetzen aurreste hori. Hala eta guztiz ere, horrek ez du gutxiesten edo bigarren mailan uzten agentearen protagonismoa, *praxiak* izan ditzakeen nahigabeko ondorioak ez bailirateke gertatuko aktoreak abiatu duen gaitasun eragilerik gabe. Nahigabeko ondorioak kontuan hartzea funtsezkoa da Estrukturazioaren teoriarantz eta, orain ikusiko dugunez, *praxiaren* beste ezaugarri garrantzitsu bat boterearekin daukan harremana da.

¹³³ GARCÍA SELGAS, F. *Teoría social y metateoría hoy*. CIS. Madril, 1994. Orr. 122.

Boterea, zentzu orokorrean, giza egintzaren gaitasun eraldatzailea da; aktorearen gaitasuna gertaeren bilakaeran esku hartzeko eta bilakaera hori aldarazteko. Ahalmen horrek zubi-lana egiten du hasierako asmoa eta egintza zehatzaren artean¹³⁴.

Giddens-entzat, gaitasun eraldatzailea, hau da, gauzak “beste modu batera” egiteko gaitasunak, esan nahi du munduan esku hartzeko aukera, baita esku-hartze horri muzin egiteko aukera ere. Hau da, agente guztiek alternatiba edo diferentzia sortzeko gaitasuna daukate, baina beti ez da garatzen, aktoreen boterea indargabetu baitaiteke aurkako baldintzen eraginpean. Dena den, baldintzen eraginpean diferentzia ez sortzea edo “beste aukerarik ez” izateak, ez du esan nahi aktorea konturatu gabe indar mekanikoen menpe dagoenik, edo egintza intenzionalik ez dagoenik; elkarregintza guztietan erabiltzen baita boterea, hau da, *praxi* sozialetan etengabe aktibatzen dira baliabideak jokabideen erreprodukzio rutinarioan behar den beste elementu bat gehiago bezala. Giddens-ek asko azpimarratzen du *praxi* sozialaren izaera errepikakorra eta rutinarioa baina horrekin ez du esan nahi *praxia* berez erreproduzitzen denik; boterearen kontzeptuen bidez, argi uzten du agenteak direla praktika sozialak erreproduzitzen dituztenak. Izan ere, bere gaitasun eraldatzaileari esker, agenteak beti du beste modu batera jokatzeko aukera; Ira Cohen-ek gogoarazten digun moduan¹³⁵, Giddens-ek onartzen du egintzak lotura zehatza duela iraganarekin eta iraganak jarraipenerako baliabideak eskaintzen dituela, hau da, praktika instituzionalizatuak erreproduzitzeko baliabideak hornitzen ditu. Baina horrek ez du esan nahi agenteek, halaber, lehen bezala jokatu dutenik, jokaerak erreproduzitu dituztenik; erreprodukzioak kontingenteak eta historikoak dira. Are gehiago, erreprodukzio guztietan badago berez aldagakaren aukera¹³⁶.

Planteamendu horiekin, Giddens-ek, ukatu egiten du giza egintza erabat determinatua egongo denik, edo giza gaineko indar batzuk agentearen erantzun mekanikoak eragiten dituztenik; baina, determinismo absolutua ukatzen duen bezala, mugarik gabeko egintza subjektiboa ere ukatzen du. Elkarregintza sozialean parte-hartzen duten agenteak ez dira guztiz autonomoak, hartu-eman sozialetan elkarrekiko ezagutza eta produkzio sinbolikoaz gain, badago kontrol edo botere dialektika bat eta, dialektika horretan, besteen jokabideetan eragiteko erabiltzen diren baliabideak modu asimetrikoan banatzen dira. Iraganetik jasotzen diren arau eta baliabideek eta baliabide horien banaketa desorekatuak *praxia* eragiten dute eta, ondorioz, giza egintza sortzailea mugatzen dute.

Orain arte aipatu ditugun Estrukturazioaren teoriaren elementuak lotuta daude gizaratearen eraketak daukan alderdi intersubjektiboarekin: agenteak, egintza, elkarregintza eta *praxi* soziala. Baina Giddens-en planteamenduan, alderdi hori ezinbestez

¹³⁴ GIDDENS, A. *Las nuevas reglas del método sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1987. Orr. 112-3.

¹³⁵ “Teoría de la estructuración y praxis social”. IRA J. COHEN *La teoría social hoy* liburuan. GIDDENS, A. TURNER, J. (bateratzaileak). Alianza Universidad. Madril, 1990. Orr. 385.

¹³⁶ *Ibidem* (orr. 386).

osatu behar da gizartearen eraketak daukan alderdi estrukturalarekin¹³⁷; horretarako, “egituraren bikoiztasuna” eta “estrukturazioa” izango dira teoriaren erdigunean landuko dituen kategoriak. Izan ere, alderdi intersubjektiboa eta estrukturala txanpon bereko bi aldeak bezala aurkezturik, Giddens-ek azalduko du produkzioa eta erreprodukzioa gizartearen eraketa-prozesuak dituen bi aldeak direla: gizartea produzitzen dugu etengabeko estrukturazio prozesuan. Ikus ditzagun ikusi beharreko ñabardurak, planteamendu guzti hauek argiago konprenitu ahal izateko.

Egituren produkzioa eta erreprodukzioa: estrukturazioa

Errealitate sozialaren azterketan onartu beharreko bi oinarriko alderdi aipatzen digu Giddens-ek: alderdi sintagmatikoa (espazio eta denbora zehatz batean kokaturik dauden harreman sozialen azterketa) eta alderdi paradigmaticoa (harreman sozialen artikulazioak osatzen duen ordena edo eredu birtuala). Pentsamendu sozialean, gizarte-egitura deitu izan zaio bigarren alderdi paradigmatico horri; baina, funtzionalismoan eta estrukturalismoan, izaera birtuala eman beharrean, giza egintzatik kanpo dagoen hezurdura finko gisa ulertu dute. Giddens-entzat, gizarte batek egitura baino ezaugarri estrukturalak ditu, egiturak bakarrik existitzen baitira denbora eta espazioan kokaturik dauden aktoreen praxi errepikakorrean. Horrexegatik, autore ingelesak dinamikoagoak diren kontzeptuak nahiago ditu: “Sakonagoak diren ezaugarri estrukturalak,...., printzipio estrukturalak izendatzen ditut. Eta espazioan eta denboran luzapen zabala daukaten praktikak instituzioak izenda ditzakegu”¹³⁸.

Giddens-en terminologian, “egiturak” praktika zehatzetan azaltzen diren *arau*-eta *baliabide*-sistemak dira. Horrela, arauak elkarregintza sozialerako erabiltzen diren teknika orokorrak izango ziren; hau da, praktika sozialen erreprodukzioan/eszenifikazioan aplikatzen diren prozedura orokortzaileak. Elkarregintza zehatz baten esanahia eta zentzua mugatzeaz gain, arauak zenbait jokabideren zigorra ezartzen dute. Agenteen kontzientzia praktikoa azaltzen dira arau sozialak eta, autore ingelesak, gizakiak berez duen “elkarrekiko ulermen” horren erdigunean kokatzen ditu. Zentzu horretan, gizakia “aditua” da eguneroko elkarregintzaren produkzio eta erreprodukzioan erabili beharreko jakintza praktikoa.

Arau sozialen ezaugarri dagokionez, badago Giddens-ek azpimarratzen duen elementu interesgarri bat: elkarregintzarako arauak azalekoak izan daitezke edo trinkoak (etengabe aplikatzen direnak, adib: hizkuntzaren arauak); diskurtsiboak edo tazitak; formalak edo informalak; eta, ezar ditzaketen zigorrak, ahulak edo gogorrak

¹³⁷ “Giddens-ek azpimarratzen du bizitza sozialaren produkzioaz arduratzea, erreprodukzioaz arduratu gabe, egintza intenzionalaren soziologiak izan duen hutsunerik nabarmenena izan dela, hau da, azterketa estrukturalerako kontzepturik ez proposatzea. Bestaldetik, estrukturalismo eta funtzionalismoak, erreprodukzioari erreparatu bai, baina ez dute behar bezala kontzeptualizatu, ez baitute ikusi subjektu *aktiboen jokaeren emaitza gisa, baizik eta emaitza mekaniko gisa*”. GIDDENS, A. *Las nuevas reglas del método sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1987. Orr. 122.

¹³⁸ GIDDENS, A. *La constitución de la sociedad...* Amorrortu. Buenos Aires, 1995. Orr. 54

izan daitezke. Tradizionalki, gizartearen azterketan, ziurtzat jo dugu araurik formale-
nak, legeak, elkarbizitzaren artikulazioan eraginik gehien daukaten arauak direla. Es-
truktuzioaren teoriak, ordea, defendatzen du eguneroko bizitzan itxuraz garrantzi
gabekoak diren prozedura eta jokaera askok eragin sakona daukatela gizartearen arti-
kulazioan. Hau da, praktika sozialen produkzioan eta erreprodukzioan indarrean jar-
tzen diren arau gehienak ohartu gabe edo tazituki aktibatzen dira: “aktoreek badakite
zeinekin nola jokatu”. Horrexegatik, ezin dugu gutxietsi egunerokoan informalki
aplikatzen diren arauen garrantzia¹³⁹.

Arau sozialen inguruan, Giddens-ek garatu ez duen ideia bat baina bereziki inter-
resgarria iruditzen zaiguna ondorengo da: formulazio diskurtsiborik ez duen arau baten
ahoskatze diskurtsiboa, berez bada arau horren interpretapen bat eta, ondorioz, al-
daeraz dezake arauaren aplikapena. Arau sozialen eragina, beraz, ez da mekaniko eta
norabide bakarrekoa, baizik eta dinamikoa eta bi norabidetakoa. Eguneroko rutinaren
arauak, noiz eta zein baldintzetan problematizatzen edo teorizatzen ditugun, aztertu
beharreko beste alderdi interesgarria izango zen Estruktuzioaren teorian.

Azken batean, gizarte-sistemaren estruktuzioa aztertzea zera da, nola produzi-
tzen eta erreproduzitzen den sistema hori aktoreen elkarregintzan; zehatzagoak izan-
da, espazio eta denboran kokaturiko aktoreek —eguneroko elkarregintzaren testuin-
guru ezberdinetan, arau eta baliabideak aplikatzen dituztela— nola produzitzen eta
erreproduzitzen duten gizartearen egitura osatzen duten arau eta baliabideen sistema.

Egituraren bikoiztasuna

Etengabeko estruktuzioaren planteamendu hori osatzeko, ezinbestekoa dugu
egituraren bikoiztasunaren kontzeptua. Gizaki eta gizartearen osaketa, aktore eta egi-
turen eraketa, ez dira banaturik dauden prozesuak; gizartearen ezaugarri estruktura-
lak giza *praxiaren* ingurune soziala dira eta, aldi berean, giza *praxiaren* emaitza. Egi-
tura, beraz, ez da giza gaineko errealitate derrigortzailea, baizik eta giza egintzaren
barne eta giza egintzaren emaitza den errealitatea; aldi berean mugak eta aukerak es-
kaintzen dituen errealitatea.

Planteamendu horrek, Giddens-ek argiro azaltzen duenez, ez du oztopatzen gi-
zarte-sistemen hainbat ezaugarri estrukturalak, denboran eta espazioan daukaten lu-
zapenagatik, aktore indibidualen kontroleratik kanpo daudela onartzea. Ezta ere ak-
toreek, produzitzen eta erreproduzitzen duten gizarte-sistemaz, irudi kosifikatua edo
naturalizatua edukitzea; izan ere, harreman sozialen reifikazioa —historikoki kontin-
genteak diren giza egintzaren produktu eta baldintzen naturalizazio diskurtsiboa—
ideologiaren alderdi nagusia da bizitza sozialean¹⁴⁰. Geroago helduko diogu berriz,
reifikazioaren gaiari; sakondu dezagun, lehenengo, estruktuzioaren teorian funtsez-
koa den “egituraren bikoiztasuna” kontzeptua.

¹³⁹ *Ibidem* (orr. 59).

¹⁴⁰ *Ibidem* (orr. 62).

Giddens-ek diosku, “estrukturazioa” eta “erreprodukzioa”ren kategoriek, abstraktuan, egiturak existitzeko behar den prozesu dinamikoa adierazten dutela. Estrukturazioaren azterketa, ahalegintzen da identifikatzen zein baldintzetan gertatzen den egituren jarraipena eta desagertzea. Kategori horiek, beraz, erabilgarriak dira antzeman ahal izateko egitura, gizakien jokatzeko eratik eratortzen den emaitza izanik, aldi berean, jokatzeko modu horiek posible egiten duen baliabidea dela.

Bikoiztasun hori hobeto ikusteko eta nola gertatzen den argiago azaltzeko, Giddens-ek, behin baino gehiagotan erabili du hizkuntzaren adibidea: ez du defendatzen gizartea hizkuntza bezalakoa denik, baina bai pentsatzen du hizkuntza, egintza praktikoko gisa daukan zentralitateagatik bizitza sozialean, ikasbidean jartzen dituela orokorragoak diren gizarte-prozesuak, zenbait aspektutan. Horrela, hizkuntza, egitura linguistikoko bezala ikusita, ezinbesteko baldintza da hitz egiteko egintza eta elkarriketaren elkarregintza sortu ahal izateko. Baina, aldi berean, hizkuntza, hiztunen *praxiak* sortzen duen hitz egiteko egintzaren emaitza da. Hitz egitea denbora eta espazioan kokaturik dagoen egintza da; hizkuntza, ordea, espazio eta denboratik kanpo dago, zentzu horretan birtuala da, ez da existitzen hiztunek produzitzen ez badute. Era berean, hizkuntza bakoitzak arau- eta baliabide-sistema bat dauka; sintaxiaren arauak, adibidez, denbora luzean eta espazio ezagunean modu errepikakorrean iraun duten *praxi* linguistikokoak dira. Horrela, arau horiek bidea ematen dute hitz egitearen egintza orde-natzeko. Analogia honekin amaitzeko, Giddens-ek, beste klabe bat erakusten digu: “hizkuntza batean esaldi batek hizkuntza osoaren existentzia adierazten duen moduan, elkarregintza bakoitzak badarama ere gizarte osoaren marka; horrexegatik, arrazoi zehatzak daude eguneroko bizitza osotasunaren fenomeno gisa aztertzeko”¹⁴¹.


Komunikazioa, boterea eta zilegitasuna

Egituren bikoiztasuna, beraz, giltzarria da Estrukturazioaren teorian. Gizartearen ezaugarri estrukturalak —testuinguru bakoitzeko arau- eta baliabide-sistema— eguneroko elkarregintza posible egiten duten baliabideak dira eta, aldi berean, gizabanakoen elkarregintzaren emaitza. Hizkuntza bezala, printzipio estrukturalak ezinbesteko baldintza dira gizabanakoen elkarregintzarako eta, aldi berean, ez dira existitzen gizabanakoek produzitzen ez badituzte.


Gauzak horrela, autore ingelesak ematen duen hurrengo urratsa egituren bikoiztasuna denbora eta espazioan kokaturik dauden elkarregintza zehatzetan nola irudikatu daitekeen aurkeztea da. Hau da, egitura maila eta egintza maila, nola uztartzen diren denbora eta espazio definitu batean. Giddens-en planteamenduan, egituren bikoiztasuna, hiru aspektu edo dimentsioetan ematen da: esangura/ komunikazioa, menderaketa/ boterea eta legitimazioa/zigorra¹⁴².

¹⁴¹ GIDDENS, A. *Las nuevas reglas del método sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1987. Orr. 123.

¹⁴² GIDDENS, A. *La constitución de la sociedad...* Amorrortu. Buenos Aires, 1995. Orr. 65.




Lehenengoari dagokionez, esangura eta zentzuaren dimentsioan, egitura eta egintza uztartzen dira komunikazioan elkartrukutzen diren “eskema interpretatiboetan”; eskema horiek partekatzen direnean, elkarregintzan ari direnek konprentitzen dute besteek esaten dutena eta egiten dutena. Eskema horiek komunitate batek daukan ezagutza-ordenamendu batetik eratortzen dira eta, aldi berean, euren aplikazioan eta erabilpenean erreproduzitzen da ordenamendu kognoszitibo hori. Eskema interpretatiboek bitartekaritza lana egiten dute giza elkarregintza eta gizarte-egituraren artean, hau da, komunikazioa eta ordenamendu kognoszitiboaren artean. Izan ere, giza elkarregintzaren izaera esanguratsua lotu behar dugu aktoreek erakusten duten elkarrekiko ulermenarekin (edo jakintza hausnarkorrarekin); eskema interpretatibo gisa erabiltzen baitute ulermen hori, norberaren eta besteen jokabideak konprentitzeko.




Botere eta menderaketaren dimentsioari dagokionez, aktoreek elkarregintzan erabiltzen dituzten baliabideen bitartez, besteen portaerak eragiten dituzten ondorioak sor ditzakete. Norberak eskuragarri dituen baliabideak eta ondoriozko boterea menderaketa-ordenamendu batetik eratortzen dira eta, aplikatzen diren neurrian, menderaketa-ordenamendua erreproduzitzen dute. Menderaketa-egituren erreprodukzioan, normalean, asimetria garrantzitsuak azaltzen dira; lotuta daudenak, interes ezberdinen arabera, gizarte-sisteman dagoen banaketarekin. Interes ezberdinek sortzen dute ere eskema interpretatibo eta arau sozialen inguruko proposamen edo irakurketa ezberdinak, eta proposamen horien arteko borrorak¹⁴³.

¹⁴³ *Ibidem* (orr. 161).



Azkenik, legitimazioaren dimentsioa dugu; elkarregintzaren arauak partehartzai-leengandik espero diren betebeharrak eta eskubideak definitzen dituzte. Normalean oreka bat egoten da betebeharrak eta eskubideen artean, baina praktikan ez da zergatik simetria hori egon behar. Giddens-ek azpimarratzen du eskubide eta betebeharren definizio normatibo horiek ez dutela erabat determinatzen aktoreen jokaerak, definizio kontingenteak dira eta aktoreek interpretapen berriak negoziatzen dituzte elkarregintza zehatzetan. Arau sozial horiei dagokienez, elkarregintza mailan aztertu beharreko elementuak ezartzen dituzten zigorrak eta zilegitasuna dira.



Komunikazioa, boterea eta zilegitasuna giza elkarregintzaren elementuak diren bitartean; esangura, menderaketa eta legitimazioa, gizarte-sistemen dimentsio estrukturalak dira. Eskema interpretatiboak, baliabideak eta arauak zubi-lana egiten dute, aurreko bi mailen artean, gizartearen produkzio eta erreprodukzioaren prozesuan.

Esanguraren egiturak aztertu daitezke arau semantikoen sistema gisa; menderaketaren egiturak baliabide-sistema gisa; legitimazioaren arau moralen sistema gisa. Produkzio eta erreprodukzioaren modalitateak direnez gero, gizartearen partaideek edozein elkarregintza zehatzetan erabiltzen dituzte multzo integratu bezala, ez baitira banaturik dauden elementuak. Kolektibitateen osotasun batekin elkarlotzen direnean, arau semantiko eta moralen sistema integratu gisa, kultura bateratua dagoela esan dezakegu¹⁴⁴.

¹⁴⁴ GIDDENS, A. *Las nuevas reglas del método sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1987. Orr. 125.

Diskurtsoak, baliabideak eta arauak dira, honenbestez, egitura eta egintza mailak uztartzen dituzten produkzio eta erreprodukzioaren modalitateak. Etengabe berrinterpretatzen ari diren modalitateak dira; eta, ondorioz, euren aplikazioa eztabaidatua eta borrokan iturria da. Hortaz, bizitza sozialaren produkzio eta erreprodukzioaren modalitateak etengabeko aldaketak jasotzen dituzte, etengabeko prozesuan daudelako. Giddens-entzat, gizartearen azterketa estrukturala ezin da banatu gizartearen erreprodukzioaren azterketatik; zilegi da defendatzea gizarte bat ez dela gizabanakoen sorkuntza hutsa, eta gizartearen ezaugarri estrukturalak gizabanakoek baino bizitza luzeagoa daukatela, baina egitura edo ezaugarri estrukturalak existitzen dira erreprodukzio-prozesuan jarraipena egongo den bitartean; eta jarraipen hori kokaturik dauden aktoreen *praxi* errepikakorrek ematen dute, aldi berean nahita bilatutako ondorioak zein nahigabeko ondorioak produzitzen dituztela.

Ezaugarri estrukturalen denbora, derrigorrezkotasuna eta reifikazioa

Soziologiaren hastapenetatik duen garrantziagatik, Giddens-ek, arreta berezia eskaintzen dio egituren determinismoari, hau da, gizarte-egiturek giza egintzarengan daukaten indar derrigorzailerari. Dagoeneko ikusi dugunez, Estrukturazioaren teoriak defendatzen du gizarte-egiturak, daukan bikoiztasunagatik, giza egintzaren derrigorzaileria zein hornitzailea dela; hots, gizabanakoari mugak zein aukerak eskaintzen dizkiola.

Durkheim izan zen indar gehiagorekin teorizatu zuena gizarte-egiturek gizabanakoengan daukaten indar ezartzaile eta arautzailea. Soziologo frantsesaren arabera, gizartearen instituzioak gizabanakoak jaio aurretik existitzen dira eta gizabanakoak joan ostean ere indarrean jarraitzen dute; beraz, gizabanakoen gainetik, orokorra den izaera propioa daukate. Azken batean, gizarte-instituzioek giza gaineko errealitatea osatzen dute, gizabanakoengandik kanpo dagoen errealitatea. Giddens-ek onartu egiten du gizartearen ezaugarri estrukturalak gizabanakoen gainetik dagoen zerbait dela, batez ere denboran eta espazioan daukaten luzapenagatik; baina, bere ustez, hori onartzeak ez dakar inongo zailtasun logikorik Estrukturazioaren teoriarako, honetan baieztatzen dena ez baita aktoreek gizartea sortzen dutela, baizik eta sortuta dagoena produzitzen eta erreproduzitzen dutela euren *praxiaren* jarraipenaren bidez.

Autore ingelesak aurkeztuko du, gainera, bere teoriarekin lotuta dagoen denboraren kontzepzioa, zeinean hiru dimentsio ezberdin aipatuko dituen: eguneroko esperimentziaren denbora errepikakorra da, itzulgarria. Egunak eta sasoiak pasatzen dira baina etengabe itzultzen dira, “eguneroko” hitzak adierazten duen moduan denbora hau rutinan edo errepikakortasunean eratzen da. Baina, bigarren dimentsiora pasatuz, giza bizitzaren denbora, denbora mugatua da, itzulezina eta atzeraezina, heriotzaren muga dauka. Gorputzaren bizitza aurrera joan ahala, gizakiaren bizitza aurrera doa denbora atzeraezin batean. Azkenik, denboraren hirugarren dimentsioa dugu, giza gaineko denbora instituzionala; iraupen luzeko denbora, berriz ere itzulgarria den denbora, gizakien praktika errepikakorren baliabidea zein emaitza baita —egituraren

bikoiztasunak erakusten duen elementu substantibo nagusia¹⁴⁵. Denboraren kontzeptualizazio honen bidez, Giddens-ek, argiago azaldu dezake bere proposamen teorikoaren zenbait momentuan ilun xamarra den aspektu bat: Estrukturazioaren teoriatik ez da zuzena esatea eguneroko bizitzaren *praxi* errepikakorrek gizartearen modu instituzionalen “oinarria” direla, zehatzagoa eta zuzenagoa da esatea *praxi* errepikakorrek eta modu instituzionalizatuak elkar eratzen dutela.

Planteamendu hauekin, Giddens-ek errazago onartu dezake gizarte-egiturek daukaten gizakiengandik kanpoko izaera derrigortzailea; onartzen ez duena, ordea, kanpoaldekotasun eta derrigortasun hori nahitaezkotasuna bihurtzea da. Bere ustez, Durkheim-ek lotura hori egin zuen, hasierako obretan gizarte-zientziaren ikuskera naturalista bat bultzatu nahi zuelako. Arrazoi akademikoak tartean zirela, errealtate sozialean, errealtate naturalean dauden indar antzekoak aurkeztu nahi zituen, objektibismoa eta enpirismoa ezinbesteko baldintzak baitziren zientziaren arloan. Giddens-entzat, ingurune naturalak gizakientzat erakusten duen kanpoaldekotasuna eta gizarteak erakusten duena ez dira urrutik ere gauza bera, eta ez da zuzena, soziologiari bere nortasuna bilatzeko, gizarte-egituren nahitaezko derrigorrezkotasun objektiboa aldarrikatzea. Estrukturazioaren teoriak planteatzen du, berriz, gizarte-egiturak derrigortzaileak eta hornitzaileak direla, giza egintzarentzat mugak eta aukerak hornitzen ditu. Adibiderik adierazgarriena, berriz ere, hizkuntza izango da: “hizkuntza orok mugatzen du pentsamendua (eta egintza), sistema batean integraturik dauden zenbait elementu eta arau menderatu behar baitira, eta horrek mugak ezartzen ditu kognizioan zein aktibitatean. Baina, aldi berean, hizkuntza bat ikasteak izugarri handitzen ditu gizabanakoaren gaitasun kognitiboak eta praktikoak”¹⁴⁶.

Azterketa sozialek, beraz, bikoiztasun hori kontutan hartu behar dute, erreparatu behar diote aktoreen egintzari zein gizarte-egituren aspektu derrigortzaile eta hornitzaileei. Era berean, denboran eta espazioan etengabe aldatzen diren aspektuak direla kontuan eduki behar dute, hau da, kontestuak eskaintzen dituen aukerak eta mugak aldakorrek dira historikoki, baita zirkunstantzia horiek ulertzeko giza egintzak duen gaitasuna ere. Azken ideia hau aipatzen du Giddens-ek, pentsamendu marxistaren meritu handienetariko bat bezala; bere ustez horixe izan baitzen Marx-ek egin zuen ekarpen interesgarrienetariko bat, objektibismo estrukturala besarkatu aurretik eta diskurtso reifikatuak produzitzen hasi aurretik.

Kosifikazioa edo reifikazioa aipatu izan dugu Marx-en pentsamendura hurbildu garenean, Giddens-ek ere aipatzen digu kontzeptu hori adierazteko ezinbestekoa dela reifikazioaren izaera diskurtsiboa onartzea. Hau da, reifikazioa da kontingentzia ukatzen duen diskurtso mota bat; gizarte-sistemaren zenbait ezaugarri objetiboki emanda dauden ezaugarri sasi-naturalak direla interpretatzen du, euren izaera arautzaile eta derrigortzailea maila gorenera igoz. Hortaz, ezaugarri eta fenomeno sozialak giza *praxiaren* produkzioa eta erreprodukzioaren emaitza direla ezkututzen duen diskurtsoa da. Giddens-entzat diskurtso reifikatuak aktore sozialen artean zein zientifiko so-

¹⁴⁵ GIDDENS, A. *La constitución de la sociedad...* Amorrortu. Buenos Aires, 1995. Orr. 71.

¹⁴⁶ *Ibidem* (orr. 201).

zhalen artean aurkitzen ditugu eta, lehen aipatu dugun bezala, historikoki kontingenteak diren giza egintzaren produktu eta baldintzen naturalizazio diskurtsiboa, ideologiaren alderdi nagusia da bizitza sozialean. Dena den, diskurtso reifikatuek baieztatzen duten nahitaezkotasuna azaldu nahian eta bizitza sozialean erreproduzioak daukan indarra ulertzeko, Giddens-ek aipatzen du produkzioa eta erreproduzioaren eragile nagusia kontzientzi praktikoa dela eta ez diskurtsiboa; elkarrekiko jakintzak (“zeinekin nola jokatu”) bideratzen baitu, egunerokoan, aktoreak dituen elkarregintzak testuinguru bakoitzean. Hortaz, egiturazko zirkunstantziak aktoreak jokatzeo daukan ingurune soziala da (aukerak eta mugak eskaintzen dizkiona) eta, aldi berean, bere egintzaren emaitza da, normalean horrela antzematen ez bada ere: “giza egintza intentzionalak historia sortzen du, baina ez da intentzioan dagoen bezala burutzen den proiektu bat; ezin zaio norabide kontzienterik eman”¹⁴⁷. Esaldi horrekin Giddens-ek erreferentzia egiten dio Marx-en aforismo famatuari: “gizakiek euren historia egiten dute, baina ez beraiek aukeratzen dituzten zirkunstantzietan”; izan ere, Giddens-ek, Estrukturazioaren teoria aurkeztzen duen liburuaren sarreran horrela definitzen du bere liburua: Marx-en esaldi horren inguruko gogoeta zabala¹⁴⁸.

Elkarteak, organizazioak eta mugimenduak

Historiaren egileen auzi horretan apur bat gehiago sakontzeko, Giddens-ek, lan honetarako interesgarriak izango ditugun ideia batzuk luzatzen dizkigu. Bi kolektibitate nagusi ezberdintzen ditu elkarbizitza sozialean: elkartek eta organizazioak, eta biak bereizten ditu hirugarren kolektibitate mota batetik, mugimendu sozialak. Elkarreetan, gizarte-sistema guztietan bezala, produkzioa eta erreproduzioa, aktoreen *praxi* errepikakorrean eta, aldi berean, *praxi* horren bidez gertatzen da —elkarregintzaren eszenatokietan topaketak jazotzen dira eta aktoreek euren erregistroa egiten dute elkarloturik dauden rol-harremanak erreproduzitzen— baina, Giddens-ek, gizarte tradizionalekin lotzen du elkarreen kolektibitate mota. Horrela, elkarreetan legitimazio modu tradizionalak nagusitzen direla baieztatzen du; “lehen izan zena” nagusitzen da eguneroko bizitzaren jarraipenean. Tradizioak lotzen du eguneroko bizitzaren denbora itzulgarria, instituzioen iraupen luzeko denborarekin. Organizazioak eta mugimendu sozialak, ordea, klaseetan banatutako gizarte modernoek ezagutzea dira eta erakusten dute lehen deskribatu dugun aktoreen gaitasun hausnarkorra eta auto-zuzentzailea kolektibitateen ezaugarri moduan. Gaitasun kolektibo hori sortzen da informazioa biltzeko eta kontrolatzeko jardueratik, eta erreproduzio sozialaren zirkunstantzietan eragiteko erabiltzen da¹⁴⁹. Giddens-en ustez, gizarte moderno-

¹⁴⁷ *Ibidem* (orr. 63).

¹⁴⁸ *Ibidem* (orr. 22).

¹⁴⁹ Zentzu horretan, Giddens-ek azpimarratzen du idazketaren asmakizuna —ezinbestekoa informazioa biltzeko eta gordetzeko— haustura sakona ekarri zuela historian. Denbora eta espazioan zeuden mugak txikituz gain, tradizioaren izaera aldatu zuen ikustezina zena ikusgarri bihurtu baitzuen; tradizioa “tradizio bezala” ezaguna egiten denean (gauzak egiteko modu bat beste batzuen artean), fenomeno diskurtsibo bihurtzen da eta ondorioz interpretagarria. *Ibidem* (orr. 230).

etan jazotzen den tradizioaren atzerakadak eta etengabeko sekularizazioak, baldintza aproposak sortzen dituzte erakunde eta gizarte-mugimenduen gaitasun kolektibo hausnarkorra eta auto-zuzentzailean “historia” bera ikusteko. Zentzu horretan bat dator Touraine edo Blumer-rekin, eta organizazioak zein mugimendu sozialak “erabakiak hartzeko batasunak” edo “bizitza-ordenamendu berriak eratzekeo egitasmo kolektiboak” bezala ikusten ditu.

Erakunde eta mugimendu sozialen artean ikusten duen ezberdintasuna da bigarrenak ez duela kokapen finkorik, eta beraien barnean dagoen elkarregintzan, aktoreen jarrekek ez dute rolek daukaten definizio zehatza.

Kontutan hartu behar dugu Giddens-ek laurogeigarren hamarkadaren hasieran idatzi zituela ideia hauek, eta mugimendu sozialen azterketak ez zuen oraindik geroago izan duen garapena. Aipatu nahi izan ditugu, ordea, bete-betean lotzen dutelako geure lan honetan lotu nahi ditugun debate teorikoak: giza egintza/gizarte egitura eta giza mugimenduen papera gizarte-instituzioen etengabeko produkzioan eta gidaritzan.

Estrukturazioaren teoriaren aurkezpenarekin amaitzeko, Giddens-ek zein beste autore batzuk proposamen teoriko horretatik atera dituzten zenbait ondorio aipatuko ditugu.

Giddens-en ahalegin teorikoa laburbiltzeko esan genezake, lehenengo eta behin, fenomenologia, etnometodologia eta tradizio interpretatiboetan oinarrituta, positibismo eta estrukturalismoaren kritika zorrotza egiten duela. Ez da erortzen, ordea, subjektibismoaren tentazioan, eta giza elkarregintzaren dimentsio sinbolikoak gizartearen aspektu instituzionalekin uztartzen ditu. Horrexegatik, erreparatzen die, hain zuzen ere, egintzaren baldintza zehatzetan (denbora eta espazioan kokaturik) azaltzen diren arau-sistema eta baliabide-sistemi. Izan ere, eguneroko elkarregintza rutinarioa gizartearen dimentsio estrukturalekin lotuta dagoela ikustarazteko, denboran eta espazioan ordenaturik dagoen *praxi* soziala jarriko du abiapuntu; *praxian* azalduko da gizabanakoek kontzientzian (diskurtsiboan zein praktikoan) dagoen gaitasun erreflexiboa eta elkarrekiko jakintza, batetik, eta etengabe produzitzen eta erreproduzitzen dituen ezaugarri estrukturalak, bestetik. Eskema interpretatiboekin, baliabideekin eta arauekin lotuta dauden ezaugarri horiek, egintzarako baldintzak ezartzen dituzte —mugak eta aukerak eskainiz— baina, aldi berean, giza egintzaren eta elkarregintzaren emaitza dira (hizkuntza bezala, geure baliabidea da komunikatzeko eta aldi berean geure hiztun-jarduerari esker existitzen da). Bikoiztasun hori gizartearen produkzioa eta erreprodukzioaren ezaugarri nagusia da, horrexegatik gizartearen produkzioa eta aldaketa estrukturazioaren etengabeko prozesu dinamikoa kontsidera dezakegu.

Teoria honen ondorioak maila ezberdinetan aztertu daitezke, guk geure lanerako baliagarriak diren batzuk azpimarratuko ditugu:

- Gizartearen produkzioa eta erreprodukzioa ez da prozesu mekanikoen emaitza, baizik eta partaideen gaitasunen bidez lortzen den burutzapen konplexua. Horrek ez du esan nahi agenteek euren abildadeen ezagutza kontzientea daukatenik, edo gaitasun horiek noiz eta nola erabiltzen dituzten badakitenik; ho-

rrexegatik, bizitza soziala ez da bakarrik egintzaren asmo intentzionalen emaitza.

- Iraupen luzeko denbora instituzionalean produzitzen eta erreproduzitzen ari diren ezaugarri estrukturalak giza egintzaren testuingurua (eta emaitza) dira. Giza egintzaren nagusitasuna, beraz, mugatua da. Agenteeek gizartea produzitzen dute baina historikoki kokaturik dauden aktore bezala eta ez beraiek aukeratzeko dituzten baldintzetan.
- Ezaugarri estrukturalak mugak ezartzen dizkiote giza egintzari (koakzioa, derrigorrezkotasuna), baina giza egintza ahalbideratzen dute ere. Gizabanakoari bere egintza garatzeko aukerak hornitzen dizkio. Gizarte-egiturak praktika errepikakorren bidez etengabe estrukturatzen ari diren egiturak dira; giza egintzaren bidez gizarte-egiturak eratzen dira, eta gizarte-egituren bidez giza egintza eratzen da.

Estrukturazioaren prozesu horietan elkarlotuta azaltzen dira eskema interpretatiiboak (komunikazioa), baliabideak (boterea) eta arauak (zilegitasuna). Eta horien bidez esangura, menderaketa eta legitimazioa.

2.3. Pierre Bourdieu: zentzutasun praktikoa eta *habitus*a

Azkeneko hamarkadetan bere lan teorikoagatik nabarmendu den beste soziologo bat Pierre Bourdieu frantsesa izan da. Bai helburuei dagokionez zein ikuspegiari dagokionez, bere lana Giddens-en lanarekin parekatu daiteke; esan genezake, ordea, Giddens, fenomenologia, etnometodologia eta giza egintzaren tradizio konprentsiiboen berrirakurketa eginez abiatzen den bitartean, Bourdieu-k estrukturalismo frantse- sa izango duela abiapuntu. Iturburu ezberdinak, beraz, baina helburu berdinak, eta elkarrengandik oso urrun ez dauden ikuspegiak proposatzeko.

Bourdieu-ren obra ezberdinetan oso garrantzitsua da klase sozialen azterketa, guri gehien interesatuko zaiguna, ordea, analisi horretarako erabiltzen duen tresneria kontzeptuala izango da; gizartea aztertzeke modu berri bat plazaratuko baitu eta, horrekin batera, begirada soziologiko eta zientifikoak dituen zenbait aje eta arrisku agerrazi ere.

Ezberdinketa (1979) izeneko liburuan aurkeztu zuen Bourdieu-k bere ikuspegiaren garapena, baina beste hainbat liburutan aplikatu ditu bere kategoriak: *Zentzutasun praktikoa* (1980), *Hitz egiteak esan nahi duena. Elkartruke lingüistikoaren ekonomia* (1982), *Esandakoak* (1987), *Artearen arauak. Eremita literarioaren sorrera eta egitura* (1990) edo *Arrazoi praktikoa. Egintzaren teoriari buruz* (1994). Bourdieu-k gai ugari jorratu ditu zorrotasun eta originaltasun handiz, baina bere obraren oparotasunean beti eutsi egin dio hasieratik proposatu zuen ikuspegiari. Espazio sozialean dauden kokapen edo posizio ezberdinen arteko erlazioak aztertu ditu, eta kokapen bakoitzean dagoen kapital ekonomikoa, kulturala eta sinbolikoa zehatz arakatu ditu. Izan ere, “errealitate substantzialak” (gizabanakoak, taldeak,...) bigarren mailan utziz, “erlazioak” izango dira bere interesgune nagusia. Horrekin batera, *habitus*

kontzeptuan oinarritzen den praktikaren teoria, funtsezkoa izan da bere azterketa guztietan. Bere ikuspegiaren bigarren aspektu horretan zentratuko gara, hain zuzen ere, autoreak gizarte-egitura eta giza egintzaren arteko zatiketa gainditzeko egiten duen proposamena detaile gehiagorekin ezagutzeko.

Pierre Bourdieu-k berak aitortzen duenez, bere lanaren intentziorik garrantzitsuen eta etengabekoena objektibismo eta subjektibismoaren arteko aurkakotasuna gainditzearena da¹⁵⁰. Autore frantsesak diosku gizarte zientziak (antropologia, soziologia zein historia) kulunka ari direla itxuraz bateraezinak eta ezkonezinak diren bi punturen artean, objektibismoa eta subjektibismoa. Bere ustez, pentsamendu sozialaren historian banaketa hori behin eta berriz agertzeak mundu soziala aztertzeke bi ikuspegiak beharrezkoak direla adierazten digu. Ondorengo lerroetan laburbilduko dugu nola ikusten dituen Bourdieu-k bi tradizio nagusi horiek.

Objektibismoak errealitate sozialean dauden erregulartasun objektiboei erreparatzen die (egiturak, legeak, harreman-sistemak, etab...), eta gizabanakoen kontzientzia edo borondatetik erabat independenteak balira kontzeptualizatzen ditu. Durkheim eta Marx izango ziren, Bourdieu-ren ustez, ikuspegi hori zorrotasun gehiagorekin aplikatu zutenak: “bizitza soziala ezin da azaldu partaideen kontzepzioen arabera, baizik eta kontzientziatik kanpo dauden sakoneko arrazoen arabera”¹⁵¹. Bourdieu-rentzat ikuspegi objektibista “lege sozialen fetitxismoan” erortzen da: egitura, ekoizpen-modua, kultura edo klase soziala bezalako abstrakzioak, gizabanakoen praktikak azaltzeko sortutako kontzeptuak direnak, reifikatzen ditu eta eraginkortasun soziala atxikitzen die; hau da, gizabanako eta taldeetatik aparteko existentzia, eta gizabanakoen praktikak zuzenean determinatzeko boterea ematen die. Horrela, objektibismoak kontzeptualizatzen du historia “subjekturik gabeko prozesua” bailitzan, eta gizabanakoak abstrakzio horien “euskarri” inkontzienteak dira; egiturak euren legeen arabera garatzen dira etengabeko auto-gauzatze prozesu batean.

Subjektibismoak, beste aldetik, eguneroko bizitzan gizakiok errealitatea interpretatzeko erabiltzen ditugun zentzutasunezko erreferentziei erreparatuko die. Erreferente sinboliko horiek (esangura, zentzua, errepresentazioak, etab.) dira gizakiaren portaera motibatzen eta determinatzen dutenak, eta horien bidez sortzen dute aktoreek mundu soziala. Schutz eta etnometodologoengan ikusten du Bourdieu-k ikuspegi subjektibistaren adibiderik paradigmaticoena. Gizabanakoaren eguneroko esperientzia eta, batez ere, esperientzia horretan abian jartzen diren hartu-eman sinbolikoak ikasketa-objektu nagusi gisa hartzeak, ordea, arrisku batzuk ditu, Bourdieu-ren ustez: lehenengoa izan da eguneroko giza esperientzia horren baldintza objektiboak kontuan ez hartzea eta, ondorioz, espazio sozialean gizabanakoek daukaten kokapen objektiboa azterketatik kanpo uztea. Bigarren arrisku bat gehiegizko indibidualismoa eta sinbolismoa litzateke. Bourdieu-ren ustez, azterketa soziologikoak ezin du begibestatik galdu ordenamendu soziala ez dela gizabanakoen metaketa mekaniko baten emaitza,

¹⁵⁰ “Espazio soziala eta botere sinbolikoa” BOURDIEU, P. *Cosas dichas* liburuan. Gedisa. Bartzelona, 1988. Orr. 129.

¹⁵¹ *Ibidem* (orr. 128).

mundu soziala ez da soilik agenteek egiten dituzten irakurketak edo errepresentazioak. Azkenik, agenteek ez dute etengabe sortzen mundu sozialaren errepresentazio eta zentzu berriak, subjektibismo boluntaristak (Jean Paul Sartre-rena, adibidez) kontzeptualizatzen du agenteen praktika borondate eta sormen intenzionalaren arabera, testuingurutik eratorritako mugak kontuan hartu gabe. Ondorioz, gizarte-aldaketa edota inertzia historiko iraultzea gizabanakoen kontzientzia eta egintzaren esku uzten du, “subjektu historikoen” (indibidualak zein kolektiboak) gidaritza-ahalmena gehiegituz¹⁵².

Pentsamendu sozialean nagusitu diren bi joera horien aurrean, Bourdieu-ren planteamendua ikuspegi bakoitzeko zenbait elementu onartzea eta integratzea izango da. Horrela, Bourdieu-k ezaugarri objektiboak eta ezaugarri sinbolikoak ikusten ditu errealitate sozialean; izaera materiala daukaten elementu objektiboak, giza gorputzak adibidez, zenbatu eta neurri ditzakegu; bestaldetik, ezaugarri sinbolikoak, elementu objektiboen giza pertzepzio eta interpretaziotik eratortzen dira, elementu objektibo eta materialei esanahi ezberdintzaile asko eransten baitzaie¹⁵³. Bourdieu-ren ikuspegiari, mundu sozialean egitura objektiboak daudela onartzen da, agenteen kontzientzia eta borondatetik independenteak direnak eta agenteen praktikak bideratzeko eta koakzionatzeko gaitasuna daukatenak, zentzu horretan estrukturalista da. Era berean, kontuan hartzen du errealitatea antzemateko, pentsatzeko eta eragiteko erabiltzen diren eskema eta errepresentazioak sorrera intersubjektiboa daukatela, alde horretatik konstruktibista da. “Estrukturalismo konstruktibista” da, hain zuzen ere, Bourdieu-k onartzen duen etiketa bere ikuspegia definitzeko¹⁵⁴. Mundu sozialak, beraz, izaera bikoitza du; alde batetik, historikoki eratu diren elementu instituzionalizatuak ditu eta, aldi berean, gizakiok euren elkarregintzan errealitatea antzemateko eta interpretatzeko sortzen dituzten elementu sinbolikoak ditu. Elementu sinbolikoak ezin dira baztertu, errealitatearen irakurketa eta interpretazio ezberdinen artean borroka sinbolikoa baitago; errealitatea modu batera edo bestera interpretatzeko eta eratuta dagoena mantentzeko edo aldatzeko borroka, alegia.

Subjektibismo eta objektibismoaren arteko aurkakotasuna gainditzea ezinbesteko urratsa da, Bourdieu-ren aburuz, mundu sozialaren berezko logika zientifikoki antze-man ahal izateko. Gizarte-azterketak badu bere momentu objektibista eta bere momentu subjektibista eta hartu-eman dialektikoan daude. Horrela, dialektika hori argien azaltzen den esparruan kokatu behar da gizarte-azterketa: praktika sozialen esparruan, gizakiaren aktibitate erreala. Giddens-ek bezala, Bourdieu-k *praxiaren* zentralitatea aldarrikatuko du, *praxian* azaltzen baita baldintza objektiboen eta jarra-rra subjektiboen arteko dialektika: baldintza instituzionalituek gizakion irakurketak eta jarrerak egituratu dituzte barneraturiko *habitus* batean, aldi berean, irakurketa eta

¹⁵² BOURDIEU, P. *El sentido práctico*. Taurus. Madril, 1991. Orr. 80.

¹⁵³ *Ibidem*. Orr. 227.

¹⁵⁴ “Espazio soziala eta botere sinbolikoa” BOURDIEU, P. *Cosas dichas* liburuan. Gedisa. Bartzelona, 1988. Orr. 127.

jarrera horiek, daukaten berezko autonomia eta efikaziarekin, egituratzen dute eratu-ta dauden gizarte-egiturak¹⁵⁵.

Hortaz, subjektu eta objektuaren arteko aurkakotasuna artifizia da, are gehiago, oztopo handia da mundu sozialaren berezko logika antzemateko. Bourdieu-rentzat, gizarte-zientziek antzeman behar dute aldi berean *instituzionalizatuta dagoena* —ahaztu barik borroka baten emaitza dela, denbora historikoaren momentu zehatz batean, dagoenari eusteko edo dagoena aldatzeko borrokaren emaitza aldakorra— eta subjektuen *errepresentazioak*, diskurtso performatiboak —iragartzen dutena gertatzea bilatzen dutenak—: “Antzeman behar dira egitura objektiboak eta subjektuek egitura horiekin dituzten hartu-emanak, egiturak aldatzeko nahiarekin hasita. Hori da bidea errealitatea modu egokian ulertzeko eta dauzkan posibilitateak aurreikusteko, edo zehatzago, errealitateak asmo subjektibo ezberdinei eskaintzen dien aukera objektiboak aurreikusteko”¹⁵⁶.

“*Errealia erlazionala da*”

Giza praxiaren nondik norakoak aztertzeko, Bourdieu-ren abiapuntua estrukturalismotik datorren planteamendu erlazionala da: errealitate soziala ikusiezinak diren hartu-eman multzo bat da, hartu-eman horiek kokapen ezberdinak dituen espazio soziala osatzen dute, eta kokapenak bata bestearen arabera definitzen dira (distantziaren arabera —hurbiltasuna edo urruntasuna—, edota kokapen erlatiboaren arabera —goian, behean, erdian—). Horrela, agenteak eta taldeak, kokapen ezberdinetan daude espazio sozialean. Baliabideen banaketa izango da kokapen batean edo beste an egotea eragiten duena eta baliabide edo ezberdintasun-printzipio nagusiak kapital ekonomikoa eta kapital kulturala dira. Agenteak urrunago egongo dira beraien artean bi aspektu edo dimentsio horietan urrunago egongo diren neurrian; elkarregintza izateko aukera gehiago izango dute, ordea, bi dimentsioetan hurbilago daudenean. Hasierako planteamendu hau Bourdieu-ren momentu estrukturalista da, bere hitzetan: “ikerketarako beharrezkoa den momentua”¹⁵⁷. Agenteen *praxira* hurbiltzeko eman beharreko hurrengo urratsa izango da kontzeptualki zehaztea nola espazio sozialaren kokapen (edo puntu) bakoitzean ikus(puntu) eta jarrera multzo bat (*habitus bat*) dagoen. Izan ere, agenteek errealitatearen ikuspuntu eta pertzepzio ezberdin bat daukate segun eta espazio sozial objektiboan daukaten kokapena¹⁵⁸. Bourdieu-k defendatzen du agenteek munduaren antzemate aktiboa daukatela, hau da, euren mundu-

¹⁵⁵ *Ibidem* (orr. 129).

¹⁵⁶ “La fuerza de la representación” BOURDIEU, P. *Qué significa hablar*. Akal. Madril, 1985. Orr. 92.

¹⁵⁷ “Espazio soziala eta botere sinbolikoa” BOURDIEU, P. *Cosas dichas* liburuan. Gedisa. Bartzelona, 1988. Orr. 130.

¹⁵⁸ Errealitatearen ikuspuntu, errepresentazio edo irakurketa horiek errealitate sozialaren parte dira (teoria soziologikoak diren bezalaxe zabaltzen diren neurrian) eta benetako sorkuntza-boterea bereganatu dezakete Marx-en teoriarekin gertatu zen moduan. *Ibidem* (Orr. 133).

ikuskeraz sortzen dute, baina kokapen sozial zehatz batetik; kokapen horrek eskaintzen dituen sailkapen eta eskema interpretatzaileekin.

Horrela, giza esperientziaren ezaugarri unibertsalik badago hori da hurbileko mundu soziala ez dugula jasotzen mundu kontingente bezala —aukera bat beste batzuen artean—, baizik eta zalantzan jartzen ez den mundu ebidente bezala, zentzutasunean oinarritutako mundu bat, naturala eta nahitaezkoa —gauzak dira izan behar diren moduan eta kito—. Hori hala da, Bourdieu-ren ustez, gizabanakoaren eskema kognitiboak eta baloratiboak mundu sozialaren egiturak barneratzearen emaitza direlako: “*Habitusaren* bidez zentzutasunean oinarritutako mundu soziala daukagu, ebidentea dirudien mundu soziala. (...) Horrela, mundu soziala ez da agertzen modu kaotikoan, halabeharrezkotasunik gabe eta edozein modutara eraiki daitekeen mundu bezala”¹⁵⁹. Azter dezagun zehaztasun gehiagorekin giltzarria den *Habitus* kontzeptua.

Egiturak, habitus, praktikak

Bourdieu-rentzat, subjektuak zentzutasun praktikoa daukaten agente kontzientziadunak dira. Zentzutasun praktikoa hori sistema oso bat da, barne hartzen dituen errealitatea ikusteko eta sailkatzeko printzipioak, aukeratzeko irizpideak —gustua— eta ekintzarako orientabideak; eta horrek guztiak bideratzen du egoeraren pertzepzioa eta erantzun moldatua. Hortaz, *habitus*a zentzu praktikoa da, egoera zehatz batean, nola jokatu behar den esaten duena. Bere ezaugarri nabarmenatariko bat modu praktikoa transmititzen dela izango da; hau da, maila diskurtsibora heldu barik, praktikatik praktikara. Norberak bere bizitzan izan dituen eta gaur egun dituen baldintzak, bere kokapen sozialari dagozkien elementu baldintzaileak dira eta *habitus* zehatz bat produzitzen dute; hots, joera-sistema iraunkor eta transferigarri bat gizarte-egituren arabera egituratu dena eta, aldi berean, gizarte-egiturak egituratzen dituen. Eman diezaiogun hitza Pierre Bourdieu-ri:

Historiaren produktua izanik, *habitusak* praktikak produzitzen ditu (indibidualak zein kolektiboak), beraz, historia produzitzen du, historiak berak sortu dituen printzipioen arabera. Antzinako esperientzien presentzia aktiboa ziurtatzen du; giza organismo bakoitzean dauden esperientzia horiek —antzemateko, pentsatzeko eta ekiteko printzipioen bidez— ageriko arauak eta lege formalek baino segurtasun gehiagorekin bermatzen dute praktiken adostasuna eta jarraipena denboran zehar. (...) Barne joerak —kanpoko barneratuta— kanpo indarren garapena ahalbideratzen dute, baina barneratuta dauden giza organismoen berezko logikaren arabera; hau da, modu iraunkorrean eta sistematikoan baina ez mekanikoan¹⁶⁰.

Bourdieu-ren planteamendua osatzeko kontuan hartu behar dugu *habitusak*, printzipio sortzaileen sistema gisa, pentsamendu, pertzepzio eta ekintza guztien produkzio librea ahalbideratzen duela; beti ere, bere produkzioaren baldintzek zehazten

¹⁵⁹ *Ibidem* (orr. 135).

¹⁶⁰ BOURDIEU, P. *El sentido práctico*. Taurus. Madril, 1991. Orr. 95.

dituzten mugen barne. Hau da, teorikoki *habitus*a produktuak sortzeko gaitasun mugagabea da —pentsamenduak, pertzepzioak, ekintzak...—, askatasun osoz sortzeko gaitasuna; baina, errealitatean, gaitasun mugatua da, beti baitauzka historikoki eta sozialki zehatzak diren produkzio-baldintza mugatzaile batzuk —sortzeko gaitasuna denbora eta espazio zehatzetan gauzatu behar baita eta testuinguru zehatz horiek baldintzaileak dituzte—. Bourdieu-rentzat, askatasun mugatu hori, urrun dago subjektibismo boluntaristak adierazten duen erabateko sormen berritzaile eta kontingentetik eta, era berean, urrun dago estrukturalistek defendatzen duten hasierako baldintzaileen erreprodukzio mekaniko hutsetik.

Beraz, *habitus*ak praktikak produzitzen ditu, baina ez modu automatikoan baizik eta baldintza eta gertaera zehatzekin dituen etengabeko topaketetan. Egoera eta gertaera arrunten aurrean, *habitus*ak jokaera zentzudunak sortzeko joera dauka; zentzu praktikoaren bidez, gizarte-esparru zehatz batean modu positiboan baloratuko diren jokaerak bultzatzen ditu. Horrela, gizarte-esparru horretan dagoen joko sozialaren aurreikuspena eginez, jokoaren logika erreproduzitzen du. Hala eta guztiz ere, *habitus*ak egoera edo gertaera bat arruntasunetik ateratzen badu, problematizatzen badu, erreproduzitaileak ez diren praktikak sor ditzake¹⁶¹.

Azken batean, dualismo tradizionalaren aurrean, Bourdieu-k egintzaren logika erreala aldarrikatzen du eta, *praxi* errealean, batera ikusten ditu historiaren objektibazio bi: gizabanakoengan dagoen objektibazioa eta gizarte-instituzioetan dagoena. Lehenengoak, *habitus*ak, zentzu praktiko gisa, instituzioetan objektibizatuta dagoen zentzua berraktibatzen du. Era berean, agenteak parte hartzen du, *habitus*aren bidez, instituzioetan objektibizatuta dagoen historian. *Praxian* agenteak bere egiten ditu instituzioak eta, horrela, bizirik eta aktiboak mantentzen ditu; biziberritzen du instituzioetan jasota dagoen zentzua baina, beti ere, berrikusketak eta aldaketak sartuz, hori baita berraktibaziorako ezinbestekoa den baldintza¹⁶².

Bourdieu-ri gehien interesatzen zaiona kokapen sozialetan dauden *habitus* ezberdinak dira. Izan ere, espazio sozialean dauden *habitus*ak, printzipio sortzaile ezberdinak diren aldetik, praktika ezberdinak eta ezberdintzaileak sortarazten dituzte: “Langileak jaten duena eta, batez ere, nola jaten duen; egiten duen kirola eta kirola egiteko era; edo iritzi politikoak eta iritziak adierazteko era; oso ezberdinak dira enpresari industrialaren ideia edo praktikekin alderatzen baditugu. (...) Praktiketan, ondare-jabe goan eta iritziatan dauden ezberdintasun horiek ezberdintasun sinbolikoak bihurtzen dira eta benetako hizkuntza bat osatzen dute, ikur ezberdintzaileen hizkuntza”¹⁶³.

¹⁶¹ *Ibidem* (orr. 97).

¹⁶² “Belaunaldien arteko gatazketan aurrez aurre daudenak ez dira ezaugarri natural ezberdinak dituzten adin-taldeak, baizik eta sortze-modu ezberdinak dituzten *habitus*ak, hau da, bizi-baldintza ezberdinek modu ezberdin batean definitzen dute ahal dena, ezin dena eta daitekeena. Bizi-baldintza horiek gonbidatuta adin-talde batekoak beste adin-taldekoarentzat pentsaezinak edo eskandalagarriak diren praktikak garatzen dituzte, eta alderantziz.” *Ibidem* (orr. 107).

¹⁶³ BOURDIEU, P. *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*. Anagrama. Madril, 1997. Orr. 20.

Horrela, Bourdieu-k “Ezberdinketaz” egiten duen analisisan, giza egintza itxuratzeko interesgarriak diren elementuak aurkituko ditugu. Esan dugun moduan, agenteen praktikak ezberdinak dira espazio sozialean daukaten kokapenaren arabera —eta kokapen bakoitzari dagozkion interesen arabera—, praktikek adierazten dute, beraz, kokapen soziala. Adibide esanguratsu bat: “Champagne edaten dutenak kontrajartzen dira whisky edaten dutenekin, baita ardo beltza edaten dutenekin ere. Champagne edaten dutenek, whisky edaten dutenek eta, batez ere, ardo beltza edaten dutenek baino joera askoz gehiago daukate antzinako altzariak erosten, golfean jokatzeko, zaldiz ibiltzen edo antzerkira maiz joaten”¹⁶⁴. Nahita edo nahiez praktikak ezberdintasunikurrak dira, horrexegatik, Bourdieu-k espazio soziala espazio sinboliko gisa funtzionatzeko joera daukala defendatzen du; hau da, espazio soziala sinbolikoak eta materialak diren distantzia ezberdintzaileen arabera egituratzen da, *status-talde* eta bitzita-estilo ezberdinak eratuz. Horrela, ezberdinketa-irizpide nagusi batzuk daude —ekonomikoa eta kulturala dira garrantzitsuenak Bourdieu-ren eskeman—, baina praktikak eta agenteak banatu daitezke eta antolatu daitezke beste irizpideen arabera: etnikoa, erlijiosoa edo nazionala, adibidez.

Bestaldetik, agenteek, banaketa eta ezberdintasun horiek antzematen dituzte beharrezkoak diren kategoriak barneratu dituztelako, baina mundu sozialaren banaketa horiek modu ezberdinez irakur eta adierazi daitezke. Kokapen eta ikuspuntu ezberdinak daudenez, kategoria eta hizkuntza ezberdinak erabiltzen dituzten irudikapenak daude. Ondorioz, norgehiagoka sinbolikoa sortzen da: mundu sozialaren irakurketa legitimoa zabaltzeko borroka. Arestian aipatu dugun moduan, borroka sinboliko horiek berezko logika daukate, hots, autonomia-tarte bat mantentzen dute oinarrian daukaten egiturekiko. Bourdieu-k, errealitatea interpretatzeko dagoen norgehiagoka hori, nortasun kolektiboak sortzeko boterearekin lotuko du; hau da, banaketak eta batasunak eratzeko boterearekin. Horrela, sexu, adin, maila ekonomikoa, nazio edo erlijioaren arabera dauden sailkapenak aldatzeko edo mantentzeko boterea, hitzekin erreallitateak sortzeko boterea da:

(...) Talde, genero, erlijio, nazio edo klase sozialaren arabera bereizten diren taldeak ez dira existitzen printzipio baten arabera beste taldeengandik bereiztu arte (...). Ezkutuak diren banaketa sozialak agerikoak egitea botere politiko gorena da: taldeak egiteko boterea, gizarte-egitura objektiboa manipulatzeko boterea¹⁶⁵.

Baina nortasun kolektiboak eta banaketa sozialak sortzeko boterea, alderdi sinbolikoa eta alderdi praktikoa duen lan kolektibo baten emaitza da. Hitzak ez dira nahiko. Horrela, Bourdieu-ren ustez, Marx-en akats nagusienetarikoa bat izan zen bere paperetan irudikatu zituen klase sozialak, benetako klase sozialak bailitzan kontsideratzea; hau da, espazio sozial berdinean egoteagatik, baldintza objektiboen homogenotasun horrexegatik, talde bateratu baten existentzia ondorioztatzea. Nominalismotik errealmora pasatzeko arrisku hori, espazio soziala kontzeptuaren bidez

¹⁶⁴ “Espazio soziala eta botere sinbolikoa” BOURDIEU, P. *Cosas dichas* liburuan. Gedisa.artzelona, 1988. Orr. 135.

¹⁶⁵ *Ibidem* (orr. 141).

uxatu daitekeela pentsatzen du Bourdieu-k; azken batean, klase sozialak aipatzen direnean, gehienetan subjektu kolektiboak baino ezberdinketa soziala adierazi nahi da, espazio sozialean dauden kokapen ezberdinak. Gizarte-Zientziak ez ditu klaseak sortu behar, baizik eta espazio sozialak, zeinetan klase batzuk ezberdin daitezke. Izan ere, etengabeko dialektikan daude batetik klasearen baldintzak, eta, bestetik, klasearen auto-pertzepzioa. Klase soziala kolektibo erreala eta iraunkorra izateko (antolatua, egituratua, mobilizagarria,...) lan politikoa behar da, teorikoa zein praktikoa. Bourdieu-ren ustez, bateratze eta antolaketa lan horrek aukera gehiago dauka agenteen artean distantzia gutxi dagoenean espazio sozialean; praktikak, jarrerak eta interesak hurbilagoak diren neurrian, errazago da elkarri identifikatzea eta egitasmo bateratu baten inguruan biltzea.

Mobilizazio kolektiboak ezin du arrakastarik izan ez badago gutxieneko bateratasuna agente mobilizatzaileek (liderrak, profetak,...) dituzten *habitusen* artean, eta praktika eta helburu horiekin identifikatzen direnen jarreraren artean; eta, batez ere, ez badago bapateko jarreraren bateratasunak sortzen duen taldea osatzeko joera¹⁶⁶.

Azken batean, Bourdieu-rentzat, egungo gizarte konplexuak kokapen ezberdinen arabera definitzen diren espazio sozialak dira, hau da, ezberdintasunezko egiturak dira. Autore frantsesaren arabera, gizarte edo espazio sozial bat konprenituko dugu bere printzipio ezberdintzaileak identifikatuko ditugun neurrian, eta hori lotuta dago tokian tokiko kapital eraginkorarekin eta boterearen banaketarekin¹⁶⁷. Horri gehitu behar zaio ikuspegi dinamiko bat, espazio sozialak daukan egitura eta topografia ez baita estatikoa; espazio soziala indarren esparrua da eta borroka esparrua ere; agenteak, baliabide eta helburu ezberdinekin, kontrajartzen dira euren kokapenaren arabera, eta egituraren aldaketa edo egituraren iraupena bultzatzen dute¹⁶⁸.

3. GIZA EGINTZAREN TEORIA ETA EGINTZA KOLEKTIBOIA

3.1. Giza egintzaren sormena: Hans Joas

Hans Joas, soziologo alemaniarra, gaur egungo teorilari garrantzitsuenetarikoa bat dugu pentsamendu soziologikoan. Giza egintza da bere kezka teorikoa nagusia; Chicagoko Eskolaren autore klasikoak sakonean aztertuz (J. Dewey, G.H. Mead, W.I. Thomas,...), tradizio soziologiko hori berreskuratuko du egungo debate teorikorako. Joas-en ustez, pentsamendu soziologikoan garatu diren giza egintzaren eredu nagusiek —egintza arrazionala eta normatiboki gidatutako egintza— ez dute behar bezala jasotzen giza egintzaren dimentsio sortzailea. Beharrezkoa da, beraz, egintza-eredu

¹⁶⁶ BOURDIEU, P. *El sentido práctico*. Taurus. Madril, 1991. Orr. 102-3.

¹⁶⁷ Hain konplexuak ez diren gizarteetan, kokapen sozialak kapital sinbolikoaren arabera (ospe, prestigioa, ohorea...) ezberdintzen dira. BOURDIEU, P. *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*. Anagrama. Madril, 1997. Orr. 48.

¹⁶⁸ *Ibidem* (orr. 49).

tradizional horiei beste eredu bat gehitzea, sormenaren dimentsioa azpimarratuko duena; are gehiago, Joas-en ustez, soilik giza egintzaren izaera sortzailea kontuan hartzen badugu, erabili ahal izango ditugu beste bi ereduak modu egokian.

Joas-en abiapuntua Parsons-en egintzaren teoria da: Parsons-ek, konbergentziaren teoriaren bidez, giza egintzaren ikusmolde utilitarista gainditu nahi du. Horretarako, lehen ikusi dugun bezala, giza egintzaren teoria boluntarista bat eta gizarte-ordenaren teoria normatibista bat proposatuko ditu. Izan ere, giza egintzaren ikusmolde utilitaristan, helburu pertsonalen arabera egintza indibidualista agertzen zaigu; baina ez da azaltzen aktoreen helburuak nola sortzen diren¹⁶⁹, eta ez da kontzeptualizatzeko gizarte-ordenaren arazoa —zer da gizarte-ordena posible egiten duena—. Parsons-en alternatibaren ordea, gizarte-ordenaren zergatia kolektiboki sortutako balio eta arau sozialetan oinarritua aurkezten zaigu; eta, beste aldetik, egintza utilitaristaren ereduak gainditu nahian, balio edo orientabide normatiboak, aktoreek definitzen dituzten helburu eta baliabideen sorburu bezala agertzen zaizkigu. “Baloreek” eta “arau sozialek” garrantzi handia izango dute Parsons-en egintzaren teorian, gizarte-ordenaren ikuspegi normatibista defendatu ahal izateko.

Joas-en ustez, Parsons-ek, estrategia integratzailea jarraitzen du eta tradizio teoriko bakoitzetik elementu batzuk hartzen ditu: “Positibismo erradikaletik, egintzaren azkeneko baldintzak eta egintzaren baliabide gisa, ingurunea eta oinordekotza dira hartzen dituen kontzeptuak; Utilitarismotik giza egintzan dagoen baliabide eta helmugaren arteko lotura hartzen du; pentsamendu idealistatik egintzaren azkeneko balioen kontzeptua hartzen du, gizabanakoaren helburu eta baliabide-hautaketaren oinarri gisa. (...) Azkenik, Parsons-ek, egintzaren teoriaren giltzarria den beste kontzeptu bat aipatzen du: esfortzua, hau da, egintzaren garapenean elementu normatiboak eta tes-tuinguruko elementuak elkarlotzen dituen indarra. Esfortzuari eman zion, maila analitikoak, Fisikan energiak daukan maila bera”¹⁷⁰.

Joas-ek, akats nabarmenak ikusten ditu Parsons-en konbergentziaren teorian, ondorengo hiru hauek azpimarratzen ditu: elkarregintza eta hartu-eman sozialak kontuan hartzeko zailtasunak (adostasun normatiboan integratzeko ez bada), argitasun falta desio egoistak eta interes arrazionalak ezberdintzeko eta, azkenik, arrazionaltasun instrumentalaren kritika sakonago bat sortzeko gaitasun falta. Hutsune horien aurrean bi aukera eraikitzaile egon daitezke, Joas-en aburuz; lehenengoa, konbergentziaren teoria baztertuz, Parsons-en giza egintzaren teoria berreskuratzea; bigarrena, konbergentziaren teoria bere momentu historikoan kokatuz, abiapuntu berri bat bilatzea Parsons-en teoriari egin zaizkion kritikak gainditzeko, eta giza egintzaren teoria soziologiko osatuago bat sortu ahal izateko. Joas-ek, Jeffrey Alexander ikusten du lehenengo ahaleginetan; berak, ordea, bigarren norabidean egingo du lan.

¹⁶⁹ Helburu edo interesen arabera egintza utilitaristan ez dira zehazten egintzaren aurrebaldintzak, beti berdinak eta begibistakoak balira. Testuingururik gabeko egintza azaltzen zaigu.

¹⁷⁰ JOAS, H. *The creativity of action*. Polity Press. Cambridge, 1996. Orr. 17.

Konbergentziaren teoria ulertzeko, giza egintzaren gainerako teoria soziologiko klasikoarekin gertatzen den bezala, beharrezkoa da kontuan hartzea egintza instrumentalarekiko daukan dependentzia. XIX. gizaldian, diziplina ekonomikoak, filosofia utilitaristan oinarritutako giza egintzaren eredu arrazionala garatu zuen; eredu horrek planteamendu berri bat ekarri zuen gizabanako indibidualen erabakiak aztertzeke, eta erabaki horien batuketa zein batuketa horretatik erator daitezkeen ondorioak aurreikusteko. Norberaren interesen arabera, helburu eta baliabideen arteko harreman emankorra azpimarratzen duen giza egintzaren ikusmolde utilitaristak, nabarmen erraztu zuen ikerketa enpirikoa giza zientzietan eta, horrexegatik, oso ongi etorria izan zen bereziki azterketa ekonomikoetan. Joas-en ustez, pentsamendu sozialean, bere interesei begira dagoen gizabanako autonomia, azterketa sozialaren abiapuntu natural moduan hartzea, begibistako aurreuste eztabaidaezina bihurtu zen. Izan ere, aurreiritzi hori oso lotuta dago mendebaldeko kultura indibidualistarekin eta, kontrako ahotsak beti egon badira ere, bere arrasto sakona aurkitu dezakegu psikologian, filosofian edota ekonomian¹⁷¹. Soziologian, printzipio indibidualisten aurkako jarrera etengabe agertuko zaigu; batetik, psikologia indibidualistaren esparrutik bereiztu beharra zegoelako, bestetik, soziologiak arlo ekonomikoan ez zeuden bestelako gizarte-arloak aztertu nahi zituelako; eta, azkenik, soziologiak beste giza egintza mota batzuk definitu beharra zeukalako, gizarte modernoaren ordenamendua azalduko zuen teoria bat behar zuelako —egintza indibidualen elkarlotura, norberaren interesean oinarritua, baino harantzago joango zen gizarte-teoria—. Izan ere, pentsamendu soziologikoak, bestelako giza egintza mota horiek kontzeptualizatu nahian eta gizarte-ordenaren teoriaren bila, giza egintzaren ardatz nagusi gisa, sozializazio bidez barneratutako adostasun normatiboa azpimarratuko du: “Soziologiaren klasikoek, kant-en filosofiari erreparatuko diote; hain zuzen ere, egintza arrazionalaren arrisku utilitaristengandik urruntzeko, egintza moralala eta askea kontzeptualizatzea”¹⁷². Pareto, Weber edo Durkheim-ek, euren testuinguru historikoan erabateko nagusitasuna zuen arrazionaltasun instrumentala erreferente nagusi gisa mantenduz —aurreuste psikologiko gisa, Durkheim-en kasuan; edo eredu ideala bezala, Weber-ren kasuan, giza egintzaren beste dimentsio batzuk azpimarratzen dituzte normatibismoaren norabidean. Parsons-ek, bere aldetik, autore klasiko horien azterketa hobetsiz eta giza zientzien beste tradizio batzuk baztertuz (Marxismoa, Espresibitatearen tradizio alemaniarra, Ipar Amerikako Pragmatismoa eta Chicagoko Eskolaren aplikapen soziologikoa), autore klasikoen arazo berdinak birproduzitu zituen. Teoria ekonomikoaren egintza arrazionaletik aldendu nahian, nahiz eta ikuspegi boluntarista batekin hasi, giza egintzaren ikuspegi normatibista garatu zuen: egoera objektiboaren, bere baldintza eta baliabideekin, eta gizabanakoaren helmuga subjektiboen artean, arau sozialak dira helmugen definizioa eta baliabideen aukeraketa erregulatzen dutenak. Giza esfortzuari geratzen zaion zeregina baliabideak arau sozialen norabidean erabiltzea da. Joas-en irudikoz, ordea, egintzaren eredu horrek —gizabanakoak barnera-

¹⁷¹ *Ibidem* (orr. 184-5).

¹⁷² JOAS, H. *El pragmatismo y la teoría de la sociedad*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madrid, 1998. Orr. 282.

turiko balio eta arau sozialen arabera gidaturiko egintzak— baztertu egiten ditu giza egintzaren alderdi sortzaileak.

Joas-ek ez du ahazten, ordea, sormenarekin lotuta dauden giza egintzaren dimentsioak egon badaudela soziologo klasikoen pentsamenduan; Durkheim-en erri-tual sakratua eta erlijioaren soziologiak, edo Weber-ren Karismaren teoriak, autore horiek aztertu dugunean aipatu dugun bezala, giza egintza eta elkarregintzaren kontingentzia eta gaitasun sortzailea azpimarratzen baitituzte. Izan ere, Parsons-en konbergentziaren teorian, klasikoen bi atal horiek harremanetan jartzea teoriaren puntu arrakastatsu bat izan zen baina, Joas-en ustez, lotura heuristiko horrek ez gaitu jartzen giza egintzaren ikusmolde normatibistari begira, baizik eta egintzaren eredu osatua-go baten arrastoan; hain zuzen ere, pragmatismoak proposatu zuen bezala, giza egintza sortzailearen arrastoan¹⁷³.

Horiek horrela, Hans Joas-ek, Parsons-i eta pentsamendu soziologikoaren klasiko tipikoei leporatzen diena zera da, arrazionaltasun utilitarista gainditu nahian baina berarekiko nolabaiteko menpekotasun teorikoa mantenduz, giza egintzaren alderdi normatiboei gehiegizko garrantzia ematea, eta giza egintzak berezkoak dituen dimentsio sortzaile eta berritzaileak euren teoria sozialetan ez integratzea. Joas-en planteamenduan, Parsons eta soziologiaren autore klasikoek, giza egintzaren teoria garatu zuten ondoko galdera honetatik abiatu: Zein dimentsio gehitu behar diogu bere helburuen atzetik modu arrazionalen dabilen aktore bakartiaren irudi utilitaristari, pentsatu behar badugu gizarte-ordenaren existentzia? Pragmatismoa, ordea, ez da abiatuko galdera horretatik: pragmatismoak utilitarismoaren kritika egingo du, baina giza egintza eta gizarte-ordenaren arteko harremanaren kezka izan ordez, giza egintza eta kontzientziaren arteko harremanaren kezka izango du. Zentzu horretan, bat egingo du giza zientzietan oso aspaldikoa zen kezka horrekin:

Ilustrazioaren kontrako erantzun alemaniarak, Herder, Humboldt eta romantizismo alemaniarak, espresibitatearen antropologia bultzatu zuen. Horrek ahalbidetu zuen hizkuntza eta artea, lehenengo, eta giza egintza oro, geroago, pertsonaren auto-espresibitate bezala interpretatzea. Berrikuntza horrek izan zuen eragina oso anitza izan zen: Hegel-en izpirituaren kontzeptua, Marx-en lanaren ideia, Dilthey-en hermeneutika edo Plessner-ren antropologia. Ikuspegi guzti horien interpretapenetan, modu ezberdinez, giza egintzaren izaera sortzailea antzematen dute. EEBBetan sortutako pragmatismoa giza egintzaren sormena interpretatzeko modu berri bat da, oso-osorik originala eta autonomoa. Pragmatismoarentzat, norabidea markatzen duen metafora ez da adierazpen poetikoa, ez produkzio materiala, ezta gizartearen eraldaketa iraultzailea ere, baizik eta inteligentzia esperimenteralean oinarritutako arazoan konponbide sortzailea¹⁷⁴.

Hans Joas-ek, giza egintzaren teoria birformulatu ahal izateko, sormena berreskuratu nahi du tradizio soziologikoan izan duen toki marjinaletik; horretarako, G.H.

¹⁷³ JOAS, H. *The creativity of action*. Polity Press. Cambridge, 1996. Orr. 44.

¹⁷⁴ JOAS, H. *El pragmatismo y la teoría de la sociedad*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madrid, 1998. Orr. 282.

Mead zein J.Dewey-en filosofia pragmatikoan eta Chicagoko Eskolaren aplikapen soziologikoan aurkituko ditu bilatzen dituen oinarri teorikoak.

Giza egintzaren ikuspegi utilitarista: hutsuneak eta aurreusteak

Joas-en ustez, fenomenologian, etnometodologian eta elkarrizketaren analisisian oso ekarpen enpiriko interesgarriak egin badira ere, hortik ez da eratorri egintza instrumentala oinarritzat hartuko ez duen egintzaren teoria alternatibo bat; alternatiba hori sortzeko, lehenengo eta behin zehaztu behar dira egintzaren eredu utilitaristak dituen hutsuneak eta, bigarrenez, agerian utzi behar dira egintza arrazional horren ez-kutuko aurreusteak.

Hutsuneei dagokionez, utilitarismoan, gizabanakoaren egintza testuingururik gabeko egintza isolatu gisa agertzen zaigu. Egintza oro, ordea, egoera zehatz batean gertatzen da, eta aktoreak ez du egintza bakar hori burutu; egintzak, beraz, badu bere testuinguru zehatza eta bere testuinguru biografikoa. Beste hutsune larri bat ondoko hau dugu: egintza arrazionalan oinarritzen diren teoriak, arrazionalak ez diren beste giza egintza motak kontuan hartzen dituztenean, nolabaiteko sailkapen baloratibo bat osatzen dute; giza egintzaren aniztasun fenomenologikoa instrumentalismoaren arabera-ko sailkapen horretara murriztuz¹⁷⁵.

Egintza arrazionalaren ezkutuko aurreusteei dagokionez, Joas-ek aztertu beharreko hiru aurreuste aipatzen ditu: 1) Ziurtzat hartzea aktorea egintza intentzionala burutzeko gauza dela. 2) Ziurtzat hartzea aktoreak bere gorputzaren kontrola daukala. 3) Ziurtzat hartzea gizabanakoa erabat autonomoa dela beste aktorekiko eta testuinguruarekiko. Horren arabera, aktoreak, intentzionalitateari dagokionez maila baxua erakusten badu, gorputzaren kontrola eskasa edo txikia badu eta bere autonomiaren abdikazioa egiten badu, orduan arrazionaltasun gutxikoa edo ez-arrazionalatzat hartuko dugu. Joas-en ondorioa, beraz, oso kategorikoa da: gehienetan egintza arrazionalaren aurrebaldintzak ez dira aurkitzen behaketa enpirikoan. Egintza-eredu horrek gizarte-fenomeno batzuetan izan dezakeen erabilpena ukatu barik, ez zaio posible iruditzen aurrebaldintza horiek giza egintzaren arlo guztietan aurkitzea. Ezinbestekoa dirudi, beraz, giza egintzaren teoria birformulatzea hiru aurreuste horiei begira: giza egintzaren izaera intentzionala aztertzea, gorputzak giza egintzan daukan funtzioa identifikatzea eta giza egintzaren izaera soziala eta intersubjektiboa zehaztea. Aurrerago ikusiko dugunez, azterketa horietatik ondorioztatzen dena giza egintzaren izaera sortzailea da, eta Pragmatismoa izango da egintzaren teoria alternatibo horren euskarri filosofikoa.

¹⁷⁵ Hori horrela da arrazionaltasunaren definio ezberdinak hartuta ere: arrazionaltasuna modu hertsian definitzen badugu, hots, "efikaziarik handiena helburuen lorpenean", helburuen eta interes indibidualaren eta kolektiboaren artean dagoen erlazioa zabalik uzten dugu interpretapen ezberdinetarako. Era berean, arrazionaltasunaren definizio zabalago bat erabiltzen badugu eta, Kant-ekin batera, egintza moralak *per se* arrazionala ikusten badugu; orduan emozioak, berezkotasunak edo norberaren interesen bilatze amoralak gidatutako egintza, irrazionalatzat hartu beharko dugu. JOAS, H. *The creativity of action*. Polity Press. Cambridge, 1996. Orr. 146.

Pragmatismoak pentsamendu soziologikoan izan zuen eragina George Herbert Mead eta John Dewey-en bitartez eman zen. Aipatu bezala, Mead-en pentsamendua bultzatu zuena ez zen izan giza egintza eta gizarte-ordenaren arteko harremana, egintza eta kontzientziaren artekoa baizik. Joas-ek azpimarratzen duen moduan, planteamendu horrek errotik aldatzen du giza egintzaren intentzionalitatearen esanahia; egintza ez da aurretik zehaztutako helburu bat gauzatzea —indibidualki kalkulatu edo normatiboki barneratua—, helburuen definizioa ez baita egintzaren testuingurutik kanpo gertatzen den kontzientzia-ariketa bat. Aktoreak norabide ezberdinetako jorakerak edo inpultsoak jarraitzen ditu eta, batzutan, inpultso horietako bat aukeratzen du egintzaren orientabide eta helburu nagusi gisa, baina soilik norberak bere barnean edo kanpoan aurkituko dituen erresistentzi eta mugek eramango dute aktorea aukera ezberdinak murriztera eta jokaera-ildo argi bat hartzera. Are gehiago, egintzaren norabidea ez da behin betiko definitzen, elkarregintza intersubjektiboaren eraginez etengabeko berrikusketa eta saio experimentalak egitea da arruntena.

John Dewey-ek ere intentzionalitatearen berrikusketa zorrotza egin zuen. Berarentzat, egintzaren helburu eta baliabideen artean dagoen erlazioa ez da planteamenduan instrumentalean agertzen den bezain sinplea. Hasteko, egintzaren helburua eta egintzaren emaitza ez da izaten gauza bera; helburuak izaten dira nahi diren emaitzen aurreikuspen bat eta, aurreikuspen bezala, orainaldian daude eta elkarrekiko hartu-eman dute egintzaren baliabideekin eta oharkabean ditugun ohitura, jokabide eta ingurunean egoteko moduekin. Ezin dugu, beraz, helburuen ikuspegi teleologikoa izan, ezin dugu intentzionalitatearen ikuspegi teleologiko-instrumentala izan alde batera utziz aktorearen baldintza biografikoak eta unean uneko egoeraren baldintzak. Are gehiago, ohiturak, inguruarekiko jokabideak eta gorputzaren gaitasunak *background* moduko bat dira geure helburuen zehaztapen kontzientean. Hortaz, teleologikoa ez den ikuspegi honetan argi geratzen da giza egintzaren izaera kontingentea: “Aitortu behar dugu, egoera, egintzaren parte eratzailea dela. (...) Ohitura eta jokabide guztietan badago printzipio ezkutu bat esaten diguna nolako egoeretan komeni den jokabide edo ohitura horren arabera jokatzeko. Oro har, egoera bakoitzaz daukagun pertzepzioan badago nolabaiteko ustea egoerari dagokion jokaeraren inguruan. Horrek argitzen du egoerak ez direla egintzarako gune neutralak, ez dira egoeratik kanpo zehaztu ditugun helburuak edo intentzioak garatzeko guneak; baizik eta hasieratik, pertzepziotik, jokaera zehatzak eragiten dizkiguten guneak”¹⁷⁶.

Dewey-ren proposamena jarraituz, Joas-ek azpimarratu nahi du “egoera” funtsezko osagaia dela egintzaren teorian; euskarazko kontzeptuak argiro adierazten duenez egoerak egoteko era bat markatzen baitu. Joas, ordea, berehala konturatzen da pentsamendu-ildo horretatik jarraituz gero ailegatu nahi ez duen toki batera ailegatzeko delako: determinismo normatibora. Hori saihestearren beharrezkoa ikusten du onartzea aktoreak badaukala helburu zehatz batzuekiko alde aurretiko asmoa eta jarraia; askotan, maila ez-kontzientean edo aurre-erreflexiboan dauden asmoak. Egoerarekiko alde aurretikoak diren asmo edo intentzionalitate aurre-erreflexibo horiek,

¹⁷⁶ *Ibidem* (orr. 160).

geure behar, balio, interes edo arauen araberakoak izango dira, eta Joase-ek gorpuztean kokatzen ditu; horrexegatik teorizatuko du ere giza egintzaren gorpuztasuna. Orain gehien interesatzen zaiguna, ordea, egoeraren eta asmo aurre-erreflexiboen arteko dialektika da; egoeraren araberako orientabidea eta intenzionalitatearen orientabidea elkarrekiko hartu-emanen baitaude, egoerak erronka egiten dio geure intenzioari eta erronka horri emango diogun erantzuna izango da burutuko dugun egintza. Joas-ek horrela adieraziko du:

Intenzionalitatea proposatzen dudan erara ulertzen badugu, helburuen zehaztapena egoera zehatz baten emaitza izango da, zeinean aktoreak ezin ditu jarraitu modu aurre-erreflexiboen gidatutako jokabideak. Egoera horretan aktoreak, halabeharrez, jarrera erreflexibo bat hartu behar du bere asmo aurre-erreflexiboen inguruan¹⁷⁷.

Hortaz, helburuen zehaztapena ez da aktoreak modu autonomoan eta kanpotik inongo eraginik jaso gabe egiten duen zeregin bat, baizik eta egoera batean aktoreak definitu behar duen zerbait; bere hasierako asmoak modu sortzailean moldatu behar ditu egoeraren arabera.

Giza egintzaren intenzionalitatea sakonean aztertu ostean eta horren inguruan egon diren aurreuste ezkutua hausnartu eta gero, Joas giza egintzaren eredu instrumentalean ikusten duen bigarren aurreuste inplizitua aztertzerako datorki: giza egintzaren gorpuztasuna eta aktoreak duen gorpuztaren kontrola.

Gorputza ez da agertzen giza egintzaren teoria gehienetan, inplizituki baina, onztat ematen da aktoreak bere gorputza kontrolatzen duela bere asmo edo intenzioen lorpenean erabiltzeko. Gorputza, beraz, egintzaren oinarri fisikoa bailitzan ulertzen da, beti ere modu inplizituan. Joas-ek giza egintzaren kontzeptualizazioan gorpuztasuna kontuan hartzeko beharra aldarrikatzen du eta horretarako bi arrazoi nagusi aipatzen ditu: lehenengo eta behin, egintzaren teoriari leporatzen zaion aktibismoaren gorapamenaz defendatzeko. Hau da, egintzaren teoriak munduarekiko jarrera aktibista edo esku-hartzaile bat hobesten badu, garai edo kultura zehatz bati dagokion jarrera da eta, ondorioz, bertan behera geratzen dira teoriaren asmo unibertsalistak giza egintzaren azalpenean. Izan ere, ezustean gertatzen diren gauzak onartzeko joera edo bizitzaren patua onartzeko joera ez baditugu balio gutxiagoko jarreratzat hartu nahi, egintzaren kontzeptuak barne hartu behar du pasibotasuna. Horretarako, Joas-en aburuz, giza egintzaren kontzeptuak ez dio erreparatu behar gizabanakoen etengabeko aktibitateari, baizik eta gizakiak, organismo gisa, bere ingurugiroarekin duen hartu-emanaren egiturari. Egintzaren teorian gorpuztasuna kontuan hartzeko bigarren arrazoi lotuta dago gorputza instrumentu hutsa bailitzan kontzeptualizatzearekin. Berriz ere, gorputza intenzionalitateak erabiltzen duen tresna gisa agertzen da, modu inplizituan, giza egintzaren teoria gehienetan: egintza instrumentalerako tresna tekniko bezala, edo egintza normatiborako kontrolpeko bitarteko bezala.

¹⁷⁷ JOAS, H. *The creativity of action*. Polity Press. Cambridge, 1996. Orr. 162. Joas-ek hitzez hitz aipatu dugun ideia horri ondorengoa gehitzen dio: Parsons-ek ziurtatzen eman zuen aktorearen intenzioak edo balioak eta egoerak eskatzen zuena gauza bera zirela, baina horrela bada eta aktoreak barneratutako balioen arabera jokatzeko badu, egintza erabat autonomoa eta aldagaitza litzateke.

Hans Joas, pragmatismoan, fenomenologian eta filosofia antropologikoan oinarriturik, ahalegintzen da egintzaren ikuskera aktibista eta gorputzaren ulerkera instrumentala gainditzen. Horretarako, giza egintzaren beste irakurketa bat iradokitzen duten bi ideia nagusi aipatzen ditu: intenzionalitate pasiboa eta intenzionalitatearen galera esanguratsua. *Intenzionalitate pasiboak* erreparatzen die egintza mota zehatz batzuei, hain zuzen ere, gorputzaren kontrola nahita askatzen duten horiei. Joas-ek erabiltzen duen adibidea lokartzearena da: lokartuta geratu nahi badugu eta “aktiboki” ahalegintzen bagara asmo edo helburu horretan, geure ahalegina alferrekoa izango da; geure helburua lortzeko, ordea, badakigu loak hartuko gaituela, gorputz-ezarrera eta gorputz-jarreraren bidez ahalbidetzen eta sustatzen badugu lokartzeko intenzionalitatea. Berriz ere, hizkuntzak berak iradokitzen digu ideia hori, “loak hartu nau” adierazpidean, hain zuzen ere: guk ez dugu aktiboki lo hartzen, loak hartzen gaitu baldintza egokiak eta, tarteko aldi batez, gorputz-jarrera egokia ahalbidetzen baditugu. Batzutan, lo hartu nahi dugu eta ez dugu lortzen; eta, alderantziz ere, beste batzutan, guk nahi gabe, loak hartzen gaitu. Joas-ek ez ditu adibide gehiagorik aipatzen baina esaten digu sexualitatearen arloan aurkitu daitezkeela ere antzeko adibideak¹⁷⁸.

Bestaldetik, *Intenzionalitatearen galera esanguratsua*, planteamendu interesgarria da geure intenzionalitatearekin sortzen ez ditugun giza gorputzaren jokaera batzuk aztertzeko. Geure desio edo asmoen kontra doazen jokaerak, hain zuzen ere; adibidez, lotsagatik aurpegia gorritzen denean, edo ehunetik ehunean nahita egiten ez diren barrea eta negarra. Egintza horietan, batzutan, gorputzaren kontrola galtzen dugu; berak aginduko balu bezala, geure gorputza dominatzeko ditugun mugak agertzen dira. Gorputza askatu egiten da eta, kontrolatzen ez dugulako, adierazgarritasun handiko egintzak burutzen ditugu. Joase-en ustez, *intenzionalitate pasiboak* zein *intenzionalitatearen galera esanguratsuak* argiro adierazten dute pertsonaren eta gorputzaren arteko hartu-emanen oso gai garrantzitsu dela giza egintzaren teorian. Zentzu horretan, teoria soziologiko klasikoan zein gaur egungoan, eduki antropologikoen hutsunea ikusten du Joas-ek. Bere ustez, hutsune hori betetzeko argitu behar da aktoerak zein mekanismoen bidez antzematen duen bere gorputza, hau da, gorputz-eskema edo gorputz-irudiaren eraketa.

Mead eta Merleau-Ponty izango dira Joas-ek erabiliko dituen iturri heuristiko nagusiak, gorputz-eskemaren eraketa aztertzeko eta giza egintzaren teoriarekin harremanetan jartzeko. Gorputz-eskema esaten zaio aktoreak bere gorputzaren egitura morfologikoaz (atalak, jartzeko erak, mugimenduak eta mugak) duen antzemateari. Pertsonalitatearen eta gorputzaren arteko hartu-emanen modu dualistikoan aztertu ordez (burua-adimena eta gorputza), Merleau-Ponty-k hartu-eman horren dimentsio kognitiboak, afektiboak eta intersubjektiboak aztertu zituen. Kontuan hartzen ditu gizabanakoak besteekin dituen erlazio aurre-lingüistikoak, eta ondorioztatzen du esperientziaren eta egintzaren oinarria ez dela gorputza baizik eta beste gorputzekin ditugun hartu-emanen esker —amaren laztanak, ahotsa, keinuak, jartzeko erak: gorputz-artekotasuna— garatzen dugun norbanako bereiztua izatearen pertzepzioa. Bes-

¹⁷⁸ *Ibidem* (orr. 168).

teekiko hartu-eman afektiboak, beraz, ezinbesteko baldintza dira gorputz-eskemaren garapenerako¹⁷⁹. Ildo berdinetik jarraituz, Mead-ek, haurren gorputz-eskemaren eraketa gaitasun komunikatiboen garapenarekin lotu zuen; horrela, batak zein besteak azpimarratu zuten, aktore bakoitzak bere gorputzarekiko daukan hartu-emana instrumentalismo hutsean oinarritu beharrean egitura intersubjektiboek determinatzen dutela. Aktoreak ez du bere gorputza antzematen modu zuzenean, baizik eta gorputz-eskema baten bidez, egintzarako norbanako bereiztua izatearen pertzepzioa ahalbidetzen duen eskema edo irudi hori prozesu intersubjektibo batean definitzen da. Ondorioz, egintzarako gaitasunak ez du oinarria intenzionalitate kontzientean, baizik eta alde zurretikoa den *soziabilitate edo giza artekotasun primarioan*.

Geure gorputzarekin daukagun hartu-emanean, ama bat bagina jokatu dezakegu, haurra- ren seinale guztiei adi eta erantzuna emateko prest; edo, aldiz, instrumentu hutsa bihur dezakegu, bere seinaleei kasurik egin gabe, edo geure helburu kontzienteen menpe jarritz¹⁸⁰.

Giza artekotasun primarioaren azterketa, Joas-en hirugarren urratsa izango da, giza egintzaren izaera sortzailea teoriaren erdigunean kokatu ahal izateko. Arestian ikusi dugunez, lehenengo bi urratsetan kolokan jarri ditu giza egintzaren teorian sakonean sustraiturik zeuden aurreste implizitu bi; giza egintzaren intenzionalitatea berez teleologikoa izatea, eta aktorearen berezko gaitasuna gorputzaren erabilpen instrumentala egiteko. Sozialitate primarioaren azterketaren bidez kolokan jarri nahi izango du hirugarren aurreste bat: giza egintza indibidualki autonomia eta norberaren interesen arabera izatea. Lehen aipatu bezala, egintzaren ikusmolde indibidualista horren aurrean, pentsamendu soziologikoak, bestelako giza egintza mota batzuk kontzeptualizatu nahian eta gizarte-ordenaren teoriaren bila, sozializazio bidez barneratutako adostasun normatiboan oinarrituko du giza egintza. Joas-en ustez, ordea, *egoa* eta *egoaren* formazioa sozializazio prozesuan, ez da behar bezala kontzeptualizatu ikuspegi normatibistetan. George Herber Mead-ek, ordea, bi ekarpen nagusi egin zituen *ego* autonomia egintzaren teorian txertatzeko: nortasunaren formazioaren teoria, eta egintza sozialaren ikuspegi ez-individualista. Dakigunez, Mead-en ideia nagusiak giza komunikazioaren teoria antropologikoan planteatu zituen; hain zuzen ere, giza komunikazioaren izaera espezifikorekin azterketan. Ikus dezagun, labor bada ere, zeintzuk diren teoria horren proposamen nagusiak eta nolako ondorioak dituzten giza egintzaren azterketarako.

Mead-en ustez, giza komunikazioa gainerako animalien komunikaziotik bereizten duena esangura sinbolikoen erabilpena da. Gizakiak aurreikusten du elkarregintzan duen kidea, potentzialki, nolako jokaera har dezakeen, eta errepresentazio bat sortzen du. Gaitasun horri ezker, gizakiak bere jokaerak egokitzen ditu inguruko kideen ustezko jokaeren arabera; horrela sortzen da, eboluzioaren historian, portaerak koordinatzeko eredu berri bat: elkarrekiko aurreikuspenen arabera koordinazioa. Mead-ek defendatzen du hori dela giza artekotasunaren ezaugarri nagusia. “Gizakien artean, espezia bizirik irauteko eginbeharreko aktibitateak, egintza indibidualen ara-

¹⁷⁹ *Ibidem* (orr. 181).

¹⁸⁰ *Ibidem* (orr. 184).

bera banatzen dira eta, osotasun batean birjasotzeko, esangura sinboliko gisa erre-presentatzen dira elkarrekiko jokaeren aurreikuspenen bidez¹⁸¹. Horrek bereizten du giza artekotasuna beste koordinazio edo lan-banaketa erduetatik; banakoen espezializazio biologikoan, edo instintuen arabera hierarkia dominatzailean oinarritzen diren erduetatik, adibidez.

Mead-ek, komunikazioaren teoria antropologiko horretatik abiatuta, garapen psikologikoaren teoria garatuko du. Bi teoria horien arteko lotura “rola hartzea” izango da; mekanismo sozio-psikologiko horren bidez aurreikusten baitira beste kideen arabera jokaerak. Horrela, aurreikuspen eta itxaropenen arabera, eskema ebaluatibo bat osatzen da, norberak bere buruaz duen irudia egituratzen duena. Zentzu horretan, geure buruaz daukagun irudia eta irudi horren garapena intersubjektibitatean eraikitako prozesua da; aktoreak sortzen du besteengandik jasotzen dituen aurreikuspenen eta erre-presentazioen sintesi bat, eta hortik sortzen den Ni-a edo *Self*-a erreferentzi-puntua da auto-ebaluaketarako eta egintzaren orientabiderako. Mead-entzat, aktorea bere burua aktore bezala ikusteko gauza da rola hartzeko gaitasuna garatu duenean, eta gaitasun komunikatibo-sinboliko horren garapena ezinbesteko aurrealdintza da lorpen kognitiboak eta sen morala erdiesteko.

Joas-en arabera, plateamendu horiek hankaz gora jartzen dute indibidualtasuna aurretik emandako zerbait bailitzan kontsideratzen duen giza egintza sozialaren ikusmoldea. Soilik zentzu biologiko hertsian onartu daiteke hori, azterketa sozialerako, ordea, indibidualtasuna garapen baten emaitza da, aurrealdintza asko dituen emaitza. Izan ere, egintza sozialaren ikuspegi konstruktibista —eta ez indibidualista— Mead-en lanaren ondorio nagusia da. Berarentzat, jokaera sozial bat (*sozial act*) ez da beste pertsoneri zuzentzen den egintza indibiduala, baizik eta bere barnean egintza indibidualak dituen talde-egintza konplexu bat. Hartu-eman sozialak, beraz, ez dira egintza indibidualen batuketa, alderantziz baizik, jokaera indibidualen atzean giza artekotasuna dago. Ondorioz, giza egintzaren teorian ezinbestekoak dira tresna analitikoak eta kontzeptualak soziabilitate edo giza artekotasun primarioarekin lotuta dauden aurrealdintzak antzeman ahal izateko. Azken batean, egintzarako gaitasuna ez da behin betiko garatzen den gaitasuna, baizik eta elkarregintzan etengabe birsortzen den gaitasuna.

Horiek horrela, Joas-ek, nortasunaren garapena gizarteratze prozesuan kokatuz, giza egintzaren sorrera intersubjektiboa azpimarratzen du. Bere ustez, gizarte zientzietan nagusitu den ikuspegi indibidualista oztupo larria da programa konprentsi-bogokia sortu ahal izateko. Giza egintza modu indibidualistan eta instrumentalean aztertzea —egoeratik eta testuinguru biografikotik banandua eta irizpide utilitaristaren arabera sailkatze-eredua sortuz— aurreuste baloratiboak aplikatzea da. Hori ez da horrela, aldiz, Joas-en ustez, egintzaren sormena hartzen bada abiapuntu. Izan ere, giza egintzaren izaera sortzailea azpimarratzeak ez du esan nahi giza ekintza zehatz guztiak sortzaileak direnik maila berean; diferentzia handiak daude egintza eta aktore ezberdinen artean eta, garrantzitsuagoa dena, sormen handiko ekintzetan ere beti dago ohitura, erreproduzio edo lehenagotik emanda datozen joerak. Azken batean,

¹⁸¹ *Ibidem* (orr. 187).

egintza-arazoei ematen zaien irtenbide sortzaileak ez dira ehunetik ehunean jokaera eta sinismen berriak, baizik eta ukitu edo aldatu diren ohiturak eta, ondorioz, ohitura eta erreprodukzioak ere, neurri batean, sortzaileak izaten dira. Hau da, momentuko egoerak zein bizi izandakoak ezberdinak direlako, sormenaren dimentsioa, neurri batean edo bestean, giza egintza orotan aurkitu dezakegu; egunerokoa eta ohitura ere sormenaren fruitu bezala irakur dezakegu. Planteamendu horretatik aldarrikatzen du Joas-ek, sormena ardatz bezala hartzen duen egintzaren ikuspegi batek ez duela sailkatze-eredu baloratibo bat sortzen. Sormena ez da ona edo txarra, ohitura edo jokae-rra bat erreproduzitzea —neurri handiago edo txikiago batean— oso txalogarria izan daiteke eta sormen handiko jokaera iraultzailea, berriz, oso deitoragarria.

Dena den, Joas-en asmoa ez da giza egintzaren sormenaren azterketa normatiboa egitea, baizik eta gizarte-teoriarako abiapuntu berria ekarriko duen giza egintzaren ikuspegia proposatzea. Zentzu horretan, bere ahalegin teorikoa, giza egintzaren azterketaren erdigunean sormena jarritz, arrazionaltasun instrumentalak eta determinismo normatiboak izan duten zentralitatea indargabetzera bideratzen da. Izan ere, Joas-ek, giza egintzaren alderdi sortzailea kontuan hartzea, ezinbesteko baldintzatzat jotzen du beste bi ereduak modu egokian erabili ahal izateko. Giza egintza helburu utilitaristen arabera aztertzen badugu, onartu behar dugu zenbaitetan egintzarako behar diren baliabideak ez daudela aktorearen esku eta aktoreak berak sortu behar dituela; are gehiago, helburuak lortzeari begira jarraitu beharreko estrategia definitzeko, aktoreak ber gaitasun sortzailea bizkortu behar du. Bestaldetik, giza egintza barneratutako arau sozialen arabera aztertzen badugu, gogoan eduki behar dugu balio horien genesisia prozesu sortzaile intersubjektibo batean dagoela. Era berean, sormena agertzen zaigu ere, egoera eta *praxi* zehatzetan arauak eta balioek eskatzen duten etengabeko moldaketan. Zentzu horretan, Joas-ek beharrezkoa ikusten du analitikoki ezberdintzea balio eta jokabideen edukiaren sorkuntza, eta balio zein jokabide horien lotura derrigortzailearen sorkuntza; aurrerago ikusiko dugunez, bere ustez, balioak eta jokabideak ez dira berez derrigortzaileak, lotura derrigortzailea sortarazten dugu euren sorrera intersubjektiboa ukatzen dugunean edo begibistatik galtzen dugunean.

Giza egintza ikuspegi sortzailetik

Mead-ek eta Dewey-ek, giza egintzaz sortu zuten ikuspegia garatzeko, egintza mota zehatz batzuen azterketa zorrotza egin zuten; ondorengo hauek dira zehatz-mehatz aztertu zituzten giza egintzak: esperimentua, jolasa eta artea. Jolasa, helburu zehatzik ez duen egintza-eredu gisa erabiltzen dute; esperimentuaren egintza-ereduan oso modu nabarmenean erakusten dute nola egintza-aukera berriak asmatzen ditugun egintzaren garapenean topatzen ditugun arazoak gainditu ahal izateko; eta, artea, euren hitzetan, “munduari zentzua emateko saiakera sortzailea da, munduak berak dituen aukera idealak modu sortzailean bereganatuz”¹⁸². Adibide horiekin, Joas-en us-

¹⁸² JOAS, H. *El pragmatismo y la teoría de la sociedad*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madrid, 1998. Orr. 282.

tez, Mead eta Dewey-ek erakutsi zuten egintza arrazionala ezin dela erdigunean kokatu gainerako egintza motak horrekiko daukaten diferentziaren arabera sailkatzeko. Aztertu beharrekoa da zein baldintzetan agertzen den egintza instrumental hori; hau da, zein baldintzetan aurkitzen dugun gizabanako bat bere egintza helburu zehatz batera zuzentzen duena, bere gorputzaren kontrola duena eta inguruarekiko eta beste aktoreekiko autonomia dena. Joas-ek, ahalegin hori ikusten du, Mead-en obraren atal ezberdinen barne-koherentzia aztertuz: “Mead-en giza sozialitatearen teoriak (komunikazioa, autoreflexioa eta self-aren teoria bilduz) erakusten du gizabanakoen arteko lotura ez dela bakarrik adostasun normatibora edo helburu instrumentaletara bideratutako egintzen elkarlotura. Egintzaren teoriak erakutsi behar du aktorearen autonomiarako egon behar diren baldintzak. Are gehiago, Mead-en gauza fisikoa, denborazkotasun subjektiboa eta gorputz-eskemaren eraketaren teorian, argitzen dira aktorearen gorputz-eskuragarritasunaren baldintzak. Azkenik, Mead-en psiquearen eta sormenaren teoriak, helburuetara zuzendutako egintzaren baldintzak zehazten dituzte”¹⁸³.

Giza egintza ikuspegi sortzailetik aztertuz, Joas-ek, kolokan jartzen du tradizio soziologiko nagusietan eraiki den giza egintzaren ikuskera. Tradizionalki, azterketa soziologikoa, gizartearengandik gizabanakoengana doanari begira egon da; gizabanakoen egintzarengandik gizartearengana doana, bigarren mailan utziz. Ondorioz, begibistatik galdu dira giza egintzaren ezaugarri eta ahalmen garrantzitsu batzuk. Joasen ustez, begirada osatuagoa lor daiteke gizarte baten adostasun normatiboak gizabanakoentzat dakartzaten lotura eta koakzioa azterketaren erdigunean jarri ordez, gizarte-instituzioen sorrera eta kulturaren genesia aztertzen badugu.

Arestian aipatu bezala, Mead eta Dewey-en egintzaren teorian, helburuen zehaztapena ez dago egintzaren egoeratik kanpo, ez da lehenagokoa edo independientea, oso lotuta baitago egoeraren baitan dauden hainbat elementuekin. Pragmatismoan, kezka nagusia egoera zehatzetan dauden arazoak dira eta, horrekin lotuta, arazoak gainditzeko aukera ezberdinen eraikuntza edo asmaketa. Emanda datozen jokabide normatiboen aplikapena baino, egoeraren araberrako aplikapen berritzailea azpimarratzen da eta, berritzailea den neurrian, aplikapena baino sorkuntza edo eraikuntza da.

Horrela, Mead-en etikaren inguruko idatzietan, arazo etikoetan ere metodo esperimentala erabili beharra aldarrikatzen du; arazo etikoen aurrean, egoeraren balio eta aukera guztiak kontuan hartuz, lorpen intelektual sortzailak behar direla defendatzen zuen. Horrela, arazo latzenetan ere, adostasun berriak lortzeko garrantzi handia ematen zion intersubjektibitateari eta kooperazioari; izan ere, Mead-entzat, gizarte-ordena ez dago gizarte baten adostasun normatiboan, arazoak eta gatazkak konpontzeko daukan gaitasunean baizik. Bere ustez, arazoak konpontzeko ez dago beti aplikatu daitekeen irizpiderik, ezin baita alde batera utzi egoera eta egoeraren protagonistak; horrexegatik, gizarte batean, arazoak bideratzeko dagoen adostasuna etengabe berri-tzen denean, gizakiak ari dira nolabaiteko kontrola burutzen gizartearen bilakaeran. Soziologian, beraz, normatibitateaz gain, beharrezkoa da soziabilitate sortzaila az-

¹⁸³ *Ibidem* (orr. 286).

tertzeari; horrela ikusi ahal izango baititugu gizarte-ordenaren efektu mugatzaileak eta derrigortzaileak, baina baita elkarregintza kolektiboak gizabanakoarengan izan dezakeen efektu estimulatzailea ere —ahalmen eta indar pertsonalen garapena—. Giza egintza ez da barneratutako arau eta joeren aplikapen soila; izan ere, egoera bakoitzeko elkarregintzan, gizabanakoak mugak jartzen eta apurtzen ari dira etengabeko prozesuan, eta bizitasun sozial horretatik sortzen dira arauak, balioak, produktu kulturalak eta instituzio sozialak.

Lehen aipatu bezala, gizartearen instituzionalizazioa prozesu sortzaile gisa aztertzea garrantzi handikoa da Joas-entzat. Eta, norabide horretan sakondu nahian, lehenengo lerrora ekarriko du ezohiko autore garaikide baten pentsamendua: Cornelius Castoriadis. Filosofia eta zientzi politikoaren artean kokatu dezakegun autore greziar honek, *L'institution imaginaire de la société* idatzi zuen 1975ean. Obra horretan, marxismoaren balorapen kritikoa egiteaz gain, bere pentsamenduaren aurkezpen tematikoa egiten du. Castoriadis-ek gogor kritikatu du Marx eta marxismoa, gizakion egintza erreala ahazteagatik eta determinismoan erortzeagatik; bere ustez, Marx-en pentsamenduan, *praxi* iraultzailea eta determinismo historikoaren artean dagoen kontraesana, Marx-engan dagoen zientifismo positibistak eragindakoa da. Horrengatik, gaur egun, zientziaren ulerkerak positibista eta determinista gainditzeko bidean egonda, marxismoa errefusatu baino sakondu eta erradikalizatu behar dugu, instituzionalizazio burokratikoaren aurrean etengabeko egintza iraultzailea azpimarratuz. Castoriadis-ek, beraz, giza egintzan dagoen ahalmen sortzaile eta iraultzailea aldarrikatuko du:

(...) egintza iraultzailearen eredutik abiatu, edozein egintzaren dimentsio sortzaile azpimarratuko du. Hori bera Herder eta erromantizismozaleek egin zuten, baina *praxi* estetikatik abiatuz; pragmatismozaleek *praxi* zientifiko-esperimentaletik abiatuz; eta Marx-ek *praxi* produktibo-materialetik abiatuz¹⁸⁴.

Joas-en ustez, Castoriadis-ek, ekarpen handia egin du gizartearen azterketarako funtsezkoa den kontzeptu batean: instituzioa. Castoriadis-ek, kritika zorrotza egin dio Parsons-i eta funtzionalismoari, instituzionalizazio prozesua iraganeko balio eta jokabideak etengabe gauzatzea balitz bezala aztertzeagatik; balio eta jokabide berrien eraketa, azterketatik kanpo utziz. Funtzionalismoak eta estrukturalismoak subjektuen produkzio sinbolikoa desagerrarazten dute eta, horrekin batera, gizakiok gizartearen bilakaeran dugun gidaritzak eta erantzukizuna —Chicagoko eskolakoek “kontrola” izendatu zutena—. Horrela, ordea, ezinezkoa egiten da gizakia eta gizartearen historiak duen berezotasun nagusia antzematea. Castoriadis-ek, giza egintzaren ikuspegi sortzaile eta ekintzaile batetik abiatu, defendatuko du errealitate sozialaren ezauzgarri nagusia eratuta dagoena eta eratzen ari denaren arteko tentsioa eta lotura dela: “gizarte eratua eta gizarte eratzailea, eginda dagoen historia eta egiten ari dena”. Gizarteak, beraz, instituzionalizazio eta desinstituzionalizazio prozesuen emaitza da, eta prozesu horiek, giza imaginariotik edo asmakizun sinbolikotik abiatzen direlako, dimentsio sortzaile ukazina daukate.

¹⁸⁴ *Ibidem* (orr. 151).

Castoradis-ek alienazioa aipatzen du, efektu nagusi gisa, gizarte-instituzioekin dagoen hartu-emanean, instituzio horien sorrera intersubjektiboa aitortzen ez bada. Gizarte-instituzioak alienatzaileak bihur daitezke bere imaginarioan daukatena geure produktu bezala ikusten ez badugu. Alabaina, gizarte-instituzioak ez dira berez alienatzaileak, posibilitate alienatzaile horretan funtsezkoena ez da instituzioen izaera, baizik eta gizarteak eta bere partaideek instituzio horiekin daukaten hartu-emana.

Hortik aurrera, autoreak, sozializazio edo gizarteratzearen teoria oso bat proposatu du, zeinean gizarteratzea ez da ikusten gizabanakoaren joeren moldaketa arbitrario bezala; baizik eta prozesu bat aurrez-aurre jartzen duena gizabanakoaren erre-presentazio-mundua eta erre-presentazio kolektiboen isla diren gizarte-instituzioak.

Gizarteak eta bere partaideek “autonomia” erakusten badute, euren buruaren jabe izateko gaitasuna erakusten badute, ez da alienazio-arriskurik egongo gizarte-instituzioetan; Castoradis-en planteamenduan, autonomia hori iraultza edo jarrera iraultzailearen bidez bereganatzen da. Joas-ek gogoarazten digun bezala, Mead-ek berak, demokraziaren ideia auto-transformaziorako gaitasunarekin erlazionatuz, demokrazia “iraultza instituzionalizatua” bezala deskribatu zuen. Era berean, Amitai Etzioni-k, *gizarte aktiboaren* kontzeptuaren bitartez, sormen instituzionala eta ikasteko gaitasunaren emaitza gisa irudikatzen ditu gizartearen egiturak¹⁸⁵.

Instituzioak, beraz, aztertu behar ditugu instituzionalizazio prozesuen emaitza gisa; egonkortasuna lortu duten giza egintza kolektibo eta sortzailearen emaitza gisa. Horrek esan nahi du teoria soziologikoaren abiapuntua giza egintzak izan behar dela; gizarte-prozesuak, gizabanako-partaideen egintzak eta elkarregintzak ardatza hartuta aztertu behar dira. Historiaren garapen-legeak edo gizartearen joera transhistorikoak —geroago aztertuko dugun bezala, diferentziazioaren teoria funtzionalismoan, eta produkzio indarren garapena marxismoan— ez dira tresna egokiak, ez baitatoz bat giza egintza eta gizarte-instituzioen berezko izaerarekin.

Hans Joas-ek, proposamen teoriko batzuk ikusten ditu norabide horretan. Proposamen horiek, giza egintza euren teorizazioaren erdigunean kokatuz eta determinismo historikoak edo estrukturalak baztertuz, gizarte-ordenaren eta gizarte-aldaketaren izaera kontingentea eta sortua azpimarratzen dute¹⁸⁶. Joas-ek “eraketaren teoriak”

¹⁸⁵ *Ibidem* (orr. 164).

¹⁸⁶ JOAS-en ustez, badaude beste elementu batzuk eraketaren teoria ezberdinetan errepikatzen direnak: gizartea ez da aztertzen ikuspegi holistiko batetik; hots, gizartearen kontzeptu abstraktua zehazteko orduan, ez dute onartzen estatu moderno batek lurralde mugatuan dituen zehaztasunak erabiltzea. Soziologiaren hastapenetik datorren gizarte eta estatu-nazioaren arteko baliokidetzak hori behin betiko baztertzea hobesten dute. Era berean, ez dute onartzen integrazio normatiboaren ideia, Parsons-ek gizartearen existentziarako ezarri zuen aurrebaldintza funtzionala.

Planteamendu horien ordeztu gisa, hartu-eman sareen ideia erabiltzen da; sareak, elkarlotuta dagoen giza egintzak, maila ezberdinetako hedapen mailak ditu denbora eta espazioan. Beste aldetik, gizarte-prozesuak ezin dira azaldu giza egintzaren esparru bakar baten arabera (ekonomikoa, politikoa...), kasu bakoitzean aztertu beharreko baita zein den instituzio-multzo esanguratsua eta nolako hartu-emanak dituen gainerako instituzioekin. Zeregin empiriko hori ezin da ordezkatu *a priori* teoriko batekin. JOAS, H. *The creativity of action*. Polity Press. Cambridge, 1996. Orr. 235.

izendatzen ditu proposamen teoriko horiek¹⁸⁷; eta, besteak beste, ondorengo hauek aipatzen ditu: Amitai Etzioni-ren gizarte aktiboaren teoria; Elkarregintza Sinbolikoaren ordezkari batzuen “ordenamendu negoziatuaren” teoria, gizarte-ordena negoziazio prozesu dinamiko eta gatazkatsu baten behin-behineko emaitza gisa agerrarazten dutena; Anthony Giddens-en estrukturazioaren teoria; Pierre Bourdieu, Randall Collins eta botere zein gatazkaren beste teoriko batzuk, botere eta gizarte-ordenaren asimetria eta ezegonkortasuna azpimarratzen dutenak; eta, azkenik, Alain Touraine-ren mugimendu sozialen soziologia. Hain zuzen ere, Joas-en osagarri interesgarria izan daitekeelakoan, Touraine-ren ekarpen teorikoari helduko diogu hurrengo atalean.

3.2. Alain Touraine eta Subjektuaren Soziologia

Alain Touraine XX. mendeko bigarren erdialdeko soziologo nagusienetarikoa dugu. Bere ibilbide profesionala luzea bezain mamitsua da; hasiera batean, 1950-1968 bitartean, gizarte industrial eta lanaren soziologia landu zituen. Bere formazio marxistaren eraginez, materialismo historikoaren ikuspegitik burutu zituen bere hasierako lan horiek; baina 1968tik aurrera, urte hartako mobilizazioa, protesta eta mugimenduen zurrunbiloan eta Sartre-ren subjektibismo existentzialaren eraginpean, Touraine-k, planteamendu materialista bazterrean utzita, aktore sozialaren zentralitatea azpimarratzera iragan zuen. Hain zuzen ere, *Egintzaren Soziologian* (1965), aktore sozialaren sormena eta produktibitate soziala identifikatuko du gizarte modernoaren ezaugarri nagusi gisa eta, jarraian ikusiko dugunez, hori izango da bere garapen intelektualean mantenduko duen elementurik esanguratsuena.

Giza egintzaren ikuspegi horretatik, gogor kritikatuko ditu gizartea eta gizarte-egitura reifikatzen edo objektibizatzen dituzten ikusmolde soziologikoak; bere ustez ezinezkoa den zerbait irudikatzen baitute: aktorerik gabeko gizarte bat. 1968-1984 urte tartean, aktore sozialak eta mugimendu sozialak izango dira Touraine-ren interesgune nagusiak, eta orientabide kulturalen eta botere-harremanen arabera definituko ditu. Garai horretan burutu zituen lan teoriko nagusienetan, aktore sozialek gizarte-egiturarekin eta esparru politikoarekin dituzten loturak aztertuko ditu: *Gizartearen Produkzioa* (1973), *Soziologiagatik* (1974), *Ahotsa eta begirada* (1979) edo *Aktorearen itzulera* (1984).

Arlo metodologikoan ere proposamen ausartak egin ditu Touraine-k, Esku-hartze Soziologikoaren Metodoan laburbildu ditu proposamen horiek eta 20 urtez, Francois Dubet eta Michel Wieviorka-rekin, Europako Mendebalde, Ekialde eta Hego Amerikako hainbat herrialdetan jardun du tokian tokiko gizarte-mugimenduak eta aldaketa sozialak aztertzen.

1984tik aurrera Touraine-ren kezka nagusiak modernitatearen kritika, gizarte post-industrial eta demokrazia izan dira, beti ere begibistatik galdu barik aktore sozialek subjektu libreak izateko daukaten borondatea: *Aktore Sozialak eta sistema po-*

¹⁸⁷ *Ibidem* (orr. 230).

litikoak Amerika Latinoan (1987), *Modernitatearen kritika* (1992), *Zer da Demokrazia?* (1994), *Berdintasuna eta dibertsitatea* (1997), eta *Zelan atera liberalismotik* (1999). Bere hasierako historizismoa alde batera utzita eta orohartzaileak diren historiaren filosofiak baztertuz —garapen edo aurrerapen legeak—, indar handiz defendatu du subjektuak, aktore kolektiboak, orientabide kulturalak eta gatazka sozialak direla errealitate soziala aztertzeko erdigunean jarri beharreko elementuak.

Michel Crozier-en ustez, Alain Touraine-ren bilakaera intelektualean, zubiak eta loturak eraikitzea izan da aurkitu daitekeen etengabeko ahalegina: lan enpirikoa eta lan teorikoaren artean, ezker iraultzailea eta teknokrata Gaullisteen artean, ikasle eta unibertsitateko autoritateen artean, konpromiso politikoa (ezkerrekoa) eta bere independentzia intelektualaren artean¹⁸⁸. Ez da, beraz, erosotasuna bilatu duen intelektual bat, akademiaren ortodoxia ez da bere lehentasuna izan eta, zorroztasun zientifikoa galdu barik, konpromisoak gidatu du bere jardun intelektuala.

Bilakaera teorikoari dagokionez, Touraine-rengan aurkitzen dugu funtzionalismo estrukturala eta materialismo historikoaren arteko eztabaida gainditzeko ahalegin serio eta sendoenariko bat. Zentzu horretan, David Apter, William Outhwaite eta beste teoriarari batzuk, XX. mendeko bigarren erdialdean beste autore batzuegan ikusten duten bilakaera bera ikusten dute Touraine-ren pentsamenduan: eredu teoriko formalak eta historiaren kontakizun orohartzaileak baztertu, eta errealitate sozialean kokatuagoak eta zehatzagoak diren ikusmoldeak sortzeko ahalegina.

Ikus dezagun, bada, hasierako hurbilpen modura, nola kokatzen duen Touraine-ek bere burua gainerako ikuspegi teorikoekiko. Touraine-ren ustez, soziologia garai-kidea oraindik soziologia post-funtzionalista da. Eskola batzuk giza elkarregintzaren azterketa egiten dute eta gizarte-sistematik gabeko errealitate soziala aurkezten digute; beste eskola batzuk, ordea, estrukturalismo edo funtzionalismoaren arrastoan, aktorerik gabeko gizarte-sistemak deskribatzen dituzte.

Denbora luze batez, pentsamendu soziologikoak sistema sozialaren kontzeptua azpimarratu zuen, modu baikorrean funtzionalismoan eta modu ezezkorrean marxismo estrukturallean. Touraine-ren ustez, 60. hamarkadatik aurrera, bi ikuspegi horien ahultasuna nabarmena egin zenean, beste bi ikuspegik erronka bota zioten soziologia klasiko hari: utilitarismoaren ikuspegi instrumentala, batetik, eta adostasun normatiboaren ordezkari aktore sozialen arteko gatazka azpimarratzen duen ikuspegia, bestetik. Bigarren alternatiba horrekin bat eginez, Touraine-k, garrantzi handia emango die oinarritzeko eredu kulturalen kontrol sozialerako jarduten duten aktore kolektiboak, gizarte-mugimenduei. Geroago ikusiko dugunez, gatazka eta aldaketa sozialaren eragileak kontsideratuko ditu.

Aipatu ditugun lau ikuspegi soziologiko horiek sailkatzeko —funtzionalismoa, marxismo estrukturalista, teoria arrazionala eta egintzaren teoria—, Touraine-k bi banaketa-ardatz erabiltzen ditu: lehenengoa integrazio sozialetik gatazka sozialera doan ardatza da; elkarbizitza sozialean ikuspegi batzuk integrazioa azpimarratzen duten bi-

¹⁸⁸ CLARK, J. ETA DIANI, M. (Editoreak). *Alain Touraine*. Falmer Press. 1996. Orr. 9-16.

tartean, beste batzuk gatazka azpimarratzen dute. Bigarren ardatza gizarte-sistematik aktorearen egintzara doa; dakigunez, ikuspegi soziologiko batzuk sistemari begira dauden bitartean, beste batzuk gizabanakoen egintzari begira daude. Ondoko koadro honetan ikusten ditugu konbinaketa ezberdinak:

	Sistema	Aktorea
Integrazioa	Sistema soziala (funtzionalismoa)	kalkulu instrumentala (neo-razionalismoa)
Gatazka	Ezberdintasunak (marxismo estrukturala)	Gizarte-mugimenduak (egintzaren soziologia)

Lehendabiziko laukian funtzionalismoa aurkitzen dugu. Funtzionalismoak gizartea edo gizarte-sistema kokatzen du azterketa soziologikoaren erdigunean; aktoreak sistemaren elementuak dira eta gizarte-sisteman eratutako balio, arau eta rolen arabera aztertzen ditu. Sistema soziala da, beraz, kontzeptu nagusia. Eta ordena, armonia eta funtzio sozialen ezberdintze hazkorra gehien azpimarratzen diren ezaugarriak. Prozesu integratzaileekin batera prozesu desintegratzaileen existentzia ere aipatzen dituzte, besteak beste eratutako arauak eta agente sozializatzaileen arteko egokitzapenik ez dagoenean, edo gizarte-esparru ezberdinetako aldaketak sinkroniarik gabe jazotzen direnean. Disfuntzionalitate horien eraginez, krisialdiak eta gatazkak daude, beti ere oreka eta ordenaren moldatzaileak edo integratzaileak diren krisialdiak.

Alderantzizko irakurketa batean, bigarren laukian daukagun marxismo estrukturalistaren arabera, gizabanakoak ez daude gizartean integraturik barneratu duten balio eta arauen eraginez, baizik eta gizarte-sistemak ezartzen duen menpekotasun logikaren eraginez. Koakzioaren ondorioz, gizabanakoak gizartearen menpe daude, aktoreak izan ezinik. Gainera, sistemak manipulatzeko eta gizabanakoak moldatzeko daukan gaitasun hazkorrak, protesta eta gatazkaren aukera galarazten du. Funtzionalismo kritikoa esaten dio Tourainek ikuspegi horri, bere ustez 60. hamarkadaren protesta eta mobilizazioek kolokan jarri zuten Parsons-en funtzionalismo baikorra baina, etzipenaren ondorioz-edo, beste funtzionalismo bat indartu zen; funtzionalismo kritiko eta ezkorra, botere nagusi baten arabera gizarte itxia irudikatzen duena¹⁸⁹. Marcuse-ren hasierako lanei segida emanez, Althusser, Poulantzas, Bourdieu edo Foucault-ek, funtzionalismo kritiko horren ildo nagusiak definitu zuten: gizabanakoa eta gizartearen norabidea Estatuaren erreproduktzio-mekanismoen eta aparatu ideologikoen menpe daude. Touraine-ren ustez, langile mugimenduaren beherakadak, zenbait askapen nazionalerako borroka anticolonialak eta iraultzaileak erregimen opresiboak bihurtu izanak eta Soviet Batasuneko disidenteen eragin intelektualak, etsipena sortarazi zuten autore horiengan:

Indar iraultzaileengan galdutako fedea ordezkatu zuten guztiahalduna den menpekotasun logika batekin, eta errefusatu egin zuten herri mugimenduetatik etor litekeen itxaropen as-

¹⁸⁹ TOURAINE, A. *Movimientos sociales hoy*. Hacer Editorial. Bartzelona, 1990. Orr. 12.

katzailea. Baina, gizartearen filosofo horiek, ez zuten ordezkatu beraien sinismenak neoliberalismoarekin, gero eta indartsuagoa mendebaldeko herrialdeetan, non estatuek razionaltasunaren ikurra bereganatzen zuten Algerian torturatzen ari ziren bitartean edo Vietnamgo herrixkak napalmekin bonbardatzen zuten bitartean. Hain zuzen ere, errefusapen bikoitz horrek sortarazi zien bizitza sozialaren irudi arras negatiboa, non alienazioa eta integrazio heteronomoa soilik errebolta marjinalen edo kultura estetiko indibidualistaren bidez gainditu daitezkeen¹⁹⁰.

Touraine-ren ustez, filosofia sozial hori kontuan hartzekoa da ideien eta ideologiaren historian, baina oso destruktiboa izan da azterketa sozialerako, zenbait herrialdeetan *intelligentsiaren* ideologia autodetruktiboa bihurtu baita. Askapen mugimendu batzuen ustelkeria eta desbideraketaren kritika egitetik, aktorerik gabeko gizarte bat irudikatzen zera pasa zen: “aktoreak izatearen ilusioan bizi gara, baina sistemaren logika inpertsonalaren agenteak gara; erdigunean dagoen boterea indartzea eta ezberdintasunak eta pribilegioak mantentzea beste xederik ez duen gizarte-sistemaren agenteak”¹⁹¹.

Touraine-ren iritziz, ordea, gizarte modernoak kontrol eta manipulazio sistemen eraginpean erabat menderatuta daudela esatea, ezin da gertaera enpirikoetan justifikatu. Eta ikuspegi fatalista hori erabilia izan da, zenbait soziologoren aldetik, irakurketa doktrinarioak egiteko. Estrukuralismo ezkor hori, beraz, ordena eta armonia salatzen zuen neurrian, lehenengo funtzionalismo baikorraren etsaia zen; baina, aldi berean, elkarbizitza sozialaren bilakaera eta gidaritza azaltzeko orduan, biek ukatzen zuten subjektu edo aktore sozialaren ahalmena. Bi ikuspegiak bat zetozen, beraz, gizabanakoei aktore soziala edo subjektu aktiboan izaera ukatzen, eta sistemaren ale integratu gisa —kontrol bidez edo barnerapen bidez— ikusten.

Touraine-ren koadroan agertzen zaigun hirugarren tradizio edo ikuspegi soziologikoa, utilitarismoarekin eta indibidualismo metodologikoarekin lotuta dagoen egintza arrazionalaren teoria da. Aurrekoekin alderatuta, tradizio utilitaristak, aktorea azpimarratuko du eta ez gizarte-sistema; era berean, integrazioa-gatazka ardatzean, ordena eta integrazioa azpimarratuko du gatazka desagerraraziz. Joas-en eskutik ikusi bezala, ikuspegi utilitaristak egiten duen giza egintzaren kontzeptualizazioak hutsune larriak ditu; aktoreak euren estrategien arabera aztertzen dute eta, Touraine-k azpimarratzen duen moduan, ontzat ematen dute kostuak gutxitzeko eta etekinak handitzeko mendebaldeko gizarte modernoan elite aberats eta boteredunek darabilten estrategia lehiakorak giza egintza unibertsalaren eredu direla.

Egintzaren eredu horretan oinarritua, elkarbizitza soziala etengabeko elkartruke instrumentala eta konplexua bailitzan irudikatzen dute; aktoreak beraien sistema soziala eta kulturalengandik isolaturik agertzen zaizkigu eta, egiturazko gatazkarik egongo ez balira bezala, gizarte-sistema murriztuta geratzen da norberak bere interes arabera jokatzeko duen ingurune batera.

¹⁹⁰ “An introduction to the study of Social Movements” TOURAINE, ALAIN. *Social Research*, 52. liburukia, zenbk. 4. 1985. Orr. 767-8.

¹⁹¹ TOURAINE, A. *Movimientos sociales hoy*. Hacer Editorial.artzelona, 1990. Orr. 11.

Azkenik, subjektuaren eta gizarte-mugimenduaren azterketaren bidez, Touraine-k, laugarren ikuspegi soziologiko bat ezberdintzen du: Egintzaren soziologia. Aktorea izango du abiapuntu, eta integrazioa azpimarratu ordez gatazka azpimarratuko du. Touraine-k ildo teoriko eta analitiko horretan kokatzen du bere burua eta, argitasun handiz, gainerako ikuspegi soziologikoekiko dituen ezberdintasunak zehaztuko ditu: Funtzionalistek deskribatzen dituzten balio eta arau sozialen arabera integrazio eta desintegrazio prozesuen aurrean, egintzaren soziologiak baieztatuko du gizabanakoek jokatzen diren jokabideak eta elkarregintzak ezin direla murriztu eraturako arauetara eta rol hierarkikoetara, beti egongo baita kontingentzia, negoziazioa, gatazka eta aldatzeko aukera. Era berean, egintzaren soziologiak ez du onartuko estrukturalismoak dakarren aktoreen desagertzea; sistemaren inertzia, kontrol soziala eta manipulazio-mekanismoek ezin izango baitute erabat itxia den ordenamendu bat eratu. Egintzaren soziologiarentzat subjektuen sormen kulturala eta aktoreen egintza gatazkatsua elementu iraunkorrak dira elkarbizitza sozialean. Planteamendu berdinean, egintzaren soziologiak ezin du onartu ikuspegi utilitaristak egiten duen giza egintzaren deskontestualizazio kulturala eta soziala; aktoreak ezin dira definitu soilik beraien helburu eta estrategia instrumentalen arabera, baizik eta inguruan dituzten eta beraien parte diren hartu-eman sozialen arabera eta, bereziki, botere harremanen arabera.

Ildo horretan, Touraine-ren ustez, gizartea edo gizarte-sistema kontzeptu azaltzaile modura erabiltzen denean; hau da, gizarte-sistemaren beharrak, funtzioak, mekanismoak edo aldaketa-prozesuak, gertaera sozialak azaltzeko erabiltzen direnean kalte handia egiten zaio azterketa sozialari. Gizartea ezin da reifikatu, aldakorra eta ahula den aktoreen arteko hartu-eman multzoa da, momentu historiko zehatz batean aktore horien orientabide kulturalak eta hartu-eman gatazkatsuek ari dira etengabe sortzen elkarbizitza soziala¹⁹². Ondorioz, soziologian, hautsi behar da gizarte-ordenamendu baten existentziaren ideiarekin, baztertu eta borrokatu behar den ikuskera da, gizarte-sistema objektifikatu beharrean nabarmendu behar da aktoreen egintzarako eta gatazkarako gaitasuna.

Touraine-ren ustez, ikerlaria ez da inoiz neutrala, gizartea eratuta dagoen ordenamendu bezala aztertzeak edo, aldiz, aktoreen orientabide kulturalen eta botere harremanen arabera etengabe berregiten ari den errealitate bezala aztertzeak, kontrajarriak diren interesak ditu atzetik. Touraine-ren planteamendua jarraituz, gizartea ordenamendu sozial gisa hartzea indarrean dagoen botere-sistema eta hierarkia soziala onartzea da, menpekotasun logika horren barruan kokatzea da. Aitzitik, gizartea ordenamendu bat dela errefusatzea eta, gatazkak eta negoziazioak azpimarratuz, etengabe berregiten ari den hartu-eman multzo bezala definitzea, aktoreen aldean kokatzea da, botere-sistemaren goialdean isildurik nahiago dituzten aktoreen aldean¹⁹³.

Gauzak horrela, Touraine-k, “gizarte” kontzeptua soziologiatik baztertzea proposatuko du: “Jokaera sozialak ezin dira aztertu egoeren aurrean emandako erantzunak bailiran. Ez dago egoeren arabera erantzunak, elkarlotuta dauden erreakzio sozialak

¹⁹² *Ibidem* (orr. 13).

¹⁹³ *Ibidem* (orr. 30).

baizik. Egoera, momentu zehatz batean aktoreen arteko hartu-emanen ondorioz jazozen den gertaera da, besterik ez. Soziologoak, beraz, aktoreak aktore moduan aztertu behar ditu, eta ez behaketa-objektu gisa”¹⁹⁴. Touraine-rentzat, egoera ez da logika inpersonala, ekonomikoa edo teknikoaren emaitza, baizik eta sorkuntza politiko bat.

Hurrengo orrialdetan, zehaztasun handiagoz ikusiko ditugu autore frantsesak subjektu eta aktore sozialen azterketarako egiten dituen proposamenak; esan dezagun, lehenago, aipaturiko lau tradizio soziologiko nagusi horiek bereiztu eta gero, Touraine-k, argi ikusten duela XX. mendeko azkeneko hamarkadetan aldaketa nabarmena egon dela soziologiaren debate teorikoetan; bere ustez, gizarte-mugimenduen azterketak sortarazi duen interesak argiro adierazten du amaitu egin dela pentsamendu soziologikoaren aro luze bat zeinean azterketa sozialen erdigunean gizarte-sistema eta bere integrazio printzipioak zeuden. Egintza soziala eta aldaketa soziala dira orain kezka nagusiak eta, ondorioz, erronka teoriko berria egintza-egitura auzia gainditzea eta giza egintzatik gizarte-sistemaren aldaketara dauden prozesuen kontzeptualizazioa da. Horrela, pentsamendu sozialak, nahasmena eta noraeza teorikoa tartean, aldaketa sozialen produktzioa eta kontrola eztabaidatzen du, eta debate horretan kontrajartzen diren ikuspegiak ez dira ikuspegi funtzionalista (integrazioa eta kontzentzua) eta ikuspegi marxista (ezberdintasunen hierarkia eta koakzioa), baizik eta ikuspegi arrazionala (estrategikoa eta utilitarista) eta subjektuaren ikuspegiak (gizarte-mugimenduak eta gatazkak)¹⁹⁵.

Touraine-k, beraz, subjektuen eta gizarte-mugimenduen zentralitatea defendatzen du azterketa sozialean. Berarentzat, gizarte-mugimenduen azterketa ez da soziologiaren espezializazio-arlo bat gehiago izan behar —zeini zenbait momentutan arreta berezia eskaini behar zaion, gizarte-instituzioak eta sozializazioa nagusitu beharrean krisialdia eta gatazkak nagusitzen direlako—, mugimendu sozialen azterketak hurbilpen berri bat eskaintzen dio gizartearen azterketari. Izan ere, gizartearen produktzioa eta gidaritzaren azterketak, ikuspegi estrategiko-instrumentala eta subjektuen ikuspegi kontrajarriz, galdutako bizitasuna eman behar dio pentsamendu soziologikoari.

Aktore kolektiboak eta historizitatea

Giza egintza eta gizarte-sistemaren artean dagoen hutsunea gaindituz, gizartearen produktzioa eta gidaritza teorizatzeke, Touraine-k ez du uste gizabanakoa eta gizarte-sistemaren artean nolabaiteko elkarrekikotasun normatiboa baieztatu daitekeenik —ordenaren eta erreproduktzioaren soziologian defendatzen den moduan—, aurkakotasuna eta gatazka dira hartu-eman hori definitzen dutenak. Izan ere, Touraine-rentzat, gizarte modernoaren joera nagusia ez da mundu subjektiboa eta mundu objektiboaren arteko integrazioa, baizik eta bi mundu horien banaketa eta urrunketa. Soziologiak, ezinbesteko abiapuntu moduan, baztertu behar du gizabanako eta gizar-

¹⁹⁴ *Ibidem* (orr. 29).

¹⁹⁵ “An introduction to the study of Social Movements” TOURAINE, ALAIN. *Social Research*, 52. liburukia, zenbk. 4. 1985. Orr. 786-87.

tearen arteko elkarrekikotasunaren ideia, gizarte-instituzioen (eratutako balio eta arauak) eta aktoreen arteko simetriaren ideia. Gizarte modernoan subjektuek gero eta gaitasun handiago sentitzen dute beraien bizitzaren proiektu pertsonalak sortzeko eta, era berean, inoiz baina gaitasun handiagoa erakusten dute gizartean esku hartzeko. Touraine-k defendatzen du modernitatea ez dela bakarrik zientzia, arrazionaltasunaren eta teknikaren bidez naturaren kontrola etengabe areagotzea; arrazionaltasun instrumentalaren efikazia hori modernitatearen erdia da, beste erdia subjektibazioa da; hots, gizakia subjektu libre eta sortzaile bezala agertzea.

Touraine-ren ustez, beraz, razionalizazioa eta subjektibazioa gizarte modernoaren joera nagusiak dira. Lehenengoak naturaren ezagupen objektiboa eta kontrola areagotzen du eta gizabanakoa ere, naturaren parte den aldetik, ezagupen objektibo horren objektua da. Alabaina, gizabanakoa subjektu eta subjektibitatea ere bada, aktorea izateko borondatea du eta bere kontzientzia libreak jokabide berriak sortzeko gaitasuna ematen dio. Gizakia ezagutzea, beraz, ez da soilik natura ezagutzea, subjektibitatea ez baitago mundu objektibo horretan. Gizarte modernoan, subjektibazioa handitzen den neurrian, mundu subjektiboa eta mundu objektiboa urrundu egiten dira, giza egintza gizarte-egituratik urruntzen den bezala: "...Erregearen morroia izan eta gero, gutariko bakoitzak aukeratu behar du gizartearen morroia izatea edo subjektu pertsonala izatea; bere bizitzaren, ideien eta jokabideen aktorea bihurtzeko eskubide pertsonala eta kolektiboa defendatzen duen subjektu pertsonala"¹⁹⁶. Modernitatean gero eta hedatuagoa da subjektu pertsonalen jarrera disidentea gizarteak duen boterearekiko, gizarteak objektibizatzen baititu subjektuak kontrolatu ahal izateko. Behera dator, beraz, subjektu pertsonalen eta gizarte-sistemaren arteko elkarrekikotasuna; modernitatean gizabanakoa subjektu bihurtzen da, dagoen mundu naturalera eta sozialera bere burua adaptatu edo moldatu beharrean, mundu naturala eta soziala moldatuko ditu eta mundu berriak sortuko ditu: "Modernitatea munduaren giza sorkuntza da, gizakiek gozatu egiten dute bere ahalmenarekin eta informazioak zein hizkuntzak sortzeko daukaten gaitasunarekin; aldi berean, beraien sorkuntzak beren kontra bueltatzen direnean, defendatu egiten dira. (...) Ez dago, jada, Jaungoikoaren borondatea edo Sorkuntzaren finalismoa; soilik gizakia handitzen duten gizakion ekintzak eta gizakia txikitzen dutenak, denak giza egintzak, nahiz eta sistema ekonomiko edo politikoen barne logikaren emaitza gisa agertu"¹⁹⁷.

Touraine-k, ondorioz, gizarte modernoaren azterketan gero eta premiazoagoa ikusten du normatibismo objektibatzailea baztertzea. Eta, etengabe berregiten ari den errealitate soziala izendatzeko, gizartearen ideia baztertu eta "egintza historikoaren sistema" erabiltzea proposatzen du: "egintza historikoaren sistema hartu-eman esparru bat da, zeinean aktoreek, beste aktoreekin dituzten gatazkekin, historizitatearen gidaritzatza bilatzen duten"¹⁹⁸. Giza artekototasunaren irudikapen hori ez da oinarritzen ba-

¹⁹⁶ TOURAINE, A. *Crítica de la Modernidad. Temas de hoy*. Madril, 1993. orr. 277.

¹⁹⁷ *Ibidem* (orr. 295).

¹⁹⁸ "A sociology of the subject" ALAIN TOURAINE. Editoreak: JON CLARK ETA MARIO DIANI. *Falmer Press*. 1996. Orr. 293.

lio, arau eta rolen erreprodukzioan, ez da normatiboa —ez du definitzen normala edo funtzionala dena, eta patologikoa edo desbideratua dena—; aldiz, gizakien arteko hartu-eman esparru historiko bakoitza, tokian tokiko orientabide kulturaletan eta botere harremanetan oinarrituko du.

Touraine-ren planteamenduan, soziologoak ezin du murriztu aktorea erabateko menpekotasun sozial batera, ezta arrazionaltasun instrumental hertsia batera ere. Aktorea arau instituzionalen kontrolpean eta besteen aurreikuspenen arabera definitzea subjektua desagerraraztea da. Touraine-rentzat, soziologiak garrantzi gehiegi eman die *status* eta *rol* bezalako kontzeptuei, konturatu barik subjektua suntsitzeko tresna eraginkorrak direla.

Beste aldetik, indibidualismo metodologikoak egiten duen planteamenduak, subjektuaren goraiipamena iruditu arren, logika ekonomikoaren aukeraketan agortzen du eta subjektuaren desitxuratzea dakar. Arrazionaltasun instrumentala ezinbestekoa da mundua desmitifikatzeko (munduaren irakurketa animista, magiko edo erlijiosoa gainditzeko) eta, zentzu horretan, zerikusi handia dauka subjektuaren askapenarekin baina, aldi berean, subjektuak badu aurkako jarrera bat, bere subjektibitate eta sormena ez baita agortzen logika utilitaristan.

Touraine-ren ustez, beraz, azterketa soziologikoaren muina subjektuak dira, subjektuak mugimenduan; hau da, subjektuek, aktore kolektiboak bihurturik eta elkarbizitza kolektiboa historian zehar gidatu nahian, nolako botere harremanak eta gatazkak sortzen dituzten. Hortaz, soziologiaren objektua historizitatearen gaurkotzea da, eta aktoreen orientabide kulturalak eta menpekotasun harremanak osatzen dute historizitatea. Soziologiaren erdigunean egon behar du subjektuen askatasun sortzailea; eta, horrekin batera, askatasun sortzaile horretatik eratortzen den egintza kolektiboak, nola bideratzen duen historizitatea.

Subjektuen askatasun sortzailea

Touraine-k, oso modu aberasgarrian kontzeptualizatu ditu subjektuaren esanahia eta determinismo sozialaren auzia. Subjektua izatea askatasunez jokatzeko borondatea edukitzea da (nor beraren bizitzaren historia kontrolatzea), eta aktore moduan aitortua izan nahia. Gizabanakoa subjektibizatu egiten da sortzeko ahaleaginean, hau da, bizitakoa modu sortzailean gidatzen duenean zentzu pertsonala izan dezan; orduan, gizabanakoa hartu-eman sozialetan txertatzen den aktorea bihurtzen da, eta bere ekarpenen bidez aldatu egiten du bere ingurune soziala.

Aitzitik, antolaketa sozialean daukan kokapenaren arabera jokatzeko duen gizabanakoa ez da aktorea. Aktorea bere ingurune soziala aldatzen duena da, bere ekarpen pertsonalek nolabaiteko eragina daukatelako erabakitze metodoetan, lanaren banaketan, menpekotasun harremanetan edo orientabide kulturaletan: “Bizitza oso bat eraikitze ahalegina (pertsonala eta kolektiboa) da subjektua hobekien definitzen duena”¹⁹⁹.

¹⁹⁹ TOURAINE, A. *Crítica de la Modernidad. Temas de hoy*. Madril, 1993. Orr. 284.

Touraine-k, hurbilak baina ezberdinak diren hiru kontzeptu bereizten ditu: gizabanakoa, subjektua eta aktorea. Bakoitzaren esanahia adierazteko harremanetan jartzten ditu beraien artean: subjektua izatea, gizabanakoa aktore gisa eraikitzea da. Gizabanakoak arau eta kontrol sozialak antzematen ditu, baita subjektu libre izateko borondatea ere, produzitzailea eta ez soilik kontsumitzailea izateko borondatea. Borondate hori abiapuntu hartuta, sortzeko ahaleginak subjektua produzitzen du eta subjektuak aktore soziala.

Gizabanakoa, subjektua eta aktorea, beraz, kontzeptu banaezinak dira, azkeneko biak erresistentzia egiten baitiote gizarte modernoan norberaren interesen bilaketa utilitaristarekin itsutzeko dagoen arrisku indibidualistari. Indibidualismoak, normatibismoak bezalaxe, galeraz dezake aktorearen produkzioa; arrazionaltasun utilitarista kalkulagarria eta aurreikusteko modukoa da eta, ondorioz, gizarte-sistemaren logikari ematen dio lehentasuna²⁰⁰. Subjektibazioak ez du bultzatzen norberak bere buruarekin gozatzea baizik eta, gizartean eraturako ordenari eta determinazioei aurre eginez, geure jokabideen kontrola izatea pertsonalki eta kolektiboki. Gizabanakoak, besteekin daukan hartu-emanetan subjektu gisa jokatzeko badu, gizarte-sistemaren elementu bat gehiago izateari uzten dio eta bere buruaren sortzaile bihurtzen da, baita gizartearen sortzaile ere: “gizabanakoa subjektua da soilik bere ekintzen kontrola baldin badu, baina kontrol hori ihes egiten zaio. (...) Subjektua desitxuratzen denean, bere buruari baino erreparatzen ez diolako edo gizarteak jarritako rolei baino erreparatzen ez diolako, geure bizitza pertsonala eta sozialak sortzeko indar guztia galtzen du, museo post-modernoan bihurtzen da, oroitzapenek zerbait produzitzeko daukagun ezintasuna ezkututzen dute”²⁰¹.

Touraine-ren ustez, beraz, gizarte-sistematik eratortzen diren aurreikuspen eta rolak, botere-zentro zehaztatetik agintzen dutenen ereduak dira, bizitzaren eraikuntza pertsonala eta soziala modu zehatz batera gidatzeko zabaltzen diren ereduak; onartuz gero, subjektu sortzaileak aurkitu beharrean publiko kontsumitzailea aurkitzen dugu. Touraine oso kategorikoa da horretan: gizarte kontsumitzen dutenak —gizarte produzitu eta gidatu beharrean— ekonomia, politika eta informazioa zuzentzen dutenen menpe daude²⁰². Azken batean, gizabanakoa subjektua da sozialki ezartzen den menpekotasunaren logikari aurre eginez; hots, gizakia objektu bihurtzen duen menpekotasun-logika hori saihestuz. Hortaz, gizabanakoa subjektua da bere buruaren jabe eta bere bizitzaren gidaria izatea lortzen duenean, menpekotasunaren logikaren ordezkatasunaren logika nagusituz.

Aipatu bezala, Touraine-k askatasun pertsonala aipatzen duenean ez ditu gogoan erreferente razionalistak edo liberalak, zeinek gizabanakoa deskontestualizatuz jauzi handia egiten duten norberaren partikularitatetik printzipio unibertsalera. Autore frantsesarentzat, indibidualismo horrek mendebaldeko elite pribilegiatuak babesten

²⁰⁰ *Ibidem* (orr. 269).

²⁰¹ *Ibidem* (orr. 270-1).

²⁰² *Ibidem* (oor. 299).

ditu, hau da, baliabide ugari izateagatik aukeratzeko posibilitate asko daukatenak babesten ditu. Touraine-k, aldiz, ez du isolatzen subjektua bere ingurugiro sozialetik eta ingurugiro horretan dituen hartu-eman eta gatazketatik. Testuinguru horretan egiten duen aurkakotasuna, ordea, arau eta instituzio sozialak kontsumitzen dituen gizabanakoa eta elkarbizitza sozialaren subjektu produzitzailearen artekoa da: “aktore eta gatazka terminotan definitu behar dugu subjektua: ez da gizartearen gainetik dagoen printzipio bat, ezta ere gizabanakoa bere berezitasunean ikusita; esperientzia soziala eraikitzekeo modu bat da, arrazionaltasun instrumentala den bezala”²⁰³.

Ikusi bezala, Touraine-k argi utzi nahi du subjektuaren ideia ez dela indibidualismoarena. Gizarte modernoan, arrazionaltasun instrumentala nagusitzen den neurrian, gizarte-sisteman integratzearen aldeko logika indartzen da. Horrela, azkeneko hamarkadetan eredu neoliberalak lortzen ari den arrakastaren eskutik ez da etorriko subjektuaren itzulera; Touraine-ren ustez, oparotasuna, kontsumoa eta indibidualismo utilitaristak oztupoak dira subjektuaren garapenerako, elkarbizitza sozialaren aspektu guztien merkantilizazioak esparru publikoaren desagerpena ekarri baitezake. Bere ustez, kontsumoaren gizartea ez da bakarrik sistema ekonomiko edo tekniko bat, bada ere errealitate soziala eraikitzekeo modu bat, subjektuaren kontra doan modu bat.

Arestian aipatu dugun moduan, Touraine-rentzat, gizarte modernoaren joera nagusiak razionalizazioa eta subjektibazioa dira, autore frantsesak mugimendu kulturalak ikusten ditu joera horien erdigunean. Razionalizazioarekin lotzen du, liberalismoaren banderapean, ondasun materialen produkzioa eta kontsumoa elkarbizitzaren ardatz hegemonikoa bihurtu nahi dutenak. Subjektibazioaren aldeko mugimendu kulturalaren adierazpen nagusienetarikoa bat emakumeen mugimenduan ikusten du Touraine-k; batez ere, askapen sexualaz eta emakumearen nortasun kulturalaz arduratu den mugimenduan. Dena den, hurrengo atalean zehatzago ikusiko dugu aurkakoak diren modernitatearen joera kultural horiek, razionalizazio utilitarista batetik eta subjektibazioaren sormena bestetik, mugimendu sozialak ere badiren; hau da, sozialki definitutako aktore kolektiboekin lotu daitezkeen ala ez.

Subjektua Mugimendu sozial gisa

Gizarte modernoaren hastapenetan, Iraultza Frantsesaren aurretik, burgesia izan zen, Touraine-ren ustez, subjektibazioaren aldeko mugimendu soziala. Izan ere, burgesiak uztartu zuen arrazionaltasun ekonomikoa eta elkarbizitzaren subjektibizazioa; hortik dator, Touraine-ren ustez, bere garrantzi historikoa, arrazionaltasuna eta subjektibizazioa uztartzea modernitatea hobekien definitzen duen prozesua baita. Geroago, Iraultza Frantsesa eta Ingalaterrako industrializazioaren eskutik politika eta ekonomiaren arloan eredu arrazionalizatzaileak nagusitzen direnean, burgesa kapitalista bihurtzen da, eta praktika morala progresoarekin praktika historikoa bihurtzen da. Subjektuarekiko erreferentzia galdu egiten da —gizadia da erreferentzia berria—; eteki-

²⁰³ *Ibidem* (orr. 301).

na, ordena soziala eta progresoa burgesiaren orientabide bakarrak bihurtzen dira. Langile mugimendua izango da, orduan, subjektibazioa bultzatzen duen aktore kolektibo berria; berriz ere gizabanakoa da, hartu-eman zehatzetan kokatua, gizartean eratuta dagoenaren aurrean nolabaiteko defentsa behar duena. Langile mugimenduk lanerako baldintza egokiak eta negoziatzeko eskubidea exijitzeaz gain, subjektuaren defentsa egiten du etekina eta soilik etekina bilatzen duen arrazionalizazio mekanizista eta objektibatzailearen aurrean. Langileak subjektu gisa duen duintasunaren defentsa, subjektibazioaren esparru berria izango da.

Touraine-rentzat, mugimendu soziala izango da aktore kolektibo batek egiten duen ahalegina bere orientabide kulturalak gizartean zabaltzeko, beste aurkari kolektibo bati aurre eginez. Horrela, botere-harremanen dinamikan, mugimendu sozialak badira aldi berean proiektu kulturalak eta gatazka sozialak. Mugimendu sozialek borrokatzen dute modernitateak bultzatzen duen eredu arrazionalizatzailaren kontra; Weber-ren hitzetan, gizakia objektibizatzen eta deshumanizatzen duen “burdinazko kaiola” horren kontra²⁰⁴.

Subjektuaren defentsak, beraz, gizarte modernoaren positibismo eta teknizismoarekin egiten du topo. Touraine-ren ustez, gizarte industrialean bezala, gizarte post-industrialia kudeatzen duten aktoreek ere utilitarismo eta arrazionalizazio objektibatzaile hori bultzatzen dute. Horrela, gizabanakoen beharrak eskaera merkantilizatuak bihurturik, gizabanakoa kontsumitzaile edo giza baliabide gisa agertzen da. Horrexegatik, gizabanakoak, bere burua inguruko hartu-eman sozialetatik banaezina den subjektu gisa aldarrikatzen duenean, kontra egiten dio sistemaren logika dominatzaileari: “Subjektuaren ideia beti dago lotuta aldarrikapenarekin, gizarte modernoak bere sormena eta barne gatazkak ukatzeko joera daukalako. Horrela, sistema autoregulatu baten itxura ematen du eta desagertu egiten dira aktore sozialak eta beraien arteko gatazkak”²⁰⁵.

Touraine-rentzat, beraz, mugimendu soziala ez da soilik diskurtsoa edota orientabide kulturala, mugimendu sozialak kolokan jartzen du instituzioetan eta gizarte-erakundeetan modu zehatzean definitzen den botere-harreman bat. Izan ere, gizarte-egituren atzetik, komunikazio-sareen atzetik eta tekniken atzetik hartu-eman sozialak daude eta, ondorioz, aktoreak eta gatazkak. Zentzu horretan, autore frantsesarentzat gizarte zientzien zeregin nagusienetariko bat da azterketa ekonomikoetan, administratiboetan edo teorikoetan erabiltzen diren kategoria inbertsonalen atzetik, aktoreak eta hartu-eman sozialak zehaztea.

Zentzu horretan, “mugimendu soziala” kontzeptuak erabilpen analitiko zehatza dauka Touraine-rentzat; aurrerago zehaztasun gehiagoz ikusiko dugunez, bere ustez, egintza kolektiboaren arloan izaera ezberdinetako fenomenoak daude eta, horrexegatik, bereizketa analitikoa egin beharra dago. Horrela, aldarrikapen zehatz baten inguruko kanpainak, interes-taldeen *lobbyak* edo gatazkarik sortu gabe *status quo*arekin

²⁰⁴ *Ibidem* (orr. 310).

²⁰⁵ *Ibidem* (orr. 311).

konpatibleak diren elkartean jardunbideak, ezberdintasun nabarmenak dituzte orientabide kultural zehatzetan oinarriturik historizitatearen gidaritzaren auzian aurkariak definitzen dituzten mugimendu sozialekin. Hau da, egintza historikoaren sistema batean (edo gizarte mota batean) historizitatearen gidaritzak gatazka sortu ohi du hege- monia edo nagusitasun soziala lortu nahi duten mugimendu sozial gutxi batzuen artean; Touraine-ren ustez, momentu historiko zehatz batean eskaera, aldarrikapen eta kanpaina politiko ugari egonda ere, mugimendu sozial bakarria egon ohi da alde dominatzailean eta beste horrenbeste alde dominatuan: “badago soilik gatazkan dagoen mugimendu sozial bikote zentral bat”²⁰⁶.

Horrela, mugimendu sozial batean, elkarlotuta agertzen dira nortasun propioaren kontzientzia, aurkari edo lehiakide baten identifikazioa eta gatazka baten definizioa; gatazkaren definizio horretan, erreferentzia egiten zaie zenbait orientabide kulturaleri eta historizitateari, mugimendua kokatua dagoen gizartearen historizitateari. Touraine-ren planteamenduan, beraz, mugimendu sozialak ez dira definitzen daukaten indarragatik edo intentsitateagatik, baizik eta gatazka sozialagatik eta, zentzu horretan, aurkarien definizio zehatzagatik. Alberoni aipatuz (*Movimento e istituzione*, 1977), Touraine-k gogoratzen du mugimenduaren antonimoa instituzioa dela; mugimendu sozialak kontra egiten die nolabaiteko hegemonia daukaten balio kulturaleri eta arau instituzionalei, horrexegatik, mugimenduan dauden aktoreek, eratura dagoenarekiko haustura gisa antzematen dituzte euren egintzak. Subjektuegan daukan fedea gorai- patuz, Touraine-k azpimarratzen digu mugimendu soziala ez dela bakarrik kritika eta protesta egitea; bada ere askatzea eta partehartzea, itxaropen bat eta programa bat.

Ikusi dugun bezala, Alain Touraine-k gaitasun handia erakutsi du giza egintzaren inguruko aspektu mikroak, makrogoak diren gizartearen aspektuekin lotzeko. Horrela, bere kezka nagusiak harremanetan jarritz, errealitate soziala aztertzeko ikus- molde propioa garatu du. Historizitatea, subjektua, mugimendu soziala eta demokrazia elkarlotuta ulertzen ditu eta etengabe errepikatzen du gizakiok produzitu eta aldatu egiten dugula gizartea. Gizarte hori edo, bere hitzetan, egintza historikoaren sistema hori, ez da inoiz, beraz, lege historiko baten espresioa (ez aurrerapenaren legea ezta materialismo historikoarena), edo boterea eta pribilegioen erreproduzio- sistema. Alienazioa, esplotazioa eta kontzientzia faltsua egonda ere, elkarbizitza sozia- lean ez da posible subjektuen erabateko menpekotasuna lortzea. Izan ere, aktoreen egintza eta bere kontzientzia ezin da azaldu kanpoko logika baten arabera, baizik eta giza egintzaren berezko izaeraren arabera eta berezkitasun hori askatasun sortzailea da, egintza libererako borondatea. Touraine-rentzat, mugimendu sozialak subjektuen askatasun sortzailearen produktua dira eta, aldi berean, defendatu egiten dute subjek- tua gizarte-sistemak ezartzen duen menpekotasun-logikarengandik. Horrexegatik, az- ken batean, demokrazia eta historizitatearen norabidea, aktore sozialek egintza kolektiborako daukaten gaitasunaren esku egongo dira.

²⁰⁶ “An introduction to the study of Social Movements” TOURAINE, ALAIN. *Social Research*, 52. li- burukia, zenbk. 4. 1985. Orr. 773. Ikusi ere “A sociology of the subject” ALAIN TOURAINE. Editoreak: Jon Clark eta Mario Diani. *Falmer Press*. 1996. Orr. 311.

Mugimendu sozialen azterketa

Arestian aipatu bezala, Touraine-k proposatu duen ikuspegiak ez du izan nahi, mugimendu sozialen azterketaren inguruan dagoen debate akademiko oparoan, beste ikuspegi batzuekin lehian dagoen proposamena. Are gehiago, bere ustez mugimendu sozialen azterketari gerta lekiokoen gauzarik okerrena, diziplina batzuen artean espezializatorako eta lehia akademikorako mugatzen den sektorea bihurtzea izango zen. Touraine-ren ustez, mugimendu sozialen azterketak gizartearen produkzioa, eraketa eta gidaritza beste modu batez aztertzeke aukera eskaintzen du. Horrela, bai teoria soziologikoari dagokionez, bai ikerketa sozialari dagokionez, mugimendu sozialen ikuspegiak hurbilpen berri bat eskaintzen dio soziologiari. Desioak desio, Touraine-k mugimendu sozialei ematen dien zentraltasuna zientzia modernoaren sektorizazioaren kontra doa, eta holismotik urruntzeko dagoen joera hori indartsuegi da egungo zientzia akademikoan. Horrela, XX. gizaldiko azkeneko hiru hamarkadetan mugimendu sozialen azterketak ezagutu duen garapena eta espezializazio maila, ikusgarria izan da, eta aho-batez onartzen da gizarte-zientzietako “industria” emankorrenetarikoa bat dela²⁰⁷. Mendebaldeko gizartetan hirurogeigarren hamarkadan abiatzen diren mugimendu sozial berriek, agerian utzi zuten ordura arte egintza kolektiboaren azterketarako erabiltzen ziren hiru ikuspegiak —portaera kolektiboaren ikuspegia, gizarte masifikatuaren ikuspegia eta besteekiko gabeziaren ikuspegia— zituzten gabeziak. Hiru ikuspegi horiek, mobilizazio eta mugimenduen agerpenaren azalpen gisa, gizartearen tentsio estrukturalak aktore mobilizatuengan eragiten duten desoreka psikologikoa aipatzen dute. Azalpen horiek, ordea, ez zuten gogobetetzen 60. hamarkadako mugimenduen azterketa; horrela, ikerketa berrien bidez, beste interpretazioen bilaketa abiatu zen. Harrezkero, mugimendu sozialen inguruko literatura oso oparoa izan da, eta dagoeneko ondo eratutako eskolak osatu dira, ikuspegi ezberdinak kontrajarriz gaiaren inguruko eztabaidan.

Mugimendu sozialen azterketaren garapen ikusgarria azaltzen duen beste elementu bat lotuago dago, ordea, lan honen hasieratik jorratzen ari garen gaiarekin; izan ere, mugimendu sozialen azterketa, esparru egokia kontsideratu da aktore eta sistemaren arteko hartu-emanaren azterketarako²⁰⁸. Hain zuzen ere, mugimendu sozialek gizartearen egitura eta gizartearen ordenarekiko erresistentzia, desobedientzia eta aldaketa bultzatzen dutelako. Egitura-egintza auziaren azterketak, beraz, bere eragina izan du mugimendu sozialen inguruko interesak izan duen gorakadan.

Egintza-egitura auziak eta mugimendu sozialen azterketak nolako lotura izan duten ikusteko, mugimendu sozialen azterketan garatu den ikuspegi teoriko bakoitzak giza egintzaz egiten duen kontzeptualizazioari erreparatuko diogu. Jarraian ikusiko dugunez, ikuspegi batzuk giza egintza kokatu dute azterketaren erdigunean; beste ikuspegi batzuk, ordea, gizarte-sistemari edota testuinguru sozialari eman diote ga-

²⁰⁷ Ikus. *Política, cultura y movimientos sociales*. CASQUETTE, JESÚS. *Bakeaz*. Bilbao, 1998.

²⁰⁸ *Challenging Codes. Collective Action in the information age*. MELUCCI, ALBERTO. *Cambridge University Press*. 1996. Orr. 381.

rrantzi gehien. Interesatzen zaigu, beraz, mugimendu sozialen azterketan ikusmolde bakoitzak giza egintzatik edo gizarte-sistematik abiatzen den eta, azken batean, eskola edo ikuspegi bakoitzak zein egintzaren teorian daukan bere oinarria —utilitarista, normatiboa, sortzailea,...—.

Touraine, eta European garatu diren beste ikuspegi “konstruktibista” batzuk, subjektuen egintza sortzailetik abiatu dira. Aktoreek, interakzioan sortzen dituzten ideiak, marko kognitiboak, diskurtsoak eta nortasun kolektiboen bidez, mobilizazioa eta gatazka sortarazten dute testuinguru sozio-historiko zehatz batean. Ikuspegi analitiko hauek, produkzio sinbolikoaren aspektu ezberdinak aztertuz —*frame* edo errealitatearen irakurketak (Snow eta Benford, 1986-88), produkzio kognitiboa eta diskurtsoak (Eyerman eta Jamison, 1995), nortasun kolektiboak (Pizzorno eta Melucci, 1989 eta 1996) edo mugimenduek historizitatean jokatzan duten papera (Touraine, 1978-1984)— giza elkarregintzaren sormena eta gidaritza azpimarratzen dute, kasu gehienetan egiturazko testuinguruak ezartzen dituen mugak eta aukerak ere kontutan hartuz. *Gizarte Mugimendu Berrien* ikuspegia deitu izan zaio Touraine, Melucci, Eder eta beste autore batzuek bultzatu duten gatazka kultural, politiko eta historiko zehatzekin lotuta dagoen ikuspegi honi.

Mugimendu sozialen azterketan 70. hamarkadatik aurrera nabarmendu den beste ikuspegi bat *Baliabideen Mobilizazioaren Ikuspegia* izan da. McCarthy, Zald eta Jenkins (1973 eta 1983) definitu zuten ikuspegia, baina ekarpen garrantzitsuak egin dituzte beste autore nagusi batzuek: Charles Tilly bere egintzarako erreperorioen azterketaren bidez (1978), edo Klandermans-ek eta McAdam-ek, harreman-sareak eta mobilizazio pertsonalaren prozesua aztertuz (1984-86, 1988). Baliabideen Mobilizazioaren Ikuspegia, giza egintzaren ikusmolde utilitarista batean oinarritzen da, mugimendu sozialen aktibitatea kostuak eta etekinak kontuan hartzen dituen erantzun arrazionala kontsideratzen dute. Beraien ustez, gizarte batean instituzionalizaturik dauden botere-harremanetan, beti daude interes ezberdinen arteko gatazkak eta konforme ez dauden sektoreak; baina mobilizazio kolektiboa gertatzeko funtsezkoena ez da gatazka edo inkonformismo maila, baizik eta taldeek daukaten ahalmena eta baliabideak sektore mobilizagarriak mobilizatzeko. Aipatu bezala, ikuspegi teoriko honek giza egintzaren ulerkera utilitarista eta instrumentala erabiltzen du, euren azterketaren interesa eta abiapuntua, ordea, ez dira gizabanakoak baizik eta gizarte erakundeak edo mugimendu sozialetan dauden taldeak. Horrela, autore hauen interesa da erakundeek mobilizatzen dituzten baliabideak (partehartzaileak, dirua, azpiegitura, ezagutza, estrategiak...) eta baliabide horien erabilpen eraginkorra. Izan ere, beraien ustez, mugimendu sozialak sortzen dira taldeek eta gizarte-erakundeek eskuragarri dituzten baliabide eta aukeretan aldaketa esanguratsuak gertatzen direlako, baita baliabide horietaz egiten duten erabilpenean ere. Horiexek dira, beraz, dimentsiorik funtsezkoenak mugimendu sozialen azterketan: aktibistak erakartzeko mekanismoak, egintzarako errepertorio estrategikoak, arrakasta lortzeko abiatzen den ekintzabidea eta komunikazio publikoa, eta aliantza politikoak negoziatzeko daukaten gaitasuna.

Azkenik, *baliabideen mobilizazioaren* adar bereiztu gisa, hirugarren ikuspegi nagusi bat ezberdindu ohi da mugimendu sozialen azterketan: *Prozesu Politikoaren*

Ikuspegia (Tilly, 1978; McAdam, 1982; Tarrow, 1991 eta 1994; Kriesi, 1992). Ikuspegi honek, mugimendu sozialek egintza kolektiborako daukaten testuingurua aztertzen dute: protestaren zikloak eta aukera politikoen egitura. Horrela, aktore mobilizatuek dituzten aukerak aztertzen dituzte eta, horrekin batera, egitura instituzionalarekin eta aktore politiko nagusiekin dituzten harremanak ere. Esan genezake, beraz, kanpoko faktore objektibizatuak aztertzen dituztela; izan ere, autore hauentzat, mugimendu sozialen sorrera, garapena eta estrategia, testuinguru politikoren arabera eta egitura instituzionalak daukan izaeraren arabera definituko baita²⁰⁹. Horrela, aktore mobilizatuek sistema politiko irekiagoak edo itxiagoak aurkituko dituzte ondoko aldagaien arabera: 1) sistema politikoak daukan eskuragarritasun formala aktore mobilizatuentzat —administrazioaren egitura instituzionalak daukan zentralizazio maila, instituzio ezberdinen arteko bateratasuna, botereen banaketa maila eta demokrazia zuzena gauzatzeko prozedurek daukaten instituzionalizazioa—; 2) administrazioak mobilizatuenganako garatzen dituen erantzun edo estrategiak —bartzertzaile eta errepresiboak edo integratzaileak—; 3) aktore mobilizatuek elite politikoen artean aliatuak izateko dituzten aukerak; hala nola, elite horien arteko hitzarmenek daukaten egonkortasuna, eta euren arteko gatazka edo banaketa-ardatz nagusiek dituzten gorabeherak.

Horiek dira, beste batzuen artean, aukera politikoen egitura aztertzen duten autoreek ikertzen dituzten aspektuak. Aldagai horien arabera mobilizatuenganako administrazio gogorragoak eta malguagoak sailkatzen dituzte eta, horrekin lotuta, mugimendu sozialen estrategia ezberdinak, antolaketa-moduak, aliantzak, etab...

Mugimendu sozialen azterketari egin diogun hurbilpen labor honetan, interesatzen zaiguna zera da, egintza-egitura auziari, egintza kolektiboa eta mugimendu sozialen azterketak egiten dion ekarpena. Zentzu horretan, pentsamendu soziologikoan azkeneko urtetan antzeman den sinkretismorako joera —egintza/egitura dualismo tradizionala gainditzeko eta ikusmolde teoriko integratzaileagoak sortzeko— nabaria izan da ere mugimendu sozialen azterketan. Izan ere, arestian aipaturiko ikuspegien artean, osagarritasuna bilatzea eta sintesia sortzea kezka nagusia izan da, azkenaldian, mugimendu sozialen azterketan. Horrela, gero eta gehiago azpimarratzen ari da funtsezkoa dela, egintza kolektiboaren azterketan, dimentsio kulturalak, dimentsio organizatiboak eta dimentsio politikoak kontutan hartzea; eta, urtetan egin den moduan, dimentsio horietako bakar batek fenomeno guztia azaldu dezakeela defendatzea, bartzertu beharra dagoela. Osagarritasunaren norabide horretan, ez dira gutxi (Melucci, 1996. McAdam, 1996. Touraine, 1996) ondorengo planteamendu integratzailea egin dutenak: *Baliabideen Mobilizazioaren ikuspegiak*, mugimendu sozialen alderdi organizatiboak, estrategikoak eta materialak aztertu ditu —mobilizazio kolektiboa *nola* gauzatzen den—; *Prozesu Politikoaren ikuspegiak*, testuinguruaren alderdi politikoak eta estrategikoak landu ditu —mobilizazio kolektiboa *noiz* gertatzen den—; eta, azkenik, *Gizarte Mugimendu Berrien ikuspegiak*, fenomenoaren alderdi kulturalak, identitarioak eta gizarte post-industrialean aktore kolektibo ezberdin arteko gatazka-

²⁰⁹ CASQUETTE, J. *Política, Cultura y Movimientos Sociales*. Bakeaz. Bilbao, 1998. Orr. 83-4.

rekin lotuta dauden aspektuak landu ditu —mobilizazioa kolektiboa *zergatik* gertatzen den—.

Dena den, ikusi bezala, mugimendu sozialen debatean nagusitu den joera eztabaida sektoriala eta mugatuarena izan da. Hots, ikuspegi ezberdinen arteko kontrastea ez da erabiltzen, maila teorikoan eta gizartea bere osotasunean kontuan hartuta, giza egintza edo gizarte-egituraren inguruko planteamendu berriak egiteko, edota pentsamendu soziologikoan ildo teoriko eta analitiko berriak proposatzeko.

Salbuespena litzateke, horretan, Alain Touraine; mugimendu sozialak dira, autore frantsesarentzat, protagonista nagusiak gizartearen produkzioan eta historiaren bilakaeran. Alain Touraine-k bere egin du hurbilpen integratzaileago hori baina, Alberto Melucci-rekin batera, azpimarratu du ere mugimendu sozialen azterketan gehiegizko nahasketa kontzeptuala dagoela. Horrela, autore hauen ustez, ezinbestekoa da egintza kolektibo mota ezberdinak bereiztea, argitu ahal izateko zein egintza kolektibori esaten diogun mugimendu soziala eta zeini ez. Eta, zentzu horretan, zein egintza kolektibo den aldaketa sozialaren eragile eta zein ez. Ildo horretatik, Touraine-ren ustez, egintza kolektiboaren hiru kategoria ezberdindu daitezke:

- “Aldarrikapenak”, egintza kolektiboak abantaila neurgarriak lortzea helburu duenean; hau da, xedea erakunde zehatz batekin kostu-etekina erlazioa hobetzea denean. Adibidea litzateke sindikatuek lan-baldintza, lan-ordu edota soldaten aldarrikapenen inguruan garatzen duten egintza kolektiboa.
- “Erreforma-kanpainak”, egintza kolektiboak erabakiguneetan nolabaiteko ordezkaritza edo negoziatorako ahalmena lortzea helburu duenean; xedea, beraz, erabakiguneen parte bihurtuz, mota bateko edo besteko erreformak bulztatzea litzateke.
- “Mugimendu soziala”, orientabide berriak erabiliz, kolokan jartzen du eredu sozialean indarrean dauden menpekotasun harremanak; hau da, gutxiengo edo elite batek darabilen baliabide nagusien kontrola²¹⁰.


Touraine-entzat, joera handia egon da egintza kolektibo guztiak modu berean interpretatzen. Horrela, ikuspegi ideologiko liberal batetik aztertzen direnean, denak sartzen dira lehenengo kategorian; denak bigarren kategorian, ikuspegi ideologiko erreformista batetik interpretatzen direnean; eta denak hirugarren kategorian, ikuspegi ideologiko erradikal batetik aztertzen direnean. Bere ustez, ordea, ezin da defendatu egintza kolektibo guztiak mota bakar batekoak direnik, azterketa soziologikoek hurbilpen ideologikoak baino harantzago joan behar dute. Hortaz, ezin da onartu mobilizazio kolektibo guztiak kostu-etekina erlazioa hobetzea helburu duten fenomeno bezala interpretatzea edo, aldiz, sakoneko gatazka sozial baten adierazpen bezala irakurtzea. Bere ustez, gizartean, interes-taldeen jarduera dago eta horrekin lotu behar-ko zen aipaturiko lehenengo egintza kolektibo mota; horrekin batera, erreformarako

²¹⁰ “A sociology of the subject” ALAIN TOURAINE. Editoreak: Jon Clark eta Mario Diani. *Falmer Press*. 1996. Orr. 309.

mugimenduak edo kanpainak daude, partaidetza instituzionalaren bidez demokrazia-rako dauden oztopoak gainditu eta gogortasun instituzionala dinamizatu nahi dutenak, horiek dira bigarren egintza kolektibo mota irudikatzen dutenak. Azkenik, mugimendu sozialak daude, orientabide kultural berriak defendatuz, gainditu egiten dute elkarbizitza kolektiboak momentu batean daukan egoera, eta gatazka zein negoziazioaren bidez, desafio egiten diote gizarte-sistemak momentu historiko batean dituen mugei.

Alberto Melucci italiarrak, horrelako ezberdintzeak egin beharraz ohartarazi du ere. Bere ustez, “mugimendu soziala” kontzeptua, orokorpen empiriko gisa erabili izan da, ezberdinak diren fenomeno kolektiboak izendatzeko; egokiena litzateke, ordea, kontzeptu analitiko gisa erabiltzea, egintza kolektibo mota zehatz bat izendatzeko. Bere proposamenean, hiru dimentsio analitikoen arabera ezberdintzen ditu egintza kolektiboak²¹¹:

- Egintza kolektiboa protagonizatzen dutenak, banakoen gehikuntza hutsa izatea edo, aldiz, nortasun kolektiboa egotea; hots, elkartasunezko sentimenduak eta “gu” batekin identifikatzeko joera egotea edo ez egotea.
- Egintza kolektiboan, bi aktore kolektibo edo gehiagoren artean aurkakotasuna eta gatazka egotea edo, aldiz, gatazkarik ez egotea baliabide sozialen kontrola arautzen duten prozeduren inguruan.
- Egintza kolektiboak, hartu-eman sozialen sistemari desafioa eginez, konpatibilitaterako dituen mugak haustea edo, aldiz, integratua egotea hartu-eman sistemak onartzen duen aldakortasunaren mugetan.



Esan bezala, Melucci-k, hiru dimentsio horietan oinarrituz, “mugimendu soziala” kontzeptua kategoria analitiko gisa erabiltzen du, egintza kolektibo mota zehatz bat izendatzeko; hain zuzen ere, nortasun kolektiboa berezko elementu definitzailea duena, gatazka bat adierazten duena, eta jarduten duen hartu-eman sistemarekiko haus-

²¹¹ *Challenging Codes. Collective Action in the information age.* MELUCCI, ALBERTO. Cambridge University Press. 1996. Orr. 23.

tura edo inkompatibilitatea ekartzen duena²¹². Mugimendu soziala da, beraz, ezaugarri zehatzak dituen egintza kolektibo modu bat, eta hiru dimentsio analitiko horietan bestelako ezaugarriak ematen direnean beste izaera bat daukaten gertaera sozialen aurrean egongo gara.

Melucci-k, beraz, zorroztasun analitiko handiagoa proposatzen du egintza kolektiboaren arloan aurrera egin ahal izateko. Bere ustez, mugimendu sozial baten existentzia ez da egintza kolektiboaren abiapuntua, baizik eta azkeneko emaitza, etengabe berregiten ari den egintza-prozesu baten azkeneko emaitza; azterketa soziologikoak, beraz, egintza-sistema horren azalpena bilatu behar du.

Izan ere, egintza kolektiboa, aukerak eta mugak dituen esparru batean, harreman sozialen bidez eraikitzen den asmo eta helburuen orientabidea da; ezin da kontsideratu helburu eta sinismenen adierazpen soila, ezta ere testuinguruaren baldintzaile estrukturalen ondorio zuzena. Hortaz, determinismo estrukturala eta boluntarismoaren artean —dualismo teorikoaren bi mutur tradizionalak—, Melucci-k aldarrikatzen du tartean dagoen espazio teorikoa, hau da, zein prozesuren bidez eraikitzen duten aktoreek euren egintza. Beste era batera esanda, zein prozesuren bidez aktoreak “gu” baten partaide sentitzen diren, eta nola definitzen duten egoera elkarlanerako aukerak dituen esparru gisa. Izan ere, kolektiboki jarduten duten gizabanakoak eta taldeak, euren egintzaren aukerak eta mugak zehaztuz, egoeraren definizioa egiten dute baliabide kognitiboekin eta elementu afektiboak dituzten baliabide erlazionalekin.

Egintza kolektiboa, beraz, prozesu bezala aztertu behar da, ezin da kontsideratu begibistakoa den gertaera; egintza kolektiboaren prozesua hartu-eman sareetan garatzen den elkarregintzan aztertu behar da, eta aurrez aurreko elkarregintza horretan definitzen den nortasun kolektiboa eta baliabide kognitiboak funtsezko elementuak dira. Izan ere, hartu-eman horietan definitzen den nortasun kolektiboarekiko eta baliabide kognitiboekiko hurbiltasun gehiago edo gutxiago izatea, mobilizazioa eta partaidezaren gako nagusienetarikoa da²¹³.

Ikusi bezala, Melucci, Touraine eta mugimendu sozialen azterketa ikuspegi konstruktibista batetik garatu dutenak, giza egintza eta elkarregintza dute abiapuntu. Aktoreak dira azterketaren erdigunean daudenak, ez baitago aktorerik gabeko egintza kolektiborik. Beste ikuspegietan, ordea, mugimenduaren baliabideak eta estrategiak dira interesgune nagusiak, edo testuinguru politiko-instituzionala; horrela, giza egintza nola ulertzen duten agerian teorizatu barik, mugimendu sozialen bizitzan interesgarriak diren aspektu organizatiboak eta politikoak aztertu dituzte, beti ere determi-

²¹² Melucci-k, egintza kolektiboaren azterketarako proposatzen duen beste printzipio bat, egintza kolektiboa zein hartu-eman sozialen sisteman garatzen den kontuan hartzea da: baliabideen ekoizpena burutzen duen sisteman (ekonomikoa), baliabideen banaketa erabakitzen duenean (politiko-instituzionala), integrazioa eta elkartrukea bideratzen duen sistema organizazionalan (hezkuntza, komunikabideak, osasuna...), edo eguneroko komunikazioa eta elkarregintza gidatzen duen sistema erreproduktiboan. *Ibidem*. Orr. 25.

²¹³ “Asumir un compromiso: identidad y movilización en los movimientos sociales” MELUCCI, A. Zona Abierta 69, 1994. Orr. 172-3.

nismo estrukturala, normatibismoa edo egintzaren ikusmolde instrumentalak ezartzen dituen mugen barne.

Touraine edo Melucci bezala, giza egintzaren ikuspegi sortzaile batetik abiatu direnak, giza elkarregintzan produkzio sinbolikoaren bidez sortzen diren orientabide kulturalak, nortasun kolektiboak eta arerio edo lehiakideen definizioak aztertu dituzte. Horrela, erreferente kulturalak, gatazkaren definizioak eta botere-harremanak, giza agentzia eta mugimendu sozialen funtsezko dimentsioak kontsideratu dituzte. Horrek, errazago bihurtu du pentsamendu soziologikoaren gai nagusiekin lotura egitea, eta gizartearen eraketa eta gidaritzaren auziari ekarpen interesgarriak egitea. Garrantzitsuena, seguru asko, gizarte-sistemaren objektifikazioaren kontra jotzea izan da; eta, horrekin batera, giza egintza eta gizarte-egituraren artean dagoen hutsune teorikoa gainditzeko ikuspegi dinamikoagoa proposatzea: errealitate soziala etengabe-ko aldaketan dago, gizartea reifikatu beharrean aktoreen arteko hartu-eman multzo gisa hartzen badugu, onartu behar dugu momentu historiko zehatz bakoitzean aktore horien orientabide kulturalak eta hartu-eman gatazkatuak ari direla etengabe sortzen elkarbizitza soziala.

3.3. Piotr Sztompka eta gizarte-bilakaeraren teoria

Piotr Sztompka soziologo poloniarrek gertu-gertutik jarraitu ditu, azkenaldian, egitura-egintza auzian egon diren garapen teoriko berriak. Jarraipen horren ondorio gisa, Sztompka-k bi esparru zehatzetan ikusten ditu aurrerapausorik interesgarrienak: soziologia historikoan eta agentziaren teorietan. Sztompka-k, pentsamendu sozialean nabarmendu diren dikotomia nagusiei aterabide sintetikoa eta dialektikoa proposatzeaz gain, bere eredu teoriko propioa eskaini du: gizarte-bilakaeraren teoria. Horrekin batera, Sztompka-k, agentzia kontzeptua sakonean landuz, egintza kolektiboaren azterketa enpirikorako oso erabilgarriak diren proposamenak egin ditu.

Lan honen atal ezberdinetan ikusi dugun bezala, gizartearen eraketa eta gidaritza aztertzerakoan, gizarte-sistemaren determinismoa defendatzeak ildo teoriko batean kokatzen gaitu. Giza egintzaren determinismoa defendatzeak, ordea, beste ikuspegi batean kokatzen gaitu. Sztompka-k, pentsamendu soziologiko garaikidean egon diren joera nagusiak deskribatzeko orduan, egitura-egintza banaketa-ardatzarekin batera beste banaketa-ardatz bat erabiliko du; bere ustez, gizartea ikuspegi estatiko batetik —erreproduktzioa azpimarratuz— edo dinamiko batetik —aldaketa eta mugimendua azpimarratuz— aztertzeak, teoria soziologikoaren esparrua definitzeko gogoan eduki beharreko beste banaketa teoriko bat dakar.

Sztompka-rentzat, ikuspegi soziologiko nagusien arteko banaketa horiek bat datoz gizakiaren existentzia itxuratzen duten bi ezaugarri ontologikoekin: batetik, gizartea eta gizabanakoaren arteko tentsioa (egitura/egintza auzia termino soziologikoetan); eta, bestetik, egonkortasuna eta aldaketaren arteko aurkakotasuna (betikoa/mugimendua). Sztompka-rentzat, bi banaketa-ardatz horiek —oinarrian giza munduaren bikoiztasun ontologikoa daukatela— teori soziologikoaren esparrua definitzen dute.

Historikoki, alde bakarreko ikuspegiak eta irtenbideak nagusitu dira lehenengo zein bigarren dileman eta, soziologo poloniarraren ustez, bi dilema edo bikoiztasun horiek errealitate sozialak dituen berezko ezaugarri ekidinezin bezala onartu arte, ez da posible izan ikuspegi sintetikoak sortzea.

Horrela, Sztompka-k ere, polarizazioa eta aldebakarrekotasuna aipatzen ditu, pentsamendu sozialaren garapen teoriko garaikidea deskribatzeko orduan. Lan honen beste ataletan tradizio eta eskola ezberdinen arteko distantziak eta banaketa-ardatzak aipatu baditugu ere, zilegi izan bekigu Sztompka-k egiten duen azken hamarkadeta-ko panorama teorikoaren analisia aipatzea, argitasun handiz deskribatzen baitzikigu ikuspegi bakoitzaren nondik norako nagusiak.

Mugimendu pendularra da, autore poloniarraren ustez, ezaugarri nagusia azkene-ko hamarkadetako pentsamendu sozialean; arestian aipaturiko banaketa-ardatzak arteko mugimendu pendularra, alegia. Bigarren munduko gerraren ondorengo urtetan soziologia alde estrukturalari begira jarriko da; “Durkheim-en arazo”ari begira, hain zuzen, gizartearen egiturazko halabeharrek gizabanakoen portaera determinatzen zuten. “Gizabanakoek barneratzen dituzten egiturazko inperatiboak (balioak, arauak) giza motibazio nagusiak bailiran ikusten ziren, jendea modu funtzionalean jokarazten zutenak gizarte-sistemarekiko. Beste era batera esanda, erabateko sintonia zegoen gizarte-sistemaren egitura eta euren partaideen izaeraren artean”²¹⁴. Gizakiaren ikusker-ara hipersozializatu hori eredu nagusia zen eskola funtzionalista-estrukturalistan, dakigunez, eskola nagusia mendebaldeko soziologian hirurogeigarren hamarkada heldu arte.

Sztompka-k ere hirurogeigarren hamarkadan kokatuko du funtzionalismo estrukturalaren beharakada eta, horrekin batera, pendulu teorikoaren mugimendua kontrako muturrerantz. “Weber-ren arazoa” abiapuntu hartuta, soziologoak alde indibidualari begira jarriko dira, giza egintza bihurtzen baita ikerketa-objektu nagusia. Ondorengo hauek izango dira interesgune zentralak aro berri horretan: eguneroko hartu-emana eta elkarregintza, elkarregintza horien osagai sinbolikoak eta gizakiak abiatzen dituen prozesuak bizitza-mundu subjektiboak eraikitzeke. “Objektuaren inperialismotik, subjektuaren inperialismora” horrela deskribatuko du Sztompka-k, arestian aipatu dugun Giddens-en metafora erabiliaz, mugimendu teoriko pendularra.

Sztompka-k, antzeko mugimendua ikusten du ere egonkortasuna-aldaketa ardatzean, espazio teorikoa definitzeko erabiltzen duen bigarren ardatzean. Bere ustez, ikuspegi funtzionalistari kutsu estatikoa dario; gizartea adostasunean oinarritutako sistema armoniatsua eta orekatua bada, berezko ezaugarria egonkortasuna da eta ez aldaketa. Aldaketa, *status quo*a berreratzeko barne-erantzun orekatzaile bezala ulertuko da. Hirurogei hamarkadatik aurrera, ordea, gatazkaren teorikoez lehenengo, eta etnometodologiak zein fenomenologiak geroago, aldaketaren etengabekotasuna aldarrikatuko dute eta, ondorioz, ikuspegi dinamikoagoak garatuko dituzte. Gizartearen barneko tentsioak, ezadostasunak eta desorekak azpimarratzeak, indar eta gizarte-

²¹⁴ SZTOMPKA, P. *Society in Action*. Polity Press. Cambridge, 1991. Orr. 18.

sektore ezberdinen arteko borrokak aztertzea eramango du; eta, horiekin lotuta, sektore bakoitzak egiten dituen ahaleginak, ekidinezina den aldaketa bere interesen arabera bideratzeko. Era berean, giza egintza eta elkarregintza sinbolikoaren azterketan zentratzen diren aztertzaileek, prozesuetan oinarritutako ikuspegi dinamikoagoak sortuko dituzte; gizartearen eraikuntza, eguneroko elkarregintzan eta elkartruke sinbolikoan oinarrituta ikusten baitute. Gizartearen irudia, beraz, etengabeko berregintzan dagoen errealitate batena izango da.

Mugimendu teoriko pendular horren arrazoiak identifikatzeko orduan, Sztompka-k, paradigma funtzionalista eta estrukturalistaren krisia azaltzeko —Kuhn-en planteamendu epistemologikoak erabiliaz, autore poloniarraren ustez paradigma funtzionalistaren barne-garapenak goia jo zuen, eta muga teoriko zein enpirikoak nabarmenago azaldu ziren—, testuinguru historikoa kontuan hartu beharra azpimarratzen du: “60. hamarkadaren amaieran eta 70.ean munduan jazo ziren aldaketa sozial eta politikoei goitik behera aldatu zuten zientzia soziologikoaren aztergaia bera”²¹⁵. Sztompkaren ustez, aktibismoak eta behetik gorako mobilizazioak egitura politiko eta ekonomikoen faktizitatea eta ezinbestekotasuna dardaratu zuten. Oinarritzko sinismenak eta adostasunak kolokan jarri ziren alde batetik, lehenagotik zetozen tentsio eta gabezien eraginez eta, bestetik, modernitatearen nahigabeko ondorioen aurrean sortutako defentsa gisa (hondamen ekologikoa, mehatxu nuklearra,...). Utopiaren eta aldaketaren grina piztu zen, eta gerra ondoren mendebaldean zegoen ongizate eta armonia bertan behera gelditu zen. Bestaldetik, antagonismoak (etnia artekoak, belaunaldien artekoak eta klaseen artekoak) zein nazioarteko gatazkek zerikusi handia izan zuten ezinegon eta protestaldi hartan. Anti-autoritarismoa eta demokrazia partehartzailearen aldeko aldarrikapena, zabal hedatu zen eta, Sztompka-ren ustez, teoria soziologikoak aitortu behar izan zuen gizabanakoen ekintzak kontuan hartzekoak direla gizartearen produkzioan eta gidaritzan. Horrela, aktibismo eta aldaketa nahiaren aurrean, pentsamendu soziologikoak ikuspegia aldatu zuen: osotasun sozialak, sistemak eta egiturak azpimarratzetik, gizabanakoak eta euren ekintzak azpimarratzera iragan zen.

Pentsamendu sozialean nabarmendu ziren ikuspegi berriek —gizabanakoen eguneroko elkarregintza eta elkartruke sinbolikoa abiapuntu hartzen dutenak— gizartearen instituzionalizazioa eta bilakaera azaltzeko, aspektu intersubjektibo eta sinbolikoei erreparatuko diete eta, ondorioz, determinismoa edo kausalitatearen norabidea aldatu zuten: gizarte-egituratik giza egintzara joan beharrean, giza egintzatik gizarte-egiturara doala defendatuko dute. Gauzak horrela, tarteko bide dialektikoari tokirik egin gabe, polarizazioa eta aldebakarrekotasuna nagusituko da, eta horrek zailtasun handiak ekarriko ditu hirugarren erdibide integratzailea eta multidimentsionala sortzeko. Pentsamendu sozialean urtetan egon den joera polarizatzaile horretan, Sztompka-k inflexio puntu bat ikusten du laurogeigarren hamarkadan: agentziaren teorietan eta soziologia historikoa dauden garapen teorikoei esker, zubi berriak proposatuko dira egitura eta instituzio maila elkarregintza mailarekin elkarlotu ahal izateko. Izan ere, egitura-egintza edo sinkronia-diakronia dikotomia tradizionaleri

²¹⁵ *Ibidem* (orr. 20).

irtenbidea ematea, pentsamendu sozialaren zeregin nagusi bat bihurtzen da XX. gizaldiaren azkeneko bi hamarkadetan²¹⁶.

Sztompka-ren ustez, ikuspegi sintetikoak sortzeko ahaleginetan agentziaren teoriak garrantzi handikoak izan dira; Amitai Etzioni, Alain Touraine, Anthony Giddens edo Margaret Archer bezalako autorei esker, errealitate sozialaren azterketak kontutan hartu behar ditu ezinbestez agenteak, subjektuak, giza egintzaren agentzia. Sztompka-k, sei puntutan laburbiltzen ditu agentziaren teorien ekarpenak: 1) gizartea prozesu bat da, etengabeko aldaketan dagoen prozesua. 2) aldaketa endogenoa da, auto-aldaketaren modua hartzen du. 3) Aldaketaren azkeneko eragilea gizakien edo talde sozialen botere agentziala da. 4) aldaketaren helmugak, norabidea eta abiadura agente askoren eztabaidagaia da, gatazka eta borroka esparru bat bihurtzen da. 5) Giza egintza elkarlotuta dauden gizarte-egituren testuinguruan jazotzen da; egiturek izaera bikoitza dute (determinatzaileak eta determinatuak), baita aktoreek ere (sortuak eta sortzaileak). 6) Egintza eta egituraren arteko elkarreagina denboraren dimentsioaren barne jazotzen da, txandakatzen dira sorkuntza agentzialaren aldiak eta egituren determinismoaren aldiak²¹⁷.

Era berean, soziologia historikoaren esparruan Sztompka-k ekarpen berritzaile garrantzitsuak ikusten ditu egonkortasuna-aldaketa aurkakotasuna gaingintu ahal izateko. Sztompka-ren ustez, Norbert Elias, Philip Abrams, Charles Tilly, Michael Mann, Theda Skocpol edo Christopher Lloyd bezalako autorei esker, soziologia historikoan beste sei funtsezko oinarri ari dira definitzen: 1) Errealitate soziala ez da zerbait egonkorra baizik eta prozesu dinamiko bat; existitzen baino gertatzen da, bere osagaiak ez dira objektuak baizik eta gertaerak, eta “denbora” berezko faktorea da bizitza sozialean. 2) Aldaketa soziala prozesu askoren batera biltzearen ondorioa da, bektore eta elkarlotura anitz duten prozesuak. 3) Gizartea ez da sistema, objektu edo osotasun bat; baizik eta, tentsioa eta armonia zein gatazka eta kooperazioa agertzen dituen hartu-eman sare isurkorra. 4) Prozesu sozialak metakorrak dira, epealdi bakoitza aurrekoen emaitza edo kristalizazioa da eta, era berean, prozesu berrien abiapuntua. 5) Prozesu sozialak giza agentziak —banakakoa zein taldekakoa— sorturikoak dira. 6) Gizakiok ez dugu sortzen gizartea nahi dugun erara, baizik eta iraganetik emanda datozen baldintza estrukturalen barne. Egitura eta egintzaren artean badago dialektika bat; egintza, neurri batean, lehenagotik emanda datozen egiturek determinatzen dute. Geroko egiturak, berriz, lehenagoko egintzak sorturikoak dira.

Sztompka-ren ustez, agentziaren teoriak eta soziologia historikoak, abiapuntu ezberdinetatik abiatuz, errealitate sozialaren funtsezko oinarri ontologikoetan zabaltzen ari den adostasun berria erakusten dute: “(...) gero eta ekarpen gehiago ari dira egiten gizartea prozesu dinamiko bezala antzemateko. Prozesu horretan, jendearen egintzak etengabe sortzen eta birsortzen du bere existentziaren testuingurua: gizarte-egiturak. Eta horiek hasierako abiapuntu bihurtzen dira egintza berrietarako —egintza zailtzen

²¹⁶ *Ibidem* (orr. 4).

²¹⁷ *Ibidem* (orr. 24).

edo errazten—. Elkarbizitza sozialean egiturak giza egintzaren bidez sortzen dira, egintzak eta egituren arteko tentsioa prozesuaren azkeneko indar eragilea da²¹⁸.

Oinarri teorikoak

Piotr Sztompka-k proposatuko duen eredu teorikoak —gizarte-bilakaeraren teoriak— helburua du agentziaren teorietatik eta soziologia historikotik egiten ari diren ekarpenak uztartzea eta, horrela, sintesi horretatik abiatuz, pentsamendu soziologikoa banatu duten banaketa-ardatz nagusiak elkarlotzea: egintza-egitura eta egonkortasuna-aldaketa. Helmuga horren bila, Sztompka, Karl Marx-en altzoan abiatuko da. Izan ere, “Marx gaztearen” antropologia intersubjektiboa aztertuz, *praxi* sortzailea eta partehartzailea azpimarratuz, kosifikazioaren zein “galdutako gizarte-boterearen” teoriak gogoratuz, eta Gramsci eta Luckas-ek egin zuten irakurketa aktibista indarberrituz —ikus. lan honen lehenengo atala—, hiru irakaspen nagusi aterako ditu, Marx-en pentsamendu soziologikotik: lehenengo eta behin, teoria sintetikoa, multidimentsionala edo dialektikoa sortu ahal izateko, ezin dira sailhestu kontu ontologikoak; argi zehaztu behar dira gizakiaren kontzeptzioa, giza egintzaren kontzeptzioa eta egonkortasun zein aldaketa sozialaren kontzeptzioak. Bigarrenez, pentsamendu sozialaren aurkakotasun nagusiak, egintza-egitura eta egonkortasuna-aldaketa, eredu teoriko bakar batean integratu daitezke baldin eta: *a)* gizartea gizakiak sortutako errealitate bezala antzematen badugu. *b)* gizakiak gizarteak determinatutako izaki bezala hartzen baditugu. *c)* gizartea eta gizakia, denbora historikoan murgildutako errealitate gisa ikusten baditugu. Azkenik, hirugarren irakaspena metodologikoa da: sintesi teorikoa lortzeko, logika dialektikoa erabili behar da, horri ezker gaudituko baititugu aldebakarreko aurreuste absolutuak.

Hiru printzipio horietan oinarrituko da, Piotr Sztompka, proposamen teoriko dialektikoa bilatzeko; horrela, lehenengo irakaspenari hertsiki jarraituz, bere abiapuntua errealitate sozialaren ikuspegi konstruktiboaren ontologia zehaztea izango da. Izan ere, gizarte-bilakaeraren teoria aurkeztu aurretik, ahaleginduko da gauditzen, modu dialektikoan, pentsamendu sozialean soka luzea ekarri duten ondorengo bost dilema ontologiko: Zer da gizartea? Zer da gizakia? Zer da historia? Zein da gizakiaren rola gizartearen bilakaeran eta historiaren mugimenduan? Nolako hartu-eman du gizakiaren kontzientziak prozesu sozio-historikoarekin?

Estrategia horren bidez, Sztompka-k, orain arte eztabaida teorikoan kontrajarriak ikusi ditugun ikuspegi teorikoak nolako aurreuste ontologiak dituzten argitu nahi du. Ikus dezagun, labor bada ere, nolako irtenbide dialektikoa ematen dion dilema ontologiko bakoitzari.

Lehenengoari dagokionez, gizartea zer den irudikatzen orduan aurrez-aurre egon diren ikuspegiak, ikuspegi kolektibista eta indibidualista izan dira. Sztompkaren ustez, soziologiak denbora luzea eman du bi alternatiba murriztaile horien artean;

²¹⁸ *Ibidem* (orr. 26-7).

gizartea, gizakien gaineko osotasun gisa kontsideratzea (reifikazioa). Edo, gizartea, gizakien batuketa hutsa kontsideratzea (atomizazioa). Gizarte batean dagoen hartu-emanen egiturari begira jarritz gero, ordea, irtenbide baliotsua aurkituko dugu. Irtenbide honek baieztatzen du gizarte batean existitzen den bakarra gizakiak eta euren egintzak direla, baina onartuta ere gizakiak elkarlotuta daudela elkarregintza eta hartu-eman sare konplexuetan, eta horrek ezaugarri eta erregularitasun propioak sortarazten dituela. Hartu-emanen ondorioz sortzen diren egiturek ez dute existentzia substantzialik edo ontologikorik, errealitate sozialaren atributuak dira. Gizartean, beraz, jendea dago, besterik ez. Baina, aldi berean, gizartea gizabanakoak baino zerbait gehiago da; “zerbait gehiago” hori euren arteko hartu-emanen egitura da, ezaugarri propioak dituen egitura.

Sztompka-ren ustez, irtenbide “estrukturalista” horrek gaintitzen du kolektibismo eta indibidualismoaren arteko dilema; bi tradizioen elementu batzuk integratuz eta beste batzuk baztertuz, aldebakarreko purismoa gaintitzen baita: “Tradizio kolektibistatik errealitate soziala gizabanakoak baino zerbait gehiago dela ontzat jotzen dugu, baina reifikazioa —gizartea bizilagunen egunerokotasunetik banatzea— baztertu egiten dugu. Tradizio indibidualistatik onartzen dugu gizartearen oinarriko osagaiak gizabanakoak direla, baina gizabanakoak testuinguru sozialik gabe eta loturarik gabeko atomoak bezala aztertzea baztertu egiten dugu. (...) Estrukturalismoa, zentzu horretan ulertuta, gizarte-bilakaeraren lehenengo oinarri ontologikoa da”²¹⁹.

Bigarren dilema ontologikoari dagokionez, gizakia zer den galderari erantzuten diona, berriz ere aurkakoak diren bi ikusmolde aurkezten dizkigu. Ikusmolde pasiboa eta ikusmolde aktiboa: lehenengoan, gizakia objektu determinatu bezala agertzen zaigu, kanpotik eratorritako balio eta arauen arabera jokatzeko duena, ekimen propiorik edota bere aktibitateen kontrolik ez duena. Gizakia, gizartearen produzitzailea izan barik, gizartearen produktua da. Kontrako irudia, ordea, ikusmolde aktiboan aurkituko dugu, erabat autonomoa eta arrazionala den subjektua, alde aurretik zehaztutako helburuen arabera jokatzeko duena, bere irizpide propioak dituen eta aktore moduan jokatzeko duena. Sztompka-ren ustez, aurkakotasun horrek bizirik dirau soziologian; apurka-apurka, ordea, toki gehiago ari da hartzen ikusmolde sintetiko bat. Alternatiba sintetiko hori gizaki sortzailea da: gizakia ez da erabat autonomoa egoerak dituen baldintza eta baliabideekiko, baina ez du erakusten erabateko menpekotasuna eta pasibotasuna kanpoko baldintza horien aurrean, bere aukerak eta apustu sortzaileak egiten ditu emanda datozen egoeren barne.

Hirugarren dilema lotuta dago historiarekin eta errealitate sozialaren aldaketa-dinamikarekin. Historia zer den galderaren aurrean, bi erantzun mota daude: lehenengoan, historia norabide, logika edo lege baten arabera garatzen den prozesua da; ez du atzerabiderik eta erregularitasuna, linealtasuna eta finalismoa dira bere ezaugarriak. Historizismo edo eboluzionismo horrekin kontrajarrita, historiaren erabateko kontingentzia defendatzen da; historia, gertaera zehatzen batuketa hutsa da, inongo helmuga edo sakoneko zentzurik gabe. Sztompka-k aurkakotasun hori gaintitzeko erregu-

²¹⁹ *Ibidem* (orr. 61).

larra den prozesu kontingentearen planteamendua egingo du; historia ez da nahitaezkoa, ezta erabat hautazkoa ere. Ez dago finalismorik edo linealtasunik gizakien erabakiak historiaren funtsezko elementuak direlako baina, aldi berean, erregularitasunak daude gertaerak bata bestearen atzetik jazotzen direlako; oraingoak iraganak ezarritako baldintzetan gertatzen dira eta gerokoak oraingoen eraginpean gertatuko dira. Badago logika bat historian, baina ez da goitik ezarritakoa, baizik eta aukera eta gertaera konplexuen arabera garatuz doan logika.

Laugarren auzia ondoko galderarekin adieraz daiteke: Zein da gizakiaren rola gizartearen bilakaeran eta historiaren mugimenduan? galdera horri erantzun fatalista edo erantzun boluntarista eman diezaiokegu. Lehenengoan, gizakiaren rola desageritu egiten da; gizakiak ez du inongo eraginik ez egonkortasuna mantenduz ezta aldaketa bultzatuz, bere jokaera dinamika historikoaren azpi-fenomenoa da. Ikuspegi boluntaristatik, berriz, gizakiak determinatzen du historiaren bilakaera; askotan, alde aurretik gertatutakoa eta momentuko baldintzak inongo eraginik izango ez balute bezala agertzen dira. Dualismo horretatik irteteko, Sztompka-k aukera-sortak aipatzen ditu, hau da, gizakia une oro kokatuta dago kokapen sozial zehatz batean —emanda etorri zaiona edo berak lorturikoa— eta, horren arabera, zenbait egintza-aukera izango ditu hautagai; aukera horien artean egongo dira ondorio bereziak izango dituztenak eta historiaren norabidea eragin dezaketenak ere, baina aukera-sorta ez da inoiz guztiz mugagabea, aurretik gertatutakoak edo aurretik egindako aukerek mugatzen dituzte oraingo aukerak: “gizakiari boteretsua ikusten zaio baina ez guztiahalduna, askea baina ez mugarik gabekoa. Historian duen rolaren garrantzia kontuan hartzekoa da baina garrantzi hori ez da erabatekoa”²²⁰.

Bosgarren eta azkeneko auzia, giza kontzientzia eta prozesu sozio-historikoaren ingurukoa da; Nolako hartu-emana du gizakiaren kontzientziak prozesu sozio-historikoarekin? Berriz ere aurkakoak diren bi ikuspegi aurkezten dizkigu. Batean, giza kontzientziak —sena eta pentsamendua—, ispilu gisa, oraingo errealtatearen irudi edo isla izango da; batzutan irudi desitxuratua izango da, beste batzutan irudi faltsua, baina mekanismoa norabide bakarrekoa da: errealtatetik giza kontzientzian duen irudikapenera. Beste ikuspegian, berriz, giza kontzientziak existentzia autonomoa du; are gehiago, funtsekoena gizakiaren sena eta pentsamendua dira, horiek barik kaxo artean jarri beharko genuke errealtatearen existentzia bera. Sztompka-ren ustez, muturreko bi ikuspegi horiek bertan behera geratzen dira “*Thomas-en theorem*a” onartua den neurrian: gizakiok pentsatzen badugu zerbait erreala dela, bere ondorioak erreala izango dira. Hau da, giza kontzientzia errealtate sozialaren barne osagaia da; gizakiok ideia eta sinismenen arabera jokatzeko baitugu, eta errealtate sozialaren edukia gizakion jokaera eta egintzak dira. Hortaz, gizakion kontzientzia eta prozesu sozio-historikoa elkarrekiko hartu-emanen daude, bi norabidetako *feed-back* moduko bat da; ideiak, teoriak eta abarrak errealtatearen parte bihurtzen dira. Lehenengo aurkakotasuna gaindituz, gero eta onarpen zabalagoa du elkarrekikotasun edo erreflexibitatearen printzipio honek.

²²⁰ *Ibidem* (orr. 55).

Piotr Sztompka-k, beraz, bost auzi ontologiko horiei irtenbide dialektikoa bilatuz, errealitate sozialaren irudi multidimentsionala aurkezten digu, irudi dialektikoa bere esanetan. Hartu-emanen egitura eta gizakiaren sormena kontuan hartzea, historia erregularra den prozesu kontingente bezala ikustea, giza pentsamendua eta prozesu sozio-historikoaren artean dagoen elkarrekikotasuna onartzea eta giza egintzak dituen aukera-sortak aztertzea; horiek dira bere proposamenak gaintitu ahal izateko aldebarreko ikuspegi murriztaileak, subjektibistak zein mekanizistak. Horrela, gizakia, gizartea zein historiaren kontzepzio konstruktiboak aurkeztuz, modu sinesgarrian erantzuten die galdera ontologiko nagusiei. Sendoa dirudi, hortaz, bere proposamen teorikoaren oinarria:

Apurka-apurka ari da zabaltzen eraikia izan den eta eraikitzen ari den mundu sozialaren irudi koherente bat. Gizartearen mundu horretan, gizaki erreflexiboak sortuak eta sortzailak dira, aldi berean; osotasun sozialak gizakiok sorturiko hartu-eman sare isurkorak dira, gizabanakoei eragiten dieten sareak ere; eta prozesu historikoa sorkuntza eta determinazioen arteko dinamika iraunkorraz osaturiko korrontea da, zeinean bai gizabanakoak bai gizarteak aldaketa metakorrek pairatzen dituzten²²¹.

Sztompka-k, modu horretan definitzen du pentsamendu sozialean azkeneko urteetan antzeman daitekeen mugimendu teorikoa. Planteamendu dialektiko horiek abiapuntu hartuta, gizartearen bilakaeraren mekanismoak aztertzeko baliagarria izan mahi den teoria aurkezten digu. Geure hurrengo zeregina, beraz, teoria horren nondik norako nagusien berri ematea izango da.

Gizarte-bilakaeraren eredu teorikoa

Sztompka-k, oso modu sistematikoan aurkeztuko digu bere eredu kontzeptuala. Lehenengo eta behin, ereduaren osaketa azalduko du, eta gero ereduaren funtzionamendua eta aldaketa-dinamika. Bere azken helburua gizarte-bilakaeraren mekanismoen berri ematea izanik, konplexutasun handiko eskema baten aurrean kokatuko gaitu; horrexegatik, urratsez urrats, hasierako eskema kontzeptuala maila, aldagai eta dimentsio gehiagorekin hornituko du abstrakzio maila altu batetik zehaztapen maila handiago batera helduz.

Abiapuntua, Marx eta Marx-en irakurketa aktibistatik hartutako ezberdinketa bat izango du; hain zuzen ere, errealitate sozialean bi maila ezberdintzea: gizabanakoen maila eta osotasunen maila. Lehenengoan, pertsonak ditugu, banaka zein talde edo elkarte batzuen partaide bezala (komunitateak, mugimenduak, taldeak, elkarteak,...). Bigarrenean, gizartearen osotasun abstraktuak ditugu (gizarte-sistemak, sistema ekonomikoak, kulturak, zibilizazioak...); osotasun horiek ez dira entitate metafisikoak ezta kristalizazio hutsak ere, egiturak bezala definitzen dira. Gizabanakoak edo agenteak, beste aldetik, ez dira definitzen objektu pasibo gisa, ezta erabat autonomoak diren subjektu gisa ere, agente mugatuak dira.

²²¹ *Ibidem* (orr. 86).

Horrekin batera, beste ezberdinketa bat gehitzen du; bigarren honek, errealitate soziala existitzeko bi modu banatuko ditu: ahalmenak eta eguneratzeak. Ahalmenak izango dira gaitasunak, trebetasunak, berezko joerak, “botereak”, etorkizunerako ha-ziak. Eguneratzeak, beren aldetik, jokabideak, aktibitateak, garapenak, prozesuak, transformazioak eta abarrekoak izango dira.

Sztompka-k, bere eredu kontzeptualaren lehenengo eskema sortzeko, bi ezberdin-keta horiek gurutzatzen ditu; errealitatea existitzeko dituen bi moduak (ahalmenak eta eguneratzeak) aplikatzen ditu errealitate sozialaren bi mailetan (agenteak eta egitu-rak). Horrela, egiturak azertu daitezke euren funtzionamenduaren bidez ahalmenak eguneratzen dituzten osotasun gisa; eta, agenteak, euren egintzaren bidez ahalmenak eguneratzen dituzten gizaki gisa. Lehendabiziko eskeman ikus dezakegunez, egiturak, agenteak, funtzionamenduak eta egintzak ereduaren funtsezko oinarriak izango dira:

	Ahalmenak	Eguneratzeak
Osotasuna	egitura	funtzionamendua
Banakakoa	agentea	egintza

Hemendik aurrera, Sztompka-k, eskema horretan dauden elementuen arteko hartu-emanak azalduko dizkigu; geroago, elementu berriak sartuz, ahaleginduko da zehaztasun gehiago lortzen, errealitate sozialaren dinamika konplexua antzeman ahal izateko.

Hasierako eskeman dauden hartu-emanak azaltzeko, lehendabizi, irakurketa bertikala egingo du. Hau da, egitura-agente parean, nolako hartu-emana dagoen; eta, funtzionamendua-egintza parean, *idem*. Egitura-agente pareari dagokionez, Sztompka-rentzat, egiturak agenteen arteko sareak dira; baina berezko ezaugarri eta erregulartasunak dituzten sareak, ez dira agenteen batuketa soila. Agenteak, beren aldetik, egituran daukaten kokapena baino gehiago dira; euren berezkotasuna eta autonomia daukate aukerak egiteko eta erabakiak hartzeko. Era berean, funtzionamendua-egintza pareari dagokionez, egintza ezberdinen konbinaketak eta elkarloturak dinamika edo joera propioa sortarazten du egituren funtzionamenduan; horrela, egituren funtzionamendua agenteen egintzen elkarloturak eragindakoa da baina, aldi berean, dinamika autonomoa har dezake “inertzia printzipio” baten arabera. Egintzak, beren aldetik, ez dira gizarte-egituren funtzionamenduaren araberako inputsoak; testuinguru sozialak markatzen duen dinamikarekiko independentzia maila bat daukate. Agenteek egiten duten guztia ez da ondo ezkontzen funtzionamendu sozialarekin: “korrontearen kontra joan daitezke, modu anakronikoan jokatu, edo etorkizuna aurreikusi irudimenez, originaltasunez eta sormenaz”²²².

Eskemaren irakurketa horizontala eginez gero, agente-egintza eta egitura-funtzionamendua bikoteei erreparatu behar diegu. Agente eta egintzaren artean dagoen


²²² SZTOMPKA, P. *Sociología del Cambio Social*. Alianza. Madril, 1995. Orr. 241.

hartu-eman kontzeptualizatzeko Sztompka-k “mobilizazioa” erabiliko du; agenteek, euren trebetasunak eta gaitasunak mobilizatzen dituzte hainbat egintza burutzen dituztenean. Egitura eta funtzionamenduaren artean dagoen hartu-eman “hedadura” kontzeptuaren bidez antzemango du; egiturek euren joerak eta ahalmenak hedatzen dituzte funtzionamendu-dinamikaren bidez.

Aurrerago ikusiko ditugu, zehaztasun handiagoz, hartu-eman guzti horien aldaera batzuk; baina, lehenago, egituraren —bere funtzionamenduan— eta agentearen —bere egintzan— artean dagoen tarteko maila agertu behar dugu. Hirugarren maila hori funtsezkoa izango da Sztompka-ren gizarte-bilakaeraren teorian; izan ere, bere ustez, tarteko maila hori errealtate sozialean modu substantzialean existitzen den bakarra da. Errealtatean gertatzen diren gauzak beti dira egitura eta agenteen bat-egitearen ondorioa, egintza eta funtzionamendua bat-egitearen ondorioa. Sztompka-rentzat, ez dago egiturarik gabeko agenterik, ezta agenterik gabeko egiturarik; baina, aldi berean, egiturak ez dira agortzen agenteengan eta agenteak ez dira agortzen egituren barne. Hortaz, errealtate agentziala eta errealtate estrukturala bat-eginda daude: “Erakutsidazu egituraren batean elkarlotua ez dagoen agente bat. Erakutsidazu gizabanakoengandik aparte existitzen den egitura bat. Erakutsidazu funtzionamendu sozialaren parte ez den egintza bat. Erakutsidazu egintzetan oinarritzen ez den funtzionamendu sozial bat”²²³.

Egitura eta agentea, esan bezala, tarteko maila batean elkartzen dira, tarteko maila hori *praxiaren* maila da. *Praxian* bat egiten dute egintzak eta funtzionamenduak sintesi dialektiko bat sortuz. Hortaz, *praxia* baldintzatua dago bi modutara: goitik gizartearen funtzionamenduaren aldetik (aukerak eta baliabideak, kontrolak eta mugak), behetik gizabanako eta taldeen egintzen aldetik (gaitasuna, sormena, abileziak, ezagutza...). Horrela, *praxian*, errealtate sozialaren eguneratzea aurkitzen dugu, baina *praxiak* badu existitzeko beste modu bat ere; Sztompka-k *praxia* gauzatu gabe eta konkretatu ez den ahalmen bezala izendatu nahi du, horretarako agentzia hitza erabiliko du. Agentzia *praxirako* ahalmena izango da eta, *praxia* bezala, egitura eta agenteen artean dagoen tarteko maila horretan kokatzen du.

Prozesu sozialaren dimentsioak eta mailak




²²³ SZTOMPKA, P. *Society in Action*. Polity Press. Cambridge, 1991. Orr. 92.

Agentzia, beraz, egitura eta agenteekin lotzen dugu bertikalean; eta, *praxiarekin*, horizontalean. Izan ere, ahalmen gisa, agentzia *praxiaren* bidez eguneratzen da, eta gertaera sozialetan azaleratzen da. Agentzia eta *praxiaren* artean dagoen hartu-eman horizontal hori “gertaera” izendatuko dugu eta, lehen bezala, gertatzen dena egituren hedatzea eta agenteen mobilizazioaren bat-egitearen emaitza izango da. Agentzia era askotara eguneratu daiteke, baina aktibatuta barik gera daiteke ere: gordea, lo.

Sztompkaren oinarritzko eskema kontzeptuala osatzeko azkeneko aipamen bat falta zaigu. Alegia, hiru maila ditugu eta maila horiek bi modutara existitu daitezke, ahalmen bezala edo eguneratze bezala, ahalmen modutik eguneratze modura pasatzean “hedatzea”, “gertatzea” eta “mobilizatzea” kontzeptuak ikusi ditugu; hurrenez hurren, egitura, agentzia eta agentea mailei dagozkienak. Ahalmenetik eguneratzerara doan norabidea ikusi dugu, beraz, baina eguneratzetik ahalmenera doana falta zaigu. Izan ere, egituraren funtzionamenduak egitura bera aldarazten du, *praxiak* agentzia aldarazten duen bezalaxe, edo egintzak agentea. Hortaz, egituraren eraketa, agentziaren sorkuntza eta agentearen osaketa, egunerokoan etengabe berregiten diren prozesuak dira.

Agentzia eta Praxia funtzionamenduan



Agentziaren ingurunea: natura eta kontzientzia

Prozesu sozialen dinamika behar bezala antzemateko, Sztompka-k proposatzen duen eskema kontzeptuala ikusi dugu, bere funtsezko planteamenduetan; agentzia eta *praxiaren* maila azpimarratuz, ikuspegi dialektikoa defendatzen du bere konplexutasun osoan aztertu ahal izateko egitura eta agenteen bikoiztasuna. Horrekin ez da amaitzen, ordea, autore poloniarraren proposamen teorikoa; izan ere, eredu kontzeptuala abstrakzioetik ingurune zehatzagoetara ekartzea garrantzi handikoa jotzen baitu, eta, horrekin batera, denboraren dimentsioan kokatzea.

Inguruneari dagokionez, Sztompka-k, bi ingurune azpimarratzen ditu: natura eta kontzientzia. Bere ustez, giza izaeraren bikoiztasun saihestezina —izaki naturalak eta subjektu kontzienteak—, bat dator giza *praxiaren* ingurune nagusiekin.

Natura, giza egintzaren kanpoko ingurunea da, bere eskutik dator ere gizakiaren eraketa biologikoa eta genetikoa. Bikoitza da, beraz, naturak duen eragina gizakiaren egintzan; kanpoko eragina topografia, ekologia eta abarren bidez, eta barneko eragina gorputzaren ezaugarri biologikoen bidez (osasuna, indarra, adimena...). Ingurune naturalak badu, beraz, zeresana agenteen egintzan; eta, era berean, egituren funtzionamenduan, elkarregintza-sareek baldintza zailagoak edo aproposagoak baitituzte naturaren arabera (mendi-kateak, irlak, ibaiak, aranak...). Sztompka-ren ustez, ingurune naturala muga izan daiteke, trabak eta oztopoak jartzen baditu; edo aukera izan daiteke, erraztasunak eta baliabideak eskaintzen baditu. Ez da bigarren mailakoa, beraz, kanpoko baldintzaile bezala edo biologiarenean eratzailerik bezala, naturak duen garrantzia giza *praxiari* aukerak zabaltzeko edo murrizteko. Azkenik, ez da ahaztekoa ere gizakiaren *praxiak* gero eta gaitasun gehiago daukala natura moldatzeko, eta horrek aukerak zabaltzeko (teknologia, komunikazioa...) baina baita murriztu ere, moldaketa horiek negatiboak direnean (kutsadura, baliabideen agortzea, hondamen ekologikoa...).

Sztompka-k, dena den, arreta gehiago eskainiko dio funtsezkoa kontsideratzen duen bigarren inguruneari: kontzientzia indibiduala eta kontzientzia soziala —edo diskurtso sozio-ideologikoa nagusiak—. Gizakion elkarbizitzan ingurune naturalak daukan adinako garrantzia, ideien eta sinismenen inguruneak dauka, gizakia murgilduta bizi baita sinboloen komunikazioan eta ideien munduan; norberarenak zein bestearenak, garaikideak zein aitzinekoak. Izan ere, kontzientziaren aktibitatea gizabanako indibidualen gaitasuna da baina, baita kolektiboki ere, ideologiak, doktrinak, tradizio teorikoak eta abarrak, gizabanakoen gaineko iraupena daukaten neurrian, aukerak eta mugak eskaintzen diote giza pentsamenduari eta giza *praxiari*. Hortaz, norberaren kontzientziak zein kontzientzia sozialak, eragin handia daukate agentziaren eta *praxiaren* tarteko mailan; hots, agentziaren ahalmena agenteen ideien, sinismen eta pentsamenduaren esku egongo da, baita euren garai historikoan indarrean dauden egitura ideologikoen esku ere. *Praxiak*, bere aldetik, badu ere bere eragina kontzientzia edo pentsamenduarengan, agenteek *praxiaren* bidez hartzen eta balidatzen baitituzte baieztapenak, ideiak eta abarrak.

Sztompka-rentzat, beraz, garrantzi handikoa da kontzientzia ideologikoak agentzia eta *praxian* duen eragina. Azken batean, agenteek egoeraren irakurketa eta definizioa egiten dute eurentzat duen esanguraren arabera, hau da, egoera irakurtzeko eta ebaluatzeko erabiltzen dituzten errefente, ideia eta pentsamoldearen arabera. Horrexegatik, Sztompka-k diosku, ikusmolde edo kontzientzia ideologikoa bitartekaria dela egoeraren baldintza naturalek eta sozialek agentzian duten efektua interpretatzeko —efektu oztopatzailea edo efektu erraztatzailea—:

Agentziari *esnatu* behar zaio, mehatxu edo posibilitate naturalen aurrean, *praxi* esanguratsu bat gertatzea eragin dezan. Bestela lotan iraun daiteke, mugak jakin gabe eta auke-rei erreparatu barik, antzematen ez dituen neurrian. (...) *Praxi* iraultzailea sortzen da soilik kontzientzia iraultzailea esnatu bada. (...) Aukera demokratikoak erabiliak izan daitezten, aukera bezala antzeman behar dira²²⁴.

Gauzak horrela, kontzientziak bitartekari lana egiten du ere, ingurune naturala eta osotasun edo egitura sozialekin batera. Izan ere, egitura sozialek ez diete gauzak mugatzen edo errazten gizabanakoei modu zuzena eta mekanikoan, baizik eta gizabana-koek oztopo edo aukera bezala antzeman eta definitzen dituzten neurrian.

Sztompka-k argi du, ordea, kontzientziak gizartearen funtzionamenduan duen garrantzia onartzeak ez gaituela eraman behar aldebakarreko subjektibismo absolutura; gizabanakoen kontzientzia eta kognosizibilitatea mugatua baita. Egintzaren nahigabe-ko ondorioak, eta hauek sortarazten dituzten baldintza berriak, gizabanakoen kontzientziatik ihes egiten duten elementuak dira²²⁵. Azkenik, garatzen ez duen iradokizun modura, Sztompka-k eskala bat proposatzen digu kontzientziak gizartearen funtzionamenduan duen eragina aztertzeko; eskalaren mutur batean “agentzia itsua” eta “*praxi* landugabea” (bat-batekoa) egongo lirateke, kontrako muturrean “agentzia kontziente” eta “*praxi* landua” (erreflexiboa, rasionalki kontrolatua).

Denbora eta historia

Orain arte ikusi dugun eredu teorikoan, badago nolabaiteko dinamismoa edo mugimendua: agenteen mobilizazioa egintza bitartez, agentziaren gertatzea *praxiaren* bitartez, eta egitura sozialen hedadura funtzionamenduaren bitartez. Eskemaren barne dinamismo hori, ordea, ez da nahikoa Sztompka-rentzat, denboraren dimentsioa giltzarri nagusia baita, giza egintzaren maila gizarte-egituren mailarekin lotzeko. Sztompka-k, denboraren zentralitatea defendatuz, bat dator berarentzat erreferentia diren agentziaren teoriko nagusiekin (Touraine, Giddens, Archer...) eta soziologia historikoaren ordezkari esanguratsuenekin. Ezinbestez, beraz, denboraren dimentsioa modu osatuagoan eta nabarmenagoan kontzeptualizatzea, eredu teorikoak dituen helburu konprentsiboak behar bezala erdiesteko.

²²⁴ SZTOMPKA, P. *Sociología del Cambio Social*. Alianza. Madril, 1995. Orr. 249.

²²⁵ *Ibidem* (orr. 249-250).

Praxiaren sorkuntza horiek, geroko *praxiaren* baldintza berriak dira. Eta aukerak eta mugak eratzen dituzten neurrian, eragina daukate agenteengan —nolako egintzak burutu ditzaketen— zein egituretan —nolako funtzionamenduak posible diren—. Ondorioz, nolabaiteko jarraikortasun efektua dago; lehenengo egintza eta funtzionamenduaren produktuek, ingurune naturalean eratzen diren neurrian, jarraitu egingo dute hurrengo epealdietan.

Kontzientzia sozialaren ingurugiroan ere aribide berdina aurkituko dugu; garai batean garatutako *praxiak* bere isla izango du gizakien ideia, sinismen eta pentsamenduan. Elementu horiek, beraz, *praxi* berriaren abiapuntua dira; agenteen egintza posibleak birdefinituz, eta egituren ahalmen berriak planteatuz. Etengabeko prozesua denez, aurreko epealdien oinordekotza kodifikatu egiten da kontzientzia sozialean eta bere jarraipena du geroko epealdietan. Horrela, gizartearen funtzionamenduan ikusi dugun aribide dialektikoa —egituren funtzionamendua eta agenteen egintza, agentziaren *praxian* uztarturik— osagarria da gizartearen bilakaeran dagoen inguruneen (kontzientzia eta natura) etengabeko moldaketarekin: garai zehatz batean *praxiak* sortarazten dituen efektuek bizirik irauten dute *praxiak* berak baino gehiago eta, horrexegatik, indar baldintzaile dute ondorengo *praxirako*. Epealdi ugari dituen prozesu horretan, nolabaiteko metaketa selektiboa dago —elementu batzuek jarraipena dute eta bete batzuk desagertzen dira—; horrela, Sztompka-ren irudikapenean, erdigune iraunkorra duen tradizio historikoa sortzen da, belaunaldiz belaunaldi biziberritzen dena.

Horretan ere kontuan hartzekoa da, Merton, Giddens eta beste hainbat autorek azpimarratu duten nahigabeko ondorioen auzia. Sztompka-k onartzen du *praxiaren* eraginez metatzen diren efektuak, askotan, nahigabeak direla; eta, ondorioz, nahigabeko baldintza berriak sortarazten dituztela. Marx-engan ikusi genuen ideia horren lehenengo aipamen bat, eta Giddens-engan bigarren bat; izan ere, gizartearen bilakaera giza *praxiaren* eraginez bultzatzen bada ere, ez da alde zuretik erabat definitutako helburu eta egitasmo zehatzak onartzen dituen prozesu bat: “Lehenengo praxien hondarrek posibilitate-esparru bat osatzen dute ondorengo praxirako (ingurunean, agentzian eta egituretan). Esparrua mugatua da beti, baina aukerak ditu. Prozesuaren epealdi bakoitzean, badaude ondorengo prozesuak abiarazteko bide alternatiboak. (...) prozesu historikoa kontingentea da, ez nahitaezkoa edo alde zuretik zehaztua”²²⁷.

Gizakiak bere historia egiten du, eta horrek alternatiba, bide eta ezuste ugari sortzen ditu historiaren bilakaeran. Kontingentzia hori onartzeak, ostera, ez du esan nahi, historia, ehunetik ehunean gizakiaren borondatearen menpe dagoen prozesu bezala ikusi behar dugunik; borondateak oraingo baldintzak eta ezusteko ondorioak baititu mugarri.

Azkeneko aipamen bat egin behar dugu eredu kontzeptualaren bilakaera historiko horren inguruan. Sztompka-k, gizartearen funtzionamendua eta gizartearen bilakaera

²²⁷ *Ibidem* (orr. 255).

konprenitzeko, hiru maila dituen eredu kontzeptuala proposatzen digu: egiturak, agentzia eta agenteak. Eredu horretan, barne dinamikari dagokionez, interesatzen zaizkigu mailen arteko hartu-emanak (egiturak, agentzia, agenteak); eta, kanpo dinamikari dagokionez, gizarteak historian zehar dituen aribideak edo aldatzeko mekanismoak. Erantzunik gabe dagoen azkeneko galdera, ordea, aldaera-mekanismo horiek beti berdinak diren edo historian zehar aldakorrek diren: gizarte-bilakaeraren aribideak historikoki unibertsalak dira edo, eskema kontzeptualaren gainerako elementuak bezala, erlatiboak dira une historiko eta ingurune kultural bakoitzaren arabera?

Sztompkaren iritziz, etengabeko aldaketan dagoena ez dira bakarrik agenteak, egiturak eta agentzia; edo natura eta kontzientzia individuala/kolektiboa, aldakorrek dira ere elementu horien arteko loturak eta konbinaketa moduak. Hau da, denbora aurrera joan ahala, bilakaeraren printzipioak ere aldatu egiten dira.

Izan ere, gizarteak bere bi ingururekin dituen harremanak historikoki aldatuz joan dira, eta harreman horien arabera aldatu egin dira ere gizarte-bilakaeraren printzipioak. Naturari dagokionez, Sztompka-ren ustez, oso nabarmena da gizakion historia naturaren kontrola areagotzearen historia dela. Kontzientziari dagokionez, ezagutzaren hazkundeak mito, ideia faltsu eta kontzientzia erratuak baztertzea ekarri du eta, ondorioz, elkarbizitza soziala planifikatzeko eta aurreikusteko gaitasun gehiago. Sztompka-ren aburuz, gizakiontzat, gaur egun, gizartearen bilakaeraren aribideak ez dira lehen bezain ilunak; fenomeno sozialen oharmen maila altuagoa da eta, mugak muga, gizakiaren esku-hartzearen ondorioak lehen baino hobeto aurreikusten dira. Horrek ez du esan nahi, ostera ere, natura eta kontzientziaren gainean dagoen kontrola, nahigabeko ondorio kaltegarriak ez dituenik; hondamen ekologikoak, zientifismoak eta arrazoi zientifikoan oinarritutako erregimen totalitarioak ondorio latzak ekarri baitituzte.

Sztompka-k, irakurketa baikorra eginez, natura eta kontzientziaren gainean gehiegizko kontrola leuntzeko joera ikusten du azkenaldian, kontrolerako gogoia auto-kontrolatzeko joera, alegia: “Bi ingururen gainean dagoen kontrolak sortarazten dituen kostuak, disfuntzioak eta epe luzeko arriskuak gero eta argitasun handiagoz antzematen dira gizarte modernoan. Hor dugu, adibidez, kontzientzia ekologikoa, natura konkistatzeko handigura gelditzeko beharra eta naturarekin armonia bilatzearen ideia. Edo totalitarismoaren kontrako olde demokratiko-liberala; aniztasuna, tolerantzia, partaidetza eta bat-batekotasuna defendatzen duena, eta giza historian alde zurretiko eskema dogmatikoak inposatzeko ahaleginak baztertzen dituena”²²⁸.

Optimismo hori jarraituz, Sztompka-k, bilakaera modu berri baten sorrera ikusten du; itsua, alienatzailea eta erabat objektizatua zegoen elkarbizitza primitibotik, arrazionaltasuna eta boterearen gehiegizko megalomaniara pasatu zen. Gaur egun, aldiz, autonomoagoa, oharmen maila altuagokoa, sortzaileagoa eta etorkizunaren kontrol kritikoago eta errealistagoa egiten duen bilakaera modu bat antzematen du. Bide horretatik ikusten du, Sztompka-k, giza agentziaren emantzipazioa.

²²⁸ *Ibidem* (orr. 257).

Giza agentzia gizarte-bilakaeraren eragile

Piotr Sztompka-ren proposamen teorikoa oso-osorik ikusteko bere azkeneko goeta bat falta zaigu. Izan ere, Sztompka-k zehaztu nahi du, enpirikoki zehaztu ere, gizartearen bilakaeraren indar eragilea zein den eta noren esku dagoen. Horrexegatik, agentziaren elementutik abiatuz, giza izaeran bilatuko du indar eragile hori. Gizakia-
ren ezaugarri aldaezin eta unibertsalak ote dauden eztabaida luze eta korapilatsua dela jakinik, Sztompka-k, helburu xumeagoak ezarriz, gizarte-bilakaeraren eredu teoriko-
arekin ondo ezkonduko den gizakiaren irudi bat bilatuko du.

Aipatu bezala, abiapuntua agentzia izango du; arestian ikusitakoaren arabera, agentzia *praxirako* ahalmena dugu, agenteak eta gizarte-egiturak lotzearen ondorioz sortzen den *praxirako* ahalmena. Eskema kontzeptualen bilakaeran ikusita, agentzia iraganeko *praxi* eta etorkizuneko *praxiren* artean dago kokatua. Hortaz, ahalmena du lehenengo *praxia* barne izateko eta geroko *praxia* produzitzeko; beste era batera esanda, gaitasuna du aurreko prozesu historikoaren eragina izateko eta etorkizuneko prozesu historikoa eragiteko. Sztompka-k, “gizartetik ikasteko gaitasuna” izendatzen du lehena —transmisio kulturala—; eta “bere burua gainditzeko gaitasuna” bigarrena, biak dira agentziaren gaitasun potentzialak. Sztompka-k, analitikoki banatuko ditu agentziaren elementuak, hots, agenteak eta gizarte-egiturak; bere ustez, gizarte-egiturak momentu batez alde batera utzita, agentziaren gaitasuna agenteen ezaugarrien nolabaiteko produktua izango da. Horrela, agentziak dituen gaitasunak, gizartetik ikasteko gaitasuna eta bere burua gainditzeko gaitasuna, gizabanakoen ahalmenetan egon behar dira sustraiturik.

Lehenengo gaitasuna heziketarekin erlazionatu behar dugu, esperientziatik ikasteko trebetasunarekin eta ezagutza eskuratzeko gaitasunarekin; bigarrena, aldiz, sormenarekin, berrikuntzarekin, eta irudi, eredu eta objektu berriak produzitzeko trebetasunarekin. Sztompka-ren ustez, bien elkarloturak sortzen du agentziaren gaitasuna, eta gizartea bere bilakaeraren norabidean mugi dadin, gaitasun biak aktibatu edo eguneratu behar dira. Are gehiago, agentziak, ahalmenaz gain, nolabaiteko beharra du; gizartetik ikasteko beharra eta bere burua gainditzeko beharra. Agenteen mailara pasatuz, gizakiak badu bere gaitasunak eta trebetasunak erabiltzeko eta kanporatzeko beharra, ikasteko eta sortzeko beharra; Sztompka-ren ustez, joera horren metaketa konplexuak bultzatzen du agentzia gizartetik ikastera eta bere burua gainditzera. Horrexegatik, gizarte-bilakaeraren teoriaren aurrebaldintza bezala, autore poloniarrek hiru ezaugarri nagusi aipatzen ditu gizakiaren izaeran: heziketa, sormena eta norbere gaitasunak garatzeko beharra.

Beste era batera esanda, Sztompka-k, giza izaeraren hiru ezaugarri horiek azpimarratzen ditu. Gizakiak, ingurune naturalean zein ingurune sozialean, aukerak eta baliabideak aurkitzen ditu, baita oztopoak eta mugak ere; horrexegatik, ezinbestekoa du bere gaitasunak eta trebetasunak garatzea eta, sormenaren bidez, topatutako oztopoak gainditzea.

Sartre-ren esaldi famatua —gizakia askatasunera dago kondenatua— moldatuz, esan genezake gizakiak sortzera daudela kondenatuak. Euren adaptazio aktiboaren prozesuan,

etengabe eragin eta berreragiten dute natura, produkzio materialean esku hartuz; tresnak eta objektuak produzitzen dituzte, eraikinak eta errepideak, autoak eta janari-uztak. Eten-gabe eragin eta berreragiten dute gizartea, morfogenesi sozialean esku hartuz; taldeak eta elkarteak osatzen dute, erakundeak eta instituzioak, arauak eta balioak, sinboloak eta kodeak. (...) Jendea eta giza izaera horrelakoa delako aurrera doa gizarte-bilakaera, gizartea eta historia sortuz²²⁹.

Honako hau da, beraz, Sztompka-k azpimarratu nahi duen ideia bere planteamendu teorikoa biribiltzeko: heziketa, sormena eta norbere gaitasunak garatzeko beharra, funtsezko elementuak dira giza izaeran, eta horiei ezker bihurtzen da agenzia gizarte-bilakaeraren eragile nagusia.

Sztompka-ren esfortzu teorikoa oso iradokorra iruditzen zaigu; izan ere, egitura/egintza auziari bete-betean helduz, tresna kontzeptualak eskaintzen dizkigu bien arteko lotura eta hartu-eman dialektikoa irudikatzen.

Hurrengo atalean ikusiko dugunez, geure azterketaren planteamendu teorikoa definitzeko orduan, oso baliagarria izango dugu Sztompka-k, aztertu ditugun beste autoreekin batera, azpimarratzen dituen bi elementu: batetik, gizarte-egituren zein giza egintzaren izaera bikoitza onartu beharra (determinatzaileak eta determinatuak); eta, bestetik, gizartearen produkzioa eta aldaketa aztertzeke orduan, egituren zein gizabakoen zentralitatea saihestuz, *praxia* azterketaren erdigunean kokatu beharra.

4. GIZA EGINTZA ETA GIZARTEAREN EGITURA: ELKARREN OSAGARRIAK

Abiatu genuen lan honen azterketa teorikoa, geure buruari galdetuz nolakoa den giza egintzak gizartearen egituraren eragiteko daukan ahalmena eta, horrekin lotuta, gizartea gidatzeko ahalmen horretan norainokoa den gizarte-egituraren determinismoa eta norainokoa giza egintzarena. Maiz aipatu bezala, galdera edo kezka horien atzean dagoen arazo teorikoa gizartearen produkzioa eta gidaritzarena da. Horrela, gaiak pentsamendu soziologikoan izan dituen nondik norako nagusiak laburbilduz eta autore esanguratsuen ekarpenak jorratuz, geure azterketa teorikoan ondoko bi galdera hauen erantzunak bilatzen ahalegindu gara: nolakoa da egiturazko baldintzen eta giza egintzaren arteko dialektika gizartearen bilakaeran? Zeintzuk dira dialektika horrek dituen ondorioak gizartearen produkzioan eta gidaritzan?

Hurrengo lerroetan, autore ezberdinen eskutik aipatu ditugun zenbait proposamen geure egiten, lan honek izango dituen behin-behineko planteamendu teorikoak aurkeztuko ditugu. Horretarako, giza egintzaren definizioa egingo dugu, baita gizartearen egiturarena ere eta, horiekin batera, bi maila horien artean dagoen subjektuen *praxi* soziala definituko dugu.

²²⁹ SZTOMPKA, P. *Society in Action*. Polity Press. Cambridge, 1991. Orr. 119.

Gizartearen produkzioa eta gidaritzea, eta horiekin lotuta dauden giza egintzaren eta gizarte-ordenaren arazoak, gizarte tradizioetik gizarte modernora doan bilakarekin lotu genituen geure gogoeta teorikoaren hasieran. Izan ere, gizarte modernoan nagusitzen den indibidualismoa eta giza egintza instrumentalak, paradoxa eta kezka berriak sortzen ditu askatasun indibiduala eta ordenamendu komunitarioaren inguruan; paradoxa horiek, azken batean, gizabanako eta gizartearen arteko hartu-emanaren ingurukoak dira. Kezka horiek testuinguru historiko zehatz batean agertzen dira —gizarte tradizionala desegite bidean zegoela eta, prozesu berdinean, gizarte modernoaren instituzionalizazioa abian zegoela—, eta soziologiaren sorrera, diziplina autonomo gisa, oso lotua dago kezka horien inguruan egin beharreko hausnarketarekin. Horrela, gizarte-eredu berria itxuratzen duten industrializazioak, urbanizazioak, sekularizazioak, demokrazia politikoak eta iraultza zientifikoak, irauli egin zuten ordenamendu zaharra; hain zuzen ere, ahaidetasunean, erlijioan, komunitate lokalean eta monarkia absolutuan oinarritzen zen ordena. Testuinguru horretan, indar handia hartu zuen teoria ekonomikotik zetorren giza egintzaren eredu utilitarista-arrazionalak, giza egintzaren berezko izaera arrazionaltasunean kokatzen duena, zentzu indibidualista eta instrumentalean. Norberaren interesen arabera etekinik handiena bilatzen duen giza egintzaren ikuspegi horrek, bere eragina izango du soziologo klasikoek gogoetan, baina ez du gogobeteko beraien kezkek giza egintza eta gizarte modernoaren ordenamenduaren inguruan. Izan ere, arlo ekonomikoan ez zeuden bestelako giza egintzak kontzeptualizatu nahian, eta ordenamendu sozialaren teoriaren bila; soziologo klasikoek, kalkulu estrategikoa eta indibidualista ardatz nagusi gisa hartu beharrean, giza-kion elkarregintzak daukan izaera sinboliko-interpretatiboa hartu zuten giza egintzaren bereizgarri nagusi gisa. Oinarri hori, ordea, bi ildo edo norabide ezberdinetan garatuko da pentsamendu soziologikoan, ildo normatibista eta ildo konstruktibista.

Lehenengoak Durkheim izango du aitzindari, eta azpimarratuko du ohituraz hartutako jokatzeko-, pentsatzeko eta sentitzeko-erak, jarraibide kolektibo bihurtzen direnean hartzen duten indar arautzailea eta zigortzailea. Hau da, errealitate sozialaren alderdi normatiboari erreparatzen dio, adostasun- eta aruen-sistemari eta bere praktika instituzionalizatuari. Tradizio normatibistan, giza elkarregintzaren sormen sinbolikoa ukatu barik, giza egintzaren eragile gisa sozializazio bidez barneratutako adostasun normatiboa eta derrigortzailea azpimarratu dute. Hots, giza ahalmen sortzailea eta berritzailea bigarren mailan utzita, giza egintzaren joera erreproduzitzaileari eta egitura normatiboen izaera objektiboari erreparatzen diote.

Ildo konstruktibistan, Weber-ren soziologia konprentsiboa eta Mead-en elkarregintza sinbolikoa aitzindari direla, arreta berezia ematen zaio aktore sozialaren egintza interpretatibo eta esanguratsuari. Horrekin batera, besteen jarduna erreferentziatzen hartzea eta, oro har, elkarrekiko aurreikuspenak egintzaren orientabide nagusia izatea, benetako elementu bereizgarriak dira giza egintzan. Marx gazteak bere antropologia intersubjektiboan azpimarratu zuenez, hartu-eman sozialek ematen diote gizakiari giza izaera. Horrela, hartu-eman edo elkarregintzan sortzen diren eta elkartrukutzen diren elementu sinboliko-kulturalak dira gizartea hezurramitzen dutenak. Gizabanakook geure ekintzei erantzen dizkiegun esangurak, elkarregintzan daukagun sormen sinboliko anitz eta konplexuaren emaitza dira; esangura horiek, historian ze-

har, beren isla eta fruitua dute gizartearen ezaugarri diren hainbat kultur-produktu eta instituziotan. Tradizio konstruktibistan, beraz, osotasun sozialak eta gizarte-instituzioak gizabanakoen jardun zehatzen elkarlotura eta prozesuen emaitza dira. Instituzio eta gizarte-egiturek ezartzen dituzten mugak eta kontrolak ukatu barik, giza egintzaren kontingentziari eta ahalmen sortzaileari erreparatzen diote. Erreproduktzioa baino produktzioa da azpimarratzen dena.

Normatibista eta konstruktibista izan dira, tradizio dialektikoarekin batera, pentsamendu soziologikoaren joera teoriko nagusiak. Tradizio teoriko horien arteko polarizazioa, lotura puntuak bilatu barik, beraien arteko aldeak eta aurkakotasuna azpimarratzearen emaitza izan da. Gainera, zientzia modernoan nagusi den objektibismo eta subjektibismoaren arteko aurkakotasunak, polarizaziorako joera hori indartu du. Horrela, tradizio normatibistan egitura normatiboan izaera objektiboa aztertzeak, hainbat momentutan, giza egintzaren izaera sinboliko-interpretatiboa baztertzea eta elkarregintzaren ahalmen sortzailea eta berritzailea begibistatik galtzea ekarri du: aktorerik gabeko gizartea. Izan ere, errealitate sozialaren soziologia egin beharrean gizarte-sistemaren soziologia egin da; eta ikuspegi estatikoak, mekanizistak eta objektibistak determinismo estrukturalaren pisua areagotu dute.

Era berean, zientifikotasun modernoaren irizpide positibistek eskatzen duten objektibismoa eta instrumentalismoa, modu errazagoan betetzen ziren planteamendu normatibistarekin konstruktibistarekin baino. Horrela, homologazio akademiko eta zientifikoa bilatu behar horrek azaltzen du, neurri batean, normatibismoak eta estrukturalismoak izan duten nagusitasuna teoria soziologikoaren garapenean.

Tradizio konstruktibistan, bere aldetik, giza egintza eta elkarregintzaren aribide kontingenteak aztertzeak, hainbatetan, eraturako jokabide eta instituzioen indar arautzailea eta derrigortzailea begibistatik galtzea ekarri du. Giza egintza eta elkarregintzaren azterketak ematen duen begirada dinamikoak, egonkortasuna ahaztera eta boluntarismoa azpimarratzera eramane du. Geure lan teorikoaren momentu ezberdinetan ikusi dugun bezala, subjektibismo eta determinismo boluntarista horrek gorabeherak izan ditu eta, oro har, krisian egon da mendebaldeko gizarteetan egonkortasuna nagusi izan den bitartean; lehenengo lerrora etorri, aktibismoak eta mobilizazio kolektiboak aldaketa sozialaren premia nabarmendu dutenean.

Tradizio dialektikoan, azkenik, giza egintzaren sormena eta indar eraldatzailea sakonki kontzeptualizatu bada ere; arestian aipatu dugun bezala, zientifismoak eta mendebaldeko gizartearen azterketa ezkorrek egiteak, baldintza sozio-ekonomikoen edo ideologikoen arabera determinismo estrukturala bultzatu dute. Aurrerago helduko diogu, ostera ere, tradizio dialektikoaren baitan determinismo eta boluntarismoaren artean dagoen aurkakotasun horri.

Giza egintzaren kontingentziaren arazoak eta, horrekin lotuta, normatibismoa eta konstrukzionismoaren arteko mugimendu teoriko pendularrak, erabateko zentralitatea izan dute soziologiaren debate teorikoetan. Aipatu bezala, askotan, bi norabide teoriko horien arteko lotura puntuak bilatu beharrean, aurkakotasuna azpimarratu da, eta klasi-koen irakurketa murriztaileak egin dira lehiaren mesedean eta osagarritasuna ahaztuz.

Geure lan teorikoaren helburua, ordea, giza egintza eta gizarte-egitura uztartzeko autore esanguratsu batzuk egin dituzten ekarpenak laburbiltzea izan da; hots, aldeak eta aurkakotasunak azpimarratzea baino hartu-emanak eta loturak identifikatzea. Horrela, diferentziak diferentzia, utilitarismoak ezartzen duen egintzaren indibidualtasuna eta testuinguru biografiko eta soziokulturalaren desagerpenaren aurrean, hartu-eman sozialetan dauden prozesu sinbolikoak eta interpretatiboak baieztatzea normatibismoan, konstrukzionismoan zein ikuspegi dialektikoan aurkitzen ditugun elementuak dira. Beste aldetik, ordea, ezin dugu ahaztu —Dawe, Touraine edo Sztompka-rekin batera— sistema sozialaren soziologia eta egintza sozialaren soziologia artean dagoen aurkakotasuna, sistema sozialaren eta giza egintza intentzionalaren artean dagoen bera dela. Are gehiago, aurkakotasun horrek adierazten du lan honen sarreran aipatzen genuen tirandura existentziala: sistemak ezarritako ordenaren menpe egotea edo giza egintzaren ahalmen sortzailea erabiltzea —determinismo eta askatasunaren arteko arazo filosofiko zaharra—. Giza pentsamenduaren historian sustrai sakonak dituen paradoxa izanda, beraz, ulergarriagoa egiten da polarizazio teorikoa nagusitzea, eta zailtasun handiak aurkitzea egintza eta egituraren arteko dialektikaren berri emango duten proposamen kontzeptual integratzaileak eta multidimentsionalak sortzeko.


Talcott Parsons-ek, ahalegin teoriko serioa egin zuen subjektibismo eta objektibismoaren arteko jauzi hori gainditzeko; hots, giza egintza eta gizarte-egituraren arteko loturak kontzeptualizatzeko. Bere konbergentziaren teorian, giza egintzaren elementu subjektiboak —esfortzua, helmugak eta arauak— elementu objektiboekin batera —egoeraren baldintzak eta baliabideak— kontzeptualizatu zituen. Are gehiago, Parsons-en hasierako egintzaren azterketan, ezinbesteko elementua da aktoreek, euren amets eta asmo idealen arabera, egoera errealetan eragiteko daukaten ahalmena: etorkizunerako desiratzen diren egoerak errealtatean gauzatzeko daukaten ahalmena. Giza egintza, beraz, aktiboa, sortzailea eta ebaluatzaile gisa kontzeptualizatzen du eta, era berean, baztertzeko du gizakia izaki pasiboa, adaptatiboa eta jasotzaile gisa ulertzea. Horrela, gizabanakoaren egintza definitzen duena, batetik, gizarte-baldintzak dira eta, bestetik, gizarte-baldintza horiek moldatzeko esfortzua; kontrol soziala eta kontingentzia, mugak eta aukerak, Parsons-ek biak ditu gogoan. Ondorioz, aktorearen *praxi* errealak, berez elementu subjektiboak eta elementu objektiboak dituelako, errealtatearen dimentsio objektiboa eta dimentsio subjektiboa biltzen ditu. Giza *praxia* eragilea eta eraginda da, baldintzailea eta baldintzatua. Baina nolako lotura dago giza *praxia* eta egitura batean eratuta dagoen gizarte-ordenaren artean? Arestian ikusi dugun bezala, Parsons-ek, balore eta arau sozialen barneratze prozesuan kokatzen du egintza eta egituraren arteko lotura; eta, horrela, giza praxiaren kontingentzia sortzailea atzean utzita, gizarte-sistemaren determinismora hurbiltzen da. Giza egintzaren helmugak eta arauak elementu objektiboak bihurtzen ditu, gizarte-sisteman kristalizaturik eta gizabanako bakoitzak barneraturik sozializazio prozesuan. Giza *praxian*, beraz, gizabanakoak egoeraren baliabideak erabiltzen ditu esfortzuaren bidez, baina barneraturiko baloreen arabera eta arau sozialek ezartzen duten muga barne. Gizakiak, rolen bidez, gizarte-egituren eramaile hutsak dira.

Parsons-ek eta, oro har, funtzionalismo estrukturalaren eraginez, gizarte-sistemaren determinismoak, pisu handia izango du pentsamendu soziologikoan II. munduko

gerraren ondorengo hamarkadetan. Are gehiago kontuan hartzen badugu funtzionalismoaren lehiakide nagusia den marxismoak ere joera estrukturalista gogorra hartu zuela. Marx-en pentsamenduaren irakurketa estrukturalistak ahaztu egiten du Marx-en subjektibismoa; gizakiaren sormena eta mundu sozialaren halabeharrezkotasun eza baieztatzen duen planteamendua, errealtate sozialaren itxurazko objektibitateak gizabanakoentzat dakarren boterearen galera eta alienazioa salatzen duena. Marxismo ortodoxoak bigarren mailan uzten du ere *praxia* kontzeptuarekin Marx-ek erakitzen duen uztarri dialektikoa giza egintza eta gizarte-egituren artean. Horrela, “Marx helduaren” determinismo ekonomizista oinarri hartuta, osotasun sozialen egituretan kokatuko dute giza egintzaren eta bilakaera historikoaren indar eragilea.

Gauzak horrela, funtzionalismoa eta marxismoaren artean hainbat urtez eman zen aurkakotasunak baztertu egin zituen pentsamendu soziologikoaren tradizio konstruktivistak; erabateko adostasun ortodoxoa ezarri baitzuten determinismo estrukturalaren inguruan. Funtzionalismoak zein marxismoak sistema sozialaren determinismoa azpimarratu zuten, lehenak zentzu batean —berdintasuna, integrazioa eta armonia teorizatuz— eta bigarrenak beste batean —ezberdintasunak, koakzioa eta gatazka teorizatuz—. Funtzionalisteentzat giza egintza normatiboa da, eraturako baldintza simboliko-kulturalen arabera; marxista estrukturalisten ikuspegia ere objektibatzailea da, giza egintza, eraturako baldintza materialen arabera da. Hainbat urtez, beraz, gizarte-sistema eta egiturak izan dira nagusitu diren kontzeptuak pentsamendu soziologikoan. Funtzionalismo eta marxismoaren arteko banaketa-ardatz nagusia ez da izan egitura-egintza, horretan egitura sozialen determinismoaren aldeko adostasuna baitzegoen; bi tradizio garrantzitsu horien arteko banaketa-ardatza integrazioa eta gatazkaren artekoa izan da, gizarte-sistema integrazioan eta armonian oinarritua ikustea edo koakzioan eta gatazkan.

KOAKZIOA-GATAZKA



ARMONIA-INTEGRAZIOA

Egitura eta egintzaren arteko banaketa-ardatzak, ordea, bere protagonismoa berreskuratu zuen inkorformismoa eta egintza kolektiboaren indarra, 60. hamarkadaren protesta eta mobilizazioen ondorioz, nabarmenagoak egin zirenean. Pentsamendu soziologikoa epealdi post-funtzionalista batean murgildu zen, eta egitura-egintzaren araberako banaketa teorikoak bereiztuko ditu, berriro ere, ikuspegi teoriko ezberdinak. Giza egintza eta elkarregintzaren azterketa mikroari ekiten zioten eskolek berpizte garrantzitsu izan zuten; horien artean, Alfred Schutz-en fenomenologia, Harold Garfinkel-en etnometodologia, Herbert Blumer-ren edo Erving Goffman-en elkarregintza sinbolikoa eta George Homas-en elkartruke arrazionalaren teoria. Baina, beste aldetik, Parsons-en funtzionalismo estrukturalak, ez zuen galdu egun batetik bestera zeukan pisu teorikoa eta nagusitasun akademikoa; era berean, gatazka sozialak nabarmentzearen eraginez, marxismo estrukturalista, Althusser, Poulantzas edo Foucault-en planteamenduekin indartu egin zen debate teorikoan.

Guzti horren ondorioz, debate teorikoan berriz ere zabaltzen da subjektibismo konprentsiboa (fenomenologia, elkarregintza sinbolikoa,...) eta objektibismo estrukturalaren (funtzionalismo estrukturala, marxismoa, estrukturalismo frantsesa) arteko jauzi teorikoa, giza egintza eta gizarte-egituraren arteko aurkakotasuna. Izan ere, funtzionalismo eta estrukturalismoak, subjektuen elkarregintza sortzailea azterketatik kanpo utziz, osotasun sozialen eta gizarte egituraren indar kontrolatzailea eta mugatzailea azpimarratzen dute; ikuspegi subjektibistetan, ordea, giza egintza eta elkarregintzaren mekanismoak ikertuz, azterketatik kanpo uzten dituzte gizarte-sistema eta koakzioa bezalako kontzeptuak.

Gauzak horrela, 60. eta 70. hamarkadetan, ikuspegi teoriko anitz eta kontrajarrien sakabanaketak eta polarizazioak bizitasun zientifiko handia ekarri bazuten ere, noraeza teorikoa eta proposamen integratzaileagoak edo ikuspegi sintetikoen egarria ere ekarri zuten. Horrela, 80. eta 90. hamarkadetan, giza egintza eta gizarte-egituraren kontzeptuen berdefinizioaren bitartez, objektibismo eta subjektibismoaren arteko jauzia gainditu beharra eta sintesi teorikoaren bilaketa, debate teorikoaren ezauzgarri nagusiak izan ziren. Izan ere, geure lan teorikoan aztertu ditugun autoreen planteamenduetan nabarmendu denez, muturreko bi planteamenduak diren determinismo estrukturala eta boluntarismoa baztertzea; eta, gizartearen produkzioan, giza egintza zein gizarte-egituren ahalmen eragilea modu dialektikoan aztertzea, oso joera onartuak izan dira. Era berean, elkarregintzaren mailak eta egitura sozialen mailak nolako lotura puntuak dituzten ikertzeak, kontzeptu berrien agerpena ekarri du; giza egintza eta gizartearen egitura modu osagarriago batez definitzen dituzten kontzeptuak.

Errealitate sozialaren produkzioa eta gidaritzaren inguruko debatean sintesiaren joera nagusitzen den bitartean, gizarte-egituraren zein giza egintzaren eragimena errekonozituz, giza egintzaren teorian ikuspegi utilitarista (*Rational Choice*) eta ikuspegi sinboliko-interpretatiboa integratzeko ahaleginak —Alexander-rena kasu— ez du behar bezalako onarpenik jaso. Izan ere, Touraine-k adierazi duen moduan, funtzionalismo eta marxismoa, integrazioa *vs.* gatazka ardatzean kontrajartzen baziren; ardatz horrek kontrajartzen du ere, giza egintzaren ikuspegi utilitarista giza egintza-

ren ikuspegi konstruktibistarekin. Egintzaren eredu utilitaristan integrazio estrategikoa azpimarratzen den bitartean, eredu konstruktibistan subjektuen sormen kulturala eta aktoreen egintza gatazkatsua azpimarratzen da. Hortaz, banaketa-ardatza lehenengo bera izanda —integrazioa *vrs.* gatazka baina sistema sozialaren mailan izan beharrean aktoreen elkarregintza mailan—, utilitarismo eta konstruktibismoaren artean legoke aurkakotasunik gogorrena egungo debateetan, soziologiaren hastapenetan egon zen bera. Zientifikotasunaren irizpide positibistak eta objektibistak, ordea, ez dira orduan bezain gogorrak, eta horrek tarte zabalago uzten dio soziologiari, normatibismo objektibizatzailean erori barik, giza egintzaren konstruktibismoan oinarritutako ikuspegi sendoa sortzeko.

Jarraian aurkeztuko dugu zeintzuk diren, geure irudiko, aurrerapen teorikorik interesgarrienak eta baliagarrienak lan honetarako. Arestian aipatu bezala, geure behin-behineko planteamendu teorikoak aurkezteko asmotan, lehenengo eta behin, giza egintzaren definizio bat egingo dugu; jarraian gizarte-egituraren definizioa egingo dugu ere eta, azkenik, bien arteko loturak eta uztarriak kontzeptualizatuko ditugu *praxi soziala* teorizatuz.

4.1. Giza egintza

Giza egintzari dagokionez, elementu definitzailerik eta bereizgarririk garrantzitsuena hartu-eman sozialetan oinarritua egotea da. Karl Marx-en antropologian ikusi dugun bezala eta geroko soziologia konprentsiboan eta fenomenologikoan garatu den bezala, hartu-eman sozialek ematen diote gizakiari giza izaera. Izan ere, azterketa sozialaren abiapuntua ez da gizabanakoa eta bere egintza; gizabanakoa, zentzu soziologikoan, elkarregintzan oinarritzen den prozesu konplexuen emaitza da. Mead-en giza komunikazioaren teoria antropologikoa jarraituz, elkarregintza-prozesu horietan, gizabanakoak besteengandik jasotzen dituen aurreikuspenen eta errepresentazioen sintesi bat egiten du, eta sintesi hori erabiliko du bere buruaren irudia egituratzeko, irudi horren auto-ebaluaketa egiteko eta bere egintza orientatzeko.

Horrela, orientabide gisa besteen jarduna edukitzea, giza egintzaren oinarritzko elementu definitzailatzat jo dezakegu. Weber-rek zehaztu zuenez, giza egintza soziala besteen jarduna erreferentziatzat hartzen duen egintza zentzuduna da. Giza arteko-tasunaren ezaugarri bereizgarria da, beraz, portaerak koordinatzeko egiten ditugun elkarrekiko aurreikuspenak, esangura sinboliko gisa irudikatzea eta transmititzea. Transmisio kultural horretan, norberak modu propioan laburbiltzen ditu eskema kognitiboak, baloratiboak eta egintzarako orientabideak baina, kasu guztietan, gizabanakoak elkarregintzan eta hartu-eman sozialetan bereganatuko du giza egintzarako ahalmena. Anthony Giddens-ek ere giza egintzaren dimentsio garrantzitsu hori azpimarratu du: aktoreak bere eta besteen aktibitateak erregistratzen ditu, eta erreferente moduan hartzen ditu bere jokabideak definitzeko. Elkarrekiko jakintza eta ulermen hori, diskurtsiboa ez den kontzientzia praktikoa moduko bat osatzen du, zentzutasun praktikoa Bourdieu-ren terminologian.

Giza egintzaren bigarren elementu definitzaile nagusi bat autonomoa eta kontzientea izateko borondatea da. Marx-ek azpimarratu zuen ere giza egintzaren dimentsio hau: giza espeziaren jarduera bereizten duen elementua jarduera aske eta kontzientea izateko nahia da, askatasunez jokatzeko borondatea. Ildo berdinetik, Tournaine-k azpimarratuko du gizabanakoak arau eta kontrol sozialak antzematen dituela eta, horrekin batera, subjektu autonomoa izateko borondatea ere. Izan ere, hankamotz geldituko zaigu giza egintzaren definizioa, hartu-eman sozialetan gauzatzen diren transmisio eta elkartruke sinbolikoaren prozesuetara murrizten badugu. Elkarregintzatik ikasteko gaitasunaz gain, gizakiak badu bere burua modu autonomoan garatzeko gaitasuna; hau da, eguneroko hartu-eman sozialetan ikasteko beharraz gain, badu ere sortzeko beharra, bere bereizgarritasun eta trebetasun pertsonalak garatzeko eta kanporatzeko beharra. Piotr Sztompka-k adierazi digunez, gizakiak testuinguru naturalean eta testuinguru sozialean aukerak eta baliabideak aurkitzen ditu, baita oztopoak eta mugak ere; horrexegatik ezinbestekoa du bere gaitasunak eta trebetasunak garatea eta, sormenaren bidez, topatutako oztopoak gainditzea.

Aipatu dugun lehenengo elementu definitzailea osatuz esan genezake, beraz, hartu-eman sozialetan produzitzen diren eta transmititzen diren elkarrekiko aurreikuspenak eta eskema interpretatzaileak, modu pertsonalean eta propioan laburbiltzen direla autonomoak izateko borondatearekin; hau da, geure bizitza eraikitzeke eta kontrolatzeko nahiarekin, bizitza nahi dugun moduan bideratzeko asmoarekin. Giza egintza, hartu-eman sozialetan oinarritzen da eta hartu-eman horietan definitzen dena ikasteko beharra dauka, baita horren gainean sortzeko beharra ere. Horrela, partaidetza aktiboa eta sormenaren bidez, behar hori asetzen ez bada, geure bizitza —pertsonala zein kolektiboa— nahi dugun moduan bideratzeko nahia asetzen ez bada, ez dira norberaren bereizgarritasunak garatzen; gizabanakoak ez du bere nortasuna garatzen eta, Marx-ek nabarmendu zuen bezala, pasibitatea eta giza ahalmenen azpigarapena nagusitzen da. Izan ere, gizakia prozesu bezala ulertuta, bere ekintzen prozesuak aginduko du bere izanaren garapena.

Azkenik, geure giza egintzaren definizioan, hirugarren elementu bat azpimarratu nahi dugu: giza egintza espazio eta denboran zehatz batean kokaturik dagoen egintza da. Espazio geografikoan, denbora historikoan eta gizartean daukagun kokapen sozialak, eguneroko hartu-emanetan definitzen den “nortasun”, “*habitus*” edo “jarrera” bat ematen digu, modu pertsonalean eta ez mekanikoan barneratzen dugun nortasun soziala. Izan ere, gizabanakoak bere egintza garatzen du historikoki, kulturalki eta sozialki kokaturik dagoen aktore gisa, eta kokapen horrek egintzarako aukerak eta mugak ezartzen ditu. Bourdieu-ren planteamendua jarraituz, norberak bere bizitzan izan dituen eta gaur egun dituen baldintzak bere kokapen sozialari dagozkien elementu baldintzaileak dira eta *habitus* zehatz bat produzitzen dute. *Habitus* edo nortasun sozial horrek pentsamendu, pertzepzio eta ekintza guztien produkzio librea ahalbidetzen du, beti ere, bere produkzioaren baldintzek zehazten dituzten mugen barne. Hau da, espazio eta denbora zehaztuta kokaturik dauden hartu-emanetan, produktuak sortzeko gaitasuna garatzen dugu (pentsamenduak, pertzepzioak, ekintzak...), askatasun osoz sortzeko gaitasuna; baina gaitasun mugatua da, beti baitaizka historikoki eta sozialki zehatzak diren produkzio-baldintza mugatzaile batzuk.

Arestian apatu ditugun giza egintzaren bi ezaugarri nagusiekin lotuz, esan genezake, kokapen kultural eta sozial zehatz batean gertatzen den elkarregintza eta transmisio kulturean, gizabanakoak egintzarako ahalmena bereganatzen duela; bere sormenerako eta baieztapen autonomorako abiapuntua den egintza-ahalmena. Hartu-eman sozialetan, beraz, elkarrekiko aurreikuspenak eta produkzio sinbolikoaz gain, badago baldintzailea den ingurune eta koituntura bat. Izan ere, koituntura edo testuinguru horretan, hornitzailea eta mugatzailea den botere dialektika dago eta, dialektika horretan, besteen jokabideak eragiteko erabiltzen diren baliabideak modu asimetrikoan banatzen dira.

Horrexegatik, Giddens, Bourdieu eta Sztompka-rekin batera, uste dugu oso garrantzitsua dela ezberdintzea aktoreak “bilatzen” duena eta “egiten” duena; hau da, praxia bereiztu behar da giza egintzaren aspektu intentzionaletatik. *Praxi* sozialean edo gizakiaren aktibitate errealean azaltzen dira modu dialektikoan, batetik, gizabanakoak elkarregintzan baina modu pertsonalean sortu dituen nahiak, idealak eta desiraturiko egoerak; eta, bestetik, egoeraren baldintza instituzionalizatuak. Jarrera subjektibo eta baldintza objektiboen artean ez dago erabateko elkarrekikotasunik normatibismoan baieztatzen den moduan, ezta erabateko aurkakotasunik boluntarismoan baieztatzen den moduan, baizik eta hartu-eman dialektikoa. Gizabanakoaren hasierako asmoak, bere egintzaren ahalmen esku hartzailea abiatzen du, kontzientea eta askea izateko borondatea. Gauzak bere modu pertsonalera egiteko gaitasun eraldatzaile horri esker, aktoreak beti du instituzionalizatuta dagoen jokabidea erreproduzitu barik beste modu batera jokatzeko aukera. Baina, era berean, egoerak duen eta iraganetik eratorzen diren arau eta baliabideen banaketa desorekatuak *praxia* eragiten du eta, ondorioz, giza egintza aske eta sortzailea mugatzen du. Giddens-ek zehaztu duen moduan, *praxi* sozialak gizabanakoa du eragile nagusia, baina kontuan hartu beharreko beste elementu batzuk ere baditu; arauak eta baliabide mugatuak dituen testuinguru batean garatzen da, baita asimetrikoa den botere-dialektika batean eta, gainera, nahigabeko ondorioak produzitzen ditu. Hala eta guztiz ere, horrek ez du gutxiesten edo bigarren mailan uzten aktorearen protagonismoa, *praxiak* izan ditzakeen nahigabeko ondorioak ez bailirateke gertatuko aktoreak abiatu duen gaitasun eragilerik gabe.

Hortaz, giza egintzaren gaitasun eragilea, espazio eta denbora zehatzetan kokatu behar da; egoeraren baldintzaileak aukerak eta mugak eskainiko baititu ahalmen eraldatzailea garatzeko edo indargabetzeko. Dena den, eraturiko baldintza objektiboen eraginpean jokabide alternatiboa ez sortzeak, ez du esan nahi aktorea indar mekanikoen menpe dagoenik, praktika instituzionalizatuak erreproduzitzea ez da halabeharrezkoa baizik eta aukerakoa, kontingentea. Aktoreak beti izango du egoera problematizatzeko ahalmena bestelako praktikak sortu ahal izateko.

Hiru dimentsio nagusien arabera definitu dugu, beraz, giza egintza: dimentsio erlazionala, hartu-eman sozialean oinarritua; dimentsio sortzailea, autonomoa izateko borondatea; eta dimentsio sozio-kulturala, kokapen zehatzak hornitzen dituen aukerak eta mugak kontuan hartzen dituena. Ez dugu uste, beraz, giza egintzak dimentsio estrategiko edo instrumental bat izango duenik modu unibertsalean. Jokaera utilitarista, kultura kapitalistan eratu den jokabidea kontsideratzen dugu, eta ez giza egin-

tzaren dimentsio nagusi eta unibertsala. Izan ere, giza egintza sariak bilatuz eta zigor-
rrak saihestuz etekinik handiena lortzearen araberakoa kontsideratzen badugu, arestian kontzeptualizatu ditugun dimentsio erlazionala eta dimentsio sozio-kulturala ukatzen ditugu; eta erabat deskontestualizaturiko egintza kontzeptualizatzen dugu.

Giza egintza, hortaz, ingurune zehatz batean, hartu-eman sozialen bidez besteen jarduna orientabide gisa hartzen duen egintza da; eta, aldi berean, autonomia eta kontzientea izateko joera du. Izan ere, hartu-eman sozialetan oinarritzen bada aurkak-
koak baina osagarriak diren bi ekintzetan oinarritzen da: hartu eta eman. Hortik erar-
tortzen da, hain zuzen ere, giza egintzaren izaera bikoitza, determinatua eta auton-
moa, sortua eta sortzailea, eragindua eta eragilea.

Izan ere, giza egintzaz egin dugun kontzeptualizazio hori, lotua dago lan honetan jor-
ratu nahi dugun planteamendu teoriko-hipotetikoarekin; giza egintzak bere auke-
rak egiten ditu historikoki, kulturalki eta sozialki zehaztuta dagoen kokapen batean; aukera edo jokaera horiek sortzaileagoak edo erreproduzitzailagoak izango dira se-
gun eta egoerak problematizatzeko eta alternatibak sortzeko garatzen duen gaitasuna eta, oro har, segun eta hartu-eman autonomoago edo heteronomoagoa garatzen duen bere testuinguruan eratuta dauden jokaerekiko. Partaidetza eta antolaketa kolektibo-
ak, geroago definituko dugun moduan, egoerak problematizatzeko eta alternatibak sortzeko gaitasuna hornitzen du; eratuta dauden instituzio eta egitura sozialak desk-
sifikatzeko gaitasuna, eta horiekiko hartu-eman autonomoagoa garatzeko aukera. Horrela, instituzio eta egitura sozialak giza produktu bezala irudikatuz, gidaritze-ahal-
mena sentitzeko aukera eta alternatibak sortzeko gaitasuna garatzen da; giza egintza, muga eta ezintasunei begira baino, aukera eta ahalmenei begira jartzen da. Apatia, norberekeria eta erreprodukzio inkontzientea alde batera utzita, bizitza pertsonala eta ingurune soziala desiraturiko egoeren arabera moldatzeko eta eraldatzeko indarra abiatzen da. Indar edo botere agentzial horrek, nahigabeko ondorioak produzituko ditu baina, ezer baino lehen, jokaera erreproduzitzailen bidez instituzio eta egitura sozialak sustatzen dutenek daukaten botere agentzialari egin beharko dio aurre. Jarraian ikusiko dugunez, eratuta duden arauak, baliabide-banaketak eta botere-dialek-
tikak, mesede egiten diete kosifikazioaren diskurtsoa berproduzitzen dutenei; baina jokabide berrien instituzionalizazioa arrakastatsua bada, jokabide erreproduzitzailen a-
huldadeak eratuta dauden instituzio eta egituren desinstituzionalizazioa ekarriko du.

4.2. Gizarte-egitura eta reifikazioa edo galdutako gizarte-boterea

Arestian aipatu bezala, giza egintza eta gizarte-egituren arteko lotura-puntuak kontzeptualizatzea azterketa teoriko honen helburu nagusienetarikoa dugu; horretarako, giza egintzaren definizioan egon diren aurrerapen teoriko interesgarrienak labur-
bildu ostean, gauza bera egingo dugu gizarte-egituren kontzeptualizazioan. Azkene-
ko urtetan gizartearen egituren inguruan egin diren planteamendu teoriko berrie-
kin, errazagoa egingo baitzaigu erabili nahi dugun egintza eta egituraren arteko uztarri
teorikoa definitzea.

Esan bezala, giza egintza hartu-eman sozialetan oinarrituko dugu, hau da aurkakoak baina osagarriak diren bi ekintzetan: hartu eta eman. Hortik eratoritzen da, hain zuzen ere, giza egintzaren izaera bikoitza, sortua eta sortzailea, eraginda eta eragilea. Gizartearen egiturek ere aurkakoak baina osagarriak diren bi ezaugarri dituzte: giza-kien jokatzeko eratik eratoritzen diren emaitza dira, eta aldi berean, jokatzeko modu horiek posible egiten duen baliabidea dira.

Gizarte-egituren bikoiztasuna azpimarratu duten autoreen planteamenduetan, aktore eta egituren eraketa ez dira banaturik dauden prozesuak; gizartearen ezaugarri estrukturalak giza *praxiaren* ingurunea dira eta, aldi berean, giza *praxiaren* emaitza. Egitura, beraz, ez da soilik giza gaineko errealitate derrigortzailea, baizik eta giza egintzaren barne eta giza egintzaren emaitza den errealitatea.

Dakigunez, gizakiak elkarlotuta daude elkarregintza eta hartu-eman sare konplexuetan, eta sare horiek ezaugarri eta erregularitasun propioak sortarazten dituzte. Giza hartu-emanen ondorioz sortzen diren egiturek ez dute existentzia substantzialik edo ontologikorik, birtualak dira, errealitate sozialaren atributuak. Sztompka-k gogoarazi digun moduan, gizartean jendea dago besterik ez, baina, aldi berean, gizartea gizabanakoak baino zerbait gehiago da; “zerbait gehiago” hori euren arteko hartu-emanen egitura da, ezaugarri propioak dituen egitura, eta aktoreen elkarregintzan etengabe berregiten ari den egitura. Hartu-eman sare horretan, aktore bakoitzak bere kokapen soziala dauka, aukerak eta mugak eskaintzen dizkion kokapena. Giza egintzaren gidaritza, beraz, mugatua da. Aktoreek gizartea produzitzen dute, baina historikoki kokaturik dauden aktore bezala, eta ez beraiek aukeratzen dituzten baldintzetan. Ezaugarri estrukturalak mugak ezartzen dizkiote giza egintzari —koakzioa, derrigortzekotasuna—, baina giza egintza ahalbidetzen dute ere; gizabanakoari bere egintza garatzeko aukerak hornitzen dizkio, bere nortasunaren zentzua eta egintza sortzaile-rako tresnak. Gizarte-egiturak, beraz, praktika errepikakorren bidez etengabe estrukturatzen ari diren egiturak dira. Izan ere, giza egintzaren bidez gizarte-egiturak erazten dira, eta gizarte-egituren bidez giza egintza eratzen da.

Sharon Hays-ek, sakonean aztertu du gizarte-egitura kontzeptuari nolako definitio mugatua eta ambigua eman zaion pentsamendu soziologikoaren tradizio ezberdinetan. Estrukturalismoan —normatibistan zein materialistan— gizarte-egituren izaera derrigortzailea azpimarratzen da, mugak eta koakzioa. Begibistatik galtzen da euren izaera hornitzailea eta erraztatzailea gizakiaren egintzarekiko, gaitasunen garapena eta aukerak. Konstruktibismoan, ordea, ez da behar bezala jasotzen gizarte-egituren izaera derrigortzailea. Azkenik, *Rational Choice*-aren teorilariek, koakzioa ez kontzeptualizatzeaz gain, irudikatzen dute mundu soziala gizabanakoek erabateko kontrolpean daukaten errealitate bezala, soilik mugatua eskuragarri dituzten baliabideengatik²³⁰. Hays-ek berak aipatzen duen moduan, gizarte-egitura kontzeptua berdefinitu behar da modu malguago eta dinamikoago batez. Egitura ez da errealitate sozialaren alderdi objektiboa, materiala, gogorra eta behaketa zientifikorako aldagai

²³⁰ HAYS, S. “Structure and agency and the sticky problem of culture”. *Sociological Theory* 12: 1, 1994. Orr. 59.

independienteak hornitzen dituen —eraikinaren zutabe mugiezinak—. Gizarte-egiturak gizabanakoa moldatzen duten ereduak dira baina, aldi berean, gizabanakoen sorkuntza dira, eta ez ziren existituko gizabanakoen partaidetzarik gabe (ohartuta edo oharkabean, nahita edo nahigabe). Horrexegatik, ezinbestekoa da maila berean onartzea egituren izaera hornitzailea eta izaera mugatzailea; eratuta dauden egitura eta instituzioen bidez jasotzen den transmisio kulturalan, geure izaera, auto-oharmena eta egintzarako ahalmena garatzen dugu. Aldi berean, balore, pentsamolde, arau eta jokatibide horiek, zigorpeko orientabide aldaezin bezala ezartzen dizkiguten neurrian, mugarri bihurtzen dira.

Horrela ulertuta, beraz, argi da gizartearen egiturak gizabanakoen *praxiaren* emaitza eta aldi berean ingurune baldintzailea direla eta, zentzu horretan, giza egintzarekiko hornitzaileak zein mugatzaileak direla. Baina, zertan datza gizartearen egitura?

Elementu, multzo edota maila ezberdinak ezberdinu ohi dira gizartearen egituran; autore batzuen ekarpenak bilduz, bi elementu-multzo ezberdinu dezakegu: alde batetik, eskema kulturalak, pentsamendua eta egintza gidatzen duten printzipioak (baloreak, ideologiak, doktrinak, arauak, legeak, erritualak, ohiuneak,...); eta, bestetik, kokapen sozialen sistema: elkartruke eta elkarregintza-sareak eta, oro har, baliabide, aukera eta boterearen banaketan dauden hierarkiak eta asimetriak determinatzen dituzten ezberdintasun-printzipioak (kapital ekonomikoa, kapital kulturala, erlijioa, etnia, sexua...).

Eskema kulturalak eta elkartruke-sareak dira, beraz, gizartearen egitura osatzen dutenak. Hau da, gizarte-egitura arau, baliabide eta hartu-eman sare konplexu gisa aztertutako behar dugu. Aktoreen elkarregintzan etengabe produzitzen eta erreproduzitzen den sare konplexu eta dinamikoa, gizabanakoak moldatzen dituen eta moldatua dena gizabanakoen egintza eta elkarregintzan.

Arau, baliabide eta hartu-eman multzo horrek kokapen sozial ezberdinak dituen errealitate soziala osatzen du. Aktoreak eta taldeak kokapen ezberdinetan daude espazio sozialean, eta gizarte-egituran daukaten kokapen horrek aukerak eta mugak ezartzen dizkie aktoreei (hornitzailea eta mugatzailea). Kokapenaren arabera aktorea harremanetan egongo da egituraren zenbait elementurekin, eta ez du inongo hartu-emanik izango beste hainbatekin. Izan ere, aktore eta aktore-multzo bakoitzak, eskura dauka zenbait irakurketa, eredu, rol, ideia, balore, harreman eta baliabide; aktoreak modu pertsonalean eta sortzailean barneratuko dituen elementuak.

Gizartearen egitura eta instituzioen definizioarekin oso lotuta dagoen beste aspektu bat kosifikazio- edo objektifikazio-prozesuak dira. Esan bezala, gizarte-egitura edo kokapen sozialak bereizten dituen arau, baliabide eta hartu-eman sare dinamikoak, bere joera eta ezaugarri propioak ditu; zentzu horretan, gizarte-egiturak nolabaiteko autonomia eta kanpoaldekotatasuna erakusten du gizakien elkarregintzarekiko. Autonomia hori, aldezturik planifikatua ez dagoen ondorio gisa uler daiteke, baina gizartearen instituzioen eta egituren erabateko objektifikazioan erori barik. Izan ere, dakigunez, instituzio eta gizarte-egituren kosifikazio- edo reifikazio-prozesuak

aspaldiko kezka dira pentsamendu soziologikoan; instituzio sozialetan eratu diren pentsatzeko, jokatzeko eta sentitzeko erak, ziurtasun aldaezinak bailiran transmititzekoan, nahitaezko itxura objektiboa eta aldaezina hartzen dute. Horrela, gizakiok protagonizatutako prozesu sortzailea ahaztuz, "bigarren natura" bat bailitzan inposatzen zaio gizakiari; eguneroko praktiken atzean dauden adostasunak egonkorrak, finkoak eta aldaezinak irudikatzen ditugun neurrian, ahaztu egiten dugu euren sorrera intersubjektiboa, kontingentea eta aldagarria. Karl Marx-ek ohartarazi zuen bezala, hartu-emanen bidez produzitzen dugun errealtate soziala, gizakiok sorturiko "bigarren naturaren" antzera, askatu egiten da geure kontroletik, geure gidaritzatik; onartu beharreko patua bailitzan inposatzen zaigu, horrek dakarren boterearen galerarekin eta, Marx-en hitzetan, gizabanakoaren alienazioarekin.

Max Weber-ek, modu ezkorrean, instituzionalizazio prozesuen nahitaezko joera gisa ikusten zituen kosifikazio prozesuak. Giza egintza eta elkarregintzak sortzen duena indarrean jartzen den neurrian, jarraibide instituzionalizatuak ezartzen ditu; horrela, hasierako giza egintzarendandik urrunduz, traba egiten die egintza sortzaile berriari. Momentu batean iraultzailea den egintza, mugatzailea izango da geroago. Gizarte-antolaketa berria sortarazi dezake baina, prozesu berean, ordenamendu berria nahitaezko izaera zigortzailea hartzen duen neurrian, giza egintza sortzailearen ezeztapena ekarriko du. Weber-ri eskaini diogun orrialdetan aipatu dugun moduan, giza egintza sortzailearen paradoxa da bere garapenean nahitaezko izaera derrigortzailea hartzea; hots, bere baitan giza menpekotasuna eramateagatik auto-ezeztatzailea izatea. Horrela ulertzen du, Weber-ek, gizabanako partehartzaileak izatetik makinaria-*ren* morroiak izatera dagoen iraganbidea.

Kosifikazio prozesuak saihestezinak bezala aurkeztea, ordea, oso kritikatu izan da errealtate sozialaren aspektu hau aztertu duten autore askoren aldetik. Alan Dawe-k, Anthony Giddens-ek edo Hans Joas-ek defendatu duten bezala, kosifikazio prozesuak ekidinezinak kontsideratzea, gizartearen instituzionalizatu dena giza elkarregintzak sorturikoa eta biziberritua dela begibistatik galtzea da eta, ondorioz, egituren determinismoan erortzea; gizartearen eta historiaren kontingentzia desagerraraztea eta halabeharrezkotasunaren defentsa egitea. Azken batean, instituzio eta egituren berezko giza dimentsioa ukatzen duen diskurtsoa da. Giddens-entzat, kosifikazioa diskurtso ideologiko bat da, gizarte-sistemaren zenbait ezaugarri objektiboki emanda dauden ezaugarri sasi-naturalak direla interpretatzen duena, euren izaera arautzaile eta derrigortzailea maila gorenera igoz. Hortaz, ezaugarri eta fenomeno sozialak giza *praxiaren* produkzioa eta erreprodukzioaren emaitza direla ezkututzen duen diskurtsoa da. Kosifikazioaren diskurtsopean, elkarbizitza kolektiboa kontrol kolektibo demokratiko baten esku egon beharrean elite boteretsuen esku dago. Autore ingelesak nabarmendu duenez, diskurtso reifikatuak aktore sozialen artean zein zientifiko sozialen artean ematen dira eta, lehen aipatu dugun bezala, historikoki kontingenteak diren giza egintzaren produktu eta baldintzen naturalizazio diskurtsibo hori, ideologia-*ren* alderdi nagusia da bizitza sozialean.

Baina, era berean, Giddens-ek azpimarratu du ere, gizartearen egiturak eta instituzioak, gizabanakoaren bizitza baino harantzago doan iraupen bat daukaten neu-

rrian, nolabaiteko kanpoaldekotasuna daukatela gizabanakoekiko. Kanpoaldekotasun hori onartzeak, ordea, ez du esan nahi instituzio sozialen derrigorrezkotasun saihestezina onartzea; horrela egingo bagenu, instituzio eta egituren prozesu sortzailea agerriarazi beharrean, prozesua ezkutatuko genuke eta, ondorioz, gizakiaren gidaritza-ahalmena ezeztatuz, determinismo estrukturalan egongo ginateke.

Joas eta Castoriadis-ek ere, jarraibide instituzionalizatuak ez direla berez derrigortzaileak azpimarratu dute, lotura derrigortzailea sortarazten dugu euren sorrera intersubjektiboa ukatzen dugunean edo begibistatik galtzen dugunean. Gizarte-instituzioak alienatzaileak bihur daitezke bere imaginarioan daukatena geure produktu bezala ikusten ez badugu. Alabaina, gizarte-instituzioak ez dira berez alienatzaileak, posibilitate alienatzaile horretan funtsezkoena ez da instituzioen izaera, baizik eta gizarteak eta bere partaideek instituzio horiekin daukaten hartu-eman. Hartu-eman partehartzaileak eta sortzaileak garatzen diren neurrian, sormen instituzionala eta etengabeko deskosifikazioa bultzatzen da; gizartearen egitura eta ordenamendu instituzionala, objektifikatua, aldaezina eta ezkutua azaldu beharrean, moldagarria eta gardena azalduko zen. Posiblea litzateke elkarbizitza kolektiboa kontrol kolektiboaren esku egotea; hau da, instituzio sozialak sustatzen dutenen ohiko tankera mugiezina eta zigortzailea aldatzea edo ahultzea posiblea da partaidetzaren bidez; eta, horrela, kosifikazioa etengabe deskosifikatuz, posiblea liteke ere instituzioen auto-transformazioa eta sormen eraikorra sustatzea.

Alain Tourain-ek ere, bere kritika gogorra plazaratu du kosifikazioaren planteamenduaren inguruan. Bere ustez, aldakorra eta ahula den aktoreen arteko hartu-eman sare dinamikoa ezin da objektibizatu; momentu historiko bakoitzean, aktoreen orientabide kulturalak eta hartu-eman gatazkatsuak ari baitira etengabe sortzen elkarbizitza soziala.

4.3. Praxi soziala eta giza agentziaren ahalmen eraldatzailea

Ikusi dugun bezala, giza egintza eta gizartearen egiturak oso hartu-eman dialektiko estua daukate. Bata bestearengandik urrun eta lotura gabe ikusi beharrean, gizabanakoen aktibitate errealean, *praxi sozialean*, biak batera agertzen zaizkigu. Geure azterketan, giza egintza intentzionala edo gizartearen egitura abiapuntu moduan hartu barik; historikoki, kulturalki eta sozialki kokaturiko *praxi* erreala hartuko dugu abiapuntu, *praxi* sozialak ematen baitu eguneroko elkarregintza rutinarioa eta gizartearen dimensio estukturalaren artean dagoen lotura.

Horrela, onartu egiten dugu egitura eta instituzio sozialek —ezartzen duten arau, baliabide eta hartu-emanen bidez— gizabanakoen elkarregintza erreala baldintzatzen dutela, zentzu hornitzailean zein mugatzailean. Elkarregintza sozialerako behar den oinarritzko jakintza eta zentzutasun praktikoa hornitzen diete, modu arautuan eta kokapen sozial zehatz batean, horrek dakarren mugapen guztiekin.

Era berean, onartu beharrekoa da gizabanakoen egintza eta elkarregintzak —produzitzen eta erreproduzitzen dituen errepresentazio, eskema eta jokabideen bidez—

etengabe biziberritzen dituela gizartearen instituzioak eta egiturak. Giza egintza, beraz, intenzionala eta sortzailea da, gizarte-egiturekiko autonomia izateko joera du; baina ez da guztiahalduna eta mugarik gabekoa. Bere aukerak eta apustu sortzaileak egiten ditu, denbora eta espazio zehatz batek definitzen duen egoeren barne; horrexegatik, *praxi* errealean azaltzen da egiturazko baldintzak eta egintza intenzionalaren arteko dialektika. Errealitate enpirikoan, beraz, maila indibiduala egitura sozialen mailarekin uztartzen da, *praxiaren* prozesuan gizabanakoaren egintzak eta gizartearen egiturak elkar eragiten dute. Sztompka-k baieztatzen duenez, errealitatean gertatzen diren gauzak beti dira egitura eta agenteen bat-egitearen ondorioa, ez dago egiturarik gabeko agenterik, ezta agenterik gabeko egiturarik; baina, aldi berean, egiturak ez dira agortzen agenteen *praxian* eta agenteen *praxia* ez da agortzen egituren barne.

Hortaz, giza egintzak zein gizarte-egiturak izaera bikoitza daukate: giza egintza determinatua eta determinatzailea da, eta gizartearen egiturak baldintzaileak eta baldintzatuak dira. Bikoiztasun hori gizartearen produkzio eta erreprodukzioaren ezauzgarri nagusia da eta, horrexegatik, gizartearen produkzioa eta gidaritza etengabeko prozesu dinamikoa kontsidera dezakegu.

Esan bezala, *praxiaren* emaitza, normalean, ez da ehunetik ehunean egintzaren intenzioa, testuinguruak arauak eta baliabide mugatuak dituelako eta asimetrikoa den botere-dialektika bat ere; gainera, batzutan, *praxi* errealak nahigabeko ondorioak produzitzen ditu. Baina, *praxiaren* emaitza ezta ere, ehunetik ehunean, egituren determinazioen emaitza. Izan ere, gizabanakoak modu pertsonalean barneratu ditu transmisio kulturalaren bidez jaso duen egintzarako zentzutasuna, horrexegatik gizartearen instituzioak etengabeko aldaketan daude, etengabeko moldaketa eta gaurkotzea baita biziberritzeko modu bakarra²³¹. Are gehiago, batzutan, gizabanakoek, euren hartueman sozialetan, egoerak problematizatzen dituzte; eratutarik eta dominanteak ez diren jokabideak definitzen dituzte, baita gauzatu ere. Eguneroko praktika rutinarioa, erreproduzitzaila eta sasi-kontzientea alboratuz, eratuta dagoenarekiko kritikoagoa eta kontzientzia diskurtsibora ailegatzen den *praxi* autonomoagoa eta sortzaileagoa abiatzen da. Horrela, berriak, diferenteak eta alternatiboak diren aukera ineditoak agertzen dira, lehian egongo direnak ordura arte instituzionalizaturik zeudenekin.

Hortaz, aktore sozialek gizartearen instituzioetan eta egituretan eragiteko daukaten ahalmena (agentzia), bizitza pertsonalaren eta kolektiboaren gidaritza hartzeko aukera da. Baina jokabide alternatiboa sortzeko aukera, edo gauzak “beste modu batera” egiteko ahalmena, aktibatu barik geratu daiteke, eta botere agentziala jokabideen moldaketa erreproduzitzaila eta rutinarioa bultzatzea.

Sharon Hays-ek zehaztu duen moduan, beraz, lehenengo eredu teoriko tradizionalak (determinismoa eta boluntarismoa) zein oraingo joera teoriko konstruktibistak kontuan hartuta, lau modu ezberdinetan ulertu daiteke giza agentzia:

²³¹ Joas-ek aipatzen duenez, ohiturak eta erreproduzioek badute beti sortzailea den zerbait; eta, alderantziz ere, sormen handiko ekintzetan beti dago ohitura, erreprodukzioa edo lehenagotik datozen elementuak.

- Gizabanakoak agenteak dira, gizarte-egituren eramaileak diren aldetik.
- Gizabanakoek egiturak egiten dituzte eta, aldi berean, egiturek gizabanakoak egiten dituzte. Agenteek, eguneroko praktikan egiten dituzten aukeren bidez, etengabe produzitzen eta erreproduzitzen dituzte gizartearen egiturak.
- Gizabanakoak agenteak dira, gizartearen instituzio eta egituretan ondorio transformatzaileak dituzten aukerak egiten dituzten neurrian.
- Gizabanakoak agenteak dira, euren egintzaren esku dagoelako errealitate sozialaren erabateko kontrola eta gidaritza.

Lehenengoa eta laugarrena, determinismo estrukturalista eta determinismo boluntarista, gáindituak izan dira gaur egun, Hays-en ustez. Determinismo estrukturalak ukatu egiten du giza agentziak duen ahalmena gizartearen instituzioak eta egiturak eragiteko. Determinismo boluntaristak, bere aldetik, ez ditu gizabanakoak kokatzen historikoki eta sozialki egituratuak dauden testuinguruetan eta, ondorioz, desagerrarazten ditu giza egintzaren oinarri sozio-kulturalak. Bertsio utilitaristan kontraesan nabarmena legoke, aktore arrazionala mundu sozialaren kontrola izan beharrean, bere jokabide estrategikoa erabat determinatua egongo baitzen inguruan dituen aukera eta baliabideen egituragatik²³².

Bigarren eta hirugarren ikuspegien artean ez legoke horrenbesteko alderik, bietan onartzen baita giza agentziaren ahalmena gizarte-egiturak eragiteko. Bigarrenean, gizabanakoak agenteak dira egunero praktiken bidez instituzio eta egituren existentzia eta iraupena bermatzen dutelako. Gizabanakoak, beraz, agenteak dira zentzu tekniko batean, aukerak egiten dituztelako estrukturaliki eskuragarri dituzten aukera-sorta baten barruan; baina, giza agentziaren ahalmena baino azpimarratu nahi dena egituren izaera prozesuala da. Hau da, helburu teorikoa litzateke gizartearen instituzio eta egituren kosifikazioa gáinditzea, eta, giza *praxia* egituren kontzeptualizazioan agerrarazten, determinismo estrukturala ukatzea. Horrexegatik, gehiago azpimarratzen da agentziaren joera erreproduzitzailea eraldatzailea baino. Hays-en ustez, hori da gertatzen dena, beste autore batzuen artean, J. F. Alexander, Berger & Luckman eta Giddens-en planteamenduekin. Agentzia mota hau agentzia erreproduzitzailea izendatzen du Hays-ek.

Azkenik, hirugarren ikuspegian, agenteek aldaketa soziala produzitzeko daukaten boterearen azterketa aurkitzen dugu. Hau da, ondorio arruntak ez dituen agentzia, modu nabarmenean eta enpirikoki behagarrian gizarte-egituren arauak, baliabideak eta hartu-emanak eragiten dituzten *praxi* sozialak. Interesgune nagusia, beraz, gizakiaren pentsamendu eta jokabideek dituzten ondorio historikoak dira. Beraz, ikuspegi honetan, onartu egiten da giza agentzia prozesu estrukturaletatik eratortzen dela —eta normalean prozesu horiek erreproduzitzen dituela—, baina gehien interesatzen dena aukera eraldatzaileak dira; agentziak egituran izan dezakeen inpaktoa. Hau da, Hays-en ustez, agentzia eraldatzailea izendatu beharko genukeena.

²³² HAYS, S. "Structure and agency and the sticky problem of culture". *Sociological Theory* 12: 1, 1994. Orr. 62.

4.4. Subjektuaren deszentralizazioa eta praxiaren zentralitatea

Ikusi dugun bezala, giza egintzaren eta gizarte-egituren arteko loturaren teorizazioa, gai nagusietariko bat izan da pentsamendu soziologikoaren historian. Egin-tza/egitura edo subjektu/objektu dikotomiak gainditzeko ahaleginak, 80eko eta 90eko hamarkadetan burutu diren hainbat saiakera teoriko gidatu ditu, baina azken urtetan ahalegin horiek ur sakonagoetan murgildu behar izan dira. Izan ere, 90eko hamarkadan gizarte industrializatuetan nabarmentzen ari ziren eraldaketek modernitatearen krisia eta post-modernitatearen debatea ekarri zuten. Errealitate post-industrialak berak, zein errealitate sozial horretaz egin ziren irakurketa post-modernoek, eztabaidan ipini zituzten ordura arte eztabaidaezinak ziren Ilustrazioaren zutabeak eta zientziaren aurreste epistemologiko batzuk: arrazionaltasun unibertsalaren existentzia, subjektu arrazionalaren zentralitatea eta historiaren meta-narrazio orokorrak posible izatea. Aurrerago azpimarratuko dugun moduan, hiru aurreste horiek elkarloturik agertzen dira progresoarean ideian: gizarte modernoaren etengabeko hobekuntza lineala²³³.

Gauzak horrela, beharrezkoa den eraldaketa epistemologikoa burutu ahal izateko kategoria eta kontzeptu berrien bilaketa inoiz baino urgenteago jotzen da, eta eraldaketa horren erdigunean “subjektuaren deseraikuntza” eta “deszentralizazioa” ipintzen da. Horrek esfortzu berriak ekarri ditu agente sozialaren teorizazioan; guri dagokiguna, arreta berezia ipini diegu, gizabanako arrazionalaren zein normatiboaren zentralitatea errefusatzuz, *praxiaren* zentralitatea —elementu sozialen prozesu sortzaile gisa— proposatzen duten ekarpen teorikoei²³⁴.

Aurreko ataletan aurkeztu dugun moduan, pentsamendu sozialean subjektu moderno izan da erdigunean egon den elementua eta, berarekin batera, gizarte-sistema edo egitura. Horrela, ikuspegi teoriko batzuen arabera, subjektua heteronomoa da, gizartearen instituzioek eta egiturek determinatzen dute (normatiboki funtzionalismo eta pentsamendu sistemikoan; materialki marxismoan). Beste ikuspegi batzuen arabera, subjektua agente autonomoa da (arrazionala eta instrumentala, indibidualismo metodologikoan; intentzioduna eta interpretatzailea ikuspegi konstruktibistetan). Azkenaldian, aldiz, esan bezala, gero eta ahots gehiagok aldarrikatzen dute “subjektuaren deszentralizazioa”; hau da, subjektua, modu autonomoan edo modu heteronomoan kontzeptualizaturik, azterketa sozialaren erdigunetik kendu eta, subjektu/objektu ikuspegitik urrunduz, subjektuaren des-eraikuntza egin. Horrela, azterketa sozialaren erdigunean kokatu beharrezkoa ingurune eta sare esanguratsuen eraketa da —historikoki eta soziokulturalki kokatuak—. Subjektua aktore-sare bezala agertzen zaigu²³⁵; agente sozialaren beste eredu edo ideia leunago bat proposatzen da, atzean uzten duena subjektu kontzientziadunaren determinismoa zein holismo sistemikoarena.

²³³ GARCÍA SELGAS, F. “La reflexividad y el supuesto sujeto” *Globalización, riesgo, reflexividad. Tres temas de la teoría social contemporánea*. Madril, CIS. 2000. Orr. 373-408.

²³⁴ *Ibidem*.

²³⁵ Latour, Callon eta Dona Haroway dira, besteak beste, norabide horretan proposamen ausartak eta berritzaileak egiten ari diren autore batzuk.

Hortaz, egungo pentsamendu soziologikoarentzat agente soziala eraikuntza bat da, aldi berean determinatua eta determinatzailea; eta, era berean, gizartearen instituzioak eta egiturak eraikuntza sozio-historikoak dira, aldi berean baldintzaileak eta baldintzatuak. Agente sozialak kokatuak daude aldakorrek diren kokapen sozialetan, errepikakorrek eta erreflexiboak diren praktikak biziberrituz. Praktika horiek dira, hain zuzen ere, errealtatearen eragile determinatzaile nagusiak; agenteak beraiek, agenteen arteko elkarregintzak eta gizartearen instituzioak eratzen baitituzte. Horrela, azterketa sozialaren erdigunean kokatu beharrekoa agenteen *praxi sozialak* dira; beti ere, agenteen ahalmen sortzailea zein gizarte-egituren determinazioa jasotzen duten *praxi sozialak*.

Planteamendu epistemologiko eta analitiko horretatik, gizartearen eraketa eta gizabanakoaren eraketa prozesu berdinen emaitzak dira. Sozialitatean edo giza artekotasunean, gizabanakoaren nortasuna eratzen da; eta, aldi berean, hartu-eman sozialetan gauzatzen diren praktiken bidez, gizartea eratzen da instituzionalizazio eta desinstituzionalizazio prozesuen emaitza gisa. Planteamendu honek sekulako lurrikara dakarkigu pentsamendu soziologikoan, aldatu egiten baitu funtsezko kategoria askoren esanahia: gizabanakoaren izaera, giza artekotasuna (elkarbizitza), gizarteratze-prozesua,...²³⁶. Izan ere, gizarteratze prozesua paragrafoaren hasieran aipaturiko eraketa bikoitzaren prozesua litzateke: oinarri positibista duen subjektu/objektu dikotomia gaindituz, subjeto-subjektu eredua garatzeko tenorean gaude; hartu-eman eta *praxi* kokatuetan (eta ondorioz mugatuetan) etengabeko auto-eraketan dauden subjektu-sareak²³⁷. Gizartea ez da kanpoaldea gizabanakoentzat, ez da sistema edo egitura, eratuta dagoena etengabe ari baita biziberritzen praktika zehatzetan; eta, aldi berean, praktika horietan geure nortasuna eratzen ari da. Pertsona, beraz, ez da gizabanakoa giza artekotasuna baizik; eta, gizartea, ez da sistema giza artekotasuna baizik.

Beste era batera esanda, geure bizitza elkarbizitza da, bestela ez gara bizi. Eta gizartearen bizitza elkarbizitza da bestela ez da bizi. Geure eguneroko harreman eta *praxiak* horren adierazpen enpirikoa dira, ezusteko adierazpen antzemanezina. Antzemanezina gizarte modernoaren kulturaren subjektu/objektu edo egintza/egitura dikotomiek antzemanezina bihurtu digutelako. Gizarte-ordenamenduaren reifikazioa eta naturalizazioa —bere izaera sortua eta kontingentea ez antzematea—, giza artekotasunaren berezko ezaugarri unibertsaltzat hartu izan da, baina azkenaldian geure kategoria modernoan mugapen gisa hartzen ari da. Sanchez de la Yncera-k azpimarratzen duen bezala, garrantzitsua da oso bereiztea sozialitatea (giza artekotasuna edo eguneroko elkarbizitza) eta sozialitate horretaz dugun bizipena eta pertzepzioa: garena, garen horretaz dugun pertzeptzioa, eta garen horrek duen adierazpen praktikoa;

²³⁶ “Sozialitatearen eraketa eta pertsonalitatearen eraketa elkarren artekoak dira. Bi alde dituen eraketa horri deitu beharko genioke, zentzu soziologikoan, ‘gizarteratzea’” SÁNCHEZ DE LA YNCERA, I. “Una socialidad y una personalidad revueltas contra los clásicos (para un vuelco reflexivo de una sociología sin individuo ni sistema)”. *Globalización, riesgo, reflexividad: tres temas de la teoría social contemporánea*. RAMOS, R., GARCÍA SELGAS, F. (Argital.). CIS, Madril, 1999. Orr. 431.

²³⁷ *Ibidem* (orr. 420-421).

hau da, zein neurritan garatzen dugun geure eguneroko hartu-eman eta *praxiek* duten ahalmen sortzailea elkarbizitza auto-eratu, erreflexiboa eta librea bideratzeko: “Sozialitatea izaki gisa dugun eraketaren gakoa da, izaki interpretatzaile gisa dugun eraketaren gakoa da, geure bizitza modulatzeko dugun izakiak. Transitatzen ditugun testuinguru intersubjektiboetan, bizitza interpretatzen eta gidatzen dugu —modu sortzailean— zirriborraturik aurkitzen dugun munduaren irudiaren arabera. Testuinguru intersubjektibo interpretatzaile horiek, beraz, transitatzen ditugu eta aldi berean eratzeko ditugu”²³⁸.

Horrela, Modernitatearen pentsamendu soziologikoak bereganatutako dikotomia mugatzaileak eta sinplifikatzaileak gaituz; malgutasun, jariotasun eta prozesu-izatera duten kategoria eta kontzeptuak behar ditugu, giza egintza eta gizartearen —giza arteketasunaren— azterketarako. Gizabanakoaren egintza ez da Egoaren intentzioa, giza egintza des-Egotizatu behar dugu eta bere testuinguru sozio-kulturalean kokatu (testuinguru hornitzailea eta mugatzailea) ez badugu boluntarismo sinplifikatzailean erori nahi²³⁹. *Praxi* soziala, errealitatean gauzatzen den egintza, ez da gizabanako edo giza talde baten emaitza guztiahalduna, baizik eta kokapen sozio-kultural zehatza duen aktore-sare baten emaitza idiosinkratikoa.

Beste aldetik, gizartea giza arteketasuna da, gizartea ez da autonomo eta erabat derrigortzaile den sistema edo egitura finkoa, baizik eta aktore-sareen eguneroko *praxi* kolektiboetan biziberritzen den elkarbizitzaren antolamendua. Gizarteratze-prozesua testuinguru sozio-kultural batean gizakiak bizi duen moldaketa gisa ulertzea, moldaketa derrigortzailea eta pasibo gisa kontzeptualitzeak, ukatu egiten du gizaki bakoitzak bere harreman- eta praxi-sareen joku sozialean egiten duen edota egin dezakeen ekarpen berezkoa eta ezohizkoa (praktikatugabea). Ukatu egiten ditu *praxiak* bultzatzen duen etengabeko bermoldaketa eta *praxiaren* erreflexibitateak duen ahalmen eraldatzailea²⁴⁰.

Horrela, gizarteratzearen irudi pasiboak, elkarbizitzaren reifikazioa eta gizarte-ordenaren naturalizazioa bultzatzen du; bere izaera magmatikoa eta multi-tentsioduna ukatuz. Gaur egungo gizartearen martxa, etengabeko diferentziazio, globalizazio eta konplexitate estrukturalaren bidetik, geldiezina bailitza irudikatzen du. Hortik dator, Yncera-ren hitzetan, egituraren edo “sistema autopoietikoa” ipintzen den fede azal-

²³⁸ *Ibidem* (orr. 429).

²³⁹ *Ibidem* (orr. 426).

²⁴⁰ “Buru sortzaileak, salbuespena diren aparteko pertsonekin erlazionatzen ditugu, jakintsu eta jonioekin. Baina gizaki oro, bere erara, bada. Bakoitzak toki ezberdin batetik esperimintatzen du bizitza eta, ondorioz, bere esperientziak ideietan formulatu eta besteei pasatzerik badu, badauka besteei eman diezaiekeen zerbait. Mundura datorren gizaki bakoitza hasiera berri bat da; eta unibertsoak hartzen du berarengan abiapuntu freskoa, eta, maila txikian bada ere, saiatzen da egiten beste inork oraindik egin ez duen zerbait” JOHN DEWEY. “Construction and Criticism” *Later Works* 5. liburukia (1929/1930) *Southern Illinois University Press*, Carbondale, 1988 (orr. 207). Sánchez de la Yncera-k aipatua “Una socialidad y una personalidad revueltas contra los clásicos (para un vuelco reflexivo de una sociología sin individuo ni sistema”. *Globalización, riesgo, reflexividad: tres temas de la teoría social contemporánea*. RAMOS, R., GARCÍA SELGAS, F. (Argital.). CIS, Madril, 1999. (orr. 445).

tzaila; bere ustez, “esklaboaren mentalitatea” zabaltzen duen ikuspegia da, eta mese-de egiten dio emantzipazioari baino alienazioari eta ezintasunari²⁴¹; lurperatu egiten baitu, geure eguneroko *praxi* kolektiboan, garen giza artekotasunaren esanahian sakontzeko aukera. Beste era batera esanda, ezkutatu egiten ditu pertsonala eta sozialaren artean dagoen elkarren eraketa erreflexiboki auto-determinatzeko dauden aukerak.

4.5. Aldaketa sozialaren determinismoa: historiaren meta-narrazioak

Pentsamendu sistemikoak aldaketa sozialari buruz egiten duen teoriari, modernizazioaren edo, zehatzago, diferentziazioaren teoria deitu izan zaio. Teoria horrek ezartzen du, gizarte-sistema guztien bilakaera historikoan, badagoela gizartearen azpi-sistemak (politiko, ekonomiko, kulturalak,...) gero eta gehiago diferentziatzeko eta konplexuagoak bihurtzeko joera bat. Diferentziazio funtzionalerako joera horrek, modernizatorako edota progresorako joera bihurtzen dute; hau da, gizartearen bilakaerak beti jotzen du gehiago modernizatzaera eta hobetzaera modu geldiezinean, etengabekoan eta nahitaezkoan. Gizarte guztien bilakaerak, lehenago edo geroago, ezinbestean betetzen duen historiaren burdinazko lege antzeko bat da.

Hortaz, gizartearen martxa edo bilakaera modu linealean irudikatzea, etenik ez duen prozesu automatikoa eta aurre-determinatua baieztatzea da. Azken batean, eboluzio naturalaren arabera, progreso geldiezinen fede idilikoa elikatzea da. Planteamendu klasikoetatik (Spencer-ren organizismoa, Durkheim-en lanaren banaketa edo Parsons-en diferentziazioa) hona, berformulazio asko egin badira ere (Smelser eta Eisenstadt-en egintza kolektiboa, Bellah-ren azterketa kulturalak, Alexander eta neofuntzionalismoa), diferentziazioaren teoriari egin zaizkion kritika askok zutik diraude. Kritika horietako batzuk ondorengo hauek dira: behar besteko argitasunarekin ez azaltzea diferentziazio-prozesuaren kausak, ezta ondorioak ere; hau da, zer dela eta abiatu zen diferentziazioaren prozesua? Zergatik baloratu behar dira positiboki diferentziazioaren ondorioak? Bestaldetik, aktoreek prozesuan jokatzan duten zeregina ere ez dago batere argi; ba al daude diferentziazioa helburu duten agenteek —euren interesengatik edo euren balorengatik— ala prozesuak agente inkontzienteen bitartez funtzionatzen du? Diferentziazioaren teoriak, gainera, ez du definitzen denbora historikoaren dimentsioa, horrela prozesuan egon daitezkeen atzera pausuak geldialdi moduan interpretatzen dira, zalantzan ipini barik prozesuaren joera nagusia. Azkenik, beste kritika interesgarria eurozentrismoari edo amerikanozentrismoari erreparatzen dio; teoria eboluzionista honek, agerian edo ezkutuan, mendealdeko modernitatearen eredu instituzionala eta kulturala aurreratua eta hoberena bailitzan aurkezten du, beste herrialde guztiek lortu behar duten helmuga.

Gizarte-aldaketaren teoria sistemikoari egin zaizkion kritika horiek guztiak kontuan hartu beharrekoak badira ere, kritikarik sakonena post-modernismoak nabarmendu dituen modernismoaren aurreste inplizituak dira; arestian aipatu dugun kues-

²⁴¹ *Ibidem* (433).

tionamendu epistemologikoa: gizarte modernoan, subjektu arrazionalak zientifikoki bereganatu dezakeela giza historiaren hari unibertsala. Izan ere, Ilustrazioaren subjektu arrazional hori, unibertsala izan beharrean oso partikularra suertatu da: gizona, heldua, zuria, mendebaldekoa, burgesa...²⁴². Eta gizarte modernoaren etengabeko aurrerapen arrazionala ere, unibertsala izan beharrean partikularra suertatu da, arrazionaltasun mota baten etengabeko hedapena: arrazionaltasun utilitaristarena. Horrela, etnozentrismoaren kritika jarraituz, testuinguru batean garapen sozialaren inguruan historikoki eraiki den irudikapen kulturala dena (mendebaldeko iraultza modernoa eta post-modernoa), giza eboluzioaren giltzarri unibertsal gisa hartzeak, mendebaldekoen harropuzkeri kulturala besterik ez du adierazten. Izan ere, hazkunde ekonomikoan eta produktiboan oinarritzen den garapena, dakartzan aurrerapen zientifikoteknologikoagatik eta konfortagatik, etengabeko progreso geldiezintzat hartzeak determinismo teleologikora eramaten gaitu; giza historiaren motorra etengabeko hobekuntza ziurtatzen duten balizko indar kosmikoen esku balego. Proidentziak ziurtatuko bailitzan, merkatuaren indarretan eta *laissez-fairean* konfidantza ipiniz gero, edo klaseen arteko aurkakotasunean eta borrokan konfidantza ipiniz gero, gizartearen eboluzio naturalak ageriko helmuga idiliko batera heltzea. John Dewey-k aurreratu zuen bezala, historiaren meta-narrazio horiek oztopatzen dute aktore-sareek daukaten erresponsabilitate historikoa onartzea, eta borondate horrek ziurtatu dezake soilik giza progresoa. Zientziak, gehitzen du Dewey-k, soilik erakutsi du arrazionalki jarduteko posibilitatea²⁴³.

Gauzak horrela, post-modernitatearen inguruko debateek ekarri duten progresoarenean ideien krisiak edo, zehazki esanda, akademiako pentsamendu eboluzionistaren krisia, krisialdi berria ez bada ere²⁴⁴, aukera berriak zabaltzen ditu giza artekotasuna eta aldaketa soziala beste modu batera lotzeko; soilik progresoarenean sinismena gainditzeak (gizartearen berezko progresoa) ekar baitezake etorkizuna irekia, kontingentea, ez-jarraitua eta geure gaurko *praxiarekin* lotuta ikustea²⁴⁵. Joase-k azpimarratzen duen bezala, postmodernitatearen eztabadaia ireki duen krisia, erabateko erlatibismoa eta eszeptizismoa gaindituz gero, aukera berria da berreskuratzeko giza artekotasunak duen sormen potentziala. Horretarako, gainditu beharrekoa da gizartearen irakurketa kosifikatzailea zein aldaketa sozialaren irakurketa determinista; baina, baita ere giza egintzaren eta intentzionalitatearen ikuspegi aktibista eta boluntarista.

Horrela, aktore-sareen *praxiak* duen dimentsio sortzailea modu sakonean kontzeptualizatuz, gainditu ahal izango dugu giza egintzaren kontzeptzio utilitarista zein normatibista. Eta, era berean, abiapuntu egokia izango dugu giza artekotasunaren aldaketa historikoa determinismo eboluzionistatik askatzeko; hau da, aktore kolektibo-

²⁴² GARCÍA SELGAS, F.J. "Política y Sociedad" aldizkariaren 30. zenbakiaren aurkezpena. 1999.

²⁴³ JOAS, H. "The democratization of differentiation: on the creativity of collective action". *Re-thinking Progress. Movements, forces and ideas at the end of the 20th century*. J.C. Alexander, Piotr Sztompka (argitaratzaileak). Unwin Hyman. Boston, 1990. Orr. 184-85.

²⁴⁴ Joas-ek, XIX. gizalditik hona eboluzionismo deterministaren kontra egon diren ahots kritikoak gogoarazten dizkigu. *Ibidem* (orr. 182).

²⁴⁵ *Ibidem* (orr. 185).

en eraketa aztertuz sortu ahal izango dugu funtzionalista izango ez den teoria makroa, giza egintzaren boluntarismoa edo gizarte-sistemaren berezko mekanismoak onartu barik praxiaren sormenean oinarrituko dena. Giddens, Bourdieu, Castoriadis edo Touraine-k aurrerapauso interesgarriak egin dituzte norabide horretan: *praxia* —sozio-estruturalki kokatua dagoen *praxia*— geure jokaeren, ohituren eta instituzioen etengabeko berrantolaketa gisa kontzeptualizatuz, instituzio sozialen bilakaera ez da nahitaezko eboluzio saihestezina, baizik eta etengabeko biziberritze kontingentea. Joas-en ustez, aipaturiko teoria makroa garatu ahal izateko diferentziazioaren prozesua ukatu ordez, zerbait erreala eta baliagarri bezala onartu beharra dago —mundu mailan hedatzen ari den mendebaldeko irudikapen kulturala eta gizarte-garapen eredu gisa, erantsiko genuke guk—, beti ere bere logika meta-soziala eta determinista errefusatzuz, *praxi* kolektiboarekin duen lotura aztertzeke.

Ikus ditzagun, hortaz, giza artekotasunaren sormenean oinarrituriko ikuspegi aztertzaile makroa edukitzeko, Castoriadis-ek eta Touraine-k proposatzen dizkiguten planteamenduak. Castoriadis-ek giza artekotasunaren bilakaera historikoa aztertzeke, edozein logika meta-sozialen determinismoa ukatzen du (Kant-en naturaren Probidentzia, Hegel-en izpirituaren dialektika, Marx-en indar produktiboen garapena, Modernitatearen progreso arrazionala,...); historiaren meta-narrazio horien oinarrian greziar-mendebaldeko zibilizazioaren ontologia antzematen du. Metafisika klasiko horrek, izateari ematen dio lehentasuna, bilakaera bigarren mailan utziz. Horrela, badena izan daitekeena baino lehenago ipiniz, indarrean dagoena lehenesten da; objektiboa eta neurgarria dena jartzen da errealitatearen lehenengo planoan, horren sorrera eta bilakaera posibleak ezkutatzuz. Era berean, “giza artekotasuna” “gizarte” bihurtzen da, ordenamendu arrazionala, koherentea eta aurreikusteko modukoa. Zentzu horretan, nolabaiteko determinazioaren logika nagusitzen da mendebaldeko pentsamenduan; logika horri, Castoriadis-ek, logika magmatikoa kontrajartzen dio, egokiagoa jotzen baitu giza artekotasunaren azterketarako.

Giza artekotasunak duen irudikapen-ahalmen magmatikoak errealitatearen eta bizitzaren interpretazioak sortzen ditu, esperientziaren eta munduaren konprentzioa eduki ahal izateko. Irudikapen sinboliko horiek (erlijioan, ekonomian, politikan edo artean zehazturik), giza artekotasunak bizi duen denbora eta espazioa definitzen dute, bizimoduari zentzua eta testuingurua emateko. Errealitatearen eta bizitzaren antzemate egonkorra definitzen dute zenbait erreferente sinbolikoen arabera; balore-, arau- eta signifikazio-sistema baten arabera. Signifikazio-sistema horrek, lapiko kulturalaren hondo ontologikoa eta axiologikoa osatzen du, bizitza indibiduala eta kolektiboa gidatzen duten ziurtasunak eta sinismenak.

Irudikapen sinbolikoen sistema horiek, seinaleak, markak edo orientabideak definitzen dituzte munduaren eta bizitzaren konprentzioa orientatzeko; bizitzaren hegaldaldia ziurgabea, noraeza existentziala saihesteko giza artekotasunak sortzen dituen lur hartzeko pistaren argiak dira²⁴⁶. Zentzu horretan, garai eta testuinguru zehatz ba-

²⁴⁶ SÁNCHEZ CAPDEQUÍ, C. “El pensamiento social de Cornelius Castoriadis” *Inguruak*, 23. 1999, orr. 171.

tean, indarrean dauden sinismen eta bizimoduen adierazpena dira; legeak, ikur politikoak, lanerako irizpideak, etab... irudikapen sinbolikoen hizkuntza bidezko materializazioak dira. Errepresentazio- eta egintza-markoak definitzeko, giza artekotasanak duen sormenaren materializazioa: “Elementu kognitiboek, normatiboek, erritualezkoek eta politikoek ordenamendu (baten proiektu) arrazionala, armonikoa, koherentea eta aurreikusteko modukoa laguntzen dute, baina gizarte(ordenaren) pertzepzio horren oinarria jario eta bilakaera sinbolikoa da; jario horren emankortasunaren ondorio edo kriticalizazio temporal da, eta bere etengabeko dinamismotik deduzitzen dugu denbora kronologikoan duen izaera iragankorra eta iheskorra”²⁴⁷.

Horrela proiektatzen da historian giza artekotasunaren sormen potentziala, eta inongo lege meta-sozialaren esku (arrazionaltasunaren auto-kontzientzia, proletargoaren askapena, gizarte teknifikatura ailegatzea,...) ez dauden ordenamenduak produzitzen ditu. Hau da, giza artekotasunaren instituzionalizazio objektiboaren oinarrian, giza artekotasunaren sormen sinbolikoa dago²⁴⁸.

Horrek adierazten digu, lehenengo eta behin, instituzionalizazioaren izaera asmatua eta ez-naturala; eta, bigarrenez, giza artekotasanak historikoki kristalizatu duen antolaketa politikoa edo ekonomikoa, adibidez, berformulagarria eta aldagarria dela. Horrela, lege historikoen, jaungoikoen edo destinoaren emaitza gisa antzematean ez diren neurrian, elkarbizitarako sortutako antolaketa horien perbertsioak eta kontingentziak giza artekotasunaren *praxiak* dituen (nahigabeko) ondorio gisa antzeman daitezke.

Gauzak horrela, Castoriadis-ek, oso norabide interesgarrian garatzen du oinarriko planteamendu hori. Izan ere, bere ustez, gizartea giza artekotasunaren magma dinamikoa da, etengabeko tentsioan dagoena bi joeren artean: arrazionaltasunarena eta irudimenarena. Giza artekotasunaren magma dinamikoak produzitzen dituen ordenamenduetan beti dago bi elementu horien arteko nolabaiteko tentsioa. Arrazionaltasunak gidatzen du irudikapen idealen formalizazioa eta instituzionalizazioa, baita bere berformulazio kritikoa ere; irudimenak gidatzen du errealitatearen berrinterpretazioa baloreak eta idealak gauzatzeko, eta esperientziaren jariatasunean sortzen diren hutsune ontologikoak “betetzeko”. Eratuta dagoena eta eratzeke dagoenaren arteko tentsio hori da hobekien karakterizatzen duena giza artekotasunaren bizitasuna eta aldaketa historikoa. Giza artekotasun errealean beti baitago giza artekotasun ideal bat.

Castoriadis-en ekarpen bereizgarriena litzateke, zentzu horretan, ondorengo hau: bi polo edo ipar-buru horien arteko tentsioan —arrazionaltasuna eta irudimena—, batak menperatzen badu bestea fundamentalismoaren arriskuan jartzen gaitu. Ordenamenduaren petrifikazio sasi-arrazionalak, kolektibitatearen auto-eraketaren kontzientzia ezabatzen du; eta, ondorioz, teknokrazia burokratikoaren automatismoak irudimena eta sormena menperatzen ditu. Irudimenaren erabateko nagusitasunak, al-diz, dogma erlijioso, ekonomiko edo politikoaren doktrinamendua ezartzen du, eta autokritikaren ahalmen arrazionala ezabatzen du.

²⁴⁷ *Ibidem* (orr. 158).

²⁴⁸ *Ibidem* (orr. 177).

Joera historiko horiek nagusitzen direnean, oztopaturik geratzen da giza artekotasunaren autonomia. Horixe da, hain zuzen ere, Castoriadis-en beste funtsezko kontzeptua: giza artekotasunaren autonomia. Kontzeptu horrekin erreparatu egiten dio, giza artekotasunak, idealak sortzeko eta idealak arrazionalki bideratzeko duen ahalmenari; ahalmen auto-kritikoa eta auto-konstzientea, hau da, sortutako horretan duen protagonismoa onartuz, alienazioa saihestu egiten duena. Hots, sortutakoa, beste indar batzuen esku (arbasoak, jaungoikoa, natura, destinoa, progresoa...) dagoen materializaziotzat hartzen ez duen giza autonomia²⁴⁹.

Castoriadis-en planteamenduan, giza artekotasunak, aktibitate politikoan egiten du (edo egin dezake) sortutako instituzioen berrikusketa kritikoa eta arduratsua. Jarduera politikoak, proiektu soziala gidatzen duten elementu sinbolikoen auto-konstzientzia eta eztabaida kolektiboan egiten du. Castoriadis-en ustez, horrek konprometitu egiten ditu giza artekotasunaren kide guztiak; auto-produkzioaren kontzientziak eta kontingentziak, lege, arau eta instituzio sozialen kontrol kritikora eraman behar baitu. Izan ere, elkarbitza idealaren *praxiak*, beste edozein giza produktorekin gertatzen den legez, nahigabeko eta etengabeko zailtasunak, akatsak eta hutsuneak sortzen ditu. Jarduera politikoak da giza artekotasunak duen praktika soziala auto-azterketa kritikoa, arduratsua eta zuzentzailea egiteko; giza artekotasunak praktika politikoan antzematen ditu instituzio sozialak bere egintzaren emaitza gisa eta, ondorioz, antzematen du ere lege guztien kontingentzia eta aldagarritasuna. Jarduera politikoak, beraz, giza artekotasunaren protagonismoa eta ardura bultzatu behar du: “Giza unibertsoa guztiz egituratua egongo balitz, kanpoko indar baten eraginez edo praktika espontaneoren eraginez, guztiz egituratua egongo balitz; hau da, giza legeak Jaungoikoak, Naturak edo Historiaren legeak ezarrita egongo balira, ez legoke pentsamendu politikorako inongo lekurik, ez legoke praktika politikorako esparru emankorrik; absurdoa litzateke lege sozialen egokitasunaz galdetzea”²⁵⁰.

Izan ere, jarduera politiko auto-reflexiborako itxiera hori antzematen du, Castoriadis-ek, gaur egungo gizartean. Arrazionaltasuna eta autonomia indibiduala baieztatzen duen bitartean, ez du ahalbideratzen eztabaida eta partaidetza zuzena; eta dagoenarekiko konformismo akritikoa bultzatzen du. Autoreak, kontuan hartu beharreko bereizgarritasuna ikusten du, modernitatean, beste garai historikoekin konparaturik; gure garai historikoak, irudikapen eta signifikazio-sistema bakarrean (balore-, arau- eta orientabide-sistema bakar batean) oinarritu beharrean, bi irudikapen-sistema ditu oinarri; batetik, autonomia indibiduala eta kolektiboaren etengabeko bilaketa, bestetik, sistema kapitalistaren signifikazio-sistema utilitarista. Autonomiaren bilaketa antzinako Grezian ditu sustraiak, eta eklipse luze bat iragan ostean, sasoi modernoetan berpizten da XI. gizalditik aurrera: Mendebaldeko European komuna independenteak ezartzearen aldeko mugimendu iraultzaile eta demokratikoan, geroago Amerikako eta Frantziako Iraultzan, XIX. eta XX. gizaldietan burutzen diren iraultzeetan eta langileen zein emakumeen mugimenduan, gazte eta ikasleen mugimenduan.

²⁴⁹ *Ibidem* (orr. 175).

²⁵⁰ *Ibidem* (orr. 177).

menduan zein gutxiengo kulturalen eta nazionalen mugimenduan ere. Bigarren imaginarioan, imaginario kapitalistan, signifikazio zentralak ez dira autonomia, askatasuna edo justizia, baizik eta arrazionaltasun mota baten mugarik gabeko hedapena. Gizakien lana, produkzioa eta kontsumoa kontrolatuz, naturaren eta gizartearen erabateko menderaketa utilitarista. Castoriadis-en ustez, balore-, arau- eta orientabide-sistema bi horiek, bata besteari kutsatu diote etenik gabe XIX. eta XX. gizaldietan, baina irudikapen ontologiko eta axiologiko antagonistak dira. Gure sasoi honek, aldiz, XX. gizaldiaren amaierak, berezitasun bat dauka: autonomiaren signifikazio-sistemak atzera egin du, eta signifikazio kapitalistak hedatu egin du bere eragina. Ekonomia kapitalistak, erdigunean ezarrita eta elkarbizitzaren aspektu guztien oinarria bihurturik, dirua, etekina eta elementu materialak bihurtu ditu bizitza sozialaren balore nagusiak. Horrela, kontsumismoak bultzatzen duen bizimoduaren pribatizazioa, eta partidu politiko zein sindikatuekiko dagoen mesfidantza, konformismoa eta apatia politikoa hedatzen ari dira; eta, ondorioz, giza artekotasunaren autonomia indargabe dago.

Alain Touraine-k, Castoriadis-en zenbait planteamendu jarraituz, gizarte industrialetatik gizarte post-industrialetara gaur egungo trantsizioan, elementu definitzaile nagusi bat ikusten du: giza artekotasunak bere burua eragiteko daukan ahalmen hazkorra. Planifikazioa eta kontrola areagotzen den neurrian, giza artekotasunak bere elkarregintzaren emaitza gisa antzematen du bere burua. Historizitatea da Touraine-k erabiltzen duen kontzeptua auto-produkzio edo auto-eraketa hori izendatzeko, eta modu honetara definitzen du: “giza artekotasunak, eredu kulturalak oinarria hartuta eta mugimendu zein gatazka sozialen bidez, bere *praxia* eraikitze duen ahalmena”. Bere ustez, giza artekotasunaren edozein arlo —ekonomikoa, teknologikoa, zientifikoa edo kulturala— bitartekaritza politikoaren menpe dago; horrexegatik, konplexutasunerako eta diferenziaziorako joera bera gatazka politikoa bihurtu da. Horrela, Joas-ek proposatzen duen moduan, diferenziazioa demokratizatu beharra dago; ez-kortasun sistemikoan edo dialektikoan erori barik, eztabaidagai dela onartu beharra dago. Izan ere, ez da eztabaidarik onartzen ez duen historiaren lege saihestezina, baizik eta irakurketa, balorapen eta aukera ezberdinak dituen auzia. Hau da, indarrean dagoen gizartearen aldaketa-joera giza *praxian* hezurmamitzen ari delako, giza *praxia* aplikatu ahal zaio modu erreflexiboan.

**II ATALA: GIZA ARTEKOTASUNA
ETA ALDAKETA SOZIALA,
AZTERKETA ENPIRIKOA**

1. SARRERA

Aurreko atalean planteatu dugun bezala, giza egintza eta gizarte-egituren arteko hartu-emanaren azterketak *praxi* sozialak kokatu behar ditu azterketaren erdigunean; izaera determinatua eta determinatzailea daukaten praktika sozialak, harreman-sare zehatzetan biziberritzen direnak.

Analisi honetan aztertu nahi ditugun *praxiak* egintza kolektiboaren *praxiak* dira. Hau da, prozesu sozialetan edota politikoetan parte hartzeko eta eragiteko borondate-arekin eratuta dauden harreman-sareak eta praktika mobilizatuak; edo, beste era batera esanda, antolaketa kolektiboaren bidez eta gizartea eragiteari begira, aktibismoa, militantzia edo konpromiso parte-hartzailea berregiten duten *praxi* kolektiboak. Era berean, harreman-sare desmobilizatuak ere aztertzeko asmoa dugu; hau da, prozesu sozialetan edo politikoetan eragiteko, ageriko borondatea ez duten harreman-sareak eta praktika desmobilizatuak.

Izan ere, sare ezberdin horietara hurbilduz, aztergai izango dugu zeintzuk diren harreman-sare horietan diskurtso dominanteak gizartearen produkzioa eta aldaketaren inguruan; hau da, azterketa enpirikoaren galbahea pasatu nahi diogu arestian aipatu dugun baieztapen teorikoari: praktika parte-hartzaileek sormen instituzionala eta gizarte-instituzioen antzemate deskosifikatzailea ahalbidetzen dute. Zentzu horretan, lan enpirikoaren hipotesia ondoko hau litzateke: partaidetza kolektiboaren *praxiak* egitura sozialen antzemate kontingentea ahalbidetu dezake, hots, gizakion praktikaren esku dauden errealitate eragingarri bezala irudikatzea. Prozesu sozialetan edota politikoetan eragiteko *praxi* kolektiborik ez dagoenean, aldiz, gizarte-instituzioen antzemate kosifikatua eta naturalizatua izateko joera dago; hots, gizartearen instituzioak eta egiturak gizakion esku ez dagoen errealitate urrun eta eraginezin bezala antzematea.

Hortaz, geure buruari egiten diogun galdera enpirikoa edo azterketaren arazo enpirikoa ondoko hau litzateke: nola irudikatzen dute gizartearen produkzioa eta gidarritza, partaidetza kolektiboaren *praxietan* ari direnek, eta *praxi* horietan ari ez direnek? Non kokatzen dute gizarte-aldaketaren kontrola? gizakiaren egintza indibidualean, gizarte-egituren berezko dinamikan, gizakien gaineko logika meta-historikoa eta unibertsalaren batean, gizakiok sozialki eraikitako mekanismoetan,... Aukera hauek guztiak aztertu nahi ditugu, baita alde zuzenetik antzematen ez ditugun beste batzuk ere; aztergai izango dugu, beraz, gizartearen eraikuntza eta aldaketa, prozesu kontingente bezala irudikatzea edo halabeharrezkotasanun gidaturiko prozesu bezala irudikatzea.

Lan horri ekiteko, egungo gizartearen produkzioa, garapena eta aldaketa-joera nagusiak irudikatzeko eta izendatzeko orduan, mundu mailako elkarmenpekotasuna eta elkartrukea bihurtzen ari dira erreferentziarik aipatuena; globalizazioa izan da gehien zabaldu den terminoa. Zentzu horretan, aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko ideiak eta irakurketak aztertzea abiapuntu egokitzat jotzen dugu egungo gizartearen aldaketa, produkzioa eta gidaritzaren inguruan berregiten ari diren diskurtsoak aztertzeo.

Azterketa horretan, esan bezala, abiapuntuko hipotesi modura partaidetza kolektiboaren aldagaia egokia, pertinentea eta esanguratsua iruditzen zaigu diskurtso ezberdin batzuk bereizteari begira. Izan ere, partaidetza kolektiboaren *praxiak*, elkarbizitza kolektiboan agente eragilea eta sortzailea izateko borondatea erakusten duen neurrian (horrela den ala ez aztergai izango dugu ere), gizarte-instituzioen eta gizarte-egituren ikuspegi eraikitzailea ahalbidetu dezake; hots, gizakion praktikaren esku eraikuntzan dauden elementuak bezala antzematea. Prozesu sozialetan edota politikoetan eragiteko *praxi* kolektiborik ez dagoenean, aldiz, errazago dirudi gizarte-instituzioen ikuspegi kosifikatzailea bereganatzea; hots, gizartearen instituzioak eta egiturak gizakion esku ez dagoen errealitate urrun eta eraginezin bezala antzematea. Hauek guztiak, dena den, informazio enpirikoaren bidez kontrastatu beharreko planteamenduak lirateke. Goazen, bada, lan enpirikoak izango dituen helburuak eta planteamendu metodologikoak definitzera.

2. AZTERKETA ENPIRIKOAREN HELBURUAK

- A) Gizartearen instituzio eta egituren produkzioa, gidaritza eta garapenaren inguruan euskal gizartearen zenbait espazio sozialetan dauden diskurtsoak polarizatzea eta aztertzea litzateke azterketa enpirikoaren helburu nagusia.
Aipatu bezala, globalizazioari buruzko ideiak eta irakurketak jasotzea, abiapuntu egokia iruditzen zaigu egungo gizartearen aldaketa, produkzioa eta gidaritzaren inguruan berregiten ari diren diskurtsoak arakatzeko. Horrela, egintza kolektiboaren *praxietan* eta harreman-sareetan ari direnek dituzten ikuspegiak aztertuko ditugu. Hala nola, harreman-sare eta *praxi* horiekin loturarik ez daukatenek dituzten ikuspegiak ere.
- B) Beste aztergai eta xede garrantzitsutzat jotzen dugu ere ondorengo hau: Gizartearen globalizazioa antzemateko moduak —prozesu kontingente bezala edo halabeharrezkotasunak gidaturiko prozesu bezala antzemateak— noraino eragiten duen gizartearen produkzioa eta gidaritzaren inguruan egiten den diskurtsoa; zein da aldaketa sozialaren indar bultzatzaile gisa antzematen den indarra? Zeinek bultzatzen du edo zer da aldaketa soziala bultzatzen duena?
- C) Aurreko helburuei loturik, gizarte-erakunde, talde eta ekimenen arloan ari direnek nola definitzen duten euren egintza kolektiboa aztertu nahi dugu (modu instrumentalean interes jakin batzuei begira, normatiboki gidatutako borondatezko konpromisoa, militantzia edo aktibismo sozio-politikoak,...), egungo gizartearen garapena eta gidaritzaren pertzepzioan ikuspegi ezberdinak bereiztu baititzake.

Era berean, gizarte-erakundeen arloan ari ez direnek nola ikusten duten partaidetza kolektiboa aztertu nahi dugu; nolabaiteko lotura izan baitezake aldaketa soziala antzemateko moduarekin.

Arestian aipaturiko helburuak betetzeari begira, ondoko hauek dira azterketaren bidez erantzun nahi ditugun galdera zehatzak:

Aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko pertzepzioak

A.1. Diskurtso edo irakurketak bereiztu al daitezke, aldaketa sozialen inguruan zein globalizazioaren inguruan, egintza kolektiboaren *praxietan* aritzea edo ez aritzearen arabera?

A.2. Zeintzuk dira elementu diskurtsibo bereizgarriak?

Gizartearen produkzioa eta gidaritzea

B.1. Egintza kolektiboaren *praxiak* errazten al du gizartearen garapena sozialki eraikitako prozesu kontingente bezala antzematea?


B.2. Egintza kolektiboaren *praxi-etak* errazten al du gizartearen garapena halabeharrezkotasunak gidaturiko prozesu metasozial bezala antzematea?

Giza egintza eragilea eta partaidetza kolektiboa

C.1. Zeintzuk dira egintza kolektiboaren *praxia* protagonizatzen dutenek euren egintza kolektibo horri ematen dizkioten esanahi eta definizio ezberdinak?

C.2. Eragiten al dute definizio horiek gizartearen garapena eta gidaritzaren pertzepzioa?

C.3. Egintza kolektiboaren harreman-sareetan eta *praxietan* aritzen ez direnek nolako esanahia eta balorazioa ematen diote partaidetza kolektiboari?



3. PLANTEAMENDU METODOLOGIKOA

Zenbait harreman-sare edo espazio sozialetan, mundu sozialaren inguruan erai-
kitzen diren irudikapenak, pertzepzioak eta definizioak aztertzea, esperientzia sozia-
laren hainbat elementu arakatzea da; kognitiboak, ideologikoak, jarrerazkoak,... In-
formazio sinboliko horren azterketak, metodologia kualitatibora eramaten gaitu.

Izan ere, agenteak, bere *praxien* testuinguruan kokatua, gizartearen aldaketa eta
gidaritza irudikatzeko erabiltzen dituen kategoriak eta esanahiak ezagutu nahi ditugu.
Hortaz, gizartea interpretatzeko moduak aztertu nahi ditugu, baita elkarbizitza eta es-
perientzia soziala eraikitzeke moduak ere. Alfonso Ortí-k nabarmendu duen bezala,
errealitate sozialaren baitan ikerlariak, beste edozein subjektu bezala, ez ditu soilik
gertaerak aurkitzen (giza ekintzak eta gertakizunak), diskurtsoak ere badaude, giza-
banakoarenak zein taldearenak²⁵¹. Errealitate sozialean batera datoz, beraz, dimentsio
faktikoa eta dimentsio sinbolikoa. Lehenengoan, gizabanakoek egiten dutena azter
dezakegu: erosketak han edo hemen egitea, ekintza kultural batera edo bestera joatea,
manifestaldi batean egotea edo ez egotea,... Kuantifikatzeko modukoak dira, eta eu-
ren azterketan datuak sortzen ditugu. Bigarrean, gizabanakoek esaten edo adieraz-
ten dutena azter dezakegu: ideiak, sinismenak, baloreak, desioak, helmugak,... Ko-

²⁵¹ Oinarrizko definizio batean Ortí-k bere egiten du Muchielli-k egin zuen diskurtsoaren definizioa:
“personen arteko komunikazioan norbaitek produzitzen duen testu bat”. Ikus. Alfonso Ortí-ren artiku-
lua: “La apertura y el enfoque cualitativo o estructural: la entrevista abierta semidirectiva y la discusión
de grupo”. *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación social*. Alianza. Madrid,
1990. Orr. 153.

munikazio sinbolikoaren bidez, hizkuntzaren bidez, adierazten dituzten erreferente kulturalak eta ideologikoak. Esangura sinbolikoen adierazpen hori, modu librean eta mugarik ezarri gabe eginez gero, ez da kuantifikatzeko modukoa, diskurtsibitate horren azterketak konprentzioa eta interpretazioa bilatu beharko ditu.

Hortaz, diskurtsoek zein gertaerek osatzen dute errealitate soziala eta dimentsio biek elkarren beharra dute beraien konprentzioan edo azalpenean²⁵². Miguel Beltrán-ek azpimarratu digunez, errealitate sozialaren berri eman nahi badugu aktoreen praktika soziala interpretatu beharra dago; gainera, zailtasun bat gehiago erantsiz, aktoreek adierazten dituzten esangura sinbolikoak, askotan, ikerlariok geure ditugun esangura eta erreferenteak dira²⁵³. Dena den, zailtasunak zailtasun, subjektuen elkarrekintzan birsortzen diren elementu sinboliko horiek errealitate sozialaren osagai garrantzitsuak dira; izan ere, gertaera sozialak konprentitu nahi baditugu, interpretatu behar ditugu aktoreek partekatzen dituzten erreferente sinbolikoak, baita kontrajartzen dituztenak ere.

Gure azterketa honetan, beraz, diskurtsibitate sozialaren eremu horretan kokatuko gara; hau da, gizartearen produkzioa eta gidaritzaren irudikapen sinbolikoetara hurbiltzeko asmoz, aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko diskurtso sozio-ideologikoak aztertuko ditugu. Izaera ezberdinetako arrazoiak izan ditugu hautu metodologiko kualitatiboa egiteko orduan: lehenengo eta behin, Ortí edota Fernando Conde-ren ikuspegia jarraituz, metodologia eta teknika soziologikoak errealitatea des-erakitze-ko eta polarizatzeko tresnatzat jotzen ditugu; hau da, teknikak ez dira gertaera sozialak neurtzeko eta irudikatze-ko erabiltzen diren baliabide neutroak, baizik eta fenomeno ordenatzen eta bideratzen duten tresnak, analisia egin ahal izateko²⁵⁴. Metodologia bakoitzak, konplexua eta dimentsio anitzekoak diren fenomenoak, zenbait dimentsio-etara moldatzen ditu; eta, horrela, mugatu egiten du fenomenoaren analisia egiteko.

Pertsonak, taldeak eta gertaera sozialak, oro har, hain dira aberatsak eta konplexuak zeren bere osotasunean hartu nahi izatea zeregin ezinezkoa bihurtzen baita. Gizarte-zientziak erabiltzen dituzten metodologiak “haitzbitarte” modukoak dira (Ortí, 1993), besterik ez; bide zehatz batzuk markatzen dizkigute aurpegi eta alde ugari duen errealitate polidri-
kora hurbiltzeko²⁵⁵.

²⁵² “Jendeak esan zidana lagungarria izan zen gertatu zena azaltzeko, eta nik ikusi nuena lagungarria izan zen jendeak esan zidana azaltzeko” Whyte (1961) *Street Corner Society* liburuan. Miguel Beltrán-ek aipatua: *Ibidem* (Orr. 42).

²⁵³ BELTRAN, M. “Cinco vías de acceso a la realidad social” *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación social*. Alianza. Madrid, 1990. Orr. 43.

²⁵⁴ “Ikerketa sozial oro, gertaera sozialaren adierazpide-maila ezberdinen eta dimentsio anitzen mugapen progresiboa egitearen prozesua da” “Procesos e instancias de reducción/formalización de la multidimensionalidad de lo real: procesos de institucionalización/reificación social en la praxis de la investigación social” FERNANDO CONDE. *Métodos y técnicas cualitativas de investigación en ciencias sociales*. DELGADO, J.M. ETA GUTIÉRREZ, J. (Konp.) Síntesis, 1994. Orr. 98.

²⁵⁵ “Los grupos triangulares como espacios transicionales para la producción discursiva” Fernando Conde-ren eranski metodologikoa: *La vivienda en Huelva. Culturas e identidades urbanas*, Sevilla, 1996. Fundación El Monte. Junta de Andalucía. Orr. 278. Ildo beretik Ikusi: ORTÍ, A. “La apertura y el enfoque cualitativo o estructural: la entrevista abierta semidirectiva y la discusión de grupo”. *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación social*. Alianza. Madrid, 1990. Orr. 173-4.

Horrela, errealitate soziala ikertzeko darabilkigun teknika eta praktika aztertzaileak ez dira guregandik aparte existitzen den fenomeno aztertze hartzen ditugun bide samurrak eta zuzenak; baizik eta guk, nabarmendu eta agerrarazi nahi ditugun alderdiak nabarmendu eta ager daitezen, erabiltzen ditugun tresnak. Gizarte-zientzietan erabiltzen ditugun teknikak ez dira soilik informazio enpirikoa biltzeko ditugun baliabideak, baizik eta informazioa (datuak, iritziak, diskurtsoak,...) produzitzeko erabiltzen ditugun tresnak ere badira²⁵⁶. Beste ere batera esanda, errealitatearen argazkia egitea baino errealitatearen baitatik —ikerlariok ere espazio sozialean kokagune bat daukagula ahaztu barik— interesatzen zaigun fenomenoaren koadroa zirriborratzen dugu, beti ere etengabeko ahaleginean fenomeno horren isla fidela eta osatua sortzeko; hau da, fenomenoaren elementurik esanguratsuenak barne hartuko dituen. Horrexegatik, geure kokapen sozialak dituen baldintzaile soziokulturalak (ekonomikoak, kulturalak, politikoak,...) erlatibizatu nahian, eta irakurketa/azterketa ahalik eta osatuena izan dadin, hainbat ikuspuntutik begiratu eta aztertu beharko dugu fenomenoak; batetik, espazio sozialean dauden beste ikuspuntuetara hurbilpen enpatikoa eginez, eta bestetik, betaurreko teorikoak erabiliaz geure begirada zorrotzagoa eta irekiagoa izan dadin. Azkenik, jarrera zientifiko irekia eta sortzen dugun ezagutza bere neurrian erlatibizatzea izan dira bidelagun izan ditugun erreferentziak hautu metodologikoa egiteko eta garatzeko orduan.

Horiekin batera, badaude beste izaera bateko irizpideak ere, gaiaren historizitate-ari loturik daudenak. Izan ere, diskurtso eta gertaera sozialak etengabeko prozesu dinamikoan dauden errealitateak dira, produktuak baino prozesuak aztertzen ari gara. Diskurtso eta gertaera sozial bakoitzak, eraketa edo kristalizazio maila ezberdinak ditu eta hurbilketa metodologiko-teknikoa ezberdina izan daiteke unean uneko tes-tuinguru historiko-sozialaren arabera: “Hautu metodologikoa ez dator determinaturik gaiaren izaera edo dimentsioagatik, modu sinkronikoan eta mugatuan ulerturik, baizik eta gaiaren kokapen eta aldakortasun historiko-sozialagatik; hau da, fenomenoak daukan “jariotasun” edota “kristalizazio” material-sinbolikoaren arabera egokiago izan daiteke metodologia eta teknika jakin batzuk erabiltzea edo beste batzuk erabiltzea”²⁵⁷.

Zentzu horretan, teknika kualitatiboak egokiagoak izaten dira aztertu nahi dugun gertaera sozialaren baldintza historiko-sozialak egonkortasun gutxikoak eta jariotasun handikoak direnean; metodologia kuantitatiboa, aldiz, egoera kodifikatuagoa eta

²⁵⁶ Jesús Ibañez-ek defendatu zuen bezala, datuak ez ditugu biltzen produzitu egiten ditugu. Datuak biltzen direla esateak gizarte naturalizatzea da (patatak biltzen ditugun bezala datuak biltzen ditugu); baina subjektu-objektu banaketa positibista hori ez da posible, ikerlaria errealitate horren kide den heinean ez baita erabat autonomoa aztergaiarekiko. Horrexegatik, subjektu-ikerlaria eta objektu-ikertuaren artean dagoen hartu-emana ezkutatu edo saihestu beharrean, integratu behar dugu ikerketa-prozesuan; datuak eta diskurtsoak produzitu edo polarizatu egiten ditugu, ikerketaren bitartez ikerketa-objektua eraikitzen ari garelako. Ikus. JAUSORO, NEKANE. *La práctica discursiva y el interdiscurso*. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. Leioa, 1996. Orr. 163.

²⁵⁷ CONDE, F. “Los métodos intensivos y extensivos en la investigación social de las drogodependencias”. Madril, 1991. Colegio de Licenciados en Ciencias Políticas y Sociología. Orr. 207.

kristalizatuagoa dagoenean²⁵⁸. Geure azterketaren kasuan, globalizazioari eta aldaketa sozialei buruzko diskurtso sozio-ideologikoak, oso egoera magmatikoan daudelakoan gaude, horri buruzko diskurtsoen kristalizazio soziala txikia dela, alegia. Horregatik ere geure hautu metodologiko kualitatiboa. Teknikei dagokionez, jarraian ikusiko dugunez, hiru teknika kualitatibo erabiltzea erabaki dugu, hain zuzen ere, diskurtso sozio-ideologiko kristalizatuagoak eta indefinituagoak aztertu nahi ditugulako. Ikus dezagun, lehendabizi, nola definitu dugun azterketaren hurbilpen kualitatiboa geroago aurkezteko teknika bakoitzari eman nahi diogun erabilpena.

3.1. Diskurtsoen azterketa soziologikoa

Gertaera sozialak aztertzeko datuak biltzen baditugu, eta datu-baseetan egituratu ostean aldagaien arteko erlazioak bilatzen baditugu, diskurtso sozio-ideologikoak aztertzeko komunikazioaren zentzu soziala interpretatzen dugu; hau da, diskurtsoak, produzitzen diren testuinguru sozialaren argira aztertzen ditugu, testua eta testuingurua dira aztergai. Arestian aipatu bezala, aktoreen diskurtsoa bere *praxi* sozialen testuinguruan kokatua aztertzen dugu.

Bestaldetik, hurbilpen kualitatiboak bilatzen du subjektuen adierazpen libre eta auto-determinatua, horretarako benetako komunikazio-egoera sortzen dugu elkarrizketatuak eta elkarrizketatzaileen artean; hau da, bi norabidetako komunikazio multidimentsionala eta dialektikoa²⁵⁹. Subjektuak birformulatu ditzake ikerlariaren galderak, bere hitzetan adierazten ditu bere iritziak eta nahi duen ñabardura-mailarekin adieraz ditzake bere ideiak eta jarrerak, horrela aukera gehiago zabaltzen dira aktorearen diskurtsoan antzeman daitezkeen erreferente kulturalak eta ideologikoak antzemateko eta aztertzeko.

Zentzu horretan, metodologia kualitatiboak helburu zehatz batera bideratzen du azterketa soziologikoa: hizkuntzaren bidez eta ekintza sinbolikoaren bidez egiten dugun soziabilitatearen, giza artekotasunaren, produkzioa azterzea. Horretarako, hizkuntzaren ahalmen deskriptiboa ez ezik —errealitate objektiboaren deskribapena egiteko erabiltzen dugun tresna gisa, hizkuntzaren funtzio denotatiboa—, ahalmen konnotatiboa eta sortzailea ere kontuan hartuz: erreferente sinbolikoak sortzeko daukan ahalmena, kodifikazio kulturalak birsortzeko ahalmena —errealitatea ikusteko eta bizitzeko moduak egituratzen dituzten kodifikazio kulturalak—. Hizkuntzan beti baitago tentsio moduko bat errealitate faktikoaren izendapena eta errealitate horren errepresentazioaren artean, kodea eta sinboloaren artean, horregatik metaforak oso

²⁵⁸ CONDE, F. "Procesos e instancias de reducción/formalización de la multidimensionalidad de lo real: procesos de institucionalización/reificación social en la praxis de la investigación social" *Métodos y técnicas cualitativas de investigación en ciencias sociales*. Delgado, J.M. eta Gutiérrez, J. (Konp.) Síntesis, 1994. Orr. 98.

²⁵⁹ ORTÍ, A. "La apertura y el enfoque cualitativo o estructural: la entrevista abierta semidirectiva y la discusión de grupo". *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación social*. Alianza. Madrid, 1990. Orr. 178.

elementu biziak eta esanguratsuak dira, adierazten dutelako ez soilik izendatzen den ekintza edo objektua, baizik eta errealtatean ez dauden erreferente intersubjektiboak²⁶⁰. Izan ere, hizkuntza bakoitzak badarama bere baitan tradizio historiko-kulturalaren erreferentzia; hau da, ez ditu soilik izendapen hotz eta zehatzak egiteko bitartekoak, baizik eta baloratzeko, zeharka adierazteko, konparatzeko, deitzeko eta gogora ekartzeko bitartekoak ere. Zentzu horretan, diskurtsoen analisia oso aberatsa izan daiteke definitzen badugu diskurtsoa Laclau eta Mouffe-k definitzen duten bezala: praktika-adierazle multzo artikulatua²⁶¹. Horrela, jarraian ikusiko dugun bezala, diskurtsoen interpretapen soziologikoa ahalegintzen da erlazionatzen, modu pragmatikoan, aktoreak adierazten duena aktorearen hartu-eman eta praktika sozialekin, beti ere azterketaren helburuek markatzen duten norabidean²⁶².

Luis Enrique Alonso-k, oso modu sakonean aztertu du zer den diskurtsoen azterketa soziologikoa bereizten duena beste diziplinetan egiten den testuen eta diskurtsoen azterketatik. Izan ere, azkeneko hamarkadetan, hizkuntzalaritzan, komunikazioan edo semiotikan, testuen azterketarekin loturik dauden metodologia konplexuak garatu dira, eta horrek zaildu egin du diskurtsoen azterketa soziologikoa zertan datzan definitzea eta mugatzea. Alonso-ren ustez, diskurtsoen azterketa soziologikoa ez da geratu behar diskurtsoen analisi informazionalean; hau da, diskurtsoen ageriko maila deskriptiboan. Pentsaren eta, oro har, komunikabideen arloan garatu den eduki-azterketa mota honek hitza hartzen du unitate gisa eta hitzen errepikapenak edota zentralitate-mailak aztertzen ditu modu sistematikoan eta kuantitatiboan. Testua, zentzu horretan, hitzen multzoa da, banatzen eta berriz ordenatzen diren unitate denotatiboak eta informazionalak, garrantzitsuena adierazlea da eta ez zentzua, esanahia. Alonsoren irudiko, eduki-azterketa mota hau diskurtsoen azterketaren lehenengo maila da, azterketa soziologikoa orientatzeko eta mugatzeko balio dezakeena; baina, bere ustez, informazioa aztertzen du komunikazioa aztertu gabe eta horrela galdu egiten dira diskurtsoaren funtsezko dimentsioak: “Ezkutatzen digu esanahiaren produkzio kolektiboa (...) subjektuak, bere dinamika sozialean eta komunikatiboan, baztertzen eta desagerrarazten ditu”²⁶³.

Beste aldetik, linguistika estrukturalean eta antropologia estrukturalean garapen garrantzitsua izan du diskurtsoen azterketa kualitatiboak. Testuen azterketa estrukturalak testuaren baitan dagoen egitura linguistiko logikoa eta formala bilatzen du —maila sintaktikoan, morfologikoan, estilistikoan, fonikoan edo semantikoan—; testuari ordena eta zentzua ematen dion balizko kode inkontzienteak eta unibertuala. Honetan ere subjektuak azterketatik kanpo geratzen dira, barneratzen duten kodearen erreproduzitzaile inkontzienteak dira; testuinguru sozialak eta historikoak ere kan-

²⁶⁰ ALONSO, L. E. *La mirada cualitativa en sociología*. Fundamentos, 1999. Orr. 45.

²⁶¹ Alonso-k aipatua: *Ibidem* (orr. 46).

²⁶² ORTÍ, A. : “La apertura y el enfoque cualitativo o estructural: la entrevista abierta semidirectiva y la discusión de grupo”. *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación social*. Alianza. Madrid, 1990. Orr. 166.

²⁶³ ALONSO, L. E. *La mirada cualitativa en sociología*. Fundamentos, 1999. Orr. 195.

poan geratzen dira, komunikazioaren alderdi sortzailea eta eraldatzailea ez da kontuan hartzen. Alonso-k egiten dion kritika, beraz, teoria sozialean estrukturalismoari egin zaion kritika bera da: subjekturik gabeko errealtatea aztertzea. Paradoxa are harriarriagoa da testuen analisian, elementu sinbolikoen azterketa egiten baita, baina ikuspegi estrukturalistatik “kodeen inposaketaren joko itxiak kanpoan uzten du egoera errealen halabeharrezkotasun-eza eta aukeraketa mugatuaren joko irekia”²⁶⁴.

Estrukturalismo horri egin zaion kritika post-estrukturalistak, asmo unibertsalistak ukatu eta testuen des-eraikuntza azpimarratzen badu ere, azterketa estrukturala egiten du modu nihilista eta arbitrarioan, testuen nagusitasuna eta arrazionaltasun-edo logika-eza baieztatzeko²⁶⁵. Alonso-ren planteamenduan, azterketa estrukturalistek eta post-estrukturalistek kontuan hartu beharreko ekarpenak egiten badituzte ere, testuen azterketa soziologikoa ez da azterketa estrukturala, ez du bilatu behar testuaren egitura egonkorra baizik eta testuan islatzen den munduaren ikuskera eta ikuskera horren faktore sortzaileak; hau da, nola eraikitzen diren diskurtsoak errealtate sozialean eta nola diskurtsoek eraikitzen duten errealtate soziala²⁶⁶. Ikus dezagun, sakonean, autore honek egiten duen proposamen aztertzailea.

Diskurtsoen azterketa soziologikoak jarraitzen duen logika talde sozialen interakzioa eta gatazkarena da, Alonsok bere egiten du Bourdieu-ren proposamena: produkzio sinbolikoen ezaugarriak berezkoenak produkzioaren baldintza sozialean aurkitzen ditugu. Zentzu horretan, diskurtsoak gainditzen du testua, azterketa soziologikoak aztertzen duena diskurtsoak dira eta ez testuak; testuak interesatzen zaizkigu diskurtsoen euskarria direlako, espazio sozial zehatzetan berregiten diren diskurtsoak. Bilatzen duguna zera da: nolako adierazpen sinbolikoak berregiten diren kokapen sozial zehatzetan. Testua, zentzu horretan, praktika sozialen objektibazio linguistikoa da, baina begirada soziologikoari hori baino gehiago interesatzen zaio, hain zuzen ere, nolako praktikek egiten duten diskurtsoa eta diskurtsoak nolako praktikak egiten dituen. Bilatzen dugu, beraz, diskurtsoen tokia harreman sozialen produkzioan; ikuspegi horretatik, testua euskarri bezala erabiltzen dugu interakzioan dauden subjektuen praktikak ikusgarriak eta interpretagarriak egiteko. Horrexegatik, aktorea (eta irakurlea) bere praktiken testuinguru sozialean kokatu beharra dago, bertan aurkituko baitugu diskurtsoari zentzua ematen dioten erreferente soziogrupalak²⁶⁷.

Esan bezala, espazio sozial bakoitzean aktoreek euren praktikak egiten dituzte (praktika diskurtsiboak barne); praktika horiek ezinbesteko dimentsio tenporala eta historikoa dute: aktoreek erreferente sinbolikoak erabiltzen dituzte —eta erreferente sinbolikoek mugatzen die— kokapen sozial ezberdinen artean dauden ikuspegi, tentsio eta interesen arabera. Horrexegatik, sinbolikoa ez dugu aztertuko zerbait objektibo eta kanpokoa balitz bezala, baizik eta praktika sozialaren alderdi bat bezala, akto-

²⁶⁴ *Ibidem* (orr. 202).

²⁶⁵ *Ibidem* (orr. 200).

²⁶⁶ *Ibidem* (orr. 201).

²⁶⁷ *Ibidem* (orr. 203-204).

reek euren praktika errealak eraikitzen baitituzte erabiltzen dituzten erreferente sinbolikoen aukera eta mugen arabera. Horrela, diskurtsoen azterketa soziologikoan “esaten dena” ez da bere horretan funtsezkoena, subjektuek hitz egiten dute beste subjektuei “zerbait” komunikatzeko eta “zerbait” hori da euren diskurtsoaren zentzua, horixe litzateke funtsezkoena diskurtsoaren azterketa soziologikoan:

Diskurtsoa, beraz, jarduera da, prozesu bat espresatzen duena adierazle-mailan (zeinu-sistema eta zeinu horien osaketarako arau-sistemaren bidez) izendatzen den erreferentzia es-tralinguistiko bati ematen zaion zentzuaren artikulazioa —hau da, giza jarrera eta helmu-ga bat—²⁶⁸.

Hortaz, “esaten dena” aztertzen dugu (testua edo *Corpusa*) bidea ematen digula-ko diskurtsoen funtzio interaktiboa eta komunikatiboa konprenitzeko. Interpretazioa, beraz, subjektuek interakziorako, *praxirako*, komunikatu nahi duten zentzua aurkitzean datza; baina zentzu hori ez du ikerlariak asmatzen modu arbitrarioan, ikerlariak ezin du testua interpretatu nahi duen moduan, baizik eta testuak baimentzen eta adierazten duen moduan. Interpretapenak berreraiki behar du testuinguru interaktiboa eta komunikatiboa, eta ikerketaren helburu zehatzen arabera ildo interpretatzailea garatu; horrela, mugatu eta saihestu egiten du testuingururik gabeko interpretazio gehiegizkoa eta funtsik gabea.

Diskurtsoen azterketa soziologikoak, normalean, kokapen diskurtsiboen maparekin edo tipologiarekin abiatzen da; hots, diskurtsoen banaketa eta antolaketa kognitibo bat errepresentatzen duena diskurtsoen kategoriarik eta elementurik esanguratsuenak. Tipologiarako eta analisirako erabiltzen diren kategoriak ez dira, beraz, asmatuak baizik eta diskurtsoetan aurkitzen ditugun elementu tipiko eta topikoen arabera. Diskurtso arketipiko horiek dira testuinguru sozial eta kultural zehatz batean aktoreek erabiltzen duten hizkuntza; termino edo hitz horien ezagutza eta erabilpena euren ahalmen komunikatiboaren funtsezko alderdia da. Alonso-ren us-tez, tipologia diskurtsiboak egoera interaktiboen tipologia zehatzak dira eta erreferentzia egiten diete praktika sozialen espazio zehatzei, non diskurtso horiek indarrean dauden; subjektuek kokapen soziohistoriko horietatik adierazten dute euren identitatea²⁶⁹.

Autoreak proposatzen digun sozio-hermeneutika hau, beraz, ez da hermeneutika finalista bat (hermeneutika klasikoa egia bilatzen duena testuaren sakonean), ez da operazionala ere (testuaren eraketa-arau filologikoa bilatzen duena), sozio-hermeneutika honen helburua hizkuntza bera baino hizkuntzaren erabilera da. Izan ere, hitz edo kategoria baten esanahia, testuinguru sozial batean ematen zaion erabilera da, eta testuinguru horretan dago konprenzioaren aukera. Kontua da, beraz, adierazpen linguistikoak jasotzea eta *corpus* horien azterketan hainbat testuinguru sozialetan indarrean dauden hizkuntza-erabilerak zehaztea, hortik ondorioztatu ahal izateko espazio sozial horietan ontzat jotzen diren terminoak eta kategoriak —sozialki arau diren

²⁶⁸ *Ibidem* (orr. 208).

²⁶⁹ *Ibidem* (orr. 215).

errepertorio linguistikoak—, nolako errealitatearen irakurketak berregiten ari diren eta nolako praktika, bizipen eta bizimoduekin elkarlotzen diren²⁷⁰.

Diskurtsoen analisi sozio-hermeneutikoan aztertzen dugu, beraz: esaten dena eta dakarrena, agerikoa eta gordea (egoera estarian dagoena), testua eta testuingurua; diskurtsoek bizitza sozialean dituzten ondorio ezkutua eta, alderantziz, praktika sozialak diskurtsoetan dituzten eraginak (testua eta testua sortu duen egoera sozial mikro eta makroaren azterketa). Ahalegintzen gara diskurtsoetik praktikara joaten, izan ere diskurtsoaren bidez komunikatu nahi dena (zentzua, jarrera, intentzioa,...) praktika sozialaren oinarrian ere badago. Aktoreentzat euren praktikak zein zentzu soziala daukaten aztertzeko aktoreen azalean ipintzen gara, ariketa enpatiko horrek ez du esan nahi euren tokia usurpatzea edota espazio sozial bakar batean ipintzea, baizik eta armoniatsua ez den eremu sozialaren indar-jokoa kontuan hartzea dituen zenbait kopapen ezberdinetatik; kokapen sozialen arteko interes-borrokek nolako erreferentzia sinboliko-kulturalak sortzen eta birsortzen dituzten aztertzeko. Izan ere, gatazkatsua den eremu sinboliko-komunikatibo horretan hizkuntza ez da neutroa, baizik eta errealitatea definitzeko eta errealitatean eragiteko dagoen borroka sinbolikoaren eta bote-re-borrokaen alderdi garrantzitsua.

Diskurtsibitatearen eremua eta azterketa sozio-hermeneutikoa horrela definiturik, arestian aipatu bezala, hiru teknika edo praktika kualitatibo erabili dugu geure azterketan. Elkarrizketa pertsonalak eta eztabaida-taldeak dira tradizio gehien duten praktika kualitatiboak, horiekin batera, hiruko taldeak erabili ditugu; hauetako praktika kualitatibo bakoitzak diskurtsoaren polarizazio ezberdin bat emango digulakoan.

3.2. Eztabaida taldeak, hiruko taldeak eta elkarrizketa pertsonalak

Arestian aipatu bezala, metodologia eta teknika soziologikoak errealitatea deseraikitze eta polaritzeko tresnatzat jotzen ditugu, edozein fenomenok daukan konplexutasuna mugatzeko erabiltzen ditugun tresna analitikoak. Zentzu horretan, garrantzi handikoa da jakitea teknika bakoitzak nola polarizatzen duen errealitatea edo, beste era batera esanda, zer da teknika bakoitzarekin produzitzen duguna. Horrela, metodologia eta teknika bakoitzak dituen mugak begibistatik galdu barik, saihestu egingo dugu polarizatzen dugun dimentsioa fenomenoaren osotasuna bailitzan hartzea eta azalpen orohartzaileak zabaltzeko joera azientifikoa.

²⁷⁰ Alonsoren ustez, erabilera/araua dialektika lotua dago gure lan honetan funtsezkoa den beste dimentsio batekin subjektiboa/objektiboa edo, beste era batera formulatua, hizkuntzaren dimentsio sortzailea/koaktiboa. Lan honetan egiten ari garen bezala, autoreak bi dimentsio horiek ez ditu modu eskluientean planteatzen inkluietean baizik; izan ere, hizkuntzak dimentsio biak ditu, sortzailea eta koaktiboa. Horrexegatik, diskurtsoaren azterketa soziologikoak gaingitu behar du Saussur-en eta estrukturalisten paradoxa: hizkuntzaren elementu instituzionalak, elementu formalak, abstraktuak eta aldagaitzak bihurtzea. Hizkuntzaren erabateko kristalizazio edo fosilizazio horrek irrealismo operazionista eta sistemikora eramaten baitu. *Ibidem* (orr. 208).

Atal honetan definitzen ari gara nola gizartearen aldaketa eta gidaritza irudikatze erabiltzen ditugun erreferente sinboliko-kulturalak aztertu nahi izatea, hautu metodologiko kualitatibora eraman gaituen. Izan ere, teknika kualitatiboek aukera emango digute globalizazioaren eta aldaketa sozialei buruzko diskurtso sozio-ideologikoak produzitzeko eta horien eduki sinbolikoaren azterketa sozio-hermeneutikoa egiteko. Hori da geure hautu metodologikoak emango diguna, ez gehiago ezta gutxiago ere; gizartearen aldaketa eta gidaritza oso gai konplexua eta zabala izanda modu honetara mugatu dugu, eta praktika kualitatiboek eta Alonso-k definitu duen azterketa sozio-hermeneutikoak nabarmentzen dituzten alderdi diskurtsiboak aztertuko ditugu, beste asko kanpoan utziz, beraz. Honekin batera, beste zerbait kontuan hartu behar dugu ere: hiru praktika kualitatibo garatu baditugu, horietako bakoitzak nola produzitzen eta polarizatzen du interesatzen zaigun diskurtsibitatea? Ikus dezagun nola erantzun diogun galdera horri.

Eztabaida taldeen praktika kualitatiboak taldea hartzen du abiapuntu gisa diskurtso sozio-ideologikoen produkzioarako (geure kasuan 6 edo 7 lagunez osaturiko taldeak); elkarrizketa pertsonalean, aldiz, gizabanakoa da diskurtsoaren ekoizlea; azkenik, hiruko taldean, talde txikia da prozesu komunikatibo ireki batean diskurtsoaren testua produzituko duena. Jarrain ikusiko dugunez, hauetako teknika bakoitzak bere berezitasun diskurtsiboak sortzen ditu.

Elkarrizketa pertsonaletan, izenak adierazten duen moduan, diskurtsoaren adierazpen pertsonala lortzen dugu. Elkarrizketatuak bere bizipen eta erreferentzia pertsonalak erabiltzen ditu gaiaren inguruan dituen iritziak eta ikuspegiak adierazteko. Produkzio diskurtsiboaren espazio pertsonalean gaude. Kontalaria “Ni”a da, ni eta nire egoera pertsonalaren erreferentziak, iraganekoak zein gaur egunekoak. Soziologikoki interesatzen zaiguna, aldiz, ez dira pertsona horien bizipen partikularrak, baizik eta elkarrizketatua bere praktiken testuinguruan kokatzea eta harreman- eta praktika-sare horren adierazpen pertsonal bat produzitzea. Hau da, subjektuak gaiaren inguruan dituen ikuspuntu eta bizipen tipikoak bere kokapen sozialagatik (bere espazio sozialaren baldintzaile sozio-ideologiko tipikoak praktika sozialean islaturik); bere praktika sozialak produzitzen duen diskurtsoa eta bere diskurtsoak produzitzen duen praktika. Horrexegatik, elkarrizketa pertsonala oso emankorra izaten da kasu tipikoak edo muturrekoak aztertzeko, espazio sozial baten eredu ideala ejemplifikatzen dutenak normalean baino intentsitate edo aberastasun gehiagorekin²⁷¹.

Eztabaida-taldeetan, aldiz, diskurtsoaren adierazpena talde-adierazpena da. Tesuinguru sozio-estruktural eta kultural zehatz batean eta testuinguru horretan taldeki-deek dituzten erreferentzia/pertenentziaren arabera, adierazten dute eta produzitzen duten diskurtsoa/k. Hortaz, produkzio diskurtsiboa ez da egiten norbanakoarengandik, kolektiboki produzitzen dute, talde bezala. Produkzio diskurtsiboaren espazio errepresentazionalen gaude. Zentzu horretan, kokapen-efektua edo taldearen deter-

²⁷¹ ORTÍ, A. “La apertura y el enfoque cualitativo o estructural: la entrevista abierta semidirectiva y la discusión de grupo”. *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación social*. Alianza. Madrid, 1990. Orr. 179.

minazio soziala handiagoa da. Diskurtsoa kokapen sozialaren erreferentziazko diskurtsoa da; harreman eta praktika-sare zehatzetan indarrean dagoen diskurtso dominantea eta kristalizatua. Kontalaria taldea da, “Gu”, eta informazioa edo adierazpen partikularrak edo pertsonalagoak zailtasun gehiagorekin adieraziko dira, batez ere testuinguru sozial horren kontsensu dominantearekin bat ez datozenean. Horrexegatik, Fernando Conde-k azpimarratu duen bezala, talde-dinamikak ixteko joera har dezake: *tabu* eta estereotipoen errepikapena, alternatiba berrien ukapena, gatazka baino kontsensua, kritika eta berriakuspina baino adostasuna eta adaptazioa, menperatua baino menperatzailea²⁷². Eztabaida-taldea, beraz, eraikitako mikro-egoera da diskurtsibitatearen talde-adierazpena produzitzeko; eta, horrela, interpretazioaren bitartez deskodifikatu ahal izateko zenbait espazio sozialetan kristalizatzen diren kodifikazioak; hots, erreferentziazko diskurtso dominanteak kokapen sozialaren arabera.

Azkenik, hiruko taldeetan, elkarrizketa eta eztabaida taldeen arteko espazio batean gaude; “ni” eta “gu” horien arteko tentsioan eta joan-etorrian. Hiruko taldeen erabilera azken urteotako berrikuntza metodologikoa da; 90. hamarkadaren hasieran, Fernando Conde eta bere lankideak hasi ziren hiruko taldeak erabiltzen beraien ikerketetan. Hasiera horretan, eztabaida-taldeen osagarri gisa erabiltzen zituzten baina berehala antzeman zituzten teknika horren berezkitasun interesgarriak eta 1996an argitaratutako *La vivienda en Huelva. Culturas e identidades urbanas* liburuan, hiru teknika kualitatiboak maila berean erabiliz, diskurtsibitatearen azterketarako dituzten euren arteko ezberdintasunak eta osagarritasun-puntuak teorizatu zituzten eranskin metodologiko interesgarrian.

Fernando Conde-ren ustez, elkarrizketa pertsonaletan eta eztabaida taldeetan produzitzen diren diskurtsoek diskurtso errepresentatibo bezala sortzeko joera dute; ni edo gu horren, beren-beregi, espazio sozialaren araberako proiektzio ideala eta koherentea, horrexegatik, esangura aldetik diskurtso beteagoak eta “asetuagoak” dira (kokapen sozial horretan indarrean dauden topiko estandarrak edo kanonikoak). Hiruko taldeetan, aldiz, kokapen sozialaren efektua leunagoa da tentsioa dagoelako pertsonalizazioa eta kokapen-diskurtsoaren artean. Tentsio horrek ñabardura eta ezadostasunen adierazpen aberatsagoa ahalbidetzen du; produkzio diskurtsiboa magmatikoa da eta planteamendu diskurtsibo berriak agertzea errazten du, taldekide bakoitzak bere harreman- eta praktika-sarearen determinazioa modu autonomoago batez beraztertze aukera gehiago dauzka. Izan ere, ni eta gu horiekin batera, hiruko taldeen esperientzietan maizago agertzen da “besteak” erreferentzia bezala; askotan erabilia “gu”, modu zuzenean aipatu ordez, zeharka aipatzeko (“ikasleak”, hitz egiten duena ikaslea bada, edo “etxeakoandreak” hitz egiten duena etxeakoandrea bada): horrek ematen duen distantzia tartea litzateke produkzio diskurtsiboa beste era batera bideratzen duena. “Besteak” dira baina, aldi berean, ni edo gu barne gaude. Horrekin batera, ni, gu eta besteen arteko joan-etorrian, maizago agertzen dira ere esperientzia transferidoak, hau da, ingurukoei gertatutako bizipenak (ezagun bati, lagun bati, senide bati,...) neure egiten ditudanak identifikazio-maila handiarekin.

²⁷² CONDE, F. “Los métodos intensivos y extensivos en la investigación social de las drogodependencias”. Madril, 1991. Colegio de Licenciados en Ciencias Políticas y Sociología. Orr. 218-19.

Hortaz, hiruko taldeetan diskurtsoaren adierazpen ez da ehunetik ehunean talde-adierazpena, ezta ere adierazpen pertsonala, baizik eta batetik bestera etengabeko mugimenduan eta transizioan dagoen adierazpen mistoa. Conde-ren planteamenduan, produkzio diskurtsiboaren espazio transizionalean gaude; sormenerako edo elementu diskurtsibo birformulatuak eraikitzeo aukerak ematen dituen espazioa. Gizabanakoren adierazpen pertsonalak autonomoa baina egonkorra izateko joera badu, eta talde-adierazpenak heteronomoa eta egonkorra izateko joera badu; talde txikiaren adierazpena, giza banako eta giza artekotasunaren mugimendua eta tentsioa ahalbidetzen duen neurrian (elkarrizketatzailearen lana ere horretara zuzendua egon behar da), produkzio diskurtsiboaren dinamika ezegonkorragoa, irekiagoa eta aktiboagoa errazten du (autonomoa eta aldi berean heteronomoa modu dialektikoan)²⁷³.

Arestian aipatu bezala, teknika kualitatiboek aukera emango digute globalizazioaren eta aldaketa sozialei buruzko diskurtso sozio-ideologikoak produzitzeko eta horien eduki sinbolikoaren azterketa sozio-hermeneutikoa egiteko. Hiru teknika edo praktika kualitatibo erabili ditugu geure azterketan; ikusi dugun bezala, hauetako praktika kualitatibo bakoitzak bere berezitasun diskurtsiboak sortzen ditu eta diskurtsoaren polarizazio ezberdin bat emango digu. Ikus dezagun, diskurtsoen azterketan sartu aurretik, nolako diseinu teknikoa definitu dugun geure praktika kualitatibo hauek burutzeko.

3.3. Praktika kualitatiboen diseinu teknikoa

Orain arte ikusiko dugu nola, praktika kualitatiboetaz baliatuz, globalizazioaren eta aldaketa sozialei buruzko diskurtso sozio-ideologikoak polarizatuko ditugun (gizartearen aldaketa eta gidaritza irudikatzeo erabiltzen ditugun erreferente sinboliko-kulturalak), horien eduki sinbolikoaren azterketa sozio-hermeneutikoa egiteko. Behin eta berriz errepikatu dugunez, aktoreen diskurtsoa bere harreman eta praktika-sareen testuinguruan aztertzen dugu; erlazionatuz aktoreek adierazten dutena beraien hartueman eta praktika horiekin. Arestian aipatu dugu ere, aztertu nahi ditugun praktika sozialak egintza kolektiboaren praktikak direla. Hau da, prozesu sozialetan edota politikoetan parte hartzeo eta eragiteo ageriko borondatearekin eratuta dauden harreman-sareak eta praktika mobilizatzaileak; edo, beste era batera esanda, antolaketa kolektiboaren bidez eta gizartea eragiteari begira, aktibismoa, militantzia edo konpromiso partehartzailea berregiten duten *praxi* kolektiboak. Era berean, harreman-sare desmobilizatuak ere aztertzeko asmoa dugu, hau da, prozesu sozialetan edo politikoetan eragiteo ageriko borondatea ez duten harreman-sareak eta praktika des-

²⁷³ Huelvako etxebizitzari buruzko ikerketan Fernando Conde-k oso argi antzeman zuen nola teknika kualitatibo bakoitzak modu ezberdinean polarizatzen zituen diskurtsoak: etxeari buruz hitz egiteko, "hogar"/ "casa"/ "vivienda" ziren erreferentzia nagusiak, beren-beregi, elkarrizketa, hiruko taldeetan eta eztabaida taldeetan. Horrela, "casa" kontzeptuak, esaldiaren arabera, beste bien adiera edo esanahia hartzen zuen ñabardura indefinituagoak sortuz. "Los grupos triangulares como espacios transicionales para la producción discursiva" Fernando Conde-ren eranski metodologikoa: *La vivienda en Huelva. Culturas e identidades urbanas*, Sevilla, 1996. Fundación El Monte. Junta de Andalucía. Orr. 294-95.

mobilizatuak. Izan ere, praktika-sare ezberdin horietara hurbilduz, aztergai izango dugu zeintzuk diren espazio sozial horietan berregiten ari diren diskurtso sozio-ideologikoak gizartearen produkzioa eta aldaketaren inguruan.

Horrela, atal honen hasieran esan dugun bezala, partaidetza kolektiboaren alda-gaia, hipotesi modura, pertinentea eta esanguratsua iruditzen zaigu diskurtso ezberdin batzuk polarizatzeari begira. Izan ere, partaidetza kolektiboaren *praxiak*, elkarbitzita kolektiboan agente eragilea eta sortzailea izateko borondatea erakusten duen neurrian, gizarte-instituzioen eta gizarte-egituren ikuspegi eraikitzailea ahalbidetu dezake; hots, gizakion praktikaren esku eraikuntzan dauden elementuak bezala antzematea. Prozesu sozialetan edota politikoetan eragiteko ageriko borondatea eta *praxi* kolektiboa ez dagoenean, aldiz, errazago dirudi gizarte-instituzioen ikuspegi kosifikatzailea bereganatzea; hots, gizartearen instituzioak eta egiturak gizakion esku ez dagoen errealtate urrun eta eraginezin bezala antzematea.

Partaidetza kolektiboaren espazio sozialetara hurbiltzeko Euskal Herriko mugimendu sozialen arloko talde eta erakunde sozialetako parte-hartzaileak gonbidatu ditugu gure *praxi* kualitatiboetara. Hain zuzen ere, ondorengo esparrutan: antimilitarismoa, talde feministak, hizkuntza eta euskal kultura, elkartasuna eta garapenerako lankidetzak, okupazioa eta bakegintza.

Mugimendu sozialen *praxian* eta harreman-sareetan ari direnak zein sektore sozialetakoak diren edo nolako kokapen sozio-estrukturaletan aurkitzen ditugun ikerketa enpiriko askoren aztergaia izan da. Azterketa horiek datoz mugimendu sozialen partaideak hiru sektore sozialetako agenteekin identifikatzen: 1) Ertain klaseko langileak, ikasketak dituen eta lan egiten duena zerbitzu sozialen sektorean, batez ere hezkuntza, osasuna edo administrazioaren arloan. 2) Merkatutik kanpo dauden sektoreak, integratuak (ikasleak eta etxekoandreak) edo integratugabeak (langabezian edo aldiro-aldiro langabezian dauden gazteak). 3) Aitzinako ertain klasea, beraien bizimodu tradizionala mehatxatua ikusten duen jendea (nekezariak, dendalariak, artisauek eta modu autonomoan lan egiten duten beste sektore batzuk)²⁷⁴.

Azterketa enpiriko sozio-estrukturalen arabera, hiru sektore horietatik mugimendu eta erakunde sozialetan ari den sektorerik garrantzitsuena, kuantitatiboki zein kualitatiboki, ertain klaseko ikasle unibertsitarioak eta ertain klaseko gizarte-zerbitzueta-ko langileak dira (irakaskuntza, kultura, gizarte-lana, arte eta komunikazioa)²⁷⁵. Hain zuzen ere, prozesu produktiboetatik eta merkatuaren logika lehiakorretik urrunago dauden sektoreak. Izan ere, azkeneko hamarkadetan mugimendu sozialek adierazten

²⁷⁴ Azterketa sozio-estruktural horien inguruan, Mario Diani-k zein Jesus Casquette-k iturri berdinak aipatzen dizkigute: Parkin, 1968; Cotgrove eta Duff, 1980; Offe, 1985, Kriesi, 1989; Inglehart, 1991; Maheu, 1995; Wallace eta Jenkins, 1995. Ikus. "Las redes de los movimientos una perspectiva de análisis" DIANI, MARIO. *Los Movimientos Sociales*. IBARRA, P.; TEJERINA, B. Trotta argitaletxea. Madril, 1998. Orr. 254. Eta "Estructura e Identidad: Los Nuevos Movimientos Sociales" CASQUETTE, J. *Inguruak*, 14, 1996. Orr. 150.

²⁷⁵ RIECHMANN, J. FERNÁNDEZ BUEY, F. *Redes que dan libertad: introducción a los nuevos movimientos sociales*. Paidós. Bartzelona, 1994. Orr. 83.

dituzten gatazka sozialak (ingurugiroa, antimilitarismoa, elkartasuna,...) ez lirateke klase edo adin-taldeen arteko antagonismoen adierazgarri, baizik eta merkatuaren dinamika produktibista eta lehiakorretik hurbilago eta urrunago dauden sektoreen arteko antagonismoaren adierazgarri²⁷⁶. Gure azterketari dagokionez, definitu ditugun helburuen arabera, ez zaigu interesatzen bi sektore horietan produzitzen diren diskurtsoak kontrajartzea –hori beste azterketa interesgarri baten edukia izan badaiteke ere-, baizik eta mugimendu sozialetan parte hartzen duten sektore sozialetan nolako produkzio diskurtsiboak berregiten ari diren partaidetza kolektiboaren *praxian* ari diren artean eta *praxi* horretan ari ez direnen artean.

Horrela, geure diseinu teknikoak, mugimendu sozialetan parte-hartzearekin loturik dauden kokapen sozio-estruturaletan bilatu ditu praktika kualitatiboen gonbidatuak, batzuk egintza kolektiboaren *praxietan* eta harreman-sareetan ari direnak; beste batzuk, kokapen edo ezaugarri sozio-estruturalak berdinak izanda ere, talde, *praxi* eta harreman-sare horietan ari ez direnak. Era berean, unibertso sinboliko nagusiei dagokienez (ideologiak: ezkerre/eskuina, abertzale/ez abertzale; erlijioa: kristau praktikantea, kristau ez-praktikantea, agnostikoak...), auto-definizio ezberdinetako jendea gonbidatzea bilatu dugu, egintza kolektiboaren harreman-sareetan zein bestetan. Ondorengo banaketa honen arabera gauzatu ditugu *praxi* kualitatiboak:

	Ertain klaseko irakaskuntzako eta administrazioko langileak	Ertain klaseko ikasleak
Partaidetza kolektiboaren <i>praxietan</i> ARITUAK	eztabaida-talde (1); elkarrizketa (3); hiruko talde (3)	eztabaida-talde (2); elkarrizketa (3); hiruko talde (3)
Partaidetza kolektiboaren <i>praxietan</i> EZ-ARITUAK	eztabaida-talde (1); elkarrizketa (3); hiruko talde (3)	eztabaida-talde (2); elkarrizketa (4); hiruko talde (3)

Diseinu tekniko honetarako erabili ditugun ardatz nagusiak, beraz, bi izan dira:

- Kokapen sozio-estruturala, talde eta mugimendu sozialen partaidetzarekin loturik dauden kokapenetan zentratua: ertain klaseko zerbitzuetako langileak (irakasleak eta administrazioetako langileak); eta ertain klaseko ikasleak (unibertsitarioak eta lanbide heziketakoak).
- Partaidetza kolektiboa: prozesu sozialetan edota politikoetan parte hartzeko eta eragiteko ageriko borondatearekin partaidetza kolektiboaren *praxi* eta harreman-sareetan ari direnak eta, bestetik, *praxi* eta harreman-sare horietan ari ez direnak.

Guztira, 6 eztabaida-talde, 12 hiruko talde eta 13 elkarrizketa pertsonala. Hortaz, praktika kualitatibo guzti horietan 90 pertsona inguru gonbidatu ditugu. Ikus dezagun talde eta elkarrizketatu horien soslaia zein izan den:

²⁷⁶ *Ibidem* (orr. 83-84).

Eztabaida Taldeak (ET)

ET.1: Lan-harremanetako ikasleak. Bakearen Aldeko Koordinakundea, Haika, Gazte komunistak, eta ikasle-sindikatuak.

- Adina: 22-25 urte.
- Sexua: emakumezko hiru eta gizonezko lau.
- Bizitokia: Bilboaldea.
- Hizkuntza: gaztelaniaz.

ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika.

- Adina: 22-25 urte.
- Sexua: emakumezko lau eta gizonezko hiru.
- Bizitokia: Gasteiz.
- Hizkuntza: euskaraz/gaztelaniaz.

ET.3: Lan-harremanetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez.

- Adina: 22-25 urte.
- Sexua: emakumezko bost eta gizonezko bi.
- Bizitokia: Barakaldo, Leioa, Portugalete.
- Hizkuntza: gaztelaniaz.

ET.4: Magisteritzako eta Humanitateetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez.

- Adina: 22-25 urte.
- Sexua: emakumezko lau eta gizonezko hiru.
- Bizitokia: Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasate.
- Hizkuntza: euskaraz.

ET.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez.

- Adina: 30-40 urte.
- Sexua: emakumezko lau eta gizonezko hiru.
- Bizitokia: Donostialdea.
- Hizkuntza: euskaraz.

ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarri eta BAK.

- Adina: 35-45 urte.
- Sexua: emakumezko bi eta gizonezko lau.
- Bizitokia: Bilbo, Sestao, Gallarta eta Durango.
- Hizkuntza: gaztelaniaz.

Hiruko Taldeak (HT)

HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Dioce-
sanas.

- Adina: 40-45 urte.
- Sexua: emakumezko bi eta gizonezko bat.
- Bizitokia: Bilbo eta Durango.
- Hizkuntza: gaztelaniaz.

HT.2: Unibertsitateko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez.

- Adina: 35-40 urte.
- Sexua: gizonezkoak.
- Bizitokia: Bilbo eta Erandio.
- Hizkuntza: gaztelaniaz.

HT.3: Irakasleak eta ekonomilaria. Arrasate Euskaldun Dezagun (AED)

- Adina: 35-40 urte.
- Sexua: emakumezko bat eta gizonezko bi.
- Bizitokia: Arrasate.
- Hizkuntza: euskaraz.

HT.4: Udaletxeko teknikariak. Erakunde sozialetan ez.

- Adina: 35-40 urte.
- Sexua: emakumezko bi eta gizonezko bat.
- Bizitokia: Bilbo.
- Hizkuntza: gaztelaniaz.

HT.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez.

- Adina: 35-40 urte.
- Sexua: emakumezko hiru.
- Bizitokia: Bilbo.
- Hizkuntza: gaztelaniaz.

HT.6: Irakasleak. Emakumeen Asanblada.

- Adina: 40-45 urte.
- Sexua: emakumezko hiru.
- Bizitokia: Bilbo eta Arrasate.
- Hizkuntza: euskaraz.

HT.7: Lanbide Heziketako ikasleak. Erakunde sozialetan ez.

- Adina: 19- 21 urte.
- Sexua: emakumezko bi eta gizonezko bat.
- Bizitokia: Bilbo.
- Hizkuntza: gaztelaniaz.

HT.8: Zuzenbide eta filosofiako ikasleak. Itxaropena Hegoaldean (nazioarteko elkartasuna).

- Adina: 23- 24 urte.
- Sexua: emakumezko bat eta gizonezko bi.
- Bizitokia: Bilbo eta Leioa.
- Hizkuntza: gaztelaniaz.

HT.9: Magisteritzako ikasleak. Erakunde sozialetan ez.

- Adina: 23- 24 urte.
- Sexua: emakumezko bi eta gizonezko bat.
- Bizitokia: Ondarroa, Lekeitio eta Azpeitia.
- Hizkuntza: euskaraz.

HT.10: Filologia eta lanbide heziketako ikasleak. Gazte asanblada eta Euskal Presoekiko Solidarioak.

- Adina: 21- 23 urte.
- Sexua: emakumezko hiru.
- Bizitokia: Eibar.
- Hizkuntza: euskaraz.

HT.11: Kimikako ikasleak. Erakunde sozialetan ez.

- Adina: 23- 25 urte.
- Sexua: emakumezko bi eta gizonezko bat.
- Bizitokia: Leioa, Igorre eta Bermeo.
- Hizkuntza: gaztelaniaz.

HT.12: Lanbide Heziketako ikasleak. Gaztetxea eta Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanblada.

- Adina: 23-24 urte.
- Sexua: emakumezko bat eta gizonezko bi.
- Bizitokia: Barakaldo.
- Hizkuntza: gaztelaniaz.

Elkarrizketa Pertsonalak (EP)

EP.1: Unibertsitateko AZPko langilea. Bakearen Aldeko Koordinakundea.

- Adina: 40-45.
- Sexua: emakumezkoa.
- Bizitokia: Gueñes.
- Hizkuntza: gaztelaniaz.

EP.2: Eskolako irakaslea. Ttakun euskal kultur elkartea.

- Adina: 40-45.
- Sexua: emakumezkoa.
- Bizitokia: Donostia.
- Hizkuntza: euskaraz.

EP.3: Ekonomiako ikaslea. Euskal Adarra.

- Adina: 22.
- Sexua: gizonezkoa.
- Bizitokia: Donostia.
- Hizkuntza: euskaraz.

EP.4: Eskolako irakaslea. MOC-KEM.

- Adina: 35-40.
- Sexua: gizonezkoa.
- Bizitokia: Bilbo.
- Hizkuntza: euskaraz.

EP.5: Komunikazioko ikaslea. MOC-KEM.

- Adina: 22-24.
- Sexua: gizonezkoa.
- Bizitokia: Portugalete.
- Hizkuntza: gaztelaniaz.

EP.6: Kazetaritzako ikaslea. Euskal Herrian Euskaraz.

- Adina: 22.
- Sexua: gizonezkoa.
- Bizitokia: Bilbo.
- Hizkuntza: euskaraz.

EP.7: Unibertsitateko AZPko langilea. Erakunde sozialetan ez.

- Adina: 35-40.
- Sexua: emakumezkoa.

— Bizitokia: Bilbo.

— Hizkuntza: gaztelaniaz.

EP.8: Jaurlaritzako teknikaria. Erakunde sozialetan ez.

— Adina: 33-35.

— Sexua: emakumezkoa.

— Bizitokia: Bilbo.

— Hizkuntza: gaztelaniaz.

EP.9: Udaletxeko AZPko langilea. Erakunde sozialetan ez.

— Adina: 35-40.

— Sexua: gizonezkoa.

— Bizitokia: Bilbo.

— Hizkuntza: gaztelaniaz.

EP.10: Aldundiko teknikaria. Erakunde sozialetan ez.

— Adina: 35-40.

— Sexua: emakumezkoa.

— Bizitokia: Donostia.

— Hizkuntza: euskaraz.

EP.11: Arte Ederretako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.

— Adina: 22-24.

— Sexua: emakumezkoa.

— Bizitokia: Tafalla/Bilbo.

— Hizkuntza: gaztelaniaz.

EP.12: Ekonomiako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.

— Adina: 20-22.

— Sexua: gizonezkoa.

— Bizitokia: Balmaseda.

— Hizkuntza: gaztelaniaz.

EP.13: Lanbide Heziketako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.

— Adina: 20-22.

— Sexua: emakumezkoa.

— Bizitokia: Basauri.

— Hizkuntza: euskaraz.

4. GLOBALIZAZIOARI BURUZKO DISKURTSO SOZIO-IDEOLOGIKOEN PRODUKZIOA

Elkarrizketa eta gainerako praktika kualitatiboen transkripzioak aztertzea hiru urratsetan burutu dugun lana izan da: lehenengo eta behin, irakurketa osoa eta orokorra egin dugu grabatutako zintak entzuten genuen aldi berean. Horrela, diskurtsoaren produkzioaren momentu esanguratsuei erreparatu diegu: giroa, azalpenen doinua, isiluneak, barreak, ironiak,...

Behin hori eginda bigarren irakurketa bati ekin diogu, esanahi aldetik pisu gehien zituzten elementuak azpimarratuz: kontzeptuak, eufemismoak, esaldi amaigabeak, metaforak, konparaketak, perifrasiak, azalpen beharrik ez duten esaldiak, etab. Horrela, gonbidatuak eraikitzen ari ziren normalidadearen parametro nagusiak identifikatu egin ditugu. Izan ere, kontakizunean modu koherentean eraiki nahi duten errealitatearen irakurketa normal hori geure egiteko, bere elementurik esanguratsuenak geureganatu behar ditugu; bere zentzu osoa betetzeko, saturatzeko edo harrapatzeko identifikatu behar ditugu kontakizunaren elementurik esanguratsuenak.

Hirugarren urratsa, diskurtsoak eraikitzea eta, tipologia edo mapa topologiko baten bidez, helburu moduan genuen espazio sozialetan (praktika- eta harreman-sare zehatzetan) nolako diskurtso ideologikoak polarizatu ditugun irudikatzea. Hau da, arestian aipaturiko elementu esanguratsuen harremanetan jarri, ordenatu eta egituratu ildo interpretatzaile baten arabera, diskurtso sozio-ideologikoen deskripzioa egin ahal izateko. Azkenik, azterketa honek dituen helburuen arabera interpretatu beharko ditugu diskurtsoen analisia, hau da, egindako analisia erantzun nahi genituen galderak erantzuteko balio duen ala ez aztertzea. Jarraian hirugarren urrats honen emaitza aurkeztuko dugu; hots, eraiki ditugun diskurtsoen banaketa eta antolaketa, diskurtso bakoitzaren elementu tipikoak deskribatuz.

Ikus dezagun diskurtso sozio-ideologikoen produkzioa nolakoa izan den eta gure azterketa interpretatzaileak nondik-nora jo duen.

Ondoko hauek dira bereiztu ditugun diskurtsoak:

1. Adaptazioaren diskurtsoa: globalizazioa eta gizartearen aldaketa-joerak datozen bezala onartu beharra dago, progresuari ezin zaio uko egin. Alde onak eta txarrak izango ditu eta zenbait gauza galduko ditugu; baina, oro har, bizi baldintzak etengabe ari dira hobetzen eta etorkizunean ere horrela izango da. Ezberdintasun sozialak beti egon dira eta egongo dira baina aukera berriak zabaltzen ari dira, aukera horietaz baliatzen jakin behar dugu. Bazterrean ez badugu geratu nahi integratu behar gara, jarrera irekia eduki behar dugu; jarrera irekia eta zenbat eta lehenago integratu eta adaptatu hobe.
2. Ezintasunaren diskurtsoa: globalizazioaren planteamendu orokorrak oso polita ematen du, mundua gero eta batuago, batera daukaguna indartzea, ekonomia bakarra,... gainera datorkigun gauza bat denez, ba ongi etorria egin beharko diogu; baina, praktikan, gaur egungo aldaketa-joera horiek kezkarriak dira, etsipenez eta mesfidantzaz ikusten ditugu. Dirua, merkatua eta kontsumismoa dira nagusi

eta, nahi edo nahiez, korronte horrek eramaten zaitu; oreka pertsonala galtzen ari gara (estresa, antsietatea,...). Polita eta onuragarria aurkezten digutena errealitatean ez du onura askorik ekartzen eta jende asko kanpoan geratzen ari da. Elite politiko eta ekonomikoek daukate boterea gauzak beste era batera eramateko baina ez daukate borondaterik. Gobernuz kanpoko erakundeak eta gizarteko beste talde batzuk ahalegintzen dira gauzak zuzentzen, horiek lagundu beharra dago; etsigarria bada ere, ezin da beste ezer egin, politikaren mundua oso biziakua baitago.

3. Itzaropenaren diskurtsoa: globalizazioa eta gaur egungo aldaketa-joerak oso kezagarriak dira. Giza baloreak bazterrean geratu dira eta etekina bilatzea besterik ez da bilatzen. Beharrezkoa da aldaketa, geure bizimodu hau ez baita eutsigarria, ezta mundu osoan aplikatzeko modukoa ere. Gauzak aldatu daitezke geure baloreen aldaketa gertatuko denean; oraingo kontsumismoa eta materialismoa bigarren mailan utzi eta, giza baloreak berreskuratuz, lehentasunezkoa jotzea gehien behar dutenei laguntzea. Aldaketaren itzaropena dago Gobernuz kanpoko erakundeen lanean, belaunaldi berrien bestelako heziketan eta, batez ere, norberarengan egon behar den aldaketan bizimodu apalago bat eta elkartasunezkoa eramateko.
4. Aurkakotasunaren diskurtsoa: globalizazioa eta gaur egungo aldaketa-joerak kapitalismoaren hegemonia eta esplotazioa ari dira zabaltzen inoiz baino indar handiagoz. Botere politikoa multinazionalen esku dago eta jendea engainatuta bizi da/gara kontsumismoaren itxurazko zoriontasunean. Lehiakortasunaren eta kontsumoaren kultura inposatzen ari da mundu mailan eta kultur eta gizarte-ereduen dibertsitatea arrisku bizian dago. Oraingo joerei buelta eman beharko litzaietxe eta horretarako aurre egin behar zaie politika neoliberalen arduradunei eta erakunde-ei. Kolektiboki antolatzea bide bakarra da borrokatzeko eta inertzia dominanteari aurre egiteko; hainbeste injustizia eta inposaketaren aurrean errebelatu beharra dago.

Jarraian, diskurtso bakoitzean normaltzat jotzen den errealitatearen irakurketa erreproduzituko dugu:

4.1. Adaptazioaren diskurtsoa

A. Aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko pertzeptzioak: Progresoari ezin zaio uko egin, jarrera irekia eduki behar dugu eta aukera berrietaz baliatu.

Gaur egungo gizartean gehien aldatzen ari dena eta azkarren aldatzen ari dena teknologia eta zientziaren mundua da (informatika, sareak, internet, telefono mugikorrak,...). Informazio asko daukagu eskura, informazioaren presentzia etengabea da, puntu batetik bestera jakin dezakezu zer gertatzen ari den; zuzenean eta gure etxetik eskuratu dezakegu informazioa.

Kontsumoarena ere oso deigarria da, jendeak bere bizi-kalitatea hobetu nahi du eta gero eta gehiago kontsumitzen du; erraztasun asko eskaintzen dizkizute eta onartu egiten ditugu, zenbat eta gehiago hobe, nahiz eta behar-beharrezkoak ez izan ohi-

tu egiten zara eta aurrera. Dirua izanez gero dena dago eskura. Azken finean gure erosotasuna bilatzen dugu. Gaur egungo kultura da: “Todo está relacionado (nuevas tecnologías, centros comerciales... la gente quiere mejorar su calidad de vida y consume más. Te dan muchas facilidades y las aceptas, cuanto más mejor, si ahora puedes comprar desde casa pues mejor... son facilidades que igual no son necesarias pero te acostumbras a ellas. Al final tú buscas tu comodidad, no es lo mismo ir de tienda en tienda o ir a una sólo y comprarlo todo, buscas tu comodidad”. (ET.3: Lan-harremantako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

Globalizazioak irekiagoak bizitzeko aukera ematen du, zurea bakarrik ikusiz ez, besteena ere. Eman egiten duzu eta jaso egiten duzu; ona da eta polita, zenbat eta globalago hobeto, gehiago aberasten zara. “Aquí somos un poco paletillos todavía”. (EP.8: Jaurlaritzako teknikaria. Erakunde sozialetan ez.) Aldaketak onartu nahi ez izatea, erresistentzia numantina, ez da batere inteligentea zeren aldaketa horiek, nahi edo nahiez, aurretik eramango zaituen, horrexegatik inteligenteagoa da eskaintzen dituzten trenak aprobetxatzea norberarena bultzatzeko.

Globalizazioak, gauza guztiak bezala, alde onak eta txarrak edukiko ditu, baina zer den jakin nahi badugu proban ipini beharko dugu, bestela ez dugu jakingo. Nahiz eta gauza batzuk galdu, horrelako aurrerapenak bizitza hobetzeko izaten dira. Globalizazio horrek ematen dituen aukerak bilatu behar ditugu hobeto kokaturik egoteko, zenbat eta gehiago jakin hobeto. “A mí la globalización no me parece mal, porque los cambios están ahí, son más que evidentes, son inevitables (...) el futuro lo veo positivo, siempre se dice que no, pero al final sí”. (HT.5 : Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

Gauzak beti bezala jarraituko dute, batzuk asko daukate eta beste batzuk gutxi eta hori ez da inoiz amaituko asko daukanak gehiago nahi duelako; hobeto bizi diren horriengana hurbiltzea, euren mailara ailegatzea: “...parece que el que más tiene quiere tener más y el que menos tiene pues se va desmarcado de ese que tiene más y nunca lo podrá conseguir. Creo yo, vamos...” (EP.12: ekonomiako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.) Zerbait emango du soberan duenak, horrela delako, horrela izan da beti eta orain ez da aldatuko; inork ez du ezer egiten besteentzako. “A nivel global, cuanto más evolucionemos, otros más atrás se quedarán, no tiene solución porque todos tendemos a lo mejor siempre. (...) Me gustaría creer que sí, que los avances sirven para ir acabando con el hambre, las guerras... A veces lo pienso y me parece que sí, que ojalá sea eso. Pero, en principio, me parece que cada cual va a lo suyo y para atrás miras poco. Tú miras para adelante, tu estás aquí y miras para adelante: ¡joder qué bien, a ver si consigo esto!” (EP.12: Ekonomiako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.)

Bestaldetik, ezberdintasunak beti egon dira eta beti egongo dira, askotan esaten da gero eta handiagoak izango direla, baina gero ez da horrela; oraingo honetan ez da horrela izango ere, hemen behintzat ez. Bizimodu hobeak ekarriko du, informazioa boterea da, botere ona eta txarra baina boterea, eta hori aprobetxatu beharra dago. Denbora aurrera joan ahala aukera berriak popularizatu egingo dira eta horrek, hemen behintzat, berdintasun gehiago sortuko du; mundu mailan, joera hauek motelagoak dira.

Cuanto más adelantos haya es mejor, es beneficioso. Primero es tener la vacuna contra el SIDA, luego si es cara o barata es otro problema a resolver, pero por pasos, en este sentido está bien. (HT.2: Unibertsitateko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo eta Erandio.)

Baina ezberdintasun horiek mantenduko badira ere, bizitza-maila denontzako igotzen da; geure gurasoen bizitzarekin konparatzen badugu, guk askoz erraztasun gehiago ditugu eta gure seme-alabek guk baino gehiago izango dituzte. Aurrerapen eta asmakizun berriak daude eta beti hobetzen dute bizimodua: “Vamos progresando, aunque sea lentamente, la calidad de vida ha mejorado”. (HT.2: Unibertsitateko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo eta Erandio.)

Lurrak milioika urte ditu eta beti bota du aurrera, ba orain ere aurrera egingo du, horrela da bizitza eta historia errepikatuko da, orain ere berdin, aurrera. Gainera, ez da berdin orain pertsona batek daukan maila intelektuala eta orain dela 50 urte zeukate-na; gero eta arinago joan gara eboluzionatzen, gero eta gauza gehiago dakigulako.

B. Gizartearen produkzioa eta gidaritza: gauzak datozen bezala hartu behar dira, adaptatzea beste aukerarik ez dago bestela bazterrean geratzen zara.

Aurrerapena da, eboluzioa, gizartea aurrera doa eta saihestezina da. Aldaketak oso azkar doaz eta ez zara konturatu ere egiten, sartuta gaude eta atzera ezin duzu egin: hori da.

Denboran dagoen gauza bat da, ezinbestekoa, denborak ekarriko du, datorrena dator osea que ongi etorria... (ET.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

Ezin da gelditu, aurrera eta aurrera doa: “Y no sólo es que no se pueda parar, es que como no avances con ella te quedas desfasado, te quedas atrás y no puedes competir ni en el mercado laboral ni en ningún sitio. O evolucionas con los tiempos o mueres (...) O te vas renovando o te quedas obsoleto”. (ET.3: Lan-harremanetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

...eta ez bazara sartzen alperrik, dana holantxe montatuta daukazu eta... ez daukazu beste aukerarik. (HT.9: Magisteritzako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Ondarroa, Lekeitio eta Azpeitia.)

Aurrerapen edo eboluzio horien motorra aldaketa teknologikoa da. Diruaren eta interes ekonomikoen arabera mugitzen den aldaketa teknologikoa. Baina guk ere aldaketa teknologiko horien onurak jasotzen ditugu; zure web orria egin dezakezu, adibidez. Bultzatzaileak eta gidariak agintzen dutenak dira, boteredunak, Estatuak eta politikariak. Horiek kontrolatzen dute eta nahi dutena egiten dute. Goian dauden horiek hartzen dituzte erabaki garrantzitsuak. Guk ezin dugu ezer egin, gu hemen gaude, itzaroten; ia zer gertatzen den globalizazioaren kontu horrekin. Bakoitza bere inguru hurbilean bai, baina orokorrean ezin da ezer egin:

Detrás de todo esto está, por suerte o por desgracia, la rentabilidad económica. La economía es al final la que mueve... en plan altruista se mueve muy poca gente y los que se mueven se los cargan, como el investigador ese... Patarroyo. No me parece que debiera ser así pero resulta que realmente es así, y es lo que al final está consiguiendo cosas buenas,

avances, ventajas como las vacunas, etc... (EP.9: Udaletzeko AZPko langilea. Erakunde sozialetan ez.)

Ez dago bolanterik, eramaten gaituen lekura goaz, zuzendu egiten gaituzte, eurak gidatzen gaituzte. (HT.9: Magisteritzako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Ondarroa, Lekeitio eta Azpeitia.)

Aukera bakarra, beraz, adaptatzea da, jarrera irekia izatea eta asko ikusi parte hartu ahal izateko eta bazterrean ez geratzeko: “Hortik ateratzen bazara... arraroa... eta gainera... sartu beharra bestela...”(ET.5: eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

Hoy en día por muy idealistas que seamos hay que trabajar, hay que comer y hay que agachar las orejas muchas veces, eso está claro, ¿no? Tampoco se puede ser más papista que el papa. (...) Cuando se trata de comer y de trabajar hay que tragar con todo, pero en otros aspectos yo sí creo que se puede hacer presión individual. (HT.11: Kimikako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa, Igorre eta Bermeo.)

La respuesta es adaptarse porque sino te quedas al margen. ¡Hombre! Si yo tengo unas ideas diferentes me puedo juntar con otros e intentar hacer algo, pero creo que al final es inevitable, pero bueno, por intentarlo... (ET.3: Lan-harremantako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

Badaude kontra egiten dutenak baina ez dute ezer lortzen datorrena saihestezina delako: “a esa gente tú le miras como un bicho raro... ¡también hay gente que se va al monte y vive de ermitaño y dices, mira ese loco, dónde va!” (ET.3: Lan-harremantako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

C. Giza egintza eragilea eta partaidetza kolektiboa: norberak bere esparru hurbitan eraman ditzake gauzak modu batera edo bestera. Hortik aurrera ONGak eta... ondo daude baina ezin zara gehiegi fidatu.

Norberaren esparru hurbilak oso garrantzitsuak dira eta eguneroko bizitzan gauza asko egin daitezke (etxean, lanean,...). Pisu asko uzten da partiduetan eta sindikatuetan... momentua da norberak bere esparruan lan egiteko, horrekin nahikoa dauka eta. Zertan egon behar gara ez dakit non eta ez dakit zertan, eragile zuzena izan behar gara geure etxean, esparru txiki horiek oso garrantzitsuak dira: “Nik pentsatzen dut lan pertsonala dela bidea, eguneroko gauza konkretuetan eta ingurukoekin batera, pausu txikiak emanez gure harremanetan eta gure jokatzeko moduan. Txiki, txiki horiek azkenean... horrek ere engranaje bat sortzen du”. (ET.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

Bakoitzak bere gauzak ditu, lanean, etxean,... Bakoitzak ikusi behar du, ez da inork inori esateko sartu hemen edo han. Zergatik sartuko den edo ez bakoitzaren esku dago. (HT.9: Magisteritzako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Ondarroa, Lekeitio eta Azpeitia.)

Norberak bilatzen du bere ongi-izatea eta bere inguruko ongi-izatea eta, hortik aurrera, zabalduz doa... ez da beharrezkoa herrialde urrun batera joatea arazoak konpontzeko; arazoak hor daude eta Estatuak saiatzen dira soluzioak bilatzen, hori bai arazoak oso larriak direnean bakarrik.

Nik hainbeste arazoen aurrean egiten dudana da ez ikusi, ezer ez, eta telebistan ikusi eta uff! Ez dut ikusi nahi. (ET.5 : Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

Erakunde sozialetan antolatzeko, oro har, jendea ez da mugitzen; jendea oso eroso da, eroso eta ezkorra, ez du uste ezer lortu daitekeenik; gainera norberari tokatzen ez bazaio ez da mugituko: “Hasta que no lo ves un poco más de cerca, yo creo que es eso: ¡baaah eso les pasa a los demás!, no te influye... ¿Qué es esto de la globalización? A mí me da igual, yo voy a seguir igual, mi trabajo, mi casa, la gente que me rodea, a mí qué más me da lo de... (...) La gente piensa que bastante tiene con lo suyo”. (ET.3: Lan-harremanetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

Parte hartzen dutenak egingo dute zuzenean eragiten dielako, jendeak ez du gaitasunik konprometitzeko zuzenean eragiten ez badio. Jende gaztea bai, lotura eta konpromiso gutxiago dituelako.

Jendeak kontzientzia hartuko balu bai, borrokatuko daiteke eta gauzak lortu ere, baina oso arraroa da... bakoitzak bereari begiratzen dio eta jendea ez da ezertarako elkartzen, jendea oso komodoa da: “La sociedad no es lo que era antes, la gente cada vez va menos a las manis del 1º de mayo. Todos vivimos en el mismo nivel económico, la sociedad se está anquilosando, haciéndose más cómoda, ya no es lo que era antes, nos vamos haciendo más cómodos y nos vamos despreocupando de ese tipo de problemas. Está la gente más implicada, el tema de las ONGs, o con más conciencia social que sigue participando, pero son los menos...” (HT.11: Kimikako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa, Igorre eta Bermeo.)

No te unes ni para cosas cercanas, que no se hagan contratos basura... la gente no se une, ¡que luce otro!, pues lo de la globalización, ¿qué es eso? Son marcianos o así... no te entiendes con los de tu escalera como para... (ET.3: Lan-harremanetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

Talde eta mugimendu sozialetan ari direnak horretan sinisten dutelako egingo dute. Badago horretarako joera duen jendea. Era batera pentsatzen dute eta prest daukete azken bururaino eramateko. Gero badaude asko eta asko beraiek ondo sentitzeko egiten dutela: “Yo sinceramente creo que no lo hacen por los demás, creo que lo hacen por ellos mismos, para sentirse bien porque están ayudando a los demás. ¡Hombre! Hacen un favor a los demás, por supuesto... pero, en realidad, ellos se sienten realizados”. (HT.11: Kimikako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa, Igorre eta Bermeo.)

Gobernuz kanpoko Erakundeen kontu horrekin... kontuz! dirua askotan ez da ailegatzen eta asko politizatuak daude. Gainera, hirugarren mundura joaten direnak baliu zaie haiei, pertsonak bezala hasteko eta beste gauza batzuk ikusteko; han behar dutena dirua da gehien bat, zeren haiek daukaten euren kezka eta guk geureak baina maila ezberdinetan.

Talde eta mugimendu sozialek ez daukate benetako boteririk, benetako aldaketak egiteko politikan sartu behar zara, politikan ez bazara sartzen ez zara ezer, eta politi-

ka oso ustelduta dago. “Participar sirve si es un grupo poderoso, si es muy grande o de gente poderosa, entonces sí, pero sino no sirve para nada”. (HT.7: Lanbide Heziketako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

¿Participar? Sirve para dormir bien por las noches. (...) Yo creo que hay gente de todo, hay gente que está sólo para decir que está y gente que está porque cree que tiene que estar, pues para intentar que sus ideas se oigan. (HT.7: Lanbide Heziketako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

Participar sí me gustaría cuando tenga más tiempo libre, no es excusa porque si quieres priorizas, ahora tengo otras prioridades. Pero estaría bien por estar un poco más en la actualidad y para mantener el espíritu crítico, que haya opciones críticas positivas a todo. Aunque creo que terminaría quemándome porque a veces te llevas decepción, no es realmente lo que tú esperabas. (HT.5 : Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

4.2. Ezintasunaren diskurtsoa

A. Aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko pertzeptzioak: dena dago ekonomiaren menpe, oreka galtzen ari gara eta ezberdintasunak gero eta handiagoak dira.

Gaur egungo aldaketarik nabarmenenak teknologia eta zientziaren munduan geratzen ari dira; sekulakoa da, ikaragarria, gehiegizkoa: internet, posta elektronikoa, medikuntzan dauden aurrerapenak,... Ez dizu asimilatzeke denborarik ematen, dena doa oso azkar, dena oso eskura eta oso erreza, badirudi internet barik ezin duzula ezer egin, edozer gauza topatzeko edo egiteko baliabide horiek behar dituzula. Informazio pilo bat eskura dezakezu oso denbora txikian. Baina horrek dependentzia eta desoreka berriak sortzen ditu; etengabeko joan-etorria, estresa, galduta bezala ibiltzea, naturarekiko eta norberaren inguruarekiko zegoen lotura etetea...

Dena doa oso azkar, eramaten zaitu:

Funciona todo a una velocidad tan grande... hoy se inventa esto y mañana está obsoleto, el futuro parece una especie de vorágine, parece que te está cayendo por un precipicio y no acabas nunca de llegar, cuando vas a llegar siempre hay algo nuevo. (HT.2: Unibertsitateko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo eta Erandio.)

Todo es muy rápido y muy global. El ámbito ahora es todo, es global. No hay otra cosa que mercado, ya no hay utopía, no hay nada, sólo mercado. Sólo hay una economía y una ideología: vender y neoliberalismo, vender y llegar a más mercados. El único fin es el mercantilista, todo conduce a eso, al consumismo. (HT.2: Unibertsitateko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo eta Erandio.)

Bizi-erritmoa izugarri azkartu da. Denbora gutxitu egin zaigu eta denborari etekin bat atera ahal izateko para barik gaude, ez gara geldirik geratzen; lehenengo helburua zehaztu eta gero horretara ekin. Zentzu horretan, zer nahi dugun hobeto jakiteko gaitasuna irabazten ari gara, denboraren premia horrexegatik, baina,aldi berean, jokamolde ekonomizista gero eta zabalduagoa dago; gauzak egitea zerbaiten truke eta ez gauzak behar bezala egitea, ondo egitea. Arlo guztietara zabaltzen ari da gauzak

oso modu neurtuan, helburu programatiko jakin batzuekin eta ebaluazio zehatz batekin egitea: “Ekitea ez da bide eta helburu, baizik eta bidea beste helburu baterako”. (ET.5 : Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

Horrekin loturik, lanaren munduan arrakasta izateko obsesioa ere zabaltzen ari da. Indibidualismoa, lan asko eta aisialdi gutxi.

Kontsumoarekiko gehiegizko joera ere oso nabarmena da, komunikabideen bidez zabaltzen den mundu idilikoa kontsumoaren bidez bete nahi da. Dena egina ematen zaigu eta ez dugu sortzen, aukeraketa bat egiten dugu: hau daukagu eta beste hau hartzen dugu. Zentzu horretan, umeengan, sormen falta antzematen da, baita konpetibitatea eta taldean lan egiteko zailtasunak ere.

Guzti horren aurrean gauza txikiak egiten ahalegintzen gara baina zalantzazkoa da hori egiteko aukera daukagun: “gizartearen gurpilaren indarra oso fuertea da, gauza txikiak egiten baditugu ere... gurpilaren indarra handia da”. (ET.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

Gertatzen ari diren aurrerapen guztiak oso interesgarriak dira, oso positiboak izan daitezke eta abantailak ekarriko dituzte, baina logika ekonomikoaren arabera soilik bultzatzen badira jende asko kanpoan geratuko da. Enpresa handiak eta herrialde aberatsak gero eta aberatsago baina pobreak gero eta pobregoko.

Globalizazioak ere joera hori dauka, botere gehien daukatenak gainera ipini eta txikiak ez daukate horri aurre egiteko gaitasunik. Munduko ekonomia gero eta batuagoa eta pentsamendua ere batuagoa, berdintze-prozesu bat nortasunen galera ekar dezakeena. “Niri, kulturaren arloan, globalizazioa ez zait ondo iruditzen...horrenbeste ingelesa, horrenbeste garrantzia, horrek beste guztia tapatzen dau... aberastasuna galdu. Alde onak eukiko dauz baina alde txarrak be bai.. txikiak igual desagertu eta handia handiago. Herri bakoitzaren aberastasuna ezin da galdu, denak globalizatuko bagina ez zen egongo bariedaderik”. (HT.9: Magisteritzako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Ondarroa, Lekeitio eta Azpeitia.)

Uniformización de todo, todos bajo el mismo patrón, todo llega a todos los sitios, no hay rincón que no se quede sin explotar económicamente. (...) Las multinacionales son tan grandes que es lo que más miedo da, se están creando cosas que... como en los comics de los años 80: el mundo gobernado por las corporaciones. Una multinacional está por encima de los estados y como aquí lo que vale es todo por la pasta... poco a poco... ¿Qué manera de control tienes? (HT.2: Unibertsitateko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo eta Erandio.)

Bestaldetik, polita da gizaki guztioi berdintzen gaituena indartzea, teorian oso polita: toki guztietako informazioa izatea, zientziaren aurkikuntzak, bizitza errespetatzea, emakumea, pertsona gutxituen eskubideak... Horren aldeko aldarria ondo dago, kontra ez dago argumenturik, baina praktikan eta ondorioetan ez da hori ikusten; alderantziz, gero eta gaixotasun gehiago, gero eta gose gehiago, gero eta pobre gehiago... Osotasuna hartuta, ez da ikusten hainbeste aurreratu denik edo jendearen bizimodua hobetu denik: “Alde batetik, horren aurrean ezin dugu izan halako jarrera

itxi bat zeren alderdi onak baditu, saia gaitzen horiek gauzaten. Beste aldetikan, aipatu ditugun zalantza edo arazo horietan (gosea, gaixotasuna, gutxiengoaren errespetua,..) egin beharko duguna da adi egotea”. (ET.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

La globalización no significa que todos compitamos en igualdad en un mercado abierto y mundial, porque los que tienen la llave tienen más posibilidades, se les abren más puertas. La globalización sirve para abrir mercado y para que los que tienen poder económico lleguen a sitios donde antes no llegaban. Los poderosos son más poderosos gracias a la tecnología. Se abre más la brecha, la diferencia. En parte la globalización esconde lo mismo de siempre. Todo está disfrazado. (HT.4 : Udaletzeko teknikariak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

Las clases dirigentes y los empresarios de las grandes multinacionales poco a poco han ido implantando sus ideales en todo el mundo. Al final lo que buscan las empresas es la rentabilidad, eso está claro. (...) Lo que mueve al mundo es la economía, los intereses económicos, que siempre van ligados a los intereses políticos. (HT.11: Kimikako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa, Igorre eta Bermeo.)

Arazoa da, beraz, globalizazio-prozesuaren atzean ekonomia dagoela eta ekonomiak ez du bihotzik, handiak txikia jaten du. Egongo balitz printzipio etiko sendo bat, baina ez dirudi halakorik dagoenik, ez da errespetatzen kultura txiki eta minorizatuen bizi beharra, norberaren eskubideak. Kontua da aurrerapen hori guztia zein helburu eta printzipioekin erabiliko duten boterea dutenek. “Todos los avances son como muy interesados, veo más el lado negativo que el positivo, aunque podría ser superpositivo. Que va a traer ventajas es evidente, pero para todo el mundo... eso ya... para las multinacionales sí, va a ver muchas más ventajas ahora”. (HT.5 : Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

Sí habrá más recursos para solucionar los problemas, pero si no hay voluntad... Hasta ahora no la ha habido y recursos sí que había. No lo veo claro, se utilizan para otras cosas más que para usos como el trabajo de ONGs o el reparto de alimentos, no veo claro que haya voluntad decidida. (HT.4: Udaletzeko teknikariak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

Habrà más recursos pero no sé si se van a utilizar para mejorar las cosas o sólo se está mirando la parte económica. Las vacunas no están llegando a África, la globalización no está favoreciendo al Sur todo lo que debería favorecer. Yo creo que se pueden acrecentar las desigualdades entre ricos y pobres porque no hay igualdad de oportunidades ni de acceso. (EP.9: Udaletzeko AZPko langilea. Erakunde sozialetan ez.)

Eskura izango dutenentzako abantailak ekarriko ditu, baina besteentzako desabantailak. Dena den, abantailak eta bizimodu hobea gauza bat da eta zorientasuna beste bat. Aurrerapenak eskuratu ahal izango dutenak bizimodu erosoagoa izango dute, erositasun gehiago: lehen ezin genuena egin orain bai eta azkarrago. Baina bizimodu hobea zorientasunagoa izatea da eta horretan atzerantz goaz; gero eta estresatuagoak, antsia gehiagorekin, oreka galduta, erreferentzia falta-edo.

...es lo que te digo, es que es la aceleración a todos los niveles, vamos. Es que mires por donde mires, las cosas es que están cambiando con una rapidez terrible. A veces dices: yo me voy a meter en algún sitio y que me dejen en paz, porque parece que estoy en una ca-

rrera de fórmula-1. Veo pasar las cosas tan rápido, tan rápido, tan rápido que estoy como si estuviera metida dentro del coche. Veo pasar las cosas tan rápido que no me da tiempo a parar y pensar un poco profundamente en los cambios que está habiendo. Estoy pasando porque tengo que pasar, pero nada más. (EP.7: Unibertsitateko AZPko langilea. Erakunde sozialetan ez.)

Cualquier día nos presentan al diablo y nos reímos de él: ¡mírale qué guay que va vestido! No nos importan nada los sentimientos de las personas. La gente está muy sola. La gente te cuenta su vida en el autobús porque está muy sola y necesita hablar. Y eso es lo que está pasando, que nos estamos quedando solos, estamos rodeados de gente pero estamos solos. (HT.7: Lanbide Heziketako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

B. Gizartearen produkzioa eta gidaritzza: interes ekonomikoek agintzen dute eta ezer gutxi egin dezakegu horren aurrean, soilik Gobernuz kanpoko erakundeetan dugu aterpe.

Globalizazioaren bultzatzaile nagusia ekonomia da, ekonomia eta multinazionalak. Beti bilatzen dena da ekonomia eta teknologia mailan gu baino gehiago denarekin homologatzea, Europarekin homologatzea, gobernuek ekonomiaren lehiakortasuna jarraitu behar dute, ekonomia mailan lehiakorrak izatea; motorra, beraz, ekonomia da. “Controlable desde una alta esfera parece que no, pero desde el punto de vista económico es controlable desde la gente que tiene el poder económico: los bancos, grandes empresas,... Pero controlable... no creo que sea muy controlable, va un poco desbocado, se va a rienda suelta...” (HT.2: Unibertsitateko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo eta Erandio.)

Los gobiernos están viendo pasar el tren, intentando subirse con medidas legislativas. Lo que mueve es el mundo empresarial, la economía, el dinero. Unos por sacar sus productos y otros por no quedarse fuera, aislados, y tener que cerrar. (HT.4: Udaletxeko teknikariak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

No hay ni política ni religión. Dios es el dólar. Todo por el dinero y luego se le pone una vestidura. (HT.2: Unibertsitateko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo eta Erandio.)

Nosotros no lo podemos controlar, los que tienen el dinero mueven el cotarro. (HT.11: Kimikako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa, Igorre eta Bermeo.)

Controlan los que tienen el dinero y el poder, que siempre van juntos, los demás tenemos un control escaso, no se puede hacer mucho. (EP.7: Unibertsitateko AZPko langilea. Erakunde sozialetan ez.)

Gizartearen beste arloak ere ekonomiak markatzen duen norabidepean daude:

El quién lo marca la economía, que está dominada por los poderes que está dominada, y eso produce un motor también en la cultura que al final te acaba... El acervo cultural se va perdiendo, está ganando lo que viene respecto de lo que aportamos. (...) Nos va absorbiendo, nos absorbe más, nos arrastra, como que tienes que ir a contracorriente sino quieres que te inflencie tanto esa globalización. Si te dejas llevar, pues nada... (HT.4 : Udaletxeko teknikariak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

Oso zaila da korrante horren kontra joatea, kultura horrek eramaten zaitu, konturatu orduko sartuta zaude, berandu da. Horrexegatik, ezintasuna eta erosotasuna nagusitzen dira: “La gente cada vez está más perdida, no sabe lo que quiere, vas como en una marea, una marea humana. (...) Nos hacemos cómodos, muchas veces entras en una rueda: lo hago así porque siempre se ha hecho así, para qué me voy a molestar si esto es más cómodo. O empiezas, pero como ves que es complicado al final lo dejas... hay bastante comodidad e impotencia”. (HT.4: Udaletxeko teknikariak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

Kontrazio batean gaude: alde batetik, gero eta jakitunago gaude ze errealitatea daukagun mundu osoan, ondo dagoena eta txarto dagoena. Errealitatea hobeto ezagutzen dugu, informazioa badaukagu baina ezintasuna ia maila berekoa. Ezintasuna eta boterea hain konzentratua... Ikusten hasita, hainbeste arazo ikusten ditugu, ez dakigu non jarri, zertan lagundu, zertan hasi, zertan... Bi sentimendu horiek nahasten zaizkit niri, informazioa bai baina ezintasuna gero eta handiagoa. (ET.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

Igual que en cualquier cosa, no sólo en el tema de la globalización, el que tiene más poder es el que está arriba, y por mucho que te juntes abajo no puedes hacer nada. Normalmente pasa con todo, con todo... no hay capacidad para nada porque el que tiene dinero está encima. (HT.7: Lanbide Heziketako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

Abiadurak eta inertiak eramaten zaitu, gauza pilo bat eskuetatik joaten zaizkizu, erabaki askotan beste aukerarik ez dagoela dirudi: “Sí, sí, en cantidad de decisiones es que no tengo otra opción, no puede ser de otra manera, me gustaría que fuera de otra manera pero...” (HT.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

C. Giza egintza eragilea eta partaidetza kolektiboa: gizartearen gurpilaren indarra oso fuertea da, eramaten zaitu. Talde sozialak laguntzea da geratzen zaiguna.

Gure esku ezer gutxi dago, gauza txikiak. Zure inguruan bai, baina orokorrean ezin da gauza askorik egin. Egin beharko genuke baina individualismoa oso fuertea da, individualismoa eta erosotasuna. Individualismora eramaten zaitu sistema honek, bakoitza bere ganbara zaintzera eta salbuespen batzuk kenduta (gubernuz kanpoko erakundeak eta beste taldeak) gero eta gutxiago antolatzen gara.

Me interesa influir en mi entorno próximo. No me gusta que me clasifiquen y aquí con la situación que tenemos enseguida te clasifican. Yo no quiero tener más problemas que los que me da la vida. (...) Habría que cambiar muchas cosas, ¿quién no ve cosas que habría que cambiar? Pero como no veo muy claro que se puedan cambiar de forma efectiva prefiero dedicarme a... ¡Ves! Yo también soy individualista, prefiero dedicarme a lo mío y que otros peleen por mí. Una postura cómoda y un poco hipócrita. ¡Qué le voy a hacer! Cada uno es como es. (EP.7: Unibertsitateko AZPko langilea. Erakunde sozialetan ez.)

Los de los 60 ya se nos adelantaron, lo ocuparon todo. No nos han dejado nada. A mí me han discriminado en el trabajo por ser mujer, pero ya no se da mucho. Luego, si me quito el sujetador, me lo quito, y nadie me va a decir nada, ¿me entiendes? (HT.7: Lanbide Heziketako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

¿A nivel de ideas? Yo me siento idiotizado, cada uno nace libre y luego te hacen tonto, la tele te idiotiza, todo el mundo intenta controlarte. (...) Es que hay pocas cosas que podamos hacer. (HT.7: Lanbide Heziketako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

Gizarte mailako taldeek eta gobernuz kanpoko erakundeek presioa egiten dute, hori dirudi aukera bakarra, talde horiek laguntzea; helburu altruista horiek bultzatu eta aspektu positiboak bilatuz gauzak beste era batera berbideratzea. Garapen ekonomikoa bai baina gai sozialei eta ekologikoei lehentasun gehiago emanez, bestela eredu iparamerikarrera jotzen ari gara eta asko galduko dugu, dena pribatizatua: dirua daukana ondo, besteak hor konpon.

Politikariek boterea lortzea beste helbururik ez dute, gainera errepresentazio-sistema honen bidez dena uzten da beraien esku. Politikaren munduan boterea oso kontzentratua dago, oso biziata dago: “A las cúpulas sólo les interesa el poder, no hay movilidad, todo es muy estrecho, muy estancado, el militante de base no pinta nada”. (HT.2: Unibertsitateko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo eta Erandio.)

Betiko partidu eta sindikatuei boterea mantentzea helburu bihurtu zaie, orduan kanpooan gaudenok mareatuta gaude, ez diegu sinisten. Orduan oso irtenbide zaila ikusten dut... Konfidantza galdu egin dugu. (ET.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

A nivel global las posibilidades de que las cosas cambien son poquísimas, no se está ayudando a los países que más lo necesitan, hay algo que no funciona. A nivel de ciudadanos no tenemos mucho que hacer, te refugias en las ONGs. (EP.9: Udaletzeko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez.)

Tendría que surgir algo alternativo a la política y a la economía, movimientos de consumidores u otras asociaciones que puedan influir en la política y la economía sin meterse dentro. Es la única forma de mover un poquitín, de salirse de la norma marcada e intentar algún cambio. (EP.9: Udaletzeko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez.)

Gehiengoaren ongizate soziala zaindu beharra dago: hezkuntza, osasuna, jubilazioak,... Gizartean gero eta elkarte gehiago ari dira sortzen (kontsumitzaile-elkarteak, auzo-elkarteak, gobernuz kanpoko erakunde pilo bat...) hori oso positiboa da, positiboa eta beharrezkoa. Beharbada, garai batean baino mugimendu eta militantzia gutxiago dago, eta egiten dena ezer gutxi da egin beharko zenarekin alderatuta, baina dagoen apurrari ezin diogu bizkarra eman, lagundu behar dugu.

Horretan sinistu behar dugu, badakigu ez dela perfektua eta pertsonak tartean daudenean dana ez dela garbia eta birtutea, baina dagoen bakarra da. Gainera kontzientzia mailan lorpen politak lortzen ari dira, ekologian edo emakumearen gaian, adibidez. Gaur egun programa politikoetan horien inguruko aipamenik sartzen ez duenak jai du.

Talde eta mugimendu horietan parte hartzen dutenak txapela kentzeko modukoak dira, egin beharrezkoa eta ezkerrezkoa. Miresgarria da daukaten borondatea, pazientzia eta, eragozpen guztien gainetik, horretan jarraitzeko gaitasuna. Hori da gizartean eragiteko bide bakarra: GKE-k egiten duten presioagatik laguntzen da larrialdi humani-

tarioetan. Parte hartzen dutenak horretan egongo dira kontzientziagatik eta inguruan daukaten jendeak horretara eraman dituelako, inguruak eragin handia dauka.

La gente se mete en eso porque quiere mejorar las cosas y cree que con ese trabajo lo va a hacer. Gente inquieta y comprometida, gente con ganas de cambiar que está dispuesta a hacer un sacrificio para intentarlo. Gente dinámica, inquieta. (HT.4: Udaletzeko teknika-riak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

Gazteago zarenean pentsatzen duzu gauza horiek aldatzea errazagoa izango dela eta gero konturatzen zara... eta gehiago pentsatzen duzu zure buruan: banoa ni pixka bat gehiago mimatzera.. Eta gero umeak daukazunean ja ¡imposible! (EP.10: Aldundiko teknikaria. Erakunde sozialetan ez.)

4.3. Itxaropenaren diskurtsoa

A. Aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko pertzeptzioak: gure bizimodu honekin ezin du horrela jarraitu, ez da eutsigarria eta desorekak gero eta ebidentekoak dira.

Gizartearen egungo aldaketa-joerak teknologia berrien eskutik datoz, informazioaren teknologia horiek aukera interesgarriak dituzte baina arrisku nabarmenak ere: alde ona da interrelazio gehiago egotea eta munduan gertatzen diren gauzak lotuago ikustea hemen gertatzen denarekin; arriskua litzateke hainbeste informazioarekin munduan dauden arazoetatik saturatzea. Dena den, antzematen den joerarik argiena da herrialde aberats eta herrialde pobreen artean dagoen haustura, diferentzia gero eta handiagoa da. Eta errealitate horretatik kontzienteagoak izateak elkartzaren nola-baiteko berpizte bat ekarri du:

Quizás al hilo de lo que tú has dicho ¿no? Que es un poco el despertar de la solidaridad, de la sociedad civil y de las ONGs que parece van..., pues que diez años para aquí pues hay un *boom* ¿no? Que bueno, que otra gente que lleva muchísimos años en este tipo de cosas pues bueno, pues ha estado sola ¿no? Y parece que hay un *boom* ahora de solidaridad ¿no? Y un *boom* de solidaridad que, a la vez, pues tiene muchas cosas: la intervención de la administración, el norte-sur... Y a la vez lo que tú decías ¿no?, un olvido rápido de las cosas ¿no? Eso, hay un Mitch, hay un Mozambique, los medios de comunicación, las televisiones, las guerras en directo, catástrofes, pero al quinto día ya se ha olvidado todo ¿no? Al quinto día se ha olvidado todo. Y somos muy solidarios y nos rascamos todos el bolsillo y hay campañas de todo tipo. Pero si los medios de comunicación no están encima, pues, es una noticia más. Y lo otro, pues eso ¿no?, el despertar un poco de la información: las guerras en directo y la globalización de todo ¿no? Pues efectivamente estás al día en todo ¿no?, porque cualquier cosita, cualquier asunto que sucede en cualquier parte del mundo, pues en cinco minutos lo tienes ¿no? (HT.1: Jaurilaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

Dena den, jendea oso sartuta dago bere gauzetan, indibidualismoa oso fuertea da eta erosketa-ahalmen gehiago badago ere jendea ez da zoriontsuagoa: “¡Hombre! Yo creo que en términos micro, en términos micro, la gente no va a ser más feliz por todo

eso. O la gente, de hecho, ahora no es más feliz que hace no sé cuántos años ¿no? Tienes más posibilidades económicas, más poder adquisitivo para conseguir cualquier cosa. Las familias, las que pueden, tienen dos trabajos, trabajan fuera y tal. Yo creo que eso tampoco, a nivel micro, concede más felicidad ¿no? A nivel macro, pues sí, bueno. Yo creo que, lógicamente, la mayor posibilidad de comunicación y de, y de..., y de acceso a la educación, la sanidad y todo eso, pues ¡hombre! Es intentar conseguir lo que siempre ha querido el ser humano ¿no? Pues ser más feliz. Y en términos macro, es posible que tenga más condiciones para hacerlo. Pero yo no veo a la sociedad actual, a pesar de tener muchos más avances de cincuenta años para acá, porque de cincuenta años para acá se ha avanzado más que en quince siglos, pues que la gente sea verdaderamente más feliz ¿no? Yo creo que es lo que se percibe". (HT.1: Jaur-laritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

Globalizazioarekin argiago konturatzen gara nolako suertea daukagun jaio garen tokian jaiotzeagatik, Afrika hortxe bertan baitago eta ez dugu ezer egin batzuk han jaiotzeko eta beste batzuk hemen. Baina, geure gizartean izango dituen ondorioetaz, oraindik ez gara behar bezala jabetu:

Me parece que en el tema económico es clarísimo. La universalización del tema financiero eso es un elemento clave. Otro es el haber apostado por una descentralización de las cosas y una privatización progresiva, pero, a la vez, estamos en esa misma..., es decir..., no quería repetir globalización sino... Esos mismos elementos de presión pues se han pasado de manos estatales a manos privadas. Quiero decir en la fusión de empresas es un elemento claro que... Si antes nos molestaba un monopolio porque era estatal, pues ahora tenemos exactamente lo mismo pero en privado. Con lo cual, a mí me parece que tampoco se pueden ver hoy claramente los efectos sociales por lo menos en lo que llamamos primer mundo. Están clarísimos en el tercer mundo. Y yo creo que hay mucho análisis y, quizás sea un tema nuestro ¿no?, hay demasiado, no demasiado, mucho análisis de las consecuencias en el Tercer Mundo y poco análisis de las consecuencias aquí ¿no? Porque ¡claro! no son inminentes... (HT.1: Jaur-laritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

Globalizazio-prozesuak dakarrena da hemendik oso urruti egiten diren hainbat gauza oso merke erosi ahal izatea; arropa, adibidez. Baina horren ordaina esplotazioa eta lanaren prekarizazioa da. Elementu positibo bat litzateke gobernuz kanpoko erakundeek bultzatzen duten kanpañei esker multinazional batzuek atzera egin behar izan dute lan baldintzen inguruko kontuetan edo ingurumenaren ingurukoetan. Gero eta lan gehiago egiten da kontsumo arrazionalagoa eta kontzientegoa bultzatzeko, eta horrek modulatu dezake hau guztia nahiz eta oraindik oso eskala txikian agertu.

A mí me parece que la realidad con la que nos enfrentamos es tan brutal que es imposible que nos la oculten por mucho que intenten ocultar y tergiversar. Es decir, la mayor parte del mundo vive en condiciones muy diferentes a las nuestras, y no son mejores (en el sentido material, ¡eh!), eso está tan claro que es imposible esconderlo. Entonces yo creo que siempre va a ver en esta sociedad gente que va a percibir y que a decir que tiene algo que hacer, y lo ideal es que eso ojalá cristalice o cuaje en algo concreto, no? Yo esperanza in-

mediata de cambio sustancial no tengo, aparte de que eso es imposible porque sería un caos y esas cosas, pero una transformación en mejor vía de la que está ahora sí espero, sobre todo por confianza en la gente, yo creo que todos tenemos ese espíritu de decir... a los otros no se les puede machacar... y cuando te das cuenta de que eres tú el copartícipe que estás machacando... pues dices ¡hostias, que es mi responsabilidad! (ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarri eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

Funtsezko aldaketa bat egon da, aldaketa itxaropentsua, lehen gobernuz kanpoko erakundeek oso jokaera karitatiboa zeukaten eta orain gauza gehiago planteatzen dute. Alde batetik, kontzeptu berriak desorekak zer dela eta gertatzen diren argiago ulertzeko; bestetik, gu geu eta geure bizimodua aldatu beharra azpimarratzen da, paternalismotik garapenaren aldeko lana egitera pasatu da.

Es curioso que antes eran las organizaciones revolucionarias las que hacían una crítica más fuerte a las multinacionales y el imperialismo yanqui y tal, ahora esas organizaciones se han diluido y quien hace las críticas más fundamentales a ese gobierno de las multinacionales son las ONGs, esas que dicen que son de caridad y esas cosas... (ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarri eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

Y también, pues bueno, lo que hemos comentado antes de la solidaridad ¿no? El cambio de conciencia que se ha dado. De pasar, antes, de una mentalidad caritativa, teníamos que ayudar a los pobres, a ser ahora... Nosotros tenemos que cambiar. O sea, nuestros valores, nuestra manera de ser, y tenemos que restituir aquellos que les hemos robado. (HT.1: Jaur-laritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

Karitatearekin abiatu zen lana sakondu egin da eta planteamendu berriak sortu dira. Hortik etorriko da neoliberalismoari eta pentsamendu bakarrari bilatu behar diogun soluzioa. Gainera, dena ez da hain negatiboa, badaude aspektu positiboak ere: “Hace que nos unamos más a otras personas ¿no? Pues, por ejemplo, estoy pensando en la coordinadora de ONGs, que ahí estamos todos para que eso vaya tomando fuerza ¿no? Las redes ciudadanas, donde entra gente que..., igual son de izquierdas, pero son gente laica, gente religiosa, gente de diferentes sindicatos, de lo que sea ¿no? Entonces, es un poco para ver el contraste ¿no?” (HT.1: Jaur-laritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

Hortaz, indarrak bildu eta pesimismoa gaindituz, gauzei buelta eman geure buruak irekitzea elkartasunaren alde, etorkinen alde, mestizaiaren alde,... Arazoa da ez dagoela inongo borondaterik gosea, gaixotasunak edo gerrekin amaitzeko; baliabideak badaude baina etekinak ez dira inbertitzen mundu osoan nolabaiteko ongizatea lortzeko. Gu geu ez gara gai hurkoaren alde zerbait egiteko, orduan gobernuek ere ez dute ezer egiten beste herrialdeetako jendearen alde.

Yo creo que la pregunta sería si cada uno de nosotros estamos dispuestos a renunciar para que otros vivan un poco mejor. Si no somos capaces una empresa desde luego no va a renunciar a beneficios para que se desarrolle otra empresa, y los gobiernos igual. (ET.6: Uni-

bertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarri eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

B. Gizartearen produkzioa eta gidaritzza: norberarengandik hasita beste balore batzuk bultzatu behar ditugu, horixe da aldaketaren kokka eta itxaropena.

Joera globalizatzaileak faktore ekonomikoek bultzatzen dituzte, merkatuak eta errentabilitateak:

Yo creo que los factores económicos, de mercado, pues están ahí. O sea, es mucho más rentable a las empresas, a los grupos de empresas, pues ¡joder! globalizar la aldea común, y el mercado único es el mercado único. Es mucho mejor poder llegar a través de los medios de comunicación, Internet o de grupos de empresas de un mercado o de otro a un mercado que es muy jugoso. Y bueno, pues las empresas están para ganar dinero. Eso sí que no lo duda nadie ¿no?... (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

Los que tenemos una conciencia más allá del individualismo y no nos movemos sólo por dinero intentamos transmitir unos valores distintos a... o sea, que esto no es solamente que te preocupes por tu estética o por tu bienestar económico, sino que hay alguien más al lado, ¡coño! ¡Y eso sin caer un poco en lo que había hace años! ¿no?, en el reduccionismo cristiano y demás de los negritos y esas cosas. Lo que habeis dicho vosotras antes, ¿no?, que de alguna forma colectivamente se tiene la creencia de que las diferencias norte-sur que ha habido, pues de alguna forma es devolver al sur lo que de alguna forma les hemos arrebatado, ¿no? Y eso es una conciencia culpable de los que estamos aquí, ¿no? Pero yo sí creo que hay bastante individualismo de todas formas, ¡eh! (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

Oso zaila da zurrumbilo ikaragarrian gaudelako sartuta; burua oso hotza eduki behar duzu garrantzitsua eta hain garrantzitsua ez denaren artean bereizteko, zurrumbilo horrek eraman ez zaitzan, iparra ez galtzeko:

Yo creo que tenemos que ser fuertes, esto no es un pasar, las personas tenemos una serie de valores. La voráGINE nos hace además ser pesimistas, eso me da rabia. Todo el mundo despótica pero no salimos de esa situación: si nos dejamos arrastrar claro que nos lleva la corriente, ¿no? Se trata de empezar a sacar la cabeza para salir. (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

No te puedes ir de ermitaño pero hay que distinguir cosas. (...) Es una cuestión de apertura mental, todo cambia si pensamos media hora al día qué es lo que haces y porqué lo haces. Sin tener que pertenecer a un grupo se puede controlar tu vida, pero eso sí rodearte de gente de tus mismas aficiones... En la medida en que sepas a dónde vas en función de unos valores... (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

Gaur egungo joera ekonomikoek, marketing dela bide, hiper-kontsumo batera eramaten gaituzte, dena kontsumitzen dugu komunikazioa, aisia... eta EEBBetatik datozen ereduak ari gara hartzen etengabe, bizimodu azkarra eta azeleratua eta astebu-

rua heldu arte ez zaude zure familiakoekin, ez duzu atsedena hartzen. Baina, hala eta guztiz ere, sartuta zauden kultura hori ez, beste kultura bat transmititzen ahalegintzen zara:

En nuestro país se están adoptando formas de vida y modelos que de alguna forma han venido de América desde los años setenta ¿no? Y eso, pues lo hemos transformado a nuestro antojo, pero es una forma de vida norteamericana. El pasar el fin de semana en Artea. Cine, hamburguesa y compra en el Eroski. Es una forma pues Norteamericana total ¿no? Y que, bueno, además se ha producido en este país pues muy rápido ¿no? En siete, diez años nos ha venido eso ¿no? Y es una industria y un marketing también, o sea, es un movimiento económico y acercar el ocio al consumismo, y el consumismo es ocio. A la vez que ves el cine comes palomitas ¿no? Y no solamente son las palomitas sino que la Pepsi-Cola la tienes que tomar allí. Y no puedes llevar nada de casa ¿no? Con mis hijos me niego a ir con Coca-Cola a los cines. Llevamos una Coca-Cola de casa en todo caso. Porque allí cuesta 250 pelás, y en el supermercado ... Bueno, y palomitas, no se toman palomitas en el cine. En el cine hay que ver el cine. (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

... Pues tienes que tener la cabeza muy fría, muy fría para que no te pase todo eso. O sea, para saber dónde estás. Para distinguir lo importante de lo que no es tan importante. De saber que vives en una sociedad equis, y que no te puedes ir de ermitaño ya ¿no? Pero sabiendo distinguir cosas ¿no? No perdiendo un poco, pues el rumbo ¿no? Todos vivimos en una sociedad muy rápida, muy acelerada, de descanso los fines de semana. Durante la semana no ves a tus hijos, no ves a tu familia. Pero bueno, a pesar de todo intentas transmitir una cultura distinta a la que estás inmerso el día a día. Yo, por lo menos, la gente que estamos un poco, no sé, más concienciada, o que llevamos en temas que se escapan un poco a tu individualismo, yo creo que intentas meter por ahí algo ¿no?, a tus hijos, a tu familia, a tus amigos ¿no? (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

C. Giza egintza eragilea eta partaidetza kolektiboa: uholdeari eustea eta lan egi-tea, lan asko dago egiteko eta egin behar da, erresponsabilitate hori dugu.

Aldaketaren itxaropena pertsonengan eta talde sozialen koordinazioan ipini behar dugu. Kontsumitzaileak aldaketarako ahalmen handia dauka, dena diruaren arabera bada dirua zertan gastatzen den eta zer egiten duzun eraman ditzake gauzak alde batera edo bestera:

Yo creo que lo importante es la auto-concienciación de cada uno de nosotros, darnos cuenta de que no estamos solos, que hay otra gente que no vive tan bien como nosotros, que somos responsables de lo que está pasando y de la educación que estamos dando a nuestros hijos. (ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarri eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

Aldaketarako erreferentzia hirugarren munduan bultzatzen ari diren garapen proiektuak izan daitezke, beste balore batzuetan oinarritzen dira eta mundua ikusteko eta munduan funtzionatzeko beste modu baten hazia izan daiteke: “Lo que no veo es que sigamos con el mismo tipo de vida que tenemos y que eso sea generalizable a to-

dos, ¿no? (...) Yo creo que se pueden hacer cosas y se están haciendo (cooperativas, comercio justo, experiencias de trueque sin dinero,...) es una vía positiva y pueden ser indicativas de por dónde tirar. Falta un esquema global y eso llevará tiempo, pero sí hay trabajo para hacer y cosas con las que ilusionarse”. (ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarri eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

Pero esa educación y eso que estás hablando para el tercer mundo, también para este mundo, ¿no? Es que igual primero hace falta aquí. (...) Yo creo que al final los movimientos críticos sí van a ir cogiendo fuerza, hace algunos años el tema de la insumisión era como algo aislado y hoy tiene fuerza, es algo que se ha conseguido. O el feminismo, o el comercio justo que aunque sea minoritario a mí sí que me parece que son cosas que van a calar en más gente. Yo estoy esperanzada. (ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarri eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

Partaidetza kolektiboa defendatu beharra dago denok daukagulako zerbait aportatzeko besteen alde. Zerbitzu bat egin dezakezu zerbaiten alde, helburu on baten alde. Gero, gainera, konturatzen zara elkarlanean zaudela talde batean eta hortik asko jasotzen duzula ere:

Yo, mi aparición en mi ONG fue fortuita, a través de amigos que pertenecían. Y al principio, fue una colaboración puntual, y al final es una pasión. Te vas metiendo y vas haciendo poquitas cosas lo mejor que puedes. Y sigues porque piensas que puedes aportar algo, ¿no? desde tu ámbito les das una visión distinta, estás trabajando ahí. En definitiva porque piensas que... porque formas parte de un equipo, de veinte o treinta personas, que estás colaborando con alguien y eso es bueno. Y que es una pequeña parte, o sea, las personas cambian y las organizaciones permanecen. Los que estamos en estos momentos llevamos diez o quince años y después pasa a otras personas, ¿no? (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

Yo creo que la idea de servicio y la pasión por cambiar las cosas, por cambiar el mundo..., al cabo de los años más que transformar mundos transformas personas, ¿no? Ahora me parece que estoy en eso. Pero las personas que situamos nuestro trabajo así, yo creo que la felicidad la obtenemos precisamente en ese servicio. Y no es solamente lo que das sino también lo que recibes. (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

Jende gehienak ez du parte hartzen, ez da gehiago inplikatzeko, oso sartuta bizi delako beraien gauzetan eta errazagoa da betiko eskemak errepikatzea. Egia da elkartasunaren edo kontzientzia kolektiboaren nolabaiteko berpiztea egon dela, baina oso generikoa eta inplikazio pertsonal gutxiakoa:

Sí creo que ha habido un resurgir de la conciencia colectiva. Y yo creo que, de cualquier forma, somos más individualistas. A nivel global, sí hay una mayor conciencia colectiva de cosas, o de solidaridad en términos muy genéricos, de que, bueno, de que lo que antes era dar un donativo ahora lo disfrazamos como un acto más de justicia ¡eh! Pero un acto de justicia. Sin una implicación personal ¡eh! O sea, el huracán Mitch, si hay que dar di-

nero, se da dinero ¡eh! Y si hay que recaudar cien millones para alguien que se está muriendo en tal país, la gente se rasca el bolsillo. Pero yo creo que el movimiento realmente de detrás, de detrás de las organizaciones, y el movimiento de voluntarios, es escaso. Yo creo que la gente no tiene muchas ganas de implicarse en las cosas colectivas. Disponer de tiempo para... (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

A mí, no sé, cuando me dicen en el trabajo: pero tú como presidente de (¿...?) tendrás un sueldo de... Pues en (¿...?) llevo ocho años, voy porque me gusta el tema y sé que puedo aportar algo. El día que no pueda aportar algo. ¿Y dedicas tardes tuyas? Sí, claro. Hay cosas que en una sociedad como la que tenemos hoy en día es difícil de entender ¿no? Se mercantilizan mucho las cosas. La gente se mueve por algo ¿no? Y generalmente se mueve por dinero. Y no sé. Yo creo que todos intentamos de alguna forma pues transmitir a los más cercanos algún tipo de valores distintos a... O sea, que esto no es solamente que te preocupes por tu estética o por tu bienestar económico, sino que hay alguien más al lado ¡coño! (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

La gente piensa en la inmediatez de las cosas, pero hay que pensar un poco más allá, ¿no? Yo creo que la revolución o el revulsivo tiene que ser a nivel personal y familiar o... en el ámbito pequeño. Mientras no eduquemos a los más pequeños de que todo no está permitido, de que no todo es comprable, ni que todo es consumible, pues yo creo que no vamos a hacer nada. Pero a pesar de todo soy optimista ¡eh!, soy optimista. (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

4.4. Aurkakotasunaren diskurtsoa

A. Aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko pertzeptzioak: kapitalismoaren hegemonia, zapalkuntza inoiz baino gehiago ari da hedatzen bizitzaren arlo guztietan.

Botere ekonomikoaren kontzentrazioa eta diruarekiko dagoen menpekotasuna dira azken hamarkadetakoa joera sozialik nabarmenenak.

Merkatuaren logika gizartearen arlo guztietan inposatzen ari da, lan munduaren prekarizazioa da aldaketa nabarmenetariko bat (malgutasuna, segmentazioa, zabor-kontratuak, ETTak,...). Sistema kapitalistaren hedapen basatia gauzatzen ari da eta botere-forma berriak zabaltzen ari dira: ekonomia lehenengo boterea da eta, ondorioz, enpresek hiritarrek baino eragin handiagoa daukate politikan. Enpresen eta Bankuetxen fusioak eta kontzentrazioak, horiek markatzen dute mugimendu politikoa, boterea ez dago politikariengan multinazioetan baizik. Hori erabat barneratua dago, onartua, eta horrexegatik jendea berera doa, indibidualismoa gero eta gogorragoa da. Erosotasunagatik edo beldurragatik, jendearen askatasuna gero eta mugatuagoa dago, inork ez dio aurre egiten horri, alienazioa eta manipulazioa oso fuertea da:

Parece que estamos más libres pero estamos más controlados que nunca. (...) Ese modelo de libertad del hombre occidental blanco, rico, heterosexual, con ese velo de libertad... es

todo un poco hipócrita. La mujer, los homosexuales, los extranjeros tienen los mismos derechos pero sólo si son ricos. (EP.11: Arte Ederretako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.)

Eurok daukiena da gu engainatzeko gauzarik ederrena: ondo egotea, gustora eta eroso egotea diruak ematen duela. Baliabidez eta aparatoz ondo hornitua egotea bizi-kalitate hobea dela... Zorionsua naiz... danok bizi gara engainatuta horrengatik. (...) Zuk esan ez daukazula kotxerik, edo telebistatik edo ez zoazela oporretan, nola ezetz? orduan asper-tuta egongo zara etxean, ez? Guztiz konbentziturata bizi gara horretaz. (HT.3: Irakasleak eta ekonomilaria. Arrasate Euskaldun dezagun (AED). Arrasate.)

Demagogia ikaragarria da eta berdintasunaren oinarritzko printzipioa erabat manipulatua dago, mundu bakar bat egiten ari da baina aberastasuna ez, horretan jendea gero eta separatuagoa, gero eta bereiztuagoa. Paralisia eta desmobilizazioa orokorra da, lana galtzearen beldurrez edota politikagintzan nagusitu den korrupzioaren ondorioz, dezepzioa eta etsipena aurrera doaz. Gauzak deskontrolatzen ari dira geure eskuetatik.

Egia da gizarteak barneratu dituela giza balore batzuk: elkartasuna, emakumearen berdintasuna, beste arrazetako pertsonenganako begirunea,... baina soilik teoria mailan; jendeak ezin ditu praktikara ekarri egiturak markatzen duen bizimodua itogarria egiten zaiolako: 8-10 ordu lan egin, luxuzko produktuak erosi...

Teknologian eta zientzian botere izugarria ari da lortzen. Teknologia ez da neutroa, beste gizarte mota batek beste behar teknologikoak sortuko lituzke; gai bat edo beste bat ikertzen da segun zeinek ipintzen duen dirua. Dena den, aurrerapen teknologikoak ez dira berez txarrak, kontua da nolako erabilpena ematen zaien eta gizarte-sistema honetan erabilpen ez egokia ematen zaio; informazioaren manipulazioa, adibidez, ez inesteko modukoa da, eta kontrola eta zentsura gero eta gogorragoa izango da.

Globalizazioaren kontu hori edo, hobeto esanda, mundializazioarena ez da hain berria, internazionalizazioa eta inperialismoa da, ez dago izena aldatu beharrik. Gaur egungo aitzakia inperialismoa justifikatzeko; merkatu librea, pribatizazioak, politika neoliberalak... Globalizatzen ari da zapalkuntza ekonomikoa, politikoa eta kulturala.

Lo de la globalización a mí me suena muy simple, se da por hecho que al hablar de globalización se refiere a la globalización de la economía capitalista pero se omite que pueden existir otras alternativas de globalización. (...) Yo lo que busco es una globalización alternativa a la que ofrece el capitalismo. A mí que el mundo esté cada vez relacionado entre sí, siempre que eso no suponga una hegemonía de una parte sobre el todo, me parece perfecto; y que se posibilite el mestizaje y el conocimiento de otras culturas me parece bien. Pero tal y como se está concibiendo ahora supone por un lado deslocalización de la economía para que funcione a nivel planetario, y por otro, una hegemonía cultural de EEUU y de la industria que produce EEUU en el ámbito cultural, político y militar. (ET.1: Lan-harremantako ikasleak. BAK, Haika, Gazte komunistak, eta ikasle-sindikatuak. Bilboaldea.)

Globalizatzen da zapalkuntza baina globalizatu daiteke baita haien aurkako borroka (langileak, herri zapalduak,...). Pentsamendu globala izan behar dugu, giza semeak gara eta kutsadura edo injustizia guztion arazoa da. (...) Ideia mailan eskubideen unibertsalismoa

oso filosofia eta pausu intelektual interesgarria da, baina praktika mailan ezartzen dituzte oztopoak. Boteredunek ezarri dituzte mugak: estatuak, gobernuak, sistema elektorala, ejertzitoak, poliziak... (EP.4: Eskolako irakaslea. MOC-KEM.)

Bestaldetik, globalizazioa munduaren perspektiba orokorragoa edukitzeko aukera da, baina badirudi horrekin berdinak izan behar dugula eta hori ez; eskubide berdinak bai, baina berdinak ez dugu izan behar. Gizarte-eredu baten dinamika globalizatzen ari da: konpetenteak eta emankorrak izan behar dugula, zertarako? Ezinbestekoak diruditen gauza horiek edukitzeko: kotxea, etxea, bigarren etxea, oporrrak,... Balore horiek ezartzea eta dibertsitatea galtzea. Kultura minoritarioentzako ez dago bidea egiteko aukera, ez dago eskubide-berdintasunik. Handiak beti jaten du txikia, herri guztien eskubideen errespetutik eta berdintasunetik egingo balitz positibotzat jo daiteke baina gaur egun alderantziz da, sartaiari buelta eman beharko litzaioke.

Lo de la globalización lo veo un poco como en la Edad Media que había un Dios omnipotente y todo eso, pues ahora es lo mismo. Un Dios que es la globalización y tienes que seguir el modelo que te marca, y si te sales de eso no vas a hacer nada en esta vida, castigado por la sociedad y por el mundo. Antes el que no era bueno no iba al cielo, ahora el que no tiene esa competitividad, no se adapta a las modas y no tienen una personalidad fuerte y competitiva... Te meten el miedo al fracaso muy dentro, siempre esa sensación de fracaso que te dan... es el juego del miedo al fracaso. (...) Las multinacionales, ese Dios al que me refería antes son las multinacionales. (EP.11: Arte Ederretako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.)

Inposatu nahi duten globalizazioa, sistema zehatz baten globalizazioa da, ez du bilatzen sistema edo kultura ezberdinen batuketa edo nahasketa, baizik eta kapitalaren kultura mundu osoan zabaltzea (McDonald-aren kultura, kontsumismoaren kultura). Azken finean, kapitalismoaren urrats logikoa da, betiko dominazio berdina merkatu global batean aplikatzea. Diskurtso neoliberalak ezkututzen du gauza garrantzitsu bat, saltzen dituen aukera eta erronka berriak lehenagotik aberatsak ziren %20rentzako izango direla eta beste %80an oso ondorio negatiboak izango dituela. Baina pribilegiatuenak ere ez dira zoriontsuak, sistema honek ez du zentzurik; diru eta botere gehiago izango dute baina lan egiteko bizi dira, estresatuak daude eta, gauza materialei harreman pertsonalei eta afektibotasunari baino garrantzi gehiago ematen zaion neurrian, ondo egotea eta zoriontsu bizitzea gero eta urrutiago.

Dena den, jende gehienak ez ditu gauzak horrela ikusten, neoliberalismoaren pentsamendu bakarrak indar handiz ezarri baita; ideologizatua ez dagoen jendeak bere egiten du diskurtso dominantea eta pentsatzen du hoberantz goazela: “Se parte del presupuesto de que el discurso dominante del neoliberalismo es algo dado y no se puede luchar en contra”. (ET.1: Lan-harremanetako ikasleak. BAK, Haika, Gazte komunistak, eta ikasle-sindikatuak. Bilboaldea.)

La gente está más cómoda que nunca, la gente lo tiene asimilado totalmente y lo que estamos diciendo es el típico discurso de izquierdas bastante doctrinario que la gente no percibe... (ET.1: Lan-harremanetako ikasleak. BAK, Haika, Gazte komunistak, eta ikasle-sindikatuak. Bilboaldea.)

Yo me relaciono con gente que no está metida en estas cosas y no se entera o no quiere enterarse porque se vive muy bien sin saber nada, dicen: ¿Globalización? Pues que todos vamos a tener más dinero, a tener un trabajo... Yo no me considero ese todos, porque serán cuatro empresas, cuatro personas, y los demás medio sometidos, por así decir. (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Nos vende que somos competitivos por naturaleza, como algo inherente y eso es una manipulación, porque hay modelos de sociedades donde eso no es así. Te hacen creer que no hay otra salida y yo creo que por eso nos comportamos así: si esto es una selva, no me voy a jugar el tipo por ayudar a los demás. (...) El problema principal es que con la globalización la creencia general es que se está construyendo y en realidad se está destruyendo. Se tiene el concepto cambiado, yo creo que ahí está la cosa, se cree que se está construyendo y es lo contrario. (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Y lo peor es que es como para aplaudirlos porque llegan a tener a tanta gente engañada y convencida... y si lo discutes con uno te dice “es que siempre buscas tres piés al gato” ¡cagüen diez, que tres pies al gato macho! ¿pero qué quieres? ¿no te los están buscando a ti todos los días? (HT.12: Lanbide Heziketako ikasleak. Gaztetxea eta Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanblada. Barakaldo.)

Erosotasuna eta onarpena bai baina askotan itxurazkoa, izan ere jendea erreta dago lanpostuan daukan seguritate faltagatik edo hainbeste ordu sartu behar izateagatik. Erosotasun horren atzean etsipena dago, etsipenez onartzea egoera hau; depresioak, estresa, lasaitasun falta... orientatzeko gaitasuna galtzen ari da, kanpokoa geure egiten dugu pentsatu barik hori nahi dugun ala ez, horrek gustura uzten nauen ala ez, zoriontsu egiten nauen ala ez. Norbera burujabe izateko gaitasuna galtzen ari da. “Konpetentzia, etekina bilatzea... horrek ez bagaitu zoriontsu egiten zergatik egiten dugu? Pertsonak gauza horietaz jabetzeko eta gidatzeko ahalmena dauka, hori ez nioke inoiz kenduko. Kate hori zergatik egiten da hain fuerte? Hain gaixo gaude eta ez gara gai hortik ateratzeko? Galdu egin dugu superbibentziarako instinto psikologia (paranoiak, estresatuak...)”. (EP.2: Eskolako irakaslea. Ttakun euskal kultur elkarte.)

- Se pierde conciencia de la realidad y añadido a lo del individualismo, no cabe la posibilidad de que las cosas se puedan cambiar para todos, sino que cada uno aspira a mejorar lo suyo.
- Pero además una forma muy desvirtuada de mejorar: una casa de la ostia, unos coches del copón, una casa en la playa y otra en el monte... Yo creo que mejorar es que crezca tu calidad como persona e ir limándote las contradicciones, o eso debería ser...
- Pero eso también es más complicado por culpa de la globalización porque se pierde el control. Tú ahora no controlas todo lo que haces, pierdes el control sobre tu alimentación, sobre lo político (¡el voto ya me dirás que forma de control es!), pierdes el control y pierdes capacidad de actuación también... (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Pasibotasuna da gaur egungo tranpa edo droga: “ezin dut ezer egin”. Geratzen bazara pasibo besteek egingo dute nahi dutena. Ni naizena nire ekintza da, eta ekintzak egingo du nire ideologia, geratzen bazara pasibo azkenean ez zara zure ekintzeen aktore. Globaliza-

zioa haize-bolada ikaragarria da, batez ere ekonomia eta ideologia mailan, inertzia hori jarraitzen ez duenak nekez aguantatuko du, babesak bilatu behar ditu: zeu bakarrik, purista moduan, aguantaezina da, asumitu behar duzu kontradizio puntu bat eta borroka-puntu bati dedikatu. Konpromisoa hartu eta militantea izan. Neurri batean korrente horretan jarraitu behar duzu baina konszienteki nondik datorren, esku gogor hori nondik datorren ikusita. (EP.4: Eskolako irakaslea. MOC-KEM.)

Bestaldetik, gezurra galanta da esatea aurrerapen teknologiko eta zientifikoekin baliabide gehiago egongo direla arazo handiei aurre egiteko. Aurrerapen horiek noren esku geratzen dira?, nork inbertitzen du eta nork ateratzen du etekina? Arazoa ez da ez dagoela elikagairik guztiontzako, edo ez dagoela etxebizitza nahikorik guztiontzako, arazoa da banaketa, gauzen banaketa iraingarria da.

Globalizazioa ez da berez suntsitzailea, oraingo politika, ideologia eta ekonomiak sortzen duen globalizazio-era hau bai. Baina beste ideologia batean egongo bagina baliabideak beste era batera erabiliko genituzke. Oraingo joerak kontrakoak dira, ahalmenak ez dira erabiltzen errekurtsuak hobeto banatzeko, gutxi batzuk hobeto bizitzeko baizik. (EP.2: Eskolako irakaslea. Ttakun euskal kultur elkarte.)

Está claro cuál es la ideología dominante, la ideología que está moviendo el mundo, es la ideología realista y no la idealista. La realista es la que tiene el poder económico, militar, político y de los medios de comunicación. La ideología que dice que el mundo es desigual porque es así, que hay ricos, que hay pobres y no se puede cambiar, y dice que el ser humano es malo por naturaleza. Esa ideología domina todo, también a nosotros aunque no queramos. Si no se cambia esa ideología no se va a cambiar nada y es difícil porque tiene todo, tiene todos los poderes, entonces... (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

B. Gizartearen produkzioa eta gidaritza: guzti honen atzean pertsona eta erakunde zehatzak daude eta aurre egin behar zaie.

Globalizazioak eta sistema honek ideologia bat du abiapuntu, berdin dio momentu bakoitzean goian nor dagoen, boterean, igotzen denak bere egiten baitu ideologia hori. Igotzen denak aurrekoaren gauza berdina egiten du. Egia da ez direla bakarrik goian daudenak geuk ere barneratu dugulako menperatze hori, baina ezin dugu errudun sentimendu hori barneratu eta desaktibaturik geratu. Argi dago guzti honekin badagoela jende bat erantzukizunak dituen eta etekinak ateratzen dituen.

Nosotros en nuestro *esparru* tenemos nuestras responsabilidades y contradicciones, y no somos nada consecuentes en mogollón de cosas, pero no podemos caer en la cosa de que es culpa nuestra porque hay mucha gente con responsabilidades mucho mayores. Ahora nos venden que estamos todos en el mismo barco y que na hay contradicciones totales y sí las hay. Si algún día cambian las cosas será, por desgracia, porque habrá muchos muertos, porque tenemos que enfrentarnos y ellos tienen armas. Sí que tiene que haber una confrontación total con otra gente, otra cosa es que a mí un ciudadano de a pié me diga que es de derechas, yo no me voy a enfrentar a él, yo intento cambiar las cosas intentando que cambie su forma de pensar de X formas. Pero con la gente que hemos dicho que tiene más responsabilidades sí que tiene que haber una línea de, yo contigo ni... ¡yo estoy contra ti! Y eso sí que se ha perdido, a nivel de discurso se nota muchísimo respecto de la época en

la que había dos bloques. Había una lucha y ahora parece que no, ahora hay que cambiar las cosas, algo más abstracto, no queda bien lo otro. Lo que estamos perdiendo es ver claro dónde te posicionas, dónde se posiciona uno. Oyes a partidos y agente ultraconservadora que se posiciona en el centro, ¿en el centro de qué? En el centro de la dominación será... La idea esa de que estamos en el mismo barco, pues no. (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Intentan convencernos de que es algo inevitable y que no hay marcha atrás, quieren imponer esa idea. Yo no sé si es algo que se pueda controlar ahora ya, pero de alguna manera siempre se puede frenar, no creo que sea algo totalmente desbocado. (ET.1: Lan-harremanetako ikasleak. BAK, Haika, Gazte komunistak, eta ikasle-sindikatuak. Bilboaldea.)

Yo sí creo que hay responsables, pero las teorías conspiratorias no me convencen, sí hay gente que tiene mucha responsabilidad en esto, pero creo que la economía mundial se les ha ido de las manos, ahora es un sistema en el que las piezas son intercambiables y si desaparece una multinacional o un organismo se pone otro. Pero sí se puede frenar y echar arena en la maquinaria. (ET.1: Lan-harremanetako ikasleak. BAK, Haika, Gazte komunistak, eta ikasle-sindikatuak. Bilboaldea.)

Kontzentrazio ekonomiko ikaragarria ari da gertatzen eta horrek eraldatu egin dau gure bizi-ohiturak arlo askotan (denda txikiak, zineak,...) hor dago botere ekonomikoaren zera bat eguneroko gauza normaletan. Gaur egun ez da ja BBV bakarrik, orain da BBVA, hori da diferentzia, Neguri gehi A. A hori non dagoen ez dakit baina be bai da. (HT.3: Irakasleak eta ekonomilaria. Arrasate Euskaldun dezagun (AED). Arrasate.)

Globalizazioa ez da zerbait espontanea, faktore asko daude baina argi dago Thatcher eta Reagan hasi zirela Ongizate Estatua desagiten eta Munduko Bankua, Nazioarteko Moneta Fondoa edo OMC bezalako erakundeak etengabe bultzatzen ari direla erabateko liberalizazio hori: “No es algo espontáneo sino promovido, lo que pasa es que también hay un efecto de bola de nieve, el turbocapitalismo, que una vez que entras a competir y estás en pista ya no puedes mantener las condiciones laborales, fiscales o medioambientales que tenías. (...) Pero yo lo veo con riendas, y además no es inevitable, se puede hacer de otra manera, lo que pasa es que se ha llegado a tragar el anzuelo de tal manera que cualquier tesis que diga que no... parece que en este marco, en esta rueda inevitable que nos han metido hay que jugar, ¿no? Y no podemos salir, incluso la gente que plantea alternativas no podemos romper la baraja... pero no es así, la historia no tiene un destino prefijado”. (HT.8: Zuzenbide eta filosofiako ikasleak. Itxaropena Hegoaldean. Bilboaldea.)

De inevitable no tiene nada, los que están en el poder siempre quieren hacer ver eso, proclaman el fin de la historia y el fin de la lucha de clases, pero eso es un truco muy viejo, lo que es nuevo es que se está haciendo a un nivel mayor que nunca. (...) Eso siempre se puede tirar abajo, nada es... no hay nada escrito, así como algo divino, no? Se puede cambiar es cuestión de organización, de participación, que la gente crea realmente que se pueden cambiar las cosas, combatir todo lo que sean modos de autoridad que escalonadamente llegan desde arriba (nueva moneda, nuevo ejército,...) a través de la participación y la organización horizontal que no reproduzca los mismos esquemas que combatimos. (EP.5: Komunikazioko ikaslea. MOC-KEM.)

Mundua hartzen ari den norabidea ez da onartu beharreko eboluzio edo patu bat, baizik eta neurri batean denon esku dagoen asuntoa: “Lo de desbocado y fuera del control de las personas es muy fuerte, es exagerado, yo creo que no. Igual aparentemente sí, pero somos nosotros los que tomamos las decisiones, todos nosotros, no existe un monstruo enorme que funciona por sí solo... al fin y al cabo siempre hay personas detrás. (...) Hay momentos en los que piensas: lo que siento como obligación de acuerdo a mis convicciones es intentarlo, no está en mi mano conseguirlo. Aunque las cosas no van a cambiar de un día para otro, hay que pelearlo, hay que intentarlo”. (HT.8: Zuzenbide eta filosofiako ikasleak. Itxaropena Hegoaldean. Bilboaldea.)

No es un destino que tengamos que aceptar, ¡para nada!, puede que sea una etapa más del capitalismo pero me da igual, no me voy a resignar, una cosa es que sea fruto de un ciclo y otra cosa es aceptarlo, eso es otra cosa. Yo lo que creo es que hay que actuar, no me voy a cruzar de brazos viendo lo que está pasando, no me ponen un muerto debajo de los pies y me quedo tan tranquila. (EP.1: Unibertsitateko AZPko langilea. Bakearen Aldeko Koordinakundea.)

Yo sigo teniendo confianza en la capacidad humana, aunque se dice que los medios de comunicación nos están comiendo el coco, imponiendo una forma de vida y tal, yo creo que al final la capacidad crítica o esa capacidad de revelarnos contra las cosas sigue manteniéndose. (ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarri eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

C. Giza egintza eragilea eta partaidetza kolektiboa: parte-hartzea inertzia dominantei aurre egiteko eta borrokatzeko modua da, gauza aldatzeko dagoen bide bakarra da.

Maila pertsonalean garrantzitsua da ingurune hurbilean eragitea: “no ser un capullo competitivo” (HT.8), eta maila sozialean mugimendu sozialak daude gizartean eragiteko. Batzutan ez da hain erreza pertsonala eta soziala bereiztea:

- La orientación principal es el cambio social aunque no es tan fácil separar lo personal y lo social, no hay una línea, elkarrekin doaz. Elkarrekin egiten duzuz gauzak eta azkenean lagunak ere badira, bestela taldeak ez dute funtzionatzen asetzen ez dituztelako beste gauza batzuk.
- Cuando te acercas a un colectivo te acercas por el cambio social y luego te encuentras con lo personal, lo enriquecedor que es la participación, pero en principio no vas a hacer amigos.
- Yo creo que van más unidos. Yo creo que también hay gente en los colectivos que ves que está sola y que aparece por eso, o gente que está chungu, porque estamos en una sociedad en la que hay mucha gente machacada. Y como el gaztetxe es un asamblea muy abierta y tal..., yo creo que en los movimientos hay gente que se siente sola pero esto lo veo en positivo, sobre todo si luego sirve para algo. (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Mugimendu sozialak tresna ezin hobeak dira beste balore eta bizitza-estiloan bizitzeko eta beste balore eta bizitza-estilo horiek bidea egin dezaten, konkistatu diren espazio libreak dira. Gune liberatu horietan, nahiz eta gora-beherak egon, pertsonak

libreagoak gara eta gustorago sentitzen gara jatorki jokutzen dugulako, maskararik gabe eta interes ilun eta faltsurik gabe. Baina ez dira auto-laguntzarako taldeak, gizarte-aldaketa bultzatzeko gauza asko egiten dira eta, noizean behin, militantziaren fruituak ikusten dira; zure etsai politikoak atzera egiten duenenan konturatzen zara gizabanakoak, kolektiboki jokatzuz gero, badaukala aldaketa sortzeko boterea, txikia baina boteretsua: “Veo que las cosas que se hacen tienen sus resultados, cosas que se daban por hecho, como la mili, ahora se cuestionan. El sentido que tiene para mí la participación es éste, es el camino para conseguir cosas, porque yo luché por conseguir otra realidad, y participar te da argumentos para combatir la injusticia. (...) Más que tener más influencia desearía que más gente se diera cuenta de la capacidad de influencia que tiene, yo tengo la que tiene todo el mundo”. (EP.5: Komunikazioko ikaslea. MOC-KEM.)

El papel de cada persona es vital, el problema es que la gente ve las cosas de color de rosa, tiene una venda. El mensaje machacón de que hagas lo que hagas todo va a permanecer igual, eso paraliza a cualquiera. Luego esta la comodidad del coche y vivir con las orejeras puestas, también la inestabilidad en el trabajo, la gente cree que no puede hacer nada. Tenemos que ver, el hecho de ver nos conmueve y nos mueve, creo ¡eh! porque también me voy dando bastante contra un muro. (...) Me resulta difícil tener esperanza pero sí que hay opciones si desarrollamos la capacidad de unirnos para enfrentarnos a este sistema que nos hace ver que todo es tan maravilloso. (EP.1: Unibertsitateko AZPko langilea. Bakearen Aldeko Koordinakundea.)

Ahora en la juventud mola el cinismo ese de decir que no se puede cambiar nada, es un pose más natural decir eso, si dices que se pueden cambiar las cosas te llaman ingenuo, a veces me lo llaman. Para mí ingenuo es el que piensa que esto es así por naturaleza y no se puede cambiar. (EP.5: Komunikazioko ikaslea. MOC-KEM.)

Oso kezagarria da gazteek erakusten duen indiferentzia eta konformismoa; sistemak berak sortzen dituen jarrerak dira, norberak bere gauzetaz bakarrik preokupatzea, sistemak saltzen duena bereganatu eta gainera konturatu barik. Baina, aldi berean, mugimenduetan parte hartu barik ere gauza asko egin daitezkeela onartu beharra dago: “A mis amigos les interesa el fútbol y el kalimotxo, y son superconsecuentes con eso, es más sencillo para ellos ser consecuente. (...) Ellos son indiferentes a su tiempo y a su momento y a su todo. Mucho más indiferentes que yo. Pasotas, se mueven hasta el punto de que les tocan las cosas, un atentado de ETA, igual se mueven, pero una mani antiglobalización se descojonarían. La diferencia es que... digamos que no tienen ideas... pero en los hábitos no hay tantas diferencias”. (HT.8: Zuzenbide eta filosofiako ikasleak. Itxaropena Hegoaldean. Bilboaldea.)

A la gente de nuestra edad lo que les gusta es la fiesta. Yo tengo una hermana de 20 años que no se interesa por nada, le da todo igual. Estudia porque si no le botan de casa, cuando tiene dinero se va de bacalao, cuando no puede trapichea para conseguir la pasti, no se entera de nada... es increíble. (HT.12: Lanbide Heziketako ikasleak. Gaztetxea eta Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanblada. Barakaldo.)

Yo he relativizado un poco eso, yo creo que a cada cual le mueven pasiones diferentes y la pasión política no es la más extendida. Al principio, en primero, me parecía imposible

que la gente no se moviera por nada. (HT.8: Zuzenbide eta filosofiako ikasleak. Itxaropena Hegoaldean. Bilboaldean.)

Pertsona batzuren kasuan bizitza bera militantzia bat da (gaixoak zaintzen, seme-alabak ondo hezitzen,...) Jendeari ez nioke ezer leporatuko, jende askok nahiko egiten du bere lanean edo bere familian, militatzeko denbora daukagunok beste gauzetan pribilegiatuak gara. Bestaldetik, jendeak ilusioak ditu gaztetasunean, baina gaur egungo erritmoa ez da pertsonarena egestura eta joko inposatutara baizik. Pasibotasuna prozesu baten ondorioa da, adinarekin nagusien pentsamoldean eta betebeharretan sartzen zara eta kontserbadoreago bihurtzen zara. (EP.4: Eskolako irakaslea. MOC-KEM.)

Mugimendu sozialetan aritzea beste bizimodu bat eramateko aukera ere bada; inertzia dominantei aurre egiteko aukera, kontsumismoari eta indibidualismoari aurre egiteko aukera. Horrekin batera, aldiz, batzutan kritikatzaren logika berdina errepikatzen dira (homogeneizatzea, gehiegizko kontrola, kontzientziarik gabe eta inertziagatik jotzea,...).

A mí me parece muy bien si para tirar para adelante necesito creer que todo esto contra lo que luchamos tiene un porqué y le tenemos que dar la vuelta, pero me parece un poco autoengaño. Cuando me dicen pero si no te lo crees para qué haces no se qué, para qué estás en el gaztetxe? Yo milito porque me parece lo correcto, además el argumento de que estaría mejor en mi sofá pasando de todo, no me convence porque no estaría bien conmigo mismo. Además militar no es sólo ir en contra de, sino que en mi militancia entra el preocuparme por las personas que tienes alrededor, yo no quiero la vida estandar que me venden para nada, porque me parece que tengo una opción bastante mejor. (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Lo difícil es ir contracorriente, tienes todas las facilidades del mundo para ir a lo otro. Es lo más difícil pero al final es lo que te mantiene; considero que es mejor, no es que sea un trabajo agotador, sino que me enriquece, soy más feliz así. (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Harremanak ere askoz naturalagoak eta aberatsak dira mugimendu sozialek ematen dizkizutenak. (...) Baina militantziak duen arazoa da jende askok jotzen duela inertziagatik, kontzientziario mailarik gabe. Ni beti ahalegindu naiz konpromiso handiak ez hartzen kontzientzia bat lortu arte eta barruan sentitu arte. Hutsa ez sentitzea, konbentzimendu bat sortu eta ondorio batzuetara iritsi modu sendoan eta orduan horren inguruan eragile bat izan nahi nuen, ez? (EP.3: Ekonomiako ikaslea. Euskal Adarra.)

Yo creo que es muy importante por lo menos estar cerca de los grupos. Dentro de ellos hay veces que es negar tanto lo otro que lo afirmas, un poco de estancamiento, la misma gente siempre, homogeneización,... acaban haciendo lo mismo que critican, otro tipo de control social, círculos que aunque sean alternativos reproducen los mismos mecanismos de control... Al final dices ¡pero si esto es lo mismo que lo otro! (EP.11: Arte Ederretako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.)

Norberak dituen barne printzipioak eta sinismenak dira ekintzara eramaten zaituzten arrazoiak. Zurea den neurrian ezin diozu uko egin, zure buruarekin nolabaiteko oreka izateko eta koherentzia bilatzeko egin behar duzu. “Yo creo que hay gente que hacemos lo que creemos que tenemos que hacer, es lo que nos mueve. Y hay gen-

te que se mueve porque el sistema les ha ganado y en sus corazones la palabra dinero anida con fuerza, y por eso son capaces de menearse y se apuntarán a un sindicato que les vaya a defender la nómina, pero punto. Cada uno tiene unos principios y eso es lo que hace que haga o que no haga. Los que estamos aquí estamos militando, cada hormiguita tenemos que hacer nuestro curro y ya funcionará el hormiguero y si no funciona ¡qué le vamos a hacer! Pero yo estoy obligado por mis convicciones y no puedo renunciar a eso, algo que es intrínsecamente mío”. (ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarri eta Bakearen Aldeko Koordinakunde. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

Parte-hartzea ematen didana da gustora egotea eta nire buruarekin koherentzia minimo bat edukitzea, oreka bat ‘a tortas’ ez egoteko nire buruarekin. Gure taldea erreferentzia txiki bat izatea eta pentsatzea eragiteko ahalegina egiten duzula. Egingo ez banu ez nintzateke gustora egongo. Erantzukizuna daukat nire ideiekin, justizia sozialaren kontzeptu zabal horrekin, horri begira egon eta partaide izan, horri begira zerbait aportatzeagatik ni gustora sentitzen naiz. (EP.2: Eskolako irakaslea. Ttakun euskal kultur elkarte.)

Gauzak hobetzen ez diren bitartean uste dut hemen egon behar naizela. (EP.6: Kazetari-tzako ikaslea. Euskal Herrian euskaraz.)

Gauzak ez dira aldatuko gure militantziagatik baina kontribuzio bat izango da. Guri utzi digutena guk ere mantendu behar dugu hurrengoentzat. (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

5. DISKURTSO SOZIO-IDEOLOGIKOEN INTERPRETRAZIOA AZTERKETAREN HELBURUEN ARABERA

Material enpirikoa oinarritzko lau diskurtso sozio-ideologiko horietan egituratu ostean, eta diskurtso bakoitzak irudikatzen duen aldaketa sozialaren normalidadea (normaltzat jotzen den irakurketa) deskribatu ostean, geure analisiaren hurrengo urratsak izango dira, batetik, geure azterketak zehaztu zituen helburuen arabera diskurtsoak interpretatzea eta, bestetik, diskurtsoen topologia soziala egitea; hau da, diskurtso bakoitza zein espazio sozialetan (praktika- eta harreman-sare zehatzetan) produzitu den kokatzea. Horrekin batera, aztertu egingo dugu oinarritzko diskurtsoen artean zein elementu bateratuak edo gainjartzeak dauden; hala nola, oinarritzko diskurtso bakoitzaren baitan zein posizio diskurtsibo ezberdin bereiztu daitezkeen. Azkenik, guzti horren arabera, azterketaren helburuei nolako erantzuna emango diogun ondorioztatuko dugu.

Lehenengo helburu moduan, geure azterketa honek, aztertu nahi ditu aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko pertzeptzioak; nolako antzemate edo irakurketa ezberdinak dauden eta norainoko lotura daukaten partaidetza kolektiboaren *praxietan* aritzea edo ez aritzearekin. Bigarren helburu moduan, gizarte-produkzioa eta gidaritzea nolako indar ezberdinen esku irudikatzen den aztertea definitu dugu. Azkenik, giza egintza eragileari eta partaidetza kolektiboari nolako interpretazio ezberdinak ematen zaizkion aztertu nahi dugu.

Ikus dezagun, helburuz helburu, oinarrizko diskurtsoen azterketak nolako interpretazioetara eramaten gaituen.

5.1. Aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko pertzeptzioak

Lehengo helburuari dagokionez —aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko pertzeptzio ezberdinei dagokienez— oso jarrera diskurtsibo ezberdinak aurkitzen ditugu oinarrizko lau diskurtsoetan. Ikusi dugun bezala, adaptazioaren diskurtsoa globalizazioaren irakurketa positiboa eta entusiasta da: globalizazioak aukera berriak zabaltzen ditu, irekiagoak bizitzeko aukera ematen du, zurea bakarrik ikusiz ez, besteena ere. Aurrerapen teknologikoa, zientziaren aurkikuntzak eta informazioaren eskuratze zuzena lirateke, adaptazioaren diskurtsoan, globalizazioarekin elkarlotzen diren adierazlerik adierazkorrenak. Joera horiek guztiak modu baikorrean ikusten dituzte, eman egiten duzu eta jaso egiten duzu; ona da eta polita, gehiago aberasten zara:

Yo creo que da pie a que se desarrolle más porque si cada uno funciona a su manera, lo que está haciendo, en el fondo, es encerrándose dentro de su parcela y no comunicándose con el exterior. Entonces, creo que, si es global todo, todos nos podemos comunicar con todos, tranquilamente y creo que mejor. Por ejemplo, cuando se hizo la Unión Europea, antes para pasar de un sitio a otro tenías que pasar por la aduana, y ahora es más cómodo, ahorras más, tu identidad la sigues manteniendo, y encima te sigues enriqueciendo con lo de los demás. Me parece que es bueno, y bonito, vamos, el saber..., porque además te aportan algo, y saber que tu aportas algo a los demás. Pues bueno, cuanto más global sea, yo creo que mejor, más te enriqueces... (EP.12: Ekonomiako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.)

Prozesu horren kontra egotea jarrera itxia edukitzea da, zure mundu partikularretik atera nahi ez izatea, “encerrándose dentro de su parcela y no comunicándose con el exterior”. Aurrerapen eta aurkikuntza teknologikoen ongizate eta bizimodu hobea ekarriko dute eta zabaltzen ari diren aukera berriak aprobetxatu beharra azpimarratzen dute:

Las nuevas tecnologías, Internet, a mí me parece lo más... lo más novedoso y lo más importante. ...que estás viendo por lo tanto hummm, los grandes negocios, las grandes cosas y los grandes saltos. ¿Quién los esta haciendo? Pues Internet, Internet ahora pues... Es una cosa, es una cosa, parece que Internet tiende a ser en algún caso multiplicado por seis, y así es muchísimo mejor organizador, conoces o puedes reconocer ¿no? Y eso es importante. A mí me parece que lo más fundamental pues esa cosita pequeña, que tu vas a tu casa y que accedes a un mundo. (...) Sí yo creo que se avanza hacia un mayor bienestar. Yo soy muy optimista. Yo lo veo así. Yo creo que la información es poder, es muy claro, bueno... es poder bueno y es poder malo, claro, pero en principio es poder... Yo creo que decir “no nos vamos a meter aquí porque demasiada información nos puede llevar a tal...” ¡No! ¡Esto hay que aprovecharlo!, quiero decir ¿Qué tenemos mucha información? También podemos mandarla... Yo creo que es el juego en el que se está hoy en día. O sea, a mí me parece una avance, El Avance, yo creo que estamos ante algo que todavía no controlamos muy bien a donde nos lleva. (...) Aquí somos un poco paletillos todavía. (EP.8: Jaur-laritzako teknikaria. Erakunde sozialetan ez.)

Oro har, aurrerago ikusiko dugun bezala, garapen sozialaren ikuspegi lineala irudikatzen dute, etengabeko aurrerapena: “el avance”. Zentzu horretan, adierazkorra da oso, ondoko eufemismo hau: “Aquí somos un poco paletillos todavía”. Izan ere, “paleta” edo modu leunago eta maitagarriago batez “paletillo”, esangura eta signifkazio handiko izenordea dugu; izendatzen ditu herri txikietako pertsona xeheak, iraganeko bizimoduan gelditurik eta, ustez, bizitza eta mundu modernoaren esperientzia oso mugatua eta urria daukatenak. Horiei kontra jartzen zaie hiri modernoetako pertsona irekiak, kosmopolitak, iraganeko bizimodu tradizionalaren loturak eten dituztenak eta mundu modernotik mugitzen dakitenak. Esapide horrekin, beraz, erreferentzia egiten zaio azkeneko berrikuntzak onartzeko dauden erresistentzietan eta bizimodu berrietara adaptatzeko ditugun zailtasunei; beste toki batzuetan, aldiz, dagoeneko moldatu egin dira eta aukera berrietaz baliatzen ari dira, horiek gu baino aurreratuago daude eta erreferentzia dira, horiekin homologatu beharra dago: “Me gustaría creer que sí, que los avances sirven para ir acabando con el hambre, las guerras... A veces lo pienso y me parece que sí, que ojalá sea eso. Pero, en principio, me parece que cada cual va a lo suyo y para atrás miras poco. Tú miras para adelante, tu estás aquí y miras para adelante: ¡joder que bien, a ver si consigo esto! (...) A nivel global, cuanto más evolucionemos, otros más atrás se quedarán, no tiene solución porque todos tendemos a lo mejor siempre”. (EP.12: Ekonomiako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.)

Aurrerapenaren linealtasuna funtsezko erreferentzia da, “para atrás miras poco, tu miras para adelante”; progresoaren sinismena ere oso modu argian adierazten dute, aurrerapenek ezinbestean progresoa ekartzen dute: “cuanto más evolucionemos otros más atrás se quedarán”. Baieztape horren ziurtasuna eta ezinbestekotasuna erabatekoa da, hain zuzen ere ziurra kontsideratzen delako giza portaeraren berezko joera egoista eta utilitarista: “me parece que cada cual va a lo suyo y para atrás miras poco. Todos tendemos a lo mejor siempre”. Eboluziozko ikuskera lineal eta utilitaristaren beste adierazle interesgarria litzateke nola irudikatzen den, etorkizunari begira, aurrerapen eta aukera berrien zabalkundea:

Todavía es mundo lateral, es un mundo desarrollado, civilizado, capitalista, o lo que quieras decir(...) ¡claro!, la otra parte también tiene que tener otra de esas ventanas abiertas y eso ya es más complicado, todavía es complicado... Tú te vas a Malí y claro, sí, sí que hay, pero hombre no es lo que hay aquí, lo que pasa es que todo esto va muy rápido, va muy rápido. No es como antes hasta que se desarrollaba una tecnología, pasaban muchos años y hasta que se instauraba, y tal. Ahora no. Ahora va rápido. Y no es caro, es barato. Es cuestión de poner cuatro satélites, de poner cuatro tonterías, y no es muy caro. Yo creo que ahí es donde están un poco... los principales cambios, porque tendemos a unificarnos a medida que nos globalizamos... (...) Yo creo que la tendencia es de igualdad en general, es de igualdad, lo que pasa que estamos en el principio fuerte. Principio fuerte que para determinadas cosas siempre genera desigualdad. (...) Ahora tienes más oportunidades, y eso no significa que no tengas que saber utilizar esos medios, que no todo el mundo sabe, pero sabes que eso está ahí, con el tiempo se irá sabiendo y se va popularizando, y entonces es eso. Pero claro, para mí eso es igualizador. Matizado ¿no?, matizado, es que tienes que partir de una base... (EP.8: Jaurlaritzako teknikaria. Erakunde sozialetan ez.)

Bi elementu iruditu zaizkigu bereziki esanguratsuak (esanguraren adierazleak); batetik, mundu mailako ezberdintasunei erreferentzia egiteko erabilitako kategoriak: gurea da mundu “desarrollado”, “civilizado”, hain zuzen ere modernizazioaren ikuspegi eboluzionistatik sortutako kategoriak gizarte-garapen linealean eta jarraituan dauden maila ezberdinak izendatzeko. Baina, aldi berean, kategoria horien nolabaiteko problematizazioa onartzen da “o capitalista, o lo que quieras decir...”. Garapen-mailaren araberako mailaketaren nolabaiteko kuestionamendu inplizitua onartzen da baina progresoarean ikuspegi eboluzionista zalantzan ipini barik. Izan ere, progresoarean inguruko baikortasuna eta berdintasuna sortzeko duen joera (“para mí eso es igualizador”) defendatzen dute, eboluzioaren etengabeko hobekuntza baieztatuz; denboraren poderioz jende guztiengana ailegatzen da hobekuntza: “con el tiempo se va popularizando”. Progresoa denbora historikoaren baitan dago; aurrerago aztertuko dugunez, denboraren jarioak, historiaren eboluzioak, bereganatzen du gizarte-gidartizaren protagonismoa, bizitza-maila etengabe igotzen baita ezinbestean: “Creo que todo va a seguir como hasta ahora, sólo que si yo ahora tengo X y él X+3 pues, luego, yo voy a seguir teniendo X y él X+3, sólo que el nivel de vida de los dos habrá subido porque ha subido en general. Yo creo que siempre se irá mejorando porque siempre se inventarán cosas nuevas, yo creo que siempre será mejor”. (ET.3: Lan-harremanetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

Oro har, globalizazioaren eta aurrerapen teknologikoen eskutik datozen berrikuntzak bizimodu errazagoa eta erosoagoa irudikatzen dute. Izan ere, zalantzan ipintzen ez den irizpide bezala, gizabanakoa mugiarazten duena erosotasuna bilatzea da:

Te dan muchas facilidades y las aceptas, cuanto más mejor, si ahora puedes comprar desde casa pues mejor... son facilidades que igual no son necesarias pero te acostumbras a ellas. Al final tú buscas tu comodidad, no es lo mismo ir de tienda en tienda o ir a una solo y comprarlo todo, buscas tu comodidad. (ET.3: Lan-harremanetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

Diskurtso sozio-ideologiko hau partaidetza kolektiboaren *praxi*- eta harreman-sareetan aritzen ez diren zenbait taldek (ET.3, ET.5, HT.5, HT.11) eta elkarriketatutak (EP.8, EP.12) produzitu dute, talde edo erakunde soziopolitikoetan ez dauden ertain klaseko ikasle unibertsitarioak eta administrazioko langileak.

Ez dugu hori, aldiz, diskurtso sozio-ideologiko bakarra soslai horretako elkarrizketatuen artean. Izan ere, ezintasunaren diskurtsoan ikusi dugun bezala, soslai horretako beste elkarrizketatu batzuek bestelako pertzeptzio anbibalenteagoa irudikatzen dute aldaketa sozialen eta globalizazioaren inguruan. Globalizazioak dakartzan onurak eta abantailak onartuz, sakonean duen logika lehiakorra eskluentzetzat jotzen dute eta desoreka askoren iturria: “Todos los avances son como muy interesados, veo más el lado negativo que el positivo, aunque podría ser superpositivo. Que va a traer ventajas es evidente, pero para todo el mundo... eso ya... para las multinacionales sí, va a ver muchas más ventajas ahora”. (HT.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

La globalización no significa que todos compitamos en igualdad en un mercado abierto y mundial, porque los que tienen la llave tienen más posibilidades, se les abren más puer-

tas. La globalización sirve para abrir mercados y para que los que tienen poder económico lleguen a sitios donde antes no llegaban. Los poderosos son más poderosos gracias a la tecnología. Se abre más la brecha, la diferencia. En parte la globalización esconde lo mismo de siempre. Todo está disfrazado. (HT.4: Udaletzeko teknikariak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

Giltzaren eta atearen metafoaren bidez, prozesuan antzematen diren asimetriak adierazten dituzte; aukera berriak ez dira guztiontzako: “los que tienen la llave se les abren más puertas”. Asimetría edo desoreka hori, historian errepikatzen den konstante bat da: “en parte la globalización esconde lo mismo de siempre, todo está disfrazado”. Betikoa izatea etsipenez onartu beharreko aspektua bailitzan baieztatzen dute; berdintasunaren erreferentziatzko printzipio sinbolikoari errealitatean dauden ezberdintasunak nagusitzen zaizkio.

Horrela, gehiegizko abiadura, bizi-moduaren homogeneizazioa eta logika utilitarista eta lehiakorrek dakartzan uholdean galduta bezala ibiltzea (estresa, antsietatea, bakardadea eta erreferentzien gabezia), horietan dira, bigarren diskurtso honetan, gehien bat azpimarratzen diren kategoriak eta esangurak.

Pues mira, me vienen a la cabeza dos cosas. Primero, el hecho de poder acceder en todo momento a culturas diferentes, es un ..., te abre muchísimo la mente. O sea, puedes estar, entender o saber cosas que antes igual no tenías ningún acceso, porque es global, o sea, porque es de todos, porque puedes tener acceso a cualquier parte del mundo, a cualquier cultura, a lo que sea. Porque todo es uno. Porque se está haciendo todo uno. Pero, ..., al mismo tiempo, me parece un poco perderse. Porque te descentra. Te quiero decir: yo creo que fundamentalmente la persona es donde está, o sea, lo concreto. Yo estoy viviendo aquí, esto es lo que soy, esto es lo que tengo aquí, esto es lo que tengo que comprender, esto es lo que mirar. Entonces, si me empiezo a perder por otros campos, por otras culturas, por otros pueblos, por otros temas, por otros niveles, yo creo que es como descentrarse un poquito también. Entonces, es que es eso. Por una parte, lo veo muy bien, porque lo que te hace es te expande un poco a tí mismo. Pero, por otra parte, te descentra un poco también. O sea, ahí estoy un poco con la cosa de... ¡No sé por dónde tirar! (EP.7: Unibertsitateko AZPko langilea. Erakunde sozialetan ez.)

Joera horiek gaur egun duten indarrak nolabaiteko kontradizioa sortzen die: kanpoan geratu nahi ez baina eredu horren insatisfakzioa antzematea. Ez bazara dinamika horretan sartzen (indartsua eta lehiakorra ez bazara; kotxea, telebista, oporrak ez badituzu) frakasatua zara, bazterrean geratzen zara: “Todo pasa por ahí y quedarte fuera... ves los anuncios de la tele y dices ¡ya no vivo en el mundo!, una angustia que te entra...”. (EP.11: Arte Ederretako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.)

Esan bezala, globalizazio prozesuarekiko anibalenteagoa den ezintasunaren diskurtso hori: “por una parte lo veo muy bien, pero por otra te descentra un poco”, partaidetza kolektiboaren praktiketan aritzen ez diren elkarrizketatuek produzitu dute ere. Izan ere, eztabaida-talde batzuetan, adaptazioaren diskurtso baikorrari kontrajarri zaio eszeptikoagoa den diskurtso hau; zenbait momentutan, bereziki emankorra eta adierazgarria izan da bi pertzeptzio horien arteko eztabaida:

- La globalización es un sinónimo de injusto, ya sólo la palabra es negativa. Globalización, ¿Qué es globalización? Algo que va a beneficiar a los que ya se están beneficiados, y la situación de los que están mal va a ir a peor... Lo que ves en la tele cada vez que hablan de globalización es a los de siempre reuniéndose con los de siempre y los demás fuera protestando. Es un holding de los países ricos del mundo que excluye al resto, a los que no tienen una cuota de mercado, por lo menos eso parece. Intentan hacer ver las cosas de otra manera, pero...
- Yo... es un tema que no me interesa demasiado, porque todavía estoy estudiando... no lo relaciono ni con una cosa ni con otra, pero creo que todo va a seguir como hasta ahora, sólo que si yo ahora tengo X y él X+3 pues, luego, yo voy a seguir teniendo X y él X+3, sólo que el nivel de vida de los dos habrá subido porque ha subido en general.
- Yo no creo que vaya a subir el bienestar, subirá la cantidad de dinero que tienen los que tienen la sartén por el mango. Con las nuevas tecnologías se puede hacer todo desde casa y no vas a saber ni quién es tu vecino, y para mí eso no es bienestar, yo prefiero salir, y no conocer a gente por la pantalla de ordenador.
- Yo creo que sí se mejora, no es lo mismo la vida que tenía mi madre cuando vivía en casa de mis abuelos que la vida que tengo yo viviendo en su casa, es completamente distinto, yo tengo el doble de facilidades para todo. Y el día que yo tenga hijos será igual... Yo creo que siempre se irá mejorando porque siempre se inventarán cosas nuevas, yo creo que siempre será mejor.
- Depende a lo que le llames vivir mejor, por ejemplo mi abuela me decía que cuando ella era pequeña no necesitaba tantos chismes para jugar y se lo pasaban que te pasas todo el día para arriba y para abajo, y eso que nació en un pueblo perdido de Burgos... Y mi abuela no cambia éso por la play-station 2 con DVD y no se qué...
- Pero no vas a mirar sólo lo malo, también podemos mirar lo bueno; por ejemplo, mi abuela tenía que estar todo el día pegada a su hija y ahora si yo tengo hijos puedo estar en la cocina y como han inventado el aparato ése que se oyen los ruidos de la otra habitación pues puedo estar tranquila. La play-station igual es mala pero también los niños ahora son más listos y por algo será...
- Sí, son más inteligentes pero también más egoistas, más individualistas... ¡ésto es mío y no me lo toques! (ET.3: Lan-harremantako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

Progreso etengabearen konbentzimenduari eta konfiantzari, eszeptizismoa eta konfiantza-eza kontrajartzen zaio. Ezintasunaren diskurtsoan baieztatzen den globalizazioaren irakurketa eszeptikoak, kezka eta mesfidantza ditu iturburu; aurrerapenak eta aldaketa-joerak teoriarik onuragarriak izan daitezke, baina errealitatean ikusten diren ondorioek ez dute baikortasunerako motiborik ematen, mesfidantzarako baizik: “Aurrerapen horiek, elikaduran, osasunean, zientziaren aurrerapenak... oso ondo, baina badirudi horien ondorioak ez direla iristen munduaren beste aldera, ez? Alderantziz, gero eta pobre gehiago, gero eta gose gehiago, gero eta gaixotasun gehiago,... Teoriarik helburu horiek eta aukera horiek dituzten abantailak nik ez ditut ikusten praktikan, ondorioetan. Osotasuna hartuta, aipatzen diren alde on horiek gero praktikan ez ditut ikusten. Ez dut ikusten hainbeste aurreratu duenik edo hobetu denik, ba-

taz beste, jendearen bizimodua”. (ET.5: eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

Aurreko diskurtsoarekin alderatuta progreso edo aurrerapena bera, bizimoduaren etengabeko hobekuntza gisa, zalantzan ipintzen da; globalizazioaren progreso-ereduak progresoa denik ukatzen ez bada ere: “Nik kontra ez daukat argumento fuertetik, ikusten dut hori oso sartuta dagoela eta sartu beharra dagoela, erronka ikaragarria daukagu”. (ET.5: eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea). Hala ere, zalantzak eta kezkek dira nagusi, oso kezkarria iruditzen baitzaie dirua, merkaturia eta kontsumismoa hartzen ari diren nagusitasuna, kezkarria bi motibo nagusigatik: batetik, mundu mailako desorekak eta ezberdintasunak gero eta handiagoak iruditzen zaizkie, bestetik, geure bizimoduak zurrumbilo edo korrente indartsu batean murgiarazten gaitu eta oreka pertsonala galtzaraino eramaten gaitu: “La gente cada vez está más perdida, no sabe lo que quiere, vas como en una marea, una marea humana. (...) Nos hacemos cómodos, muchas veces entras en una rueda: lo hago así porque siempre se ha hecho así, para qué me voy a molestar si esto es más cómodo. O empiezas pero como ves que es complicado al final lo dejas... hay bastante comodidad e impotencia”. (HT.4: Udaletxeko teknikariak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.) Ezinbestean eramaten zaituen uholdearen irudikapen horren bitartez norberaren noraeza eta ezina adierazten dute, nolabaiteko onarpen etsitua gizarte-aldaketek ezartzen dute derrigortasunaren aurrean. Esan genezake, beraz, kritika ideologikoa edo politikoa baino, aspektu existentzialei eta sozialei erreparatzen dien kritika dela: “Kanpora begiratzea besterik ez dago. Ba... estresa... denok joan-etorri beharra... e... ez dakit... naturarekiko lehen zegoen lotura hori ba eteten ari dala eta pixka bat galdua edo gabiltzala horren... zeran...” (EP.10: Aldundiko teknikaria. Erakunde sozialetan ez.)

Hain zuzen ere, itxaropenaren diskurtsoan aurkitzen dugun kritika-modu bera litzateke hori. Errealitatean antzematen duten balore- eta bizimoduaren orientazio-sistema sinbolikoa (dirua, lehiakortasuna, materialismoa,...) ez da bidezkotzat eta giza legezkotzat jotzen. Euren ikuspegitik —euren balore eta signifkazio-sistematik— afektibotasunak, harreman pertsonalak, elkartasunak eta berditasun-printzipioak ez daukate tokirik gaur egungo aldaketa-joera nagusietan:

El tema de la competitividad y de la calidad y de todo eso creo que se está llevando a cosas difícilmente sostenibles. Sí que es necesaria la competitividad pero no al nivel que se está llevando, ese esquema da de comer al 20% y deja al 80%, a los menos competitivos, totalmente fuera de juego. (...) Cada vez tenemos más cosas, más aparatos, la economía funciona a base de excitar el consumo de la gente de una manera exagerada. Es una gran trampa lo que se está haciendo, lo fundamental es comprar eso nos hace estar más estresados y depender más de la pela, teniendo en cuenta además que los empleos son más inestables entonces es más complicado todo. (...) Las servidumbres que todo esto nos impone son muchísimas, estamos atados. Si el bienestar tiene algo que ver con la felicidad está claro que no, que no se va por ahí. (ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarri eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

Amarru edo tranparen irudiaren bitartez, errealitatean antzematen duten itxurakeria adierazten dute: kontsensu nagusian bizi-kalitatea eta progresoa denak, insatisfakzioa eta diruarekiko dependentzia gero eta handiagoa sortzen du. Diruarekiko dependentzia hori askatasun ezaren adierazletzat jotzen dute, gero eta lotuagoak bizitzeko pertzeptzioa adierazten dute. Horrekin batera, indarrean dagoen garapeneredua injustua eta eutsiezina iruditzen zaie: “Ese esquema da de comer al 20% y deja al 80%, a los menos competitivos, totalmente fuera de juego”.

Bestaldetik, euren burua pribilegiatutzat jotzen dute, erreferentzia nagusia ez delako joera horiek zabaltzen dituzten aukera berriak (eta aukera horietaz baliatzen ari direnekin homologatu beharra, horretara heldu beharra), erreferentzia nagusia guk ditugun aukerak ez dauzkatenak dira:

Con la globalización yo relaciono el darnos cuenta de la suerte que tenemos, nuestra distancia de Africa es mínima y ¿qué hemos hecho para unos nacer aquí y otros allí? No nos damos cuenta que el 20% de la población tiene un 80% de la riqueza. (ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarki eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

O sea, que esto no es solamente que te preocupes por tu estética o por tu bienestar económico, sino que hay alguien más al lado, ¡coño! (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

Azkenik, aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko beste pertzeptzio bat aurkakotasunaren diskurtsoan ikus dezakegun kritika da. Lehenengo elementu esanguratsua globalizazioaren kategoria bera kuestionatzea da, kategoria ideologikotzat jotzen dute eta ondorioz kontzeptualki zein historikoki kuestionatzen dute: “¿Globalización? ¡Mundialización!...” (ET.1: Lan-harremanetako ikasleak. BAK, Haika, Gazte komunistak, eta ikasle-sindikatuak. Bilboaldea.)

No sé porque ha cambiado el nombre, es lo mismo que hace dos siglos, liberalización de la economía, privatizaciones,... pero con el apoyo de las nuevas tecnologías. Es exactamente lo mismo y eso trae unos problemas gravísimos, por ejemplo el tema del medio ambiente, esa forma de expandirse el sistema capitalista está destruyendo sus propios nutrientes. (ET.1: Lan-harremanetako ikasleak. BAK, Haika, Gazte komunistak, eta ikasle-sindikatuak. Bilboaldea.)

Sistema kapitalistaren edo kapitalismoaren kategoria agertzen zaigu, lehendabiziz, elementu diskurtsibo bezala. Kapitalismoaren internazionalizazioa eta hedapena ez dira joera berrizat hartzen; globalizazioaren kontzeptuan, kapitalismoaren erabateko hegemonia eta zapalkuntza ezkutatzeko ahalegin ideologikoa antzematen dute:

Ni globalización ni leches que eso suena a patraña política, a convencer a alguien: ¡jón, vaya palabreja que se ha sacado éste, qué bien habla! (HT.12: Lanbide Heziketako ikasleak. Gaztetxea eta Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanblada. Barakaldo.)

Inperialismoa, pentsamendu bakarra, hegemonia kulturala, politika neoliberalak (merkatuen desregulazioa, pribatizazioak,...), horiexek dira gehien bat azpimarratzen dituzten kategoriak eta esangurak. Irakurketa edo antzemate politikoagoa eta kontzeptualki landuagoa da:

La lógica del mercado se está imponiendo en todos los ámbitos, se parte del presupuesto de que el discurso dominante del neoliberalismo es algo dado y no se puede luchar contra eso, y así los partidos de izquierda y socialdemócratas están siguiendo a los de derecha con los mismos argumentos. El discurso ideológico es el mismo. (ET.1: Lan-harremantako ikasleak. BAK, Haika, Gazte komunistak, eta ikasle-sindikatuak. Bilboaldea.)


Lehiakortasunean, produktibismoan eta kontsumo indibidualistan oinarritzen den gizarte-eredua irudikatzen dute, eredu horren inposaketa: “Ba globalizazioarekin lotuta burura datorkidan hitz bakarra inperialismoa da. Berez gizarte edo zibilizazio bakoitzak aitzakiak asmatzen ditu munduan zehar zabaltzeko, garai batean izan zen erlijioa zibilizazioa eta kultura eramateko herri basati edo ignorante haiei, eta gaur egun erabiltzen da merkatu librekoa edo globaltasuna ba justifikatzeko inperialismo hutsa. Inperialismo bai ekonomiko, bai politikoa, bai kulturala”. (EP.4: eskolako irakaslea. MOC-KEM.)

Manipulazioa, kontrola eta demagogia dira egungo errealitatea irudikatzeko beharrezkoak kontsideratzen dituzten beste kategoria garrantzitsu batzuk. Izan ere, manipulazioaren bidez, itxurazko askatasuna eta zoriontasunaren engainua gero eta gehiago zabaltzea antzematen dute: “Eurok daukiena da gu engainatzeko gauzarik ederrena: ondo egotea, gustora eta eroso egotea diruak ematen duela. Baliabidez eta aparatoz ondo hornitua egotea bizi-kalitate hobea dela... Zorionsua naiz... danok bizi gara engainatuta horrengatik”. (HT.3: Irakasleak eta ekonomilaria. Arrasate Euskaldun dezagun (AED). Arrasate.)


Aldaketa sozialen eta globalizazioaren inguruko diskurtso sozio-ideologiko hori, partaidetza kolektiboaren *praxi* eta harrema-sareetan ari diren zenbait elkarrizketatuk produzitu dute, eztabaida eta hiruko taldeetan (ET.1, ET.2, HT.3, HT12) zein elkarrizketa pertsonaletan (EP.1, EP.2, EP.3, EP.4, EP5 eta EP6). Baina hori ez da izan diskurtso bakarra talde eta erakunde sozialetan ari direnen artean; izan ere, partaidetza kolektiboaren *praxi* eta harrema-sareetan ari diren beste elkarrizketatu batzuk, giza baloreetan zentratzen den irakurketa despolitizatuagoa produzitu dute: itxaropenaren diskurtsoa (ET.6, HT1, HT8).

Aurrerago aztertuko dugu azkeneko bi posizio diskurtsibo horien arteko ezberdintasunak nola interpretatu daitezkeen; momentu honetan, azterketaren lehenengo helburuari dagokionez (aldaketa sozialen eta globalizazioaren pertzeptzioa), interesatzen zaigu azpimarratzea beste bi diskurtsoen artean dagoen hurbiltasuna. Izan ere, ezintasunaren diskurtsoak eta itxaropenaren diskurtsoak, aurrerago ikusiko ditugun beste aspektu batzuetan alde nabarmenak badituzte ere, modu antzekoan irudikatu dute globalizazioa. Beraz, partaidetza kolektiboaren *praxietan* ari diren batzuk eta ari ez diren batzuk oso produkzio diskurtsibo hurbilak egin dituzte.

Hortaz, partaidetza kolektiboaren aldagaiak argi eta garbi bereiztu ditu adaptazioaren diskurtsoa eta aurkakotasunaren diskurtsoa —lehenengoa talde sozialetan ez dauden aktoreek soilik produzitu dute, eta bigarrena soilik taldeetan dauden aktoreak—, baina ez ditu bereiztu beste bi, hain zuzen ere, ezintasunaren diskurtsoa eta itxaropenaren diskurtsoa. Azkeneko bi hauetan, partaidetza kolektiboan ari diren batzuk zein ari ez diren batzuk globalizazioaren inguruko ikuspegi kritiko (eta despolitizatu) produzitu dute.



Baina, esan bezala, partaidetza kolektiboaren *praxietan* ari diren batzuk eta ari ez diren beste batzuk oso ezberdinak diren produkzio diskurtsiboak egin dituzte; hain zuzen ere, adaptazioaren diskurtsoa produzitu dutenak eta aurkakotasunaren diskurtsoa produzitu dutenak.



Azterketa enpiriko honen hasieran aipatu dugun bezala, aldaketa sozialen eta globalizazioaren inguruko diskurtso horiek polaritzea lehengo urrats gisa definitu dugu gizartearen produkzioa eta gidaritza nolako indarren esku antzematen den aztertzeko. Ikus dezagun jarraian, bigarren helburu horren inguruan, nolako posizio diskurtsiboak bereiztu ditugun eta zein taldeetan produzitu dituzten irakurketa ezberdin horiek.

5.2. Gizartearen produkzioa eta gidaritza

Adaptazioaren diskurtsoak, gizartearen produkzioa eta gidaritza nolako indarren esku dagoenaren inguruan, irakurketa eboluzionista eta determinista egiten du. Aldaketaren giltzarria eboluzioaren bilakaera geldiezin da, gizartearen bilakaerak beti jotzen baitu aurrera etengabe eta nahi edo nahi ez: “Denboran dagoen gauza bat da, ezinbestekoa, denborak ekarriko du, datorrena dator o sea que ongi etorria...”. (ET.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

Bai... inebitablea modu batez bai, ze... eboluzionatzen zoazen arabera ba... ez dakit nik, ba teknologi mailan eta aurrerakuntzak ematen dira... bai ekonomian, bai pila bat arlotan... (HT.9: Magisteritzako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Ondarroa, Lekeitio eta Azpeitia.)

Es que... ¡Es inevitable ya!. Está en marcha y no hay quién lo pare ya. ¡Hombre!, sí hay quien lo pare, y es el tiempo. Porque el mundo se va a quedar ahí... (HT.2: Unibertsitateko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo eta Erandio.)

O evolucionas con los tiempos o mueres (...) O te vas renovando o te quedas obsoleto. (ET.3: Lan-harremanetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

Denboraren erreferentzia da bereziki esanguratsua, denbora historiko lineal batek gidatzen du gizartearen bilakaera, modu automatiko eta aurre-determinatuaz. Nola-baiteko onarpen saihestezina irudikatzen dute: “datorrena dator”.

Eztabaida-talde batean, (ET.3: Lan-harremanetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.), irakurketa horren kuestionamendua eta eztabaida adierazgarria egin zuten:

- Desde mi punto de vista inevitable, desde aquí inevitable.
- Yo creo que la sociedad avanza y no creo que se pueda parar, va avanzando, avanzando,...
- Y no sólo es que no se pueda parar, es que como no avances con ella te quedas desfascado, te quedas atrás y no puedes competir ni en el mercado laboral ni en ningún sitio. O evolucionas con los tiempos o mueres.
- Pero... ¿Hasta que punto es una evolución natural? Es que lo que más me pudre de este asunto es que yo no creo que esto sea una evolución natural, nos van forzando a eso...
- Sí, pero es inevitable.
- Sí que es inevitable. Evidentemente.
- ¡Entonces no es inevitable! Y hay gente que hace cosas para intentar que sea inevitable
- Pero a esa gente tú la miras como un bicho raro. ¿Qué gente?
- Pues por ejemplo los que se van a Niza a pegar gritos contra la globalización.
- ¿Y qué consiguen?
- Pues nada, pero si no haces nada seguro que no consigues nada.
- No, si no digo que no haya que hacer, pero es que es inevitable. También hay gente que se va al monte y vive de ermitaño, y dices: mira ese loco, ¿dónde va!

- Pero la idea de que son cambios inevitables, que es la evolución de la sociedad, yo no entiendo que sea así.
- Pero tú lo aceptas a bien, a ti no te parece mal, tú usas el móvil...
- Lo uso porque es cómodo, yo asumo mi parte de culpa no estoy diciendo que sea...
- Aceptas los cambios porque te vienen bien.
- Pero es que a mí todos los cambios no me vienen bien, unos sí y otros no, pero me los imponen todos.
- Los cambios te los ponen, evidentemente, yo no te digo que no. Yo lo que te digo es que tienes que evolucionar con los tiempos... te los impongan o no te los impongan.
(ET.3: Lan-harremanetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

Bi posizio diskurtsibo horien arteko aurrez-aurrekoan, nabarmentzekoa da aurrerapenaren nahitaezkotasunak nolako indarrarekin defendatzen den, gizartearen berezko denbora intrinseko batean dagoelako “evolucionar con los tiempos”, edo progresoa aurrerantza jotzen duelako modu geldiezinan. Kontzientzia diskurtsiboan ez da adierazten zeintzuk diren indar bultzatzaileak (natura, destinoa, lege meta-historikoren bat...) baina antzeman daiteke gizarteak progresorako duen berezko joera irudikatzen dutela prozesuaren gidari gisa: “la sociedad avanza, va avanzando, avanzando...”

Bestaldetik, berezko progreso horren produkzio diskurtsiboa egiten dutenek erreferentzia egiten diote “gizartea”ri kanpoaldean eta eurengandik aparte dagoen errealitate gisa: “es que... como no avances con ella te quedas desfasado”; “la sociedad avanza, va avanzando, avanzando...”. Soilik, taldea eraikitzen ari den kontsensutik jarrerara diskurtsibo diskrepantea duenak aktore indefinitu batzuek jokatzeko duten zeregina aipatzen duenean (“nos van forzando a eso...”, “hay gente que hace cosas para intentar que sea inevitable”), agertzen dira adaptazioaren diskurtsoan —erantzun gisa— aktoreen inguruko erreferentziak. Erreferentzi horiek bi modutara egiten dituzte; batetik, modu kolektiboan zerbait egiten duen jendeari egiten zaion irudikapena ondorengo irudi hauekin eraikitzen dute: “bicho raro”, “ermitaño”, “loco”; oso irudi esanguratsuak, normaltasun sozialean integratzen ez diren marginatuak. Bestaldetik, maila indibidualera jaitsiz, aldaketa sozialak eguneroko praxiarekin duen loturari egiten diote erreferentzia baina planteamendu disidente ahuldu nahian; hau da, eztabaida pertsonalizatu egiten dute ahots diskrepantearen kontraesan pertsonala nabarmentzeko:

Pero tú lo aceptas, a ti no te parece mal, tú usas el móvil. Azkenik, onartu egiten dute nolabaiteko inposaketa indefinituaren existentzia baina aldaketa sozialen izaera kontingentea onartu barik: Los cambios te los ponen, evidentemente, yo no te digo que no. Yo lo que te digo es que tienes que evolucionar con los tiempos... te los impongan o no.

Dena den, nolabaiteko kontraesana eta tentsioa agertzen da berezko progresoa baieztatzen duen adaptazioaren diskurtso honetan; aurrerapenaren edo progresoarekin prozesua automatikoa da, indar inpersonalen esku dago “aurrerapena”, “aldaketa teknologikoa”; baina, aldi berean, gidariak ditu, oso modu abstraktoan definitzen diren bultzatzaileak: “interés ekonomikoak”; “los que mandan, los poderosos, los que están arriba...”. Modu inpersonalizatuan edo urrun eta eraginezinak irudikatzen di-

tuzte. Bestaldetik, badago horiek bultzatzen dutenaz baliatzeko aukera; horrela, aldaketa teknologikoa errentabilitatearen eta interes ekonomikoen arabera mugitzen da, baina, hala eta guztiz ere, beti dago aurrerapen horietaz baliatzeko aukera:

Es el cambio tecnológico, lo que pasa es que el cambio tecnológico se promueve con dinero. Internet no estaría hay si no le interesase a gente que mueve mucho dinero, que paga millonadas por portales, que... Lo que pasa que luego cualquiera hace una pagina web, entonces claro ya no necesitas ser millonario, ni tener mucho dinero, prácticamente. Entonces, ¡hombre! los inicios probablemente sean debidos a los grandes intereses económicos, lo que pasa que después, bueno, pues sí que se puede entrar, se puede entrar. Que un tío edite en Internet una página con canciones en Euskera me parece alucinante, porque eso, porque en ningún sitio del mundo tendría ya nada que hacer, o sea no tendría nada que hacer, y entras a esa página y te das cuenta que entra muchísima gente, aunque solo sea por la curiosidad de ver las letras escritas en Euskera, aunque solo sea por la curiosidad, ¿no? Y eso, y la página es una porquería, probablemente... pero bueno. (EP.8: Jaurilaritzako teknikaria. Erakunde sozialetan ez.)

Partaidetza kolektiboaren *praxi*- eta harreman-sareetan ez dauden zenbait taldek (ET.3, ET.5, HT.9, HT2) eta elkarrizketatuk (EP.8, EP.12) produzitu dute progresoareen berezko diskurtsoa. Soslai horretako beste talde eta elkarrizketatu batzuk (ET. 5, ET.4, (EP. 7, EP.10, EP. 9, HT. 2, HT. 4) ordea, beste era batera irudikatu dute gaur egungo aldaketa sozialen produkzioa eta gidaritza. Ikus dezagun, bereiztu dugun bigarren posizio diskurtsibo honek, nola irudikatzen duen aldaketa sozialen produkzioa eta gidaritza.

Lehengo eta behin, aurrerapenaren logika geldiezinak ez du aurreko diskurtsoan zuen zentralitatea, produkzio diskurtsiboa beste erdigune baten inguruan garatu dute: merkatuak eta enpresa handiek ezartzen duten etekinaren logika ekonomizista.

El mercado, los que controlan el mercado, las grandes multinacionales... si ahora hay teléfonos a manta es porque Eriksson, Philips y no se quién más empezó a divulgar porque vieron que era negocio, y en los coches lo mismo. (ET.3 : Lan-harremanetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

Los gobiernos están viendo pasar el tren, intentando subirse con medidas legislativas. Lo que mueve es el mundo empresarial, la economía, el dinero. Unos por sacar sus productos y otros por no quedarse fuera, aislados, y tener que cerrar. (HT.4: Udaletzeko teknikariak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

Modu gordinean adierazten dute diruaren nagusitasun hori: “No hay ni política ni religión. Dios es el dólar. Todo por el dinero y luego se le pone una vestidura”. (HT.2: Unibertsitateko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo eta Erandio.) Imaginario sinboliko nagusiek —ideologia politikoak eta erlijioak— ez daukate lehen zeukaten zentralitatea eta, dolarra eta jaungoikoaren arteko parekotasun horrek erakusten digunez, dirua irudikatzen dute gauza guztien neurria eta erreferentzia. Abiadura bizian eta indar handiz ezartzen ari den joera ekonomizista horretan identifikatzen dute aldaketa sozialaren indar nagusia: “Pertsonak, zer bilatzen dugu? Azkenean gure ondo bizitzea, geure interesa, ba pertsona mailan ematen den hori badirudi gizarte

mailan ere ematen dela; beti bilatzen da Europarekin homologatzea, ekonomia edo teknologia mailan gu baino gehiago denarekin homologatzea, hori nork sortzen du? Gobernuari nork esaten dio lehiakortasuna eta lehiakor izan beharra? ba ekonomiak, motorra ekonomia dela esan leike”. (ET.5. Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea). Etsipenezko sentimenduaz adierazten dute joera utilitarista eta lehiakor horren nagusitasuna, euren burua ikusle inpotente gisa ikusiko balute bezala; horrexegatik, logika horren nolabaiteko onarpen saihestezina baieztatzen dute:

Detrás de todo esto está, por suerte o por desgracia, la rentabilidad económica. La economía es al final la que mueve... en plan altruista se mueve muy poca gente y los que se mueven se los cargan, como el investigador ese... Patarroyo. No me parece que debiera ser así pero resulta que realmente es así, y es lo que al final está consiguiendo cosas buenas, avances, ventajas como las vacunas, etc. (EP.9: Udaletxeko AZPko langilea. Erakunde sozialetan ez.)

Yo creo que los factores económicos, de mercado, pues están ahí. O sea, es mucho más rentable a las empresas, a los grupos de empresas, pues ¡joder! globalizar la aldea común, y el mercado único es el mercado único. Es mucho mejor poder llegar a través de los medios de comunicación, Internet o de grupos de empresas de un mercado o de otro a un mercado que es muy jugoso. Y bueno, pues las empresas están para ganar dinero. Eso sí que no lo duda nadie ¿no?... (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

Multinazionalak eta Bankuetxeek errentabilitatea bilatzen dute eta horretarako lehiakorrak izan behar dira, errealitate horren indarra eta nagusitasuna onartu behar da, nolabaiteko kontraesan axiologikoa sortzen badie ere, “por suerte o por desgracia”, hasierako anbiguotasun horrek aterabidea aurkitzen du geroko onarpen pragmatikoan: “No me parece que debiera ser así pero resulta que realmente es así, es lo que al final está consiguiendo cosas buenas, avances, ventajas...”. Horrela, aldaketa sozialen produkzioa eta gidaritza indar horien esku kokatzen bada ere, onartu egiten da —ez da zalantzan jartzen— indar ekonomiko horien logika saihestezina “las empresas están para ganar dinero, eso sí que no lo duda nadie, ¿no?”. Onarpen hori izango da, hain zuzen ere, elementu diskurtsibo bereizgarria gidaritza ekonomikoaren irudikapen antagonistagoa egiten duen diskurtsoarekin.

Gidaritza ekonomikoaren jarrera diskurtsibo hori, ezintasunaren diskurtsioan zein itxaropenaren diskurtsioan aurkitzen dugu. Partaidetza kolektiboaren *praxietan* ari diren batzuk (ET.6, HT.1, HT.8) eta ari ez diren batzuk (ET. 5, HT. 2, HT.7, EP.7) produzitu dute.

Partaidetza kolektiboaren *praxietan* ari diren beste batzuk (ET.1, ET.2, HT.3, EP.1, EP.2, EP.3, EP.4), aldiz, bestelako elementuak signifikatu dituzte aldaketa sozialen produkzioa eta gidaritzaren inguruan. Gizartearen berezko eboluzioa baieztatzea amarru ideologiko onartezina iruditzen zaie, gaur egun oso zabaldua dagoen engainua: “Intentan convencernos de que es algo inevitable y que no hay marcha atrás, quieren imponer esa idea”. (ET.1: Lan-harremanetako ikasleak. BAK, Haika, Gazte komunistak, eta ikasle-sindikatuak. Bilboaldea.)

Eso es lo que nos quieren hacer creer, tiene su propia lógica claro pero nos quieren hacer creer ¡para qué vas a hacer nada si no vas a conseguir nada! Ese es el mensaje subliminal todo el rato. (EP.1: Unibertsitateko AZPko langilea. Bakearen Aldeko Koordinakundea.)

Aurkari edo arerio baten erreferentzia dago, gauzak bere erara bideratzeko eta nahitaezkotasunaren engainu ideologikoa zabaltzeko boterea duen aurkaria: “Eso es lo que nos quieren hacer creer...”, “Intentan convencernos de que...”. Multinazionalek eta erakunde finantzieroek pentsamendu neoliberal a ezarri dute arlo politikoan (gobernuetan zein nazioarteko erakundeetan); horixek guztiak lirateke, beraz, aurkariak:

Lo de la globalización lo veo un poco como en la Edad Media que había un Dios omnipotente y todo eso, pues ahora es lo mismo. Un Dios que es la globalización y tienes que seguir el modelo que te marca, y si te sales de eso no vas a hacer nada en esta vida, castigado por la sociedad y por el mundo. Antes el que no era bueno no iba al cielo, ahora el que no tiene esa competitividad, no se adapta a las modas y no tienen una personalidad fuerte y competitiva... (...) Las multinacionales, ese Dios al que me refería antes, son las multinacionales. (EP.11: Arte Ederretako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.)

Jaungoikoaren metaforak adieratzen du, modu ezin argiagotan, onartzen ez den gizartearen naturalizazioa edo dibinizazioa. Sakralizazio horren atzean identifikatzen diren erakundeak daude: multinazionalek euren etekinak handitzeko inposatzen duten bizimodu (“adaptarse a las modas”) eta jokaera (“personalidad fuerte y competitiva”) antzematen dute, ezinbestekotasunaren indarrarekin eta zigor sozialen krudelatasunarekin inposatzen duten eredu: “te meten el miedo al fracaso muy dentro, siempre esa sensación de fracaso que te dan... es el juego del miedo al fracaso”. (EP.11). Adaptazioaren diskurtsoan ere horren inguruko erreferentziak agertu dituzte baina beste ikuspegi batetik, onarpenaren eta halabeharrezkotasunaren ikuspegitik: “Y no sólo es que no se pueda parar, es que como no avances con ella te quedas desfasado, te quedas atrás y no puedes competir ni en el mercado laboral ni en ningún sitio. O evolucionas con los tiempos o mueres”. (ET.3 : Lan-harremanetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.). “Hortik ateratzen bazara... arraroa... eta gainera... sartu beharra bestela...”. (HT.9: Magisteritzako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Ondarroa, Lekeitio eta Azpeitia.)

Gizarte-eredu eta gizaki-eredu hori, beraz, bi modutara antzematen da; eboluzioak ezinbestean dakartzan izpiritua eta bizimodua (adaptazioaren diskurtsoa): “Me parece que cada cual va a lo suyo y para atrás miras poco. Tú miras para adelante, tu estás aquí y miras para adelante: ¡joder qué bien, a ver si consigo esto!”. (EP.12: Ekonomiako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.). “Eta ez bazara sartzen alperrik, dana hola txex montatuta daukazu-ta... ez daukazu beste aukerarik”. (HT.9: magisteritzako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Lekeitio, Ondarroa eta Azpeitia). Edo, aldiz, giza gidariak dituen arrakasta-eredu baten inposaketa (aurkakotasunaren diskurtsoa): “Nos venden que somos competitivos por naturaleza, como algo inherente y eso es una manipulación, te hacen creer que no hay otra salida y yo creo que por eso nos comportamos así: si esto es una selva, no me voy a jugar el tipo por ayudar a los demás”. (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Oihanaren metaforak oso ondo adierazten du nola antzematen duten, aurkakotasunaren diskurtoan, eboluzio naturalaren parametroekin mozorrotu nahi den aldaketa soziala —errealitate sozialaren naturalizazioa—. Horren aurrean, indarrean dagoen elkarbizitza-eredua eta pertsona-eredua bultzatzaileak dituela baieztatzea eta aurkari moduan identifikatzea posizio diskurtsibo honen funtsezko planteamenduak izango dira: “Nosotros en nuestro esparru tenemos nuestras responsabilidades y contradicciones, y no somos nada consecuentes en mogollón de cosas, pero no podemos caer en la cosa de que es culpa nuestra porque hay mucha gente con responsabilidades mucho mayores. Con la gente que hemos dicho que tiene más responsabilidades sí que tiene que haber una línea de, yo contigo ni... ¡Yo estoy contra tí!”. (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Yo lo veo con riendas, y además no es inevitable, se puede hacer de otra manera, lo que pasa es que se ha llegado a tragar el anzuelo de tal manera que cualquier tesis que diga que no... parece que en este marco, en esta rueda inevitable que nos han metido hay que jugar, ¿no? Y no podemos salir, incluso la gente que plantea alternativas no podemos romper la baraja... pero no es así, la historia no tiene un destino prefijado. (HT.8: Zuzenbide eta filosofo ikasleak. Itxaropena Hegoaldean. Bilboaldea.)

De inevitable no tiene nada, los que están en el poder siempre quieren hacer ver eso, proclaman el fin de la historia y el fin de la lucha de clases, pero eso es un truco muy viejo, lo que es nuevo es que se está haciendo a un nivel mayor que nunca. (...) Eso siempre se puede tirar abajo, nada es... no hay nada escrito, así como algo divino, ¿no? (EP.5: Komunikazioko ikaslea. MOC-KEM.)

Gizartearen bilakaera saihestezina den prozesu gisa ez onartzea, aurkakotasun ideologikoaren funtsezko zutabe gisa azaltzen dute; problematizatu eta teorizatu duten elementu gisa azaltzen da “proclaman el fin de la historia, el fin de la lucha de clases...”; eta, ondorioz, kontzientzia diskurtsiboan oso egituratua eta argia den jarrera azaltzen dute: “la historia no tiene un destino prefijado”, “no hay nada escrito, así como algo divino”. Horrela, lege historikoen determinismoa edo aldaketa sozialaren naturalizazioa edo dibinizazioa ukatzea, borroka sinboliko-ideologikoan gainditu beharreko lehenengo gauza iruditzen zaie, horixe baita alienazioaren funtsa, konformismoaren eta pasibotasunaren oinarria.

Pasibotasuna da gaur egungo tranpa edo droga, `ezin dut ezer egin´. (...) Orain dirudi gizartea berez doala baina oso zaila da jendea kontrolatzea. Historiaren motorra askatasunaren bila doan gizakia da: feministak, ekologistak, antimilitaristak,... euren aldarrikape-nak dituzte askatasunaren bila. Askatasunaren nahia edo beharragatik jendeak borroka egiten du. Gizaki guztiok gara historiaren motorra eta guk asmatzen ditugu borrokarako bideak. Jendea oso kreatiboa da eta askatasuna lortzeko etengabe sortzen ditugu estrategiak edo mugimenduak. Batzutan mugimenduak, hau da, herriaren edo gizakiaren kreatibitateak izugarrizko bolada ona hartzen du eta aurrerakada nabarmenak daude. (EP.4: Eskolako irakaslea. MOC-KEM.)

Aldaketa sozialen produkzioa eta gidaritza, beraz, egintza kolektiboaren sormenean kokatzen dute. Gidaritza erabat sozializatua eta humanizatua irudikatzen dute; motorraren metafoaren bidez, aldaketa sozialen produkzioa gizaki kolektibo batek

(“gizaki guztiok”, “mugimenduak”, “herria”) duen sormenenerako eta borrokarako gaitasunean kokatzen dute. Ez dirudi, hortaz, giza egintza indibiduala eta boluntarista hipostasiatuz, egintza intentzionalaren determinismo historikoa baieztatzen dutenik (ez instrumentala, ez normatiboa); kolektibitatearen sormena eta askatasunaren bilaketa dira erdigunean dauden kategoriak, bi horiek eta “borrokarako bideak”, hau da, askatasuna lortzeko sortzen diren giza estrategiak eta mugimenduak.

Askatasuna eta sormena gizakion berezko ezaugarri gisa irudikatzen dituzte, “*boladaka*” beti agertuko diren dimentsioak gizartearen bilakaeran. Denbora historikoa- ren irudikapena, beraz, lineala izan barik modu ziklikoago batez antzematen dute; al- daketa historikoaren planteamendu dialektikoa da, baina ez dirudi helmuga zehatzik duen historiaren meta-narrazio dialektikoa egiten dutenik, baizik eta irudikapen kon- tingentea eta ez-jarraitua baieztatzen dutenik. Honen inguruan, geroago ikusiko du- gun bezala, badago beste jarrera diskurtsibo bat antagonismoaren diskurso honen baitan; hain zuzen ere, materialismo historikoaren determinismotik hurbilago dagoen planteamendua: aldaketaren motorra baldintza objektiboen arabera eratzen diren sub- jektu kolektiboen indarra da. Geroago deskribatuko dugu zehaztasunez antagonismo- aren diskursoaren baitan bereiztuko dugun azpi-posizio diskurtsibo hori.

Oro har, askatasuna, sormena eta borrokarako gaitasuna azpimarratzen dituen po- sizio diskurtsibo honetan, gizakiaren irudikapen positiboa egiten dute. Irudikapen ho- rrek kontraste handia egiten du beste diskursoetan irudikatu den gizaki egoista, ero- so eta indibidualistarekin. Izan ere, antagonismoaren diskurso honetan, manipulazioa, kontrola eta alienazioaren indarra azpimarratzen bada ere, indibidua- lismoa ez da gizakiaren berezko joera sahiestezina, baizik eta egungo ideologiaren ondorioa: “Nos venden que somos competitivos por naturaleza, como algo inherente y eso es una manipulación, te hacen creer que no hay otra salida y yo creo que por eso nos comportamos así...”. (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Guk sortzen dugu gure gainetik gizarte bat eta ezin da onartu, ezin dugu onartu kontrola- gaitza edo kontrolik gabe dagoela. Bestela pertsonaren oso irudikapen pobrea izango ge- nuke. Nik ezin dut onartu hori, ez zait logikoa iruditzen. Oso gogorra litzateke esatea ez dugula ezer egiteko, ezin diogu uko egin daukagun erantzukizunari eta botereari, asko ga- renon arduraren inportantea da. (EP.2: Eskolako irakaslea. Ttakun euskal kultur elkarte.)

Yo sigo teniendo confianza en la capacidad humana, aunque se dice que los medios de co- municación nos están comiendo el coco, imponiendo una forma de vida y tal, yo creo que al final la capacidad crítica o esa capacidad de revelarnos contra las cosas sigue mante- niéndose. (ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarrri eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

Gizakiaren inguruko planteamendu ontologiko positiboa, abiapuntu gisa defi- nitzen dute gizartearen gure esku eta gure produktua den zerbaite bezala irudikatze- ko, eta ez kanpoaldean eta beste indarren esku dagoen errealtate gisa. Ondorioz, guz- tion arduraren, erantzukizuna eta boterea dira azpimarratzen dituzten kategoriak: “Ezin diogu uko egin daukagun erantzukizunari eta botereari, asko garenon arduraren inpor- tantea da”.

Más que tener más influencia desearía que más gente se diera cuenta de la capacidad de influencia que tiene, yo tengo la que tiene todo el mundo. (EP.5: Komunikazioko ikaslea. MOC-KEM.)

(...) Somos nosotros los que tomamos las decisiones, todos nosotros, no existe un monstruo enorme que funciona por sí solo... al fin y al cabo siempre hay personas detrás. (HT.8: Zuzenbide eta filosofiako ikasleak. Itxaropena Hegoaldean. Bilboaldea.)

Arestian aipatu bezala, antagonismoaren diskurtso honetan, gizartearen produktioa giza sormenaren esku irudikatzea ez da posizio diskurtsibo bakarra izan. Zenbait kidek bizi-baldintza objektiboen determinismoa azpimarratzen duen jarrera diskurtso materialistago bat azaldu dute; gizartearen subjektu eraldatzaileak, baldintza objektiboen arabera antolatzen diren klase sozialak dira: "...Pero al final yo tengo la idea clásica de que a quién le interesa el cambio es a quien se siente incómodo con lo que está pasando, el trabajador, el currela. La respuesta es clásica, organizar otra vez el movimiento obrero que no está organizado, organizar y enganchar también a otra gente. Pero el acomodado está cómodo en el sistema, al que le interesa el cambio es al que sufre la explotación en todas sus consecuencias". (ET.1: Lan-harremanteko ikasleak. BAK, Haika, Gazte komunistak, eta ikasle-sindikatuak. Bilboaldea.)

Materialismoa eta determinismo estrukturala dira nagusi posizio diskurtsibo horretan. Gizartearen aldaketa bizi-baldintzen eta lanaren arloko tentsio eta gatazkeen eraginez eratzten diren klaseen esku dago; klase horien arteko aurkakotasuna eta gatazka dira, beraz, historiaren gidariak logika dialektiko baten arabera. Determinismo horri, aldiz, beste planteamendu bat kontrajarri zitzaion:

- Pero el zapatismo es una muestra de lo contrario, cuando Marcos y compañía llegan a la selva con un planteamiento guevarista, se encuentran lo que se encuentran y empiezan a quitarse prejuicios y esquemas preconcebidos para crear algo nuevo. Un movimiento que no es de clase, que apela a la sociedad civil, a la clase media, tiene influencias de las luchas guerrilleras anteriores pero es algo novedoso. (...) Lo bueno del movimiento antiglobalización es que no está definido, que se va definiendo según va andando; no tenemos ni líderes ni grandes estructuras, no tenemos nada de lo que ha tenido la izquierda clásica, eso es lo bueno, es un movimiento que está naciendo y es un movimiento, no es una organización. Gente de tradiciones distintas está luchando de la mano y yo eso no lo había conocido en ningún movimiento.
- Pero al final es el movimiento de clase el que tiene que... la gente que vive cómoda en el sistema no le va a interesar. Cuando eres adolescente tienes mogollón de energía y unos la canalizan leyendo revistas porno y otros tirando piedras en Seattle, pero cuando van madurando y su papá y su mamá les ofrezcan un puesto de trabajo, si van a vivir cómodos en el sistema se van a olvidar, y al final el que tiene que luchar y el que va a tenerse que partir la cara con la policía va a ser el currela de siempre, la gente que sufre la explotación. Cuando vaya madurando el movimiento y las cosas estén realmente jodidas esa clase media se va a tener que posicionar a un lado o a otro, es la que tiene la llave, ya lo decía Marx, pasa lo mismo. Los que pierdan mucho se proletarizarán, por utilizar el término de antes, y al final será un movimiento de clase el que tire,

ahora no porque no se han agudizado las contradicciones. (ET.1: Lan-harremanetako ikasleak. BAK, Haika, Gazte komunistak, eta ikasle-sindikatuak. Bilboaldea.)

Posizio diskurtsibo horretan erabiltzen diren kategoriak: “explotación”, “proletarizarse”, “agudizamiento de las contradicciones”,... marxismoaren erreferentzia zuzena eta agerikoa dira. Planteamenduaren gaurkotasuna defendatzeko bere izaera “klasikoaren” eufemismoa erabiltzen dute; historiaren barne-mekanismoen gakoak Marx-ek identifikatu zituen eta hortik datorkio izaera klasikoa. Baldintza objektiboen determinismoa eta hortik eratortzen den gatazka polarizatua (“se van a tener que posicionar a un lado o a otro”) historian etengabe errepikatzen den konstantea bailitzan agertzen dute, bilakaera historikoaren lege zientifikoa edo meta-narrazio azaltzailea. Baldintza sozio-estrukturalen determinismoan oinarrituta, langilearen nolabaiteko idealizazioa egiten dute, subjektu eraldatzaile gisa; ertain klaseko akomodatuei, aldiz, lehenago edo geroago, euren kondizio sozialaren determinazioak eragotziko die subjektu eraldatzaile bihurtzea: “...Pero cuando van madurando y su papá y su mamá les ofrezcan un puesto de trabajo, si van a vivir cómodos en el sistema se van a olvidar, y al final el que tiene que luchar y el que va a tenerse que partir la cara con la policía va a ser el currela de siempre, la gente que sufre la explotación”. Horren aurrean, diskurtsoa kuestionatzen duen ahots diskrepanteak, zapatismoaren adibideaz baliatuz, errealtate zehatzetara begiak ireki beharra (“llegan a la selva y se encuentran lo que se encuentran”) eta planteamendu eskluienterik egin gabe errezeta ideologiko finkorik ez erabiltzea azpimarratzen du, prozezu irekia eta determinazio historikorik gabekoa irudikatzen du (“un movimiento que no está definido, se va definiendo según va andando”). Izan ere, proletargoa subjektu eraldatzaile gisa irudikatzen duen diskurtsoan, subjektua ez da potentzialki autonomoa eta sortzailea den subjektua; marxismoaren irakurketarik deterministena eginez, subjektu eraldatzailea heteronomoa da, baldintza objektiboen araberakoa.

Azterketa honen bigarren helburuari dagokionez, ondorengo galdera hauei erantzun nahi genien: 1) Egintza kolektiboaren *praxiak* errazten al du gizartearen garapena sozialki eraikitako prozesu kontingente bezala antzematea? 2) Egintza kolektiboaren *praxi*-ezak errazten al du gizartearen garapena halabeharrezkotasunak gidaturiko prozesu meta-sozial bezala antzematea? Adaptazioaren diskurtsoari eta aurkakotasunaren diskurtsoari erreparatzen badiogu, bi galdera horiei baiezkoa erantzun beharrean gaude. Izan ere, ikusi dugun bezala, gizartearen berezko progreso geldiezina eta linealaren diskurtsoa soilik partaidetza kolektiboaren *praxi* eta harreman-sareetan ez dauden elkarrizketatuek produzitu baitute. Era berean, egintza kolektiboaren sormenak gidatzen duen gizarte-aldaketa kontingentea eta ez-jarraitua, soilik partaidetza kolektiboaren *praxi* eta harreman-sareetan ari diren elkarrizketatuek produzitu dute.

Bi diskurtso horiekin batera, aldiz, aldaketa sozialaren produkzioari buruzko hirugarren bat bereiztu dugu, gidaritzia ekonomikoa azpimarratzen duen diskurtsoa. Merkatu- eta lehiakortasun-logikaren onarpen kritikoa egiten duen diskurtso hori partaidetza kolektiboaren zenbait sareetan dagoen jendeak zein *praxi* kolektiboetan ez dabilen jendeak produzitu dute. Produkzio diskurtsibo honi erreparatzen badiogu, beraz, arestian aipaturiko galderei ezetz erantzun beharko genieke. Ondorio biribilago-

etan sartu aurretik, ikus ditzagun azterketaren hirugarren helburuaren inguruan nolako interpretazioak egin ditugun; hau da, giza egintza eragilea eta partaidetza kolektiboaren inguruan nolako produkzio diskurtsiboak polarizatu eta interpretatu ditugun.

5.3. Giza egintza eragilea eta partaidetza kolektiboa

Azterketa honen hirugarren helburua definitzeko orduan, galdetu egin genion geure buruari nolako ikuspegiak bereiztu al zitezkeen giza egintza eragilea eta partaidetza kolektiboa ulertzeko moduari dagokienez. Horrekin loturik, aztertu nahi dugu ea gizartearen garapena eta gidaritza irudikatzen moduak nolabaiteko erlazioa duen egintza indibiduala eta egintza kolektiboa ulertzeko moduarekin.

Aspektu horiek oinarrizko lau diskurtsoetan nola irudikatu diren aztertzeko, interesatzen zaigu, lehenengoz, egungo aldaketa sozialen eta globalizazio prozesuaren aurrean geure elkarrizketatuek egoki ikusten duten jarrera eta erantzuna. Bigarrenez, interesatzen zaigu egintza indibiduala eta kolektiboaren bitartez aldaketa sozialetan eragiteko edo influentzia izateko aukerarik antzematen duten; eta, azkenik, partaidetza kolektiboari nolako zentzua eta potentzialitatea atxikitzen dioten. Ikus ditzagun, bada, hiru aspektu horien inguruan zeintzuk diren bereiztu ditugun posizio diskurtsiboak eta zein taldeetan produzitu dituzten.

Adaptazioaren diskurtsoan, arestian ikusi dugun bezala, aldaketa sozialen eta globalizazio prozesuaren aurrean eduki beharreko jarrera edo eman beharreko erantzuna integratzea eta adaptatzea da: "...intentando buscar, un poco, todas las opciones que te van dando esa globalización, creo yo, pues para estar mejor situado. Entonces, que cuanto más sepa, pues mejor que mejor...". (EP.12: Ekonomiako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.)

Sí la respuesta es adaptarse porque si no te quedas al margen. (ET.3: Lan-harremanetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

Yo creo que hay que estar muy abierto, que hay que ver mucho, que hay que participar, participar, que es muy importante participar, eh ..., hay mucha gente que lo rechaza de plano: ¡ufff, eso, uff, de los ordenadores y eso de Internet, uff, qué locura!. Y luego hay mucha gente que está muy enganchada. Lo que pasa que cuando se produce un... Los que están muy enganchados a mí no me parecen muy preocupantes, es decir, al final tienes que centrarte en determinadas cosas lo que te interesa y defender muy bien cuáles son tus objetivos y tal, el problema es los que los rechazan de plano, ¿no? Te puedes quedar un poco al margen. Yo creo que con el tiempo la gente que lo rechaza de plano no va a existir, porque va a estar tan dentro de nuestra vida, que aunque queramos o no lo vamos a utilizar. (EP.8: Jaurlaritzako teknikaria. Erakunde sozialetan ez.)

Hortik ateratzen bazara... arraroa... eta gainera sartu beharra bestela... (ET.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

Amaitu gabeko esaldi horretan ikusten dugun bezala, adaptazioa edo integrazioa aukera bakarria irudikatzen dute, hortik kanpo bazterrean geratzea baitago, "te quedas al margen". Nolabait, modernitate berriaren trena ez baduzu hartzen edo globaliza-

zioaren gurdian igotzen ez bazara, gizartean integratzeko zailtasunak antzematen dituzte: “Como no avances con ella te quedas desfasado, te quedas atrás... (...) O te vas renovando o te quedas obsoleto, o evolucionas con los tiempos o mueres”. (ET.3: Lan-harremanetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.). Heriotzaren ebokazioa litzateke horren adierazpenik dramatikoena; izan ere, marginalitatearen edo porrot pertsonalarekiko beldurra sakonean antzeman daitekeen elementua dugu: “O sea, eso de la globalización me parece muy bien, que nos vayamos abriendo, que cada vez seamos mejores vamos. Y por el otro lado, me parece un poco perjudicial para la persona que, aunque la va enriqueciendo, como te decía antes, que cuanto más sepa mejor, pero, no sé, a la vez me parece que cada vez demasiadas cosas, que se va acumulando, y que igual la gente no pueda con ellas...” (EP.12: Ekonomiako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.)

Lehiakorra izan beharra eta porrot-arriskuaren irudikapen horrek, “te quedas atrás, te quedas obsoleto”, beste antzemate-modu bat dauka aurkakotasunaren diskurtsoan; ez da eboluzioak dakartzan ezinbesteko joera, baizik eta bultzatzaileak dituen inposaketa: “Antes el que no era bueno no iba al cielo, ahora el que no tiene esa competitividad, no se adapta a las modas y no tienen una personalidad fuerte y competitiva... Te meten el miedo al fracaso muy dentro, siempre esa sensación de fracaso que te dan... es el juego del miedo al fracaso”. (EP.11: Arte Ederretako ikaslea. Erakunde sozialetan ez.)

Nos vende que somos competitivos por naturaleza, como algo inherente y eso es una manipulación, porque hay modelos de sociedades donde eso no es así. Te hacen creer que no hay otra salida y yo creo que por eso nos comportamos así: si esto es una selva, no me voy a jugar el tipo por ayudar a los demás. (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Adaptazioaren diskurtsoak egintza kolektiboan ez du aldaketa sozialetan eragiteko edo influentzia izateko aukera askorik antzematen: “La respuesta es adaptarse porque sino te quedas al margen. ¡Hombre! Si yo tengo unas ideas diferentes me puedo juntar con otros e intentar hacer algo, pero creo que al final es inevitable, pero bueno, por intentarlo. (...) No te unes ni para cosas cercanas, que no se hagan contratos basura.. la gente no se une, ¡que luce otro!, pues lo de la globalización, ¿Qué es eso? Son marcianos o así... no te entiendes con los de tu escalera como para... Hasta que no lo ves un poco más de cerca, yo creo que es eso.. ¡baaah eso les pasa a los demás!, no te influye... ¿Qué es esto de la globalización? A mí me da igual, yo voy a seguir igual, mi trabajo, mi casa, la gente que me rodea, a mí que más me da lo de... La gente piensa que bastante tiene con lo suyo”. (ET.3: Lan-harremanetako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

Ez dute lotura argirik antzematen norberaren esparru mikroa eta joera sozial makroen artean. Esate baterako, aurkakotasunaren diskurtsoan, liberalizazio- eta desregulazio-politikeei erreferentzia eginez, lotura zuzena egiten dute zabor-kontratuen eta globalizazioaren artean. Adaptazioaren diskurtso honetan, aldiz, ez da horrelako loturarik antzematen: “No te unes ni para cosas cercanas, que no se hagan contratos basura.. la gente no se une, ¡que luce otro!, pues lo de la globalización, ¿Qué es eso?

Son marcianos o así...” Globalizazioa eta “marzianoen” artean egiten den parekotasun horrek, argiro adierazten du urruntasun eta lotura falta hori.

Oro har, egintza kolektiborako dagoen gaitasun falta azpimarratzen dute, saihestezina den beste joera sozial bezala azpimarratu ere: “Todos vivimos en el mismo nivel económico, la sociedad se está anquilosando, haciendo más cómoda, ya no es lo que era antes, nos vamos haciendo más cómodos y nos vamos despreocupando de ese tipo de problemas. Está la gente más implicada, el tema de las ONGs, o con más conciencia social que sigue participando, pero son los menos...” (HT.11: Kimikako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa, Igorre eta Bermeo.)

La gente es cómoda, es cómoda y pesimista: ¡si no vamos a conseguir nada!. Hasta que no me toca no muevo el culo. (ET.3: Lan-harremantako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa eta Ezkerraldea.)

Partaidetza kolektiboaren praxian ari direnen inguruan, posizio ezberdinak daude adaptazioaren diskurtsoan; oro har, gobernuz kanpo erakundeen lana da erreferentzia nagusia, ondo baloratzen da lan hori politikaren mundutik eta botere-borroken aparte dagoen lana irudikatzen den neurrian: “ONGak gizartearen barruan ia gizabanakoak dira zentzu batean; zeren ez dira talde handi eta indartsuak, orain arte funtzionatu duten taldeak, baizik eta talde txikiak, errepresentazio gutxi izan zezaketenak (igual orain gehiago), baina horrexegatik ez dute gutxietsi euren lana eta ekin egin diote”. (ET.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

ONG eta gizabanakoaren arteko parekotasun horrek erakusten du diskurtso honean dagoen mesfidantza esparru publikoan eta bereziki politikoan ari diren erakunde-ekiko. Baina adaptazioaren diskurtsoan nabarmendu den beste jarrera diskurtsiboa izan da talde sozialen eta gobernuz kanpoko erakundeen lana ere mesfidantzaz baloratzen duena. Kolektiboa denarekiko nolabaiteko konfiantza eza adierazten dute. Mota ezberdinetako arrazoiak aipatzen dituzte mesfidantza argudiatzeko: argitasun ekonomikorik ez izatea, “dirua, askotan, ez da ailegatzen”; edo politikoa, “asko politizatuak daude”; edo, oro har, diruditena ez izatea, adibidez, partaideen itxurazko altruismoa zalantzan jartzen da eta logika utilitarista batetik epaitzen da euren lana; hor daude euren behar pertsonalagatik edo hortik ateratzen duten etekinagatik: “Ni ez naiz fidatzen ONG-en kontu horrekin, asko politizatuak daude... Hirugarren mundura joateak balio du joaten denarentzat pertsona bezala hazteko eta beste gauza batzuk ikusteko”. (ET.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

Yo sinceramente creo que no lo hacen por los demás, creo que lo hacen por ellos mismos, para sentirse bien porque están ayudando a los demás. ¡Hombre! Hacen un favor a los demás, por supuesto... pero, en realidad, ellos se sienten realizados. (HT.11: Kimikako ikasleak. Erakunde sozialetan ez. Leioa, Igorre eta Bermeo.)

Partaidetza kolektiboaren *praxi*- eta harreman-sareetan ez dauden elkarriketatuek (ET.3, ET.5, HT.5, HT.11, EP.8, EP.12) izan dira produzitu dutenak interpretatzen ari garen posizio diskurtsibo hau. Aldaketa sozialen eta globalizazioaren aurrean, integrazioa eta adaptazioa azpimarratzen dute maila indibidualean; eta, egintza kolektiboaren mailan, ezinezkoa iruditzen zaie eragitea, esparru publikoan dauden ekimenak modu

mesfidatian irudikatuz. Baina, aurreko ataletan bezala, hori ez da izan produkzio diskurtsibo bakarra partaidetza kolektiboan aritzen ez diren elkarrizketatuen aldetik.

Izan ere beste elkarrizketatu batzuek (ET.5, HT.2, HT.7, EP.7), ezintasunaren diskurtsoa produzitu dutenak, bestelako planteamenduak azpimarratu dituzte. Maila indibiduallean, egungo aldaketa sozialen abiadura eta indarra azpimarratzen dute; nahi-gabeko inertzia batean sartzen zaituzten joera gogorrek dira: “gizartearen gurpilaren indarra oso fuertea da, gauza txikiak egiten baditugu ere... gurpilaren indarra handia da”. (ET.5: eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

Nos va absorbiendo, nos absorbe más, nos arrastra, como que tienes que ir a contracorriente sino quieres que te inflencie tanto esa globalización. Si te dejas llevar, pues nada... La gente cada vez está más perdida, no sabe lo que quiere, vas como en una marea, una marea humana. (...) Nos hacemos cómodos, muchas veces entras en una rueda: lo hago así porque siempre se ha hecho así, para qué me voy a molestar si esto es más cómodo. (HT.4: Udaletzeko teknikariak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

A veces dices: yo me voy a meter en algún sitio y que me dejen en paz, porque parece que estoy en una carrera de fórmula-1. Veo pasar las cosas tan rápido, tan rápido, tan rápido que estoy como si estuviera metida dentro del coche. Veo pasar las cosas tan rápido que no me da tiempo a parar y pensar un poco profundamente en los cambios que está habiendo. Estoy pasando porque tengo que pasar, pero nada más. (EP.7: Unibertsitateko AZPko langilea. Erakunde sozialetan ez.)

Gurpila, uholde, lasterketa zoroa, horiexek dira erabili dituzten irudiak maila indibiduallean sentitzen duten presioa eta ezintasuna adierazteko. Kezkagarriak iruditzen zaizkie oraingo gizarte-joerak: “Hemen bertan ere batzuk gero eta hobeto bizi gera, ez dakit, hobeto-edo, eta beste batzuk hor zuloan gelditzen dira eta hortik ateratzeko ba ez zaiela laguntzarik emoten ez? Hori, la ley de la selva, gu ondo bizi garen bitartean aurrera”. (EP.10: Aldundiko teknikaria. Erakunde sozialetan ez), eta aldaketaren beharra antzematen dute, baina ez dute aterabide argirik ikusten. Politikaren arloa iruditzen zaie horretarako giltzarria, baina ez dute batere konfidantzarik politikaren munduan: “boterea mantentzea helburu bihurtu zaie”. (ET.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea). Korrupzioak eta interes korporatiboek usteldutako esparrua irudikatzen dute: “oso biziaria dago”; “...porque es que... yo ya lo de la democracia, sobre el papel es muy bonito, pero... Votas a un político y luego hace lo que le da la gana. Es un tráfuga, roba ... es que ... A mí, la verdad es que...”. (HT.2: Unibertsitateko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo eta Erandio.). Ezintasuna da, beraz, azpimarratzen dutena eta ezintasun horrek aurkitzen duen konsolamendu bakarra talde sozialei eta gobernuz kanpoko erakundeei laguntzea da:

Errealitatea hobeto ezagutzen dugu, informazioa badaukagu baina ezintasuna ia maila berekoa. Ezintasuna eta boterea hain konzentratua... Ikusten hasita, hainbeste arazo ikusten ditugu, ez dakigu non jarri, zertan lagundu, zertan hasi, zertan... Bi sentimendu horiek nahasten zaizkit niri, informazioa bai baina ezintasuna gero eta handiagoa. (ET.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

A nivel global las posibilidades de que las cosas cambien son poquísimas, no se está ayudando a los países que más lo necesitan, hay algo que no funciona. A nivel de ciudadanos

no tenemos mucho que hacer, te refugias en las ONGs. (EP.9: Udaletxeko AZPko langilea. Erakunde sozialetan ez.)

Aterpe bilatzearen irudiak asebetetzen du hobekien adierazten duten pertzeptzioa: ingurune ezatsegina eta gogor baten aurrean nolabaiteko bakea, atsedena edo kontsolamendua bilatu beharra. Gobernuz kanpoko erakundeetan, kontsumitzaile-elkartee-tan eta, oro har, politikatik at kokatzen dituzten ekimenetan ikusten dute fidagarriagoak diren aukerak: “Tendría que surgir algo alternativo a la política y a la economía, movimientos de consumidores u otras asociaciones que puedan influir en la política y la economía sin meterse dentro”. (EP.9: Udaletxeko AZPko langilea. Erakunde sozialetan ez.)

Pues lo de las ONGs yo creo que es una forma de militar la sociedad civil, de intentar reconducir algo hacia los aspectos positivos que le interesa a la sociedad, a la gente. Si no, es que no te dejan otro... Porque es que yo ya lo de la democracia, sobre el papel es muy bonito, pero ... Votas a un político y luego hace lo que le da la gana. Es un tráfuga, roba... es que... A mí, la verdad es que... Y nosotros creo que somos afortunados, porque hay países que no tienes ni los derechos mínimos. Pero bueno..., yo lo veo así. Globalmente hay que defenderse de muchos aspectos negativos de esto de la globalización, y yo creo que esto de las ONGs es una posibilidad, porque los Estados no sé. Hay unos Estados poderosos, hay otros Estados menos poderosos. Entonces, todos dicen: yo quiero estar a la cabeza de esto porque no sé qué... Yo no acabo de entenderlo muy bien... (HT.2: Unibertsitateko AZPko langileak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo eta Erandio.)

Hortaz, partaidetza kolektiboaren zenbait ekimen ontzat jotzen dituzte; adaptazioaren diskurtsoan jarrera mesfidatia zena bestelakoa da ezintasunaren diskurtsoan, ikus dezagun bi posizio diskurtsibo horien arteko aurrez-aurreko bat:

- Ni ez naiz fidatzen ONG-en kontu horrekin. Asko politizatuak daude... Hirugarren mundura joateak balio du joaten denarentzat pertsona bezala hazteko eta beste gauza batzuk ikusteko.
- Egia da pertsonak tartean daudenean dena ez dela garbia eta bertutea baina orain dagoen bide bakarra hori da, orduan nik parte hartzen ez badut horietan, diru bidez ematen dut nire laguntza zeren bestela ez dago ezer. Badakigu egiten dena ezer gutxi dela eta gehiago egin beharko dela, baina dagoen apurra ezin dugu ukatu eta segitzen dut urtero-urtero nire dirua sartzen zenbait erakundeetan.
- Delegatu ere, ordezkaritza-sistema...
- Bai, egia da, momentu honetan nire bizimoduagatik ez naiz sentitzen gauza horrelako gauzetan sartzeko eta militante izateko, adina ere pasatua daukat, hori ere aitortu beharra daukat. Baina hala ere sinisten dut horretan, badakigu sistema hori ez dela perfektua, egundoko akatsak dituela, baina dagoen bakarra da. Beste bat jartzen ez dugun bitartean edo hobetzen ez dugun bitartean nik segituko dut.
- Baina garai batean baino mugimendu gutxiago dago, ez? Gutxira dator.
- Bai, lehen mugimendu eta taldeetan fede gehiago zegoen eta orain bakoitza bere ganbarari begira dago. (ET.5: Eskolako irakasleak. Erakunde sozialetan ez. Donostialdea.)

Erakunde sozialei laguntzea, beraz, susmo txarren gainera, bestelako baloreak bultzatzeko dagoen bide bakartzat jotzen dute, eta hortik eratortzen da erakunde sozial horietan ari direnekiko nolabaiteko mirespena: “Yo admiro a los que dedican su tiempo a eso, el tiempo que es un bien escaso, es más fácil dar la firma o un dinero. Además los que están suelen estar en varias cosas a la vez. Me produce admiración y son personas necesarias como contrapeso a otras estructuras de más tradición, como los partidos políticos”. (HT.4: Udaletxeko teknikariak. Erakunde sozialetan ez. Bilbo.)

Aldaketa sozialen eta globalizazioaren aurrean, maila indibidualean, ezintasun sentimendua adierazten dutenak; eta, maila kolektiboan, gobernuz kanpoko erakundeen bitartez nolabaiteko delegazioa egiten dutenak, partaidetza kolektiboaren *praxietan* ez dauden elkarriketatutako dira. Beste bi jarrera eta produkzio diskurtsibo aurkituko ditugu, aldiz, *praxi* kolektiboetan ari direnen aldetik. Lehenengoak iturburu diskurtsibo argia izango du: norberaren erantzukizuna eta balore-aldaketa; bigarrenak, aldiz, erantzukizun politiko handiagoak dituztenen kontra borrokatzea azpimarratuko du. Ikus ditzagun bi produkzio diskurtsibo hauen arteko aldeak.

Itxaropenaren diskurtsoan, giza egintza eragilea eta partaidetza kolektiboa ulertzeko moduari dagokionez, lehenengoz azpimarratzen dena izango da norberak daukan erantzukizuna errealitatean dauden ezberdintasunekiko:

...Yo creo que todos tenemos ese espíritu de decir... a los otros no se les puede machacar... y cuando te das cuenta de que eres tú el copartícipe que estás machacando.. pues dices ¡hostias, que es mi responsabilidad! (ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarrri eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

...El cambio de conciencia que se ha dado. De pasar, antes, de una mentalidad caritativa, teníamos que ayudar a los pobres, a ser ahora... nosotros tenemos que cambiar. O sea, nuestros valores, nuestra manera de ser, y tenemos que restituir aquello que les hemos robado. (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misionen Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

Mundu mailan dauden ezberdintasunak dira erreferentzia nagusia, hau da, geure mundua eta hirugarren munduaren artean dagoen aldea. Ezberdintasun hori irudikatzeke orduan, aurrerapauso garrantzitsutzat jotzen da lehenengo paternalismo karitativoa gaitzuta izana; eta, dagoen injustizia, geure bizimodu oparoarekin erlazioaturik ikustea: “Yo creo que la pregunta sería si cada uno de nosotros estamos dispuestos a renunciar para que otros vivan un poco mejor, si no somos capaces una empresa desde luego no va a renunciar a beneficios para que se desarrolle otra empresa, y los gobiernos igual”. (ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarrri eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

Dei egiten diote norberaren kontzientziari eta erantzukizunari; errudun-kontzientzia edo mea culpa horrek “cuando te das cuenta que es tú el copartícipe que estas machacando”, berenagatu egiten du garrantzi handia. Horrela, norberaren jokaera eta koherentzia (“si cada uno de nosotros estamos dispuestos a renunciar”) funtsez-

koena konsideratzen delako, enpresa edo gobernuen jokaerak zuritu egiten dituzte: “Y bueno, pues las empresas están para ganar dinero. Eso sí que no lo duda nadie ¿no?...” (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

A mí me parece que falta esa voluntad, si nosotros no somos capaces de mirar por el de al lado, tu crees que los gobiernos van a mirar por la gente de otros países, yo creo que no. (ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarrri eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

Ikusmolde karitatiboa gainditu egiten dute eta errudun-kontzientziarekin ordezkatzeko dutela antzeman daiteke; indarrean dauden baloreak (indibidualismoa, materialismoa, utilitarismoa...) kritikatzeko dituen eta arlo politikoa saihesten duen ikusmoldea: “Yo creo que la revolución o el revulsivo tiene que ser a nivel personal y familiar o... en el ámbito pequeño”. (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.). Beste baloreen arabera jokatzeko litzateke giza egintza indibidualaren eta kolektiboaren koska nagusitza: “Yo creo que lo importante es la auto-concienciación de cada uno de nosotros, darnos cuenta de que no estamos solos, que hay otra gente que no vive tan bien como nosotros, que somos responsables de lo que esta pasando y de la educación que estamos dando a nuestros hijos”. (ET.6: Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarrri eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.)

Horiek horrela, inplikazio pertsonala eta partaidetza kolektiboa, besteen alde zerbitzatu egiteko bidea iruditzen zaie. Indibidualismoa gainditu beharra zerbitzuaren ikuspegitik defendatzen dute, pertsona guztiek daukate zerbitzatu ahal izateko: “Yo creo que la idea de servicio y la pasión por cambiar las cosas, por cambiar el mundo..., al cabo de los años más que transformar mundos transformas personas, ¿no? Ahora me parece que estoy en eso. Pero las personas que situamos nuestro trabajo así, yo creo que la felicidad la obtenemos precisamente en ese servicio. Y no es solamente lo que das sino también lo que recibes”. (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

La gente piensa en la inmediatez de las cosas, pero hay que pensar un poco más allá, ¿no? Yo creo que la revolución o el revulsivo tiene que ser a nivel personal y familiar o... en el ámbito pequeño. Mientras no eduquemos a los más pequeños de que todo no está permitido, de que no todo es comprable, ni que todo es consumible, pues yo creo que no vamos a hacer nada. Pero a pesar de todo soy optimista ¡eh!, soy optimista. (HT.1: Jaurlaritzako teknikaria eta eskolako irakasleak. Medicus Mundi eta Misiones Diocesanas. Bilboaldea eta Durango.)

Itxaropenaren diskurtso honetan, beraz, norberak bere eguneroko esparru txikietan gauzatu beharreko baloreen aldaketa izango da aldaketa sozialerako bidea. Balore kolektiboen gabezia da azpimarratzen dena, “la gente piensa en la inmediatez de las cosas”; gero eta arrakastatsua antzematen baitute gure gizartean norberak, inongo erreferentzia kolektiborik gabe, edozein gauza egin dezakeela, edozein jokaera zilegi dela. Horri aurre egitea da, beraz, gakoa: “mientras no eduquemos a los más pe-

queños... ..no vamos a hacer nada”>; baloreen aldaketa, belaunaldi berriei transmititzea gu baino okerrago bizi direnak gogoan eduki behar ditugula eta euren alde zerbait egin beharra dagoela.

Ikus dezagun, azkenik, aurkakotasunaren diskurtsoan, mugimendu sozialen *praxi* eta harreman-sareetan ari diren beste elkarrizketatu batzuek nola irudikatu duten giza egintza eragilea eta partaidetza kolektiboa. Horretarako, aurreko produkzio diskurtsiboetan egin dugun bezala, erreparatu egin diogu, lehendabizi, egungo aldaketa sozialen eta globalizazio prozesuaren aurrean egoki ikusten duten jarrera eta erantzunari. Bigarrenez, interesatuko zaigu egintza indibiduala eta kolektiboaren bitartez aldaketa sozialetan eragiteko edo influentzia izateko aukerarik antzematen duten; eta, horrekin loturik, partaidetza kolektiboari nolako zentzua eta potentzialitatea atxikitzen dioten.

Aurkakotasunaren diskurtsoa produzitu dutenentzat, globalizazio prozesuari eman beharreko erantzuna ez isiltzea izango da; arerio ideologikoak eta politikoak identifikatuz, horiek borrokatzea, maila globalean zein lokalean: “Si el enemigo es global la respuesta tiene que ser global, un movimiento internacional de respuesta que se organice globalmente pero que lleve implícito el tema de la localización”. (HT.8: Zuzenbide eta filosofiako ikasleak. Itxaropena Hegoaldean. Bilboaldea.)

La respuesta debe ser la de siempre, informar sobre lo invisible; todo va muy bien, fenomenal, los que están en el paro no existen, la pobreza no existe, el analfabetismo no existe, el racismo no existe. (...) No dejarse enmudecer por la presión global porque nosotros también tenemos fuerza global, todos los grupos que estamos trabajando o queremos trabajar por mejorar las cosas. Y también practicar la justicia, que es lo que nos mueve a todos, establecer vínculos para tomar conciencia de que somos muchos los que estamos trabajando. Hay nuevas armas para influir y guiar, nuevos instrumentos de lucha (como lo del virus informático ese que se coló hasta el mismo corazón de no se qué centro de información). Pero si nos quedamos en grupitos la batalla está perdida. (EP.1: Unibertsitateko AZPKo langilea. Bakearen Aldeko Koordinakundea.)

Beste aktore kolektiboen kontrako antagonismoa da funtsezko erreferentzia, erabilitako erretorikak eta irudiek (“enemigo”, “lucha”, “nuevas armas”, “batalla”...) horren etengabeko irudikapena egiten dute. Beste aktore horiek —batzutan indefinituagoak eta beste batzutan identifikatuagoak— ezkutatu nahi dituzten errealitateak agerraraztea eta salatzea litzateke, beraz, eman beharreko erantzuna; zentzu horretan, funtsezkoa da bakoitza non dagoen argi edukitzea eta aurkariak zeintzuk diren jakitea:

Nosotros en nuestro esparru tenemos nuestras responsabilidades y contradicciones, y no somos nada consecuentes en mogollón de cosas, pero no podemos caer en la cosa de que es culpa nuestra porque hay mucha gente con responsabilidades mucho mayores. Con la gente que hemos dicho que tiene más responsabilidades, sí que tiene que haber una línea de... yo contigo ni... ¡Yo estoy contra ti! Y eso sí que se ha perdido, a nivel de discurso se nota muchísimo respecto de la época en la que había dos bloques. Había una lucha y ahora parece que no, ahora hay que cambiar las cosas, algo más abstracto, no queda bien lo otro. Lo que estamos perdiendo es ver claro dónde te posicionas, dónde se posiciona uno.

Oyes a partidos y a gente ultraconservadora que se posiciona en el centro, ¿en el centro de qué? En el centro de la dominación será... La idea esa de que estamos en el mismo barco..., ¡pues no! (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Norberaren erantzukizunak eta eguneroko esparru hurbilek garrantzia badute ere, aurreko diskurtsoan ez bezala, auto-kulpabilizazioan geratzea errefusatzen dute; beste jauzi bat egin beharra azpimarratzen dute, *“porque hay mucha gente con responsabilidades mucho mayores”*. Antagonismoaren planteamendu hori galdu izana, azken urteotako inboluzio ideologikotzat jotzen dute:

...A nivel de discurso se nota muchísimo respecto de la época en la que había dos bloques. Había una lucha y ahora parece que no, ahora hay que cambiar las cosas, algo más abstracto, no queda bien lo otro. Lo que estamos perdiendo es ver claro dónde te posicionas, dónde se posiciona uno.

Gaur egun ez da ja BBV bakarrik, orain da BBVA, hori da diferentzia, Neguri gehi A. A hori non dagoen ez dakit baina be bai da. (HT.3: Irakasleak eta ekonomilaria. Arrasate Euskaldun dezagun (AED). Arrasate.)

Globalizazioaren motorrak ere izenak ditu, bai gobernuak bai makroenpresa horiek. Jendea mugitzen bada eta salaketak egiten baditu (entzerronak, kartelak...) informazioa zabaldu, aldagetak lortu daitezke, pixkanaka-pixkanaka, bat-batean ez baitugu guztia lortuko, baina egin daitezke, jendea informatzen bada eta mugitzen bada... berez ez da informatuko, guk informatuko beharko dugu. (EP.6: Kazetaritzako ikaslea. Euskal Herrian Euskaraz.)

Horrela, giza egintza eragilea (“el papel de cada persona es vital”) zein partaide-tza kolektiboa (“sí que hay opciones si desarrollamos la capacidad de unirnos”) ezinbestekoa iruditzen zaie: “Más que tener más influencia desearía que más gente se diera cuenta de la capacidad de influencia que tiene, yo tengo la que tiene todo el mundo”. (EP.5: komunikazioko ikaslea. MOC-KEM.) Izan ere, ezkututzen diren erre-alitateak ikusi, salatu eta, antolaketa kolektiboaren bidez, horiek aldatzeko eragitea helburu nagusitzat jotzen dute: “la orientación principal es el cambio social, aunque no es tan fácil separar lo personal y lo social”.

Mugimendu sozialen harreman-sareetan sartu ezkerro, giza artekotasuna eraikitzeke beste modu bat antzematen dute, “beste balore eta bizitza-estiloan bizitzeko eta beste balore eta bizitza horiek bidea egin dezaten”; pertsonala eta soziala batera datoz, nolabaiteko eraldaketa pertsonala sentitzen dute praxi eta harreman-sare horietan egonda, “espazio liberatua” da erabilitako irudia, libreago bizitzeko espazioa: “Yo milito porque me parece lo correcto, además el argumento de que estaría mejor en mi sofá pasando de todo, no me convence porque no estaría bien conmigo mismo. Yo no quiero la vida estandar que me venden para nada, porque me parece que tengo una opción bastante mejor”. (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Partaidetza kolektiboa ez dute ikusten, beraz, lagunak egiteko aukera bezala edo auto-laguntzarako estrategia bezala, gizartean eragiteko borondateetik interpretatzen

dute, “el sentido que tiene para mí la participación es éste, es el camino para conseguir cosas, porque yo lucho por conseguir otra realidad y participar te da argumentos para combatir la injusticia”. (EP.5: komunikazioko ikaslea. MOC-KEM). Hala ere, pertsonala eta soziala oso loturik ikusten dute, horrela baten batek zailtasun pertsonalak dituelako mugimendu sozialen espazio horietara hurbiltzea zerbait positiboa iruditzen zaie:

Yo creo que van muy unidos. Yo creo que también hay gente en los colectivos que ves que está sólo y que aparece por eso, o gente que está chungu, porque estamos en una sociedad en la que hay mucha gente machacada. Y como el gaztetxe es un asamblea muy abierta y tal..., yo creo que en los movimientos hay gente que se siente sólo pero esto lo veo en positivo, sobre todo si luego sirve para algo... (ET.2: Historia, medikuntza eta informatika-ko ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Amaitu gabeko esaldi horretan somatu daitekeenez, maila kolektiboan eta sozialean eragitea futsezkoena iruditzen zaie, “sobre todo si luego sirve para algo...”; dena den, gehiengoaren konformismoa, indiferentzia eta erosotasuna gaingaitzea oso zaila irudikatzen dute:

— Es más cómodo, si tú no ves o dices que no ves las cosas no te tienes que implicar en el movimiento por cambiarlas, entonces vives tu vida sin preocuparte ni por nadie ni por nada. Es más cómodo, no tienes que preocuparte por nada.

— Es importante el matiz ese de que la gente no quiere ver, porque hoy más que nunca la gente es consciente de que vivimos en una sociedad injusta, pero cuestionarse eso, enfrentarse, etc... conlleva momentos jodidos, de dudas, etc... y la mayor parte de la gente pasa de eso porque asusta. (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.)

Jende askoren etsipena eta ezintasuna antzematen dute: “Por resignación o por impotencia: ‘total las cosas no se pueden cambiar, yo que voy a hacer, al monstruo de sistema este que le voy a hacer yo’”. (ET.2: Historia, medikuntza eta informatikako ikasleak. Gaztetxea, Recade eta Haika. Gasteiz.). Baina gehiengoaren erosotasuna eta nolabaiteko alienazioa azpimarratzen duen posizio diskurtsibo horrekin batera, bada-go beste posizio bat norberaren prestasuna eta disponibilitatea azpimarratzen duena:

Pertsona batzuren kasuan bizitza bera militantzia bat da (gaixoak zaintzen, seme-alabak ondo hezitzen...). Jendeari ez nioke ezer leporatuko, jende askok nahiko egiten du bere lanean edo bere familian, militatzeko denbora daukagunok beste gauzetan pribilegiatuak gara. Bestaldetik, jendeak ilusioak ditu gaztetasunean, baina gaur egungo erritmoa ez da pertsonarena estructuresa eta joko inposatuarena baizik. Pasibotasuna prozesu baten ondorioa da, adinarekin nagusien pentsamoldean eta betebeharretan sartzen zara eta kontserbadoreagoa bihurtzen zara. (EP.4: Eskolako irakaslea. MOC-KEM.)

Gizarte-sistemak inposatzen duen bizimodua eta erritmoak ez du partaidetza kolektiborako aukerarik uzten eta horrek nolabaiteko alienaziora eramaten zaitu, ez da prozesu sahiestezina eta nahitaezkoa baina bai dominantea: “Adinarekin nagusien pentsamoldean eta betebeharretan sartzen zara eta kontserbadoreagoa bihurtzen zara”. Izan ere, pentsamendu kritikoak garrantzia badu ere, praktika determinantea-

goa irudikatzen dute; eta, bizimodu honek, praktika kolektiborako tartea uzten ez duen neurrian, alienazioaren bultzada egiten du: “Nik pentsatzen dudana edo pentsatzen ez dudana, behar bada ez da indartsua. Baina egiten dudana hain da indartsua ezen ni naizena da nire ekintza. Eta ekintzak adierazten du zer naizen ni. Beraz, azkenik, ekintzak jan egingo du zure ideologia utopiko hori, eta bihurtuko zara zure ekintzaren fruitua eta ez zure ekintzaren aktorea, ezta? Eta beno, puntu horretan dago alienazioa”. (EP.4: Eskolako irakaslea. MOC-KEM.)

Izan ere, partaidetza kolektiboa sustatzen duena norberak dituen barne-printzipioak eta sinismenak dira, eta praktika kolektiboaren bidez ideia horiekin koherentzia bilatu beharra. Konpromiso militantea ez da interpretatzen besteen alde eginbeharreko zerbitzu bezala, baizik eta norberak bere buruarekin eta bere ingurune sozialarekin duen erantzukizun bezala. Irakurketa normatiboa eta sortzailea egiten dute: “Cada uno tiene unos principios y eso es lo que hace que haga o que no haga. Los que estamos aquí estamos militando, cada hormigueta tenemos que hacer nuestro curro y ya funcionará el hormiguero y si no funciona ¡qué le vamos a hacer! Pero yo estoy obligado por mis convicciones y no puedo renunciar a eso, algo que es intrínsecamente mío”. (ET.6 : Unibertsitateko zerbitzuetako langileak eta eskolako irakasleak. Elkarri eta Bakearen Aldeko Koordinakundea. Bilboaldea eta Durangoaldea.). Inurrien metaforak argiro adierazten du banakakoa eta kolektiboa uztartzeko nahia, norbera koherentea izatea eta, aldi berean, gizartean eragitea:

Partehartzea ematen didana da gustora egotea eta nire buruarekin koherentzia minimo bat edukitzea, oreka bat ‘a tortas’ ez egoteko nire buruarekin. Gure taldea erreferentzia txiki bat izatea eta eragiteko ahalegina egiten duzula pentsatzea. Egingo ez banu ez nintzateke gustora egongo. Erantzukizuna daukat nire ideiak, justizia sozialaren kontzeptu zabal horrekin, horri begira egon eta partaide izan, horri begira zerbait aportatzeagatik ni gustora sentitzen naiz. (EP.2: Eskolako irakaslea. Ttakun euskal kultur elkarteak.)

Gauzak hobetzen ez diren bitartean uste dut hemen egon behar naizela. (EP.6: Kazetari-tzako ikaslea. Euskal Herrian euskaraz.)

Arestian esan bezala, azterketa honen hirugarren helburua definitzeko galdetu egin genion geure buruari nolako ikuspegiak bereiztu al zitezkeen giza egintza eragile eta partaidetza kolektiboa ulertzeko moduari dagokienez. Horrekin loturik, aztertu nahi izan dugu ea gizartearen garapena eta gidaritza irudikatzen moduak nolabait ere erlazioa duen egintza indibiduala eta egintza kolektiboa ulertzeko moduarekin. Azterketaren hirugarren interesgune hau izan da, seguruenik, argien ahalbidetu diguna posizio diskurtsiboak polarizatzea. Izan ere, gizartearen produkzioa eta gidaritza irudikatzen bereiztu ditugun oinarritzako lau diskurtsotan, giza egintza eta partaidetza kolektiboa ulertzeko modu ezberdinak bereizteko bidea ikusi dugu ere.

Partaidetza kolektiboaren *praxi*- eta harreman-sareetan ez dauden elkarrizketatuek bi posizio diskurtsibo produzitu dituzte. Lehenengoan, giza egintzaren ulermen utilitarista adieraziz, integratu eta adaptatu beharra azpimarratzen dute; egintza kolektibo antolatua alferrikakoak edota ez-fidagarriak kontsideratzen dituzte. Bigarren posizio diskurtsiboan, aldiz, giza egintzaren ulermen normatiboagoa irudikatuz, joera sozial nagusiek ezartzen duten derrigortasuna eta nahigabeko inertzia azpimarratzen

dute. Egungo joera nagusiek, abiadura eta indar handia daukatelako, testuinguru ez-tasegina eta gogorra ezartzen dute; horren aurrean, norbera bere ingurune hurbilean beste logika baten arabera funtzionatzen ahalegintzea da geratzen dena, partaidetza kolektiboa usteldutako eta biziatutako mundu politikoarekin erlazionatzen baita. Zailak badira ere, ahalegin hurbil eta txiki horiek dira eginbeharrekoak; eta, maila kolektiboan, ezintasuna nagusi bada ere aterpe bilatzen da politikatik kanpo irudikatzen diren ekimenak laguntzen (governuz kanpoko erakundeak, kontsumitzaile-elkarteak, talde ekologistak...), horiek baitira fidagarritzat jotzen diren ekimen kolektiboak.

Partaidetza kolektiboaren *praxi*- eta harreman-sareetan ari diren elkarrizketatuek beste bi posizio diskurtsibo produzitu dituzte. Lehenengoan, giza egintzaren ulermen normatiboa adieraziz, errealitatean dauden injustiziekiko norberak daukan erantzukizuna eta ardura azpimarratzen dute. Beste baloreen arabera jokatu beharra eta beste balore horiek transmititu eta ingurunean proiektatu beharra aldarrikatzen dute; horixe baititzateke giza egintza indibiduala eta kolektiboaren koska nagusia. Hortaz, alde batetik, norberak bere eguneroko esparru txikietan gauzatu beharreko baloreen aldaketa; eta, bestetik, paternalismo karitatiboa gaindituz, besteen alde zerbait egitea (zerbitzu edo ekarpen bat gu baino okerrago bizi direnen alde), izango dira aldaketa sozialerako bideak.

Azkenik, partaidetza kolektiboaren *praxi* eta harreman-sareetan produzitu duten bigarren posizio diskurtsiboak, beste aktore kolektiboen kontrako jarrera eta antagonismoa azpimarratzen du; ezadostasuna gatazka bihurtu beharra. Antolaketa kolektiboaren bidez geratzen den giza sormena litzateke koxka nagusia; izan ere, inposatu nahi duten gizaki-eredu utilitarista eta elkarbizitza-eredu lehiakorra nahitaezkozat bailitzan ez barneratzeko, ezinbestekozat jotzen dute antolaketa kolektiboaren bidez sortu diren beste logika baten araberako espazio sozialetan aritzea. Beste era batera bizitzeko aukera eskeintzen duten espazio horietatik, normalean manipulatzeko eta ezkutatzeko diren errealitateak salatu eta zabaldu beharra azpimarratzen dute; baita injustizia horien erantzule nagusiei aurre egin beharra ere. Pertsonala eta kolektiboa, beraz, oso lotua irudikatzen dute; mugimendu sozialen *praxi* kolektiboan aritzea askatasun gehiagoz bizitzeko modua da eta, aldi berean, bizimodu libre horiek eraikitzea bidea egin dezaten eta zabaldu daitezten.

6. DISKURTSOEN INTERPRETAZIOAREN ONDORIOAK AZTERKETAREN HELBURUEN ARABERA

Geure azterketa enpiriko honetan, praktika kualitatiboetaz baliatuz, aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko diskurtso sozio-ideologikoak polarizatu ditugu. Horrekin batera, azterketa sozio-hermeneutikoaren bitartez, gizartearen aldaketa zein giza egintza eragilea irudikatzeko aktore-sareek berregiten ari diren erreferente sinboliko-kulturalak interpretatu ditugu.

Arestian aipatu bezala, aktore-sare horien diskurtsoak, bere harreman eta praktikeen testuinguruan aztertzen ahalegindu gara; aktoreek adierazten dutena, beraien

hartu-eman eta praktika horiekin erlazionatuz. Aztertu ditugun praktika sozialak egintza kolektiboaren praktikak izan dira. Hau da, prozesu sozialetan edota politikoetan partehartzeko eta eragiteko ageriko borondatearekin eratuta dauden harreman-sareak eta praktika mobilizatzaileak; edo, beste era batera esanda, antolaketa kolektiboaren bidez eta gizartea eragiteari begira, aktibismoa, militantzia edo konpromiso partehartzailea berregiten duten *praxi* kolektiboak.

Era berean, erakunde sozialetan partehartzen ez duten harreman-sare desmobilizatuak ere aztergai izan dugu; hau da, prozesu sozialetan edota politikoetan eragiteko ageriko borondatea ez duten harreman-sareak eta praktika desmobilizatuak. Izan ere, praktika-sare ezberdin horietara hurbilduz, aztertzen ari gara espazio sozial horietan gizartearen produkzioa eta aldaketaren inguruan berregiten ari diren diskurtso sozio-ideologikoak.

Horrela, azterketa enpirikoaren galbahea pasatu nahi diogu hipotesi moduan definitu dugun baieztapen teorikoari: praktika partehartzaileek sormen instituzionala eta gizarte-instituzioen antzemate deskosifikatzailea ahalbidetzen dute; beste era batera esanda, partaidetza kolektiboaren *praxiak* egitura sozialen antzemate kontingentea ahalbidetu dezake, hots, gizakion praktikaren esku dauden errealitate eragingarri bezala irudikatzea. Prozesu sozialetan edota politikoetan eragiteko ageriko borondatearekin *praxi* kolektiborik ez dagoenean, aldiz, gizarte-instituzioen antzemate kosifikatua eta naturalizatua irudikatze joera dago; hots, gizartearen instituzioak eta egiturak gizakion esku ez dauden errealitate urrun eta eraginezin bezala antzematea.

Hortaz, azterketa enpirikorako definitu genuen galdera edo arazo enpirikoa ondo-ko hau izan zen: nola irudikatzen dute gizartearen produkzioa eta gidaritzza, partaidetza kolektiboaren *praxietan* ari direnek, eta *praxi* horietan ari ez direnek? Non kokatzen dute gizarte-aldaketaren kontrola? gizakiaren egintza indibidualean, gizarte-egituren berezko dinamikan, gizakien gaineko logika meta-historikoa eta unibertsalaren batean, gizakiok sozialki eraikitako mekanismoetan... Aztergai izan dugu, beraz, gizartearen eraikuntza eta aldaketa prozesu kontingente bezala antzematea edo halabeharrezkotasanak gidaturiko prozesu bezala antzematea. Aurreko atalean ikusi dugun bezala, azterketa hori hiru azpigai nagusien arabera garatu dugu:

1. Aldaketa sozialei eta globalizazioari buruzko pertzeptzioak.
2. Gizartearen produkzio eta gidaritzaren inguruko irudikapenak.
3. Giza egintza eragilea eta partaidetza kolektiboa ulertzeko moduak.

Hurrengo atalean ondorio orokorrak eta teorikoagoak definituko baditugu ere, azterketa enpirikoan izan ditugun aztergai eta helburu horien arabera, diskurtsoen interpretazioak ondorengo konklusioetara eraman gaitu:

1. Partaidetza kolektiboaren *praxia*, aldagai egokia eta esanguratsua suertatu zai- gu egungo gizartearen aldaketa, produkzioa eta gidaritzaren inguruan berregiten ari diren diskurtsoak polarizatzeko. Lehenengo eta behin, ahalbidetzen duelako *praxi* sozialak (gure kasuan partaidetza kolektiboaren *praxiak*) azterketaren erdigunean kokatzea; eta, gizabanakoa edo gizarte-egituran gizabana-

koak duen kokapena erabateko protagonismoa hartu barik, giza artekotasuna erdigunean kokatzea. Izan ere, gizabanakoari lotuagoak dauden aldagaiak (adina, sexua, bizitokia, lanbidea...) edo gizarte-egiturari lotuagoak daudenak (klase soziala, nortasun kolektiboa, hizkuntza-komunitatea...) kontuan hartu baditugu ere, geure diseinu teknikoak aktoreen *praxi* kolektibo antolatua kokatu ditu erdigunean; horrela, erlazionatu ahal izan dugu produkzio diskurtsiboek aktoreak, aktore-sare moduan harturik, dituen hartu-eman eta *praxi* kolektiboekin.

Partaidetza kolektiboaren aldagaia egokitzen jotzeko bigarren arrazoia, gizartearen aldaketa, produkzioa eta gidaritzari buruzko diskurtsoak polaritzatzeko erakutsi digun baliagarritasuna litzateke. Izan ere, hipotetikoki aurreikusi genuen bezala, aldagai esanguratsua suertatu zaigu posizio diskurtsiboak bereizteari begira; beti ere ahaztu barik, teknika eta praktika aztertzaileen bitartez, informazio enpirikoa biltzeaz gain informazio hori produzitzen ari garela interesatzen zaigun gaiak duen konplexutasuna murrizteko eta azterketaren helburuen arabera nola edo halako interpretazioa eta konprentzioa lortzeko.

Esan genezake, beraz, lehenengo ondorio gisa, azterketa soziologikoetan orain arte funtsezkoak kontsideratu diren aldagaiekin batera, *praxi* kolektibo antolatuetan aritzea (gizartean eragiteko ageriko borondatearekin) kontuan hartu beharreko beste aldagai garrantzitsua dela; izan ere, gizabanakoa eta gizarte-egituraren arteko giza artekotasunaren mailan kokatzeaz gain, jarraian ikusiko dugun bezala, *praxi* horiek gizartearen antzemate kontingentea ahalbidetzen baitute, hots, errealitate soziala gizakion esku dagoen errealitate eragingarri bezala antzematea.


2. Bigarren ondorio gisa, azterketa enpirikoaren bitartez erantzun nahi genuen galdera nagusia erantzun beharrean gaude: nola irudikatzen dute gizartearen produkzioa eta gidaritza, partaidetza kolektiboaren *praxietan* ari direnek, eta *praxi* horietan ari ez direnek? Non kokatzen dute gizarte-aldaketaren kontrola? Azterketan zehar ikusi dugunez, galdera horiek ez daukate erantzun zuzena edo zentzubakarrekoa; *praxi* kolektiboaren harreman-sareetan ari ez direnek modu ezberdinetara irudikatzen dute gizartearen produkzioa eta gidaritza: batetik, progresoaren sinismenean oinarritutako eboluzio linealaren ikuspegia dugu; bestetik, progresoaren sinismena zalantzan ipintzen duen ikuspegi eszeptikoa dugu. Beste horrenbeste esan daiteke mugimendu sozialen *praxi* eta harreman-sareetan ari direnetaz: batetik, indarrean dagoen progreso-ereduak dituen baloreak kritikatu, beste baloreen arabera jokatu beharra azpimarratzen duen ikuspegia dugu; bestetik, progreso-eredu honen elementu ideologikoak eta politikoak lehenetsiz, salaketa eta aurkakotasuna azpimarratzen duen ikuspegia dugu. Irudikapen sozio-ideologiko horiek ez dute agortzen geure gizartean dauden guztiak, espazio sozial zehatz batzuetan eta geure helburuen arabera indarrean dauden eta polarizatu ditugun diskurtso sozio-ideologiko batzuk dira. Are gehiago, sailkapen hauekin guztiekin gertatu ohi denez, errealitatean dagoen aniztasun nahasia ordenatu eta sinplifikatu egin dugu azterketa bideratu ahal izateko.

Dena den, geure galdera enpirikora bueltatuz, zentzubakarreko erantzun zuzena ez emateak, ez du esan nahi aktore-sare ezberdinek produzitu dituzten diskurtsoetan geure helburuetarako oso esanguratsuak diren aspektuak azpimarratu ezin ditzakegunik; izan ere, gizartearen produkzioa berezko progresu automatiko gisa irudikatzea, kontingentziarik onartzen ez duen eboluzio lineala eta saihestezina irudikatzea, soilik partaidetza kolektiboaren *praxietan* ari ez diren aktore-sareetan egin dute; horrekin batera, giza egintza modu utilitaristan irudikatzea, eta gizartea kanpoaldekotasun derrigortzaile gisa antzematzea, erakunde sozialetan ez dauden aktore-sareek produzitu dute. Horrela, norberak bere interesen arabera jokatzeko, gizarteak ezartzen duen inperatibo gisa baieztatzen da; gaur egungo gizartean bizi nahi baduzu eta bazterrean geratu nahi ez baduzu derrigorrez onartu behar duzun irizpidea.

Ondorengo hau litzateke aldaketa soziala, gizartea eta gizabanakoaren artean egiten den lotura, adaptazioaren *praxi* diskurtsibo honetan: gizarteak aurrera egiten du etengabe progresu edo hobekuntzaren norabidean, eboluzioa da; aurrerapen teknologikoen eta hazkunde ekonomikoak gidatzen dute prozesu hori eta, ondorioz, progresuaren eboluzio lineal horretan batzuk aurrerago daude eta beste batzuk atzerago. Aurrerapenetaz baliatzea eta lehenbailehen onartzea eta integratzea, atzean ez gelditzeko modu bakarra da. Ahalegin horretan dago jendea: ondo prestatzea lehiakorra izateko eta aurrerago daudenen mailara iristeko. Gizartearen eboluzioak ezartzen du logika lehiakor eta utilitarista hori. Bazterrean ez baduzu geratu nahi, ez dago beste biderik edo aukerarik, gizabanakoak bere hobeto bizitze hori bilatzen du; atzera begira egon barik, aurrera begiratzen du, aurretik doazenekin homologatzea. Egia da, bestaldetik, asko eta asko atzean gelditzen direla, horren aurrean bi irudikapen kontraesankorrek daude *praxi* diskurtsibo honetan: batetik, guk zenbat eta gehiago eboluzionatu haiek atzerago geldituko dira, hori ez litzateke horrela izan beharko baina onartu beharra dago, gehiago daukana gehiago nahi duelako. Bestetik, aldiz, haiek ere eboluzionatzen doaz eta denbora kontua da, linealtasunaren irizpidea jarraituz, aurrerapenak eta aukera berriak denborarekin zabaltzen (edo popularizatzen) dira jende guztiaren bizitza-maila igoz. Progresoa, zentzu horretan, berdintzailea da; horren frogara dugu gu aurreko belaunaldiak baino hobeto bizi garela eta hurrengoak ere hobeto biziko direla, aurrerapenak eta asmakizunak etengabekoak direlako. Gizarteak aurrera eta aurrera egiten du eta gizabanakook pragmatismo utilitarista baten arabera moldatu behar saihestezina daukagu.

Esan bezala, mugimendu eta erakunde sozialen *praxi*- eta harreman-sareetan ez dauden guztiak ez dute bere egiten progresu linealaren ezinbestekotasun hori. Izan ere, soslai berdineko beste elkarrizketatu batzuk, hau da, ertain klaseko ikasleek eta zerbitzu sozial edo kulturaletako langileek, progresu-eredu horrekiko eszeptikoa den jarrera diskurtsiboa produzitu dute. Ez dute bere egiten arestian deskribatu dugun progresuaren etengabeko hobekuntzarekiko sinismen hori; hobekuntza eta bizimodu hobea ez da eboluzioak berez dakartzan zerbait. Produkzio diskurtsibo honen nondik norako nagusiak ondorengoak li-

rateke: ekonomiak markatzen du eboluzioaren martxa, ekonomia da motorra; beti bilatzen da ekonomia mailan edo teknologia mailan gu baino gehiago denarekin homologatzea, gobernuari ekonomiak agintzen dio lehiakorrek izan beharra. Gainera, zorionez edo zoritxarrez, joera ekonomizistak eta lehiakorrek aurrerapen eta abantaila asko ekartzen dute, horrela da eta horrela onartu beharra dago. Bestaldetik, gizabanakoaren berezko joera, egoista eta interesatua da, bere ondo bizitzea bilatzen du; eta, gizarte mailan, gauza bera gertatzen da. Logika ekonomizistak indar handia daukate, nahi edo nahi ez eramaten zaitu; sartu behar zara, gizartearen logika horrek ezarri egiten dio gizabanakoari nolabaiteko joera lehiakorra eta individualista, ezin zaio ihes egin, saihestezina den derrigortzea da. Horrela, giza egintzaz egiten den irudikapena, irudikapen utilitarista da, baina modu heteronomoan ulerturik; hau da, gaur egungo gizarteak ezartzen duen derrigortasun gisa. Gaur egungo aldaketa-joerak etekinaren logika ekonomikoaren esku daude eta ezer gutxi egin leike horren aurrean. Posizio diskurtsibo honetan, beraz, gizartearen berezko progreso eta hobekuntzaren meta-narrazio lineala ukatzen bada ere, garapen sozialaren kontingentzia ukatzen duen nolabaiteko nahitaezkotasuna onartzen da; gizarteak ezin bestean ezarritako joerak.



Arestian aipatu bezala, mugimendu sozialen *praxi* eta harreman-sareetan ari direnen artean, beste bi posizio diskurtsibo bereiztu ditugu; lehenengoan, bes-telako baloreen arabera jokatu beharra azpimarratzen duen ikuspegia dugu.

Gaur egungo aldaketa-joerak indibidualismoa, lehiakortasuna eta diruaren baloreek lortu duten nagusitasunaren ondorioa dira; inongo erreferentzia kolektiborik gabe, bakoitzak bere intereserako eta bere probetxurako edozein gauza egin dezakeela, edozein jokaera zilegi dela, horixe da gaur egun zabaltzen ari den pentsaera eta jokaera. Horri aurre egitea da beraz gakoa. Izan ere, pentsaera eta balore horiek ez dira bidezkotzat ezta giza legezkotzat jotzen, ez baitute elkartasunerako eta aukera-berdintasunerako aukerarik uzten.

Aurreko diskurtsoan ez bezala, ordea, pentsaera eta balore horien nagusitasuna ez da gizakiaren berezko joera kontsideratzen, ezta gizarteak ezinbestean ezarritakoa. Gizartearen indarra eta presioa handia da, baina beti dago beste era batera jokatzeko aukerarik; inertzia dominante horretatik ateratzeko aukera eta beharra dago. Izan ere, kontsensu nagusian bizi-kalitatea eta progreso gisa identifikatzen dena insatisfakzio handia sortzen duen bizimodua bilakatzeko ari da. Horrekin batera, indarrean dagoen garapen-eredua injustua eta eutsiezina iruditzen zaie, munduko populazio gehienak ez baitu oinarrizko betebeharrak asetzeko behar adinako aukerarik eta bitartekorik. Ez dituzte onartzen, beraz, gaur egungo joerak, etengabeko progreso edo hobekuntza gisa; eta, ondorioz, erreferentzia nagusia ez dira balizko garapen lineal batean aurretik doazenak, baizik eta gure ongizatea eraikitzeke zapalduak izan direnak. Premiazkoa dena, beraz, ez da ekonomia edo teknologia mailan gu baino aurreratuago daudenekin homologatu beharra, baizik eta gu baino bizi-baldintza kaskarra goetan bizi direnak laguntzea.

Hortaz, beste balore eta lehenetasunen arabera jokatzeko beharra azpimarratzen den neurrian, gizartearen garapena irudikatzeke orduan norabide-aldaketa aldarrikatzen da; eta, ondorioz, etorkizunaren kontingentzia aldarrikatu eta nahitaezkotasunaren ukapena egiten dute. Funtsezkoena, norabide-aldaketa horretan, norberaren erantzukizuna da, eta dagoen injustizia geure bizimodu oparoarekin erlazionaturik ikustea. Izan ere, norberaren erantzukizunaren nolabaiteko onarpena eta espiazioa da lehenengo eta behin eginbeharrekoa. Geure pribilegioei muzin eginez, balore-aldaketa hori gauzatzeko gai izango ez garen bitartean, alferrikakoa da enpresa edo gobernuak besteen alde zerbait egingo dutenik itxarotea. Zentzu horretan, arlo politikoa saihestuz, norberaren printzipio normatiboak berplanteatu beharra azpimarratzen dute. Norberak bere eguneroko esparru txikietan gauzatu beharreko baloreen aldaketa izango da aldaketa sozialerako bidea, hori eta belaunaldi berriei transmititzea gu baino okerrago bizi direnak gogoan eduki behar ditugula eta euren alde zerbait egin beharra dagoela.

Azkenik, mugimendu sozialen *praxi*- eta harrema-sareetan ari direnek, bigarren produktio diskurtsibo bat burutu dute; hain zuzen ere, progreso-eredu honen elementu ideologikoak eta politikoak lehenetsiz, salaketa eta aurkakotasuna azpimarratzen duen ikuspegia. Globalizazioaren kategoria bera kuestionatuz, kategoria ideologikotzat jotzen dute, kapitalismoaren erabateko hegemonia eta zapalkuntza ezkutatzeko ahalegin ideologikoa. Gaur egungo aldaketa-joerak irudikatzeke orduan, irakurketa edo antzemate politikoa goa

adierazten dute: inperialismoa, pentsamendu bakarra, hegemonia kulturala, politika neoliberalak (merkatuen desregulazioa, pribatizazioak...). Arestian aipatu bezala, lehiakortasunean, produktibismoan eta kontsumo indibidualistan oinarritzen den gizarte-eredua irudikatzen dute, eredu horren zabalkundea eta inposaketa. Izan ere, manipulazioaren bidez, kontsumismoan oinarritutako itxurazko askatasuna eta zorientasunaren engainua gero eta gehiago hedatzea antzematen dute.

Hori guztia gizartearen berezko eboluzioaren ondorio gisa kontsideratzea amarru ideologiko onartezina iruditzen zaie, gaur egun oso zabalduta dagoen engainua. Izan ere, euren irudikapenean, indarrean dagoen elkarbizitza-eredua eta pertsona-eredua bultzatzaileak ditu, gauzak beren erara bideratzeko eta nahitaezkotasunaren engainu ideologikoa zabaltzeko boterea duten aurkariak. Multinazionalak eta erakunde finantzieroek pentsamendu neoliberalak ezarri dute arlo politikoan (gobernuetan zein nazioarteko erakundeetan); horixek guztiak lirateke, beraz, aurkariak.

Horrela, lege historikoen determinismoa edo aldaketa sozialaren naturalizazioa ukatzea, borroka sinboliko-ideologikoan gainditu beharreko lehenengo gauza iruditzen zaie, horixe baita alienazioaren funtsa, konformismoaren eta pasibotasunaren oinarria. Aldaketa sozialen produkzioa eta gidaritzak, beraz, egintza kolektiboaren sormenean kokatzen dute. Gidaritzak erabat sozializatua eta humanizatua irudikatzen dute; gizakiak kolektiboki duen sormenerako eta borrokarako gaitasunean kokatzen dute. Ez dirudi, hortaz, giza egintza indibiduala eta boluntarista hipostasiatuz, egintza intentzionalaren determinismo historikoa baieztatzen dutenik (ez instrumentala, ez normatiboa); kolektibitatearen sormena eta askatasunaren bilaketa dira erdigunean dauden kategoriak. Salbuespena litzateke, diskurtso honen barruan, baldintza sozio-estrukturalen determinismoa baieztatzen duen posizio diskurtsiboa; honetan, aldaketaren motorra baldintza objektiboen arabera eratzen diren subjektu kolektiboen indarra da.

Oro har, gizakiaren irudikapen positiboa egiten dute, indibidualismoa eta jorkaera utilitaristak ez lirateke gizakiaren berezko joera saihestezinak, baizik eta egungo ideologia eta ereduaren ondorioa. Askatasuna eta sormena irudikatzen dute gizakion berezko ezaugarri gisa, "boladaka" beti agertuko diren dimentsioak gizartearen bilakaeran. Denbora historikoaren irudikapena, beraz, lineala izan barik modu ziklikoago batez antzematen dute; aldaketa historikoaren planteamendua dialektikoa da, baina ez dirudi helmuga zehatzik duen historiaren meta-narrazio dialektikoa egiten duenik, baizik eta irudikapen kontingentea eta ez-jarraitua baieztatzen denik.

3. Azterketa empiriko honen azkeneko ondorio bat lotua dago diskurtsoak polarizatzeke erabili ditugun praktika kualitatibo ezberdinekin. Izan ere, diskurtsoen produkzioak berezko ñabardurak hartu ditu eztabaida-taldean, hiruko-taldean eta elkarrizketa pertsonaletan. Oro har, eztabaida-taldeetan, diskurtsoaren talde-adierazpenak elementu diskurtsiborik kristalizatuena eta topikoenak sortu ditu; taldekideek zituzten perteneziazko erreferentzien

arabera, horrekiko koherenteak eta “politikoki zuzenak” ziren planteamen-
duak. Zentzu horretan, praktika eta harreman-sarearen determinazioa, koka-
pen-efektua, indartsuagoa iruditu zaigu; eta, giroan giroko kontsensuak eta es-
tereotipoak errepikatzeak, taldean eraiki beharreko adostasun koherentea
bilatzen zuen. Horrexegatik, hain zuzen ere, eztabaida-taldeetan produzitu di-
ren diskurtsoak oso erabilgarriak suertatu zaizkigu ezberdindu ditugun oina-
rriko lau diskurtsoen hasierako polarizazioa egiteko.

Elkarrizketa pertsonalen bitartez eskuratu ahal izan dugu oinarrizko lau dis-
kurtsoak sakontzeko eta aberasteko modua. Izan ere, elkarrizketatu batzuk
bete-betean heltzen zioten horietako diskurtso bati; hau da, diskurtso horren
garapen tipikoa eta ideala egiten zuten, zenbait kasutan, muturrekoa. Elkarriz-
ketatuek beren pertzeptzioaren koherentzia bilatzen zuten baina, kasu askotan,
zalantzak, ez-jakintasanak edo kontraesanak ezkutatu barik. Horrek, diskur-
tsoaren produkzio pertsonalean agertzen diren erreferentzia eta bizipen parti-
kularrak, afektiboak eta sentimenduzkoekin batera, ahalbidetu digu posizio
diskurtsiboekin enpatizatzeke aukera sakonagoa.

Azkenik, hiruko taldeetan diskurtso nahasiagoak produzitu dituzte. Errefe-
rentziazko diskurtso dominantea berproduzitzen da baina, aldi berean, nola-
baiteko ekarpen pertsonalizatuagoa egitea bilatzen da. Horrela, onarrizko lau
diskurtsoak problematizatzeko eta gordetzen dituzten elementurik ahulenak
edo zalantzazkoenak antzemateko aukera eman digute. Era berean, kokapen-
efektua lehenago zelako eta, koherentzia baino, elementu edo ekarpen berriak
sortzea bilatzen zutelako; oinarrizko diskurtso bat baino gehiago gainjartzeak
eta aldi berean produzitzeak, aukera eman digu oinarrizko diskurtsoen artean
zeuden distantziak eta bateratasun puntuak antzemateko.

Horiexek izan dira, beraz, azterketa enpirikoak tesi-lan honi ekarri dizkion
aportazioak. Ikus ditzagun, azkeneko atalean, planteamendu teorikoagoekin
lagundurik, nolako ondorio orokorrak ezartzen dizkiogun geure lan honi.

**III ATALA: GIZA ARTEKOTASUNA
ETA ALDAKETA SOZIALA,
ONDORIOAK**

1. SARRERA

Gizartearen produkzioa eta gidaritza aztertzea izan dugu, geure lan honetan, iparra eta helburu. Azkeneko atal honetan, egin dugun azterketa teorikoa eta azterketa enpirikoa kontuan hartuz, geure azken hausnarketak eta ondorioak egingo ditugu.

Horretarako, abiapuntu egokia iruditzen zaigu azterketa teorikoaren ondorio gisa definitu genuen planteamendu teoriko-hipotetikoa berreskuratzea eta, egindako lanaren argira, nolako hausnarketak iradokitzen dizkigun aurkeztea.

2. GIZARTEAREN IRUDIKAPENA ETA PARTAIDETZA KOLEKTIBOA

Ondoko hau izan zen lan honen hipotesi moduan definitu genuen baieztapen teorikoa: Aktore-sareek, praktika parte-hartzaile antolatuak garatzen dituzten neurrian (gizarte eragiteko ageriko borondatearekin), gizarte-instituzioen antzemate deskosifikatzailea eta aldaketa sozialaren irudikapen kontingentea agertzen dute; beste era batera esanda, partaidetza kolektiboaren *praxiak* egitura sozialen antzemate kontingentea ahalbidetu dezake, hots, gizakion praktikaren esku dauden errealitate eragingarri bezala irudikatzea. Prozesu sozialetan edota politikoetan eragiteko ageriko borondatearekin *praxi* kolektiborik ez dagoenean, maldiz, gizarte-instituzioen antzemate kosifikatua eta naturalizatua irudikatzeko joera dago; hots, gizartearen instituzioak eta egiturak gizakion esku ez dauden errealitate urrun eta eraginezin bezala antzematea.

Gogora ditzagun ere, zeintzuk izan ziren baieztapen hori definituzera eramán gintuzten planteamendu teorikoek: instituzio eta gizarte-egituren kosifikazio edo reifikazio prozesuak aspaldiko kezka dira pentsamendu soziologikoan; izan ere, instituzio sozialetan eratu diren pentsatzeko-, jokatzeko- eta sentitzeko-erak, ziurtasun aldaezinak bailiran irudikatzerakoan, nahitaezko itxura objektiboa eta aldaezina hartzen dute. Horrela, gizakiok protagonizatutako prozesu sortzailea ahaztuz, “bigarren natura” bat bailitzan inposatzen zaio gizakiari. Eguneroko praktiken atzean dauden adostasunak berezkoak eta aldaezinak irudikatzen diren neurrian, ez da antzematen euren sorrera intersubjektiboa, kontingentea eta aldagarria. Nahitaezkoak irudikatzen diren neurrian, historikoki testuinguru bakoitzean sortutako eta instituzionalizazio prozesuen bidez eratutako eskema kulturalak (balioak, ideologiak, arauak...) eta elkartrukere-sareak —baliabide, aukera eta boterearen banaketa asimetrikoak itxuratzen dutenak—; hots, historikoki hartu-emanen bidez produzitzen eta erreproduzitzen dugun

errealitate soziala, giza kontrolaren eta gidaritzaren esku ez dagoen errealitate gisa irudikatzen dugu. Onartu beharreko patua bailitzan inposatzen da, horrek dakarren boterearen galerarekin edo, Castoriadis-en hitzetan, gizabanakoaren heteronomia alienatzailea eta giza artekotasunaren autonomia edo auto-determinazio galerarekin.

Durkheim-en hasierako determinismo normatibista, eta estukturalismotik eratorzen den pentsamendu sistemikoa (funtzionalista zein materialista) izan dira, gizabanakoaren kontzeptualizazio determinatua eta heteronomoa eginez, gizarte-instituzioen kosifikazio eta naturalizazio hori irudikatu duten pentsamendu-korronteak arlo soziologikoan. Baina, giza egintzaren kontzeptualizazio heteronomo hori egin ez duten beste teorilari nagusiengan ere aurkitu ditzakegu kosifikazio prozesuen ezinbestekotasuna baieztatzen duten planteamenduak. Max Weber-rek, adibidez, gizarte-instituzioen kosifikazioa instituzionalizazio prozesuen nahitaezko joera gisa teorizatu zuen. Autore alemaniarrentzat, giza egintzak eta elkarregintzak sortzen duena indarrean jartzen den neurrian jarraibide instituzionalizatuak ezartzen ditu; eta, horrela, hasierako giza sormenarengandik urrunduz, traba egiten die egintza sortzaile berriei. Momentu batean sortzailea edota iraultzailea den egintza kolektiboa, mugatzailea izango da instituzionalizatzen den neurrian; gizarte-antolaketa berria sortarazi dezake baina, prozesu berean, ordenamendu berria nahitaezko izaera derrigortzailea hartzen duen neurrian, giza egintza sortzailearen ezeztapena ekarriko du. Hortaz, Weberrentzat, horixe litzateke giza egintza sortzailearen paradoxa: bere garapen historikoan nahitaezko izaera derrigortzailea hartzea; hots, auto-ezeztatzailea izatea bere baitan giza menpekotasuna eramateagatik. Horrela ulertzen du, Weber-rek, gizabanako partehartzaileak izatetik makineriaren morroiak izatera dagoen iraganbidea; ez ditu antzematen gizarte-antolamendu malguak eta auto-transformatzaileak sortzeko aukera.

Kosifikazio prozesuak saihestezinak bezala aurkeztea, ordea, oso kritikatu izan da errealitate sozialaren aspektu hau aztertu duten autore askoren aldetik. Cornelius Castoriadis-ek, Anthony Giddens-ek edo Hans Joas-ek defendatu duten bezala, kosifikazio prozesuak ekidinezinak kontsideratzea gizartean instituzionalizatu dena giza elkarregintzak sorturikoa eta biziberritua dela begibistatik galtzea da eta, ondorioz, egituren determinismoan erortzea; gizartearen eta historiaren kontingentzia desageraraztea eta halabeharrezkotasunaren defentsa egitea. Giddens-entzat, kosifikazioa, diskurtso mota bat da; gizarte-sistemaren zenbait ezaugarri, objetiboki emanda dauden ezaugarri sasi-naturalak direla interpretatzen duena, euren izaera arautzaile eta derrigortzailea maila gorenera igoz. Hortaz, ezaugarri eta fenomeno sozialak giza *praxiaren* produkzioa eta erreprodukzioaren emaitza direla ezkututzen duen diskurtsoa da. Kosifikazioaren diskurtsopean, elkarbizitza kolektiboa, kontrol kolektibo demokratiko baten esku egon beharrean, elite boteretsuen esku dago. Autore ingelesak nabarmendu du diskurtso reifikatuak aktore sozialen artean zein zientifiko sozialen artean ematen direla eta, arestian aipatu dugun bezala, historikoki kontingenteak diren giza egintzaren produktu eta baldintzen naturalizazio diskurtsibo hori, ideologiaren alderdi nagusia da bizitza sozialean²⁷⁷.

²⁷⁷ GIDDENS, A. *La constitución de la sociedad. Bases para la teoría de la estructuración*. Amorrortu. Buenos Aires, 1995. Orr. 62.

Baina, era berean, Giddens-ek azpimarratu du ere gizartearen egiturak eta instituzioek, gizabanakoaren bizitza baino harantzago doan iraupen bat daukaten neurrian, nolabaiteko kanpoaldekotasuna daukatela gizabanakoekiko. Kanpoaldekotasun hori onartzeak, ordea, ez du esan nahi instituzio sozialen derrigorrezkotasun saihestezina onartzea; horrela egingo bagenu instituzio eta egituren prozesu sortzailea agerrarazi beharrean prozesua ezkutatuko genuke eta, ondorioz, gizakiaren gidaritza-ahalmena ezeztatuz determinismo estrukturalen egongo ginateke.

Joas eta Castoriadis-ek ere azpimarratu dute jarraibide instituzionalizatuak ez dira berez derrigortzaileak, lotura derrigortzailea sortarazten dugu euren sorrera intersubjektiboa ukatzen dugunean edo begibistatik galtzen dugunean. Gizarte-instituzioak alienatzaileak bihur daitezke bere imaginarioan daukatena geure produktu bezala ikusten ez badugu. Alabaina, gizarte-instituzioak ez dira berez alienatzaileak, posibilitate alienatzaile horretan funtsezkoena ez da instituzioen izaera, baizik eta gizarteak eta bere partaideek instituzio horiekin daukaten hartu-eman. Hartu-eman partehartzaileen bidez, posiblea da instituzio sozialak sustatzen dutenen ohiko tankera mugiezina eta derrigortzailea malgutzea eta aldatzea; horrela, kosifikazioa etengabe deskosifikatuz, instituzioen auto-transformazioa eta sormen eraikorra bultzatuko genuke. Azken hau izan zen, hain zuzen ere, abiapuntu moduan hartu genuen planteamendua geure hipotesi enpirikoa definitzeko. Baina, geure azterketa enpirikoaren argira horren inguruan zer esan dezakegun sartu aurretik, kontuan hartu behar dugu aipatzen ari garen gizarte-instituzioen kosifikazio derrigortzaile eta deterministaren irudikapen hori lotua dagoela pentsamendu modernoan oso errotuta dauden beste bi planteamenduekin: batetik, subjektu-objektu dikotomia eta, bestetik, aldaketa soziala etengabeko progresu gisa irudikatzea.

Gogora dezagun, lehenengo eta behin, progresuaren ideia inguruan pentsamendu modernoak eraiki duen aldaketa sozialaren irudikapena: modernizatorako edo etengabeko diferenziaziorako joera da gizartearen bilakaera historikoa gidatzen duena. Planteamendu horrek ezartzen du gizarte-sistema guztien bilakaera historikokan badaoela gizartearen azpi-sistemak (lana, politika, ekonomia, kultura...) beraien baitan duten funtzio-banaketa gero eta gehiago diferenziatzeko eta konplexuagoak bihurtzeko joera bat. Diferenziazio funtzionalerako joera horrek, modernizatorako edota progresorako joera da; hots, gizartearen bilakaera historikoa beti jotzen du gehiago modernizatzerara eta hobetzerara modu geldiezinean, etengabekoan eta nahitaezkoan.

Hortaz, gizartearen martxa edo bilakaera modu linealean irudikatzen da, etenik ez duen prozesu automatikoa eta aurre-determinatua; eboluzio naturala bailitzan, badao nolabaiteko sinismena progresu geldiezinarengan.

Progresuaren sinismena, aldiz, krisialdian dago azkeneko urtetan pentsamendu akademikoan. Izan ere, arestian aipatu dugun bezala, post-modernismoaren inguruko debateek sakonki astindu dituzte pentsamendu modernoaren aurreste inplizitu batzuk: arrazionaltasun unibertsalaren existentzia, subjektu arrazionalaren zentralitatea eta historiaren meta-narrazio orokorrak posible izatea. Hiru aurreste horiek elkarloturik agertzen dira progresuaren ideian: gizarte modernoaren etengabeko hobekuntza

lineala; hots, subjektu arrazionalak zientifikoki bereganatu duela giza historiaren hari unibertsala eta progresoarean norabidean ipini duela²⁷⁸.

Izan ere, post-modernitatearen inguruko eztabaida eta debateekin onartu beharra dago Ilustrazioaren subjektu arrazional hori unibertsala izan beharrean oso partikularra suertatu dela: gizona, heldua, zuria, mendebaldekoa, burgesa, heterosexuala²⁷⁹. Eta gizarte modernoaren etengabeko aurrerapen arrazionala ere, unibertsala izan beharrean partikularra suertatu da, razionalitate mota baten etengabeko hedapena: arrazionaltasun utilitaristarena. Azkenik, beste kuestionamendu sakona eurozentrismoari edo amerikanozentrismoari erreparatzen dio; progresoarean ideia eboluzionistak, agerian edo ezkutuan, mendebaldeko modernitatearen eredu instituzionala eta kulturala aurreratua eta hoberena bailitzan aurkezten du, beste herrialde guztiek lortu behar duten helmuga. Horrela, etnozentrismoaren kritika jarraituz, garapen sozialaren inguruan testuinguru batean historikoki eraiki den irudikapen kulturala dena (mendebaldeko iraultza modernoa eta post-modernoa) giza eboluzioaren giltzarri gisa hartzeak, mendebaldekoen harropuzkeri kulturala besterik ez luke adieraziko. Izan ere, hazkunde ekonomikoan eta produktiboan oinarritzen den garapena, dakartzan aurrerapen zientifiko-teknologikoagatik eta konfortagatik, etengabeko progreso geldiezintzat hartzea determinismo teleologikora daraman planteamendua da: giza historiaren motorra, etengabeko hobekuntza ziurtatzen duten balizko indar historikoen esku dago; probidentziak ziurtatuko bailitzan, merkatuaren indarretan eta *laissez-fairean* konfidantza ipiniz gero, edo klaseen arteko aurkakotasunean eta borrokan konfiantza ipiniz gero (materialismo historikoaren meta-narrazioan), gizartearen eboluzio naturalak ageriko helmuga idiliko batera heltzea²⁸⁰.

Historiaren meta-narrazio horiek dira, gaur egun, zalantzan ipini direnak pentsamenduaren arloan. Horrek ez du esan nahi, aldiz, bizitza sozialaren diskurtso sozio-ideologikoetan indarra galdu duten planteamenduak direnik. Teorizazio filosofikoak eta soziologikoak batzutan kontuan hartzen ez badute ere, bizitza sozialean indarrean dauden diskurtso ideologikoez debate akademikoekin lotura badute ere, ez da zertan berehala antzeman behar planteamendu edo aurreste horien balizko krisia. Izan ere, tokian tokiko eta garaian garaiko borroka sinboliko-ideologikoetan eta botere-asimetrietan, debate akademikoek beste elementu edo esparru bat gehiago dira nagusitasun ideologikoen eraketan. Horrela, geure lan honetan egin dugun diskurtsibitate sozialaren azterketaren arabera, gizartearen produkzioa eta aldaketa berezko progreso automatiko gisa eta kontingentziarik onartzen ez duen eboluzio lineala eta saihestezina bezala irudikatzea, geure elkarrizketatuek produzitu duten diskurtso nagusienetarikoa bat izan da: eboluzioak berez dakar hobekuntza eta bizimodu hobea. Horrekin batera, progresoarean etengabeko hobekuntzarekiko sinismen hori onartzen ez badu ere, eta etengabeko hobekuntzaren meta-narrazio lineala ukatzen badu ere; polarizatu du-

²⁷⁸ GARCÍA SELGAS, F. "La reflexividad y el supuesto sujeto" *Globalización, riesgo, reflexividad. Tres temas de la teoría social contemporánea*. Madril, CIS. 2000. Orr. 373-408.

²⁷⁹ GARCÍA SELGAS, F.J. *Política y Sociedad* aldizkariaren 30. zenbakiaren aurkezpenean. 1999.

²⁸⁰ JOAS, H. *The creativity of action*. Polity Press. Cambridge, 1996. Orr. 223.

gun bigarren diskurtsoan, garapen sozialaren kontingentzia ukatzen duen nolabaiteko nahitaezkotasuna onartzen da: gizabanakoak barneratu egiten du, ezinbestean, gizartea ezartzen ari den logika lehiakorra eta utilitarista, saihestezina da. Horrela, produkzio diskurtsibo bi horietan, gizartea, automatismoek gidatzen duten errealitatea da; gizabanakoarentzat derrigortzailea den kanpoko ingurune eraginezina.

Bi diskurtso sozio-ideologiko horiek, beraz, bat datoz arestian deskribatu dugun gizarte-instituzioen kosifikazio eta naturalizazioarekin. Diskurtso hauen hedapen sozialari dagokionez, kontuan hartu behar dugu geure azterketa enpirikoak espazio sozial zehatz batean bilatu dituela diskurtsoen produkzioa eta polarizazioa; hain zuzen ere, prozesu produktiboetatik eta merkatuaren logika lehiakorretik urrunago dauden sektoreetan: ertain klaseko ikasle eta administrazioetako zerbitzu sozial edo kultural-etako langileak. Horrela, beste azterketa baten helburua litzateke merkatuaren dinamika produktibista eta lehiakorretik hurbilago dauden sektoreetan —enpresa handien eta ertainetan lan egiten duten sektoreak, adibidez— nolako produkzio diskurtsiboak polarizatu daitezkeen aztertzea.

Gure azterketari dagokionez, definitu ditugun helburuen arabera eta arestian aipatu dugun hipotesi teorikoa errealitatearekin kontrastatzeari begira, merkatutik urrunago dauden eta mugimendu sozialetan parte-hartzen duten sektore sozialetan nolako produkzio diskurtsiboak berregiten ari diren bilatu dugu; beti ere, partaidetza kolektiboaren praxietan aritzeak gizarte-instituzioen eta gizarte-aldaketaren irudikapen kontingentea ahalbidetzen duen aztertzeke.

Horrela, aurreko atalean ikusi dugun bezala, prozesu sozialetan edota politikotan eragiteko ageriko borondatearekin *praxi* antolatuetan ari direnen artean, ez dute gizartearen kosifikazioa eta naturalizazioa irudikatzen duen diskurtsorik produzitu; are gutxiago, aldaketa soziala, progresoaren etengabeko hobekuntza lineala eta saihestezin bezala antzematen. Historiaren nahitaezko bilakaera bat ukatuz eta aldaketa sozialaren naturalizazioa errefusatuz, etorkizunaren kontingentzia azpimarratzen dute. Era berean, gizartea ez dute beraiengandik apartekoa eta autonomoa den ingurune derrigortzaile gisa irudikatzen, baizik eta egintza indibiduala eta kolektiboaren bitartez sortzen den errealitate gatazkatsua.

Gogora ditzagun, orain, giza egintza eta gizarte-egituren inguruan ezarri genituen zenbait planteamendu teoriko, azterketa enpirikoarekin lotzeko eta hortik nolako hausnarketak egin ditzakegun aurkezteko.

3. GIZA ARTEKOTASUNA: GIZA EGINTZA ETA GIZARTE-INSTITUZIOAK

Lan honen azterketa teorikoan aurkeztu genuen moduan, pentsamendu sozialean, subjektu modernoa izan da erdigunean egon den elementua eta, berarekin batera, gizarte-sistema edo egitura. Subjektu-objektu dikotomiak nolabaiteko nagusitasun inplizitua izan du. Horrela, ikuspegi teoriko batzuen arabera, subjektua heteronomoa da, gizartearen objektifikatutako instituzioek eta egiturek determinatzen dute (normatiboki

funtzionalismo eta pentsamendu sistemikoan; materialki marxismoan). Beste ikuspegi batzuen arabera, subjektua agente autonomoa da (arrazionala eta instrumentala, indibidualismo metodologikoan; intentzioduna eta interpretatzailea ikuspegi konstruktibistetan). Azkenaldian, aldiz, esan bezala, gero eta ahots gehiagok aldarrikatzen dute “subjektuaren deszentralizazioa”; hau da, subjektua, modu autonomoan edo modu heteronomoan kontzeptualizaturik, azterketa sozialaren erdigunetik kendu eta, subjektu-objektu ikuspegitik urrunduz, subjektuaren des-eraikuntza egin. Horrela, azterketa sozialaren erdigunean kokatu beharrekoa aktore-sare esanguratsuen eraketa da (historikoki eta soziokulturaliki kokatuak). Subjektua aktore-sare bezala agertzen zaigu²⁸¹; agente sozialaren beste eredu edo ideia leunago bat proposatzen da, atzean uzten duena subjektu kontzientziadunaren determinismoa zein holismo sistemikoa. Horrek esfortzu berriak ekarri ditu agente sozialaren teorizazioan; guri dagokiguna, arreta berezia ipini diegu, gizabanako arrazionalaren zein normatiboaren zentralitatea errefusatu, *praxiaren* zentralitatea —elementu sozialen sortzaile gisa— proposatzen duten ekarpen teorikoei²⁸².

Hortaz, egungo pentsamendu soziologikoak duen erronka nagusienetarikoa da agente soziala aldi berean determinatua eta determinatzailea den eraikuntza gisa kontzeptualizatzea; eta, era berean, gizartearen instituzioak eta egiturak aldi berean baldintzaileak eta baldintzatuak diren eraikuntza sozio-historiko kontingente gisa kontzeptualizatzea. Izan ere, agente sozialak kokatuak daude aldakorrek diren kokapen sozio-estrukturaletan, errepikakorrek eta erreflexiboak diren praktikak biziberrituz. Praktika horiek dira, hain zuzen ere, errealitatearen eragile determinatzaile nagusiak; agenteak beraiek, agenteen arteko elkarregintzak eta gizartearen instituzioak eratzen baitituzte. Horrela, azterketa sozialaren erdigunean kokatu beharrekoa agenteen *praxi sozialak* dira; beti ere, agenteen ahalmen sortzailea zein gizarte-egituren determinazioa jasotzen duten *praxi sozialak*.

Planteamendu epistemologiko eta analitiko horretatik, gizartearen eraketa eta gizabanakoaren eraketa prozesu berdinen emaitzak dira. Sozialitatean edo giza artekotasunean, gizabanakoaren nortasuna eratzen da; eta, aldi berean, hartu-eman sozialetan gauzatzen diren praktiken bidez, gizartea eratzen da instituzionalizazio eta desinstituzionalizazio prozesuen emaitza gisa.

Oinarri positibista duen subjektu-objektu dikotomia gaindituz, subjektu-subjektu eredia garatzeko tenorean gaude; hartu-eman eta *praxi* kokatuetan (eta ondorioz mugatuetan) etengabeko auto-eraketan dauden subjektu-sareak²⁸³. Gizartea ez da kanpo-

²⁸¹ BRUNO LATOUR, MICHEL CALLON eta DONA HAROWAY dira, besteak beste, norabide horretan proposamen ausartak eta berritzaileak egiten ari diren autore batzuk.

²⁸² GARCÍA SELGAS, F. “La reflexividad y el supuesto sujeto” *Globalización, riesgo y reflexividad. Tres temas de la teoría social contemporánea*. Madril, CIS. 2000. Orr. 374.

²⁸³ SÁNCHEZ DE LA YNCERA, I. “Una socialidad y una personalidad revueltas contra los clásicos (para un vuelco reflexivo de una sociología sin individuo ni sistema)”. *Globalización, riesgo, reflexividad. Tres temas de la teoría social contemporánea*. RAMOS, R. GARCÍA SELGAS, F. (Argital.). CIS, Madril, 1999. Orr. 420-421.

aldea gizabanakoentzat, ez da sistema edo egitura, eratuta dagoena etengabe ari baita biziberritzen praktika zehatzetan; eta, aldi berean, praktika horietan gizabanakoaren nortasuna eratzen ari da. Pertsona, beraz, ez da gizabanakoa giza artekotasuna baizik; eta gizartea ez da sistema, giza artekotasuna baizik.

Beste era batera esanda, geure bizitza elkarbizitza da, bestela ez gara bizi. Gizartearen bizitza elkarbizitza da bestela ez da bizi. Geure eguneroko harreman eta *praxiak* horren adierazpen enpirikoa dira, ezusteko adierazpen antzemanezina. Antzemanezina gizarte modernoaren kulturaren subjektu-objektu edo egintza-egitura dikotomiek antzemanezina bihurtu digutelako. Gizarte-ordenamenduaren reifikazioa eta naturalizazioa —bere izaera sortua eta kontingentea ez antzematea—, giza artekotasunaren berezko ezaugarri unibertsaltzat hartu izan da, baina azkenaldian geure kategoria modernoaren mugapen gisa hartzen ari da²⁸⁴.

Horrela, Modernitatearen pentsamendu soziologikoak bereganatutako dikotomia mugatzaileak eta sinplifikatzaileak gaituz, malgutasun, jarriotasun eta prozesu-izaera duten kategoria eta kontzeptuak behar ditugu giza egintza eta gizartearen azterketarako. Soziologikoki, gizabanako edo aktorearen kategoriak baino, giza artekotasuna eta aktore-sare moduko kategoriak lirakeke egokiagoak. Era berean, gizartea edo gizarte-egitura baino, giza artekotasuna litzateke egokiago; orain arte gizarte gisa izendatu duguna, modu substantzian eta estatikoan, malgutasun gehiagoz eta giza prozesu gisa izendatzeko. Izan ere, alde batetik, giza egintza des-egotizatu behar dugu eta bere testuinguru sozio-kulturalen kokatu (testuinguru hornitzailea eta mugatzailea); gizabanakoaren egintza ez dugu Ego-aren intentzioa bailitzan aztertu behar, ez badugu boluntarismo sinplifikatzailean erori nahi²⁸⁵. *Praxi* soziala, errealitatean gauzatzen den egintza, ez da gizabanako edo giza talde baten emaitza guztiahalduna, baizik eta kokapen sozio-kultural zehatza duen aktore-sare baten giza artekotasunaren emaitza idiosinkratikoa.

Beste aldetik, gizartea giza artekotasuna da, gizartea ez da autonomo eta erabat derrigortzaile den sistema edo egitura finkoa, baizik eta aktore-sarearen eguneroko *praxi* kolektiboetan biziberritzen den elkarbizitzaren antolamendua. Gizarteratze-prozesua testuinguru sozio-kultural batean gizakiak bizi duen moldaketa derrigortzailea eta

²⁸⁴ Castoridis-ek, giza artekotasunaren bilakaera historikoa aztertzeko, edozein logika meta-sozialen determinismoa ukatzen du (Kant-en naturaren Probidentzia, Hegel-en izpirituaren dialektika, Marx-en indar produktiboen garapena, Modernitatearen progreso arrazionala...), historiaren meta-narrazio horien oinarrian greziar-mendebaldeko zibilizazioaren ontologia antzematen du. Metafisika klasiko horrek izateari ematen dio lehentasuna, bilakaera bigarren mailan utziz. Badena izan daitekeena baino lehenago ipiniz, neurgarria eta objektiboa dena jartzen du errealitatearen lehenengo planoan, horren sorrera eta bilakaera posibleak ezkatatuz. Horrela, giza artekotasuna gizarte bihurtzen du, ordenamendu arrazionala, koherentea eta aurreikusteko modukoa. SÁNCHEZ CAPDEQUÍ, C. “El pensamiento social de Cornelius Castoriadis” *Inguaruak*, 23. 1999, orr. 171.

²⁸⁵ SÁNCHEZ DE LA YNCERA, I. “Una socialidad y una personalidad revueltas contra los clásicos (para un vuelco reflexivo de una sociología sin individuo ni sistema)”. *Globalización, riesgo, reflexividad. Tres temas de la teoría social contemporánea*. RAMOS, R. GARCÍA SELGAS, F. (Argital.). CIS, Madril, 1999. Orr. 426.

pasibo gisa ulertzeak ukatu egiten du gizaki bakoitzak bere harreman- eta praxi-sareen joku sozialean egiten duen edota egin dezakeen ekarpen berezkoa eta ezohizkoa (praktikatugabea). Ukatu egiten ditu *praxiak* bultzatzen duen etengabeko bermoldaketa, eta *praxiaren* erreflexibitateak duen ahalmen eraldatzailea.

Horrela, gizarteratzearen irudi pasiboak, elkarbizitzaren reifikazioa eta gizarte-ordenaren naturalizazioa bultzatzen du, bere izaera magmatikoa eta multi-tentsioduna ukatuz; hurrengo puntuan ikusiko dugunez, gaur egungo gizartearen martxa, etengabeko diferentziazio, globalizazio eta konplexutasun estrukturalaren bidetik, geldiezina bailitzan irudikatzen du. Beste era batera esanda, ezkutatu egiten ditu pertsonala eta sozialaren artean dagoen elkarren eraketa, eta elkarren eraketa hori erreflexiboki auto-determinatzeko dauden aukerak.

Geure azterketa enpirikoaren ikuspegitik, esan dezakegu, gizarte-ordenamendua reifikazioa eta naturalizazioa ezin dela giza artekotasunaren berezko ezaugarri unibertsaltzat hartu; baizik eta zenbait espazio sozialetan (*praxi* eta hartu-eman sareetan), berregiten ari den diskurtso sozio-ideologiko dominantea. Esan genezake, Giddens-ek ohartarazten zigun bezala, giza artekotasunaren produktu eta bizi-baldintzen naturalizazio diskurtsiboa ideologiaren alderdi nagusia dela bizitza sozialean. Izan ere, aurreko atalean aurkeztu dugun moduan, beste *praxi* eta hartu-eman sareetan, gizartearen produkzioa eta aldaketa *praxi* kolektiboaren emaitza kontingente gisa irudikatzea, gure errealtatean berregiten ari den beste diskurtso ideologikoa da. Are gehiago, gizartearen kosifikazioa eta derrigortasuna engainu ideologikotzat jotzen duen diskurtsoa da. Hain zuzen ere, konformismoa eta pasibotasunaren oinarrian dagoen irudikapen faltsua: dagoena eta datorrena onartu beharra beste aukerarik ez dagoelako. Gizarte-ordenamenduaren kosifikazioak kolektibitatearen auto-eraketaren kontzientzia ezabatzen du; eta, ondorioz, balizko automatismoak, irudimena eta sormena menperatuz, ezintasunaren nagusitasuna ezartzen du. Gizartea, kanpoaldekotasun derrigortzaile gisa irudikatuz, indarrean dagoen elkarbizitza-eredua eta pertsona-eredua —geure gaur egungo testuinguru sozio-kulturean eredu lehiakorra eta utilitarista—, onartu beharreko gizabanakoaren eta giza artekotasunaren berezko joerak dira, bestelako eredu bideragarritasuna ukatuz. Ikusi dugun bezala, nagusi den horretan adaptatzea eta integratzea biziraupenaren sinonimotzat bihurtzeraino ailega daiteke irudikapen hori.

Ez dugu ahaztu behar, ordea, giza artekotasunak diskurtso sozio-ideologikoak berregiten dituen bezala, diskurtsoek eraikitzen dutela ere giza artekotasuna. Hau da, geure azterketa honetan behin baino gehiagotan baieztatu dugun moduan, hartu-eman eta praktikak egiten dute diskurtsoa eta diskurtsoak praktikak egiten ditu. Espazio sozial bakoitzean aktoreek euren praktikak egiten dituzte (praktika diskurtsiboak barne); eta praktika horiek ezinbesteko dimentsio tenporala eta historikoa dute: aktoreek erreferente sinbolikoak erabiltzen dituzte (eta erreferente sinbolikoek mugatzen die) kokapen sozial ezberdinen artean dauden ikuspegi, tentsio eta interesen arabera. Horregatik, sinbolikoa ez dugu aztertu behar ondorio sozialik ez duen zerbait balitz bezala, baizik eta praktika sozialaren alderdi bat bezala, aktoreek euren praktika erreala eraikitzen baitituzte erabiltzen dituzten erreferente sinbolikoen aukera eta mugen arabera.

Zentzu horretan, gizarte-instituzioak eta egiturak eraginezina den ingurune derri-gortzaile gisa irudikatzen duen diskurtso sozio-ideologikoak, gizartea interpretatzeko modu bat izateaz gain, elkarbizitza eta esperientzia soziala bizitzeko eta eraikitzeko modu bat ere bada. Horrela, adaptazio estrategikoa eta lehiakorra lehenesten duen diskurtsoak edo giza egintzaren heteronomia eta ezintasuna baieztatzen duena, ziurtasun horietan oinarritutako elkarbizitza eta giza artekotasuna sortzen du. Era berean, giza egintzaren izaera autonomoa eta sortzailea baieztatuz, gizartearen izaera kontingentea eta etorkizun irekia baieztatzen duten diskurtsoek, ziurtasun horietan oinarritutako elkarbizitza eta giza artekotasuna sortzen dute.

4. GIZA ARTEKOTASUNA ETA ALDAKETA SOZIALA

Post-modernitatearen inguruko debateek ekarri duten progresoareen ideiareen krisiak edo, zehazki esanda, akademiako pentsamendu eboluzionistaren krisiak, aukera berriak zabaltzen ditu giza artekotasuna eta aldaketa soziala beste modu batera lotzeko. Izan ere, kontuan hartu behar dugu komunitate zientifiko eta intelektualean ere, produkzio teorikoen bitartez, badagoela asimetrikoa den borroka sinboliko-teorikoa errealitatea modu batera edo bestera irudikatzeke; eta, pentsamendu-lehia horrek, bere ondorio zuzenak edo zeharkakoak dituela bizitza sozialaren diskurtso ideologikoetan. Zentzu horretan, Joas-ek azpimarratzen duen bezala, postmodernitatearen eztabaidak ireki duen krisia, aukera berria da berreskuratzeko giza artekotasunak duen sormen potentziala. Horretarako gaintitu beharrekoa da gizartearen irakurketa kositifikatzailea zein aldaketa sozialaren irakurketa determinista; soilik progresoareen sinismena gaintitzeak (gizartearen berezko progresoa hobekuntzaren norabidean) ekar baitezake etorkizuna irekia, kontingentea, ez-jarraitua eta geure gaurko *praxiarekin* lotuta ikustea²⁸⁶. Baina, era berean, gaintitu beharrekoa da ere giza egintzaren eta intentzionalitatearen ikuspegi aktibista eta boluntarista. Aktore-sareen *praxi* kolektiboa hornitzailea eta mugatzailea den testuinguru sozio-kultural batean gauzatzen baita. Mugei baino aukerei begira jarrita ere, gauzatzen den *praxia* ez da aktoreen borondateraren edo intentzionalitatearen ehunetik ehuneko gauzapena; baizik eta gataskan eta, kasurik hoberenean —inmobilismoa eta dogmatismoa nagusitu beharrean, malgutasuna eta aniztasunaren onarpena eta bideragarritasuna nagusitzen direnean— etengabeko negoziazioan dagoen *praxia*.

Hortaz, aktore-sareen *praxiak* duen dimentsio sortzailea ukatu beharrean modu sakonean kontzeptualizatuz, tokirik toki dituen aukerak eta mugak aztertu ahal izango ditugu; eta, horrela, posible izango da gizartearen eta giza egintzaren determinismo utilitarista zein normatibista gaintitzea. Era berean, abiapuntu egokia izango dugu giza artekotasunaren aldaketa historikoa determinismo eboluzionistatik askatzeke; hau da, aktore kolektiboen eraketa aztertuz, sortu ahal izango dugu funtzionalista izango ez den gizartearen (edo giza artekotasunaren) irudikapen teorikoa. Giza egintzaren boluntarismoa edo gizarte-sistemaren berezko mekanismoak onartu barik,

²⁸⁶ *Ibidem* (orr. 185).

praxiaren sormenean eta gatazken bideratze-prozesuetan oinarrituko dena. Izan ere, irudikapen sinboliko-ideologiko ezberdinen arteko antagonismoa da giza artekotasunaren auto-produkzioa eta auto-eraketaren funtsa, eta ez erabateko integrazioa eta kontsensu egonkorra. Giddens, Bourdieu, Castoriadis edo Touraine-k aurrera pauso interesgarriak egin dituzte norabide horretan: *praxia* (sozio-estruturalki kokatua dagoen *praxia*) geure jokaeren, ohituren eta instituzioen etengabeko berrantolaketa gisa kontzeptualizatuz, instituzio sozialen sorrera eta bilakaera ez da nahitaezko eboluzio saihestezina, baizik eta etengabeko biziberritze kontingentea.

Joas-en ustez, teoria horien erreferente normatiboa auto-determinazioaren ideia da. Eta auto-determinazioaren ideia abstraktua demokraziaren teoria batean gauzatu beharko zen; hain zuzen ere, Castoriadis-en eskutik ikusi dugun bezala, giza artekotasunaren autonomian eta auto-produkzioan oinarritutako demokrazia. Demokrazia eredu horretan, partaidetza kolektiboa eta instituzioen permeabilitatea lirateke gakoak; hau da, demokraziaren irudikapen formala eta prozedurazkoa baino harantzago joanez, gizarte-kideen delegazioan oinarritu beharrean, gizarte-kideen partaidetza antolatuan oinarritzea. Partaidetza kolektiboak ahalbidetzen baitu instituzioak eta arauak praxi kolektiboaren etengabeko biziberritzearen emaitza gisa antzematea. Zentzu horretan, instituzio eta mekanismoen egitura formala substantzializatu barik, horien baitan indarrean dauden egintza-prozesuak eta funtzionamenduak dira funtsezkoena demokrazia etengabe gauzatzeko eta sakontzeko; giza funtzionamendu horien araberakoa izango baita instituzioen permeabilitatea eta auto-transformaziorako gaitasuna.

Demokrazia eredu horrek bilatu beharko luke, partaidetza kolektiboaren bitartez eta instituzioen auto-transformazioa ahalbidetzen duen permeabilitatearen bitartez, duintasunean berdinak garenen artean dauden diferentziak (kulturalak zein sozio-ekonomikoak) bideratzea eta armonizatzea. Joas-ek, maila normatiboan irudikatzen den demokrazia horren aurrekari soziologikoak Mead-en pentsamenduan ikusten ditu. Izan ere, Mead-entzat ordena soziala ez litzateke izan beharko kontsensu normatibo baten egonkortasuna, baizik eta auto-transformatzeko gaitasun kolektiboaren emaitza; giza artekotasunak bere arazoak eta gatazkak bideratzeko dituen aterabide posibleen artean kontsensu berriak lortzeko gaitasuna. Kontsensuak bai, beraz, baina modu dinamikoan ulerturik eta ez estatikoan, etengabekoa baita arazoen eta ezusteen agerpena, ausardiaz eta sormenaz gaingitu behar diren gatazkak. Mead-ek “Iraultza Instituzionalizatua” deitu zion benetako demokraziari.

Ikuspegi teoriko horien pertinentzia historikoa oso interesgarria da, egungo aldaketa sozialak mundu mailan hedatzen ari baitira mendebaldeko irudikapen kulturalen oinarritzen den giza artekotasunaren garapen eredu bat; diskurtso sozio-ideologikoen mailan, gizartearen eboluzio naturala bailitzan aurkezten den garapen-eredua, kontingentziarik edo beste aukerarik onartzen ez duen eboluzioa. Izan ere, etengabeko hazkunde ekonomiko eta produktiboa, zalantzan ipintzen ez den giltzarria da ongizate eta bizimodu hobea lortzeko; merkatu globalizatuaren lehiakortasunak, eta etengabeko berrikuntza zientifiko-teknologikoak, berez, elkarbizitzaren eta bizimoduaren hobekuntza ekarriko balute bezala.

Irudikapen ideologiko horretan, globalizazio-prozesua gidatzen duena, meta-soziala eta determinista den logika ebolutiboa da, aktore-sareen eguneroko *praxiarekin* lotuta ez dagoen logika, beraz. Diskurtso ideologiko horren inguruan erabateko kontsensua erakitzeak —eztabaidarik onartzen ez duen eboluzio saihestezin gisa ezartzeak— definitu dezake, neurrian batean, azken urteotako joera sozio-ideologiko nagusia. Hortik dator, hain zuzen ere, Joas, Touraine, Bourdieu eta beste pentsalari askoren deia globalizazio-prozesua demokratizatzeko, eztabaidagai dela onartzeko eta balorapen zein aukera ezberdin dituen prozesu gisa eraikitzeak. Hau da, indarrean dagoen gizartearen aldaketa-joera, giza *praxian* hezurmamitzen ari delako, onartu beharra dago giza *praxia* aplikatu ahal zaiola modu erreflexiboan. Izan ere, John Dewey-ren hitzak gogoratuz eta beste momentu batean aipatu dugun moduan, logika meta-sozialak baieztatzeak oztopatu egiten du aktore-sareek daukaten ardura onartzea, eta borondate horrek ziurtatu dezake soilik giza progresoa²⁸⁷.

Zentzu horretan, azkeneko urtetan mundu mailako hedapena duen mugimendu sozialaren agerpena ezagutu dugu. Hain zuzen ere, “beste mundu bat posible dela” leloarekin aldaketa sozialaren kontingentzia aldarrikatzen duen mugimendua; globalizazio-prozesu bera, giza artekotasunaren aldaketa joera gisa, gatazka politikoa bihurtzen ari den mugimendua: aldaketa-joera horren ondorioak eta norabidea hausnarketa kolektiboaren eztabaidagaia eta negoziazio-gaia bihurtu nahi duena. Horrela, geure azterketa enpirikoan ikusi dugun bezala, beste erreferentzia sinboliko-ideologikoak oinarri hartuta —eta indarrean dauden eredu hegemonia, automatismoen esku dagoenik ukatuz—, egungo aldaketa-joerek pentsamendu ideologikoekin eta jarduera politiko-ekonomikoarekin duten lotura agerrarazi nahi du, baita aurkakotasuna erakutsi ere. Hortaz, kolektibitatearen auto-produkzioaren kontzientzian oinarriturik —indarrean dauden aldaketa-joerak giza egintza kolektiboaren emaitza gisa definituz—; eztabaidarako eta partaidetzarako itxiera salatzen du, giza artekotasunaren auto-determinazioaren nahia eta borondatea erakutsiz. Azken batean, Touraine-k baieztatzen duen moduan, mugimendu sozialen egintza kolektiboak zenbait kultur-balio errealitatean gauzatzea bilatzen du, eta horretarako aurre egiten die botere-harremanen arabera definitzen duen arerioaren interesei eta influentziari. Horrexegatik, erantsi dezakegu guk, giza artekotasunaren produkzioa ez da *praxi* sortzailearen emaitza sinplea, *praxi* hori aktore-sareek etengabe biziberritzen duten testuinguru batean gauzatzen baita, permeabilitatea edo inpermeabilitatea erakuts dezakeen testuinguru batean; protesta, errepresioa, negoziazioa eta diskurtso ideologiko ezberdinen arteko eztabaidan eta gatazkan.

287. JOAS, H. “The democratization of differentiation: on the creativity of collective action”. *Rethinking Progress. Movements, forces and ideas at the end of the 20th century*. J.C. Alexander, Piotr Sztompka (argitaratzaileak). Unwin Hyman. Boston, 1990. Orr. 184-85.

BIBLIOGRAFIA

- ALBERONI, F. *Movimiento e institución*. Editora nacional. Madril, 1984.
- ALEXANDER, J.C. "The new theoretical movement". *Handbook of Sociology*. Neil J. Smelser (ed.) Newbury Park: Sage.
- *Las teorías sociológicas desde la segunda guerra mundial*. Gedisa. Bartzelona, 1997.
- ALEXANDER, J.C., GIESEN B. "From reduction to linkage: the long view of the micro-macro debate", *The micro-macro link*. Alexander, J.C., Giesen B., Münch, R., eta Smelser, N.J. (argit.) University of California Press. London, England. 1987.
- ALEXANDER, J.C.; SZTOMPKA, P. *Rethinking Progress: movements, forces and ideas at the end of the 20th century*. Unwin Hyman Inc. Winchester, USA. 1990.
- ALONSO, L. E. "Funcionalismo y paradigmas sociológicos. Notaciones críticas a un libro de Jacques Coenen-huther". REIS nº 37, 1987.
- *La mirada cualitativa en sociología*. Fundamentos. Madril, 1998.
- BECK, U.; Giddens, A.; Lash, S. *Modernización reflexiva*. Alianza. Madril, 1997.
- BENEDICTO, J.; MORAN, M.L. (argit.) *Sociedad y Política*. Alianza. Madril, 1995.
- BERGER P., LUCKMANN, T. *La construcción social de la realidad*. Amorrortu, Buenos Aires 1993.
- BOURDEIU, P. *Qué significa hablar*. Akal. Madril, 1985.
- *Cosas dichas*. Gedisa. Bartzelona, 1988.
- *El sentido práctico*. Taurus. Madril, 1991.
- *Razones Prácticas. Sobre la teoría de la acción*. Anagrama. Madril, 1997.
- CASQUETTE, JESÚS. *Política, cultura y movimientos sociales*. Bakeaz. Bilbao, 1998.
- CASTORIADIS, C. *La institución imaginaria de la sociedad*. Tusquets. Bartzelona, 1983.
- *Los dominios del hombre*. Gedisa. Bartzelona, 1998.
- CLARK, J. ETA DIANI, M (argit.). *Alain Touraine*. Falmer Press. 1996.

- COHEN, IRA J. "Teoría de la estructuración y praxis social" *La teoría social hoy*. Giddens, A. Turner, J. (bateratzaileak). Alianza Universidad. Madril, 1990.
- CONDE, F. "Los métodos intensivos y extensivos en la investigación social de las drogodependencias". Colegio de Licenciados en Ciencias Políticas y Sociología. Madril, 1991.
- *La vivienda en Huelva. Culturas e identidades urbanas*. Fundación El Monte. Junta de Andalucía. Sevilla, 1996.
- CORCUFF, P. *Las nuevas sociologías*. Alianza. Madril, 1998.
- DAWE, A. "Las teorías de la acción social". *Historia del análisis sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1988.
- DELGADO, J.M. ETA GUTIÉRREZ, J. (bateratzaileak) *Métodos y técnicas cualitativas de investigación en ciencias sociales*. Síntesis, 1994.
- DURKHEIM, E. *Las formas elementales de la vida religiosa*. Akal. Madril, 1992.
- *Metodo soziologikoaren arauak*. Gaiak. Donostia, 1997.
- EMIRBAYER, M. MISCHE, A. "What is agency?" *American Journal of Sociology*. 4. zbk., 103. liburukia. 1998.
- EYERMAN, R.; JAMISON, A. *Social Movements. A cognitive Approach*. Polity Press. Cambridge. 1991.
- GARCÍA BLANCO J.M. "La realidad social como problema: algunas consideraciones sobre la reflexión de la sociedad moderna y la constitución de la sociología" *Escritos de teoría sociológica* liburuan. Carlos Moya, Alfonso Perez-Agote, Juan Salcedo eta Jose Félix Tezanos (Bateratzaileak). CIS, Madrid, 1992.
- GARCÍA FERRANDO, M.; IBÁÑEZ, J.; ALVIRA, F. (bateratzaileak) *El análisis de la realidad social. Métodos y técnicas de investigación social*. Alianza. Madrid, 1990.
- GARCÍA SELGAS, F. *Teoría social y metateoría hoy*. CIS. Madril, 1994.
- "La reflexividad y el supuesto sujeto" *Globalización, riesgo, reflexividad. Tres temas de la teoría social contemporánea*. CIS. Madril, 2000.
- GIDDENS, A. *Las nuevas reglas del método sociológico*. Amorrortu. Buenos Aires, 1987.
- *La constitución de la sociedad...* Amorrortu. Buenos Aires, 1995.
- *Consecuencias de la modernidad*. Alianza. 1999.
- GIDDENS, A.; TURNER, J. *La teoría social hoy*. Alianza. Madril, 1990.
- HARVEY BROWN, R. "Dialectica y estructura en la teoría sociológica. La búsqueda de un método lógico". REIS 37, 1987.
- HAYS, S. "Structure and agency and the sticky problem of culture". *Sociological Theory* 12: 1, 1994.

- HUNT, SCOTT.; SNOW, D.; BENFORD, R. "Marcos de acción colectiva y campos de identidades en la construcción social de los movimientos". *Los nuevos movimientos sociales; de la ideología a la identidad*. Johnston, H.; Laraña, E.; Gusfield, J. CIS, Madril, 1994.
- IBAÑEZ, J. *Del algoritmo al sujeto. Perspectivas de la investigación social*. S. XXI. Madril, 1985.
- IBARRA, P.; TEJERINA, B. *Los Movimientos Sociales*. Trotta argitaletxea. Madril, 1998.
- JAUSORO, N. *La práctica discursiva y el interdiscurso*. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. Leioa, 1996.
- JOAS, H. *El pragmatismo y la teoría de la sociedad*. Centro de Investigaciones Sociológicas. Madril, 1998.
- *The creativity of action*. Polity Press. Cambridge, 1996.
- KLANDERMANS, B.; OEGEMA, D. "Potentials, networks, motivations and barriers: steps towards participation in social movements". *American Sociological Review*, 52. zenbakia. 1987.
- KLANDERMANS, B.; KRIESI, H.; TARROW, S. *From structure to action: comparing social movements research across cultures*. 1. liburukia. Greenwich: Jai Press. 1988.
- KRIESI, H. "El contexto político de los nuevos movimientos sociales en la Europa Occidental". *Las transformaciones de lo político*. Benedicto, J. Reinares, F. (argit.) Alianza. Madril, 1992.
- LAMO DE ESPINOSA, E. GONZÁLEZ, J.M. TORRES, C. *La sociología del conocimiento y de la ciencia*. E. Alianza, 1994.
- LATOUR, B. *Nunca hemos sido modernos*. Debate. Madril, 1993.
- MARX, K. ENGELS, F. *La Ideología alemana*. Pueblos Unidos. Montevideo y Grijalbo, Barcelona 1970.
- *Obras Escogidas*, 2. liburukia. Fundamentos, Madrid 1975.
- *Alderdi Komunistaren Manifestua*. Jakin, irakurgaiak. Donostia, 1998.
- MC ADAM, D. "Specifying the relationship between social ties and activism". *AJS*, 99. liburukia, 3. zenbakia. 1993.
- MC ADAM, D.; MC CARTHY, J.; ZALD, M. (argit.) *Comparative Perspective on social movements; political oportunities, mobilizing structures and cultural framings*. Cambridge University Press. 1996.
- MELUCCI, A. "Frontier land: collective action between actors and systems". *Studying Collective Action*. Diani, M. Eyerman, R. (argit.). Sage. London, 1992.

- “Asumir un compromiso: identidad y movilización en los movimientos sociales” *Zona Abierta* 69, 1994.
- *Challenging Codes. Collective Action in the information age*. Cambridge University Press. 1996.
- NISBET, R. *La formación del pensamiento sociológico*. Vol. I Amorrortu. Buenos Aires, 1969.
- RIECHMANN, J. FERNÁNDEZ BUEY, F. *Redes que dan libertad: introducción a los nuevos movimientos sociales*. Paidós. Bartzelona, 1994.
- RODRIGUEZ IBÁÑEZ, J.E. *La perspectiva sociológica*. Taurus Humanidades. Madrid, 1992.
- SÁNCHEZ CAPDEQUÍ, C. “El pensamiento social de Cornelius Castoriadis” *Inguruak*, 23, 1999.
- SÁNCHEZ DE LA YNCERA, I. “Una socialidad y una personalidad revueltas contra los clásicos (para un vuelco reflexivo de una sociología sin individuo ni sistema)”. *Globalización, riesgo, reflexividad. Tres temas de la teoría social contemporánea*. Ramos, R. García Selgas, F. (Argit). CIS. Madril, 1999.
- SOLÉ, C. “La teoría de la estructuración de A. Giddens” *Escritos de teoría sociológica* liburuan. Carlos Moya, Alfonso Perez-Agote, Juan Salcedo eta Jose Félix Tezanos (Bateratzaileak). CIS. Madrid, 1992.
- SZTOMPKA, P. *Society in Action*. Polity Press. Cambridge, 1991.
- *Sociología del Cambio Social*. Alianza. Madrid, 1995.
- TEJERINA, B.; FERNÁNDEZ, J.M.; AIERDI, X. *Sociedad civil, protesta y movimientos sociales en el País Vasco*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua. Gasteiz, 1995.
- TOURAINE, A. “An introduction to the study of Social Movements”. *Social Research*, 52. liburukia, zenbk. 4. 1985.
- *Movimientos Sociales hoy*. Hacer Editorial. Bartzelona, 1990.
- *Crítica de la Modernidad*. Temas de hoy. Madril, 1993.
- *Igualdad y diversidad*. Fondo de Cultura Económica. Mexico, D.F. 1998.
- UNZUETA, I. “Lanaren inguruko problematika Frankfurteko Eskolaren lehendabiziko belaunaldian”. *Inguruak aldizkaria*. Zbk. 19, 1997.
- URTEAGA, E. “Mobilizazioaren teoria soziologiko berri baten zirriborroa”. *Uztaro*, 15. zbk. 1995.
- “Iparraldeko mugimendu antimilitaristaren sorrera: baldintzak eta aktore kategoriak” *Inguruak*, 21. zbk. 1998.
- WAGNER, P. *Sociología de la modernidad*. Herder. Barcelona, 1995.

-
- WEBER, M. *Economía y sociedad*. Fondo de Cultura Económica. Mexiko D.F., 1992.
- *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*. Gaiak Argitaldaria. Donostia, 1996.
- ZUBIAGA, M. “Euskal Nazional Mugimenduaren aukera politikorako egitura”. *Ingu-ruak*, 7. zbk. 1992.

Ikerlana giza egintza eta gizarte-egituraren arteko dikotomian oinarritzen da eta analisia ez da EAera mugatzen, bere luze-zabalak gure muga geografikoak gaindituz.

Lana hiru ataletan egituratzen da: lehenengoan giza egintza eta gizarte-egituraren azterketa soziologikoa ikuspuntu teorikotik egiten da; bigarrenean enpirikoki aztertu da partaidetza kolektiboa. Aztergaia, beraz, hauxe da: mugimendu sozialen bitartez gauzatzeko den partaidetza kolektiboak nolako hartu-emana daukan gizarte-instituzioak eta egiturak antzemateko moduarekin, baita gizartearen produkzioa eta aldaketa irudikatzeko moduarekin ere. Horretarako, metodologia koalitatiboaz baliatuz, globalizazioari eta aldaketa sozialari buruzko diskurtso sozio-ideologikoak aztertu dira euskal gizartearen zenbait espazio sozialetan (ikerketa koalitatibo horren oinarria mugimendu sozial ezberdinetan parte hartzen dutenak eta ez dutenak osatzen dute). Hirugarren atala ondorioei dagokie.

Egindako azterketatik ondoko lau diskurtso mota bereiztu ahal dira globalizazioari buruz: adaptazioarena, ezintasunarena, itxaropenarena eta aurkakotasunarena.

Egilea

Zesar Martinez Garcia (1968) Soziologian lizentziatua da Deustuko Unibertsitatetik eta doktorea Euskal Herriko Unibertsitatetik.

Zenbait erakundeentzako ikerketatan parte hartu du, adibidez EHU, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia edo CICYT-entzat. Liburu eta artikulua batzuk ere argitaratu ditu, horien gai nagusia egintza kolektiboa eta gizarte-mobilizazioa batez ere izanik. Argitalpen horietatik nabarmenezkoa da *La acción colectiva en el ámbito de la solidaridad internacional* (2001).

Gaur egun irakaslea da Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Soziologia 2 sailean.

ISBN 84-457-2002-3



9 788445 720028

SALNEURRIA: 11 €